



TINKOKETA



BIZKAIKO BERTSOLARI  
ELKARTEA



TINKOKETA



BIZKAIKO BERTSOLARI  
ELKARTEA



BIZKAIKO BERTSOGINTZA  
IZENGABEAK

Xabier Amuriza

Be  
ai

BIZKAIKO  
BERTSOGINTZA  
IZENGABEAK

A  
sol  
hul  
puntarik erdiak

Kalien nago kalien  
harri hotzaren ganien  
atie nok edei ez da  
gabak emon daidanien

Aldazlorrean nengoenean  
irra goruetan  
erroi zaharra etorri  
jalan grauetan

Be  
ai

Xabier Amuriza

Seintxo bat sabelean  
beste bat besoan  
gizona tabernan da  
artoa auzoan

Arrabako landea  
balego Gorbeien  
hantxe egingo geunka  
zirikin zakien

Astotxo bat banenako  
buzten zuriegaz  
Ermure joateko  
gona gorriegaz

Eguzkie joan da  
bere amagana  
bihar etorriko da  
denpora ona bada

le gureak amari  
gorrie ekarri

**BIZKAIKO  
BERTSOGINTZA  
I  
IZENGABEAK**

**Xabier Amuriza**

LAGUNTZAILEAK:



BIZKAIKO BERTSOLARI  
ELKARTEA

**Bizkaiko**



**ZENBAT GARA**  
kultur elkarteak



■ Bizkaiko Foru  
Aldundia

Kultura Saila

■ Diputación Foral  
de Bizkaia

Departamento de Cultura

Azala: **Juan M<sup>a</sup> Perez**  
Autore eskubideak: **Xabier Amuriza**  
Argitalpen eskubideak:

© **Kulturgintza**

Diputazio kalea 3, 1goa esk  
48009 BILBO

© **Bizkaiko bertsolari elkarteak**

Karmen kalea, 14  
48340 ZORNOTZA

© **Tinkoketa S. L.**

Gran Via 24, 1goa  
48001 BILBO

Inprimategia: **Gertu Koop. E.** (Zubillaga-Oñati)

L. G. : BI-928-95.

I. S. B. N. : 84-88747-26-8.

*Iturriak* gehigarrian izendatzen ditudan laguntzaileez gainera, eta lankiderik behinen gisa, Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Bibliotekako zerbitzua, eta bertan batez ere Josune Olabarria, eta Labayru Ikastegiaren Derioko Euskal Bibliotekako zerbitzua, eta bertan batez ere Jon Elorriaga, eskertu behar ditut.

# AURKIBIDEA

Hitzaurrea .....	9
Lehen partea: KOPLARITZA .....	17
Zaharrak edo arkaikoak .....	27
Dantzarakoak .....	39
Eske koplak .....	125
Argumentudun konposizioak .....	157
Gabon koplak .....	283
Bigarren partea: BERTSOLARITZA .....	347
Gabon bertsoak .....	351
Bertso politikoak .....	423
Bertso erlijiozkoak .....	487
Gertaerak eta umorezkoak .....	521
Beste batzuk .....	601
Hiztegia .....	655
Piezen aurkibide alfabetikoa .....	673
Iturriak .....	689

# HITZAURREA

## HELBURUA ETA MUGAK

Izenburua alderantzituz, has gaitezen mugetatik. Lan honen abiagunean, duela urte batzuk ETOR argitaletxearentzat egiten hasi eta bertan behera gelditu zen lan bat dago. Orduan *Bertsolaritzaren Historia* izen orokorpean, Euskal Herri osoa hartuko zuen asmo eskerga bat proposatu ziguten argitaletxe horretatik, non dozena bat lagunek, bakoitzak esparru jakin bat harturik, bilduma ahalik osoena burutuko zuen. Nik bizkaieraren esparrua hartu nuen, zaharrenetarik azken gerraurrearaino.

ETOR argitaletxeak porrot egin zuen eta bitartean genbiltzanon asmoa ere hartan ezereztu zen. Nik izengabeen bilduma nahiko aurrertua neukan, baina hantxe gelditu behar izan zuen apal batean hautsak jaten.

Urte batzuk iraganik, Bizkaiko Bertsolari elkarteari adierazi nion etxean zer neukan erdi egina, eta norbaitek falta zen lanaren ordaina aurreratzen bazuen, prest nengoela amaitzeko. Ondo iruditu zitzairen eta halaxe hartu nuen hiru hilabeteen bilduma hura burutzeko konpromezua. Gero Bilboko *Gabriel Aresti Euskaltegiak* ere bere gain hartu zuen asmo hau eta geroago *AEK*'k ere bai. Azkenean beraz, baten faltan, hiru babesle egokitu zaizkit eta eskertzekoa da, hauek gabe ez bait zen egiterik izango.

Hitzak hala, nire lan nagusia eskuartean neukana atontzea eta ematea izan da. Zenbait bilketa berri egin dut, baina oro har lehendik bildua neukanari lotu natzaio. Beraz, bilduma guztiak ere nahitaez mugatuak badira, guztizko osotasuna lortzerik ez bait dago, nirea mugatuago gerta daiteke. Hala ere uste dut nahiko bilduma handia eta osoa dela, eta hiru barik sei hilabete dedikaturik ere, agian ez nuela asko mardulduko. Lehen bilaldi zabalean, iturri eta lekuko multzo ustez gehiena bahetu eta handi-handienak jaso ondoren, gero denbora luzea behar da han-hemen zerbait gehigarria aurkitzeko, non aurki litekeen ere ez bait dakizu. Astebetean hara eta hona, beharbada ez duzu ezer aurkitzen. Bistan denez, lan horri ez diot ekin, egina neukanari irtenbidea eman baizik.

Gehiago biltzea alboratu badut, are gehiago zenbait datu hornitzea. Honelako bilduman, batez ere koplak edo bertso zahar samarretan, bizi guztia dedikatzeko aina ikergai agertzen da. Badago hala ere, denbora apur bat sarturik, hainbat argibide osagarri ematea. Esaterako, Bizkaiko dantza kopletan bada behin eta berriz agertzen den pertsonaia bat, Matxalen Busturiko, zeinaren datu batzuk eskergarri litezkeen. Oso emakume entzuna eta libre samarra izan behar zuen, garai hartarako libreagia nonbait. Honelako araketak beste baterako edo beste batzuren zatituz utzi ditut.

Bilduma honen edukian lo-kantak eta haurren jolas kantak kanpora utzi ditut. Hemen bertsogintza aduloa bakarrik sartzen da. Egin zitezkeen bestela ere, baina haur kantek oso genero propioa daukatela eta beste era bateko trataera behar zutelak pentsatu ditut.

Doñuetan edo musikan ere ez naiz sartu, batzuri agian horixe axolako zaie gehien baina. Horrek bilduma asko konplikatu eta luzatuko zuen, Azkueren **Cancionero Vasco**'z aparte, besteetan oso gutxitan jasotzen bait da doñurik edo doinuen aipamenik. Badakit oso interesgarria litzatekeena, bai arlo horrek beste ikerlan luze bat beharko luke.

Ematen ditudan ohar ugarien artean, batzutan ez dakidala esaten dut, autore batentzat aitormen luzitua ez bada ere. Ez da askotan gertatzen, baina gertatzen denean, adierazi egiten dut. Hori batez ere hitz eta pasarte ilunetan gertatzen da. Neurri bateraino ahalegindu eta zenbait kontsulta eginik, argitu ezin izan dudana bere hartan uzten dut eta kito. Ez nintzen ibiliko astebetean itzulka eta bazterrak molestatzen, hitz bat argitzeko, edo azkenean bera ere dudan uzteko, edo errata bat izan dela aurkitzeko. Hori dakiguna erakutsiz eta ez dakiguna ezkutatu ekiditen dena badakit, baina seinalea uzteari duinago deritzot, nik ez dakidana irakurleak ere ez jakitea litekeena bait da. Horrela behintzat badaki bere ezjakinean autorea ere kide duela.

Mugak muga, goazen orain helburura. Bilduma baten helburu nagusia bilduma bera da, eta kasu honetan, bizkaierazkoa guztiz sakabanatua eta ezezaguna izanik, osotasun bat eskaini nahi nuen. Lehenengotan ez neukan antzik ere zer aurkituko nuen. Egongo ote zen asmoak eskatzen

zuen bezain liburu mardula betetzeko lain? Laster ohartu nintzen bat ezezik bi osatzeko ere bazegoela gaia. Orduan bata **izengabeak** eta bestea **izendunak** banatzea pentsatu nuen eta orain ere bitasun horri eutsiko diot.

Bildumaren helburu nagusia beterik, hurrengo gakoa da nola ahalik ulergarrien eman, bizkaierak sortzen dituen zailtasun handiak kontuan izanik. Lehenengo arazoa ortografia da. Horretan ez dut zalantza izpirik eduki, ortografia gaurkotuan eman behar nuela. Hau ez da edizio kritikoa ez etnografikoa, altxor bat ahalik gehienentzat ahalik eskuragarrien jartzekoa baizik. Alde horretatik badakit begia ohituta ez dagoen ortografiak idatzitako testuak irakurtzea zenbat kostatzen den. Oso xede teknikoa, fonetikoa, konparatiboa edo gisako zerbait daukan ikerkuntza ez bada, testuak eguneko ortografian emateari arrazoiketarik behar ez duen ebidentzia deritzot.

Ortografia gaurkotzeak, jakina, zenbait arazo dakar bere gain. Euskalki beraren barruan badira azpi-euskalkiak, zeinen nabardurak errespetatu beharra dagoen, neurriagatik, errimogatik edo halaxe eginda daudelako soilik. Honetan bizkaieraz hiru azpi-euskalki handi daude, J letraren ahozkatetik berez daitezkeenak: Y, J eta JJ. Ez da noski berezle bakarra, horren azpian sistema osoa bait dago, baina hots horrek banakuntza oso zehatz markatzen du. Horrela *jan*, *jo*, *jagi* adibidez honela entzungo dira azpieuskalki bakoitzaren arabera: *yan*, *yo*, *yagi*, edo *jan*, *jo*, *jagi* (jota espainolez), edo *jjan*, *jjo*, *jjagi* (jota frantsesez). Ortografia batuan dena jotaz idaztea erabakita dago, ahozkatzea bakoitzaren arabera utzirik. Zalantzan egon ondoren, azkenean *Yota* sisteman zeudenak seinatzea erabaki dut, beste biak *Jota* hutsean utzirik, irakurlearen begiak gehiegi ez endregatzeko.

Baina arazoak hasi besterik ez dira egin, hiru sistema nagusi horien barruan, bakoitzak beste hainbat azpi-sistema bait dauka. Batuen *Yota* sistema da, nagusiki hiru azpi-sistema hartzen dituen: Arratia-Zeberiotik Bilboraino, Txorierri eta Uribe kosta. *Jjota* sistemak Bermiotik Lekeitiorainoko kostaldea hartzen du, lur barrurantz gutxi-asko sartuz. Hemen ere nagusiki hiru azpi-sistema jo daitezke: Bermio ingurua, Elantxobe

ingurua eta Lekeitio. Beste guztia, bai Bizkaiko eta bai Gipuzkoako eta Arabako bizkaiera eremua, *Jota* sisteman sar daiteke, eta hemen azpi-sistemak ugari eta gusto guztietakoak daude. Alde batean Orozko aldean utzi dugu, sistema propioduntzat jo dezakeguna, eta baita agian Otxandio ere beste aldean, bien artean antxinako Arabako uztaiari bizirik geratzen zaizkion bi mutur osatuz.

Baina arazoak ez dira hiru azpi-euskalki eta hainbeste azpi-sistematan amaitzen. Jasotako testuak, koplak edo bertsoak, bakoitza bere azpi-euskalkian eta azpi-sisteman garbi baletoz, ez legoke inolako koskarik. Baina hortxe dago gako nagusia, askotan oso nahasian datozela eta onenean ere beti zerbait gurutzatuak. Horren arrazoi nagusia transmisioa izan daiteke, azpi-euskalki ezberdinetako lekukoen bitartez heldu zaigulako.

Guzti hau gogoan ukanik, batzutan zenbait lokalismo eta inkoherentzia nabarmen leundu egin ditut. Esaterako: *Hauxe da despedidea, despedide honen tristea... etxera doa jentia*. Edo: *Ederregie zara zu soloan beharrerako, hartuixu kabailerue kalia pasietako*. Bistan da *jentia* eta *kalia* horiek *jentea* eta *kalean* behar dutela. *Pasietako* horrek ere *paseetako* behar luke, baina hori barkagarriago litzateke.

Honelako inkoherentziek sorta beraren barruan, eta batez ere koplak edo bertso beraren barruan, itsusiak dira. Dena den, normalean ez dut eskurik sartu, nabarmenegi iruditu ez bazait.

Irakurlea laster ohartuko denez, sorta bakoitzaren azpian ohar argigarri asko jartzen dut, hitzen eta aditzen esanahiaz. Badakit hori zenbat eskertzen den, testu ulergaitz samarren aurrean lehenengo tentazioa —gehienean erortzekoa— bertan behera uztea izaten bait da. Hau ez da ikas-liburua, gogo dagoenean irakurtzekoa baizik, eta gogo hori zailtasunak laster desgogotzen du, oso setatia ez bada.

Eta oharrak sorta bakoitzari. Bada azkenean hiztegi orokor bat, baina hori ez da praktikoa izaten. Liburu hau, normalean, lantzean zati bat irakurtzekoa da, halako sorta edo bestelakoa, eta orduan ez da batere eroso atzeko hiztegi bueltaka ibiltzea, sarritan nahi den hitzaren

argibiderik ez aurkitzeko gainera. Pare bat atzera-aurrera alperrik egitea aski da, aipatu tentazioa erortze bilakatzeko. Xehetasun asko dago, hiztegi orokor batean zentzurik ez daukana, agian liburu osoan behin bakarrik agertzen delako. Baina xehetasun horiek, dagokion tokian, oso beharrezkoak dira, sorta hura ulertzeko. Eta honelakoak, koplak bezain genero xehe eta erabat ahozkoan, txitean pitean agertzen dira. Esan beharrik ez dago hiztegi orokorraz aurretik jabetzen direnei askoz errezago egingo zaiela gero dena, baina horrelako saiatiak zenbat izaten diren, kalkuluak antzinatek aterata daude.

Hemen jakinarazi nahi dut, hitzen esanahia eta definizioa azaltzean, maiz erabili dudala **ELHUYAR Hiztegi Entziklopedikoa**.

Liburu honen hartzailegai edozein euskaldun da, Bizkaikoa, Maulekoa, nahiz Elkokoa. Bizkaiera ezagutzen dutenei ohar asko agian irain begitanduko zaie, baina pentsa Bizkaian ere asko direla, gazteak eta euskaldun berriak batez ere, bizkaiera oso edo aski arrotz zaienak. Eta zer esanik ere ez bizkaieratik at. Euskaldun irakurleok, bestela ere hain gutxi izanik, gehitzeko eta elkar estimatzeko bideak erretzen ez baditugu, azkenean norbere etxean ere arrotz aurkituko gara.

Azkenik, bilduma honetan zati errepikatuak mehatzu egiten dira. Iturri ezberdinetan hainbat gauza berdin edo berdintsu agertzen da. Orduan argi dago hautatu egin behar dela. Askotan zenbait aldaera jaso egin ditut, zerbaitetan ezberdin edo, kontextu baten osagai gisa, beharrezko direlako. Irakurtzen ari dena nondik eta nola hartua izan den aztertu nahi lukeenak, han dauka sorta bakoitzaren ondoren bere iturriaren aipua, non pieza bakoitza iturriaren osotasunean eta forman aurkituko duen.



**KOPLARITZA**

Koplaritzan sartzen denak bertsoariatzako pentsakerak atean utzi behar ditu. Kopla ez da bertso labur bat, luzeago baten erdia edo laurdena, hamar urteko haurra hogeikoaren erdia edo berrogeikoaren laurdena ez den bezala. Luze-laburrak generoa asko erabakitzen du, jakina. Kopla oso laburra izanik, ez du betelanik jasaten. Egongo dira bertsoariatzaren burutik osatuak ere, ez bait dira bata bestetik hain urrun dauden generoak, baina bi puntuko edo gehienez ere hiruko kopletan, betelanerako tokirik ez dago. Hortik gorakoak ez dira koplak, bertsoak baizik, batzutan muga berezlea zehatzegia ez bada ere.

Handi handika, koplak bi sailetan banatu ditut liburu honetan. Batzuk elkar-loturarik gabeko kopla soltez osaturiko sortak, eta besteak argumentudun sortak. Erromeri koplak, dantzarakoak, gehienik lehen sailekoak dira, ugarietak gainera. Normalean dantzaldi bakoitzean hiru edo lau kopla kantatu ohi dira, jendeari arnasa hartzen uzteko ere. Kopla horiek gehienez bata-bestearekin zerikusirik ez daukate, argumentuan behintzat.

Badira argumentudun kopla sortak ere, ez hainbeste dantzarakoetan, baina bai eskean eta gabonetan. Eta zer esanik ez balada eta erroman-tzeetan. Hauek ere, nahizta oso aire bereziko konposizioak izan, koplari-tzan sartu ditut.

Koplen izpirituari gagozkiola, logika diskurtsiboa baino areago logika bisuala daukatela esan genezake.

Gorbei altuen edurre  
bota surtera egurre  
alaba galanten amak  
mutil zantarren bildurre.

Errekan dago harrie  
haren ganean txorie  
neskatxa kolore gorrie  
mutilen engainagarrie.

Hain koplak polit hauen xarma ikuspenean dago. Mendi altuko elurra eta sutara botatzen den egurra amaren bildurraren hondo piktorikoa bezala dira. Bigarrenean ere harriak eta haren gaineko txoriak errekarren magaletik neskak kolore gorria zaintzen dute. Koadru batean irudi zentralak ingurua edo kokapena behar du. Argazki onen sekretuetariko bat ere horixe da, ingurua hautatu eta neurtu, behar duen dimentsioa eta presentzia eman. Hori ondo egiteko sena daukatenean, artelana lortzen dute.

Edo elementu batzuk begi aurrean jarri eta ondorio bat atera:

Ule trentzia gerriraino  
zeda mantoia lurreraino  
bedorren langorik ez dauela  
Sibirijetik honeraino.

Edo paralelismo edergarriak:

Bedarrik onena da  
soloan garie  
andrarik ederrena  
Birjina Marie.

Edo pare bat elementuren kontrastez osotasun hunkigarri bat:

Astotxo bat baneuko  
buzten zuriegaz  
Ermure joateko  
gona gorriegaz.

Kopla honek zirrara egin dit beti. Buztan zuria eta gona gorria hain nabarmen ikusten dira, ezen astotxoaren eta neskaren irudiak ezabatu egiten dira, edertasun inmaterialean. Koplagileak ez zuen noski hau

guztia pentsatuko. Hark ikusia, begietan zeukana besterik ez zuen kantatu, baina oharkabean azartatu egin zuen, astoaren eta neskaren elementu bana hautatzean. Eta biak koloreak.

Olagizonak eta  
errementariak  
frakatxu zaharrak eta  
begiek gorriak.

Irabazten dituez  
pezeta zuriek  
eroaten deutesiek  
euren egarriak.

Hauetan ere begi gorriak eta pezeta zuria koloretan datoz. Eta kolore gehiago:

Begiek baltzak baltzak  
azala zurie  
munduen askok dau  
zure enbidie.

Txakur gorri polit bat  
galdu jaku guri  
belarri baltzak eta  
burua belegi.

Ikusmena bezala, entzumena ere oso bertan dago kopletan, onomatopeiaren bitartez. Begiari kolorea zaiona, belarriari hotsa zaio, eta koplaritzan baliabide onomatopeikoak ugari aurkituko dituzu: *tiriki tauki tauki, turruku truku truku, dingili dangoloa, inkirrinki soinue, dringilin dron, zirikin zakien, Abustin kirre marro*, etab.

Zentzuak, ikusmena eta entzumena batez ere, nabarmentzea ez da inolako planteamendu estetikoren ondorioztat jo behar koplaritzan. Gauza nabaria, bertakoa, sinpleena da hori. Adimena zentzuen ondoren, geroago dator. Koplen logikari buruzko interpretazio sarritan sublimegiak koplariak berak entzungo balitu, esango luke:

*-Hemen ez zegok misteriorik. Zer kantatuko diat, ba, ikusten eta entzuten dudana besterik?*

Koplaren sorlekua eta kantalekua natura bera da, ez koplariak berariaz hautatua, hantxe aurkitzen delako baizik. Dantzalekuak mendiz, soroz, ibaiz, zuhaitzez, animaliz, jende mota oroz inguraturik zeuden.

Eske eta erronda koplak ere berdin. Etxeetan haizkorak, haitzurak, ganbarak, teilatuak, ereinotzak, erromeruak, izarrak, ilargia... hantxe dago dena. Zer kantatuko zuten, ba, zapaltzen ari ziren lurra eta gainean zeukaten zerua besterik?

Kopletan bada noski arrazoiketa ere. Bizi zuten mundua islatuko da, umore puntuan beti ere, koplak dibertsioa edo azaskua jatzeko bait dira. Eta agian umore mota horretantxe dago koplartzaren eta bertsolaritza mota baten arteko alde nagusia. Koplartza ironian oinarritzen da, ez zirian. Ironia sarritan miseria edo egoera errukarriak karikaturatzea izango da, baina ez ziria sartzea. Ziri bertsoa edo eraso zuzena maite duenari koplartza agian xaloegi, inozoegi irudituko zaio. Bi mundu dira. Bata ala bestea gustatzea zilegi da. Biak gustatzea onena. Ironia bera ere batzutan xumea, bide batezkoa izan daiteke, eta beste batzutan argiagoa eta zuzenagoa, baina beti ere itzulinguru bat gorde behar du, ona izango bada, eta fina izango bada, ia oharkabean joan behar du.

Aite gureak amari  
gona gorrie ekarri  
luze dala labur dala  
garri garritik erdi bi.

Ai mutil hankaluze  
txotxo armario  
gantzontzilo borlea  
bernatik dario.

Hamalau zapatarik  
ein dabe juntea  
zeinek lehenago josi  
zapata puntea.

Oh neska farandona  
akerran bekoki  
zazpi arto zati ta  
babalapiko bi.

Urkiolako denderuari  
larogeigarren urtean  
zaldar batek urten deutso  
orkatileko zanean.

Azken biok, darabiltzaten kalifikatzaile eta konparantzengatik, bistan dute ironikoak ezezik, burlazkoak ere badirela. Baina lehen hiruretan gaiaren oso jakile izan behar da, anormaltasunik baden eta zertan den

somatzeko. Eta jakinda ere, oso arretaz egon ezik, oharkabean pasatzea aisa gerta liteke.

Koplartza ez da arrazoi distiratsuak, idea handiak bilatzeko tokia, egi xumeak, konstatazio sinpleak eder bihurtzen dituen baizik. Kopla askok euren xalotasun malezi gabeari zor die edertasuna. Horrek ez du esan nahi koplariak berak edo entzuleak malezirik ez daukanik, generoa bera halakoa dela baizik.

Eguzkie joan da  
bere amagana  
biher etorriko da  
denpora ona bada.

Urkiola ganeko  
lirio lorea  
handixe gora dago  
zerura bidea.

Ederrak bi balio  
onak hiru ta lau  
galanta izateak  
asko balio dau.

Koplartzak errepika bere-berea du, dantzakoetan batez ere. Liburu honetan ez dut errepikarik ematen, alperreko luzera ematea litzateke-elako, eta errepika mota ezberdinak daudelako, baina bistakoa da aurreko kopla, adibidez, honela kantatu behar dela:

Ederrak bi balio  
onak hiru ta lau  
ederrak bi balio  
onak hiru ta lau  
galanta izateak  
asko balio dau  
ai oi ene  
asko balio dau  
ederrak bi balio  
onak hiru ta lau.

Hitzak, beraz, hortxe dabiltz itzulka, elkar kiribilduz, eta hori gabe koplartzari bere bizitasunetariko bat kentzen zaio. Alperreko errepikak direlakoan, lau edo bost puntuko ahapaldiak sartzea generoa izorratzea da. Bertsolaritza koplartzara gaizki aplikatzea, edo zuzenago esanda, koplartza inbaditzea.

Kopla zatien errepika honetaz gainera, kopla barruan bertan ere bada beste errepika formal bat, genero honek oso maitea duena.

Dingili dango Marine  
beti honela bagine  
beti honela izateko  
burue deukek arine.

Kalien nago kalien  
harri hotzaren ganien  
atie nok edei ez da  
gabak emon daidanien.

Antonio goiko kalekok  
txahalen dirua zor deko  
txahalen dirua pagetako  
bibolina jotzen dago.

Lezamako neskabila  
neskabila baltzerana  
arpeian ezagun dozu  
Lezamatarra zarana.

Hitz bat, hitz bi, edo esaldi osoak errepika daitezke, baina ez mekanikoki, progresiboki baizik. *Beti honela* horrek batean *bagine* definitzen du eta bestean *izateko*. Baliabide hau batez ere erromantze eta baladetan nabarmentzen da:

Aitak eta amak biraldu nabe  
datorkigula geurera  
datorkigula geurera eta  
geurekin apalduera.

Egin zuen berba bat eta  
sartu zuen kapapean  
sartu zuen kapapean eta  
eroan zuen ontzian.

Errepika lege horrek inoiz errima bera ere hartzen du. Batzutan errimarekiko erizpide laxoa izango da, beste batzutan lekuko edo transmitzailearen akatsa, baina beste batzutan errepikaren balio estetikoak har dezake.

San Antonio, San Antonio  
txarrie geixo danean  
San Antonio ez da esaten  
urdeie jaten danean.

Errekara juanda  
begi bijek bota  
bat baino ez dekonak  
bijek ezin bota.

Bada lehenengoaren aldaera bat, diona:

San Antonio, San Antonio  
txarrie geixo danean  
San Antonio ez da esaten  
urdeie datorrenean.

Nik, bat beharrean, lehenengoa nahiago dut, ez bait dut potoaren alde peioratiboa begiratzen, errepikaren paralelismo positiboa baizik. Bigarrenean ere potoa konpondu nahiak paralelismo dotore bat, *begi bijek bota-bijek ezin bota*, zapuztuko luke. Errimaren errepikak balio positiboa edukitzeko, beste balio batzuren gainean joan behar du, hots, kopla osoak zerbaitegatik polita izan behar du. Kopla eskasa potoak eskasagotu egingo du. Dena den, argi dago koplartzak erriman ez duela bururik asko nekatzen, eta potoaren alegazioa egiten bazaio, segurrenik kontzeptu horren oharmenik eduki ere ez dauka.

Azkenik, koplartzan narrazioa eta elkarrizketak plano berean eskaintzen dira. Batetik bestera inolako zubirik edo abisurik gabe iragaiten da, eta sarritan, nor hizketan ari den bereizteko, pentsatu egin behar da, edo oharkabea doakizu. Perspektiba gabeko haurren pinturan bezalatsu da. Loturazko elementuak ezabaturik, bakoitzak bere presentzia zuzen adierazten du.

Tortolo Makastiko  
nor dozu nobie  
Erramona Garratzeko  
kolore gorrie.

Lehen puntua Tortolori egiten zaion itauna da eta bigarrena Torto-  
loren erantzuna. *Maritxu, nora zoaz* ere eite berekoa da. Joera hau batez  
ere pieza luzeetan nabari da, erromantze eta baladetan:

Uso zuri ederra, zeruan ze barri?  
Zeruan barri onak orain eta beti.

Eta hala jarraitzen du elkarrizketak, batek galdetu eta usoak eran-  
tzun. Berdin hurrengoan ere:

Goizeti jagi zara, oh andra gaztea  
Leixibatxua egitearren, jauna neurea.

Honela hasten eta honela amaitzen denean, aisa jarraitzen da, bi  
pertsonaiaren arteko elkarrizketa soila bait da. Baina sarritan narrazioa  
eta elkarrizketa zapla elkargaintzen dira eta orduan adi ibili behar da:

Aldaztorrean nengoenean irra goruetan  
erroi zaharra etorri jatan grauetan.  
Erroi zaharra, zer dakazu albiste?  
Alamarkea galdu dala dinoe. Etab.

Erroi edo beleari egiten zaion galdera argi jasotzen da, baina hurren-  
go lerroa erroiaren erantzuna dela oharkabea joatea ez da hain zaila.  
Dena den, beste gauza guztietan bezala, generoaren ezagutzak ulermena  
berez-berez bideratzen du.

# ZAHARRAK EDO ARKAIKOAK

Textu zaharrek edo arkaikoak deritzen hauek hemen sartu ala ez dudan egon naiz, azkenean baietz erabaki arte. Konposizio hauek areago dira filologian edo linguistikan aztergai, hemengo irakurgai baino. Ohar eta argibide gehiegi eman beharko litzateke, zerbait ulergarri gelditzeko, eta dauden bezala biluzik uztea erabaki dut. Nahi duenak badauka nora jo, oso estudiatuak izan bait dira. Ortografia gaurkotuak hurbilago eta lagunago egingo ahal ditu textuetan sarritan ieroglifikoak diruditen piezok.

## LELO

(Euskalzale, 370. or. Mila euskal olerki eder, 35. or. Aita Santi Onaindia. Poesía Vascongada - Dialecto Vizcaíno, 139. or. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar, Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa).

- |   |  |
|---|--|
| 01. Lelo hil Lelo, Lelo hil Lelo<br>Leloa, Zarak hil Leloa.<br>Romako armak ahalegin eta<br>Bizkaia daroa zansoa. | 05. Bosturteko egun-gabean<br>geldi bagarik potxoa<br>gureko bata hil badagian<br>bost hamarren galdoa.              |
| 02. Oktabiano munduko jauna<br>Lekobidi Bizkaikoa<br>Itxasotati eta lehorrez<br>imini deusko molsoa.              | 06. Haek anis ta guk gitxi taia<br>azkin in dugu lalboa.<br>Geure lurrean ta haen herrian<br>birotx hain baten zamo. |
| 03. Lehor-zelaiak bereak dira<br>mendi-tantaiak leusoak<br>leku ironian gagozanean<br>nok-bera sendo dau gogoa.   | 07. Tiber lekua geldiko zabal<br>utxin ta amaio grandoa<br>handiar istak geizto zindoaz<br>betiko naiaz nar doa.     |
| 04. Bildurrik gitxi arma bardinaz<br>Oramaia, zu gexoa<br>sojak gogorrek badirituiz<br>narru biloxa surboa.       |  |

### SANDAILIA

(Textos arcaicos vascos. Luis Mitxelena. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. Ibon sarasola. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, XI. Gipuzkoako Foru Aldundia - Euskal Unibertsitatea. Donostia 1990. Mitxelenaren liburua eta Ibon Sarasolaren eranskina liburu berean editatu zituzten).

Ala Zalagarda  
Zalagarda mala  
Zalagarda gaizto  
Oinaztarraondako.

Sandailiak atea ditu zirarrez  
nola zirarrez da hala zendalez  
Hermandadea arean doa negarrez  
Anso Garciak gaztelu hori emunez  
hek enbinda estikitxa esan ez.

Ardao zuri, ardao Madrilgoa  
Ardao zuria Mendozagana doa  
halabana Sandaili gogoa  
Zalagarda Sandailira doa.

Laskauarroen ihesatako lasterra  
Laskauarrok ostatuan honela  
gauaz ere urtunika obela  
argi izarrok ditugula kandela  
ostatuan gera diro igu emenda.

### ARAMAIOKO KANTEA

(Idem)

Izarragati gora heltzian joeala  
Jaun Peru Abendañokok esala:  
Oinetako lur hau jabilt ikara  
gorputzeko lau haragiok berala.  
Oi aldi honeri ahal banegi enpara  
berriz enendorke Aramaioko kontrara  
Mendiola, hil deustak Gasto Apala  
bere laguntzat beste asko ditubala.

### ARRASATEKO ERREKETA

(Idem)

Gal didila Unzueta ta Bergara  
Zaldibarrek bere partea debala.  
Aramaio, suak erre hazala  
ta sumi a...la Guraiarra  
zeren zeuren jauna ez zenzan enpara.

armakaz ezin egien legez ezer  
Ganboarrok su emaitan  
hasi dira, ta honegaz urten daude  
beralan  
Oineztar barruangoak  
zein erre ez zitezan.  
Gomiz Gonsalu bertan zan  
beragaz Presebalen kaltean  
Joanikok eta beste askok  
eudela parte bertan.

Gomez handia zan arren  
han zan Presebal bere  
bai Joanikote bere.  
Madalenaan han ei dauza  
viola tronpeta bage.

Oin arrok zituan luma  
Ozaetako jaun gazteak  
laster baten igaro zan  
uraz alde bestean.  
Ama bereak esaeusan:  
Semea, zer dok horrelan?  
Zaurietan kuradu eta,  
ama, nagozu ohera.  
Egun behin hur jarruta  
Ganboar seme lasterra  
are bere lasterrago  
Abendañuje Motela.  
Eskerrik asko emaiten deusat  
Andra Santa Maiñari  
bera axeizat sartu eta  
esera bidaldu nau ni.

Gomizek asko lagunik  
zabal Arabaarrik  
Gipuz hondo ederrik  
Bizkaitar urduri gogorrik.  
Ez diazo bakarrik  
ze han daz Presebal hilik  
Juanikotegaz lagundurik  
txibuluen ospe bagerik  
ez urrun Malogenik.

Argi izarrak urten dau  
zeruan goian ostanzean  
Bergararrok hasi dira  
trajioe bat asmazean  
euroen artean dioela:  
Erre dezagun Mondragoe  
lasterreon sar gaitezan  
kantoeko zarzaikeran  
haen bizarrak ikara zirean



## URREXOLAKO GUDUA

(Idem)

Gaiza zenduan Leintzarrok  
Urruxolako lakaioa  
sendo zenduan odol hori  
bihurtu jatzu gatzatua.

## OLASO

(Idem)

Berba horren berba gazia  
berba horri nahi ez dakiola balia  
dardoak egin arren bere aldia  
Olaso da ene egoteko aulkia.

## SALINASKO KONTEA

(Idem)

Lelorilelo sara i leloa  
Bilbaon katigu dago Salinasgoa  
Kalea behera burua bax..n daroa  
Zer ete dan amoradu gexoa.

## MILIA LASTURKO

Miliaren ahizpak:

01. Zer ete da andra erdiaen zauria?  
Sagar errea eta ardao gorria.  
Halabaia kontrario da Milia  
azpian lur hotza, gainean harria.
02. Lasturrera behar dozu, Milia  
aita jaunak eresten dau elia  
ama andreak apainketan hobia  
hara behar dozu, Milia.
03. Jausi da zerurean harria  
aurkitu dau Lasturren torre barria  
edegi dio aldameneari erdia  
Lasturrera behar dozu, Milia.
04. Arren, ene andra Milia Lasturko  
Peru Garciak egin deusku laburto.  
Egin dau Andra Marina Arrazolako  
ezkon bekio, bere idea dauko.

Peru Garciaren arrebaren erantzuna:

05. Ez dauko Peru Garciak beharrik  
hain gatx handia apukadua gatik  
zeruetako mandatua izanik  
andrariok hala kunpli jasorik.
06. Gizon txipi sotil baten andra zan  
ate arte zabalean ohi zan  
giltza porra handiaen jabe zan  
onrra handi asko kunplidu jakan.

Miliaren ahizpak:

Arren, ene andra Milia Lasturko  
mandatariak egin deust gaxtoto.

01. Zerurean jausi da habea  
jo dau Lasturko torre gorea  
eroan ditu hango jauna eta andrea  
bata lehen, gero bestea  
bidaldu dogu zeruetara karte  
arren diguela gure andrea.

02. Mondragoeri hartu deusat gorroto  
Giputz andraok hartu ditu gaxtoto  
Iturrioz kalean andra Maria Baldako  
Arte kalean andra Ojanda Gabiolako  
Errebalean andra Milia Lasturko.

**JAUN DIAOZ AROKOA**

(Idem)

Jaun Diao Arokua  
Zaldun handi Españakoa  
ezek ezer eziegion  
egian Jaunak baroa.

**OINETAKO LUR HAU**

(Idem)

Oinetako lur hau jabilt ikara  
lau haragiok bere han berala  
Martin Bañes Ibarretan hil dala.  
Hartuko dot esku batean gezia  
bestean zuzi iraxegia  
erreko dot Aramaio guztia.

**PERUTXOREN KANTA**

(Idem)

Lelo lirelo zaraileroba  
jazoegia ninzan  
aurten erua  
ai joat gabiraia  
astor-usua  
lelo lirelo zaraileroba.

Ai joat gabiraia  
aztobikarra  
esso amorari  
gajona txala  
y penas nazala  
jator que dala  
lelo lirelo zaraileroba.

## ENE BEGIAKAZ BIHOZEEN ARTEAN

(Idem)

Ene begiakaz bihozeen artean  
errenkore handiak erne zitean.

01. Onerestea daukat bihozean sarturik  
linda eder galanpat kausea izanik.  
Begiratu negion ta egun batean  
errenkore handiak erne zitean.
02. Bihoza begien dago kereila  
zana librea haek gaiti katiga zidila  
ta atera ebelako bere eserean  
errenkore handiak erne zitean.
03. Begiak deuse egozten bihozari kulpea  
haganik jaio zala onerestea  
ta hagaitirren aditu zerren zirean  
errenkore handiak erne zitean.

## ZURE BEGI EDERROK

(Idem)

Zure begi ederrok  
ene laztana  
katibaturik nabe  
librea ninzana.

## ATSEIN HANDIA DA AMORE EUTEA

(Idem)

Atsein handia da amore eutea  
eta bere bada guztiz firmea  
ezin esan leidiz ondo munduak  
zein handiak diren haren gustuak  
gloriaz beterik jaio nindia  
ikusiaz gero zeu, ene eguzkia.

## KATIGATU NINDUZUN LIBREA NINZANA

(Idem)

Katigatu ninduzun librea ninzana  
nizaz eras daizu gura dozuna.

01. Zurea izanagaz nago kontentu  
halan gura dot bizi zuk gura badozu.  
Bakit orain ondo hil behar dodana  
nizaz eras daizu gura dozuna.
02. Ausenzia triste gogor kruela  
nolan hilgo nozu orain honela?  
Despedidan indazu laztan bat, laztana  
nizaz eras daizu gura dozuna.
03. Laster etorri nadin gurako ahal dozu  
hil baino lehenago zakuskidan zu  
bakizu zurea orain guzti hau nazana  
nizaz eras daizu gura dozuna.

MARTIN JOANES

(Antología de Poesía Popular Vasca, 109. or. Juan Gorostiaga. Liburu honetan goragoko beste zenbait pieza ere aurki daiteke).

Martin Joanes Labieruko zalduna  
Bizkaiko kontsejua ta zentzuna.  
Nor ete zan zuri lotsa igorrotsi egizuna?

# DANTZARAKOAK

## ZEANURIKO KOPLA ZAHARRAK

(Adolfo Arejita. Etxebarriatar Pelik batuak. **Eusko Ikaskuntza - Sociedad de estudios vascos. Cuadernos de sección - Hizkuntza eta Literatura 2, 222. orrialdea**)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Bedarrik ederrena<br>soloan garie<br>Andrarik onena da<br>Birjina Marie.      | 07. Ederra zareala<br>pentsetan badozu<br>espilu faltso horrek<br>engainetan zaitu.     |
| 02. Antonio Goitia<br>bigolinerua<br>zortzi marigaitino<br>yoten dau soinua.      | 08. Maritxu nora zuaz<br>eder galant hori<br>iturrira Bartolo<br>nahi bozu etorri.      |
| 03. Otxandio eta Ubide<br>Arrazola partetik<br>pobreen fortuna<br>beti kokotetik. | 09. Zer dago iturrien<br>ardaotxo zurie<br>biok edango dogu<br>nahi dogun guztie.       |
| 04. Axpe Arrazolatik<br>Mañari bitarte<br>arrautze tortilea<br>sartankila bete.   | 10. Antxine bota neuntsen<br>astoari plana<br>hanka luzeak eta<br>lepo hiru kana.       |
| 05. Antxine esan neuntzun<br>Mari eskupulu<br>gabeko errolda<br>ez dala seguru.   | 11. Ezkondu nintzanean<br>bost gona nintuen<br>bi prendan ipini te<br>bi saldu nituen.  |
| 06. Abustin kirre marro<br>dendari karue<br>sonbreru baltza eta<br>zinta moradue. | 12. Domingo da domeka<br>astelehena lunes<br>Ormetzeko Klaritak<br>artorik yan gure ez. |

13. Dimetik Igorrera  
paraje zelaie  
Igorrek bota deutso  
Dimeri bonbaie.
14. Harako antxineko  
bioren kontuek  
ixilik egon arren  
ez daukaz aitzuek.
15. Atsoa ta agurea  
alkarren atzean  
basora yoan dira  
pekorotz batzean.
16. Atsoa ta agurea  
hasarratu dire  
atso demoninoak  
bargetatik tire.
17. Arantza baltzena da  
lehenengo lorea  
damutzen yakonari  
Jaungoikoak hobea.
18. Harako zeuk gure ta  
neuk ez neuenean  
berba labanik asko  
zeunkan zuk minean.
19. Ama buruen min dot  
ez esan aiteri  
atzoko erroldak  
egin dausta niri.
20. Ibili ta erabili  
ezin dot eralgi  
errotara yoan da  
zahie dot ekarri.
21. Ze mutil hanka luze  
begi arranpalo  
tabernara yoan da  
negarrez ei dago.
22. Maritxu Petrolina  
Olabarrikoa  
katuek yan dautsela  
surteko taloa.
23. Erreka baztarreko  
lirio lorea  
ez naz ederra baina  
bai eder zalea.
24. Oiloa faltau yako  
Mari Mondrongori  
seinale onak ditu  
agertu baledi.
25. Buztena luze luze  
paparra beilegi  
haren arrautzetxoak  
bolea dirudi.
26. Udabarriko lorea  
eder maiatzean  
ez egunez etorri  
erdu arratsean.

27. San Joan ta San Migel  
mezea erasoten  
hamabi apostoluek  
mezea kantetan.
28. Altzak orrie zabal  
Begoñe ganean  
asko be zabalago  
Baso baltz aldean.
29. Arin arin duela  
itsuen soinue  
Otsek apurtuten dau  
zapata zorue.
30. Zizilio Belensiko  
zozo armario  
gantzontzilo borlea  
hankatik dario.
31. Nabarriz Anbotoko  
Eulesti mendi  
haretan hiruretan  
haxe hotza sarri.
32. Nabarriz Amoroto  
Santa Eufemia mendi  
haretan hiruretan  
haxe hotza sarri.
33. Durangon bazkaldute  
Mañarien gora  
Txakurzulon yausi de  
eperdiez gora.
34. Laztanen portalean  
dagoz arbola bi  
bata naranjea ta  
bestea madari.
35. Inkirrinki soinue  
Belensin gorako  
zapatarari zoruek  
egin uderako.
36. Maritxu Petrolina  
ze enbra polite  
buruen paineloa  
moino ipinite.
37. Tortolo Makastiko  
nor dozu nobie?  
-Erramona Garratzeko  
kolore gorrie.
38. Ixiliek egon hadi  
faltso arlotea  
higaitik yaukoat nik  
sarna kokotean.
39. Astotxo bat baneuko  
buzten zuriegaz  
Ermure yoateko  
gona gorriegaz.
40. Aldatz bat igarota  
zelai eder baten  
Kristo topatu nuben  
mezea emoten.

41. Haizea fresko dago  
Arralde gainean  
arkondara bustie  
baleuko soinean.

42. Orratzaren punteak  
irabazi gitxi  
endemas trabenara  
bidea badaki.

43. Negar da negar dago  
Errosa gurea  
katuek yan deutsela  
bart labadurea.

44. Ez egizu Errosa  
ez egin negarrik  
ez zara geldituko  
lebadure barik.

45. Errementari androk  
goizean goizean  
txikerdi aguardiente  
arnasa batean.

46. Olagizonak eta  
errementariak  
frakatxu zaharrak eta  
begiek gorriek.

47. Irabazten dituez  
pezeta zuriek  
eroaten deutsiez  
euren egarriek.

48. Dingilin dangoloa  
hi ez haz zoroa  
sardina burua baino  
hoba dok oiloa.

49. Anton Errementari  
bentanan lo doa  
urra daroalakoan  
plomoa daroa.



01. **Bedarrik:** belarrik. Belarra eta garia erlazonatzeak adierazpide handia sortzen du.

02. **Bigolineru:** bibolinteru, bibolintari... forma asko hartzen ditu hitz honek. Eta herri hizkeran gehienez ez dauka bibolinarekin zerikusirik. Haurrei *handitan zer izango zara* galdetzean, *bibolinteru* erantzuten genuen, horrek barregura emango zuela jakinik. Musika tresnaren

bat. Gauza alai eta informal samarra behintzat.

**Marigaitino:** marigatik.

**Mari edo marai:** *marabedi* espainiar monetaren laburdura. Esanahi zabalgogoan, balio gutxikoa. *Ez du marairik balio* gaurko *ez du xentimorik balio* ren antzekoa.

03. **Kokot:** Lepo edo samaren atzealdea, garondoa. Kokota uztarri, soka, hatza-

par, pizti ehiztarien hortz eta gisakoen gunea izan ohi da. Pobrean fortuna, beraz, beti larri, beti azken mugan.

04. **Sartankila:** zartain, zartagin. Kutsu txiki-garria ere eduki dezake. Fortuna kokotetik edukitzetik sartankila beteko arrautze tortilara badago aldea.

05. **Eskupulu:** Ez dauka esanahi zehatzik. Nor-izena, zer-izena, onomatopeia, denetik zerbait.

07. **Pentsetan:** pentsatzen. Bizkaieran forma hau oso zabala da. *Kantetan, engaintan, altzetan, formetan...* edo hauen ki-deak: *kantaten, engaintaten, altzaten, formaten...* = kantatzen, engaintatzen, altzatzatzen, formatzen.

10. **Neuntsen:** nion. *Nien* ere izan daiteke. *Neu (n)tsan, neu (n)tson, neu (n)tsen* eta hauen aldaerak: *notsan, notsen, notson* eta beste batzuk gehienez indistintoki erabiltzen dira, segun nork eta non. **Lepo:** Bizkaierarik gehienez lepoa bizkarra da eta buruari eusten diona *sama:* samea, samia, samie.

13. **Deutso, deutsa, dautsa, dotso...**: dio. **Bonbaie:** bonbea, bonba.

14. **Aiztuek:** ahaztuak, ahantziak, atzenduak.

15. **Batzean:** batzen. Zenbait eskualdetan hartzen, saltzen, sartzen... *hartzean, saltzean, sartzean* dira, edo *hartzien, saltzien, sartzien...* edo *hartzian, saltzian, sartzian...*

17. **Jaungoikoak:** Jota jota ahozkatzen den eskualdeetan ere, jauna jota espainolez esaten da. *Berdin jentea, Jesukristo, Jose* eta beste izenak ere. **Yakonari:** zaionari.

18. **Laban:** lerrakor, irrastakor. **Min:** mihi. Bizkaierarik gehienez *min* hitza erabiltzen da, *mingaina* mihiaren gainaldea litzatekeelarik.

19. **Dausta** edo **deusta, daust, deust, dost, dust:** dit.

21. **Arranpalo:** Hitz honek noizbait, Azkuek bere hitzegian dionez, *txorimaloa* edo *txorimamua* esan nahi bazuen ere, gaur pertsonen esanahi kalifikatiboa dauka. Erdi tentel edo ergela, kankailua eta zaratatsua. Hala *arranpalo negarra* eskandalu handiko negarra izango da. **Ei:** omen. Ia bizkaiera guztian.

22. **Surteko:** surtako, sutako, suko.

23. Kopla hunkigarria eta iradokipen handikoa. Erreka bazterrean lirio lorea isililik, eta ni hari begira oste batetik, lotsor, ez bait naiz ederra, baina bai zalea. Edo bestela koplaren lehen zatia naturaren zertzelada soil bat, genero honetan oso ohizko denez, eta bigarrena atrebentzi ironikoa. Edo gauza asko.

24. **Yako:** zaio.

25. **Beilegi** edo **belegi:** hori iluna.

26. **Erdu:** Zatoz. Aginduzkoa beti. Zuek: *erdue* edo *erduze*.

27. **Mezea eraso:** meza lagundu, erantzun. Bereterrak edo monagiloak egiten duena.

29. **Otsek:** goitzen bat dirudi.

30. **Zozo armario:** kaikua, kankailua. Hemen *armario* kalifikatzailea da, haltzari horren irudia eta hitzaren beraren hotsa zerbait handisko eta traketsa adierazteko baturik. *Txotxo armario* ere sinonimoa da, zabalagoa bestalde.

31. **Anbotoko:** Argi dago *Amoroto* izan behar duela, hurrengo koplari A. Arejitak zuzentzen duenez. Triangelua osatzen duten Nabariz, Amoroto eta Aulesti menditik lekutan dago Anboto.

33. **Yausi de:** jausi da. Aurreko hitza *i-u* bokalez amaitzean, edo bokal horiek silaba barruan daudenean, eskualde askotan *a* bokala e bihurtzen da: *etorri de, bizi de, ezin de, heldu de, entzun de*. Berdin forma partizipiozkoan: *erosite, apurtute, jakin-*

*de, iraunde, eta deklinabidean: begie, mutile (begije, begixe eta bustidura guztiekin), mutue, egurre, zentzune...*

35. **Inkirrinki:** soinu hotsaren onomatopeia ironikoa. Soinuak zapata zoruak gastaraziko ez balitu!
36. **Enbra:** *emakume* edo *andrazko* ren sinonimotzat erabiltzea normala da, inolako esanahi txarkoirik gabe.
38. **Yaukoat, yekoat, yaukat...:** *daukat* en hiketa maskulinoa. *Zeukaat, zeukat.*
39. Kopla honek zirrara eragin dit beti. Buztan zuriaren eta gona gorriaren baturak koadru osoa bisualtzen du. Bestalde neska baten desioa, ia utopia, zeren, gona gorria edukiarren, buztan zuridun astoa ez da noiznahi jaiotzen den dohaia.
40. Kopla hau beste konposizio bateko alea da. Nahiko graziosoa bestalde, Jesukristo bera meza ematen ikustea ez bait da oso bisio ortodoxoa.

41. Kopla honi oso ironia sotila dario. Jostuna bera aipatu gabe, orratzaren punta jartzan da tabernara bidean. Berari dagokio bidea *jakitea*.

43. **Deutsela** edo **deutsola, dautsala, dotsela...:** diola.

46-47. Bi kopla hauek oso plastikoak dira begi gorriei eta pezeta zuriei esker, baita laz-tankorak ere, frakatxu zaharren txikigarri horri esker. Biziera gogorra, oso xarmantki adierazia, baita zirikor ere nahi bada, egarri hori ez bait dakigu lanbidearena ala ondoko tabernakoa den. Ez dakigu bihozkada lirikoan, erruki dramatikoa ala adar jotze soilean gbiltzan.

48. **Dingilin dangoloa:** onomatopeian oinarritzen den lokuzioa, euskarari oso gogoko zaion bikote korrelatiboa. Ibilera edo izaera koordinatu gabea daukana.

01. Oiloa faltau yako  
Mari Mondrongori  
buztena pardo pardo  
paparra beilegi  
haren arrautzatxoak  
bolea dirudi

(Adolfo Arejita. Idem)

Hiru puntukoa oso mehatza izan da kopla txikietan. Hau ere bi puntuko bi koplen nahastea da.



01. Bitorin neska gitxi dago  
Millerlen bape bez  
Otxandion badagoz baina  
ogirik egiten yakin ez.
02. Semetxo txiki negarrez dago  
ama emoiozu titie  
aite faltsoa trabenan dago  
arrotea ta nagie.
03. Neure laztanak yaten deu  
mailukiekaz ogie  
ostera bere eukiko deu  
luze ta linde garrie.
04. Zatan lei alegre danak  
triste egonda ez dau probetxu  
gazte zoroak ez dau falta  
norekin entretenidu.
05. Aita-semeak trabenan dagoz  
ama-alabak yokoan  
ostera bere egongo dira  
erroza zaharrak kakoan.
06. Santa Luzietan gaba da luze  
San Bernabetan egune  
nobera ondo egon ezkeru  
ez da erruki lagune.
07. Euskeraz kantauko dot  
hau da bigarren bertsoa  
honexek emongo dautzu  
yantzan eiteko gogoia.
08. Leihotxu bet egin behot  
itsasoaren parean  
handixik ikusteko  
neure laztana noiz doan.
09. Aite yoan da Bituriera  
ama lepoan hartute  
aite etorri da Biturietik  
ama bidean galdute.
10. Altuen da San Kristobal  
bajuen da Madalena  
haien bien bitartean  
Donutxuko taberna.
11. Aspaldien ez dot ikusi  
Donostiko Fidela  
ha baino gurago neunke  
txarri onaren gibela.
12. Haurtxo txikie negarrez dago  
ama emoiozu titie  
aita gaiztoa tabernan dago  
pikaro jokolarie.
14. Biturie da Araba  
alargun batek eukezan  
ederrak hiru alaba.  
...
15. San Antonio San Antonio  
txarrie gexo danean  
San Antonio ez da esaten  
urdeie yaten danean.



16. Arto kamaran motxolinoa  
domingiloa lepoan  
honexek yaiok pasau artean  
ez dot besterik gogoan.

17. Heriotzeaz gauza bat gaitik  
ez nagoala kontentu  
aberatsari diruak gaitik  
ezin leio ta parkatu.

18. Aberats horrek diruak ditu  
probeak umildadea  
projimuegaz ondo on behar  
zabalduteko atea.

19. Amak ezkondu naiela  
neure moduko batekin  
dotea emongo eustela  
oilo bat bost txitarekin.

(Adolfo Arejita. Idem)



01. Ogirik egiten ez jakitea ezjakintza soila  
izan daiteke edo maila apalaren seinalea,  
ogia garai batzutan ondasun urria eta  
preziatua bait zen. Etxe guztietan ez ze-  
goen hura egiten ikasteko aukerarik.

03. **Mailuki:** marrubi. Mailukiak eta ogia,  
banaka preziatuak badira, pentsa biak  
batera zer izan daitekeen.

04. **Zatan:** hitz hau ez da existitzen. *Kanta*  
izan ote daiteke, A. Arejitak dionez?  
**Lei:** leike, lezake.

08. **Bet:** bat.  
**Behot:** behar dot.

11. **Ha:** hura.  
**Neunke:** nuke. Kopla honetan preferen-  
tzi gordina eta satirikoa azaltzen da.

14. Zatia falta zaio.  
**Eukezan:** zeuzkan. Kopla hau beste pie-  
za baten osakina da. Ikus **Fuenterrabia**.

15. **Gexo:** gaiso. Koplaritzan, batzutan erri-  
ma ere errepikatu egiten da, bertsolari-  
tzan hain gaitzetsia dagoen potoa eginez.  
Kasu honetan errimaren errepikak bi  
puntuen erlazioa indartu egiten du. Eder-

tu esango nuke. Badira *urdeie datorre-  
nean* eta horrelako aldaerak, potoaren  
eskrupuluak eraginda beharbada, baina  
nik nahiago dut dagoen moduan.

16. **Honexek yaiok:** jai hauexek. Bizkaiera-  
rik gehienez, erakuslea aurretik jartzea  
normala da.  
**Motxolinoa, domingiloa:** Trapuzko edo  
lastozko panpina, zinta dantzan adibidez,  
ardatz puntan ipintzen dena.

17. **Leio:** lekiok. Kopla honek aldrebestua  
dirudi. *Ez nagoala* horrek *bai nagoala*  
behar luke. Badira beste aldaera batzuk,  
heriotzeaz gauza bategatik kontentu da-  
goela diotenak, aberatsari diruagatik bar-  
katzen ez diolako.

18. **On:** egon.

19. **Naiela:** *naitela* (nadila) edo *nazala* (baita  
nazatela ere) izan daiteke. Hemen lehe-  
nengoa dirudi.  
**emongo eustela:** *emongo (e)ustela* edo  
*emongo deustela*. Bigarren honek zuzena-  
go dirudi, edo bestela *naiela*'ren esana-  
hiak *neintela* edo *nendila* behar du.



01. Soldadu noa soldadu  
ontzi barrien soldadu  
ez dot gure yoan baina  
eroango neure seguru.

02. Itsasoan ure lodi  
ez da hondarririk agiri  
neure laztana ikustearren  
paseuko nintike handik.

03. San Blas pasau den urte bi  
Abadiñora nindun ni  
denpora txarrak emonda  
ez nintzen ondo ibili.

04. Mendi altuen edurre  
bota surtera mukurre  
alaba galanten amak  
mutil zantarren bildurre.

05. Aite gureak amari  
gona gorrie ekarri  
luze dala labur dala  
garri garririk erdi bi.

06. Errekan dago harrie  
haren ganean txorie  
neskatxa kolore gorrie  
mutilen engainagarrie.

07. Txikitine ta polite  
Lupetzako Pantxike  
alargunagaz ezkontzea  
asko sentiduko neuke.

08. Gorozikeko etxe baten  
zazpi koltxa oge baten  
mutil bi ipini dauz  
deskantsaten apur baten.

09. Jose Benito saleue  
Algortan esamineue  
Portugaletako barran  
brantza estue paseue.

10. San Adrian San Adrian  
agostuaren erdian  
neu bere hantxe nengoan  
euria zan arrastian.

11. Dingilin dango Marine  
beti honela bagine  
beti honela izateko  
burue deukek arine.

12. Haxeak eta euriek  
atera behar begiek  
beheko lupetzan galdu  
doguz lagunik erdiek.

13. Hauxe da despedidea  
despedide honen tristeia  
egin badot berba txarto  
parkeske nago jentea.

14. Neskabila morenea  
maronezkoa gonea  
abarka traila baltzakin  
dirudi probintzianea.

(Adolfo Arejita. Idem)

Kopla handietan hiru puntukoak ugari samar izan dira, nahizta askotan muga difusoa izan.



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Neure:</b> nabe, naute.   | 07. <b>Txikitine:</b> txikitxoa.   |
| 02. <b>Paseuko nintike:</b> pasatuko nintzateke.   | 08. <b>Dauz:</b> ditu.   |
| 04. <b>Mukurre:</b> enbor zatia, anporra. Kopla hau ezagunenarikoa izan da eta ez da harritzekoa, ederrenarikoa bait da. | 09. <b>Saleue:</b> saladua, graziosoa.<br><b>Esamineue, paseue:</b> esaminatua, pasatua. |
| 05. Ironia xarmagarriko kopla. Horra nola amaitzen den luze-laburraren eztabaida edo duda.                               | 12. <b>Haxeak:</b> haizeak.<br><b>Lupetza:</b> basa, istil, lokatz.                      |
| 06. Bai dela polita eta bisuala kopla hau ere!   | 14. <b>Traila:</b> kordel, soka.<br><b>Behia trailan eroan:</b> sokatik eraman.          |

## MANUEL LEKUONAREN BILDUMA

(*Cantares recogidos por Manuel de Lekuona. Anuario de "Eusko-Folklore", 1930. Tomo X, 37. orrialdea. Baita Cantares coreográficos - Fandango, danza de pandereta o trikiti, Lekuona'tar Manuel. Idazlan guztiak 1. Aozko Literatura, 37. orrialdetik aurrera*)

Larrabetzu:

- |   |   |
|---|---|
| 01. Arin arin eiten dau<br>soloan erbiek<br>hutsik egiten deitu<br>punturik erdiek. | 02. Maria Ramonatxu<br>labradore fine<br>antxine hartu neban<br>zeuganako mine. |
|---|---|

- |   |   |
|---|---|
| 03. Antxine esan neutsan<br>ama zeuriari<br>gorde zagidazala<br>prenda eder hori    | 10. Maritxu Karduenena<br>ze atso polite<br>buruen ixaratxuegaz<br>moinoa ipinite.  |
| 04. Loria bateti ta<br>loria besteti<br>zeugatikan noala<br>mundu honetati.         | 11. Udebarrie da ta<br>denpora beroa<br>gazte zoroa naz ta<br>alegre gogoia.        |
| 05. Ama goruetan da<br>alabia yosten<br>mutilek egon dire<br>bentanan sorosten.     | 12. Goiengo kantarara<br>bidia labana<br>galdaran sartuko dot<br>mutil barrabana.   |
| 06. Zer ikusi ete daben<br>bentana horretan?<br>Aguria egoala<br>taloak erretan.    | 13. Esango neuke baina<br>lotsa naz esaten<br>hamalau mutil dagoz<br>zestope baten. |
| 07. Hauxen aguriaren<br>fortuna bakoa<br>katuak yan dotsela<br>surteko taloa.       | 14. Aste goieneko<br>jabonaduria<br>txitxilin frakak eta<br>bentanan gonía.         |
| 08. Gaztaina koloreko<br>begitxu balzakaz<br>ondo engaineu nozu<br>berba labanakaz. | 15. Neskatile galanta<br>beste alderditik<br>tarrataria daule<br>atzeko partetik.   |
| 09. Txikirriki soinuena<br>Bilinkikorako<br>zapatatxu barriek<br>egin uderako.      |   |

Zeanurin

16. Aputz eta Polañe  
ibili zirean yantzan  
Igartuko landan  
Garixume Santan.

17. Potxolo yoango da  
India urriner  
aitetxon paineloa  
gorbeta dauela.

18. Txirikiti txainia  
bihar domekea  
txokolatez beterik  
baneuko tripea.

Elantxobe

21. Tiriki tauki tauki  
mailuaren hotsa  
handixik behera dator  
praile burumotza.

19. Oraingo neskatilen  
dote arreo  
burruntzaletxu zahar bat  
hiru zulokoa.

20. Hamalau zapatarik  
ein dabe juntea  
zeinek lehenago yosi  
zapata puntea



01. Erbiak arin egiten soloan, baina dantzaren punturik errespetatu gabe. Bestalde *arin arina* dantza ritmo baten izena da. Kopla bitxia benetan.

03. **Neutsan:** nion.  
**Zagidazala:** Gorde zaitzala niri, niretzat. Hark zu niri. Esanahia hori da, baina flexio hirukoitzik apenas izan den bizkaieran. Izatez *zagidazala zaitzadala* da.

05. **Sorosten:** begiratzen, zelatatzen.

06. **Erreten:** erretzen.

07. **Bakoa:** bagekoa, gabea.  
**Dotsela:** diola.

08. **Baltzakaz:** baltzekin.

10. **Ixaratzuegaz:** izaratxoarekin. Maindiretxoa.

12. **Barrabana:** barrabasa, gaiztoa.

14. **Txixilin:** txintxilin, zintzilik.  
**Frakak:** prakak, galtzak.

15. **Tarrataria:** tarratada, urratua, apurtua.  
**Daule:** dauela, duela.

17. **Urrin:** urrun, urruti.

18. **Txirikiti txainia:** lokuzio onomatopeikoa.  
**Domekea:** igandea.

20. **Juntea, yosi:** *Yota* ahozkatzen den eskualdeetan ere, *juntea, jentea, jabonadura, jeneroa* etab., oraintsukoak edo mailibuak direlako, edo erdararen eragin soilez, jota espainolez ahozkatzen dira.



Larrabetzu

01. Bentana bat egin bihar dot  
itsasoaren parian  
handixi ikusteko neure  
maitia doianian.

02. Ederregi bazara  
lurrean behar eiteko  
ezkondu aberatsagaz  
kalean paseatzeko.

Zeanuri

03. -Txirrikixitxu nongoa zara?  
-Ni, jauna, Markinakoa.  
-Lau ziri baino gurago neuke  
bazine neure herrikoa.

(Manuen Lekuona. Idem)



02. **Behar egin:** lan egin.

03. **Ziri:** zuri, antxinako moneta bat, gaztelaniaz *blanca*. *Lauziri* edo *lauzuri*, edo *lauziriko-lauzuriko*: lau zuriko txanpona, bi mar(a)i edo marabedi zeuzkana.

Larrabetzu

01. Hauxe da pandero barrie  
Durangotik ekarrie  
hamar errial pagaute  
dana da urre gorrie.

03. Hauxe da despedidia  
despedidiaren tristia  
motiborik emon badot  
parkeske nago jentia.

02. A mutil zer hago sumatzen  
sumatzen edo pumatzen  
nori geituko ete dotsen  
erdu dantzan puska baten.

(Manuel Lekuona. Idem)



01. **Errial:** erreal, pezeta laurden.

02. **Ete:** ote.  
**Geitu:** deitu, dei egin.  
**Dotsen:** dautsan, dion.  
**Erdu:** zatoz, etor zaitez.

EULOGIO GOROSTIAGAREN BILDUMA

(Cantares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga. Anuario de "Eusko-Folklore", 1930, Tomo X, 7. orrialdetik aurrera.)

01. Ama buruen min dot  
ez esan aiteri  
Txomintxo auzokoa  
gustetan yat niri.

02. Pasetan nazenean  
zuen portaletik  
negarrak urtetan daust  
begi bietatik.

03. Taloak erretako  
ona da pareta  
Txomin Agarrekk dauko  
alaba pareta.

10. Batobat akabaute  
bigarrena hasi  
alegrentzi on baten  
gure naunke bizi.

04. Oraingo mutilek  
bana-binekoak  
lapiko tapatzat  
alagalakoak.

11. Soinua alegrea  
gaita zamorana  
enamoraudisie nao  
maitea, zugana.

05. Sartan da burruntzalu  
harroa patela  
Arratieko neskak  
guztiek alperrak.

12. Iturri urrinean  
ure dago freskoa  
hangoxe urek einde  
dauket katarroa.

06. Hasi Bilbo Zaharren da  
Kanpazarreraino  
hamaika neskazahar  
bayaok oindino.

13. Paskua maietzeko  
bigarren goixean  
lupetza ei egoan  
Ermure bidean.

07. Oraingo neskatilek  
daukie engainue  
uzkerra botateko  
katigu kainue.

14. Ermua dala Ermu  
mutilok yantzari  
neskak konbidetako  
foltsan diru gitxi.

08. Gaubean erroldan da  
goxean logure  
zu ez zara, maitea  
osasunen gure.

15. Txikitxo polit hori  
ojalaterue  
diru gitxi foltsan da  
enbustuerue.

09. Trabenererari deusat:  
-Entzuine, patrona  
afari txar bi baino  
hoba bat ona.

16. Begiek baltzak baltzak  
azala zurie  
munduen askok dau  
zure enbidie.

17. Gazteak entzun dozue  
beste honenbeste?  
Aurten martisean  
dala Aratoste.
18. Mutil txameline  
hartzean badozu  
asteen hiru zurre  
seguru daukozuz.
19. Asteen hiru zurre  
zapatuen beti  
domekan okelea  
auzoan ikusi.
20. Txoritxo bat on da hemen  
lehen hemen ez zana  
uden berotuko da  
neguen ez dana.
21. Etxetxo zahar bat dago  
Barazar ganean  
ez yako urik sartzen  
aterri danean.
22. Entzuten ez danean  
diruen soinue  
lanerako da triste  
bai jornalerrue.
23. Txakur gorri polit bat  
galdu yaku guri  
belarri baltzak eta  
burua belegi.
24. Triki te trauki  
mailuaren hotsa  
Urkiolako punten  
fraile burumotza.
25. Ai mutil hankaluze  
txotxo armario  
gantzontzilo borlea  
bernati dario.
26. Kortako burdie  
balitzok kotxea  
haintxe erabiliko ñaukek  
neure atso motxea.
27. Atsoari gorde yutsat  
buru-kopetea  
orain kostako yako  
bera topetea.
28. Esan dot lehen bere  
dinot orain bere  
udeko kolorea  
nik neguen bere.
29. Ez egizu, Errosa  
katue mankatu  
saguek kuietako  
katue behogu.
30. Ez da denpora handirik  
zeuk esan dozule  
saguek izterretik  
usegi deutzule.

31. Eguzkie yoan da  
bere amagana  
biher etorriko da  
denpora ona bada.
32. Hamar-hamaketatik  
eguzki beroa  
ama, buruen min dot  
ni etsera noa.
33. Gora gora begitu  
lainoak agiri  
horrako mutil horrek  
tontoa diruri.
34. Urrabitxi  
urrabitxi  
neskatxiek amentala  
Billaron itxi.
35. Amentala ezeze  
baita zintak bere  
kanea pezetea  
pagauek dire.
36. Durangon hasite  
Mañari bitarte  
arrutze tortilea  
sartangile bete.
37. Atsoa zarra-zarra  
zaharrago ta txarrago  
atso demoninoa  
tragaute balego.
38. Saitukaris kamino  
ez yaukat dirurik  
lau alaba yaukazat  
ezkondu barik.
39. Bosgarrena semea  
kapote zaharragaz  
konejua dirudi  
bere bixerragaz.
40. Urta txuntxulun berde  
mesmeru mokordo  
haintxe goien atso bat  
kakaginen dago.
41. Bilborako bideetan  
amak alabea  
salduko leukela  
bere saladea.
42. Soloan nagonean  
eguzki berotan  
neure pentsamentua  
lekurik askotan.
43. Lapatza goi-arine  
Undurra zentroa  
bien bitartean dago  
Undurragoikoa.
44. Undurragoikoa dagoz  
hiru neskatile  
kalabazea janda  
lodituten dire.

45. **Atsoa ta agurea**  
etxe txiki baten  
aguardintea saltzen  
pitxer txiki baten.
46. **Atsoa ta agurea**  
biek egurretan  
hazkorea galdute  
dabiz barriketan.
01. **Yat:** zait.
02. **Daust:** dit.
03. **Erretako:** erretzeko. Lehen *parea: para + a = parea*. Pala, kasu honetan talo-burdina. Bigarren *parea: pare + a = parea*. Bikotea.
04. **Bana-binekoak:** bakanak, aukerakoak. Bana-banakoak normalagoa da. **Alagalakoak:** gaztelaniazko *a la gala* 'tik. Espezialak, aproposak.
05. **Sartan:** zartain, zartagi.  
**Patelak:** platerak.
06. **Bayaok:** bayagok, badagok, bazegok.  
**Oindino:** oraino, oraindik.
07. **Daukie:** daukate.  
**Katigu:** gatibu, lotua, trabatua.
08. **Errolda:** erronda.  
**Goxean:** goizean.  
**Osasunen gure:** osasun zale, estima-tzaile.
09. **Deutsat:** dirautsat, diotsat, esaten diot.
10. **Batobat:** bat edo bat, baten bat. Hemen, neurriagatik edo, *bat* ordez dagoela dirudi, baina gauza ezberdinak dira.  
**Naunke:** neuke, nuke.
11. **Enamoraudisie:** enamoratutxo.  
**Nao:** nago.
13. **Lupetza:** basa, istil, lokatz.  
**Ei:** omen.  
**Egoan:** zegoen.
14. **Konbidetako:** konbidatzeko.  
**Foltsa:** moltsa, poltsa, boltsa.
17. **Martisean:** martitzenean, asteartean.  
**Aratoste:** haragi uzte, ihauteri.
18. **Txamelin:** txanbelin, buruarin.  
**Hartzean:** hartzen.  
**Zurre:** zurra, jipoi.  
**Daukozuz:** dauzkazu.
20. **On da:** egon da.
25. **Berna:** Oinetik belaunera bitarteko zango zatia.
26. **Balitzok:** *balitz* hiketan.  
**Ñaukek:** neukek, nitek.  
**Motxea:** *motxo* 'ren femeninoa. *Motxo-motxa* hauek motz-motzetik datozen ad-jetiboak dira, zerbait kamutsa edo moz-tua adieraziz. Femeninoan ordea esanahi xerakorra, positiboa eduki dezake, he-men bezala. *Neska motxea:* neska txiki polita. *Neska motza* bera ere onezkoa da zenbait lekutan, nahizta beste batzutan, *motza* itsusiaren sinonimoa den lekuetan batez ere, iraintzat hartzeko arriskua da-goen.
27. **Yutsat:** zioat.  
**Kopetea:** kopeta, trentza, hemen ileor-dea.  
**Topetea:** topatzea, aurkitzea.
28. **Bere:** ere.  
**Dinot:** diot, esaten dut.
29. **Mankatu:** zauritu, kolpea eman edo har-tu.  
**Behogu:** behar dogu.
30. **Usegi:** usiki, horzkatu, kosk egin.
31. Zer koplak polita eta xaloe den hau!

32. **Etsera:** etxera.
37. **Zarra-zarra:** onomatopeikoa.  
**Tragaute:** hilda. *Tragau-trageu* hiltzea baino hitz gogorragoa da, hots, modu txarrean, gosez, nekez, abandonuan... hiltzea.
38. **Sailtukaris kamino:** bidelapurrak, gaz-telaniazko *salteadores de caminos* 'en er-dal-euskal nahastea.  
**Yaukat:** zeukaat.  
**Yaukazat:** zeuzkaat.
40. **Mesmeru:** mizpira.  
**Kakaginen:** kaka egiten.
41. **Saladea:** gaztelaniazko *salada* gehi artiku-lua. Hizketan grazia daukana.
45. Koplak hau oso adierazkorra da, errima errepikatzeak paralelismoa areagotzen duelarik.
46. **Egurretan:** egur garraioan, egurra egi-ten.  
**Dabiz:** dabiltz.

01. Baltza nazela diñuste baina  
neuri dust ardure gitxi  
ardaoa be baltza da baina  
askok egiten dau erosi.

(Baltza nazela diñeuste  
ai niri ez deust ardure  
ardaoa baltza da baina  
ai danak edaten deure)

02. Larrosa maietzekoa  
iminten zaitut kontuen  
batek ezetz esan arren  
asko dago munduen.

03. Logure naz ta lo egingo neunke  
banauko oherako lagune  
badauket lagune baie  
agure lepo makurre.

04. –Maitea, Bilbora noa  
ezertxo gura badozu.  
–Amore firmea da ta  
maite polit bat ekazu.

05. Zubi txiki bet pasaute dago  
neure etxera bidea  
baldin badozu borondaterik  
ez dago bide luzea.

06. Balentina saladea  
enbra ederra zara zu  
zeuk gura dozun artean  
ez zara ezkonduko zu.

07. Zotz zuritzaillea da senarra  
sarrabeterue kuinetu  
zotz zuritzailleen irabazie  
sarrabeteruek hondatu.

08. Biturie baino honantzago  
legoa batez Gamarra  
kakarraldoak bran-bran eginde  
hantxe itxi dot senarra.
09. Bilbon barberurik asko  
endemas Barrenkalean  
neu bere haraxe noa  
buruen min dodanean.
10. Salada batek Zorrontzan  
egin dau gona gorrie  
barrenetik imini deutso  
haginade zurie.
11. Urkiolako denderueri  
laroigeigarren urtean  
zaldar batek urten deutso  
orkatileko zanean.



01. **Diñuste, diñeuste:** dirauste, dioste, e-  
saten didate.  
**Dust:** daust, dit.  
**Edaten deure:** edaten dute. Argi dago  
parentesian datorren aldaera, nik txikita-  
tik ikasi nuena, bestea baino zehatzagoa  
eta politagoa dela.
03. **Lepo makurre:** bizkar makurra.
04. **Ekazu:** ekarzu, ekar ezazu.
06. **Saladea:** *Saladua* ren femeninoa. Hizke-  
tan gatza edo grazia daukana.  
**Enbra:** emakume. Ez dauka kutsu txar-  
koirik.
07. **Zotz zuritzailea:** zurgina argot ironikoan.  
**Sarrabeterue:** errementari edo harotz  
gisa itzultzen du gaztelaniara E. Goros-  
tiagak. Zarrabete musika tresna bat ere  
bada, eta hortik ere zentzua eduki de-  
zake. Bata zurgin mehea eta bestea mu-  
sikari ibiltuna, dirua aurreratzeo ez da  
elkarte egokiena.
08. Kopla honek grazia handia egiten dit.  
Senarra kakarraldoak ikaraturik bidean  
gelditzea da bat, eta bestea andreak au-  
rrera jotzea eta lasai kontatzea.
09. **Barberu:** sendatzaile, erdi medikua.
10. **Barrenetik:** beheko aldetik, beheengo  
ertzetik. *Barren* bizkaierarik gehiengan  
ez da barrua edo barnea, behe aldea bai-  
zik. *Hori barrena:* hori gutxienez, mini-  
mo gisa.  
**Haginade:** haginadura, jantziei barre-  
nean jartzen zaien tira horzduna.

(Eulogio Gorostiaga. Idem)

11. **Zaldar:** azalpea zoltzean irteten den biko-  
rra, batez ere kokotean.  
**Zanean:** zainean. Zaldarra zainean sor-  
tzea, batez ere laurogeigarren urtean,  
Urkiolako San Antonioren miraritzat jo  
beharko da.
12. **Ganera:** enda, klase.
13. **Urtetan daure hordiek:** irteten, jalgitzen  
dira mozkorrak.



01. Gorbai altuen edurre  
bota surtera egurre  
alaba galanten amak  
mutil zantarren bildurre.
02. Inglaterran burrinezko bidea  
Prantzien merinakea  
ez dala errez izango ezautzen  
aberatsa ta pobrea.
03. Hasiko naz hasitzera  
honelan dibertitzera  
ni honelan ikusirik  
errukituten etzera?
04. Dingilin dangoa, Marine  
beti honelan bagine  
beti honelan izateko  
errenteen arine.
05. Seintxo txikerren amantzako  
herri gogorra Orozko  
txoriek txirrist ein daieneko  
arta yorran yoan beharko.
06. Goian da behean hurie  
erdien Errenterie  
zeuk dirudizu, maitea  
larrose yaio parrie.
07. Neure nobiaren ama  
asto baten yabe dana  
astoak ekarrikutso  
etsean behar dana.
08. Begire nago begire  
kamino barrire  
noz etorriko ete dan  
neure laztana herrire.
09. Eurie dator menditik  
Naparroaren ganetik  
kapote zahar bat hartute  
goazen hemendik.

(Eulogio Gorostiaga. Idem)



01. Adolfo Arejitaren sortan agertutako koplaren baten aldaera.
02. **Burrinezko:** burdinazko.  
**Merinakea:** trainerua baino txalupa txikiago bat. Baita gonak aldaka parean harrotzeko egitura metalezkoa ere. Bertsolaritzan eta koplartzan esananhi hau dauka gehienik.
04. **Dingilin dangoa:** Lokuzio onomatopeikoa.  
**Errenteen arine:** irabazi arina, urria.
05. **Seintxo:** haurtxo, umetxo.  
**Txiker:** txikia.  
**Daieneko:** daiane(ra)ko, dezane(ra)ko.
06. **Yaioparrie:** jaio berria.
07. **Ekarrikutso:** ekarriko dautso, ekarriko dio.

### HASIAK EGINA DIRUDI

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 29. or)

01. Hasiak egina dirudi  
eginak urre gorria  
mila neska baino gurago neuke  
etxean zorro handia.
02. Oterre barberua  
Basabarleten koinatua  
Aupa labirun labirun lena  
aupa labirun labirun lon.
03. Bart hamarretan etxean nintzan  
hamabietan basoan  
dama gazte bat ikusi neban  
Basabarleten besoan.
04. Atsoak yo ninduan bekokian  
nik ilentiaz ipurdian  
...  
...
05. Andra galantak Azkoitin dira  
galantagoak Azpeitian  
heldu nintzarian neu Arratian  
arta zukua zirakian.
06. Gure sala ganbara  
urdetokia bezala  
ontziak ere izilupean  
txakurrak garbi ditzala.



04. Koplaren erdia falta da.
05. **Arta zukua:** morokila, dungulua, arto hirinez eginiko ahia.  
**Zirakian:** Irakiten ari zen.
06. **Izilu:** zizelu, zizeilu, eserleku bizkardun luzea.

### ABADIÑO KO KARMENTXU

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 46. or)

01. Abadiñoko Karmentxu  
neska polita zara zu  
neska polita ai zareana  
urrundi agiri dozu.
02. Undurran neskatilarik ez  
Ipinaburun bapere ez  
Altzuan badagoz baia  
Undurrarako bat baino ez.
03. Milaerrealen ota lora  
Elosun asentsioa  
andra galanta behar dauena  
Nafarretera beihoa.



02. Zeanuriko auzoak.  
**Bapere:** bat bere, bat ere.  
**Baia:** baina.  
**Bat baino ez:** bat besterik ez.
03. **Milaerreal(e)** edo **Milerle:** Arabako Legutio. *Elosu* eta *Nafarrete* Legutioko auzoak.
- Asentsioa:** asentsio-belarra, landare mota bat.  
**Beihoa:** bihoa, joan bedi. Kopla honen aldaera *Aita San Migel* bigarren koplari dago.



## AIKO JUANIKO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 49. or)

01. Aiko Juaniko Olabarriko  
zer daukak aparitako?  
Orio-aza gozo gozoak  
arto beroaz jateko. Rai ta rai.
02. Kaspel handian intxaur saltsea  
pitxar morkoan txunpletin  
eragin eta beti eragin  
zaharrok bayaukek zer egin. Rai ta rai.



01. **Aiko:** hona hemen, horra hor, hara han.  
Normalagoa da *aiko hemen, aiko hor*  
(aikor) eta *aiko han* erabiltzea.  
**Orio-aza:** olio errez onduriko aza. Singu-  
larrean normalagoa da, ez bait da *olioa*  
eta aza, *neska-mutilak* egitura bezala, *orio-*  
*dun aza* baizik.
02. **Kaspel:** ontzi bat.  
**Pitxar morko:** pitxar mota bat, trauskil  
samarra.  
**Txunpletin:** edariaren izen onomato-  
peikoa.  
**Bayaukek:** bazeukatek.

## AITA SAN MIGEL

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 50. or)

01. Aita San Migel Iurretako  
zeru altuko lorea  
agura zaharrak dantzan ikusi  
ta hak egiten yok barrea.
02. Garaiko plazan otea lore  
Ermuan asentzioa  
dantzan ikasi gura dabena  
Barruetara beihoa.

03. Aita Juaniko, seme Periko  
zer dogu aparitako?  
Orio-aza gozo gozoa  
arto beroaz yateko.
04. Kazuelatxoan intxaur saltsea  
txarra morkoan txunpletin  
eragin eta beti eragin  
atsoak bauke zer egin.



01. **Hak:** hark, harek.  
**Yok:** *dau* hika, dik.
02. Kopla honen aldaera *Abadiño*ko hiruga-  
rrrena.
04. **Bauke:** badauke, badaukate. Kopla hau  
eta hirugarrena *Aiko Juaniko*'ren bien  
aldaerak dira.

## AMAREN ALABARIK

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 55. or)

01. Amaren alabarik  
munduan badago  
gizon kanpo-ederrez  
neu aserik nago.  
Ai, ai, ai! Neu aserik nago.
02. Sagar bat erreta  
beste bat gordinik  
ai zer bizimodua  
gastaten dodan nik.  
Ai,ai,ai! Gastaten dodan nik.



01. **Kanpo-eder:** kanporantz itxura handia ematen saiatzen dena, nahizta barruan, etxean,  
kaskarra izan. Hau pertsonen izaerari nahiz ondasunei buruz aplikatu daiteke.

## ATZO BILBON

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 57. or)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Atzo Bilbon nengoan<br>ta gaur Bitorian<br>sarri ura agortu da<br>gure iturrian. | 04. Bata da Mari Pepa<br>bestea Karlota<br>hirugarrena bere<br>txairo txairoa da.    |
| 02. Oh neska farandona<br>akerran bekoki<br>zazpi arto zati ta<br>babalapiko bi.     | 05. Tiriki tauki tauki<br>non dona senarra?<br>Tiriki tauki tauki<br>basora yoan da. |
| 03. Mendiolan ei dagoz<br>hiru neskatila<br>asko egoten dira<br>eurari begira.       | 06. Bart gaberdian harek<br>eroan katua<br>ha zekusenak hutsik<br>ez eukan barrua.   |

03. **Ei:** omen.  
**Dagoz:** daude.
04. **Txairo:** dotorea, airosoa.
05. **Dona:** don, dun.
06. **Ha:** hura.  
**Zekusenak:** ikusten zuenak.  
**Eukan:** zeukan.

## EDURRA TEILATUAN

(“Euskalerrriaren Yakintza IV”, R. M. Azkue, 59. or)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Edurra teilatuan<br>abarra basoan<br>taloak erretako<br>huruna auzoan.                | 05. Gaztea nintzanean<br>denpora batean<br>ez nintzan sosegatzen<br>ezkondu artean. |
| 02. Kortan daukagu txahal bat<br>hazurra ta azala<br>Aita San Antoniok<br>loditu dagiala. | 06. Ezkondu eta gero<br>hilabete bage<br>porrusaldea neuan<br>oriorik bage.         |
| 03. Astean bariku bi<br>zapatua beti<br>domekan okelea<br>auzoan ikusi.                   | 07. Porrusaldataxo likin<br>orio bagea<br>ez nintzan ni gaztetan<br>holako zalea.   |
| 04. Edurra teilatuan<br>zakua lepoan<br>ibili beharko yoat<br>aurtengo neguan.            |   |

01. **Erretako:** erretzeko.
02. **Korta:** ikuilu, tegi.
03. **Bariku:** ostiral.  
**Domeka:** igande.
04. **Yoat:** diat.
05. **Hilabete bage:** hilabete baino lehenago.

## GAZTEAK BADAKIZU

(Euskalerraren Yakintza IV, R. M. Azkue, 62 or.)

Gazteak, badakizu  
zelan dantzan egin  
burua gora gora  
kaderai eragin.

**Badakizu:** badakizue. Forma arkaikoa, lehenago zuek subjetuari normal zegokiona.**Kaderai:** zangoei, hankei.

## GORA GORA

(Euskalerraren Yakintza IV, R. M. Azkue, 62. or. Kopla batzuk kendu egin ditut, beste sail batzutan jasoak daudelako)

01. Txapel azula eta  
barradunak prakak  
Arratian ei dagoz  
mutilak galantak.

02. Orain etorri yaku  
herrira modea  
txapel azulak eta  
merino-yakea.

03. Urkiola ganeko  
lilio lorea  
handixe gora dago  
zerura bidea.

04. Lapatza goi-arina  
Undurra behekoa  
bien erdien dago  
Undurra goikoa.

05. Iturrira yoanda  
laster da etorri  
baragarriren bat  
topau ez balegi.

06. Harro harroak dira  
azukariloak  
holakoxeak dira  
Zeanurikoak.

07. A mutil hankaluze  
pipa hartzailea  
txingarrak erre deutso  
surraren puntea.

08. Ikatza zabaltzeko  
ona da larrina  
saltzeako ei dauko  
alaba zaharrena.

09. O mutil hankaluze  
txotxo armario  
kantzontzilo kordela  
bernati dario.

10. Oraingo neskatilak  
dauken gogoagaz  
ezkonduko litzakez  
ota moltzoagaz.

11. Ama neurea beti  
agiraka neuri  
iluntzean goizegi  
etorriagaiti.

12. Hurrengo agiraka  
eiten daustanean  
ez nazala etorriko  
gaberdirartean.

13. Arrabako landea  
balego Gorbeien  
hantxe egingo geunke  
zirikin zakien.

02. **Yaku:** zaigu.05. **Baragarri:** barregarri, xelebrea. Baita badaezpadakoa, ez fidatzekoa ere.  
**Ez balegi:** ez baleza.07. **Deutso:** dio.08. **Saltzeako:** saltzeko.  
**Ei dauko:** omen dauka.

10. Konparazio indartsua. Ote multzoak batzutan giza itxura hartzen du, altueran hortxe-hortxe ibiltzen bait da. Ote mul-

tzoa ondoan eserita egoteko edo bere ostean laztanka aritzeko ere deigarria da, baina berarekin ezkontzeko derrigor handia behar da.

11. **Agiraka:** haserre eginez, erritan.  
**Etorriagaiti:** etorri izanda ere, etorri izan arren.13. **Arrabako landea:** Gorbea azpiko zelaia, Zeanuri aldera.  
**Zirikin zakien:** onomatopeia zorrotza eta dotorea, malezia zeharrez.

## HIRU LAUKO TXOKOLATEAK

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 64 or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Hiru lauko txokolateak<br>alper eingo yok lau lauko<br>gona gorriak salduagaitik<br>ez dok usoa galduko.   | 03. Gorua balitz lo egotea<br>barriketea ardatza<br>neure emazteak egingo leuke<br>baztarrak bete mataza.   |
| 02. Urioleak eroan deustaz<br>neuri aurtengo linoak.<br>Ai! Sekulako izutu nintzan.<br>Harek eroezan brinkoak! | 04. Urioleak eroan deustaz<br>umeak eta andrea<br>ez dot besterik sentitzen baia<br>bai Matxalentxo neurea. |



01. **Eingo yok:** egingo dik.  
**Usoa:** hemen usatzea edo erabilera, ez hegaztia.
02. **Urioleak:** uholak, uholdeak.  
**Eroan deustaz:** eraman dizkit.  
**Harek:** hareik, haiek.  
**Eroezan:** zeramatzaten.
04. **Baia:** baina.

## MUTIL

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 67 or.)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Mutil txapel gorriduna<br>dantzan asko dakizuna<br>zuk izangozu emazte<br>yake zuriduna. | 02. Kalabazeak aihena berde<br>puntan lorea beilegi<br>mutil txapel gorridunak<br>krabelinea dirudi. |
|--|--|

03. Andra gona gorriduna  
dantzan ondo dakizuna  
zabal zabal topaukozu  
etxean itxi dozuna.



01. **Yake:** soineko bat, jaka.
03. **Topaukozu:** topatuko, aurkituko duzu.  
**Itxi:** utzi, laga.

## SANTA LUZIETAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 134 or.)

01. Santa Luzietan gaua da luze  
San Bernabeetan dogu eguna  
aukera betean bizi dan horrek  
ez dau, ez, erruki laguna.
02. Azaro egunetan ogia gogor  
eztegu egunetan dogu biguna  
senartxorik bage bizi dan horrek  
udan ikusten du negu iluna.



01. **Aukera betean:** aukera osoan, nahi bezala, nahi den komenentzian.

### AGUR AGUR AGUR

(Euskalerraren Yakintza IV, R. M. Azkue, 273. or.)

Rau rau rau  
sardinak eta makailau.

Agur, agur, agur  
San Andreskoak  
dantzari onak dira  
Musekolakoak.

Bekoki ederdunak  
Garagartzakoak  
astaputz batzaileak  
Udalakoak.

Urrezko amantaldunak  
Santa Agedakoak  
Belarriko ederdunak  
Galartzakoak.

### EDER EDERRA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 305. or.)

01. Eder ederra baino  
hobozu komuna  
ederrak kendu leizu  
buruko zentzuna.

02. Sarritan egoten da  
zozoa kantetan  
niri be etxat faltadu  
gogoahorretan.



01. **Hobozu:** hoba dozu, hobe duzu.  
**Leizu:** liezazuke.

02. **Etxat:** ez zait.

### ESAN DOT LEHEN BERE TA

(Cantares populares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga. Anuario de "Eusko Folklore", 1930 -Tomo X, 16. or)

01. Esan dot lehen bere ta  
esatera noa  
buztarri gogorra da  
matrimonioa.

02. Guztia nahi dabenak  
guztia galtzen dau -  
itsuak eskribaua  
engainatu dau.

### ALTUAN SAN BERNABE

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 287 or.)

01. Altuan San Bernabe  
bajuan Gordobil  
Otxandioko plazan  
tanbolina dabil.

02. Arta jorrara noa  
lur barri barrira  
bedarrajorratuta  
artoa sasira.

### LANDA EDERRETAN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 825 or.)

01. Landa ederretan eperrak dantzan  
pagaduietan usoak  
orain hemen dan ederrena da  
Mari Otorakoa.

02. Horrek behar dau laguna bere  
beroi dan bezelangoa  
beroi dan bezelangoa leuke  
Julian Artabekoa.

## NESKATILA GAZTE BATEK

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 786 or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Neskatiila gazte batek<br>enpeinadu nau ni<br>atera daiodazala<br>bertso bat edo bi. | 02. Zerbait ostu ei dabe<br>erlauntzen bateti<br>haren pasadizua<br>esatera noa ni. |
|--|---|



01. **Enpeinadu nau:** enpeinatu nau, saiarazi nau.

**Daiodazala:** diezazkiodala.

02. **Ostu ei dabe:** ebatsi, lapurtu omen dute.

Pena da pasadizuaren hasera besterik ez jaso izana, Azkueren kantatzaileak segurrenik gehiago ere jakingo bait zuen. Iragarpen hutsan gelditu gara.

## BEHI ARRANDUNE

(Cantares populares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga - Anuario de Eusko-Folklore, 1930, Tomo X, 13. or.)

Aita ta seme trabenan dagoz  
ama ta alaba yokoan  
ostera be euki beharko dogu  
behi arrandune auzoan.



**Ostera be:** berriz ere.  
**Arran:** zintzarri, joare.

## MARI TRAPUZAR

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 711 or.)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Mari trapuzar, inar arteko<br>sasi artean jaioa<br>egundo bere ez don ikusi<br>heure herrian gorua. | 02. Aita ta seme tabernan dagoz<br>ama ta alaba jokuan<br>ostera bere egongo ditun<br>abarka zaharrak kakuan. |
|---|---|



01. **Inar:** ginar, txilar.

**Egundo:** inoiz, sekula.

**Gorua:** haria egiteko tresna.

## OLGADU NAHI DABENAK

(Gure Kantuak. Udako euskal ikastaroa. Derio, 1991. Labayru ikastegia. 166- 169 eta 175. orrialdeak. Ezberdinak bakarrik harturik)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Olgadu nahi dabena<br>Karmen egunian<br>etorri Markinara<br>ilunabarrian. | 03. Oraingo neskatilak<br>tonillo tonillo<br>ez dago tonilorik<br>maioranak baino.  |
| 02. Gorabehera luziak<br>gerria lindia<br>kolore zuri-gorri<br>probentziana.  | 04. Eperrak kantatzen dau<br>Arrate ganian<br>neskarik ederrenak<br>Allusti aldian. |

05. Amak emon baleustaz  
hamar hamaseiko  
ezkonduko nintzela  
udabarrirako.

06. Gorengo ganbarara  
bidie labana  
topinan sartu jaku  
mutil barrabana.

07. Tiriki tauki tauki  
mailuaren hotsa  
hamalau hargin baino  
hoba dok harotza.

08. Urkiolara joan  
Mañaritik gora  
trokotza sartu jatan  
ipurditik gora.

09. Zetako joan zinan  
ipurdi zabalik?  
-Ez neuelako jakin  
trokotzik dauenik.

10. Sarriten egoten da  
karkabetan ura  
asto buztan bakorik  
inok etxok gura.



01. **Olgatu nahi dabenak:** jostatu, jolastu  
nahi dutenak.

02. **Lindia:** dotorea, xarmanta.  
**Probentziania:** *probentziano* ren femeni-  
noa, probintziakoa, hiritarra ez dena.  
*Giputza* ere izan liteke, Gipuzkoari *pro-  
bintzia* deitzen bait zitzaion.

03. **Tonillo:** gaztelaniazko *tomillo*, ezkaia.  
**Maiorana:** gaztelaniazko *mejorana*,  
mendaroa. Biak landare usaintsuak.

05. **Emon baleustaz:** eman balizkit.  
**Hamaseiko:** antzinako diru bat.

06. **Bidie labana:** bide irristakorra.  
**Topina:** tupina, metalezko ontzia.  
**Jaku:** zaigu.

**Barrabana:** barrabasa, deabrua, bihu-  
rria.

07. **Hoba dok:** hobe duk.  
**Harotza:** zurgina.

08. **Trokotz:** trukutz. Ira, ote, aza eta gisako  
landareak moztean, lur barruan geratzen  
den zatia.

09. **Zetako:** zertarako, zergatik.  
**Dauenik:** dagoenik.

10. **Karkaba:** lubakia, sakana, zulogune  
luzanga.  
**Buztan bakorik:** isats gaberik.  
**Etxok gura:** ez jok, ez dik nahi.

## KEPA ARRIZABALAGA SORTA

01. Neure amak ezkontzeko  
neure moduko batekin  
dotea ematen dio  
oilo lokea bost txitakin.

02. Hauxe da akaberea  
akabera honen tristea  
agur aita eta ama  
agur neure arrebea.

03. Bukaera bukaera  
hauxe da akaberea  
inori txarrik ein badu  
parkaeske gagoz jentea.

04. Maritxu tabernerea  
txikitxu konponidea  
hiru kuartilu t'erdigaz  
egiten dau azunbrea.

05. Bukaera bukaera  
hauxe da akaberea  
motiborik emon barik  
hasarre daukat andrea.

06. Emerandoko buruen  
hamaika zoro munduen  
atsoak jo dau gizona  
laratzuegaz buruen.

07. Ai Maritxu joskilea  
etxe honetako alabea  
egun baten josten ditu  
prakak eta alkondarea.

08. Esan dozu eder hori  
ez zagozela neuretzat  
eskerrik asko maitea  
baina neu bere ez zeuretzat.

09. Bukaera bukaera  
hauxe da akaberea  
inori txarrik ein barik  
hasarre deuku jentea.



01. **Lokea:** loka, koloka, kolka.

03. **Ein badu:** egin badogu. *Dogu-dou-du*.

04. **Konponidea:** *konponidua* ren femeni-  
noa. Gauzak neurritz, alperrik galdu gabe  
egiten dakiena. Baita gauza gutxiz txukun  
jazten dakiena ere.  
**Kuartilu:** litro erdi.

**Azunbrea:** bi litroko neurria.

06. **Laratzuegaz:** laratzu, laratzarekin.

07. **Joskilea:** joslea, jostuna.

09. **Deuku:** daukagu.



01. Txikitxu polit hori  
noren a zara zu?  
Neurea izango zara  
zeuk gure badozu.
02. Alperra beti dago  
gauza bat pentsaten  
behar eiten dauana  
ez dala kantsaten.
03. Atsoak alabea  
saldu daianean  
loingo dau zurrurru  
oge baztarrean.
04. Maritxu ta Patxitxu  
ez esan guzurrik  
bargetako trasteak  
ez deko hazurrik.
05. Mekaguen la puñeta  
karajo ta koino!  
Kakartean sartu naiz  
eperzuloraino.
06. Agure zaharrak dekoz  
hiru elementu  
eztule ta gorgojo  
ta uzkerria franku.
07. Agur bat esateko  
gazte ta zaharrari  
ardo apur bat ekarri  
ze gara egarri.
08. Maritxu zalakoan  
astoan hankea  
Maritxu emon eistezu  
neure honen bakea.
09. Oraingo mutikoak  
satorren plantakaz  
erronerira doaz  
abarka-mantakaz.
10. Akaberea da ta  
ibili kontuen  
akabatera noa  
hurrengo puntuen.
11. Udabarria da ta  
Martzelina bero  
harek emongo leuke  
eskatu ezkerro.
12. Eskatuten bildur ta  
bera emoten lotsa  
alperrik galtzen deuko  
bere santu motza.
13. Hamaika demonino  
badago munduen  
Josepa lehengusinek  
engaineu ninduen.
14. Beti ibili behar  
neure inguruen  
beragandu artean  
sorginen moduen.



01. **Gure:** gura, nahi.
02. **Pentsaten... kantsaten:** pentsatzen...  
kantsatzen, nekatzen.  
**Behar eiten dauana:** lan egiten duena.
03. **Daianean:** dezanean.  
**Loingo dau:** lo egingo du.
04. **Deko:** dauka.
06. **Dekoz:** dauzka.  
**Gorgojo:** gargajo, gorroa, txu sendoa,  
zintzurreen sortzen den mukitasuna.
07. **Ze:** zeren, bait.
08. **Astoan hankea:** astoaren hanka.  
**Emon eistezu:** emaidazu, eman iezada-  
zu.
09. **Plantakaz:** plantekin, itxurekin.
12. **Deuko:** dauka.
13. **Engaineu:** engainatu, enganiatu, atzipe-  
tu.

Kopla sorta hauek Kepa Arrizabalaga Bizkaiko Gatarik pandero jole eta kopla kantari trebeak idatzi zizkidan. Hemen emanak baino gehiago ere bai, baina ezberdinak bakarrik hautatu ditut. Kopla txikietako bigarren hori koplarik politenetarikoa da. Alperren pentsaketak motzago eta zorrotzago nekez azal daitezke. Ironia onaren ezaugarria gauza asko batera iradoki ahal izatea da, ezein konkreturen konturik eman beharra saihestuz. Esan nahi izan du, esan ere esan du, baina ezin da frogatu. Bestea, zerbaitera argi eta zuzen doana, ziria litzateke. Hau ez da txarra, baina artea ironian hasten da.

## LEON-MAURIZIA-FASIO

(Alboka eta Txikitrixia. Leon - Maurizia - Fasio Xoxoa Diskak - Autapen, SA)

01. Hauxe da despedidea  
despedide honen tristea  
denpora txarrak emonda  
etxera doa jentea.
02. Ai esango bai nik esango  
ai ez naz ixilik egongo  
ai Zeberioko neskarentzat  
ai herri gogorra da Orozko.



03. Ai hauxe da despedidea  
ai despedide honen tristeia  
ai ai agur aite ta ama  
ai agur arraba maitea.
04. Artolak deuko, Artolak deuko  
Artokak deuko famea  
bera deuela, bera deuela  
mundu guztiko jentea.
05. Goixean Parisen, gaubean Parisen  
Parisko kalea luzea  
hauxe kale hau akabeu ezker  
atzeko zaldie neurea.
06. Durangon bazkaldute  
Mañarien gora  
Urkiolara goaz  
San Antoniora.
07. Urkiolara yoanda  
zapatak urrutu  
Aite San Antoniok  
barriak eingoitu.
08. Josetxuk koiuko deu  
sasi en zozoa  
Maritxuk ipinteko  
saltsatxu gozoa.
09. Josetxuk esango deu  
hauxe bai gozoa  
Maritxuk esangotso  
neuk ipinikoa.
10. Despedidea da ta  
ibili kontuen  
akabetara noa  
hurrengo puntuen.
11. Ai Abadiñon San Blasetan  
ai neskazaharrak bentanetan  
ai neskazaharrak bentanetan  
ai mutilzaharrak engainetan.
12. Ai Fasio Iorrekoa  
ai soinuari famosoa  
ai Mauriziak hainbet bider  
ai yoten dotso fanderoa.
13. Txikitxu polit hori  
zer dozu negarrez  
amak tabernarako  
dirurik emon ez.
14. Amak emon baleustez  
hamabost hogeiko  
han deukot ipinitze  
etxaguntzerako.
15. Santa Katalinako  
dendari gozoa  
zakuen sartu eta  
zakuen zuloa  
handixik ageri deu  
kadera gozoa.
16. Sagar garratzak eta  
okeran berdeak  
horreixek direala  
gauza zebreak.

17. Despedidea da ta  
ibili kontuen  
harrike eiten dotsiela  
ahal deuden moduen.
18. Banengon nengoanean  
Bilboko Kontzejupean  
hantxe pregunteu nenduen  
sagarrek zegan direan.
19. Libertadea eskatzen diot  
Aite San Antoniori  
oraintxe bota bihodazela  
bertso pare bat edo bi.
04. **Deuko famea:** dauka fama.  
**Deuela:** duela.
05. **Akabeu:** akabatu, amaitu, bukatu.
07. **Urrutu:** urratu, apurtu.  
**Eingoitu:** egingo ditu.
08. **Koiuko deu:** hartuko du, hatzemango du.
09. **Esangotso:** esango, erranen dio.
14. **Emon baleustez:** eman balizkit.  
**Deukot:** daukat.  
**Etxaguntzerako, etxaguntza:** etxaldea, etxe eta lurren bilduma, eta horren jabetasuna.  
**Etxagun** edo **etxajaun:** etxalde baten jabea. Batzuk etxagun, besteak maizter.
15. Hiru puntuko koplak honetan bi koplak nahasita daude.
16. **Horreixek:** horreixek.
17. **Eiten dotsiela:** egiten dietela.  
**Deuden:** duten.
18. **Preguntau nenduen:** itaundu, galdetu nuen.  
**Zegan:** zenbatean, zer preziotan.
19. **Bihodazela:** behar dodazela, behar ditudala.

∞

## AGOSTUEN LELENGUA

(Gure Kantuak. Udako euskal ikastaroa. Derio, 1991. Labayru Ikastegia. 164. orrialdetik aurrera. Ezberdinak bakarrik harturik)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Agostuen lelunga<br>San Pedro Mendexakua<br>etxat sekula ahaztuko<br>orduko iluntzekua.           | 05. Bentanan dauen damia<br>begi ederren jaubia<br>ojala bazinatekez<br>gorputz da arima neuria.  |
| 02. Irailgo Andra Maria<br>Arraten erromeria<br>neu bere haraxe noia<br>eiten ez badau euria.         | 06. Errekaldian asuna<br>etxeko andra lizuna<br>sorginek erungo ahal habe<br>errekaldian barruna. |
| 03. San Pedro Santa Klaretan<br>neskazaharrak bentanetan<br>nobijue topetako<br>Santijago Santanetan. | 07. Altuan San Antonio<br>bajuan Madalenia<br>bien bitartian dago<br>Txakurzuloko bentia.         |
| 04. Neure kapela makurra<br>beti tabernara gura<br>halakon baten itxikot<br>azunberdiren kontura.     |   |



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Etxat:</b> ez zait.  | <b>Azunberdi:</b> azunbre erdi, litro bat.  |
| 02. <b>Neu bere:</b> neu ere.<br><b>Noia:</b> noa.  | 05. <b>Dauen damia:</b> dagoen dama.<br><b>Jaubia:</b> jabea.<br><b>Ojala bazinatekez:</b> oxala, hobe, ai bazi-<br>na. |
| 03. <b>Nobijue:</b> mutilaguna, senargaia.<br><b>Topetako:</b> topatzeko, aurkitzeko.                                       | 06. <b>Erungo ahal habe:</b> eramango ahal<br>haute, eraman hazatela.<br><b>Barruna:</b> barrura, barnera.              |
| 04. <b>Gura:</b> nahi.<br><b>Halakon baten:</b> halakoren batean, be-<br>hin edo behin.<br><b>Itxikot:</b> utziko dot, dut. | 07. <b>Bentia:</b> benta, ostatua.  |

## DANTZARI DANTZA

(Dantzari dantza - Gerediaga 3. aroa, 3. zenbakia, Gerediaga Elkartea, Durango. Iraila 1983)

## Izurtzako koplak:

- |   |  |
|---|--|
| 01. Agure trikili trakulu bat<br>gure atien eguen bart<br>ezetz ta ezetz inuen baine<br>andrie nahiko zuen hak. | 06. Bere buru gorri ta guzti be<br>Patxi Etxanogoikue<br>haren parien jantzan eiteko<br>Benito Goitikue.       |
| 02. Lastozkue zan atie<br>buruko orratza trangie<br>ha edeiteko ez zan aguriek<br>zetako ete jok andrie.        | 07. Artakamara motxolinue<br>domingilue lepuen<br>eraijok hire eperdi horri<br>marruekuen moduen.              |
| 03. Kardantziluen mosuarekin<br>Jose Sasiolakue<br>haren parien jantzan eiteko<br>Morroi Uresandikue.           | 08. Aite Periko, seme Juaniko<br>zer dogu apariteko?<br>Orio-azak gozo gozuak<br>arto beruaz jateko.           |
| 04. Txibita paluaren hankakin<br>Santi Altunakue<br>haren parien jantzan eiteko<br>Joakin Garauntzakue.         | 09. Perretxikuten nenbilenien<br>Mendiolako basuen<br>dama gazte bat bilatu neban<br>elorri baten onduen.      |
| 05. Kardulatzaren mosuarekin<br>Fermin Leizartzakue<br>haren parien jantzan eiteko<br>Kursulu Kaminogoikue.     | 10. Gaztie nintzen, zorue nintzen<br>jarri naijakon onduen<br>amantaltxoa zabaldu eta<br>hartu ninuen altzuen. |



01. **Trikili trakulu:** onomatopeikoa. Ozta-ozta eta ritmo finko gabe ibiltzea.  
**Eguen:** zegoen.  
**Inuen:** zion, esaten zuen.
02. **Trangie:** tranga, ate itxia ez irekitzeko, barrutik jartzen zaion zurezko edo metalazko haga.  
**Edeiteko:** irekitzeko.  
**Zetako ete jok:** zertarako ote dik.
03. **Kardantziluen:** gardantxiloaren. Txori mota polita eta kantari trebea.  
**Mosuarekin:** muturrarekin.  
**Parien:** parean, alboan bikote gisa.
04. **Txibita:** makila luze eta mehea, garia jotzeko. Hortik *txibitea emon*, *txibita eman*: jipoitu, ederrak eman.
05. **Kardulatza:** gardulatza, gardu gogorra, gardaberaren alderantziz.
07. **Motxolinue:** mozolinoa, dantzarako erabiltzen den panpin antzeko bat, mozolotik etor daitekeena.  
**Domingilue:** motxolinoaren sinonimoa, zinta dantzan, esaterako, ardatz puntan ipintzen den trapuzko edo gisako irudixoa.  
**Lepuen:** soinean, bizkarrean.  
**Eraijok:** eragiok, astin ezak.  
**Marruekuen:** marrokien, marokotarren.
08. **Apariteko:** afaritarako, afaltzeko.  
**Orio-azak:** olio errez onduriko aza egozia. Singularrean hobeto.  
**Beruaz:** beroarekin.
09. **Perretxikuten:** perretxikotan, perretxiko bila, biltzera.
10. **Naijakon:** forma okerra, *nintzakon*'en orde. *Nintzaion*'en orde *natzaion* esatea bezala.  
**Altzuen:** altzoan, magalean.



## Berriz, Abadiño.

01. Hor goiko larretan  
eperrak dabiz kantetan  
gure auzoko gizontxu hori  
kaka daijola praketan.
02. Azak eta porruiek  
estudiantien kontuek  
hamalau oilo jan dotsezela  
Basiliori katuek.
03. Hor goiko landetan  
eperrak dabiz kantetan  
gure herriko alkatieri  
kaka ein dotsela praketan.



01. **Larre:** belar eremua, animalien bazkalekua.  
**Dabiz kantetan:** dabilta kantatzen, kantatzen ari dira.  
**Daijola:** dariola.
02. **Dotsezala:** dizkiola.
03. **Ein dotsela:** egin diola.



01. Garaiko plazan otie loran  
Ermuan Asentzinue  
jantzan ikasi gura dabena  
Trumoiteazpire bejjue.
02. Zortzi dantzari nonbratu dabez  
Angeltxo Dukienekue  
tximiz de porrost, tximiz de porrost  
Agustin Bekoerrotakue.
03. Zesto zaharraren eperdijekin  
Zizilio Olakuetakue  
zenteno lastuen kaderakin  
Erramon Ujertekue.
04. Okan berdien koloriekin  
Kazinto Dukienekue  
haren guztien tanborrerue  
Dionisio Deskargakue.
05. Dantzari ontzat apartau dabe  
Tomas Iberrekue  
haren parien jantzan eiteko  
Sotero Solozabalkue.
06. Krabelinie belarriren da  
Patxi Lebarijokue  
haren parien jantzan eiteko  
Antonio Uxarkue.
07. Larrosatxuen koloriekin  
Martzelo Malukurtukue  
haren parien jantzan eiteko  
Ebaisto Gaztelugoikue.
08. Aldaka adarra ezpanien da  
Lorentzo Zenunbekue  
haren parien jantzan eiteko  
Longatxikiaurrekue.

09. Zortzi jantzari nonbratu dabez  
San Migel Ijorretakuen  
beratzigarrena banderaue  
tanbolinteruen onduen.



01. **Otie loran:** ota lorean, ota loratua.  
**Asentzinue:** asentzio lorea.  
**Gura dabena:** nahi duena.  
**Beijue:** bihoa, joan bedi.

02. **Nonbratu dabez:** izendatu dituzte.

03. **Zesto:** zare, otarre, saski.  
**Eperdijekin:** ipurdiarekin.  
**Zenteno:** zekale, alea eta lastoa ematen duena.  
**Kadera:** zango, hanka.

04. **Okan:** okaran, aran.

06. **Krabelinie belarrijen da:** krabelina belarrian eta, belarrian duela.

08. **Aldaka:** kimua, bereziki zuhaitz orpotik ernetzen diren zuhaizkide berriak.

**Ezpanien:** ezpainean.

**Banderaue:** banderaduna, dantza taldean bandera eramaten duena.



Mañari. 1869 ingurukoak.

01. Zortzi jantzari ondo kunplitu  
Jose Ramon bandererua  
haren laguntzan jantzan eiteko  
Juan Manuel Askoitibekua.  
Tra la la...

03. Don Koronelo Geretakua  
da jantzari famosua  
haren parian jantzan eiteko  
Kasero Garaitorrekua.  
Tra la la...

02. Erretxinien pantorrilakin  
Bixenti Mendibutzukua  
haren laguntzan jantzan eiteko  
Ziprian Landaluzekua.  
Tra la la...

04. Txontxongiluen buruarekin  
Josetxu Galtzarekua  
haren parian jantzan eiteko  
Paskual Mañazkobekua.  
Tra la la...



01. **Jantzari:** dantzari. Bizkaierarik gehienan *dantza* honela ahozkatzen da: *yantza*, *jantza* (jota espainola) edo *jjantza* (jota frantsesa), eskualdeen arabera.  
**Bandererua:** banderaduna, bandera eramalea.

02. **Erretxinien:** erretxinaren.  
**Erretxina:** pinukiek eta zenbait landarek ematen duten jariakin itsaskorra.  
**Pantorriila:** berna, zangosagarra.  
03. **Parian:** parean, alboan bikote gisa.



Iurreta (Oraintsukoak).

Aita San Migel Iurretako  
zeru altuko loria  
agure zaharrak jantzan ikusi  
ta harek eiten jok barria.

01. Danon aurrien tanbolinteru  
Karmelo Gorriozkue  
horren doinuen danok prest gagoz  
egiteko banangue.

04. Orain hurrengo jantzarije da  
Justo Pepaztenekue  
estu ta larri ibili arren  
ez da justu-justukue.

02. Txotxangiluen arintasunez  
hor dator Peru Sartada  
hego haizie dabilenien  
jantzari ona inun bada.

05. Gero nerbijo bako mutile  
baina jantzari abile  
aurrekularirik inun bada  
Txiflisgana etor dedile.

03. Horren pareko jantzarije da  
Pepe Etxe Txikikue  
hamaika bider jantzari-jantzan  
makila apurturikue.

06. Ezkerreko hanka baltziturik  
eukiten dau Anton Marik  
Inoiz edo behin gelditu da  
jantzari-jantzie ein barik.

07. Txapliguaren arintasunez jasoten puntapijue badeuko Garizarreko Billak hortan bere jenijue.
08. Zazpigarren mutil morroskue Tilino bandererue puzke ta puzke ibili arren egingo deu atzeskue.
09. Azkenez ehun kiloko ixko bat dogu Mikel Montokue horren parien eneuke gure eiterik makil-jokue.
10. Mikeltxo Xifri ez da haundije itxuraz behintzet neurriren beti atzien ibili biher jantzari-jantzie ein deijen.
11. Montoi-ostien jaijotakue gure Txasio txikije jantzari ona eta abile jenijoz bixi-bixije.
12. Askotan ez da konturatuten bestiek zetan dabixen despistiek eukiten dauz baina jantzari fine da Bixen.
13. Nerbijorik bez, jenijorik bez baina jantzari gozue ixerdi barik amaituko dau Lutxiok jantza osue.
14. Jantzari-jantzan oso abile bestela be bai lketza makil-jokuen itxi ezkeron armetan dau honek saltsa.
15. Logure arpeijaz astiro astiro hurrengoko jantzarije Txapuk itxurak badeukoz baina bera ez ei da nagije.
16. Bandererue perratu barik agertu jaku plazara Nestorrek jasoko dau hankie ahal badau goiko puntara.
17. Puntapijue ondo domaute botaten ona da Rakan arpela da ta ibili biher beronaz beti matrakan.
18. Tripie darijola dabela hor Txiflis Tanborrerue tarranpatapatan danok ein dogu jantzan banan-banangue.



- Loria:** lorea.  
**Eiten jok barria:** egiten dik irria.
01. **Prest gagoz:** gertu gaude.  
**Banangue:** banangoa, banakakoa, banan egiten den dantza.
02. **Txotxangiluen:** txontxongiloaren.  
**Haizie:** haizea.
03. **Jantzarije:** dantzaria.
04. **Nerbijo bako:** nerbio, bizitasun gabeko.

06. **Baltiturik:** beltz eginik, bezturik.  
**Eukiten dau:** edukitzen du.
07. **Txapligu:** etxofero, zipunpa, suziri.  
**Puntapijue:** dantzan hanka gorantz jasotzean, lehen kolpean belaun-oker jaurti eta gero goian zuzentzea, haseratik dena zuzen eraman beharrean.  
**Badeuko:** badauka.
08. **Bandererue:** banderaduna, bandera eramailea.  
**Atzeskue:** atzeskua. Dantzariak elkarri eskutik osatzen duten sokan, aurrekoa *aurrekua* da eta atzekoa *atzeskua*. Bakoi-tzak bere izen bereko dantza egiten du.
09. **Ixko:** zezen, zekor, hitza *idisko* 'tik dator baina.  
**Eneuke gure:** ez nuke nahi.
10. **Biher:** behar.  
**Ein deijen:** egin dezan.
12. **Dabixen:** dabizen, dabiltzan.  
**Eukiten dauz:** edukitzen ditu.
13. **Bez:** be ez, ere ez.
14. **Itxi:** utzi, baimendu.  
**Armetan:** armatzen, sortzen.
15. **Arpeijaz:** aurpegiarekin.  
**Badeukoz:** badauzka.  
**Ei:** omen.
16. **Jaku:** zaigu.  
**Hankie:** hanka, zangoa.
17. **Domaute:** domatuta, hezita, ondo landua.  
**Arpela:** alperra.  
**Beronaz:** beronekin.
18. **Tripie darijola dabela:** tripa dariola duela.  
**Tanborrerue:** danborjolea.

Azken saila, Iurretako hamazortziak alegia, Antton Mari Aldekoa-Otalorak egindako koplak dira, bera ere dantzarietariko bat zela. *Dantzari dantza* izeneko dantza mota honek Durangaldean oraindik ere indar handia dauka. Antxinatik datorrena da, eta dantza hauek, aurrekua batez ere, oso indartsuak dira.

## JON AURRE SORTA

### Maria Astobiza - Orozko

01. Matxalen Busturiko gabian gabian errondea darabil bere portalian.
02. Erabilten ez badau gabian gabian eskegite ipiniku zezinan parian.



01. **Gabian gabian:** gauean gauean, gauero.  
 02. **Eskegite:** dindilizka, dilindan, zintzilik.  
**Ipiniku:** ipiniko dogu.

**Zezean parian:** zezinaren parean.  
**Zezeina:** okela gazitua, gero eskegita ipin-  
 tzen dena, lantzean zati bat kentzeko.

Bigarren koplak hau oso gordina eta sadikoa da. Bera eskegitzea uler daiteke, edo erabiltzen ez duen hura. Matxalen Busturikok zeukan entzuteaz, zer erabiltzea nahi zuten bistan da.

## Flora Gerrikaetxebarria - Ereño

01. Kantetan bihar dot hasi  
 inok ahal badeu ikesi  
 alaba zaharren moduen  
 pobrerik ezin lei bizi.

02. Kalien nago kalien  
 harri hotzaren gani  
 atie nok edei ez da  
 gabak emon daidenien.



01. **Kantetan:** kantatzen.  
**Ezin lei:** ez leiteke, ez liteke.

02. **Nok edei:** nork ireki.  
**Emon daidenien:** eman diezadanean,  
 ematen didanean.



01. Honek bai dantzarijek  
 dantzan egiteko  
 begire dauenari  
 barre eragiteko.

02. Batabat amaitute  
 bigarrena hasi  
 ai neure bihotzeko  
 Maria Kontzesi!

03. Goiok arinak eta  
 beheiek arinago  
 ointxe be dantzan gurau  
 arta jorran baino.

07. Aita San Antonio  
 Urkiolakue  
 askoren bijotzeko  
 santu debotue.

04. Gorputze geldi geldi  
 hankari eragin  
 gaztiok badakije  
 zelan dantzan egin.

08. Askok egiten dotso  
 San Antoniori  
 egun batien joan da  
 bestien etorri.

05. Truku truku truku  
 ez niri ukutu  
 ama kamaran daku  
 sentiduko gaitu.

09. Tiriki tiki tiki  
 tiriki tiki ton  
 ...  
 ...

06. Sentiduten bagaitu  
 zer egingo dosku  
 hartun palue eta  
 lepue berotu.

10. Hamalau bertsorekin  
 horra despedida  
 geijao ez da komeni  
 eurok asko dira.



01. **Dantzarijek:** dantzariak.  
**Dauenari:** dagoenari.  
**Barre:** irri.

04. **Badakije:** badakite.  
 05. **Ukutu:** ikutu, hunkitu.  
**Kamaran daku:** ganbaran daukagu.

02. **Batabat:** baten bat, bat edo bat. Badirudi  
 neurria luzatu nahi dela, bat soilik esan  
 nahi bait da. *Batak bat* ere izan daiteke,  
 hots, txandaka dantzan egiten duela.

06. **Dosku:** digu.  
**Hartun palue:** hartu makila.  
**Lepue:** bizkarra.

03. **Beheiek:** beheak, beheko aldeak.  
**Ointxe be:** oraintxe ere.  
**Gurau:** gurago, nahiago.

08. **Dotso:** dio.  
**Batien:** batean.  
 10. **Geijao:** gehiago.

## Kastora Irigoien - Lezama

01. Seintxu txikerra negarrez dago  
harri hotzaren ganian  
atea nok zabaldu ez deuko  
etsera datorrenian.
02. Aite ta seme tabernan dagoz  
ama ta alaba jokoan  
ostera bere egongo dire  
soineko zaharrak kakoan.



01. **Seintxu:** haurtxo, umetxo.  
**Txikerra:** txikia.  
**Nok zabaldu:** nork ireki.  
**Deuko:** dauka.  
**Etsera:** etxera.

02. **Dagoz:** daude.  
**Ostera bere:** berriz ere.

## Arrazolako Eustakio

01. Euskaldun zintzoa danak  
egin bihar du euskera  
erdera maitetzen bozu  
euskaltar ona etzera.
02. Eragin gorputzari  
ez egon geldirik  
ez dot gure soinua  
galtzia alperrik.
03. Dantzazale bazagoze  
ez egon dantzan ein barik  
egoki denporiari  
kantsau ez nadin alperrik.
04. Agure zaharrak dituz  
hiru elementu  
txistua ta gorrua  
uzkerra tromentu.
05. Dantza garbi egitea  
zer gauza ederragorik  
kristinau onen legian  
alkarri obatu barik.
06. Alejo ta Matxin  
hojalaterue  
erango neukela  
botatik ardaue.
07. Baltzio barregarrixo  
ez da Euskal Herriko  
dantza zatar txarri hau da  
kanpotik ekarrikue.
08. Amaren preguntia  
bigajamonian  
atzo zein mutilegaz  
ibili zinian.



01. **Bozu:** badozu.
03. **Bazagoze:** bazaudete.  
**Ein barik:** egin bagerik, egin gabe.  
**Egoki denporiari:** atxeki denborari,  
egokitu denborara, neurtu denbora.  
**Kantsau:** nekatu.
04. **Gorrua:** gorroa, zintzurrean sortzen den  
mukitasuna.  
**Tromentu:** tormentu, oinaze, pena.
05. **Kristinau:** giristino, kristau.  
**Obatu:** oratu, heldu, atxeki.
06. **Hojalaterue:** latorrigina, metal horrekin  
lan egiten duena.  
**Erango:** edango.  
**Botatik ardaue:** zahatetik ardoa.
07. **Baltzio:** baltzeo, dantza lotua. *Vals'*etik.  
**Ekarrikue:** ekarria, ekarritakoa.
08. **Preguntia:** itauna, galdera.  
**Bigajamonian:** biharamonean.  
**Mutilegaz:** mutilekin.

## Nori jasoak ez dion multzoa:

01. Atia idigixu  
neure andra maistra  
hurrengoan goixago  
etorriko naiz ta.
02. Madalen Busturingo  
gabian gabian  
errondian dabilta  
zure portalian.
03. Eder eleizan altare  
harri landuzko pilare  
Birjina Amaren seme-alabak  
etxe honetan dirade.
04. Udabarrien urteten daude  
erreka munoan bitxiak  
haretzek baino politau dire  
Mirentxu, zure begiek.
05. Gautxu baten abiatu nintzan  
dama gazte bat bilatzen  
koxkox jo neban atea baina  
ez osten baietz esaten.
06. Txintxin txirikitin txorie  
txoritxo txilibitarie  
oge-sabaian da ageri  
txindor papar-gorrie  
txiolaritxo zolie.
07. Hortxe goien bost ardi  
hiru yantzan eta bi adi.
08. Garagartzan dagoz  
gindak heldurik  
okaranik ez arren  
batu bagarik.

09. Horra hor goiko pinu artian  
gizonak ein dau kinue  
haretzek esan emongoskula  
tabernarako dirue.
10. Okaran txiki garauz betea  
aurten da zure urtea.
11. Okaran txiki gorri betie  
aurten da zure urtie.
12. Sein hau larrosa eder bat da  
kabelina da sein hau  
sein hau ispilu dala ta  
amak begiratzen dau.
13. Eder soloan garie  
soinean gona gorrie.
14. Atsoak dauko  
hiletea sarri  
agureak dauko  
ardaua pozgarri.
15. Santa Loa, Santa Loa  
gure haurrari emazu loa  
gaubean gau guzikoa  
egunez ordu bikoa.
16. Eperrak kantatzen dau  
goizean bostetan  
ez egon neskatilak  
mutilen pentzutan.
17. Mendi goietan aurten ez ei da  
erromerurik loratu  
ama gure alde yarri badaigu  
alkarregaz behar dogu.
18. Hortxe goian madari  
erramak deitxuz behera adi  
etxe honetako zaldun gazteak  
hamalau urre txintzarri.
19. Ortuan perejile  
saleruen gatza  
ekarri, Mari Pepa  
yan daigun lebatza.
20. Garaiko plazan otea lore  
Ermuan Asentzioa  
dantzan ikasi gura dabena  
Barruetara beihoa.
21. Idi zuriak bajaten daude  
mendi altutik otea  
zuriz ta gorritz plegaurik dago  
Maritxu, zure dotea.
22. Oreganu San Juan goizean  
yoan nintzan ortura zarbatean  
zarbearen ondoan batana  
eta horixe da neuronen laztana.
23. Hortxe goien idie  
haretxen begi argie  
elaztunetik pasa leiteke  
Maritxu, zure garrie.

24. Goiko mendian lainoa  
errekaldean izotza  
azunbre erdi bat edan ezkerero  
allema leio bihotza.
25. Goiko mendian edurra dago  
errekaldean izotza  
neu zuregandik hurre nago ta  
pozik dadukat bihotza.
- ∞
01. **Idigixu:** ireki ezazu.  
**Goixago:** goizago.
04. **Urteten daude:** urteten dabe, irteten,  
jalgitzen dira.  
**Haretzek:** haixek.  
**Politau:** politago.
05. **Neban:** nuen.  
**Ez osten:** ez zidaten.  
**Txindor:** txantxangorri, papargorri.  
**Zolie:** bizkorra, argia.
07. **Yantzan:** dantzan.  
**Adi:** begira.
08. **Okaran:** aran.  
**Batu bagarik:** bildu gabe.
09. **Haretzek:** berak.  
**Emongoskula:** emango digula.
10. **Garau:** ale, bihi.
11. **Sein:** ume, haur.
14. **Hiletea:** hileta, solas tritea, kexuzko  
mintzoa.  
**Beti hileta jotzen:** beti kexatzen, gauza  
tristeak esaten.
16. **Pentzutan:** mendean, gorabeheran, ara-  
bera.
17. **Ei:** omen.  
**Badaigu:** badezagu, jartzen badugu.  
**Alkarregaz:** alkarrekin.
18. **Madari:** udare, txermen.  
**Eramak:** adarrak.  
**Behera adi:** behera begira.
19. **Perejile:** perrexila.  
**Saleruen:** gatzontzian.  
**Daigun lebatza:** dezagun legatza.
20. **Asentzioa:** asentzio lorea.  
**Gura dabena:** nahi duena.  
**Beihoa:** bihoa, joan bedi.
21. **Bajaten daude:** eraisten, behera jaisten  
dute.  
**Plegaurik:** plegaturik, tolesturik.
22. **Oreganu:** landare belarkari lurrintsua.  
**Ortura:** baratzera.  
**Zarbatean:** zarbatan, zarba bila, zarba  
ekartzera.  
**Zarba:** zerba, ortuari edo barazki bat.  
**Batana:** landare belarkari bat.  
**Neuronen:** neure, neronen.
23. **Elaztun:** eraztun.
24. **Azunbrea:** bi litroko neurria.  
**Allema leio:** animatu, bizkortu lekiok.
25. **Hurre:** hur, hurbil.



## ABEL MUNIATEGI SORTA

01. -Antonio nora zoaz  
zeure bibolin zahar horraz?  
-Santa Kruz Bizkargikora  
nahi bozu, etorri neugaz.
02. Antonio Goitia  
bibolinterue  
txapela pasau eta  
pezeta bikue.
03. Antonio Goitia  
Bibolinterue  
sardina buruaitik  
joten dau soinue.
04. Antoniok ez daki  
bibolina joten  
kanta zantar batzuketan  
jentia engainaten.
05. San Blasetan Abadiñon  
Antonion soinetan  
andra gazte polit batek  
dantzan ederto eiteban.
06. Antonio Goiko Kalekok  
txahalen dirua zor deko  
txahalen dirua pagetako  
bibolina joten dago.
07. Antoniok koplaz koplak  
dirua poltsara  
hamaika gazte zoro  
batzen dau plazara.
08. Antonio Goitia  
bibolinterue  
lastimaz andra barik  
lo egin darue.
09. Antonio izan balitz  
hatxurlari ona  
ez zala etorriko  
Bermeotik hona.
10. Eder altaran kaliza  
soinian sobrepeliza  
Ibarruriko santu ta santak  
nire korruan dabilta.
11. Altuan dago San Kristobal  
beherago Madalenie  
eta haren bien bitartian  
Urrutxuan tabernie.
12. San Polikarpo Santuak  
hotz ta aterri egin dau  
eta Antoniorentzat  
mesedea ekarri dau.
13. San Polikarpo Jaune  
Santuak urten dau  
haizia bada ere  
aterri eingo dau.
14. Antonio Txoriburuk  
kalabazak ostu ditu  
onenak berak jan eta  
bestiak saldu ei ditu.

15. Antoniok egin arren  
mutil gaztetzat burue  
Antioniok etxean euki  
zazpi ume ta atsue.
16. Neskatilaren batek  
uzkerra bota dau  
Antionioren surrak  
laster susmatu dau.

∞

01. **Horraz:** horregaz, horrekin.  
**Bozu:** badozu.  
**Neugaz:** neurekin.
03. **Buruaitik:** buruagaitik.
05. **Eiteban:** egiten eban, zuen.
06. **Zor deko:** zorrean dauka.  
**Pagetako:** pagatzeko.
08. **Egin darue:** egin daroa, egin ohi du.  
*Eroan* aditzak beste aditz bat magaltzen  
duenean, maiztasuna adierazten du.
10. **Sobrepeliza:** meza jantzi zuria, apaizak  
sotanaren gainetik jartzen duena.
13. **Haizia:** haizea.
14. **Ei:** omen.
16. **Surrak:** sudurrak.

Abel Muniategik, bere sorta honekin batera, datu hauek bidali zizkidan gizon bitxi honi buruz. Izen-deitura osoak: *Antonio Gregorio Goitia eta Azketa*. Mundakan jaio zen 1830. urteko abenduaren 24an. Bermioko Erriberan harotz bizi izan zen.

Gabon gaez munduratu zen bibolintari honek bizkaieraren barruan entzute handia hartu zuela argi dago, koplagingintzari begiratzen badiogu. Bai besteri eta bai bere buruari ere hamaika koplak sortzeko jaio zen, zehaztasun handirik ez badaukagu ere. Bilduma honetan Antonio izenez agertzen diren aipamen ironikorik gehienak ez dira Antonio honengandik urrun ibiliko, batzuk berak atereak, beste batzuk berari. Matxalen Busturiko hain aipatuaren inguruan ere baliteke Antoniok parte edukitzea.

Sorta honetako hamargarrenak zorrotz adierazten du Antonioren bizimodua. Lehen bi puntuak —*eder altaran kaliza, soinian sobrepeliza*— halako solemnitaterik gaurkorrak jarri eta gero, begira bigarren partean santu-santak zertan dabilta: bere korruan dantzan. Apaizak meza eman

bitartean, Ibarruriko neska-mutilak Antonioren korruan. Ez da harriztekoa orduko elizgizonek bibolintari hau demonioaren bidalitzat madarikatzea.

Zortzigarren koplan dio: *lastimaz andra barik lo egin darue*. Horrek ezkongabea zela esan nahi badu, hamabosgarrenak *zazpi ume eta atsue* kontatzen dizkio. Matxalen Busturikoz esana dudan bezala, Antonio Goitia honek ere ikerketa bat mereziko luke, norbait animatuko balitz.

## ASIER SAILA

(Coplas de romería y cuestación en Bizkaia. Asier Astigarraga Zelaia, Labayru Ikastegia, Bilbao. Actes del Colloqui sobre cançó tradicional. Reus, setembre 1990. Biblioteca Abat Oliba, Publicacions de L'Abadia de Montserrat)

01. Agustuen lehenenguan  
San Pedro Mendixakue  
etzaitela ahaztuko  
orduko iluntzekue.
02. Santa Eufemiako zelajen  
enago ni aspaldijen  
paraje politagorik  
apenas dago Bizkaijen.
03. Bilbo Bilbo esaten dabe  
ez dago Bilbo langorik  
txokolatie hartzeko  
Sotagaz bero berorik.



03 **Langorik:** lakorik, bezalakorik.

**Sota:** nor-izena izan daiteke, Sota Bilbon entzute handikoa bait zen, baina daitekeenago da beste zerbaitez. *Sopakaz* edo *zopakaz* agian? Txokolatea sopekin alegia.



01. Arrateko zelaiko  
lirio lorie  
handixi gora dago  
zerura bidie.
02. Aita San Antonio  
Urkiolakua  
askoren bihotzeko  
santu debotua.
03. Askok egiten deutso  
San Antoniori  
egun batian juan  
bestian etorri.
04. Urkiolara juan  
zapatak apurtu  
Aita San Antoniok  
barriak eingoitu.
05. Urkiolako mendiek  
daben entzutia  
Aita San Antoniori  
zor dotso guztia.



03. **Deutso:** dio.
04. **Eingoitu:** egingo ditu.
05. **Entzutia:** ospea, fama.  
**Dotso:** dio.



01. Ederregije zera zu  
soluan biherrerako  
aittek dotie batuko detsu  
kalian pasigorako.
02. Mendirik mendi lainue  
pagorik pago usue  
ez da bilatzen erreza  
auzuen maiorazkue.

03. Urkiola ganeko  
paguen onduen  
akordatzen al zera  
zer egin genduen?

04. Aitxitxe Merkurio  
pipie erretzailie  
pipiak erre deutso  
surraren puntie.

05. Errekara juanda  
begi bijek bota  
bat baino ez dekonak  
bijek ezin bota.



01. **Detsu:** dizu.  
**Pasigorako:** pasiorako, pasiatzeko.

02. **Maiorazkue:** premua, oinordekoa, etxaguntza edo etxaldea bereganatzen duen semea, gehienez zaharrena.

04. **Aitxitxe:** aitita, aitatxi, aitajaun, aitona.  
**Pipiak:** pipeak, pipak.  
**Deutso:** dio.  
**Surraren:** sudurraren.

05. **Bijek:** biak.  
**Dekonak:** daukanak.



01. Madalen Busturiko  
ixan balitz ona  
ezala etorriko  
Logroñotik hona.

02. Madalen Busturiko  
amari negarrez  
amantal gorri barik  
ezkonduko danez.

03. Zentaila ta barrabas  
karako ta koino  
kakartean sartu naz  
eperzuloraino.

04. Bilbon deko etsie  
oilo korotzez betie  
kamaran deko kaixie  
sagar ustelez betie.

05. Despedidia doa  
ta ibili kontuan  
akabetan noiala  
hurrengo puntuan.



01. **Ixan:** izan.

02. **Barik:** bagerik, gabe.  
**Ezkonduko danez:** ezkonduko den ala ez.

03. **Zentaila:** zenteila, txinparta, tximista.  
**Barrabas:** deabrua, demonioa, gaiztoa.  
*Zenteila* eta *barrabasa* sinonimo antzekoak dira: *Ume zenteilea*, *ume barrabasa*, *ume demonioa*. **Zenteilak** badu esanahi positiboa ere.  
**Zenteilak etara:** txinpartak atera, hots, gauza trebeak edo apartak egin.

**Zenteilak daukaz:** deabruak dauzka, hots, normalez gorako gauzak, abildadeak, egin.  
**Karako:** gaztelaniazko *carajo*, arraioa, apoa, arranopola.

04. **Etsie:** etxea.  
**Deko:** dauka.  
**Kaixie:** kaxa, garia eta gisako aleak gordetzeko kutxa.

05. **Akabetan:** akabatzer, amaitzera, bukatzera.  
**Noiala:** noala.

## MARIA EUGENIA SAILA

(*Umeen hizkuntza eta lexikoa*, 11 or., Maria Eugenia Markaida. **Ahozko literatura:** genero txikiak, Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barrietabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, Jose Ignacio López de Luzuriaga. Gauontza Sorta, Labayru Ikastegia)

01. Peru ta Marije  
Anton ta txorije  
txorijek jan eutsela  
arkako garije.

02. Maritxu teilatuko  
gona gorrie  
hartuizu hagin zaharra  
ta ekarri barrie.

03. Arre arre, iso iso  
asto barrabana  
okerreko lekutatik  
nora naroana.

04. Arre arre, iso iso  
asto berenua  
okerreko lekutatik  
nora ete narua.

05. Si yo fuera katu baltza  
y por tu ventana sartu  
te haría marramiau  
y te harías ikeratu.

06. Txakur handi txaketon  
txakur handirena  
txakur handi txaketon  
buelta morena.



01. **Jan eutsela:** jan ziela.

04. **Berenua:** benenoa, pozoina, zitala.  
**Ete narua:** ote narama.

03. **Barrabana:** barrabasa, demonioa, gaiztoa.  
**Naroana:** naraman hik.



01. Neure Nekane onari  
usuak eperrak ekarri  
beste danari bana edo bina  
neure umeari hamabi.

05. Neure umetxu onak  
galanta izanik  
kutuna dauko josten  
begizkuegaitik.

02. Neure umian atzian  
mutil zantarrak atian  
ez dabe erungo neure umia  
handi-handi ein artian.

06. Ume txikia lo ta lo  
zeuk orain eta nik gero  
biok batera lo egin ezkerro  
etxia nok jabon ez dago.

03. Ederrak bi balio  
onak hiru ta lau  
galanta izatiak  
asko balio dau.

07. Herentzia be badauko  
amamak itxita  
una gallina tuerta  
dozena bat txita.

04. -Nok esan deutsu zuri  
ni oian nazela?  
-Ez dot nok esan falta  
amatxu laztana.

08. Nok esan deutso Birjinari  
umiau neurea nebala  
berak emon ta berak erun  
neure alaba laztana.

09. Nekanetxu ez da joango  
hatxurre hartunde solora  
ez baldin be joango da  
kartiliaz eskolara.



02. **Umian:** umearen.  
**Zantarrak:** gaiztoak.  
**Erungo:** eramango.

08. **Deutso:** dio.  
**Umiau:** ume hau.  
**Nebala:** nuela.  
**Erun:** eroan, eraman.

04. **Deutsu:** dizu.  
**Oian:** ohean.  
**Kutuna:** aldean, batez ere lepotik zintzi-  
lik, eramaten den gauza, izpiritu gaiztoak  
eta zoritxarra uxatzeko.  
**Begizkoa:** norbaitek begirada batez bes-  
te batengan eragiten duen efektu gaiz-  
toa, madarikazioa, ondorio txarreko az-  
tikeria.

09. **Hartunde:** hartuta.  
**Ez baldin be:** hau aldrebeskeria da.  
*Ezpada ze, ezpabere* —baizik, orde—  
edo horrelako zerbait behar du.  
**Kartiliaz:** kartileagaz, kartilarekin. Es-  
kolara hasteko liburu oinarrikoa, letra  
handiduna, irakurtzen ikasteko.

06. **Nok jabon:** nork jagon, nork zaindu.

07. **Itxita:** utzita, lagata.  
**Gallina:** oiloa.  
**Tuerta:** begibakarra.

## KALZAKORTA SAILA

(*Sehaska kantak*, 83 or., Jabier Kalzakorta. **Ahozko Literatura:** genero txikiak, Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, Jose Ignacio López de Luzuriaga. Gauontza sorta, Labayru Ikastegia).

01. Gure umetxu doien orduen  
zaldi urdinen ganien  
bostehun kaskabel urre gorritzko  
zaldiek idunerien  
beste hainbeste eta mile gehiago  
atzeko petralerien.

02. Edurra dator menditik  
Urkiola ganetik  
amak opilak labatik  
aitak ardaua zaragitik  
amamak okelia lapikotik  
aititak sagarrak kamaratik.

03. Gure neskia badator  
zaldi urdinen ganian  
edur lumazko kapa zuria  
lepotik behera soinian  
berrehun koskabel urre gorrizko  
zaldiek bere idunian  
zidar hutsezko perra zuriak  
inkatzen dituz lurrian.

04. Aitite dala tutulun berde  
amama dala masuste  
aita joan da Bitoriera  
ama lepoan hartute  
aita etorriko da Bitoretik  
ama bidean galdute.



01. **Idunerien:** idunerean, idunetik, samatik, lepotik. **Atzizki** arkaikoa.  
**Petralerian:** petralerean, petraletik.  
**Petral:** zamaria —asto, zaldi edo mando— zelatzeko edo tresnatzeko zingila, uhala, tripapetik eta isatsetik lotzen zaio-na.
02. **Okelia:** okela, haragi hila, jatekoa.  
**Lapikotik:** eltzetik.
03. **Kaskabel:** kriskitin, txintxirrin.  
**Inkatzen:** atxekitzen, itsasten.

### Bitoria Arretxe

01. Txikertxu polit hori  
lurraren ganian  
askoren zoragarri  
zu jaio zinian.

05. Sein honen aita prailea da ta  
ama beata santea  
begi ederrokaz ama dirudi  
hanka okerrokaz prailea.

06. Obabatxue obabatxue  
obabatxue beilegi  
sein honek aite dirudi  
ikisiko dau dantzan ondotxu  
aitegana emon baledi.

05. **Ederrokaz... okerrokaz:** eder hauekin... oker hauekin.
06. **Beilegi:** hori, laru.  
**Aitegana emon:** aitatara emon, aitaren antza hartu.  
**Baledi:** Baleza.

02. Okerra Mañariko  
txakurrek jan daude  
okerra izin de ta  
ondo egin daude.

03. Logure naz ta loalde  
martioilarrak jo daude  
martioilarrak jo daude baie  
ni oindokarren logure.

04. Matxalen Busturiko  
errekalistia  
sekule etxako faltau  
begian pistia.

05. Matxalen Busturiko  
asteen birriten  
Bilbora joaten da  
botike gorriten.

06. Pasetan nazenien  
zure portaletik  
negarrak urteten dust  
begi bietatik.

07. Larrosatxuak bost orri daukoz  
krabeliniak hamabi  
nire umia gure dauenak  
eskatu deiola amari.

08. —Norena zara ba zu  
norena norena?  
—Norena ixingo naz?  
Aite ta amena  
aitena ta amena ta  
Jaungoikoarena.

09. Lirio lora zuri  
eder maietzian  
bakarrik egon barik  
erdu arratsian.

10. Amak emon baleustez  
hamar hamaseiko  
ezkonduko nintzela  
udabarrireko.

11. Udabarrie da ta  
denpora beroa  
gazte zoro nago ta  
alegre gogoia.

12. Logure naz ta lo eingo neunke  
baneuke ohirako lagune  
bauket ohirako lagune baie  
agure lepo makurre.

13. Gure ume txikerra  
Ferrolera doa  
okerren banderea  
aurrean daroa.

14. Ederra ta galanta  
biek leku beten  
ona ta aberatsa  
gatx dire bilatzen.



01. **Txikertxu:** txikitxo, nimino.  
 02. **Okerra... okerra:** Lehenengoa ezizena, goitizena. Bigarrena bihurria, gaiztoa. **Daude... daude:** dabe, dute. **Izin de ta:** izan da ta.  
 03. **Loalde:** loale, logale. **Martioilar:** argioilar. **Baie:** baina. **Oindokarren:** oraindio, oraino, oraindik.  
 04. **Errekalistia:** errekadista, mandatugina. **Etxako:** ez zaio. **Pistia:** pista, pizta, bekarra, begiko makarra.  
 05. **Birriten:** birritan, bi aldiz. **Gorriten:** gorri bila, botika gorria ekartzera. Pattarra edo zer ote zen hau?
06. **Dust:** dit.  
 07. **Daukoz:** dauzka. **Deiola:** diezaiola.  
 08. **Ixingo:** izango.  
 09. **Erdu:** zatoz, etor zaitetz.  
 10. **Baleustez:** balizkit.  
 12. **Ohirako:** oherako. **Bauket:** badaukat. **Lepo makurre:** bizkar makurra.  
 13. **Okerren banderea:** gaiztoen, bihurrien bandera. **Ferrol:** Galiziako itsas hiri bat, soldadu joateko lekua. Beraz, okerren banderarekin Ferrolera soldadu.  
 14. **Beten:** baten, batean. **Gatx:** gaitz, zail.

## Victoria Zorrozuia Basterretxe

01. Mutiko txanbelinek ezkontuten dire San Migel inguruan agertuten dire.  
 02. Bixerra luzetute musturre zorroztu andriek bartzunegaz bihetzak apurtu.  
 03. Tiriki tauki tauki mailuaren hotsa hamalau hargin baino hoba dot harotza.
04. Errementari baino hoba dot zesteru lepo bete palugaz boltsa bete diru.  
 05. Santixago paseute Santana geubien mutil bi egon ziren bentana batien.  
 06. Barrure sartu ziren zigarro erretan amoma topau eben taloak erretan.

07. Aitite koitedue kortatik gedarrez katuek daroala taloa dandarrez.  
 08. Txikitxu polit serseta buruen dozu kopeta zure soineko erropiorrek hiru dozena kortxeta.  
 09. Tantarrantatan gure aitxe Bilbora doa tantarrantatan abarka mandatan.  
 10. Campo de Volantinen haretx harro baten kukuek egin ditu zazpi ume aurten.  
 11. Kukuek egin eta txamilotxiak jan kukuen portunia horixe izan zan.  
 12. Txikirrikitin soinuen jantzan ein genduen Bermioko portuen Mundakarren usuen.  
 13. Txikirrikitin soinuen jantzan egiteko zapatatxu zurixek egin uderako.
14. Tiriki tauki tauki talkixetan bere ez dago holakorik Indixetan bere.  
 15. Indixek irebazten errezak ez dire zure begi ederrok gatxagoak dire.  
 16. Bilbo baino honago dauen herri baten neska txiki bat dago etxe handi baten.  
 17. Txikerra izetia deko bentajie lau kanasta minagaz eiteko gonie.  
 18. Maitetxo bihotzekoa trebola maietzekoa niretzako jaio ez bazinen zerbidu eizu Jaungoikoa.  
 19. Aitxe guriek amari gona gorrixek ekarri gona gorrixen orrixek zazpi jostunek josixek.  
 20. Tretatxo Larrauriko Landako semie Bizkaiko lapur danen gobernadorie.

21. Tretatxo Goikosolon  
pipie hartzie  
inpernu ta txakurre  
Tretaren atzien.
22. Tretatxok esan ei dau  
Begoñe ganién  
ez dauela koxuko  
Bizkaiko lurrien.
23. Neure maitetxo hor dago  
gaue da ta negarrez dago  
bere negarra gozoago da  
askoren barrie baino.
01. **Txanbelin:** buruarina.  
02. **Bixerra:** bizarra.  
**Bartzunagaz:** bertzunarekin. Labeko edo surtako hautsa jasotzeko tresna.  
**Bihetzak:** behatzak, oinetako hatzak.  
03. **Zesteru:** zaregin, otargile, saskigile.  
**Lepo bete:** bizkar bete, bizkarkada bat.  
04. **Paseute:** pasaturik, iraganik.  
**Geubien:** gauean.  
05. **Erretan:** erretzen.  
**Amoma:** amama, amatxi, amona.  
**Topau eben:** topatu, aurkitu zuten.  
06. **Aitite:** aitita, aitatxi, aitona.  
**Koitedue:** koitadua, errukarria, gaizoa.  
**Korta:** ikuilu, tegi.  
**Gedarrez:** deihadarrez, deika, hoska.  
**Daroala:** daramala.  
**Dandarrez:** tatarrez, errestan, arrastaka.  
07. **Serseteta:** zertzeta, ahate antzeko hegaztia, usoaren tamainakoa.  
**Kopeta:** ilearekin egiten den sorta, soka, trentza.  
**Erropiorrek:** arropa horrek.  
**Kortxeta:** alanbrezko lokarri arremea, bata bestean sartzekoa, botoi antzera.  
08. **Mandatan:** mantatan, manta bila. Abarkekin galtzerditzat jazten den mantarra.  
09. **Haretx harro:** barruan hutsunea daukan haritza, haritz marroa.  
10. **Txamilotxiak:** amilotxak.  
11. **Usuen:** erara, ohituran.  
12. **Talkixetan:** tiriki taukirekin jarraitzen duen onomatopeia.  
**Indixetan:** Indietan.  
13. **Gatzagoak:** gaitzagoak, zailagoak.  
14. **Dauen:** dagoen.  
15. **Txikerra:** txikia.  
**Izeta:** izatea.  
**Deko:** dauka.  
**Bentajie:** alde ona, abantaila.  
**Kanasta:** otzara, otarre.  
**Minagaz:** mihiz, mihirekin izan daiteke. Oihal zatitxoak esan nahi ote du?  
16. **Trebola:** hirusta, hirukoitza, sekulabelarra.  
17. **Orrixek:** orriak.  
18. **Tretatxo:** nor-izena.  
19. **Goikosolon:** Goikosoloren. Bidezkoago dirudi *Tretatxo Goikosok pipie hartzien* (hartzean).  
20. **Ei dau:** omen du.  
**Ez dauela koxuko:** ez duela hatzeman-go, harrapatuko.  
21. **Barrie baino:** barrea, irria baino.



## Pantxike Urrutikoetxea

01. Zamudioko sague  
haren begire katue  
urdai lapurretan dabil  
katu madarikatue.
02. Lezamako neskatxu bat  
iko ganean negarrez  
baja neixu, baja neixu  
Jangoikoaren amarez.
03. Txikerrak hazten deituena  
zeru altuan Jainkoa  
haziko zaitu zu ere  
txikitxu hazi bakoa.
04. Ama neuriak aiteri  
praka barriek ekarri  
handiegi dituela eta  
erdi-erdi ebagi.
05. Eroango zaitue baine  
ez zara ondo biziko  
Bilbon usauko neskatxentzat  
herri txarra da Orozko.
06. Egunek txirrit in orduko  
solora joan in beko  
handik etxera zatozenez  
beharra etxatxu faltako.
07. Dindilin dangon eragidezu  
laster haziko natxatxu  
hazite gero handitxu inte  
etxean beharko nozu.
08. Obabatxue urrurru  
gaur joan ta biher erdu  
alboan dekoan papau hau baino  
gurago zendukedaz zu.
02. **Iko:** piku, pikuondo.  
**Baja neixu:** jaitsi nazazu.
03. **Txikerrak:** txikiak.  
**Hazi bakoa:** hazi bagekoa, gabea.
04. **Praka:** galtza.  
**Ebagi:** ebaki.
05. **Eroango zaitue:** eramango zaituzte.  
**Usauko:** usaturiko, ohitutako.
06. **Txirrit in:** txirrit egin. Onomatopeikoa, argi txirrit bat, izpi bat, txirristada bat.  
**Beko:** beharko.  
**Beharra etxatxu:** lana ez zaizu.
07. **Natxatxu:** natzaizu.  
**Inte:** eginda.
08. **Obabatxue:** obaba, uaua. Sehaska kanten hasera hitza, haurtxoaren onomatopeikoa.  
**Urrurru:** onomatopeikoa.  
**Biher erdu:** bihar zatoz, etor zaituz.  
**Dekoan:** daukadan.  
**Papau:** ergel, arranpalo, artaburu.  
**Zendukedaz:** zintuzket.





01. Ama neure bihotzekoa  
ez egin negarrik  
gizona hil dot eta  
ordea dot zor nik.
02. Obabatxue lolori  
sein honek aita dirudi  
sein honek dantzan ikisiko dau  
aitagana emon baledi.
03. Asue ta Erandio  
Sondika ta Loiu  
behar asko eginde  
arto gitxi koiu.
04. Neure nobio majo  
Malmasedakoa  
astegunien bere  
jake (txapel) zedazkoa.
05. Urkiola ganeko  
paguaren atzean  
errekadu ein zeunstan  
zeutzako ustein.
06. Errespuesta emon neutsun  
onradamentean  
ez nazela zutzako  
bai zorionean.
07. Yo tengo muchas cosas  
ixekok itxite  
una gallina loca  
dozena bat txite.
08. Beste ixeko bat bere  
nenduen Algortan  
hak agindu ostezan  
arratoiak kortan.



02. **Sein:** haur.  
**Ikisi:** ikasi.  
**Aitagana emon:** aitatara, aitaren aldera  
eman, aitaren antza hartu.  
**Baledi:** baleza.
03. **Behar asko:** lan asko.  
**Koiu:** hartu, bildu.  
**Majo:** txukun, lerdin.
05. **Ein zeunstan:** egin zenidan.
06. **Errespuesta:** arrapostu, erantzun, ihar-  
despen.  
**Onradamentean:** honestki, zintzoki.  
**Zutzako:** zuretzako, zuretzat.
07. **Ixekok itxite:** izebak utzita, lagata.  
**Gallina loca:** oilaloka, oilo kolka.
08. **Nenduen:** nuen, neukan.  
**Ostezan:** zizkidan.  
**Kortan:** ikuiluan, tegian.



01. Hamalau zapatarik  
ein dabe juntia  
zeinek arinau josi  
zapata puntia.
02. Sanantontxu egunean  
Mungien perie  
haraxe joan dire  
Peru ta nobie.
03. Non izan zara, Mari?  
—Bilbora izan naz  
ikeratute nago  
hango kontuekaz.
04. Bilboko damatxuek  
ez daude lo egiten  
euren buruko zapok  
modara iminten.
05. Hain iminten deituez  
txurruek handiek  
azkonarra dirudi  
euren arpegiek.
06. Itsasoan doanean  
ontzitxo kristalezkoa  
haixe betek esaten deu  
Birjine Begoñekoa.
07. Birjine Begoñekoa  
Santa Luzie Ermukoa  
haxek emoten duskuela  
begietako loa.
08. Gaztiak bakizue  
Antononen barririk?  
Zazpi mando i dekoz  
kortan ernaririk.
09. Nahi direla arrak zein  
nahi direla emeak  
ernaririk badekoz  
ingotziz umeak.
01. **Ein dabe:** egin dute.  
**Juntia:** junta, bilkura.  
**Arinau:** arinago, azkarrago, lehenago.  
**Puntia:** punta.
03. **Kontuekaz:** kontuekin.
04. **Ez daude:** ez dute.  
**Zapok:** zapa hauek, zapa horiek.
- Zapa:** ile multzo handia, luzea.
05. **Iminten deituez:** ipintzen dituzte.  
**Txurruek:** ilearekin egindako txurru  
—edo txurro— antzeko formak.
06. **Haixe betek:** harexek betek, untzi osoak,  
untziko jende guztiak alegia. *Haize batek*  
ere izan liteke.





Deu: du.

07. **Haxek:** haiexek.

**Duskuela:** digutela.

08. **I dekoz:** ei daukaz, omen dauzka.

**Kortan:** ikuiluan, tegian.

09. **Ingotziz:** egingo dautsoez, egingo dizkiote.



01. Txikitxu polit batek  
bai bartko gaubean  
jantzan ibili naula  
belaunen ganean.

02. Erabilten ez banau  
gaubean gaubean  
eskagirik imingo  
tximinin parean.

03. Zortzi ta hiru hamaka  
zeu langoak dauz banaka  
ederregi zarealako  
gure zaituzie danak ba!

04. Bentanarik bentana  
dabilen mutile  
zahar sunde deula ta  
ez dau inok gure.

05. Ekin ekin gazteak  
bilurrik bagarik  
hil da Barrabas eta  
ez dau infernurik.

06. Hamaka demonino  
baiagok munduen  
Josefan lehengusinek  
engainau nenduen.

07. Josefa ataraizu  
hobeto kontue  
zer esan behar duskun  
Jangoiko santuek.

08. Handiko herrietako  
Pedro begizuri  
gorantziek deukedaz  
emoteko zeuri.

09. Handiko herrietako  
Erramun jansarri  
inok bere eleizu  
hurrik emon zuri.

10. Hamaka ta hamabi  
hogeita hiru lauoko  
atsoak alabea  
salduteko deuko.

11. Atsoak alabea  
saldu daienean  
pozik egingo deu lo  
ohian bazterrean.

12. Maritxu tabernerea  
neskatxu konponidea  
kuartilu t'erdi ardauaz  
egiten dau azunbrea.

13. Damatxu bentanako  
egon zakidaz kontuen  
amore batek huts emonaitik  
beste asko da munduen.

14. Pedro Herriko, Pedro Herriko  
Goiherriko flauterue  
haren soinuen dantzan iteko  
eskuen behar da dirue.

15. Atxine gaztea nintzen  
orain egin naz agure  
andreak eta umeak bere  
ez naude ikusi gure.



02. **Eskagirik:** eskegirik, dilindan, zintzilik.  
**Imingo:** ipiniko.  
**Tximinin:** tximiniaren.

03. **Langoak:** lakoak, bezalakoak.  
**Dauz:** dagoz, daude.  
**Zaituzie:** zaituzte.

04. **Sunde:** sundea, kerua, usaina, kutsua.  
**Deula:** duela.

05. **Bilurrik:** bildurrik.  
**Ez dau:** ez dago.

06. **Baiagok:** *badago* hika, bazegok.  
**Engainau:** enganiatu, atzipetu.  
**Nenduen:** ninduen.

07. **Ataraizu:** atera ezazu.  
**Duskun:** digun.

08. **Handiko:** urrungo, alde hartako.  
**Gorantziek:** goraintziak, eskuminak.  
**Deukedaz:** dauzkat.

09. **Jansarri:** sarritan, maiz jaten duena.  
**Inok bere:** inork ere.

**Eleizu:** ez liezazuke, ezingo lizuke.  
**Hurrik emon:** hurreratu, antzik eman,  
hots, denei alde handia kentzen diezu.

10. **Deuko:** dauka.

11. **Daienean:** dezanean.  
**Ohian:** ohearen.

12. **Konponidea:** *konponidua* ren femeni-  
noa. Konpondua, gauza gutxiz txukun  
jaten edo ondo jaten ematen dakiena.

**Kuartilu:** litro erdi.  
**Azunbre:** bi litro edo lau kuartilu.

13. **Zakidaz:** zakizkit.  
**Emonaitik:** emonagatik, eman arren.

14. **Flauterue:** flautajole, flautari.  
**Iteko:** egiteko.

15. **Atxine:** antxina, aspaldi.  
**Ez naude:** ez naute.  
**Gure:** gura, nahi.

Sorta hauetan, —Asier, Maria Eugenia eta Kalzakorta sortak—, batzutan koplak txikiak eta handiak nahastean datoz, eta multzoak eta zenbakiak neureak direla esan beharrik ez dago, oharrak apur bat ordentatzeko.

Maria Eugenia eta Kalzakorta sortetako koplak izaeari buruz, aipagarria da hemen izendatzen diren lekukoek lokanta gisa kantatu zituztela. “Nahiz eta trikiti koplak ere izan, lekukoak ez daki lokanten doinuaz kanpora beste doinurik eransten”, idazten du Jabier Kalzakortak. Eta begira nolakoak kantatzen zaizkion haurtxoari: hunkigarrien eta gozonenetatik gordinen eta gaiztoenataraino. Edozer alegia. Baina pixka bat pentsatuz gero, ez da hain harriztekoa. Haurtxoari zer ardura diote zaldi urdinek nahiz Matxalen Busturikoren botika gorriek, ez bata ez bestea ulertzen ez badu? Haurrari doinuaren eta abotsaren gozotasunak ardura dio eta, jakina, sehaskari eragin diezaiotela. Oso doinu lerrakorrak eta zeinahi luze-labur onartzekoak izanik, edozer kanta liteke. Baita neurriak deformatu ere, eredu finkoagoetatik hartutako hitzak izan arren.

Gauza jakina da haurra ez dela beti norberak nahi bezain arin lokartzen. Batzutan luze ekin behar zaio kantuan eta eragiten. Orduan norbere burua ere nola edo hala entretenitu behar da eta hortik dator era guztietako koplak genero honetan sartzea. Haur guztiak *obabatxue* soil baten denboran lokartzekoak izan balira, genero hau ez zen asko garrantuko. Eta bai dela kontrastea hain lo-doinu gozoan, ia oharkabea, mando ernarien umegintzak edo Tretatxu Larraurikoren ibilerak errepasatzea. Edo emakumeak, haurrari kantatzekoa eginez, ogidunari pasatzen dion abisua: *gaur zoaz ta bihar erdu, hemen daukadan papaoa baino gurago zindukedaz zu*.

## IÑAKI GAMINDE SAILA

(*Umeentzako ehun kantu Bizkaiko*, Iñaki Gaminde. *Euskeraren Iker Atalak 6*, 57. orrialdetik aurrera. Labayru Ikastegia).

- |   |   |
|---|---|
| 01. Aitita makurra<br>gure kalekua<br>pipia galdu jako<br>surren puntakua.  | 07. Arre arre, ixo ixo<br>asto berenoa<br>okerreko bidetik<br>zek ete daroa.            |
| 02. Altu altuen dago<br>San Juan Foruko<br>ez dala mutilzaharrik<br>zeruan sartuko.   | 08. Arre arre mandako<br>bihar Gaztelarako<br>handik ekarrikosku<br>ogi te gaztai asko. |
| 03. Ama bart ama bart ama bart<br>mutil frakan abar bat<br>horti zir hemeti zir<br>ohian barruen sartu jat.                                       | 09. Artuak hirurogei<br>gariak larogei<br>ezkonbarri tristiak<br>zer egin ete lei.      |
| 04. Andrakila mardo<br>txorta luzia<br>begi ederrakin<br>ondo jantzia.  | 10. Hasi goiko kaletik<br>beheko kaleraino<br>hamaikatxu neskazahar<br>badago oindino.  |
| 05. Ibiliko degu<br>dringilin dranguan<br>neure amak eta aitak<br>ibil neuen moduan.  | 11. Erdi erdijek dauz<br>erdi galtzien<br>hartu akulue eta<br>banue saltzien.           |
| 06. Arkaitxun atzean dire<br>eroldariak gauean<br>itxiozue Arkaitxuri<br>apur bet hazi artean<br>apur bet hazi te gero<br>amatxuk ber deu etsean. | 12. Atsoa ta agurea<br>hasarratu dire<br>alkarrenak dire ta<br>konponduko dire.         |

13. Atzo etorri jataz  
hiru mandatari  
uso zuri eder bat  
ta aingeru eder bi.
14. Bat eta bi hiru te lau  
Txominek andrie falta dau  
Txominek deko dendie  
sagar ustelez betie  
harixek saltzen doiela  
bidien topau dau andrie.
15. Bat eta bi hiru te lau  
hamar hamalau  
aitek saldu nau  
amak erosi nau  
Bilboko alkate zaharrak  
preso sartu nau.
16. Bilbora doa Maritzu  
zer ekartea gurozu?  
Txomineri gorantzijek  
inon ikusten bozu.
17. Binbili bonbolo sendalo  
akerra Frantzien balego  
akerrak kanta  
idiak dantza  
ahuntzak danbolina jo.
18. Buruen kalboa ta  
lepoan atrile  
argie parau yakuk  
auzoko mutile.
19. Gorengo kamarara  
eskilara labana  
galdarara sartu jaku  
gure neska barrabana.
20. Hilero be sosketan  
maiatzian Lagara  
Elantxobeko umiak  
ondo bizi gara.
21. Gabonetan oilarra  
pazkoetan bildotsa  
ahalegine etxe honetan  
ez da guztiz motza.
22. Lotxu engainadore  
traidore faltsue  
luek engainatzen dau  
gure umetxue.
23. Atxuliñe ta matxuliñe  
Biturijeko danboliñe  
etsie saldu diruek hartu  
aguardinetan gastatu.
24. Nik ikusi dot ikustekua  
Barrankaleko kalia  
hamalau atso tronpeta joten  
motroilu baten ganian.  
Motroilua zan handia edo  
atsuak ziran txikiak  
inposible da kabitutia  
motroilu baten guziak.

25. Neure laztango laztango  
kalean negarrez dago  
haren negarra hobeago da  
askoren barrea baino.
26. Nire nobioaren  
dote arriua  
burduntzalditxo zahar bat  
hiru zulokoa.
27. Patxiko txiko txiko  
nor dozu nobije?  
Zentenoaren alaba  
kolore gorrije.
28. Sagarrak loran loran  
sasoie danien  
gaztiak urten jantzan  
soinue danien.
29. Txikitxu Montañako  
ai neure laztana  
katiatu nenduzun  
libria nintzana.
30. Libriak libre diraz  
neu nago katigu  
libre naiz esan arren  
ez daukat probetxu.
31. Txikitxu polit hori  
zer dozu negarrez?  
Aitek tabernarako  
dirurik emon ez.
32. Aitek tabernarako  
dirue emoteko  
berak hartuko leuke  
nok emon baleuko.
33. Txoritxo pinto pinto  
arbola ganian  
ederto kantaten deu  
buztenan ganian.
- ∞
01. **Jako:** zaio.  
**Surren:** sudurraren.
03. **Frakan:** prakan.  
**Horti zir hemeti zir:** hortik zehar he-  
mendik zehar.  
**Ohian:** ohean.  
**Jat:** zait.
04. **Andrakila:** panpina.  
**Mardo:** mardul, betea, gizona.
05. **Dringilin dranguan:** onomatopeikoa.
- Mugimendu ordenagabea eta trauskil  
samarra.  
**Neuen:** nauten.
06. **Arkaitxun:** Arkaitxuren. Nor-izena.  
**Erroldariak:** errondariak, norbaiten in-  
guruan dabiltzanak.  
**Itxiozue:** utziozue.  
**Ber deu:** behar du.  
**Etsean:** etxean.
07. **Berenoa:** pozoina. Adjetibo gisa, gaiz-  
toa, zitala.

- Zek ete daroa:** zer ote darama.
08. **Ekarrikosku:** ekarriko deusku, digu.
09. **Lei:** lezake.
10. **Oindino:** oraindio, oraindik, oraino.
11. **Erdijek:** erdiak.  
**Dauz:** dagoz.  
**Galtzien:** galtzen.  
**Banue saltzien:** banoa saltzen, saltzera.
13. **Jataz:** zaizkit.
14. **Deko dendie:** dauka denda.  
**Harixek:** haiexek.  
**Saltzen doiela:** saltzen, saltzera doala.  
**Topau:** topatu, kausitu, aurkitu.
16. **Gurozu:** gura dozu, nahi duzu.  
**Bozu:** badozu.
18. **Kalboa:** burusoil, burusoiltasun.  
**Lepoan:** bizkarrean.  
**Parau yakuk:** paratu, jarri zaiguk.
19. **Labana:** labaina, lerrakorra, irristakorra.  
**Galdara:** pertza.  
**Jaku:** zaigu.  
**Barrabana:** gaiztoa, bihurria.
20. **Sosketan:** Zozketan? Haur jolasen bat dirudi.
22. **Luek:** loak.
23. **Etsie:** etxea.
- Aguardinetan:** aguardientetan, pattarretan.
24. **Motroilu:** motrailu, mortairu. Material gogorrez, zurez edo metalez, egindako ontzia, aleak jotzeko etab.  
**Kabidutia:** kabitzea.  
**Laztango:** laztantxo.
26. **Arriua:** arrea, emazte ezkonberriak ezkondu den etxera daraman haltzari, tresna eta arropa sorta.
27. **Nobije:** nobia.  
**Zentenoaren:** zekalearen. Hitz honek, adjetibo gisa, gaiztoa, bihurria esan nahi du.  
**Zentenoak etara, zentenoak euki:** esamolde positiboak izan daitezke, *de-abrukeriak egin* gauza txarrak nahiz gauza handiak eta trebeak egitea izan daitekeen bezala.
28. **Jantzan:** dantzan.
29. **Katiatu:** katigatu, gatibatu, lotu, estekatu.
32. **Nok emon baleuko:** nork eman baleuka.
33. **Pinto:** nabar, kolore bat baino gehiagokoa.  
**Kantaten:** kantatzen.  
**Buztenan:** buztanaren.

Iñaki Gamindek aipatu liburuan ematen dituenetatik aukera bat egin dut, koplagingintzari dagozkionak harturik, eta aldaera fonetiko ugariak apur bat berdindurik.

## LASTOZKOA BENTANIE

01. Lastozkoa bentanie  
galtzatorratza trangie  
ha edegi ezin dauenak  
zetarako jok andrie.
02. Ederregia zara zu  
soloan beharrerako  
hartuizu kaballerua  
kalean pasiorako.
03. Markina-Etxebarriko  
Mari Erramona  
emoterik ez baina  
borondate ona.
04. Txikitxotan polita  
gatzetxotan zoro  
horreik lotuten dira  
ezkondu ezkerero.
05. Ai mutil hankaluze  
begi arranpalo  
taberna musturrean  
negarrez ei dago.
06. Doministikun eta  
kirie eleison  
lapiko txiki baten  
zazpi andra-gizon.
07. Idiak arnasie  
behitxoak esnie  
ekarrizu aguro  
gure limosnie.
08. Gabaz errondan eta  
goizean logure  
neska gazte ederrak  
horixe gure.
09. Aurten edurra eta  
bardin zan igez  
mutila salgai eta  
eroslerik ez.
10. Agure zaharra birloka  
hiru hagin da bat loka  
baina halan da guzti be  
dantzan dabil alaporka.
11. Lezamako neskatila  
neskatila baltzerana  
aurpeian ezagun dozu  
Lezamatarra zarana.
12. Bideak betean hortxe  
datoz hiru neskatila  
Zuringo eta Goringo  
eta Mari Mondrongila.
13. Santa Eufemiko zelajen  
laprast einda jausi nintzen  
hazurrik eneuen hausi  
mamine mailetu baizen.
14. Etxe ganean negu gorrian  
loratu da ereinotza  
non eta noren ondoan ete  
dabil gure gizon motza?

15. Edurra dala zuria eta ikatza beti da baltza besteak eta gatza baneukaz nik egingo neuke saltsa.
16. Neure nobiaren ama asto baten jabe dana harexek ekarrikotso etxean behar dauana.
17. Santa Krutz Bizkergiko ginerra lorie baba guztiek baino inderra hobie.
18. Ama buruen min dot ez esan aiteri gabeko errondiak ondo galdu nau ni.
19. Mari Juana lutudune krabeline zuridune krabeline zurije baino hoba zenduke lagune.
20. Mari Karmen joskilea etxe oneko alabea egun baten josten ditu prakak eta alkondarea.
21. Mari Karmentxu salada etxe oneko alaba zu ezkontzen zarenian neu be joango naz bodara.



01. **Galtzatorratza:** galtzak, galtzerdiak egiteko orratz handia. *Galtzak* eskualde askotan galtzerdiak dira, besteak *prakak* direlarik.  
**Trangie:** tranga, ate itxia ondo segurtzeko jartzen zaio zurezko edo metalezko haga.  
**Ha edegi:** hura ireki.  
**Jok:** dik.
02. **Beharrerako:** lanerako.  
**Kaballerua:** zalduna, maila sozial handiko gizona.
04. **Horreik:** horiek.  
**Lotuten:** lotzen, gelditzen. Zenbait eskualdetan *lotu* aditzaren azepzio bat *gelditu* da.
05. **Arranpalo:** erdi kankailu, erdi tentel, negarra nahiz beste giza adierazpenak nabarmen samarrak dauzkana.  
**Ei:** omen.
06. **Domistikun:** latinezko *dominus tecum*, jauna zuekin. Norbaitek, haurrek batez ere, usin egitean, *dominustekun*, *doministikun* edo laburturik *domistikun* esaten zaio. Hortik *domistikun* bera bilakatu da usin egite.
07. **Ekarrizu:** ekarzu, ekar ezazu.
10. **Birloka:** bi aldiz loka, koloka, kilikolo.  
**Loka:** koloka, ondo finkatu gabe.  
**Alaporka:** "a la polka". *Polka* izeneko ritmo edo dantzatik.

13. **Zelaijen:** zelaian.  
**Laprast:** labain, irrist.  
**Jausi:** erori.  
**Eneuen hausi:** ez nuen hautsi.  
**Mamine:** mamia.  
**Mailetu:** mailatu, zerbait kolpeka bigundu edo sakunguneak atera.  
**Baizen:** baizik, baino.
15. **Baneukaz:** baneuzka.
16. **Ekarrikotso:** ekarriko deutso, dio.
17. **Bizkergi:** Bizkargi, Etxanoko mendi bat, azpian Etxano bera, Zornotza, Larrabetzu, Morga eta Gorozika dauzkana.
- Ginerra:** inarra, ainarra, txilar. Basa zuhaizka bat, ote antzekoa.  
**Inderra hobie:** indarra hobe, indar hobe.
18. **Errondiak:** errondak, parrandak.
19. **Zurije:** zuria.
20. **Joskilea:** emakume jostuna.
21. **Salada:** hizketan atsegina, gatz handikoa.  
**Bodara:** eztaietara.

Kopla hauek -txikiak eta handiak nahastean- eta beste asko neure orrien artean neuzkan, han hemen jasoak. Hemen ezberdinak edo aldaera interesgarri iruditu zaizkidanak bakarrik ematen ditut. Asko Jon Lopategi bertsolariari jasoak dira.

Lehen kopla, *lastozkoa bentanie*, etxean ume-umetan ikasi nuen aldaera da, urteetan zer esan nahi zuen ez nekiela kantatua. Gero, mutilzarroan nahiko gora nindoala, kopla horretan zer egoera deskribatzen

zen jabetu nintzenean, halako takada egin zidan. Hamargarreneko agure zahar birlokaren afana ere ez da nolana hiko. *Mari Erramona* 'ren boronda-tea, *Lezamako neskatala*, *ederregia zara zu*, *Mari Juana lutudune*, *Santa Eufemiko zelaijen*, *Mari Karmen joskilea*... hain sinpleak eta hain politak, alperreko apaingarri gabe, osagai minimoekin edertasuna sortzen dutenak. Kopla onen sekretua osagai minimo horiexek hautatzean dago, gehiagorako tokirik ez bait dago.

## MAITIA NAHI BADOZU

(Ajangizko Biaskoa baserriko Gregoria Egia Bollar, 77 urtekoari, neuk jasoak. Gehiago ere kantatu zituen, baina ezberdinak bakarrik ematen ditut. Lehen sailean porrusalda koplak batu ditut eta bigarrenean jotakoak).

- |   |  |
|---|--|
| 01. Maitia, nahi badozu<br>nirekin ezkondu<br>goizian goizetik<br>jagi behar dozu.    | 07. Neskazaharrak badoaz<br>San Antoniñora<br>santuari eskatzen<br>nobio on bana.                |
| 02. ...<br>... kalia<br>maitia esaidezu<br>nun bizi zarian.                           | 08. Orduan santuak<br>eiten deu dardar<br>a los neskazarrez<br>no valen nada.                    |
| 03. Joan da lehena lehena<br>hau da bigarrena<br>honi esaten jako<br>hamaseigarrena.  | 09. Tiriki tauki tauki<br>mailuaren hotsa<br>hamalau argin baino<br>hoba da harotza.             |
| 04. Ederra ta galanta<br>biak leku baten<br>gazte ta aberatsa<br>gatxa da bilatzen.   | 10. Agure buruzuri<br>oilanda zalia<br>nok irakatsi deustu<br>gurera bidia?                      |
| 05. Amorebidetako<br>bizi-alargune<br>bakarrik egon barik<br>hartuizu lagune.         | 11. Sagarra lora lora<br>sasoia danien<br>gaztiek urten dantzan<br>soinua danien.                |
| 06. Altu altuen dago<br>San Martin Foruko<br>ez dala mutilzaharrik<br>zeruan sartuko. | 12. Altu altuan San Kristobal<br>bajuan Madalenia<br>haren bien bitartean<br>Urrutxuan tabernia. |

- |  |   |
|--|---|
| 13. Mutilok dagoz pentsatzen<br>pentsatzen eta pumatzen<br>nori esango ete deustat<br>erdu dantzan apur baten. | 17. Gure aitak ai amari<br>zer egin dotsen bazenki!<br>Gona zaharra saldu eta<br>praka barriak erosi. |
| 14. Gaztia gazte moduen<br>dibertsinoa goguen<br>ez dala bizi pobrerik<br>aberatsaren moduen.                  | 18. Itsasuan landa berde<br>marineruak hor dire<br>mutilok praile juateko<br>neskatilak maite dire.   |
| 15. Neure maitia zer dozu?<br>Koloria zuri dozu<br>koloria gorritzeko<br>metal ure edan bihar dozu.            | 19. Gure aza ta porruiek<br>eruan ditu neguek<br>barriek ekarrikoitu<br>udebarriko beruek.            |
| 16. Iretargia argia<br>egune argiagoa<br>inoren ama ona baina<br>norberana hobiagoa.                           | 20. Mendi altuan edurra<br>herri herbeheran izotza<br>neu aparte nago eta<br>alegre daukat bihotza.   |
- ∞
- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Jagi:</b> jaiki.  | 11. <b>Lora lora:</b> dena lore, lorez betea.<br><b>Urten:</b> irten, jalgi, atera.   |
| 02. Kopla hau ez zuen osorik gogoratzen.<br><b>Zarian:</b> zaren.  | 12. <b>Altuan San Kristobal:</b> Oiz mendian.<br><b>Bajuan Madalenia:</b> beheran, Albiz ize-<br>neko herritxoan.<br><b>Haren:</b> harein, haien. |
| 03. <b>Jako:</b> zaio.   | 13. <b>Dagoz:</b> daude, ari dira.<br><b>Pumatzen:</b> fumatzen, erretzen.<br><b>Ete deustat:</b> ote diot.<br><b>Erdu:</b> zatoz, etor zaitez.   |
| 04. <b>Gatxa:</b> gaitza, zaila.   | 16. <b>Iretargia:</b> ilargia.<br><b>Inoren:</b> besteren.<br><b>Norberana:</b> norberarena, norberea.  |
| 05. <b>Amorebidetako:</b> Amorebidetako, Zorno-<br>tzako.<br><b>Bizi-alargune:</b> ezkontidea bizi dela alar-<br>gundua, banatu delako alargundua.<br><b>Barik:</b> gabe.<br><b>Hartuizu:</b> har ezazu. | 17. <b>Dotsen:</b> dion.<br><b>Praka:</b> galtza.   |
| 08. <b>Eiten deu:</b> egiten du.   |   |
| 09. <b>Harotza:</b> zurgina.   |   |
| 10. <b>Deustu:</b> dizu.<br><b>Gurera:</b> gure etxera.  |   |

18. **Landa berde:** zelaia berde, lautada berdea.  
**Marineruak:** marinelak, itsasgizonak.
19. **Eruan:** eraman.  
**Ekarrikoitu:** ekarriko ditu.  
**Udebarriko:** udaberriko, bedatseko.

## BERRIZKO ITSUARI

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 299 or.)

01. Berrizko itsuari  
Patxiko deritxo  
alabea daukanak  
hari emon leio.
02. Alabea daukanak  
emon dautsalako  
Berrizko itsu horrek  
alabea dauko.

∞

01. **Deritxo:** deritzo, deitzen da.  
**Leio:** liezaioke.
02. **Dautsalako:** diolako.

## EGUEN ZURI GORDETAN

(Abadiño. *Eguen zuri*, Antton Mari Aldekoa- Otalora. **Aratosteak Durangaldean**, orrialde gabea. Gerediaga Elkarte - Durango).

## ESKE KOPLAK

- |  |  |
|--|--|
| 01. Eguen zuri gordetan<br>asmo honegaz kantetan<br>Doña Contxaren dixipuluok<br>hemen gaukazuz atetan.            | 05. Eskerrak orain, patrona<br>emon egizu limosna<br>gogoan euki, euki ta hemendik<br>bagoaz agur esanda.    |
| 02. Egun on jente noblia<br>Kristok daigula bakia<br>orain koplak bi esan hemen ta<br>esperatu limosnia.           | 06. Andre mondrongo mondrongo<br>hik ez don asko emongo<br>hik emotunan apurragaitik<br>etxunau asko edango. |
| 03. Gauza bat daukat zer esan,<br>parkazinua benetan<br>eskuak hutsik Jaungoikoagaitik<br>eruan ez dagiguzan.      | 07. Emongo bozu emoizu<br>bestela ezetz esaizu<br>ate onduan hotzak hartzera<br>amak ez gaitu bialdu.        |
| 04. Oraintxe zabiz pentsetan<br>sinpleza batzuk gertetan<br>zazpi dozena arrautza eta<br>arrautza saltsa gertetan. |  |



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Eguen:</b> ostegun. <i>Eguen zuri</i> , <i>ostegun gizen</i> , ihauteri aurreko osteguna. Bizkai aldean oso ohitura hedatua izan da egun horretan eskolumeak etxez etxe kantuan irtetea, gerra ondoan ohitura hori herri askotan bertan behera gelditu bazen ere. <b>Gordetan, kantetan:</b> gordetzen, kanta-tzen.<br><b>Honegaz:</b> honekin.<br><b>Gaukazuz:</b> gauzkazu. | 03. <b>Parkazinua:</b> barkua, barkamena.<br><b>Eruan:</b> eroan, eramán.<br><b>Dagiguzan:</b> ditzagun.                 |
|  | 04. <b>Zabiz:</b> zabiltz.<br><b>Pentsetan, gertetan:</b> pentsatzen, gerta-tzen.<br><b>Gertatu:</b> prestatu, apailatu. |
|  | 05. <b>Patrona:</b> ugazabandrea, etxeandrea.<br><b>Egizu:</b> ezazu.  |



06. **Emotunan:** ematen dunan.  
**Etxunau:** ez dinagu.

07. **Bozu:** badozu.

## EGUEN ZURI

(Cancionero Popular Vasco, 1091 or., R. M. Azkue. Lehenengoa Berrizko aldaera, bigarrena Arbazegikoa. Hurrengo laurak Garaikoak)

–Eguen zuri eguen baltz  
txakurra arrautza ganean datz  
baltz-balztxua maixuentzat  
zuri zuritxua geuretzat.

–Eguen zuri eguen baltz  
Oizko edurra baizen zuri  
kortako edeak baizen zal  
zal da zal, zal da zal.

01. Eguen zuri Eguen baltz  
txakurra arrautza ganean datz  
zuri zuritxuok geuretzako dira  
enparaduak maisuarentzat.

03. Ateok dira leizarrez  
ate buruak zidarrez  
etxe honetako etxekojauna  
urte gorritzko bizarrez.

02. On dau saltseak espezia  
Bartzelonatik ekarria  
nagosi jauna gura genduke  
kopla honetako lizentzia.

04. Urte gorritzko bizarra dauko  
urte zurizko bizkarra.  
...  
...



**Datz:** datza, etzanda dago.  
**Maixuentzat:** maisuarentzat.  
**Korta:** ikuilu, tegi.  
**Hedea:** uztarriaren uhalezko lokarria.  
**Zal:** zail, zaulia eta gogorra, euskorra.

01. **Enparaduak:** gainerakoak, beste guz-  
tiak.  
02. **Saltseak:** saltsak.  
**Espezia:** janariak ontzeko erabiltzen den  
landare aromatikoa.

## SAN KASIANO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 360 or., R.M. Azkue)

01. San Kasiano obispu jauna  
eskola-maisu entzuna  
zeure kofrade garean legez  
egizu laguntasuna.

02. Orain artean usu dan legez  
gatoz gu zeure etxera  
etxekoandrea, bota egizu  
limosna on bat zakura.

03. Emon egizu maisu jaunari  
irakasteko grazia  
baita guri bere ikasteko  
gomuta ona eta argia.



01. **Garean legez:** garenez, garenez gero.  
02. **Usu dan legez:** ohitura denez, den beza-  
la.  
**Egizu:** ezazu.

03. **Guri bere:** guri ere.  
**Gomuta:** oroimen, memoria.

## EGUEN ZURIKO EGUNA

(Garai, Berriz, Zaldibar. *Eguen zuri*, Antton Mari Aldekoa-Otalora. *Aratosteak Durangaldean*. Gerediaga Elkartea, orrialde gabea)

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Eguen zuriko eguna<br/>Jaungoikoak berak egina<br/>eskola mutilak ibilteko<br/>limosna on baten bila.</p> <p>02. Hor goijen goijen goldie<br/>haren ganien belie<br/>etxe honetako nagusi jauna<br/>nekazari langilie.</p> <p>03. Poltsan baditut errial bi<br/>batak bestia dirudi<br/>etxe honetako etxeoandriak<br/>Ama Birjina dirudi.</p> <p>04. San Kasiano obispua<br/>eskola maixu jakituna<br/>Jesukristoren fediagaitik<br/>odola emon ebana.</p> | <p>05. Santu hau bitartez dala<br/>ez eizu izan okerrik<br/>orain bagoaz hemendik eta<br/>agur danori eginik.</p> <p>06. Emongo bozu emoizu<br/>bestela ezetz esaizu<br/>ate ondoko haiziok hartzen<br/>amak ez gaitu bialdu.</p> <p>07. Etxekoandre mondrongo<br/>hik ez don asko emongo<br/>hik emotunan limosniagaitik<br/>etxunau asko edango.</p> |
|--|--|



- |  |  |
|--|--|
| <p>02. <b>Goijen:</b> goian.<br/><b>Goldie:</b> goldea, golda.<br/><b>Belie:</b> belea, bela, erroia, hegazti beltza.</p> <p>04. <b>Ebana:</b> zuena.</p> <p>05. <b>Ez eizu:</b> ez ezazu.</p> | <p>06. <b>Bozu:</b> badozu.<br/><b>Haiziok:</b> haizeok, haize hauek.</p> <p>07. <b>Emotunan:</b> ematen dunan.<br/><b>Etxunau:</b> ez dinagu.</p> |
|--|--|

## TXIOKA DAGO MIRUA

(Berrizko koplak ezberdin batzuk, Andikoako Fermin Barcelo irakaslearen karpeta batetik jasoak)

01. Txioka dago mirua  
bete artian birua  
lukainkarikan ez badekozu  
bardin deuskula dirua.
02. Gollibartikan harantza  
herri txikia Ziortza  
orain etxeko andriak dakaz  
dozenatxo bi arrautza.
03. Berrizko herritik gorantza dago  
toki alaia Andikona  
orain etxeko andriak dakar  
guretzako gauza ona.



- |  |   |
|--|---|
| <p>01. <b>Birua:</b> biroa, birapoa, papoa, paparoa.<br/>Hegazti askoren poltsatxoa, janaria lise-<br/>ritu aurretik gordetzeko.<br/><b>Badekozu:</b> badaukazu.<br/><b>Deuskula:</b> digula.</p> <p>02. <b>Golibar:</b> Bolibar herria.<br/><b>Ziortza:</b> Bolibar gainean dagoen auzoa,<br/>santutegi eta komentu ospetsua bertan<br/>direna.</p> | <p><b>Dakaz:</b> dakartza. Textuak <i>daukaz</i><br/>—dauzka— jartzen du, baina <i>dakaz</i> da<br/>zentzu hobeak daukana, hurrengo aldae-<br/>ran <i>dakar</i> agertzen den lez.</p> <p>03. <b>Andikona:</b> Andikoa, Berrizko auzo bat,<br/>Oiz azpian.</p> |
|--|---|

## GIZABURUAGA

(Gizaburuagan entzun nituenak, ezberdinak bakarrik harturik)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Eguen zuri eguna dan lez<br>gatoz zugana eskian<br>eskian gatoz eskian<br>inor badago etxian.       | 03. Lukainkatxu bi sei bat arrautza<br>ogi bat edo sei lauho<br>hemen gatozan eskola-umeok<br>merienda on bat eiteko.   |
| 02. San Kasiano obispo jaune<br>eskola maixu entzune<br>berak emon daiskula guri<br>ikasiteko zentzune. | 04. Agur, adios, eskerrik asko<br>urte on bat pasau daizula<br>urte on bat pasau daizula eta<br>Kristok pagatu daizula. |



- |   |   |
|---|---|
| 02. <b>Entzune:</b> ospetsua, izen handikoa.                      | 04. <b>Daizula... daizula:</b> Lehenengoa <i>dezazula</i> edo <i>dezazueta</i> eta bigarrena <i>diezazula</i> edo <i>diezazueta</i> . |
| 03. <b>Lauko:</b> antxinako diru bat, lau ziri edo zuri zeuzkana. |   |

## EROZTUNEAN

(Jon Aurre sorta. Ez dakar non jaso)

01. Eroztunean pasa diteke  
damea, zure gerria  
eroztunean gerria  
mardula bularteria  
neure ustean ez da faltako  
zurretat merkataria.

02. Urdai lardero urdai lardero  
urdaia janda garbaia gero  
piperrarekin espezia  
Bartzelonatik etorria  
etxeko jaunak emoten badosku  
koplatuteko lizentzia.

03. Okaran txiki gorri betie  
aurten da zure urtie  
errialtxu bi emon ezkerro  
urte guztiko bakie.



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Eroztun:</b> eraztun.<br><b>Merkataria:</b> eroslea, tratua egiteko prest dagoena.   | <b>Garbaia:</b> damua, pena.<br><b>Badosku:</b> badigu. |
| 02. <b>Lardero:</b> eguen edo ostegun berezi honi ematen zaion beste izen bat: <i>eguen lardero</i> . Esanahi zehatzik daukan ez dakit. | 03. <b>Okaran:</b> aran.                                |

## EGUEN ZURI KOPLAK

(Sorta hau *Eguen zuri koplak* Gerediaga Elkartearen orri paretik eta Antton Mari Aldekoa-Otaloraren *Eguen zuri* saileko —**Aratosteak Durangaldean**, orrialde gabea— Iurretako sortatik bat egina dago, berdina kenduta)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Eguen Zuri honetan<br>hasi gara gu kantetan<br>zuri zurituak maixuarentzat<br>beste enparauak guretzat. | 02. Maixu jaunaren dixipuluak<br>etxeko jaunaren atetan<br>alkate jaunaz egondu gara<br>atzoko arratsaldian. |
|---|--|

03. Alkate jaunak agindu deusku  
ibiliteko bakian  
bakian gabiz bakian  
lehengo zaharren legian.
04. Ezpabe sartuko gaituela  
ziega ilun batian  
ez gaituzela atara be eingo  
berak nahi daben artian.
05. Ijorretako kanpantorriak  
altuan dauko kapelia  
zortzijen zortzijen juaten jako  
andra ederren erroskia.
06. Kuriosotxu hasi gaitezan  
etxe honetan kantetan  
lotxu gozuan daguezenak  
ikeratu ez daitezkan.
07. Horra hor goijen pinue  
uzabak eisku kinue  
uzabandriek emongo dau-ta  
tabernarako dirue.
08. Etxe honetako andra zabala  
leku oneko alaba  
bidean esaten etorri gara  
limosneria zarala.
09. Eder elizan liburu  
usoak haren inguru  
etxe honetako txiki-haundiak  
paradisuan aingeru.
10. Solomo gerri luzie  
haren koipie dultzie  
zatirik kentzen ibili barik  
ekarri eizu guztie.
11. Altza altza, Marije  
ez izen horren nagije  
hainbat arinen topau eiozu  
oilo pinttenai habije.
12. Horra hor goiko sabaijen  
estuen edo nasaijen  
oilotxuren bat egongo dala  
arrautzatxuekin habijen.
13. Ule trentzia gerriraino  
zeda mantoia lurreraino  
bedorren langorik ez dauela  
Sibirijetik honaino.
14. Sibirije ta Granada  
urdei-azpije ona da  
urdei-azpije ona da baina  
hiru lukainkaz hoba da.
15. Zuri nabarra azpiko  
gorri ederra ganeko  
andria zure parerik ez da  
plaza bat onratuteko.
16. Aurtengo urtian ipinten dabe  
Bernagoitijen dendia  
akerrentzako praka laburruak  
ahuntz-ardijentzat gonía  
azeritxuek txan hebilakin  
ai, hauxe da denda limosnia.

17. Ate buruan hazkora  
ije kantarik asko da  
hemen nahikua egin dogu ta  
orain guazen albora.
18. Emongo bozu emoizu  
bestela juateko esaizu  
ezpabe hurrengo etxera juateko  
berandu egin bihar jaku.



01. **Kantetan:** kantatzen.  
**Enparaduak:** gainerakoak, gainontze-koak, beste guztiak.
02. **Jaunaz:** jaunarekin.
03. **Deusku:** digu.  
**Gabiz:** gabiltz.
04. **Ezpabe:** baizik, bestela.  
**Ziega:** gela ilun, erdi lurpekoa, presoak-eta edukitzekoa.  
**Atara be eingo:** atera ere egingo.  
**Daben:** duen.
05. **Ijorreta:** Iurreta.  
**Dauko:** dauka.  
**Kapelia:** kapelea, kapela, buruan ipin-tzen den babeskin zabala.  
**Zortzijen zortzijen:** zortzian zortzian, zortzi egunez behin.  
**Jako:** zaio.  
**Erroskia:** erroskea, erroska, kiribila edo uztaia. Andre ederrek inguratzen edo korru egiten diotela esan nahi du.
06. **Kuriosotxu:** poliki poliki, kontuz kontuz.  
**Daguezenak:** dagozenak, daudenak.
07. **Goijen:** goian.  
**Uzabak:** ugazabak, nagusiak.  
**Eisku:** egin deusku, digu.
10. **Koipie:** koipea.  
**Barik:** bagarik, gabe.  
**Eizu:** ezazu.
11. **Altza:** altxa, zutitu, tentetu.  
**Izen:** izan.  
**Hainbat arinen:** ahalik lehenen, azkarren.  
**Topau eiozu:** topatu, aurkitu iezaiozu.  
**Pinttenai:** *pintanoa*'ren femeninoa, nabarra, kolore bat baino gehiago daukana.  
**Habije:** habia, kabia.
12. **Sabaijen:** sabaian, sapaian, mandioan. Baserrietan, belarra, lastoa eta abar gordetzeko lekua.
13. **Langorik:** lakorik, bezalakorik.  
**Dauela:** dagoela.  
**Sibirije:** Sibiria, Sibilía, Sevilla.
14. **Urdei-azpie:** urdaiazpikoa, xingarra.  
**Hoba:** hobe.
16. **Dabe:** dute.  
**Dendia:** dendea, denda.  
**Txan:** ez dakit zer den, *txal* ez bada, zetazko zapi luze apaingarria.  
**Hebila:** metalezko piezatxoa, gerrikoa, uhalak etab. lotzekoa.
18. **Bozu:** badozu.  
**Ezpabe:** ostantzean, bestela.  
**Jaku:** zaigu.

## SAN NIKOLAS

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 361 or., R. M. Azkue)

01. San Nikolas santua  
Udalatxen ortua  
Anboto madarikatua  
San Nikolas kamela  
gaztaina, no quiero más.
02. San Nikolas koronado  
Artzobispo Mari Andres  
egizu egizu piloa  
San Nikolas triskilis tras  
kamela gaztaina, no quiero más.
03. A la una noche y día  
etxeke andra noblea  
egizu egizu piloa  
San Nikolas triskilis tras  
kamela gaztaina, no quiero más.



01. **Ortua:** baratza.

**Kamela:** Gaztelaniazko *dámela* ote den dio Azkuek.

02. **Piloa:** pila, mordoa, multzoa.

Arrasateko hurrek San Nikolas bezperan kantatzen omen zuten.

## SAN NIKOLAS KORONADO

(Otxandioko moduan. Euskalerrriaren Yakintza IV, 361. or., R. M. Azkue)

San Nikolas koronado  
confesor es muy ondrado  
a la una don Salebia  
cantaremos alegría  
egizu zuk egipidea  
salarainoko bidea.  
Esku batean ogi handia  
bestean lukainka pareta  
San Nikolas santua  
Garagartzan ortua  
Udalatxen etxea  
atea zigorrez betea  
atean eleizara  
Peru abare gaztea  
cantaremos dos  
una limosnita  
por amor de Dios.



**Egipidea:** eginbidea, egitekoa.

**Ortua:** baratza.

**Zigorrez:** makilaz.

**Abare:** abade, apaiz.

## SAN NIKOLAS KORONERO

(Cancionero Popular Vasco, 1146 or., R. M. Azkue)

San Nikolas koronero  
konfesero  
Mari Andres alargun dontzeilea  
cantaremos alegría  
bost etxetan sei ate  
zazpi etxetan suete.

Aingeruak gara  
zerutik jatsi gara  
una limosnita  
por amor de Dios.



Suete: sute, sukalde.

## SANTA AGEDA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 118 or., R.M. Azkue. Ikus *Zeanuriko koplak*, Eulogio Gorostiagak batuak)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Santa Ageda santea<br>Muniketako lorea<br>martirioak pasa zenduzan<br>igarotearren fedea.              | 04. Libertadea eskatzen diot<br>etxeke printzipal honi<br>santa Agedaren alabantzak<br>kantadutzera nator ni.     |
| 02. Bedeinkatua izan dedila<br>etxe honetako jentea<br>pobre ta umilde direanentzat<br>badauke borondatea. | 05. Grazi handiak emon eutsezan<br>Santa dolorosa honi<br>kristiandadean honen izena<br>beti bedeinkatu bedi.     |
| 03. Santa Martiri maitea<br>dago errukiz betea<br>Jaun zerukoak emon dagiela<br>osasuna ta bakea.          | 06. Nork esan leien zer pasau eban<br>munduan Santa Agedak<br>lehendabizian azotaduta<br>kendu eutsezan bularrak. |

- |   |   |
|---|---|
| 07. Enperadore traidore horrek<br>eskubidea bazuan<br>Santa Ageda hain zan ederra<br>bere emaztetzat nahi zuan. | 14. Idi zuriak ekarten dabe<br>karabirako otea<br>etxe honetako zaldun gazteak<br>batuta dauko dotea.   |
| 08. Ikusirikan orduan honek<br>bere halako moduan<br>zer milagroak gertatu ziran<br>Santa honekin munduan.      | 15. Zaldun gaztea parkatu<br>ez bazaio ongi notadu<br>orain hasita gura genduke<br>dama gaztea koplatu. |
| 09. Sibili eta Granada<br>Hondarrabian gerra da<br>etxe honetako nagusi jauna<br>bakeak egiten ari da.          | 16. Kerexa txiki betea<br>aurten da zure urtea<br>zeure matrailak dirudiela<br>kabelinearen lorea.      |
| 10. Bakeak egin dira... ze<br>etxean zaratea da<br>...<br>...   | 17. Kabelinearen lorea eta<br>larrosa maiatzekoa<br>zeuri begira hementxe nago<br>damatxo bihotzekoa.   |
| 11. Nagusi jauna parkatu<br>ez bazaio ongi notadu<br>orain hasita gura genduke<br>etxekeandrea koplatu.         | 18. Kalabazearen aihenak<br>lorea dauko beilegi<br>etxe honetako Primitibatxok<br>kabelinea dirudi.     |
| 12. Seda txanbrea soinean eta<br>izaratxoa buruan<br>bihar goizean joango zara<br>señora baten moduan.          | 19. Eder elizan liburu<br>usoak haren inguru<br>etxe honetako txikar-handiak<br>paradisuan aingeru.     |
| 13. Etxekoandrea parkatu<br>ez bazaio ongi notadu<br>hemen hasita gura genduke<br>zaldun gaztea koplatu.        |   |



01. **Zenduzan:** zenituen.  
**Igarotearren:** iragateagatik, pasatzeagatik. Hemen fedeari eutsi, gorde esan nahi du.
02. **Badauke:** badaukate.
03. **Dagiela:** diezaiela.
05. **Eutsezan:** zizkioten.  
**Dolorosa:** mintsua, samindua, penatua.
09. **Sibili:** Sibilía, Sevilla.
11. **Notadu:** aipatu, izendatu, goraiatu.
12. **Txanbrea:** txanbra, emakumeen soineko mota bat.  
**Izaratxoa:** maindiretxoa.
14. **Ekarten dabe:** ekartzen dute.  
**Karabi:** karobi, kisulabe.  
**Otea:** Azkuek *atea* jasotzen du eta hala kantatuko zion lekukoak, baina beste aldaera batzutan *otea* agertzen da eta bistan da hori dela zentzuzkoa, karobira eramateko.  
**Dauko:** dauka.
16. **Kerexa:** gerezi.  
**Matraila:** masaila.
18. **Beilegi:** hori, laru. Kolorea.
19. **Txikar:** txiki.

## ERROMERUA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 115 or., R. M. Azkue)

01. Erromerua loratsu  
beti Jainkoa amatu  
orain hemendik behar genduke  
etxeakoandrea koplatu.
02. Etxeburuan oilar bi  
batak bestea dirudi  
etxe hontako etxeakoandreak  
Ama Birjina dirudi.



01. **Erromerua:** erromeroa, landare usain- tsua eta sendagarria.  
**Amatu:** maitatu, maite ukan, onetsi.

## SANTA AGEDAK

(*Cantares populares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga. Anuario de "Eusko-Folklore", 1930, Tomo X, 30. orrialdetik aurrera*)

01. Nagusi jauna aurrera  
erreberenzia lurrera  
lotsa gerala etorri gera  
jauna, bere aurrera.
02. Alkate jaunaz egondu gera  
atzoko arratsaldian  
libertadea gurekin degu  
ibiltzeko bakian.
03. Eder elizan liburu  
usuak haren inguru  
etxe honetako txiki haundiak  
paradisuan seguru.
04. Eder elizan altare  
harri labratuz pilare  
Birjina Amaren eskojituak  
etxe honetan dirade.
05. Usua doa otara  
nere begiak lotara  
orantxe noa nagusi jauna  
berorren koplaetara.
06. Eder soruan goldia  
soinian kapa moria  
etxe honetako nagusi jauna  
ondo gizontxo noblia.
07. Eder zeruan izarra  
errekaldian lizarra  
etxe honetako nagusi jaunak  
urre gorritz du bizarra.
08. Urre gorritz du bizarra eta  
diamantezko espalda  
beorri bezin gizon presturik  
herri honetan ez ahal da!
09. Eder intxoren kordena  
halaxe dauku ordena  
Etxekoandria koplatutzeko  
nagusiaren hurrena.
10. Etxekoandria horra hona!  
Geure gauzaren doi ona  
Paskue goixean jantziko dituzu  
zeure soinean hamar gona.
11. Txuri nabarra azpiko  
gorri ederra gaineko  
andrea, zure parerik ez da  
plaza bat ondratutzeko.
12. Eder basoan ezpela  
nik ezin esan bestela  
zure besoan lo egin leike  
Paradisuan bezela.

13. Arantza beltza ostroa txiki  
puntara zaku loratsu  
orain hemendik bihar genduke  
zaldun gazte bat koplatu.
14. Horra hor goian iturri  
ura txorrotik erori  
etxe honetako zaldun gazteak  
hamalau urre txintzarri.
15. Hamalau urre txintzarriekin  
zazpi damaren eguzki  
haiek guztiek izenik (ere)  
gehiago ditu merezi
16. Arantza baltza ostroa txiki  
puntara zaku loratsu  
orain hemendik bihar genduke  
dama gazte bat koplatu.
17. Damatxu gazte konpondua  
hori kolore gorria!  
Zure matraila iruditzen zat  
krabelinaren orria.
18. Krabelinaren orriarekin  
larrosa maietzekoa  
zeuri begira hementxe nago  
damatxo bihotzekoa.



01. **Bere:** *berorren* behar luke. Begirunezko trataera.
02. **Jaunaz:** jaunarekin.
04. **Labratuz:** landuz.  
**Pilare:** zutabe, harroin.  
**Eskojituak:** hautuak, aukeratuak.
05. **Otara:** kotara. Oiloak eta hegaztiak pausatzeke kokalekua.
08. **Espalda:** bizkarra.  
**Ahal:** beste azepzio batzuek gainera, desira edo itxaropena adierazten duen partikula.
09. **Intxoren:** ez dakit zer den, nor-izenen bat ez bada.  
**Kordena:** badirudi *kordona* edo *kordoia* dela, beste aldaera batzutan ageri denez.  
**Dauku:** daukagu.
10. **Horra hona:** horrat honat, horrera eta honera.
11. **Nabarra:** kolore bat baino gehiago dituen.
12. **Ezpela:** zuhaitz mota bat.
13. **Ostroa:** hostoa, orria.
14. **Txintzarri:** zintzarri, arran, joare.
15. **Izenik:** izanik.
17. **Iruditzen zat:** testuan *irudien zat* dator, baina argi dago *iruditzen zat* izan behar duela.  
**Orria:** hostoa.

## HORRAKO GOIKO OTIA

(Andres Lejarraga, Lezama. Jon Aurre sorta. Besteetatik ezberdinak bakarrik hautaturik)

01. Horrako goiko otia  
ehuntzek jan dotso botia  
etxe honetako Elenak bere  
baturik dauko dotia.
02. Hamaseikoak magala zabal  
laroiei pezeta ditu  
guri pare bat emonagaitik  
hirurogetak gelditu.
03. Etxe honetako seroria  
gaixorik dago koitedia  
hortxe bidian esan dauskue  
zelan dan limosneria.
04. Esku batian argie eta  
bestian lukinke paria  
altzoa berak goraino dakar  
han be dozena arrautzia.



01. **Otia:** otea.  
**Ehuntzek:** ahuntzak.  
**Botia:** kimua, ernamuina.  
**Dauko:** dauka.
02. **Hamaseikoa:** lehengo diru bat, hamasei hogerleko edo laurogei pezetakoa. Diru handia, beraz, batez ere gorria edo urrezkoa bazen.  
**Hirurogetak:** hirurogetazak. Hirurogeitik gora, hirurogei eta mordoa adierazteko modua.
03. **Seroria, serore:** elizaren ardura duen emakumea. Baita sakristauaren emaztea ere.  
**Koitedia:** *koitedua*'ren femeninoa, gaitzoa, errukarria.  
**Dauskue:** digute.  
**Zelan:** nola.  
**Limosneria:** *limosneroa*'ren femeninoa, limosnazalea, eskuzabala.
04. **Lukinke paria:** lukainka pare.  
**Altzoa:** magala.  
**Han be:** han ere.



## SANTA AGEDA KOPLAK IURRETAN

(Antton Mari Aldekoa-Otalorak eskuraturiko Iurretako orri solte bat)

01. Santai Ageda, Ageda, Ageda  
bijer da Santai Ageda  
bijer da Santai Ageda eta  
gaur haren bezpera gaba.
02. Bedeinkatua izan dedila  
etxe honetako jentia  
pobre ta umil dabizantzat  
badauke borondatia.
03. Santa Martiri maitia  
dago errukiz betia  
berak alkantza daigula danoi  
osasuna ta bakia.
04. Eder zeruan izarra  
errekaldian lizarra  
etxe honetako nagusi jaunak  
urre gorritzko bizarra.
05. Urre gorritzko bizarra eta  
diamantezko espalda  
errial zuriz eginik dauka  
elizaraino galtzara.
06. Hamaseikoa zilarra zabal  
larogei pezeta ditu  
guri pare bat emonagatik  
bedorri asko gelditu.
07. Sentitzen zaitut sentitzen  
jagitte zelan zabiltzen  
zure ointxuen txipistin hotsa  
sala barrije astintzen.
08. Elaztuntxu bat letonez  
begijek urre kolorez  
gure aurreko neskatil hori  
edozeinentzat egon ez.
09. Errotapian harrije  
haren gainien txorije  
elaztun baten pasa liteke  
maitia zure gerrije.
10. Horra ortuan madari  
adarrak ditu hamabi  
hemen dagoen dama gaztiak  
babaloria dirudi.
11. Neskatila, ez zaitez egon  
ate zulotik begira  
zuk nobijorik falta badozu  
gure kuadrilan badira.
12. Haixiek eta eurijek  
atara biher begijek  
pozurik pozu galduten jatez  
neuri lagunik erdijek.

13. Solomo gerri luzie  
haren koipien dultzie  
zatijek kentzen ibili barik  
ekarri eizu guztie.
14. Zakua dauku arine  
Matxin Santuek egine  
hau betetako leku on batera  
ailegatuko bagine.
15. Horra hor goijen iturri  
ura txorrotik etorri  
etxe honetako nagusi jaunak  
asto-mentaua dirudi.
16. Andre mondrongo mondrongo  
hik ez don asko emongo  
hik emondako diruarekin  
etxunau asko edango.



01. **Bijer:** bihar.  
**Gaba:** gaua.
02. **Badauke:** badaukate.
03. **Alkantza:** alkantzatu, eskuratu, lortu.  
**Daigula:** diezagula.
05. **Espalda:** bizkarra.  
**Errial:** erreal, pezeta baten laurdena.
06. **Bedorri:** berorri. Begirunezko trataera.
07. **Jagitte:** Jagita, jaikita.  
**Txipistin:** onomatopeikoa.  
**Barrije:** barria, berria.
08. **Letonez:** letoiz. Metal bat.
10. **Ortuan:** baratzean.  
**Madari:** udare, txermen.
12. **Haixiek:** haizeak.  
**Biher:** behar.  
**Pozu:** putzu, istil. Beste aldaera batek *pausurik pausu* dio eta hori bidezkoago da, nahizta *pozu-putzu* ere ez den harritzekoa ibilera horretan.  
**Jatez:** zaizkit.  
**Barik:** bagarik, gabe.  
**Eizu:** ezazu.
14. **Dauku:** daukagu.  
**Betetako:** betetzeko.
15. **Asto-mentaua:** mentatua, mendatua. Mentu edo mendutik. Txertatua. Asto biribila, osoa, asto hautatua esan nahi du, txertatuago eta astoago.
16. **Etxunau:** ez jonagu, ez dinagu.

## IURRETAKO SANTA AGEDAK

(*Santa Ageda bezpera*, Antton Mari Aldekoa-Otalora. **Aratosteak Durangaldean** -Gerediaga Elkarte, orrialde gabea. *Santa Ageda koplak Iurretan* izeneko aurreko orrian ez zetozenak bakarrik).

- |   |   |
|---|---|
| 01. Arantza baltza ostrotsu<br>puntara jaku loratu<br>orain hemendik bihar genduke<br>dama gazte bat koplatu. | 04. Paradisuko txorijek<br>hegotxu bijek zurijek<br>etxe honetako dama gaztiak<br>ederrak ditu begijek. |
| 02. Hauxe bai neska politte<br>neska kolore gorrije<br>zure matraila iruditzen jat<br>klabelinaren orrije.    | 05. Zure ortuko babie<br>harixek leka luzie<br>etxe honetako dama gaztiak<br>sei mila duro dotie.       |
| 03. Klabelinaren orrije<br>larrosa maijatzekua<br>zeuri begira hementxe gagoz<br>damatxo bijotzekua.          |   |

∞

- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Ostrotsu:</b> hostotsu, orritsu.<br><b>Jaku:</b> zaigu.<br><b>Bihar:</b> behar. | 03. <b>Gagoz:</b> gaude.<br><b>Bijotzekua:</b> bihotzekoa.                                     |
| 02. <b>Gorrije:</b> gorria.<br><b>Jat:</b> zait.                                       | 05. <b>Ortuko:</b> baratzeko.<br><b>Babie:</b> baba, baba.<br><b>Dotie:</b> dotea, ezkonsaria. |

## SANTA AGEDA ABESTIAK

(Antton Mari Aldekoa-Otalorak eskuraturiko orri solte bat. Azkenengoa ezik, *Santa Ageda bezpera* bere artikuluan berrematen ditu, **Aratosteak Durangaldean** - Gerediaga Elkarte izeneko liburuskari).

- |  |   |
|--|---|
| 01. Zorion etxe hontako denoi<br>agur egitera gatoz<br>aterik ate ohitura zaharrak<br>aurten barrizteko asmoz.     | 07. Mutil taldea hementxe gagoz<br>danok gazteak eta gai<br>mundu guztia igaro dogu<br>itsas legor mendi zelai.           |
| 02. Ez gagoz oso aberats diruz<br>ezta bere oinetakoz<br>baina eztarriz sano gabiltza<br>ta kanta nahi dogu gogoz. | 08. Neskatx ederrak itxi ditugu<br>negar malkotan gure zai<br>baina guk neska danen artean<br>hemengoxe alaba nahi.       |
| 03. Santa Ageda bezpera dogu<br>Euskal Herriko eguna<br>etxe guztiak kantuz pozteko<br>aukeratua doguna.           | 09. Eskean gatoz baina ez gara<br>ez ijito ta ez praile<br>Santa Agedak atera gaitu<br>kaletara kantatzaile.              |
| 04. Santa maitea gaur hartu dogu<br>gure bideko laguna<br>haren laguntzaz bete daigula<br>egun hontako jarduna.    | 10. Denda honetan kajoitxo asko<br>danak giltza ta zerraile<br>estraperloko kajoitik bota<br>pezeta pare bat mile.        |
| 05. Mutil gazteak atean gara<br>nun da etxeko larrosa<br>urten deiela bizkor leihora<br>begiak daiguzan goza.      | 11. Ura gustetan jaku eskuak<br>ta arpegia garbitzeko<br>baina napar baltza behar dogu<br>eztarria bustitzeko.            |
| 06. Eguzki berak ikusi nahi dau<br>horren aurpegi panpoxa<br>nere emazte izan nahi baleu<br>betea neuke nik poza.  | 12. Txanpaina bere edango geunke<br>norbait balitz emoteko<br>pattarra ez da txarto etorten<br>bizkarreko hotza kentzeko. |

13. Bedeinkatua izan dedila  
etxe honetako jentia  
pobre ta umil dabiltenentzat  
badauke borondatia.
14. Santa Martiri maitea  
zeru goiko krabelina  
aingeru artian zagoz zeruan  
Santa Ageda bikaina.
15. Obra on ona egizu eta  
bihotza graziz beteizu  
Santa Agedaren izenian  
eskua luzatu eizu.



01. **Barrizteko:** berritzeko.
02. **Gagoz:** gaude.  
**Ezta bere:** ezta ere.
04. **Daigula:** dezagula.
05. **Urten deiela:** urten dagiala, jalgi, atera dadila.  
**Daiguzan:** ditzagun.
08. **Itxi:** utzi, laga.
10. **Kajoitxo:** kutxato.  
**Zerraille:** morroilo, herskai, serrapo.  
**Estraperlo:** gauza bati legez edo ohiz kanpo jartzen zaion prezio handiegia. Gehiengan kontrabandoko gauzak.
11. **Gustetan jaku:** gustatzen zaigu, maite dugu.
12. **Geunke:** genuke.  
**Txarto:** gaizki.
13. **Badauke:** badaukate.
14. **Zagoz:** zaude.
15. **Beteizu:** bete ezazu.  
**Eizu:** ezazu.
17. **Ijurretako:** Iurretako.

Kopla sorta hau argi dago zaharren eta berrien nahastea dela. Aipatzen diren edariak, dendak, herriaren izen aipuek, bertogintzatik hurbilago dauden puntuak eta esakerak, ez dira oso antzinakoak izango Iurretan.

## AGATE DEUNA 1969

(Jon Enbeitak eskuraturiko orri soltea)

01. Aintzaldu daigun Agate Deuna  
bihar da, ba, Deun Agate  
etxe honetan zorion hutsa  
betiko euko ahal dabe.
02. Zeru goi goian eder izarra  
errekaldian izarra  
etxe honetako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.
03. Gabon danori Gernikatarrak  
bardin andra ta gizonak  
barrero bere agertu gara  
Santa Agedaren lagunak.
04. Agedaren garbitasunak  
eta gure alkartasunak  
borondatian jarri daizala  
Gernikako euskaldunak.
05. Siziliako ugartea zan  
Santa Agedaren herria  
hantxe emon eban Kristoren alde  
zainetako odol gorria.
06. Arpegi zuri eta garbia  
haren ulia urria  
zerura zuzen hegaz joan zan  
bere arima garbia.
07. Bedeinkatua izan daitela  
etxe honetako jentia  
pobre ta umilde dabizantzat  
badute borondatia.
08. Emongo bazu laster emoizu  
bestela ezetz esaizu  
ate ondoan hotzak hiltzera  
amak ez gaitu bialdu.
09. Eta honekin amaitzen goaz  
gehiago ezin gara egon  
borondatia orain daukanak  
bihar arte ez itxaron.
10. Bakoitzak ahal dabena emon  
ta garbitasuna jabon  
eskerrik asko Gernikatarrak  
agur danori ta gabon.



01. **Aintzaldu:** goratu, loriatu.  
**Daigun:** dezagun.  
**Euko ahal dabe:** edukiko ahal dute.  
**Ahal:** desira edo itxaropen gogotsua adierazten duen partikula.
04. **Daizala:** ditzala.
05. **Emon eban:** eman zuen.
06. **Ulia:** ulea, ilea.  
**Hegaz:** hegan, hegaldaka.

07. **Daitela:** dadila.08. **Bazu:** badozu.10. **Dabena:** duena.**Jabon:** jagon, zaindu, gorde.

Sorta honetan ere, koplak zaharren artean, bistan da berriak sartzen direla, Gernikari eta Gernikarrei dagozkienak, eskeari hurbiltasuna eta lekutasuna eman nahirik. Entzulegoa irabazi egin nahi da, eurei bereziki eta ez besteri kantatzen ari direla adieraziz.

## ASIER GEHIGARRIA

(Asier Astigarraga Zelaiaren **Coplas de romería y cuestión en Bizkaia** liburuskatik hautatuak. Ezberdinak edo elkarlotuak bakarrik. Actes del Colloqui sobre cançó tradicional. Reus, setembre 1990. 390. or. Biblioteca Abat Oliba. Publicacions de L'Abadia de Montserrat)

### Santa Ageda:

- |   |   |
|---|---|
| 01. Oles da oles etxekotxuak<br>joten jatzuez atiak<br>bakar bakarrik itxite nator<br>andria eta umiak. | 04. Alkate jaunaz egondu gera<br>atzoko arratsaldean<br>libertatea emon in deusku<br>ibiliteko bakean.          |
| 02. Ate barrena zendalez<br>ate burue zidarrez<br>uzaba jaunak esan daiela<br>kantauko bogu edo ez.     | 05. Ez bagabiltzez bakean<br>sartu kartzela batean<br>atara bere ez egiteko<br>pare bat hilebetean.             |
| 03. Atea dago kristalez<br>ate goiena zidarrez<br>uzaba jaune esan egizu<br>kantauko dogun edo ez.      | 06. Pare bat hilebetean edo<br>berak nahi dauen artean<br>berak nahi dauen artean edo<br>bertan usteldu artean. |



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Oles:</b> dei, agur zantzoa, eupada.<br><b>Jatzuez:</b> zaizkizue.<br><b>Itxite:</b> utzita, lagata.  | 03. <b>Egizu:</b> ezazu.                                       |
| 02. <b>Ate barrena:</b> atearen behe aldea.<br><b>Barren-goienak:</b> beheko eta goiko aldeak.<br><b>Zendale:</b> ehun fina eta gardena.<br><b>Uzaba:</b> ugazaba, nagusia.<br><b>Daiela:</b> dezala.<br><b>Kantauko bogu:</b> kantatuko badogu. | 04. <b>Jaunaz:</b> jaunarekin.<br><b>In deusku:</b> egin digu. |
|  | 06. <b>Dauen:</b> duen.  |



- |  |  |
|--|--|
| 01. Zuk emon da nik hartu<br>Santa Agedak pagatu<br>Santa Agedaren alabantzak<br>guk nahi doguz abestu.                | 05. Hor goiko kamaretan<br>hagetxu zuri ederretan<br>ze lo gozoa egingo neuken<br>maitia zeure besoetan.   |
| 02. Santa Agedak kendu digu gaur<br>eskean hasteko lotsa<br>dirurik ez bada bardin zaigu<br>gizendu bako bildotsa.     | 06. Garri altue zinturez<br>begiek urre kolorez<br>etxe honetako (izen bat) bere<br>edozeinentzat egon ez. |
| 03. Santa Ageda ez dabela ez izaten<br>behintzat hilian hilian<br>urtian behin da berian bere<br>zezilen bosgarrenian. | 07. Etxe ondoan pinue<br>ate ganien mirue<br>etxe honetako (izen bat) bere<br>satsa lez deko dirue.        |
| 04. Sentitzen zaitut sentitzen<br>oge zuritik jagiten<br>zure kadera zuri ederrak<br>sala barrian ipinten.             | 08. Zapata zuri paperez<br>eurixe danien bape bez<br>etxe honetako neska gaztia<br>edozeinentzat egon ez.  |

09. Dama gazteak ditu  
lora bitxiak landetan  
zezen zuriek korriduko dau  
dama gaztean bodetan.



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Doguz:</b> ditugu.  | 07. <b>Ganien:</b> ganean.<br><b>Satsa lez:</b> ongarrria, simaurra bezala.<br>Erruz, ugari esan nahi du.<br><b>Deko:</b> dauka. |
| 02. <b>Bako:</b> bagako, gabeko.   | 08. <b>Eurixe danien:</b> euria denean.<br><b>Bape bez:</b> bat be ez, bat ere ez.   |
| 03. <b>Berian bere:</b> berean ere.<br><b>Zezen:</b> zezeilaren, otsailaren. | 09. <b>Bodetan:</b> eztaietan, ezkontzan.  |
| 04. <b>Jagiten:</b> jaikitzen.<br><b>Kadera:</b> zangoa, hanka.              |  |
| 06. <b>Zinturez:</b> zinturaz, gerrikoz.                                     |  |



- |  |  |
|--|--|
| 01. Etxe honetako maiorazkuak<br>zazpi nobia ei ditu<br>zazpi nobia ei ditu (eta)<br>hamasei merezi ditu.    | 04. Haizea bere hotza dau eta<br>neure lagunak irritu<br>nire lagunak kontsolatzeko<br>paitar apur bat emoizu. |
| 02. Etxe honetako zaldun gaztea<br>kortan daukola zaldie<br>saltu batean pasako leuke<br>hamar arkuko zubie. | 05. Kanta mutilek gogotik<br>bakotzak bere aldetik<br>limosna ona urten bihar jok<br>orain gagozan etxetik.    |
| 03. Etxe honetako zaldune<br>Jesukristoren lagune<br>kominidutxo izango leuke<br>beronentzako lagune.        |  |



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Maiorazkua:</b> premua, etxaldearen oi-<br>nordeko edo jabegaia, gehiengan seme<br>zaharrena.<br><b>Ei:</b> omen.   | 04. <b>Dau:</b> dago.<br><b>Irritu:</b> ernegatu, haserretu.                   |
| 02. <b>Kortan:</b> ikuiluan, tegian.<br><b>Daukola:</b> daukala.   | 05. <b>Urten bihar jok:</b> irten, atera behar dik.<br><b>Gagozan:</b> gauden. |
| 03. <b>Kominidutxo:</b> komenidutxo, komenis-<br>ko. <i>Komeni(du)</i> gehi atzizki txikigarria.<br><i>Komeni-komeni ez, baina komenitxo bai.</i><br>Kutsu ironiko-laztankorra ematen dio. |  |



- |   |   |
|---|---|
| 01. Sardin zestuan sardine<br>soinian gona urdine<br>papatoskien itxure honekin<br>heuk irudi don sorgine.    | 04. Etxe aurrean asune<br>etxe ostean baltzune<br>etxe honetako etxeoandreak<br>oilalokean zentzune.  |
| 02. Idi zuriek ekarten deude,<br>mendi altutik otie<br>etxe honetako etxeo jaunak be<br>asto kapeuen dotie.   | 05. Erbi txikia azatzen<br>erbi nausia babatzen<br>etxe honetako uzaba jauna<br>bera beteko kakatzen. |
| 03. Guazen guazen hemendik<br>hemen ez dago gauzonik<br>atorra zaharra ikon eskeite<br>ta bera kakaz beterik. |   |



01. **Zestuan:** zarean, otarrean, saskian.  
**Papamoskien:** papamoskearen, eulitxoriaren.  
**Irudi don:** dirudin.
02. **Ekarten deude:** ekartzen dute.  
**Otie, dotie:** otea, dotea.  
**Kapeuen:** kapatuaren. Irendu, zikiratu.
03. **Ikon:** ikoan, ikuan, pikuan. Pikuondoan.  
**Eskeite:** eskegita, dilindan, zintzilik.

Azken bost koplak hauek ezer ematen ez edo inork erantzuten ez duen etxeetan kantatzekoak dira. Argi dago gaizki esateko motiboak inspirazioa zorrotz egiten duela. Generoaren egiturarik tradizionalen satira gupidagabea isurtzen da, deskripzio benetan lotsagarriak eta mingarriak garatuz.

## GAMINDE GEHIGARRIA

(Urduz Ingeru, Berbak eta Bizimodu. Iñaki Gaminde, 98. orrialdetik aurrera. Ezberdinak bakarrik harturik)

01. Etze hontako andrea  
 hamar gonaren jaubea  
 haik duztiak jantzi ezker  
 etze beteko andrea.
02. Bartzelonako astileruen  
 barko barria dau eitzen  
 etze honetako Jantxu gure  
 haraxe doa kapitxen.

03. Belarrien urteten deude  
 erreka munan bitxiek  
 harekek baino politxaok dire  
 damatxu, zure begiek.

04. Hortxe goien bost ardi  
 hiru yantzan ta bi adi  
 etze honetako dama gazteak  
 merkatariek hamabi  
 merkatariek hamabi deittu  
 zein elejidu ez daki.



01. **Etze:** etxe.  
**Haik duztiak:** haiek guztiak.
02. **Astileruen:** untzigintzan.  
**Barko:** barku, itsasuntzi.  
**Eitzen...kapitxen:** egiten... kapitain.  
**Dau:** dago, ari da.  
**Gure:** gurea. Inguru horretan mugatzaila ezabatu egiten da, bokala bera indartuz: *guré, até, kalé...*
03. **Belarrien:** hau *bedarvean*, bedar ganean, bedar artean izango da, beste aldera batzutan ageri denez, eta ez entzuteko belarrian. Bizkaian *bedar* da, *ez belar*.

- Urteten deude:** urteten dabe, irteten, ateratzen dira.  
**Muna:** lurrak soro bazterretan eta abar edukitzen duen jasounetxo.  
**Politxaok:** politagoak.
04. **Yantzan:** dantzan.  
**Adi:** begira, so.  
**Merkatariek:** erosleak, zerbaiten estimua agertzen dutenak.  
**Deittu:** ditu.  
**Zein elejidu:** textuak *señek leidu* dakar, baina bistan da *zein elejidu*, zein hautatu dela. Besteak ez dauka zentzurik. Koplak honetan bi koplak gainjarriak daude.

## **ARGUMENTUDUN KONPOSIZIOAK**

Multzo honetan argumentua edo nolabaiteko batasuna daukaten sortak sartzen ditut, bai dantzarakoak, bai kanta gisakoak, eta bai baladak eta erromantzeak. Mila eratako banaketak egin daitezke, beste hainbeste azalpen emanez, zergatik hala eta ez bestela egin den, sarritan alperreko sigisagak izango badira ere. Saitetan eta azpisaitetan galtzeko gogorik ez neukan eta sinpleena eta garbiena honelaxe uztea iruditu zait, hots, zerbait kontatzen edo argumentu bat erakusten duten sorta guztiak, laburrak nahiz luzeak, batera eman.

## LAZTANEN PORTALEAN

(Jesus A. Etkezarraga. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 1, 7. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Laztanen portalean<br>dagoz arbola bi<br>bata da laranja<br>bestea madari. | 02. Haixek jagoten dagoz<br>dontzeila eder bi<br>bata da baltzerana<br>bestea lar zuri. |
|--|---|



- |   |  |
|---|--|
| 01. <b>Laztanen:</b> laztanaren, maitearen.<br><b>Dagoz:</b> daude. | 02. <b>Jagoten:</b> zaintzen, gordetzen.<br><b>Lar:</b> larregi, gehiegi.<br><b>Lar zuri:</b> zuriegi. |
|---|--|

## OIES

(Jon Aurre sorta. Nori jasoak diren ez dakar)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Oies errondan dabil<br>berak baki nundik<br>Karmen gerri-politen<br>ate ondotxutik.<br>Oies<br>sarritxutan errondan<br>ibili zaitezke. | 02. Itsasoko aldetik<br>dauko bentanea<br>handixek erasten dau<br>Karmenek sokea.<br>Oies<br>dirua emon nahi ta<br>inork hartu nahi ez. |
|--|---|

- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Baki:</b> badaki.<br><b>Sarritxutan:</b> sarritxo, maizko, maiz<br>samar. | <b>Zaitezke:</b> zaitetzke.<br>02. <b>Erasten:</b> eraitsi, jaitsi erazten. |
|--|---|



## HORRA HOR GOIKO

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 343 or.)

01. Horra hor goiko hariztitxo baten  
kukuak umeak egin jitzuk aurten.  
Kukuak egin amilotxak jan  
haxe bere kukuaren zoritxarra zan.

02. Amilotx horri kukuak dirautso  
ez dauat itziko gaur hazur bat oso.  
Umejaleak erantzumentzat  
dino hire ardurarik etxaukat.  
Lara lara lalala...



01. **Jitzuk:** ditik, dizkik.  
**Haxe bere:** huraxe ere.

**Dino:** dio, esaten du.  
**Ardurarik:** kezkarik, bildurrik.  
**Etxaukat:** ez zeukaat.

02. **Dirautso:** diotsa, esaten dio.  
**Ez dauat itziko:** ez diat utziko.

## KUKUA ETA AMILOTSA

(Mari Elozegi eta Mari Angeles Olaldekoa - Larrabetzu - Jon Aurre sorta)

01. Horra hor goiko hariztitxo baten  
kukuak umiak egin jozak aurten  
Kukuak egin amilotsak jan  
haxe bere kukuaren zoritxarra zan.

02. Aupa mutila, gogor jantzan egin  
mahai honen gainian izterrai eragin  
bihotza larga beti geuria  
zirkin eta zirkin jardun atsedean baga.



01. **Jozak:** ditik, dizkik.  
**Haxe bere:** huraxe ere.

02. **Jantzan:** dantzan.  
**Larga:** laga, jarein, askatu.  
**Baga:** bage, gabe.

## GOIZEAN PARISEN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 977 or.)

01. Goizean Parisen, gabean Parisen  
hau da Parisko kaleen luzea!  
Haxe kale hau pasata baneuko  
atzeko mando gorri hau neurea.

02. Izerdi patsetan alboka hosketan  
zazpi legoa bete dan kalea  
zazpi legoak eginda baneukaz  
Arrati etsera, mando jaubea.



01. **Haxe kale hau:** kale haxe. Bizkaieraz  
erakuslea aurretik jartzea normala da.  
**Baneuko:** baneuka.

02. **Izerdi patsetan:** izerdi bitsetan, izerdi  
ugarian.  
**Baneukaz:** baneuzka.  
**Arrati:** Arratiarreirei handik kanpora ematen zaien ezizena.

Kopla hauek ipuin bati dagozkie. Arratiako albokari batek beste arratiar bati jokatu zion Parisko kalerik luzeena alboka etengabe joez baietz egin. Bakoitza mando banatan joan ziren eta egun osoa eginda, albokariak irabazi behar zuela ikusirik, besteak albotik alboka-ahoa eskuz

itxi zion, eta albokaria bertan ito zen, arnasarik ezin hartuz. Baina ez zuen jokorik galdu.

## BART HAMARRETAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 154 or.)

01. Bart hamarretan dontzeila nintzan  
hamaiketako senarra  
gabeko hamabi santuetako  
gelditu nintzan bakarra.
02. Atsekabea, atsekabea  
handiago nahibagea  
ordu beteko senarragaitik  
alargun izan beharra.



01. **Dontzeila:** birjintasuna galdu gabeko emakumea.

## MARI KORTEDERREKO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 66 or.)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Mari Kortederreko<br>ostatu lorea<br>berak behar dabela<br>senartzat ehulea.<br>Ai ene, ostatu lorea.<br>Ai ene, senartzat ehulea. | 02. Mari Kortederrekok<br>gabean gabean<br>errondea darabil<br>bere atartean.<br>Ai ene, gabean gabean<br>Ai ene, bere atartean. |
|--|--|



01. **Dabela:** duela.  
**Ehulea:** ehuten duena, ehuna egiten duena.
02. **Atartea:** ateta, ataria.

## UDABARRIA DATORRENEAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 378. or. R. M. Azkue)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Udabarría datorrenean<br>neuk jakingo dot zer egin<br>hartu hatxurra eta palea<br>Naparroara teilagin. | 02. Euría dakar menditik<br>Naparroako aldetik<br>hartu hatxurra eta palea<br>banoa herri honetatik. |
|--|--|

## UDA BARRIKO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 71 or.)

01. Uda barriko lora ederra  
non izan zara neguan?  
Abazuzien bildurragaitik  
sarturik lurren barruan.
02. Udabarriko lora ederrak  
erosten dira negura  
beti gustora biziko danik  
ez da jaioten mundura.

03. Ez da jaio ta jaioko ez da  
holango imajinarik  
zukanako amodioa  
niri kenduko deustanik.



01. **Abazuzi:** txingorra, kazkabarra.  
**Lurren:** lurraren.

02. **Deustanik:** didanik.

### ABARKETAK URRATUTA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 75 or.)

01. Abarketak urratuta  
zapatarik ez  
Bermeon gelditu nintzan  
oineko minez.

03. Zapatari ziringilo  
dendari sastre  
haiek ere gizonak  
dirala dabe uste.

02. Abarketak ditudaz  
berri berri berri  
eurok emongo deutsadaz  
tabernereari.

Errepika:  
Hauxe dok egia  
zortziko berria  
hiru txiki ardorekin  
librako ogia.



02. **Ditudaz:** ditut.  
**Deutsadaz:** dizkiot.

03. **Zapatari ziringilo:** zapatero remendón  
erdaritzen du Azkuek.

### AI MARI MIGEL

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 76 or.)

01. Ai Mari Migel!  
Nun don senargei hori?  
Ai Mari Migel!  
Noiz don eztegua?  
Zapi ta zapi esanagaiti  
ezin dot kendu katua.  
Sekula bere ez dot ikusi  
honela neure burua.  
Ai Mari Migel!

02. Ai Mari Migel!  
Katu hori kentzeko!  
Ai Mari Migel!  
Ken ein zaragia.  
Asto handiok niri zirika  
zetan agertzen zarie?  
Itzungi al da hordi alperron  
lantegiko sutegia?  
Ai Mari Migel!



01. **Eztegua:** eztaia, ezkontza.  
**Zapi:** katuari alde egin dezan esaten zaio-  
na.

02. **Ken ein:** ken ezan.  
**Itzungi:** iraungi, itzali.  
**Hordi:** mozkor.

### BIZKAIKO TIERRAS

(Jon Aurre sorta. Ez dakar nori jaso)

Bizkaiko tierras tienes  
erdera ein honi  
hasi dira esaten  
adios mi txiki.  
Si quieres venir paje  
portal has beniro  
noche de Gabon gaba  
pasarás connigo.

Tomas abade dago  
Ermuan portalean  
kartak dituzela  
partikara barruan  
Qué bonito, ay qué bonito  
de Niño Jesucristo!

-Zure ortuan madari  
adarrak ditu hamabi  
etxe honetako alabatxuak  
babalorea dirudi.

Larrosatxuak bost orri daukaz  
krabelineak hamabi  
gure haurtxoa gura dabenak  
eskatu beio amari.

-San Juan bagilean  
denpora ederrean  
edozein bedarrek usaina dauko  
Doniane goizean.



**Dituazela:** dituela, dauzkala.  
**Partikara:** patrika, sakel, poltsiko.  
**Ortu:** baratz.  
**Madari:** udare, txermen.  
**Bagilean:** ekainean.

**Dauko:** dauka.  
**Daukaz:** dauzka.  
**Gura dabenak:** nahi duenak.  
**Beio:** biezaio.

## ANTONIO DE RIBERA

(Deunoro Sardui sorta)

01. Antonio de Ribera  
karruaz datorrenien  
Pantxike Preskuenekok  
esne epela pitxerrien.

02. Lobabatxue kunkurrun  
gaur zoaz ta bijer erdu  
alboan dodan papaoa baino  
nahiago zindukedaz zu.



**Bijer:** bihar.  
**Erdu:** zatoz.

**Papaoa:** ergela, tentela.  
**Zindukedaz:** zintuzket.

## ITSUE ETA ESKRIBAUE

(Bargundiako Patxi Bilbao - Doinu Zaharren Inguruan, U. E. U. - Jose Ramon Arbe eta hamar lagunen arteko lana)

01. Lau eskudotxo dodaz  
haretx harro baten  
beste lau ipinten noa  
ganeko aldi baten.

02. Dana gure dauenak  
guztie galtzen dau  
itsuek eskribaue  
ondo engainau dau.



01. **Dodaz:** ditut, dauzkat.  
**Haretx harro:** barrutik huts dagoen harritza. Ala *marro*, hitz honek horixe esan nahi bait du?

**Ipinten noa:** ipintzera noa.  
**Ganeko aldi baten:** gainean den, laster datorren aldi batean, hemendik laster.

## URKIOLARA JOAN

(Bargundiako Patxi Bilbao - Idem)

01. Urkiolara joan  
domilun santirus  
lehenengo preguntia  
non da Maria Jesus?

03. Han dauzen mutil horrein  
errosarioa  
Birjina Santa Klara  
Erriojakoa.

02. Iturrira joan da  
laster da etorri  
han dauzen mutilekaz  
tardau ez baledi.



01. **Domilun santirus:** latinaren imintzio aldrebestua, apropos eginá edo halaxe delakoan.  
**Preguntia:** itauna, galdera.
02. **Iturrira:** Urkiolako iturriari zazpi itzuli emateak neskalaguna edo mutilaguna aurkitzea omen dakar.
- Dauzen:** dagozen, dauden.  
**Mutilekaz:** mutilekin.  
**Tardau:** tardatu, berantu, denbora luzatu.
03. **Horrein:** horien.  
**Santa Klara Erriojakoa:** ardoaren aipamen sotila dago hemen.

## AI ANGELA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 19 or.)

01. Ai Angela  
tunbalan belan jajai  
Ai Fermintxo  
edaizu gutxitxo.  
Usoak Papora Paporanean  
elorri baten ganean  
nahi dozu hartu Simontxo auzoko  
urregin gaztea senartxo?
02. Ez aita, ez ama  
ez da neuk gura dodana.  
Ai Angela!  
Tunbalan belan jajai  
Ai Fermintxo!  
Edaizu gutxitxo.

## AITTA DALA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 20 or.)

01. Aitita dala txuntxulun berde  
amama dala masusta  
aita joan da Bitoriara  
ama lepoan hartuta.
02. Bitoriako merkatuan  
zapatu arratsaldean  
ez euken gauzak prezio txarra  
aita hara heldu zanean.
03. Bitoriatik albora dago  
herri txiki bat Gamarra  
kakarraldoen bildurragaitik  
han geratu jat senarra.



01. **Txuntxulun:** onomatopeikoa. Baditu aldaerak: *susulun, sunsulun, xuxulun*.  
**Lepoan:** bizkarrean.
02. **Euken:** zeukaten.
03. **Jat:** zait.

## SARRI ASKOTAN IBILTEN DALA

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U.- Jose Ramon Arbek eta beste hamarrek).

01. Sarri askotan ibilten dala  
iper lainotan otsua  
erreparuan bota egizu  
damatxo zeure pausua.
02. Damatxo gazte konponidia  
ondoko lore gorrie  
zeure matrailak iruditzen dau  
krabelinaren orrie.

03. Krabelinaren orriarekin  
larrosa maiatzekoa  
zeuri begire hementxe nago  
damatxo bihotzekoa.
04. Solo landetan urtetan daude  
udebarrien bitxiak  
ilunean be argi eiten daude  
damatxu zure begiek.



01. **Iper:** ifar, ipar.
02. **Konponidia:** *konponidua*'ren femeninoa.  
Gauza gutxiz jana prestatzen edo jantzia  
luzitzen dakiena, txukuna.
03. **Orri:** hosto.
04. **Daude:** dabe, dute.  
**Bitxiak:** bitxiloreak.  
**Be:** ere.  
**Eiten daude:** egiten dute.

## FUENTERRABIA

(Maria Astobiza - Orozko. Jon Aurre sorta)

01. Fuenterrabia herri txiki bat  
plazia dauko zabala  
hantxe be dituz alargun batek  
galantak hiru alaba.
02. Neuk bere eskatu egin neuntsen da  
hiruretatik zaharrena  
baina errespusta jarri in eustan  
mutil pobria nintzala.
03. Ni mutil pobre banintzan baina  
zu panaderan alaba  
ogi berotan jango ei leuke  
bere ta neure jornala.

04. Ta ardo gozotan edango ei leuke  
Erriojako kanala  
Ebroko urakin be elei garbitu  
zure atorra mazkala.

02. **Neuntsen:** nion.  
**Errespusta:** ihardespen, erantzun.  
**In eustan:** egin zidan.
03. **Panaderan:** panaderaren, okinandrea-  
ren.  
**Ei leuke:** omen luke.
04. **Elei:** ez liteke.

## ABADEAREN LAPIKOTXUA

(*Abadearen lapikotxua*, **Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta 12**, 17. or. Zeanuriko Elisabete Mendia Angoitari jasoak. Biltzaileak: Garbiñe, Angoitia, Bego Egilior, Izaskun Sagarna)

01. Ipiñaburu leku altuan  
Undurragaren buruan  
ikazginagaz ezkontzen danak  
ez dau zentzunik buruan.
02. Atzo goizean prebentaduta  
gaur naroazu basora  
leku txarreko egur eginak  
aterazoten botorra.
03. Harezpetxo baten jazarri nintzan  
negarra fra-fra altzora  
abadearen lapikotxua  
etorri jatan gogora.
04. Abadearen lapikotxua  
txikia baina gozua  
ikazginaren lapikotua  
handia baina harrua.



01. **Ikazginagaz:** ikazkinarekin.  
**Boto:** ikatz egurra pilatzeko hautatzen  
den lekua.
02. **Prebentaduta:** ez dakit zer izan daite-  
keen.  
**Naroazu:** naramazu.  
**Aterazoten:** atera erazten.
04. **Lapikotxua:** eltzetxoa.  
**Lapikotua:** lapikotzarra. Atzizki handi-  
garria.

Horra nolako aldea aurkitu zuen abadearen neskametik ikazkina-  
ren emaztera.

### FAMILIA DOT ERDI BILOSIK

(Umeentzako ehun kantu Bizkaiko, Iñaki Gaminde. Euskeraren Iker Atalak 6, 74 or.  
Labayru Ikastegia)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Familia dot erdi bilosik<br>eztauke oinetakorik<br>etxe barruan bildurrez dagoz<br>kanpora urten ezinik. | 03. Zapataijari agindu deusat<br>egin yaiskule zapatak<br>baina jakin dau nola garian<br>zor pagatzaila eskasak.       |
| 02. Oinak ezeze eskuak bere<br>daukez ozpelez beterik<br>gure etxea ez da neguan<br>ospitaltxu bat besterik. | 04. Ez leskist inok burlerik eingo<br>baneukaz behi bi galantak<br>okelia jan eta narruagaz<br>eukingo neukez abarkak. |



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Bilosik:</b> biluzik, bilutsik.<br><b>Eztauke:</b> ez daukate.<br><b>Dagoz:</b> daude.<br><b>Urten:</b> irten, jalgi. | 03. <b>Zapataijari:</b> zapatariari.<br><b>Deusat:</b> diot.<br><b>Yaiskule:</b> diezagula. Hemen <i>diezazhigula</i> .                         |
| 02. <b>Ezeze:</b> ez ezik, eta gainera.<br><b>Bere:</b> ere.<br><b>Daukez:</b> dauzkate.<br><b>Ozpel:</b> hazkordin.         | 04. <b>Leskist:</b> leuskit, lidake.<br><b>Baneukaz:</b> baneuzka.<br><b>Narruagaz:</b> larruarekin.<br><b>Eukingo neukez:</b> edukiko nituzke. |

### NUNDIK HATOR, ASTOA?

(Umeentzako ehun kantu Bizkaiko, Iñaki Gaminde. Euskeraren Iker Atalak 6, 74 or.  
Labayru Ikastegia)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Nundik hator, astoa?<br>-Naparroatik otsoa.<br>Hiri ere emango diat<br>napar ardotxo gozoa.            | 03. Otso zaharraren hezia<br>basoan gaizki hazia<br>bihar hilena bajoat bere<br>bajoat gaurko bizia. |
| 02. -Ez nok bada ez egarri<br>baia banok ni gosegi<br>hire buru-belarri horrekin<br>egin behar joat apari. |  |



- |  |  |
|--|--|
| 02. <b>Ez nok:</b> ez nauk.<br><b>Baia:</b> baina.<br><b>Joat:</b> diat. | 03. <b>Hilena:</b> hiltzea.<br><b>Bajoat bere:</b> badiat ere. |
|--|--|

### NIK BADAUKAT ALKONDAREA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 1008 or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Nik badaukat alkondarea<br>emaztegaiak emana<br>alkondara mosolina<br>sonbrerua kastor fina<br>zapatetan kordona<br>emaztegaiak emana. | 02. Nik badaukat gerrikoa<br>emaztegaiak emana<br>gerrikoa seda fina<br>pantaluak painu fina<br>zapatetan kordona<br>emaztegaiak emana. |
|--|---|

03. Nik badaukat txalekua  
emaztegaiak emana  
txalekua korte fina  
galtzerdiak txilindunak  
zapatetan kordona  
emaztegaiak emana.



01. **Mosolina:** muselina, ehun mota bat.

**Painu:** ehun, oihal.

02. **Seda:** zeta, ziriko.

**Pantaluak:** prakak, galtzak.

03. **Korte:** ebakia, ebakera.

Sortatxo hau eta beste bi aldaera guztiz antzeko ematen ditu Azkuek, Bizkaiko Arrazolan, Mallabian eta Zornotzan jasoak, baina ez daukate Bizkaian sortutako antzik.

### SAN JUAN BAGILEAN

(Cancionero popular vasco. R. M. Azkue).

Udan, udan, udan  
San Juanetan  
dantzan eingo dogu  
ifar-airetan.

01. San Juan bagilean  
denpora ederrean  
hamalau atso tronpeta joten  
motrailu baten ganean.

02. Lirio lora ederrena  
jaio da bagilean  
lora ederrez beterik dago  
Pazkua-Maiatzean.

03. Maiatzean lirio ederra  
baia orain bagilean  
hirukotxa ederrago da  
Pazkua-Maiatzean.

04. Gure ortuan ginda lorea  
San Juanetako heldua  
San Juanak baino lehenago  
gure usoak batua.



01. **Bagil:** ekain.

**Motrailu:** mortairu, zurez, harriz edo metalez eginiko ontzia, barruan aleak birrintzeko.

03. **Baia:** baina.

**Hirukotxa:** hirusta, belar mota bat.

04. **Ortuan:** baratzean.

### ARDAOTXO BALTZA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 78 or.)

01. Ardaotxo baltza, zer dakak hik?  
Larregi edanak ez gauza onik.  
Gizonak iminten badakik hik  
zutunik ibili ezinik.

04. Andrea oinak erazten  
berbako hamar erantzuten  
gizonak dehadar andreari  
"jagi zaitez edo jagi hadi".

02. Ur zikin horrek, zer diraustak?  
Gizonak ito daroazak.  
Balbeak harabil lankidetzat  
Ut! Zapaburuak edaritzat.

05. Gizona aratuten inguruak  
nun ete direan akuluak.  
"Amatxo!" dehadarrez aingeruak  
aitak jo ez daian, koitaduak.

03. Gaberdi ostean beranduan  
etxea neke handiz jo genduan  
Eskaratzaldea aldean sutondoan  
panparreria bagenduan.





01. **Dakak:** dauka.  
**Larregi:** gehiegi.  
**Iminten:** ipintzen, jartzen.  
**Zutunik:** zutik, tente.
02. **Diraustak:** diostak, esaten didak.  
**Ito daroazak:** ito ohi dituk.  
**Balbe:** heriotzari ematen zaion izena, zoritxarra.  
**Ut:** ken hortik, alde.
03. **Ostean:** ondoren, ondoan, atzean.  
**Eskaratz:** sukalde.
04. **Berbako:** berba, hitz bakoitzeko.  
**Dehadar:** deihadar, oihera, orroa.  
**Jagi:** jaiki.
05. **Aratu:** arakatu, astindu.  
**Jo ez daian:** jo ez dezan.  
**Koitaduak:** gaizoak, errukarriak.

### AIZAZU TXIKI

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 51 or.)

01. Aizazu, txiki  
aizazu, maite  
nundik behera dago  
Portugalete?
02. Portugalete  
vino clarete  
edango neuke  
baso bat bete.
03. Baso txikia baino  
handia nahiago  
egunean baino  
gabean gurago.
04. Edango neuke baina  
ez dot nik edango  
taberneriarekin  
hasarrez nago.

### ATSOA, ZER DINOE

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 349 or.)

01. Atsoa, zer dinoe  
iturriokaitik?  
Ez dala geldituko  
huri hau ur barik.
02. Erromerian noa  
ez daukat dirurik  
balentzianatxo zaharra  
saldu ez badagit.
03. Saldu egiten badot  
balentzianea  
zer erabiliko dot  
euritzan, maitea?
- Errepika:  
Mari Peliz zelan zabilz?  
Ondo ibili, gitxi gastadu  
Doala astotxoa  
ta ongi olgadu.



01. **Dinoe:** diote.  
**Huri:** hiri.  
**Barik:** bagarik, barik.
02. **Balentziana:** soineko mota bat.  
**Ez badagit:** ez badezat.  
**Olgadu:** jolastu, dibertitu.

### MARI PELIZ

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 328 or.)

01. Mari Peliz zelan zabilz?  
Eder hori, galant hori  
ondo zabilz?  
-Ondo ibiltea gitxi gastatzea  
ez dagonerako danean gordetea.  
-Ondo egiten dozu  
dibertidutea.

02. Mariako, Mariako  
emoidana atorrea  
Bilborako.  
Zingiratzan jantzi eta hantxe erantzi  
bien bitartean astiro ibiliko  
ez dautsanat ezer bere  
ezer bere egingo.

03. Kapotepean sarritsu  
dabilen damea  
ez dala bera bere  
maleta deungea.  
Ondo ibiltea...etab.



02. **Emoidana:** emaidan.  
**Zingira:** padura, leku urtsua.  
**Ez dautsanat:** ez zionat.

03. **Deungea:** dongea, txarra, gaiztoa.

### MENDI GOIETAN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 117 or.)

01. Mendi altuan aurten ez ei da  
erromerurik loratu  
nik iminita igartu izan zan  
zuk iminita berdatu.  
Frutuok ere onak dituzu  
grazia halan badezu.

02. Larrosea ta krabelinea  
diferenteak kolorez  
aitak alaba agindu arren  
amak egin lei emon ez.  
Biak kontentu izan ezkerro  
bitartekorik behar ez.

03. Larrosatxoak bost orri daukaz  
krabelineak hamabi  
nire umea gura dabenak  
eskatu bere amari.  
*Ama zuhur daukan neskatilea  
bizi lei ardura barik.*

04. Goiko mendian edurra dago  
errekaldean izotza  
neu zuregandik hurre nago ta  
pozik dadukat bihotza  
*zure ondoan udako bero  
egingo jat neguko hotza.*



01. **Ei:** omen.  
02. **Egin lei:** egin lezake.

03. **Daukaz:** dauzka.  
**Gura dabenak:** nahi duenak.  
04. **Hurre:** hur, hurbil.

Kurtsiban datozen lerroak Azkuek berak osatuak datoz kantute-  
gian, lekukoak gogoratzen ez zituelako.

### SANTULARI ZETAN DOA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 349 or.)

01. Santulari zetan doa  
Portugaletera?  
Ontziaren aitzakian  
damokikustera.

02. Egun batean Santulari  
harantza joala  
biderdira urten eutsen  
ta emon emonala.



01. **Santulari:** santuzale, santuen bisitatzai-  
le.  
**Damok:** plural hurbila. Dama hauek.

02. **Joala:** zihoala.  
**Urten eutsen:** atera, jalgi zitzaizkion.

## GIZONAK EZ DAU BEHAR

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 311 or.)

01. Gizonak ez dau behar  
ezkondua damu  
Jaungoikoak emonik  
andra on bat badu.

03. Gizonak gura badau  
bere deskantsua  
andrea hartu begi  
zaharra ta antzua

02. Jaungoikoak emonik  
halan daukat euki  
andra ona daukana  
ez dot nik erruki.

04. Andrea hartuten badau  
gazte umatsua  
zelan bilatuko dau  
harentzat pentsua?

∞

03. **Gura badau:** nahi badu.  
**Deskantsua:** atsedena.  
**Hartu begi:** har beza.

04. **Umatsua:** ume asko egin dituen.  
**Pentsua:** animalientzat alea.

## ASTO BAT DAUKAT

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 30 or.)

01. Asto bat daukat saltzeko  
Peliz erosten hasteko  
kuartotxo batzuk nahi nituke  
esku artean sartzeko.

03. Asto belarri tristea  
bata bezela bestea  
dirurikan ezin hartu  
izan arren ustea  
zergatik ez zan gaztea  
itxura bako trastea.

02. Gure astotxo zahartxo  
aitak etxean sartua  
bost aldiz garbatu jako  
berori ezagutua.

04. Peliz bizi da Zegaman  
astorik ez du eraman  
albeiteruak bazekian  
tratu horren berri boladan  
hark esan dio nola dan  
ai egon balitz Malagan.

∞

01. **Koartotxo:** diru txikia, sosak.

03. **Bako:** bageko, gabeko.

02. **Garbatu jako:** damutu zaio.

Sortatxo dotore hau, Azkuek Bizkaiko Mallabian jaso arren, Gipuzkoa aldetik etorria izango da.

## ENE ASTOTXU MANTXINE

(Noeren ontzia. A. Zavala. Auspoa 136. 45. orrialdetik aurrera)

01. Ene astotxu mantxine  
jaio zinian aintxine  
gure Peruk ei dauko  
kuadratu ezine  
ikusi eta muzine  
ez gaztie ixen bazine.

03. Belarri makal pestie  
bata bezela bestie  
sekule dirurik ezin hartu  
izan arren ustie  
zergatik ez zan gaztie  
etxura bako trastie.

02. Asto zaharra ta elbarrie  
munduan parregarrie  
bost aldiz pasatu du  
gose eta egarrie  
puntez behera belarrie  
nire begi-mingarrie.

04. Benta onak uzten ditu  
zauri asko bistan ditu  
zakua ipinitakuan  
begi biak ixten ditu  
joaten ezin entenditu  
kargak bertan uzten ditu.

- |   |   |
|---|---|
| <p>05. Asto bat daukat saltzeko<br/>Pelix erostuna hartzeko<br/>kuartotxo bi nahi neuke egin<br/>esku artian sartzeko<br/>...<br/>...</p> | <p>06. ...<br/>...<br/>albaiterua hasi jaku<br/>nere kontra hizketan<br/>hark esan dio nola dan<br/>ai egon balitz Malagan!</p> |
|---|---|



- |   |  |
|---|--|
| <p>01. <b>Mantxine:</b> maltsina, asmo bihurrikoa, tranposoa.<br/><b>Aintxine:</b> antxina, aspaldi, duela anitz denbora.<br/><b>Ei dauko:</b> omen dauka.<br/><b>Ixen:</b> izan.</p> | <p>03. <b>Makal:</b> ahul.<br/><b>Pestie:</b> gaiztoa, zitala.<br/><b>Etamura bako:</b> itamura gabeko.<br/>06. <b>Albaiterua:</b> albaitaria.<br/><b>Jaku:</b> zaigu.</p> |
|---|--|

Ondoren A. Zavalak aldaera hau ematen du, Oiartzungo Juan Mari Lekuonak emana, zeinaren arrebak Primitibak apaiz bati ikasi omen zion, honek halaber, 1936an Arabako Zirion apaiz zegoela, apaiz-lagunen artean ikasi omen zuena.



- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Astua daukat saltzeko<br/>falta erostuna hartzeko<br/>kuarto bi nahi nituzke<br/>eskuartean sartzeko<br/>ustez ez nabil galtzeko<br/>desportuna det biltzeko.</p> | <p>02. Astua daukat zahartue<br/>aitak etxera sartue<br/>orain hemeretzi urte<br/>mundu hontara sortue.<br/>Horra urtien kontue<br/>badauka eskarmentue.</p> |
|--|--|

03. Eskarmentuez jantzie  
merkatariek utzie.  
Nik zerbait eskatu arren  
ofrezimentu txikie  
poltsa muturra itxie  
nik hutsik daukat ontzie.



- |   |  |
|---|--|
| <p>01. <b>Kuarto:</b> Espainiako antxinako txanpon bat, hiru bat zentimo balio zuena.</p> | <p>03. <b>Merkatari:</b> saleroslea. Ferietan, abere bat edo dena delako gai bat erosteko gogoia erakusten duena, tratura datorrena.</p> |
|---|--|

## ANTONIO GOIKO KALEKOK

(Euskalerraren Yakintza IV, R. M. Azkue, 55 or.)

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. Antonio Goiko Kalekok<br/>txahalen dirua dauko<br/>txahalen dirua pagetako<br/>bibolina bahituran dauko.</p>   | <p>03. Antonion andrea<br/>txikitxo polita<br/>kana bi perkalegaz<br/>gonadun jantzita.</p>                     |
| <p>02. Antonio, nora hoa<br/>heure bibolin horregaz?<br/>Urkiolara erromerian noa ni<br/>etorri nahi bozu neugaz.</p> | <p>04. Antonio binbolin<br/>zaharrak aurten hilgo dira<br/>gazteak beste urtean<br/>alai gagozan bitartean.</p> |



- |   |  |
|---|--|
| <p>01. <b>Pagetako:</b> pagatzeko.<br/><b>Bahitura:</b> diru ordeztu den prenda, ordaindu ahal izan arte.</p> | <p>02. <b>Horregaz, neugaz:</b> horrekin, neurekin.<br/><b>Bozu:</b> badozu.<br/>03. <b>Kana:</b> luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa.</p> |
|---|--|

**Perkal:** ehun mota bat.

04. **Gagozan:** gauden, egon gaitezen.

Kopla hauetan agertzen den *Antonio* hau *Antonio Goitia* da, erromeriak jotzen ibiltzen zena eta izena dakigun kopla jartzaile bakarra. Bere berri gehiago **Abel Muniategi Sortan**.

### AI NEURE BALTZERANA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 126 or.)

Txio, txio txoria  
poztu daiten habia.

01. Ai neure baltzerana  
alperrik galdua  
mandazaina zenduan  
zuk lagun hartua.

02. Itxarongo neuskezu  
pare bat urtean  
gazte zoroa nahi ta  
galdu zenaitean.

03. Alargun naizelako  
eztegu gauean  
arran hoska mutilak  
ager zedaitean.

04. Kale mustur bietan  
suak eingo doguz  
Donianeko suak  
hotz danak berotuz.



**Daiten:** dadin.  
**Habia:** kabia.

02. **Neuskezu:** nizuke.  
**Zenaitean:** zinen.

03. **Eztegu:** ezta, ezkontza.  
**Arran:** zintzarri, joare.  
**Zedaitean:** ziren.

04. **Mustur:** mutur.  
**Doguz:** ditugu.

Ageri diren aditz forma arkaikoez oso pieza antxinakoa dela adierazten dute.

### NEURE ALABA MANUELATXU

(Euskal Baladak - Bigarren Liburua, 135. or. Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell)

01. Neure alaba Manuelatxu  
neure esan bat eidazu  
atostean dagon kantoreari  
datorkidala esaiozu.

02. Behin banengoan kalean  
harri hotzaren ganean  
dama polit bat etorri jatan  
han zer egiten nengoian.

03. –Egun on asko euki daijala  
ontziko maisu gaztea  
–Beste hainbeste euki daijala  
linda damatxu geurea.

04. –Aitak eta amak biraldu nabe  
datorkidala geurera  
datorkigula gurera eta  
geurekin apaldutera.

05. Geurekin apaldu eta gero  
kantuen irakastera.  
–Nire kantua gura dabena  
betor neurekin bordera.

06. –Eskerrik asko mila mesede  
eztot holako usterik  
etxean nabe aitak eta amak  
ni ondo estimaturik.

07. Egin zuen berba bat eta  
sartu zuen kapapean  
sartu zuen kapapean eta  
eroan zuen ontzian.

08. Lobedar bat ipini nion  
bi bularren erdian  
linda dameau lo joan jatan  
bostehun legua bidean.

09. Portunaz bere suertau jatan  
ontzian atia jotia  
ordu hatantxe itzartu jatan  
linda damatxu neurea.

10. –Ontziko maisu gaztea  
badezu kanibetea?  
–Eztot nik kanibetarik baia  
emongo deusut sablea.

11. Sable hau eskura hartuta  
hemen sartu zuen sabel berean  
ordu hatantxe hilotzitu zan  
linda damatxu neurea.
12. -Neure mutilak, lagun onak  
zer egingo diot honeri?  
-Guzti guztiok laztan bana emon  
bota daiogun urari.

01. **Atostean:** ate ostean, atearen atzean.  
02. **Nengoian:** nengoen.  
03. **Daiala:** dezala.  
**Linda:** polit, pertxenta.  
04. **Biraldu nabe:** bidali naute.  
**Geurera:** geure etxera.  
05. **Gura dabena:** nahi duena.  
**Bordera:** bordora, untzira, untzi gainera.  
07. **Berba:** ele, hitz.  
**Eroan:** eramán.
08. **Lobedar:** lobelar.  
**Dameau:** dama hau.  
**Joan jatan:** joan zitzaidan.  
09. **Portunaz bere:** hain zuzen ere, hain zortez ere.  
10. **Kanibetea:** ganibeta, labana.  
**Baia:** baina.  
**Deutsut:** dizut.  
11. **Sabel berean:** bere sabelean.  
**Hilotzitu:** hiloztu, hilotz, gorpu bihurtu.  
12. **Honeri:** honi.  
**Daiogun:** diezaiozun.

## USOAK

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 380 or.)

Usoak ponporron ponporronila  
elorri baten ondoan.

01. Geure alaba, gura ete dona  
harotz mutil bat senartzat?  
Ez aita, ez ama  
hori ez da nik gura dodana.
02. Geure alaba, gura ete dona  
hargin mutil bat senartzat?  
Ez aita, ez ama  
hori ez da nik gura dodana.

Eta honela beste lanbide batzuk:

03. Geure alaba, gura ete dona  
konfiteru bat senartzat?  
Ez aita, ez ama  
hori ez da nik gura dodana.
04. Geure alaba, gura ete dona  
soldau mutil bat senartzat?  
Bai aita, bai ama  
horixe da nik gura dodana.



01. **Gura ete dona:** nahi ote dun.  
03. **Konfiteru:** gozogin, gozogile.

## AI ZE GIZON ZUHURRA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 48 or. Baita Cancionero Popular Vasco, 269 or.)

01. Ai ze gizon zuhurra dan  
Matxintxo gurea  
prakatxo zaharrak eta  
ona umorea.
03. Ez dot inoiz ikusi  
gure Matxin lotan  
orduan bere ahal dauko  
pipea ezpanetan.
02. Igaz artorik ez ta  
aurten hil andrea  
ze bizimodu dok hori  
Matxintxo gurea?
04. Pipeak hiltan dautso  
barruko gosea  
pipa horri esker bizi da  
Matxintxo gurea.



01. **Zuhurra:** argia, buruz bizkorra.  
03. **Bere:** ere.
- Ahal dauko:** ahal dauka, edukiko ahal du, segur edukiko duela.  
04. **Dautso:** dio.

Kopla hauek Azkuek ber-ikutuak eta osatuak dira, azken biak oso osorik. Dena den, oso dotore gelditu da. Piezatxo honen edukiak eta formak beti xarmatu nau.

### SOLORA NINOALA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 132 or.)

01. Solora ninoala  
solotik nentorrela  
laztana ikusi neban  
bidean lo zetzala.
02. Eskutxoaz ikutu neutsan  
hila ala bizia ete zan  
altzotxura saltatu eustan  
neuk gura ez nebala.
03. Hamabi kabelina  
larrosarikan baga  
geure ortuan bere  
kabelinea bada.
04. Eskutxoaz ikutu neutsan  
hila ala bizia ete zan  
laztan bat emon eustan  
neuk gura ez nebala.

∞

02. **Altzo:** magal.  
**Eustan:** zidan.
03. **Baga:** bage, gabe.  
**Ortuan:** baratzean.  
**Bere:** be, ere.

04. **Eskutxoaz:** eskutxoarekin.  
**Neutsan:** nion.  
**Gura ez nebala:** nahi ez nuela.

### NERE MAITE POLITA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 122 or.)

01. Neure maite polita  
zelan zara bizi?  
Zortzi egun honetan  
ez zaitut ikusi.
02. Uste dot zabilzala  
neugandik igesi  
ez deustazu emoten  
atsakabe gitxi.
03. Munduak jakin eta  
zeuk ez jakitea  
ondo egiten dozu  
zurikatutea.

∞

02. **Deustazu:** didazu.
03. **Zurikatu:** disimulatu. Hitz honek Azkueren zuzenketa dirudi. Kopla honen amaia **dibertidutea** delakoan nago.

### LONDRESEN DOT NEUK SENARRA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 995. or.)

Oi hau egia  
daigun jira bi, Maria.

01. Londresen dot neuk senarra  
zirin-bedarrak ekarten  
bera handik dan artean  
gu hemen dantza gaitezen.
02. Kapoiak dagoz erretan  
oilaskotxuak mutiltzen  
horrek ondo erre artean  
gu hemen dantza gaitezen.

03. Neure oilanda nabarra  
txikarra baina zabala  
zetan hoa hi auzora  
etxean oilarra donala?

05. Neure mutiltxu txoria  
hik esan eustan egia  
gaur gabeen dantzatuko zala  
nire emazte Maria.

04. Neuk ugazaba nekusan  
Izurdiako zubian  
hori zestotik urten artean  
gu hemen dantza gaitezan.

∞

01. **Zirin-bedar:** purga-belarra.  
02. **Mutildu:** muskildu, lumatu.  
03. **Zetan:** zertan, zertara.  
**Txikarra:** txikia.  
**Donala:** dunala.

04. **Ugazaba:** nagusia.  
**Nekusan:** ikusten nuen.  
**Zestotik:** zaretik, saskitik.  
05. **Esan eustan:** esan hidan.

## ZUNGULU BEDARRARENAK

(Deunoro Sardui sorta)

Ai hau egije  
ene zungulu Marije.

01. Nire senarra Londresen  
zungulu-bedar ekarten  
handi etxera etorri arte  
guztiok jantzan egiten.

03. Nik ugazaba topatu neban  
bide barriko zubijen  
handik etxera ekarri neban  
sardine zesto barruen.

02. Oilaskotxuek prijitzen  
kapoatxuek moskiltzen  
harek prijitzen diran artean  
guztiok jantzan egiten.

04. Nire oilanda nabarra  
txikia baina zabala.  
Zetan habil era horretan?  
Etxean dona senarra.

05. Nire krijedu zolijek  
esan jaustazak egijek  
gaur arratsean jantzan eingo jok  
nire emazte Marijek.

06. Ene krijedu zolije  
hik esan daustak egije  
egije esan daustakalako  
hiret zat mando gorrije.

∞

01. **Zungulu-bedar:** tabako belarra ijitoen  
argotean.  
**Jantzan:** dantzan.  
02. **Moskiltzen:** lumatzen.  
**Harek:** haiek.  
03. **Ugazaba:** nagusia.  
**Topatu neban:** aurkitu, kausitu nuen.  
**Zubijen:** zubian.  
**Zesto:** zare, otarre.

05. **Krijedu:** kriadu, morroi, mutil.  
**Zolijek:** zoliak, argiak, erneak.  
**Esan jaustazak:** esan zizkidak.  
**Eingo jok:** egingo dik.  
06. **Daustak:** didak.  
**Daustakalako:** didaalako.

## PERRETXIKOTAN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 131 or.)

01. Perretxikotan nebilenean  
Mendiolako basoan  
dama gazte bat aurkitu neban  
gorosti baten ondoan.

02. Zoroa nintzan eroa nintzan  
jarri nintzakon alboan  
amantaltxoa zabaldu eta  
hartu nenduen alboan.

∞

01. **Neban:** nuen.  
02. **Nintzakon:** nintzaion.  
**Nenduen:** ninduen.



PERRETXIKOTAN NENBILENEAN

(Franziska Agirrezabala - Zeanuri. Doñu zaharren inguruan. U. E. U. Jose Ramon Arbek eta beste hamarrek).

- 01. Perretxikotan nenbilenean
Mendiolako basoan
dama gazte bat aurkitu neban
elorri baten alboan.
02. Gaztea nintzan, zoroa nintzan
jarri nintzakon alboan
amentaltxoa zabaldu eta
hartu ninduen altzoan.
03. Itaundu neuntsan: Nongoa zara
damatxo bihotzekoa?
-Jakizu ni naiz pobreen ama
Birjina Arantzazukoa.
04. Uiak bere txantxarrak janda
ez dabe osagilerik
ohitura zaharrak galdu ziran da
hobenak lotu bagarik.
05. Gaztea nintzan, zoroa nintzan
itaundu neuntsan men-menik
-Zergatik zagoz, ama galanta
hain triste bakar bakarrik?



- 02. Nintzakon: nintzaion. Bere: be, ere.
03. Itaundu neuntsan: galdetu nion. Osagilerik: medikurik.
Hobenak: pekatuak, gaiztakeriak.
04. Ui: oi, hortz-haginak inguratzen dituen gunea. Lotu: gelditu, bizkaieraren eremu batzutan.
Txantxarra: hortzak herdoitzen eta useltzen dituen gaitza.
05. Men-menik: apal-apalik, menpetasunez.
Zagoz: zaude.

FRANTZIAKO BEZPERAK

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 318 or.)

Lan liraun lan liraun
lan liraun lan lan
lan leren lin lirin
lan lin laun.

- 01. Heretxerik haretxera salto
bost txorikuma zinko
aitearekin amearekin siete
habixearikin ocho.
02. Mutil, nun dok asto?
Hartzak eta otsoak egin joek
puskarik asko.
Nire astoa egin bajoek puskarik asko
hik eta nik eta Maria gureak
beharko joagu urtebarri-aurre gaizto.
03. Ene astotxu laztan laztana
Bitoriako kakatzetan datzana.
04. Ene astoak egin eban ostiko
apurtu zituan ehunda
hirurogeita hamabost lapiko.
05. Lapikoginak ekarri dau alkate
hari bere apurtu deutso buruxe.
06. Alkateak ekarri dau jueza
hari bere hautsi deutso puxeza.



01. **Aitearekin, amearekin:** Animalien, batez ere hegaztien kasuan, *aita* eta *ama* artikulu mugatzailez deklinatzen dira. *Amea, amearen, ameari...*  
**Habixearekin:** habiarekin, kabiarekin.
02. **Joek, bajoek, joagu:** diate, badiate, diagu.
03. **Kakatzetan:** lupetzetan, lokatzetan.
04. **Lapiko:** eltze.
05. **Deutso:** dio.  
**Buruxe:** burutxoa.
06. **Jueza:** jujea, epailea.  
**Puxeza:** uzkia, ipurdia. Azkuek hitz honen erdarapena puntu jarraian uzten du eta horrelako zerbait izango da.

## JOSE MONDRAGOK DEKO

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan** U.E.U. Jose Ramon Arbek eta beste hamarrek)

01. Jose Mondragok deko  
 katue krudela  
 dauka bere ez dekula  
 hain baino argala.
02. Hogetamairu erralde  
 zerbait gitxiago  
 errotako pisuetan  
 piseturik dago.
03. Narrue be bazeukan  
 izerea langoa  
 zapata oriluak eiteko  
 alagalakoa.
04. Buztena be bazeukan  
 kana t'erdi luze  
 egurrek ekarteko  
 balioko leuke.
05. Gantzagie be bazeukan  
 ikaragarria  
 iruliko laukela  
 errotako harria.



01. Kopla honen bigarren puntua nahasturik dago. Honela behintzat ez dauka zentzu handirik. Beste aldaera batek dio: *guk bere ez dekule* (daukagule) *entero makala*.
02. **Erralde:** pisu neurria, bost kilokoa.
03. **Izerea:** izara, maindirea.  
**Langoa:** bezalakoa.  
**Alagalakoa:** aproposa, aukerakoa. Gaztelaniazko *a la gala* 'tik.
05. **Gantzagi:** koipea.  
**Iruliko laukela:** irauliko lukeela.

## JOSE MONDRAGONEK

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue)

01. Jose Mondragonek dauko  
 katua por gala  
 geurean bere ez dago ta, Monona  
 hain bere ta argala.
02. Berrogeta hamar erralde  
 zerbait gutxiago  
 errotako pisuetan, Monona  
 pisaturik dago.
03. Goiko sala barrian  
 emon notsan gatza  
 hartuko ete dostan, Monona  
 daukat bildur gatxa.
04. Irrietan, arrauetan  
 zortzi egun honetan  
 gure andrak derautse, Monona  
 koipeak urketan.
05. Hiru sebo opiltxo ditu  
 hirurak handiak  
 iruditen jat niri, Monona  
 errotako harriak.
06. Anaiari bialdu notsan  
 erregalu mortzila  
 ezpanak koipatuta, Monona  
 hor dabil mutila.
07. Surmintz eta belarriak  
 ondo gordetako  
 auzoko jenteentzat, Monona  
 San Kristobaleko.



02. **Erralde:** bost kiloko pisu neurria.  
 03. **Notsan:** nion.  
**Hartuko ete dostan:** hartuko ote didan, gatza alegia.  
**Bildur gatxa:** bildur handia.  
 04. **Irrietan arrauetan:** onomatopeikoak.  
**Derautse:** dihardute, ari dira. Gaur laburturik erabiltzen da: *deutsot, deutsok, deutsozu, deutsogu, deutso...* Baita iraganean ere: *neutson, eutson, eutsen...*  
**Urketan:** urtzen.
05. **Sebo:** gantz, koipe.  
**Jat:** zait.  
 06. **Mortzila:** odolki, odoleste.  
**Ezpanak:** ezpainak.  
 07. **Surmintz:** sudurmintz, sudurzuloak luzetara erdibitzen dituen ormatxoa.  
**Gordetako:** gordetzeko.

## TXANTONEK EI DEKOLA

(Jon Enbeita bertsolariak Ereñoko Jorge Elordietari jasoak)

01. Txantonek ei dekola  
 katue formala  
 guk bere ez dekule  
 entero makala.  
 Berrogeta hamar erralde  
 zerbait gitxiago  
 errotako pixuetan  
 pixaturik dago.
02. Buztena be bazuan  
 kana t'erdi luze  
 abarretako sokatzat  
 gordeta ei dauke.  
 Surmintz eta belarri  
 San Kristobaletako  
 euzoko neskazahar guztiek  
 batute jateko.
03. Abadiari eroan nion  
 erregalu murtzile  
 ezpanak koipezteute  
 ai te va mutile!
04. Baresariak ere  
 pitxer bete koipe  
 gaztiak entzun dozue  
 beste horrenbeste?



01. **Ei dekola:** omen daukala.  
**Ez dekule:** ez daukagula.  
**Erralde:** bost kiloko pisu neurria.
02. **Surmintz:** sudurmintz, sudurzuloak luzetara erdibitzen dituen kartigalozko ormatxoa.
03. **Koipezteute:** koipeztaturik, koipez beterik.  
**Murtzile:** odoleste, odolki.

## SALTULARI KAMINOK

(Franziska Agirrezabala - Zeanuri. Doinu zaharren inguruan. U. E. U. Jose Ramon Arbek eta beste hamarrek).

01. Saltulari Kaminok  
 ez jaukek dirurik  
 lau alaba jaukezak  
 ezkondu bagarik.
02. Bostgarrena semea  
 kapote zaharragaz  
 koneju bat dirudi  
 bere bizerragaz.
03. Dingilin dangoloa  
 ez nok ni zoroa  
 Santa Katalineko  
 dendari koxoa.
04. Zakuen sartu jaudek  
 zakuek zuloa  
 handixik agiriok  
 kadera koxoa.



01. **Saltulari Kamino:** bidelapur, gaztelaniazko *salteador de caminos* en euskal-erdal nahastea. Kopla honen aldaera zuzenagoa Eulogio Gorostiagaren sortan dator. Ez da bidezko dirurik eza eta seme-alaben berria lapurraren ahoan jartzea, honek asaltatu duenaren ahoan baizik, zeinak arrazoiak edo aitzakiak ematen dituen, lapurrak barka diezaion. Beraz, *saltulari kamino, ez jaukat dirurik, lau alaba jaukazat...*
- Bagarik:** barik, gabe.
02. **Zaharragaz:** zaharrarekin.  
**Koneju:** untxi.
03. **Koxoa:** herrena.
04. **Jaudek:** diate.  
**Agiriok:** berak agiri dik. Kopla honen aldaera batzutan *kadera gozoa* kantatzen da, baina bistan da *koxoa* dela ironiak eskatzen duena.

## AI PERU PERU

(Idem)

01. Ai Peru, Peru, Peru!  
Zu beti alperra  
sarri izango dozu  
alkondara zaharra.

03. Alkondara agirian  
frakaren zulotik  
eta txapel txatala  
belarri ondotik.

02. Baserriko mutila  
kotsolagarria  
kolkoan arto zati  
ikaragarria.



03 **Frakaren:** prakaren, galtzaren.  
**Txatal:** zati txikia, batez ere ehun, paper eta horrelakoen mozkin luzangak.

## EMON EMON

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 60 or.)

01. Emon, emon Pepetxuri  
txakolina edaten  
aurten karu dago baina  
ez da inportaduten.

03. Jai egunez txakolinez  
barrua bete ezker  
abarkadun auzolagun  
guztiok gagoz bero bero.

02. Txako txako, txako ta txako  
txakolin Antzorakoa  
ez da besteak langoa  
ura dalakoan  
burura igon daroa.

04. Mahats urina pitxar bina  
edanarren zutunik  
batzuk motel motelik  
irradari zantzolari  
ager gara zororik.

05. Bi ailara kurtzetara  
lurrean irarrita  
ikotika, artasika  
irradan bat hasten da.

06. Batzuk uju besteak juju  
berein agurak han dira  
bekaitzarren begira  
bizkor ta azkar lehena bakar  
dabil jira ta bira.

Errepika:

Txakolin, txakolin  
txakolin eta txuzpin  
txakolin, txakolin  
txakolinak on egin.



01. **Karu:** kario, garesti.

**Kurtzetara:** gurutzetara, gurutze egin da.

02. **Langoa:** bezalakoa.  
**Igon daroa:** igon ohi du.

**Irarri:** jar erazi, ezarri.

**Ikotika:** ihutika, jauzika, zaldia adibidez.

03. **Gagoz:** gaude.

**Artasi:** guraize.

**Irradan:** dantzan.

04. **Mahats urina:** mahats ura, jusa.  
**Irradari:** dantzari, mugimenduan.  
**Santzo:** irrintzi, oihu.

06. **Bekaitzarren:** bekaitzagatik, inbidia bide dela.

05. **Ailara:** alde batetik bakarrik landutako zumitza.

Sorta honetan lehen koplak biak Azkuek Lumotar bati jasoak dira. Hurrengo laurak berak edo bere gisako batek eginak izan behar dute nahitaez.

## TXOMIN ZE ORDU DE?

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. Doinu Zaharren Inguruan, U.E.U. - Jose Ramon Arbe eta beste hamarrek)

Txomin ze ordu?  
Ordu batak.  
Txomin ze ordu?  
Ordu biek.  
Txomin ze ordu?  
Hirurek.  
Txomin ze ordu?  
Laurek.  
Txomin ze ordu?  
Bostak.  
Txomin ze ordu?  
Seirek.  
Txomin ze ordu?  
Zazpirek.  
Txomin ze ordu?  
Zortzirek.  
Txomin ze ordu?  
Bederatziek.  
Txomin ze ordu?  
Hamarrak.  
Txomin ze ordu?  
Hamaikak.  
Txomin ze ordu?  
Hamabiek.

-Nire lapikoa egosite dao?  
-Bai, egosi ez eze  
katuek eta txakurrek jan be bai.  
-Katue ta txakurre non daoz?  
-Mendien gora.  
-Mendie non dao?  
-Suek erreten.  
-Sue non dao?  
-Urek amatau.  
-Ure non dao?  
-Behiek eta txahalak edan.  
-Behie eta txahala non daoz?  
-Arrabatik zehar ibiliko dire.



**Dao, daoz:** dago, dagoz, daude.

**Erreten:** erretzen.

**Amatau:** itzungi, itzali.

**Arraba:** Zeanuri gaineko eta Gorbea azpiko landa ospetsua.

Sorta hau eta hurrengo San Martinena berez ez dira koplak, errezi-tatzekoak baizik, baina koplazaren izpiritutik, batez ere balada eta erromantzeen izaeratik, oso hur daudelako sartzen ditut hemen, adibide gisa areago. Elkarrizketa neurtu gabe hauek, forma pixka bat emanik, erromantze bihur daitezke.

## SAN MARTIN

(Justo Respaldiza - Orozko. Jon Aurre sorta)

San Martin, esaik bat.  
Gure Jaune bera dok bat  
berak salbauko gaiozak.

San Martin, esaik bost.  
Kristoren bost ilagak bost  
lau Ebanjelistak lau

...

San Martin, esaik bi.  
Erromako altara santuek bi  
gure jaune bera dok bat  
berak salbauko gaiozak.

San Martin, esaik sei.  
Sei serbilek dozak sei  
Kristoren bost ilagak bost

...

San Martin, esaik hiru.  
Hiru eternidadeak hiru  
Erromako altara santuek bi  
gure Jaune bera dok bat  
berak salbauko gaiozak.

San Martin, esaik zazpi.  
Zazpi sakramentuek zazpi  
sei serbilek dozak sei

...

San Martin, esaik lau.  
Lau Ebanjelistak lau  
hiru eternidadeak hiru

San Martin, esaik zortzi.  
Zortzirek zeruek  
zazpi sakramentuek zazpi

...

San Martin, esaik bederatzi.  
Berderatzi ordenamentuek  
zortzirek zeruek

...

San Martin, esaik hamar.  
Hamar mandamentuek  
berderatzi ordemanentuek

...

San Martin, esaik hamaika.  
Hamaika mile aingeruek  
hamar mandamentuek

...

San Martin, esaik hamabi.  
Hamabi apostoluek  
hamaika mile aingeruek  
hamar mandamentuek  
bederatzi ordenamentuek  
zortzirek zeruek  
zazpi sakramentuek  
sei serbilek  
bost lllagak  
lau Ebanjelistak  
hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi  
gure Jaune bera dok bat  
berak salbauko gaiozak.

∞

Dozak: dituk.  
Gaiozak: gaitik.  
Deutset: diot.

Seigarrenean, hemen *serbilek* dion moduan, beste aldaera batzutan *argileohiak*, *argilariak* eta gisakoak datoz. Kandelabroak alegia.

Textu honen azpian ipuin bat dago, deabruak San Martini egin omen zion proba bat. Eta bai solemnitatea sortzen duela, bere egitura uniforme eta errepikatuz! Zerbait izan behar, kondaira honen aldaerak oso ugariak bait dira bazterretan, herriak maite izan duen seinale.

## AMA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 53 or.)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Ama, gura badozu<br>mutilik erosi<br>Bilbo zaharrean dagoz<br>lau zirian zortzi.                          | 05. Bilbo dinoe, Bilbo dinoe<br>ez dago Bilbo langorik<br>txokolatea hartuteko<br>goizean bero berorik. |
| 02. Lau ziri gitxi da ta<br>lau maraira ezker<br>Askaoko iturrian<br>elejia dago.                             | 06. Maitea, Bilbora noa<br>ezertxo gura badozu.<br>-Ulerearen puntarako<br>zintatxo bat ekarridazu.     |
| 03. Bilbo zaharreko atsoak<br>okerrak eta gaiztoak<br>ardao gozotan gastauko leukez<br>ohien azpiko lastoak.  | 07. Maitearen portalean<br>arbola eder bi<br>bata da lirio ta<br>bestea madari.                         |
| 04. Bilbo zaharrean barberu asko<br>endemas Barrenkalean<br>nongo barberuk osatuko nau<br>eztula jatortanean? |   |



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Ziri:</b> zuri, Espainiako lehengo diru bat.               | <b>Osatu:</b> sendatu.                  |
| 02. <b>Marai:</b> Espainiako lehengo diru bat, <i>marabedia</i> . | <b>Jatortanean:</b> datorkidanean.      |
| <b>Eleji:</b> aukera, hautatzeko modua.                           | 05. <b>Dinoe:</b> diote.                |
| 03. <b>Leukez:</b> lituzkete.                                     | <b>Langorik:</b> lakorik, bezalakorik.  |
| 04. <b>Barberu:</b> sendagile, praktikante antzeko bat.           | 06. <b>Ulerearen:</b> ulearen, ilearen. |
|   | 07. <b>Madari:</b> udare, txermen.      |

### IRETARGIAK ARGI EITEN DAU

(Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 5. 10. or. Adolfo Arejita)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Iretargiak argi eiten dau<br>zeru altuan bakarrik<br>zazpi aingeru atzian ditu<br>zortzigarrena makalik.        | 04. Ni gaur arratsean hilgo naz eta<br>etorri nire gorpura<br>nire gorpura zatozenian<br>igongo dozu korura.        |
| 02. Zazpi mediku ekarri dautsez<br>bakotxa bere heritik<br>zazpirak bere ez dautse igarri<br>zer dauan geixo horri. | 05. Handixik behera bajeko zara<br>Birjina Amaren ortura<br>han hartukozuz, han hartukozuz<br>zazpi larrosa eskura. |
| 03. Zortzigarrena ekarri dautse<br>Indie-Madriletatik<br>zortzigarrenak igarri dautso<br>atean sartu ein barik.     | 06. Zazpi larrosa eskura eta<br>zortzigarrena mosura<br>zeruko Jaunak pentsau ez daian<br>nire lutua dozula.        |



- |   |  |
|---|--|
| 01. <b>Iretargia:</b> ilargia.<br><b>Makalik:</b> gaisorik, ondoezik. | 02. <b>Dautsez:</b> dizkiote.<br><b>Dauan:</b> duen, daukan. |
|---|--|

- |  |  |
|--|--|
| 03. <b>Dautse:</b> diote.<br><b>Dautso:</b> dio. | <b>Ortura:</b> baratzera.<br><b>Hartukozuz:</b> hartuko dituzu.                        |
| 04. <b>Gorpu:</b> gorputz hila, hilotza.         | 06. <b>Mosura:</b> muturrera, aho aldera.<br><b>Pentsau ez daian:</b> pentsa ez dezan. |
| 05. <b>Bajeko:</b> bajatuko, jaitsiko.           |  |

### IZAR EDERRAK (I)

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 989 or.)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Izar ederrak argi eiten dau<br>zeru altuan bakarrik<br>ez da bakarrik, lagunak ditu<br>Jaun zerukoak emonik.  | 04. Handixek behera jatsiko zara<br>Birjina amaren ortura<br>...<br>...  |
| 02. Zazpi aingeru aldean ditu<br>zortzigarrena gaixorik<br>zazpi mediku ekarri deutsez<br>India-Madriletatik.     | 05. Hartu kabelina bat eskura<br>larrosatxu bat mosura<br>mundu guztiak esan ez daian<br>neure lutua dozula.               |
| 03. Gaur hamarretan hilgo naz eta<br>erdu neure entierura<br>gorputz santa hau enterraduta<br>igongo dozu korura. | 06. Aingerutxoak esaten dabe<br>salbean Ave Maria<br>gero guztiok gozadu daigun<br>zeru altuan gloria.<br>Amen, Ave Maria. |



- |   |   |
|---|---|
| 02. <b>Aldean:</b> alboan, ondoan.<br><b>Deutsez:</b> dizkiote.   | 05. <b>Mosu:</b> mutur, ahora.<br><b>Daian:</b> dezan.        |
| 03. <b>Erdu:</b> zatoz, etor zaitetz.<br><b>Entierura:</b> ehorzketara, lur-ematera.<br><b>Enterraduta:</b> enterraturik, ehortzirik. | 06. <b>Dabe:</b> dute.<br><b>Gozadu daigun:</b> goza dezagun. |

## IZAR EDERRAK (II)

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 187 or. eta Cancionero Popular Vasco, 990 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Izar ederrak argi egiten dau<br>zeru altuan bakarrik<br>ez da bakarrik, lagunak ditu<br>Jaun zerukoak emonik. | 05. Gaur arratsean hilgo naz eta<br>etorri gorpu ondora<br>errosario zuri eder bat<br>esku artean dozula.                  |
| 02. Zazpi aingeru aldean ditu<br>zortzigarrena gaixorik<br>zazpi mediku ekarri deutsez<br>India-Madriletatik.     | 06. Neu enterretan naroenean<br>igongo dozu korura<br>handixek behera salto egingozu<br>Birjina Amaren ortura.             |
| 03. Harek igarri, harek igarri<br>nundik dagoan gaixorik<br>amore-minak baditu honek<br>errai artean sarturik.    | 07. Larrosea ta krabelinea<br>hartungo dozuz eskura<br>jente guztiak esan daiela<br>neure lutua dozula.                    |
| 04. Guzurra dino mediku honek<br>nik ez dot amore-minik<br>...<br>...   | 08. Aingerutxoak esaten dabe<br>salbean Ave Maria<br>gero guztiok gozatu daigun<br>zeru altuan gloria.<br>Amen, Ave Maria. |



02. **Deutsez:** dizkiote.  
04. **Dino:** dio, esaten du.  
05. **Gorpu:** hilotz, gorputz hila.  
06. **Enterretan naroenean:** ehorztera, enter-  
rratzera naramatenean.  
**Egingozu:** egingo dozu.

07. **Hartungo dozuz:** hartuko dituzu.  
**Daiela:** dezala.  
08. **Dabe:** dute.  
**Daigun:** dezagun.

## IZAR EDERRAK (III)

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 186 or., eta Cancionero Popular Vasco, 991 or., R. M. Azkue)

01. Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik  
eta ez dakit jaio dan bertan  
ala datorren zerutik.
02. Beraren argitan joan nintzan ni  
Arantzazura goizean  
Birjina Ama eta Semea  
topau nituen bidean.
03. Kontseju on bat emon eustien  
ama-semien artean  
on da umila izan nendila  
munduan nintzan artean  
eurak lagunduko eustiela  
mundutik nindoanean.



02. **Topau:** topatu, aurkitu, kausitu.  
03. **Kontseju:** aholku.  
**Emon eustien:** eman zidaten.  
**Eustiela:** zidatela.

Erromantze hunkigarri honen aldaerak dozenaka dira. Hemen eskainitako laurekin bada mostrarik aski, zer kidetasun eta zer alde daukaten antzemateko. Azkenengoan argumentua bera ere ezberdina da, Arantzazuko Ama Birjina ardatz harturik.



## OTSAINAREN KANTUA

(Patxi Bilbao - Dimako Bargundia. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., Jose Ramon Arbe, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta hamarren artean)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Kanta bat ikasi dot<br>aurtengo urtean<br>Bilboko otsainaren<br>praktikante batean.        | 07. -Uzaba bat badogu<br>pastela langoa<br>ta uzandrea bai ona<br>inor ez langoa.         |
| 02. Plazan ta txorroetan<br>bai karnezarian<br>txito egoten dira<br>pazientzi handian.         | 08. Inunde barraban bat<br>sartu behaku etxean<br>ezin du bakerik ein<br>otsainon artean. |
| 03. Ikusi orduko ta<br>lehenengo berbea<br>-Zer dinozu, Maritxu<br>ene alabea?                 | 09. Gaur ere jagi eta<br>lehenengo berbea<br>plantzetako dauela<br>seinen erropea.        |
| 04. -Ama, ni ondo nabil<br>ahal dodan posiblean<br>ezin leike gure etxean<br>inok egin urtean. | 10. Uzaba etorri jaku<br>salatik sutera<br>otsainok despatxetan<br>etxetik kanpora.       |
| 05. -Zer dozu ba Maritxu<br>urten ez eiteko?<br>-Denporea behogu<br>honeik kontetako.          | 11. Loroak dinoskio<br>goiko bentanatik:<br>-Horreik jaukiek gogoa<br>uzaben lepotik!     |
| 06. -Jarri gaitian biok<br>alkarren ondoan<br>alkarri kontetako<br>zer dogun gogoan.           | 12. Oilo estofadue<br>uzabari ostue<br>hurragoakaz joateko<br>paseetan doskue.            |

13. -Isilik egon hadi  
barritsu haundie  
hik egotziko heuskio  
hatxari mendie.

- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Otsain:</b> otsein, morroi edo neska.  | <b>Barraban:</b> bihurria, gaiztoa.<br><b>Behaku:</b> beharko dogu.<br><b>Ezin du:</b> ezin dogu. <i>Dogu-dou-du.</i>   |
| 02. <b>Karnezarian:</b> harategian.<br><b>Txito:</b> txit, oso, arrunt.   | 09. <b>Seinen:</b> haurraren nahiz haurren. Zen-<br>bait eskualdetan biak izan daitezke, sin-<br>gularra nahiz plurala, azentuz berezten<br>direlarik.<br><b>Plantzetako:</b> plantxatzeko. |
| 03. <b>Berbea:</b> hitza.<br><b>Dinozu:</b> diozu.  | 10. <b>Sute:</b> sukalde.   |
| 04. <b>Inok egin urtean:</b> ezin leike inok urten.<br>Esanahiak eta kontextuak hori eskatzen<br>du. <i>Urtean</i> hori ez da naturala.                   | 11. <b>Dinoskio:</b> dinotso, diotsa, esaten dio.<br><b>Jaukiek:</b> zeukatek.  |
| 05. <b>Behogu:</b> behar dogu.<br><b>Honeik:</b> hauek.<br><b>Kontetako:</b> kontatzeko.  | 12. <b>Estofadue:</b> erregosia.<br><b>Hurragoakaz joateko:</b> esaldi iluna. Ez<br>diot antzik hartzen.<br><b>Paseetan doskue:</b> paseatzen digute.                                       |
| 07. <b>Uzaba:</b> ugazaba, nagusia.<br><b>Langoa:</b> lakoa, bezalakoa.<br><b>Uzandrea:</b> ugazabandrea, nagusiaren<br>andrea edo nagusi andrazkoa bera. | 13. <b>Egotziko heuskio:</b> jaurtiko hioke, itsa-<br>tsiko hioke.  |
| 08. <b>Inunde:</b> inude, unide. Besteren haur<br>hazlea.   |   |

## GAUTXU BATEN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 91 or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Gautxu baten abiatu nintzan<br>dama gazte bat bilatzen<br>kox kox jo neban atea baina<br>ez osten korresponditzen. | 02. Halako baten bentanatican:<br>-Ez dost niri amak itziten.<br>-Bioren borondatea bada<br>zatoz hona puska baten. |
|--|---|

03. Zure aita lotara joan arte  
ate ondoan gengokez.  
–Atera joan, haizea presko  
hotzitu egin gindekez.
04. –Nire kapeak magala zabal  
biok tapauko gendukez.  
–Handik tira eta hortik tira  
apurtu eingo genduke.
05. Hatan horretan gengokezala  
aita zurea letorke.  
–Hak bat esan ta guk bi erantzun  
okasinoa legoke.
06. Nire atea hotsa dau zoli  
txakurrak bere salatu  
nire txakurra isilduteko  
eper bizia bihozu.



01. **Ez osten:** ez zidan.  
**Korresponditzen:** erantzuten.
02. **Ez dost... itziten:** ez dit uzten.  
**Zatoz hona puska baten:** *en lugar de una inconveniencia* dio Azkuek. Zer ote zion orijinalak? Hurrengo aldaerak **zeugaz lo egin nahi neuke** dio.
03. **Gengokez:** geundeke.  
**Hotzitu:** hoztu.  
**Gindekez:** gintezke.
04. **Tapauko:** tapatuko, estaliko.  
**Gendukez:** gintuzke.
05. **Hatan horretan:** hartan edo horretan, ezertan bereziki ari gabe, oharkabea, distraiturik bezala. Oso esamolde hedatua bizkaieran.
06. **Zoli:** argi, erne, bizkor.  
**Bihozu:** behar dozu.
07. **Kohiduteko:** hartzeko, harrapatzeko.  
**Zagoz:** zaude.  
**Atxakiosa:** aitzakitsu, aitzakiz betea.
08. **Eroango:** eramango.  
**Igaro:** iragan, pasatu. Kopla honek beste batekin gurutzatua dirudi.
09. **Gurari:** nahikari, desio, gogo.  
**Dabenezako:** dutenezat.
- Okasinoa:** okasioa, haserrea, liskarra.  
**Hak:** hark.

## ILUNABARRIAN SAIATU NINTZAN

(Aurreko sortaren aldaera hau nondik jasoan ez dut aurkitzen)

01. Ilunabarrian saiatu nintzan  
dama gazte bat bilatzen  
atia kix-kix jo nion baina  
inork ez korresponditzen.
02. Bigarrenian jo nionian  
–Galaia, zer nahi zenduke?  
–Bioren borondatia dala  
zeugaz lo egin nahi neuke.
03. –Ai gure aite kanpotik da ta  
hasarratu eingo litzate.  
–Ai zeure ama lokartun arte  
atian egongo gerade.
04. –Gure atian haizia fresko  
da hotzitu egingo gerade  
–Nire kapie zabala da ta  
biok batungo gerade.
05. –Bat honek tire, beste honek tire  
urratu eingo litzake  
–Nire tiendan painua merke  
barria eingo genduke.
06. Atiak ere kurrinke dagoz  
txakurra ere ze lori  
gure txakurra isilduteko  
eper bizi bat bihar det nik.
07. Eper bizia harrapatzeko  
mutil mantsua dirudizu  
...  
...
08. Damatxu gazte atxekiosa  
atxeki asko daukazu  
atxekiakin da guztiakin be  
zeuk neugaz biharko dezu.
01. **Korresponditzen:** erantzuten.
02. **Zeugaz:** zeurekin.
03. **Litzate:** litzateke.  
**Lokartun:** lokartu. Zenbait herritan a-ditz hauei *N* gehitzea normala da: *batun, sartun, hartun... hartunde, sartunde...*
04. **Hotzitu:** hoztu.
05. **Tiendan:** dendan.  
**Painua:** ehuna, oihala.
06. **Kurrinke:** txerriak egiten duena, irrintzika.  
**Dagoz:** daude.  
**Txakurra ere ze lori:** esaldi ulergaitza da hau, *ze zoli* edo *ez lorik* edo horrelako zerbait ez bada. Ala *zelorik* edo *zeloekin*?
07. **Atxekiosa:** atxakitsua, aitzakiz betea.

## EZ POZTU NESKATILA

(Patxi Bilbao- Bargundiako Patxi Bilbao. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., Jose Ramon Arbe eta hamarren artean)

Ez poztu neskatila  
txapel okerrari  
astean zazpi zurre  
zapatuetan bi.  
Domekan okelea  
auzoan ikusi  
ez poztu neskatila  
txapel okerrari.

01. Iezik eta aurten dira  
pena neureak nagusi  
iez maite ninduenak  
aurten ez nau nahi ikusi.

02. Haizeak orriei ikera  
mendi altuen zuzune  
jakiturikan naukazu  
saldurik narabizune.

03. Sasien txori larrosa  
zure berbaren donosa  
zaldunak euki litzake  
zeugaz ezkontzeko poza.

04. Zeuk eder horrek esana  
ez zagozela neuretzat  
maitea, eskerrik asko  
ez nago neu be zeuretzat.

05. Antoniok egin arren  
mutil gaztetzat burua  
etxean itxita dator  
Patrizianatxo mantsua.

06. Josepa Elorriokoa  
orain ezkondata dago  
bere senar eder hori  
korru eskinean dauko  
guardasol bi eskuetan da  
irribarre eiten deutso.

07. Josepa Elorriokoa  
orain bertsoa behar dau  
bere gorputz eder hori  
ederto mogiduten dau.

08. Josepak etxerantzean  
senarrari esan dautso  
Antionioren bertsoekaz  
zeruan sarturik nago.

09. Pandero honen narrue  
dana da ardi narrue  
fraile bati kostajako  
sermoi on baten dirue.



**Ez poztu txapel okerrari:** txapel okerraren-  
gana, ez erakutsi txapel okerrari pozik. Txa-  
pela oker edo albokera erabiltzen duenari.

01. **Iezik:** ieztik, iaztik.

02. **Zuzun:** zurzuri, lertxun. Zuhaitz mota  
bat.

03. **Berba:** hitza, elea.  
**Donosa:** dohai edo grazi handikoa.  
**Zeugaz:** zeurekin.

04. **Zagozela:** zaudela.

05. **Itxita:** utzita, lagata.

06. **Eskinean:** iskinan, ertzean, zokoan.  
**Guardasol:** aterkin.  
**Deutso:** dio.

08. **Bertsoekaz:** bertsoekin.

09. **Jako:** zaio.

Sorta hau zorrotza eta xelebrea da benetan. Seigarren horretan diona irudikatzea besterik ez dago: gizona bi guardasol eskuan-da, korru bazterretik irribarre obedientez bere andrea nola dantzaten den begira. Pandero narruaren prezioak ere zerbait pentsarazten du bederatzigarrenean.

## ABEREEN IZENAK

(Eskuz idatzitako paper bat, Bilboko Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan aurkitu nuena)

Paradisuko atian  
abere danak batian  
pozik jabilkuz, euren izenak  
Adanengandik hartzeko  
Paradisuko atian  
abere danak batian.

01. Erdu hona, Kukurruku  
zuk izena zelan dozu?  
–Esango deusut behingo batian  
*Oilarra* deitu eidazu.  
–Ondo dago, Kukurruku  
izena *Oilarra* dozu.
02. Zelan ete da zuria  
kurrin kux-kux-kux Musturtxu?  
–Esango deusut behingo batian  
deituten deuste *Txarritxu*.  
–Izen polita, Musturtxu.  
Izango zara *Txarritxu*.
03. Etorri hona, Karkarkar  
zelan dinotsue zuri?  
–Esango deusut behingo batian  
*Oilua* dinoste niri.  
–Ederto dago, Karkarkar  
*Oilua* zaitetz zu beti.
04. Eta zuk, Lepo-zabala  
zein da daukazun izena?  
–Esango deusut behingo batian  
esaten deuste *Zezena*.  
–Halan da, Lepo-zabala  
izena dozu *Zezena*.
05. Eta zuk, Miaumiau erpedun  
zelako izena daukazu?  
–Esango deusut behingo batian  
nire izana da *Katu*.  
–Izan be, Miaumiau *Katua*  
Katu-Katua zuk dozu.
06. Belarri-luze, adurti  
zeure izenik bakizu?  
–Niri, ai jauna, ahaztu...ahaztu jat  
ahaztu egin jat, parkatu.  
–Belarri-luze, adurti  
*Astua* zara zu gaurtik.



- Jabilkuz:** dabilzkigu, ibiltzen zaizkigu.
01. **Erdu:** zatoz, etor zaitetz.  
**Deusut:** dizut.  
**Eidazu:** iezadazu.
02. **Deituten deuste:** deitzen didate, deitzen naute.
03. **Dinotsue:** diotsue, esaten dizue.  
**Dinoste:** esaten didate.
06. **Adurti:** lerdetsu.  
**Jat:** zait.

Sorta honek bistan dauka bere tankera kultua, baina egitura oso herrikoi horri esker, eta beste baliabide xume batzuk bide direla, ezin ukatu polita denik. Tamalgarria azkenengoa, astoarena, ez dela euskara osoan sentitzekoa. *Astoa* eta *aiztu*, *ahantzi*, *atzendu*... esaten dutenentzat hitz jokoak ez du balio.

## EZKONDU NINTZANEAN

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 680 or.)

01. Ezkondu nintzanean  
bost gona nituen  
bi prendan ipinita  
bi saldu nituen.
02. Soinean daukadana  
txito daukat zaharra  
barriak egiteko  
esperantza txarra.
03. Bizi ohi nintzanean  
ugazabanean  
txokolatea neukan  
gorderik koprean.
04. Txokolatea eta  
hala beste asko  
gorderik ohi nituen  
behar nebaneko.
05. Azak edo borrajak  
oriorz beterik  
ezin jan ohi nituen  
nintzala bakarrik.
06. Ezkondu eta gero  
urtebete bage  
porrusaldea neukan  
oriorik gabe.
07. Hau da bizimodua  
dodana neuretzat  
ezin dot oriorik  
porrusaldarentzat.
08. Seintxu bat sabelean  
beste bat besoan  
gizona tabernan da  
artoa auzoan.
09. Hiru ilinti ketsu  
suaren ondoan  
harik datorrenean  
hirurak lepoan.
10. Horrako gizon hori  
dot neure senarra  
sarritan ekarten deust  
begira negarra.
11. Posilbe balitzate  
posilbe ez dana  
laster salduko neuke  
nik neure senarra.
12. Ezkondu nintzala  
ia dira urte bi  
ez diot kontsejurik  
emoten inori.

13. Gazteak, entzun dozu  
neure kontsejua  
laster garbatu jatan  
niri ezkondua.



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Prendan:</b> bahituran.   | 09. <b>Harik:</b> handik.<br><b>Lepoan:</b> bizkarrean.   |
| 02. <b>Txito:</b> txit, oso, arrunt.   | 10. <b>Deust:</b> dit.  |
| 03. <b>Ugazabanean:</b> ugazabaren, nagusiaren<br>etxean.<br><b>Koprean:</b> kofrean, kutxan, kaxan. | 11. <b>Posilbe...</b> <b>posilbe:</b> hala kantatu omen<br>zion Azkueri emakumeak.  |
| 04. <b>Behar nebaneko:</b> behar nuenerako.  | 12. <b>Kontsejurik:</b> kontseilurik, aholkurik.  |
| 05. <b>Borrajak:</b> borraia, landare jangarri bat.  | 13. <b>Gazteak, entzun dozu:</b> <i>zuek</i> subjektua-<br>ren forma arkaikoa.<br><b>Garbatu jatan:</b> damutu zitzaidan. |
| 06. <b>Urtebete bage:</b> urtebete baino lehena-<br>go.  |   |
| 08. <b>Seintxu:</b> haurtxo, umetxo.   |   |

Sorta honetako koplak nonahi entzuten eta aurkitzen dira barreiatu-  
rik. Ez da harritzekoa, bere neskame garaiaz amets egiten duen emazte  
honen egoera hain gordin eta adierazkor ematen bait da.

## MATXALEN BUSTURIKO

(*Sehaska kantak*, 83 or., Jabier Kalzakorta. **Ahozko literatura:** genero txikiak. Maria  
Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetaña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra,  
Jose Ignacio López de Luzuriaga. Gauontza sorta, Labayru ikastegia).

- |   |  |
|---|--|
| 01. Matxalen Busturiko<br>izan balitz ona<br>ez zala etorriko<br>Busturitik hona. | 02. Matxalen Busturikok<br>hamairu nobio<br>zazpi mediku eta<br>sei botikario. |
|---|--|

03. Justu Aurrekoetxeari  
preguntau egin leio  
hak ete dekoazan  
hainbeste nobio.

05. Ene alaba Madalen  
ez egin negarrik  
ez zara ezkonduko  
amantalik barik.

04. Matxalen Busturiko  
amari negarrez  
amantal barri barik  
ezkonduko danez.

06. Txomintxok emon dotso  
bosteko gorrie  
Madalen, ekarrine  
amantal barrie.



03. **Preguntau:** galdetu.  
**Egin leio:** egin lekiok.  
**Hak ete dekoazan:** hark ote dauzkan.
04. **Barik:** bagerik, gabe.

- Amantal:** mantala.  
**Ezkonduko danez:** ezkonduko den ala  
ez.
06. **Emon dotso:** eman dio.  
**Ekarrine:** ekarran, ekar ezan.

*Matxalen* edo *Madalen Busturiko* hau oso maiz ageri den pertsonaia  
da. Egizko pertsonaia noski. Bizkai aldeko koplagingintzan hain entzute  
zabala ukan duen emakume jarein eta dirudienez libre samar honen  
ikerketa oso interesgarria litzateke, norbait animatuko balitz.

## NORA IZAN ZARA MARI

(Aurreko bera, 112. or)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Nora izan zara, Mari?<br>Bilbora izan naz<br>ikeratute nago<br>hango kontuekaz. | 02. Bilboko damatxuek<br>ez daude lo egiten<br>euren buruko zapok<br>modara iminten. |
|---|--|

03. Hain iminten deituez  
txurruek handiek  
azkonarra dirudi  
euren arpegiek.



01. **Kontuekaz:** kontuekin.

02. **Ez daude lo egiten:** ez dute lo egiten.  
**Zapok:** zapa hauek, zapa horiek.  
**Zapa:** mototsa, multzo nahasia eta handia, ilean eta gisakoetan.  
**Iminten:** ipintzen, jartzen.

03. **Deituez:** dituzte.

**Txurruek handiek:** Ileak txurru edo ur txorrot gisa orrazturik.

### ZETAN ZOAZ FERIRA

(Jon Enbeita bertsolaria: Izeko Bixenta, Deunoro bertsolariaren amari, jasoa. Gehiago ere ba omen ziren, baina ez omen zen gogoratzen. Ohargarria da ahapaldi honen neurria eta bere doinu berezia, Jon Enbeitak kantatzen duena).

Zetan zoaz ferira  
ene senar maite  
saltzeko ta erosteko  
ezer ez dozu-te?  
Zetan zoaz ferira  
dirautsut barriz be

beste zeregin barik  
zurrutean bakarrik  
tabernan sartute?  
Ai ostera bere  
bizi beharkogu  
nekazariok arlote.



**Zetan:** zertan, zertara.  
**Ez dozu-te:** ez duzu-ta.  
**Dirautsut:** diotsut, esaten dizut.  
**Barriz be:** berriz ere.

**Barik:** gabe.  
**Ostera bere:** berriz ere.  
**Beharkogu:** beharko dugu.

### AGURA ZAHARRA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 19. or)

01. Agura zaharra baldin  
baneuko senartzat  
botako neuke benta-  
narean kostaltzat.

03. Agura zirkin zarkin  
begiok logura  
ikusten banok bere  
ez nok hire gura.

02. Emongo dautsadala  
apari galant bat  
sardina buru bi ta  
garagar opil bat.  
Haxek yan gura ez badauz  
atara begi bat.



01. **Bentanarean:** bentanatik. Atzizki ar-  
kaikoa.  
**Kostal:** zaku handia.  
02. **Dautsadala:** diodala.  
**Haxek:** haixek.

**Badauz:** baditu.  
03. **Ez nok hire gura:** ez nauk hire gale, ez  
diat hireganako gogorik.

### GOIZETI JAGI ZARA (I)

(Maria Astobiza - Orozko. Jon Aurre sorta)

01. Goizeti jagi zara  
oh andra gaztea  
-Leixibatxua egitearren  
Jauna neurea.

02. Leixibatxu zuria dozu  
oh andra gaztea  
-Ondotxu egosita  
aita prailea.

- |  |   |
|--|---|
| 03. Senarrik edo bozu<br>oh andra gaztea?<br>–Biaje urrunean da<br>jauna neurea.                 | 06. Berton itoko ahal zara<br>oh andra gaztea!<br>–Berori txalupa dala<br>aita prailea. |
| 04. Ezagutuko ete zenduke<br>oh andra gaztea?<br>–Lehengo erropakin baletor bai<br>aita prailea. | 07. Suak erreko ahal zaitu<br>oh andra gaztea!<br>–Berori egurra dala<br>aita prailea.  |
| 05. Laztan bat emongo neuskizu<br>oh andra gaztea<br>–Ibaia dago bitarte<br>aita prailea.        | 08. Agur agur agur<br>oh andra gaztea<br>–Beihoa ondo ondo<br>aita prailea.             |



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Leixiba:</b> lisiba, arropa garbitzeko erabil-<br>tzen den likido alkalinoa, baita garbiketa<br>bera ere. | 05. <b>Neuskizu:</b> nizuke.   |
| 03. <b>Bozu:</b> badozu.<br><b>Biaje:</b> bidaia.  | 06. <b>Ahal:</b> desira, gogo handia adierazten<br>duen partikula.<br><b>Itoko ahal zara:</b> hobe, oxala itoko bazi-<br>na. |

## GOIZETI JAGI ZARA (II)

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 978 Or.)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Goizeti jagi zara<br>oh andra gaztea.<br>–Leixibatxua egitearren<br>jauna neurea. | 02. Leixibatxu zuria dozu,<br>oh andra gaztea.<br>–Ondotxu jabonauta<br>jauna neurea. |
|---|---|

- |  |   |
|--|---|
| 03. Senarrik edo bozu<br>oh andra gaztea?<br>–Biaje urrunean<br>jauna neurea.      | 05. Ze opizio emon deutzazue<br>oh andra gaztea?<br>–Madrilgo estudioan dabilz<br>jauna neurea. |
| 04. Umerik edo bozu<br>oh andra gaztea?<br>–Jaungoikoak emonda bi<br>jauna neurea. | 06. Berton itoko ahal zara<br>oh andra gaztea!<br>–Berori txalupa dala<br>jauna neurea.         |



- |  |                                     |
|--|-------------------------------------|
| 01. <b>Egitearren:</b> egiteko, egiteagatik.     | 05. <b>Opizio:</b> ofizio, lanbide. |
| 02. <b>Jabonauta:</b> xaboiturik, xaboia emanda. | <b>Deutzazue:</b> diezue.           |
| 03. <b>Bozu:</b> badozu.                         |                                     |

## LEISIBATXU ZURIA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 980 or.)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Leisibatxu zuria dozu<br>andra gaztea.<br>–Ondotxu egosita<br>aita prailea.   | 03. Semerik edo badozu<br>andra gaztea?<br>–Semetxo bi daukadaz<br>aita prailea. |
| 02. Eskutxu zuria dozu<br>andra gaztea.<br>–Guantepean erabilita<br>aita prailea. | 04. Semeak nun dituzu<br>andra gaztea?<br>–Eskolak erakusten<br>aita prailea.    |

05. Senarrik edo bozu andra gaztea?  
–Senarra biajean aita prailea.
06. Ezagutuko ete zenduke senar zeurea?  
–Lehengo erropakin baletor bai aita prailea.
07. Laztan bat emongo neuskizu andra gaztea.  
–Ibaia dago bitarte aita prailea.
08. Berton itoko ahal zara andra gaztea!  
–Berori txalupa dala aita prailea.
09. Suak erreko ahal zaitu andra gaztea!  
–Berori egurra dala aita prailea.
10. Agur, agur, agur andra gaztea!  
–Beihoa ondo ondo aita prailea.



03. **Daukadaz:** dauzkat.
07. **Neuskizu:** nizuke.
08. **Itoko ahal zara:** hobe, oxala itoko bazina.

## EGUN ON JAINKOAK

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 966 or.)

01. Egun on Jainkoak dizula andratxo gaztea.  
–Baita zeurorri bere galaitxo maitea.
02. Senarrik eta ba al dozu andratxo gaztea?  
–Indietara joan zan galaitxo maitea.
03. Umerik eta badozu andratxo gaztea?  
–Bi, seme ta alaba jauna, hor dira.
04. Umeok nundik daabizuz andratxo gaztea?  
–Eskolak ikastera jauna, joan dira.

05. Zanko ederra dozu andratxo gaztea.  
–Nik halan gobernatu galaitxo maitea.
06. Kopeta ederra dozu andratxo gaztea.  
–Nik halan orraztuta galaitxo maitea.
07. Surtan erreko ahal zara andratxo gaztea.  
–Zeu ilinti zareala galaitxo maitea.
08. Urak eroango ahal zaitu andratxo gaztea.  
–Zeu aurretik zareala galaitxo maitea.



04. **Daabizuz:** darabizuz, darabiltzazu.
06. **Kopeta:** ilearekin egiten den trentza edo gisako forma bat.
07. **Erreko ahal zara:** hobe, oxala erreko bazina.
08. **Eroango:** eramango.

Erromantze xarmagarri eta bere xotiltasunean harrigarri honek baditu hainbat aldaera. Hemen emandakoetan aita frailea eta galaitxo gaztea ageri dira. Frailearen kasuan, senarra bera omen zen, fraile jantzita emaztea probatzera zihoana, nahizta egizko frailea izanda ere zer galdurik ez lukeen.

## EHUNTEGIETAN DAUKAT

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 970 or.)

01. Ehuntegietan daukat miesa telea  
nor izango ete dan harentzat ehulea.
02. Errege Don Felipen alaba lindea  
nor izango ete da harentzat joslea?  
Andra Madalenea apostoladea.





01. **Miesa:** mihisa, mihise, lihoz edo kalamuz eginiko ehuna.
02. **Lindea:** *lindoa* ren femeninoa, polita, pertxenta.  
**Ehulea:** ehoten duena, ehun egilea.

### ATZO ETORRI JATAZ

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 957 or.)

01. Atzo etorri jataz  
hiru mandatari  
uso zuri eder bat  
ta aingeru eder bi.
02. Uso zuri ederra,  
zeruan ze barri?  
-Zeruan barri onak  
orain eta beti.
03. Niretzat zer dakazu  
zeruko gauzarik?  
-Olibo adartxo bat  
Birjinak emonik.
04. Erramu laster da ta  
igartu ez baledi!  
-Ez da ba igartuko  
zeruko gauzarik.
05. Igartu balei bere  
barriz dakarket nik  
zeruan asko dira  
olibo adarrik.



01. **Jataz:** zaizkit.
03. **Dakazu:** dakarzu.
04. **Erramu:** Erramu Igandea, aste santuaren ataria.
05. **Balei:** baledi.  
**Dakarket:** ekarriko dut.

### ALDAZTORREAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 169 or)

01. Aldaztorrean nengoanean irra goruetan  
erroi zahara etorri jatan grauetan.  
Erroi zaharra, zer dakazu albiste?  
-Alamarkea galdu dala dinoe.
02. Galdu naz bada, alaba zoribagea!  
Hantxe nebazan hogeta bat lehengusu ta nebea,  
harek baino beharragoa aita neurea,  
harek baino ahazkarriago jaubea.
03. Zer dinona, urdanga puerka lotsabagea?  
Azkenengo esan dona jaubea?  
Esan bahebanan lehenengotatik jaubea  
izango ebanan Aldaztorrean partea.
04. Nik neurea dot goian dagoan kaxea  
tapez taperaino diruz betea.  
Iminegaz neban urre gorria  
anegegaz neban urre zuria.
05. Mila dukat neban isil poltsea.  
A bere bazan alaba on baten dotea!  
Aldaztorreak ateak dituz letuez,  
hango plater-pitxerrak zidarrez.
06. Joan ala egon eingot, ama neurea?  
-Joan joan, neure alaba maitea.  
-Haurtxo txikinak sabelean deust ostiko  
Jaun zerukoak ahal dau semea sortuko!
07. Nahi dan semea, nahi dan alaba,  
Aldaztorrean parte izango dona.



01. **Irra:** goru hotsaren onomatopeia.  
**Erroi:** bele.  
**Jatan:** zitzaidan.  
**Grau:** erroiaren kantua.  
**Alamarkea:** itsasuntzia.
02. **Nebazan:** nituen.  
**Ahazkarriago:** Azkuek *aztu* 'tik interpretatzen du, baina dudan. Beharbada *hazi* 'tik zentzu gehiago luke, hots, untxi jabea *hazkarriago* edo bizipiderako beharrezkoago dela.
03. **Dinona:** dion, esaten dun.  
**Dona:** don, dun.  
**Baebanan:** bahu. Bizkaieraz ere baheu zegokion.  
**Ebanan:** heuanan, hunan.
04. **Tapez taperaino:** tapa taparaino dirudi.  
**Imina:** aleen neurria, anegaren laurdena.  
**Anega:** aleen neurria, berrogeita hamar kilo.
05. **Dukat:** moneta zaharra.  
**Letuez:** letonez, letoiz. Metal bat.
06. **Eingot:** egingo dot.  
**Txikina:** txikia.  
**Deust:** dit, egiten dit.  
**Ahal dau sortuko:** oxala sortuko balu.  
**Nahi... nahi:** nahiz... nahiz.

Erromantze honek inpresioa egiten dit beti. Erroiaren grauak bere belztasunean, untxi galduaren drama, etxearen edertasuna, ama-alaben arteko gordintasuna, haurtxoa sabelean ostikoka. Oso elementu alderantzizkoak batzen dira, genero honi dagokion naturaltasunik handiengan.

## AGOSTUAREN (I)

(Cancionero Popular Vasco, 924 or. eta Euskalerrriaren Yakintza IV, 96 or., R. M. Azkue)

01. Agostuaren hamabostgarren  
 Andra Maria goizean  
 Birjinearen debotatxu bat  
 erromerian zihóan.
02. Oinak ortozik zapata bage  
 habitu baltza soinean  
 San Frantziskoren kordoetxu bat  
 gerrian hiru doblean  
 San Agustinen liburutxo bat  
 eskutxu bien artean.

03. Birjinea ta semea bere  
 topau nituan bidean  
 kontseju on bat emon leidela  
 Ama-Semeen artean.
04. On da umila izan nendila  
 munduan nintzan artean  
 ez nabela ez damu izango  
 mundurik ninoanean.



02. **Ortozik:** oin hutsik.
03. **Topau:** topatu, aurkitu.  
**Leidela:** ziezadatela.
04. **Nabela:** nebala, nuela.  
**Mundurik:** mundutik.

## Aurrekoaren aldaera:

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 925 or.)

01. Agostuaren hamabostgarren  
 Andra Maria goizean  
 Birjinearen debotatxu bat  
 erromerian zihóan.
02. Oinetan bere ortozik eta  
 habitu baltza soinean  
 San Frantziskoren kordoi ederra  
 hiru doblean gerrian.
03. Pastoretxua, pastoretxua  
 hau gauzau entzun egizu  
 aita zeurea harotza da ta  
 esan beharko dautsazu  
 komendutxo bat ein biakostala  
 deritzaiona Arantzazu.



02. **Ordozik:** ortozik, oinutsik.
03. **Gauzau:** gauza hau.  
**Egizu:** ezazu.
- Dautsazu:** diozu.  
**Bihakostala:** egin beharko daustala, didala.

## AGOSTUAREN (II)

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 925 or.)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Agustuaaren hamaboskarren<br>Andra Maria goizean<br>Birjina Amaren debotatxo bat<br>Arantzazura zihoan.       | 03. San Frantziskoren liburutxo bat<br>eskutxo bien erdian<br>pausua baratz botatzen zeban<br>Urteagako gainean. |
| 02. Oin ortozean zapata gabe<br>habitu beltza soinean<br>San Frantziskoren kordoetxo bat<br>gerrian hiru doblean. | 04. Urteagako gainean eta<br>San Eliasen parean<br>Salbetarako helduko ete zan<br>Kurtzepizio gainean.           |



- |  |                                     |
|--|-------------------------------------|
| 02. <b>Ortozean:</b> oin hutsean.        | 04. <b>Kurtzepizio:</b> kruzifixio. |
| 03. <b>Baratz:</b> mantso, bare, astiro. |                                     |

## AMA EZKONDU (I)

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 940 or.)

01. Ama ezkondu, ama ezkondu  
denporea dan artean.  
–Ene alaba, zer diraustazu?  
Ogirikan ez etxean.  
–Galburutxo bat topatu neban  
bidean ostikopean  
zortzi anega kendu neutsazan  
aurreko bote batean.

Ukulun dringin maspelen dringin  
sankulun de blanko txuntxurrun berde  
txitxibiribiri rak eta plau  
ardauak honelan ipinten nau.

02. Ama ezkondu, ama ezkondu  
denporea dan artean.  
–Ene alaba, zer diraustazu?  
Ardaorikan ez etxean.  
–Mahats mordotxu bat topatu neban  
bidean ostikopean  
zortzi kantara atara niozkan  
aurreko lakaina batean.

Ukulun dringin... etab.



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Diraustazu:</b> diostazu, esaten didazu.<br><b>Anega:</b> ale neurria, berrogeita hamar<br>kilo.<br><b>Neutsazan:</b> nizkion.<br><b>Bote:</b> <i>lerro</i> edo <i>ilara</i> gisa erdaratzen du<br>Azkuek. Kimua edo gaztelaniazko <i>brotea</i><br>izango da segurrenik, euskaldunek <i>bo-</i><br><i>tea</i> esaten dutena. | 02. <b>Kantara:</b> likidoen neurria, hamasei li-<br>trokoa.<br><b>Lakaina:</b> mahats-mordoaren adartxo-<br>tariko bat. |
|--|--|

## AMA EZKONDU (II)

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 940 or.)

- |   |   |
|---|---|
| Ama ezkondu, ama ezkondu<br>gaztea nagon artean.<br>–Neure alaba, ezkonduteko<br>ez daukat ezer etxean. | –Galburutxo bat topatu neban<br>gal-denporea zanean<br>berrehun anega atera niozan<br>lehenengo igortzi batean. |
|---|---|



**Gal-denporea:** gari denbora, garia uztatzeko sasoa.

**Niozan:** gipuzkera eta bizkaiera nahasturiko forma. Nizkion.

Azkuek hiru aldaera ematen ditu bere kantutegian. Lehenengoa Gipuzkoan jaso zuen, beste biok Bizkaian.

### EGUNA ZALA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 498 or.)

01. Eguna zala, eguna zala  
bart irargia zanean  
egunerako joan nintzan ni  
zazpi legua bidean  
zazpi legua bidean eta  
neure maitean kalean.

03. Hiru letratxu beharko ditu  
nire sepultureak ganean  
neure maiteak irakurteko  
Madrildik datorrenean.

02. Neure maiteak bota egin eustan  
lantzea bentanarean.  
-Orain hil bere banozu eta  
enterrau bere naikezu  
Maria Madalenearen aurrean  
Jesukristoren oinean.



01. **Irargia:** iretargia, ilargia.

02. **Eustan:** zidan.

**Lantzea:** lantza.

**Bentanarean:** bentanatik. Atzizki arkaikoa.

**Hil bere:** hil ere.

**Naikezu:** nazakezu.

03. **Sepultureak:** hobiak, hilobiak.

### EGUNE ZALA EGUNE ZALA (I)

(Aranzazu y Arrate en el cancionero tradicional vasco, Igone Etxebarria Zamalloa. Actes del Colloqui sobre cançó tradicional - Reus, setembre 1990. 351. or. Biblioteca Abat Oliba. Publicacions de L'Abadia de Montserrat)

01. Egune zala, egune zala  
bart gaberdie zanean  
egunerako ailegau ginan  
zazpi legua bidean.

02. Birjinea ta bere semea  
topa ginduzen bidean  
emaoskuen kontseju on bat  
ama-semien artean  
ondo umil da ona izateko  
munduen garean artean.

03. Juan ginean Arantzazure  
baina beti bidean  
pastoretxo bat topau genduèn  
arbola baten ginean.

04. Errodrigotxu Baltzategiko  
erdu hona ta entzuizu  
aita zuria harotza da ta  
arren esan bat eidazu:  
egin deiela ermitatxo bat  
deritxona Arantzazu.

05. Hiru latatxo zazpi teilatxo  
nunbaisten askoko ditu  
hamaika amaren seme on askok  
han izengo dau ostatu  
San Frantziskoren semeak bere  
hantxe kalize altzadu.

06. Oinatiarrak, Oinatiarrak  
gazkiro-gazkiro penatzen nozu  
Aite San Migel Oinatikora  
birriten eroan nozu.  
Hirugarrenez banaroazu  
gomuten eukiko dozu.



01. **Ailegau:** ailegatu, heldu, iritsi.

02. **Topa ginduzen:** topatu, aurkitu genituen.

**Emaoskuen:** eman ziguten.

04. **Erdu:** zatoz, etor zaitetz.

**Deiela:** dezala.

05. **Lata:** teila azpian sartzen den ohola.

**Nunbaisten:** nonbait.

**Izengo:** izango.

**Altzadu:** altxatu, jaso.

06. **Birriten:** birritan, bi aldiz.

**Banaroazu:** banaramazu.

**Gomuten:** gomutan, gogoan, akorduan.

## EGUNE ZALA EGUNE ZALA (II)

(Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore, 1921, 69. or.)

Egune zala ta egune zala  
bart idargije zanian  
egunerako ailegeu nintzen  
zazpi legua bidien.  
Zazpi legua eginde bere  
Arantzazure ninoien.  
Birjinie ta bere semie  
topeu nituzen bidien  
emon eustien kontseju on bat  
ama-semien artien  
ixen nendile on da umilde  
munduen nintzen artien  
enenduela gero damuko  
zeruko tribunalien  
zeruko tribunalien eta  
Jaungoikuaren aurrien.



**Idargije:** iretargia, ilargia.  
**Ailegeu:** ailegatu, iritsi.  
**Nituzen:** nituen.  
**Emon eustien:** eman zidaten.

**Ixen:** izan.  
**Enenduela:** ez nuela.  
**Damuko:** damu izango.

## EGUNE ZALA EGUNE ZALA (III)

(Mendebaldeko euskal baladen antologia, A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. Litterae Vasconicae - Euskeraren Iker Atalak 5 - Labayru Ikastegia)

01. Egune zala egune zala  
bart idergie zanian  
egunerako ailegeu nintzan  
zazpi legua bidien.
02. Zazpi legua bidien eta  
Arantzazure nindoien  
Birjina Ama ta bere Semie  
nituzen topeu bidien.
03. Oinetan bere ortozik eta  
habitu baltza soinien  
San Frantziskoren sinboloa  
gerrien hiru doblen.
04. -Oinetikara Oinetikorra  
zelan penatzen nozu?  
Zeuen San Migel Oinetikora  
birriten banerakazuen.  
Hirugarrenez banerakazu  
gogoan izango nozu.
05. Erolitetxu Altzetariko  
amaren seme maitie  
amaren seme maiterik asko  
Birjina bilatzailie.  
Zeuek zenkien bera nor zan da  
Birjina Andrie topeu zenduen  
arantzan zeuri begire.
06. Izan zaitezala on da humilde  
munduan zinen artien  
ondo gordia izengo zara  
ondo gordia izengo zara  
zeruko tribunalien.
07. Pastore santu  
erdu hona ta entzizu  
zure aita harotza da ta  
egin daiela ermitatxu bat  
deritxodun Arantzazu.
08. Harotz maisuak hasi ziraden  
materiela bilatzen  
esan ohi dabe ez dala posible  
ermitatxu hau han eiten.
09. Hiru lata ta zazpi teiletxu  
ganien askoko ditu  
Amaren seme San Frantziskokok  
han izengo dau ostatu.



01. **Idergie:** iretargia, ilargia.  
**Ailegeu:** ailegatu, iritsi.
02. **Nituzen:** nituen.
03. **Ortozik:** oin hutsik.
04. **Oinetikara Oinetikorra:** hemen badirudi *oinetik hara oinetik horra* joko dagoela, Oinati herri izenarekin jokatu, ermita non egin bait zen auzia. Oinatarrek euren beheko San Migelen nahi eta Ama Birjinak goian.
- Banerakazuen:** banindekarzuen, ekarri nauzue.
- Banerakazu:** ekartzen banauzu.
05. **Erolitetxu Altzetariko:** *Errodrigotxu Baltategiko* agertu da lehenago.
07. **Erdu:** zatoz, etor zaitez.  
**Entzizu:** entzun ezazu.  
**Deritxodun:** forma okerra. Deritxona, deritzana.
09. **Lata:** teila azpian sartzen den ohola.

*Egune zala* konposizio hauetan ikusten denez, egitura beraren barruan argumentu oso ezberdinak daude, lehenengoan maite-drama bat eta hurrengoetan Arantzazuko Ama Birjinaren kondaira.

## AMA BIRJINA EGUNA DA TA

(Literatura Oral Vasca, 35. or. - Manuel de Lekuona)

01. Ama Birjina eguna da ta kanta dezagun kantia nik kantauko dot kantia baina ondo erantzun, jentia.
02. Arantzazura bidia luze gainera aldatz-goria harri labrauaz egina dago paradisura bidia.
03. Harri labraua ona da baina galtzairu pina hobia urre gorriaz eginda dago paradisian silia.
04. Sila hartantxe jarrita dago Birjina Ama Andria bera bezela gura leukiden Birjinak bere semia.

05. Sabel garbian eduki zuen bederatzi hilabetian bederatzi hilak igaro eta jaio zan Gabon gabian.
06. Mundu guztia salbatu zuen Natibitate goizian mundu guztia salbatu zuen Natibitate goizian.
07. Izar eder bat argitu zanda abantau nitzan bidian bere argitan jua izan nitzan Arantzazura bidian.
08. Ama Andria ta bere Semia topau nituzan bidian kontseju onak emon zizkiden Ama-Semien artian.
09. On da humilde izan nedila munduan nazen artian gero ez nebala damu izango hemendik nijuanian.
10. Odola pranko ixuri zuen oin-hutsetan da lurrian. -Ene Semia, eutsi zapatak jantzi eidazuz soinian.
11. -Ama Andria, largatu bedi honela noian artian nik heriotza hartu bihar dot Kalbarioko mendian.
12. Kalbarioko mendian eta kurutze gogor batian nik heriotza hartu bihar dot kurutze gogor batian.



02. **Aldatz-goria:** aldazgora, aldapa gora.  
**Labrauaz:** labratuz, landuz.
04. **Gura leukiden:** gura leukean, lukeen. Aditz forma raro samarra.
05. Bi puntuen errepika hau ere raro samarra da. Genero honetan hori oso ohizkoa da, baina ez honelako errepika soila, batere aurreratu gabe, errepika progresiboa baizik: *mundu guztia salbatu zuen Natibitate goizian, Natibitate goizian* eta... beste zer bait.
07. **Abantau:** abantatu, abant egin, aurrera egin.
08. **Topau nituzan:** aurkitu nituen.  
**Zizkiden:** zizkidaten.
09. **Nebala:** nuela.
10. **Eutsi:** tori, har ezazu, kasu honetan *har itzazu zapatak*. *Eutsi* hau oso zabala da bizkaieran eta normalean zer singularra eta plurala bereiztu egiten dira. *Eutsi zigarro bat*, baina *eutsiz betaurrekoak*.  
**Eidazuz:** iezazkidazu.  
**Largatu bedi:** joan bedi, alde egin beza.

## ARANTZAZURE JOAN BEHAR DET

(Arantzazure: Erromantze zahar ezezagun bat, Adolfo Arejita. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 3/4 - Labayru Ikastegia, 29. or.)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Arantzazure joan behar det gabeen edo egunez<br/>Birjina Amari preguntaduten ixingo bada edo ez.<br/>Birjina amonek baietz dino ta seme jaunonek entzun ez bioren borondatia balitz bitartekorik behar ez.</p> | <p>04. -Neure lagunok, eraman nixue aitaren amen herrire.<br/>-Mila legua eginde dagoz zure aita-amen herrire.<br/>Grazianatxu, neure laztana berandu akordeu zara mila legua eginde dagoz zure aita-amen herrira.</p> |
| <p>02. Grazianatxu, neure laztana zugana biraltzen neude gaur afariten etorritia egin bazeinke mesede.<br/>-Neure lagunok, bai marinelak, ez naz ni afari gure afari barik konsoladute deu neure istamangue.</p>      | <p>05. -Deabru gaiztoak eraman daiela dendari honen jostura nonbaisten bere esturik dago neure soineko txamarra.<br/>-Eskatu zituen tijeretxuok askatuteko jostura sartu zituen tijeretxuok bihotzetikan barrura.</p>  |
| <p>03. Lobedartxu bat ifini nion bere bularren erdien mila legua pasadute be lotan topadu zebien.<br/>Untzitxo honek jo abenian itxasua ta mastrian orduterantxik iriltzarri zan Grazianatxu neuria.</p>              | <p>06. -Neure lagunak, bai marinelak, oin honi zer in geinio?<br/>-Belatxu bati amarradute ureri emon geinio.</p>  |



- |  |  |
|--|--|
| <p>01. <b>Preguntaduten:</b> galdetzera.<br/><b>Ixingo:</b> izango.<br/><b>Amonek... jaunonek:</b> Ama honek, jaun honek.</p> <p>02. <b>Neude:</b> naute.<br/><b>Afariten:</b> afaritan, afaltzera.<br/><b>Bazeinke:</b> bazeneza.</p> <p>03. <b>Topadu zebien:</b> topatu zuten.<br/><b>Jo abenien:</b> jo zuenean.<br/><b>Mastrian:</b> itsasoratzean mastra edo mastas jasotzea dela dirudi, baina esaldi ilunda.</p> | <p><b>Orduterantxik:</b> orduantxe, orduandixe.<br/><b>Iriltzarri:</b> itzartu, esnatu.</p> <p>04. <b>Nixue:</b> naizue, nazazue.</p> <p>05. <b>Daiela:</b> dezala.<br/><b>Nonbaisten bere:</b> nonbait ere.<br/><b>Tijeretxuok:</b> guraizetxuok.</p> <p>06. <b>Oin:</b> orain.<br/><b>In geinio:</b> egin geniezaioke.<br/><b>Amarradute:</b> amarraturik, estekaturik, loturik.</p> |
|--|--|

## ARANTZAZU

(Karliten lenengo gerrateko bertsoak. A. Zavala. Auspoaren sail nagusia-4. 137-141. or.)

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. Neure Ama Birjine<br/>Arantzazukue<br/>Erredolek erre dotzu<br/>zeure komentua.</p> <p>02. Karlosek badaruko<br/>Bizkaian teilarik<br/>ez zara zu egongo<br/>komenturik barik.</p> | <p>03. Opilek erreten dagoz<br/>erreginaarentzat<br/>eta tremesak bere<br/>Karlos Kintorentzat.</p> |
|---|---|



- |  |   |
|--|---|
| <p>01. <b>Dotzu:</b> dizu.<br/>02. <b>Badaruko:</b> badauko, baldin badauka.<br/><b>Barik:</b> gabe.</p> | <p>03. <b>Dagoz:</b> daude.<br/><b>Tremesik:</b> hirin zakarragoz, zahi, zekale edo beste nahasiz, egindako ogia.<br/><b>Bere:</b> ere.</p> |
|--|---|

Ondoren aldaera hauek ematen ditu:

01. Neure Ama Birjine  
Arantzazukue  
baltzak erre dotzue  
zuri komendue.

02. Bizkagijen badago  
teile errenikorik  
ez zara zu egongo  
komendu bagarik.



01. **Dotzue:** dizute.

02. **Bizkagijen:** Bizkaian.

**Teile errenikorik:** erreniko, erreniko teilarik, teila errenik edo erretakorik.

**Bagarik:** barik, gabe.

Aurreko bigarrenaren aldaera:

Baina baldin badago  
Bizkaien teilarik  
ez zara zu egongo  
komendu bagarik.

### ANA JUANIXE (I)

(Literatura oral vasca, 120. or. - Manuel de Lekuona)

#### I

Egun batian ni banenguan  
kostela kostel gainian.  
Ni banenguan kostel saltzian  
ezpabe gari saltzian.

Hiru damatxu etorri ziran  
bata bestien atzian  
hirugarrenak preguntau eustan  
gariak zegan zirian.

-Bestientzako dirutan eta  
zuretzat laztan trukian.

-Ez nagizula lotsatu arren  
honelan plaza betian  
honelan plaza betian eta  
hainbeste jente artian.  
Horrelan bere esan bazeustan  
leku sekretu batian  
gariak eta zeu ta neu bere  
han konponduko ginian.

Ama neuria labarako da  
goiz edo arratsaldian  
paseito bat emoidakezu  
ama laban dan artian.

Ama labatik etorri eta  
mutil usaina etxian.

-Ana Juanixe, Ana Juanixe  
zein da dauana etxian?

-Katalinatxu auzokua da  
beroi laban dan artian.  
-Eztona hori Katalinatxu  
bizarra dau okotzian.  
Itxagon daizu, mutil, itxagon  
argia piztu artian  
argia piztu artian eta  
ikusi zeu nor zarian.

-Ama, berorrek ez dauela nahi  
neure osasunik etxian  
bihotz ilunak egiten jataz  
argia datorrenian.

-Urten daik, mutil, urten daik, mutil  
halako bentanarian  
ama neuriak urten dagian  
kanpora sospetxerian.

#### II

Egun batian ni banenguan  
Londresko zitudadian  
maitiarentzat joiak erosten.  
Tableru baten gainian—  
dama bateri galdetu neutsan  
joia hok zegan zirian.

-Bestientzako dirutan eta  
zeuretzat buru trukian.

-Eskerrik asko, dama galanta  
ez dot armarik aldian.

Neure arma onak itxi nituan  
Motriko herri onian  
Motriko herri onian eta  
Ana Juanixen etxian.



## III

Txalopatxu bat, txalopatxu bi  
Santa Klararen parian  
neure anaia hantxe datorke  
batian edo bestian.

–Neure anaia, zer barri diraz  
Motriku herri onian?

–Barriak onak diradez, baina  
jazo da kalte sobria.

–Oh neure anaia, ez edo da hil  
bioren aita maitia?

–Bioren aita ez da hil baina  
jazo da kalte sobria.

–Oh traidoria, ez edo hil da  
bioren ama maitia?

–Bioren ama ez da hil baina  
jazo da kalte sobria.

Ana Juanixe ezkontzen zala  
inuen atzo kalia

Ana Juanixe ezkontzen zala  
aita ta amaren lotsian.

–Ezin izan lei hori egia  
neuk dot armia aldi

armia eta gurutza bere  
neuk ditudaz bularran

ta neure armak tirituko dau  
bizi diraden artian.

...

Kapitan jauna, arria bela  
txalopa nabegantian

hainbat arinen sartu gaitez

Mutriku herri onian

Mutriku herri onian eta

Ana Juanixen etxian.

## IV

Hogeta hamairu dama lindatxu

Motrikun moila gainian

Ana Juanixe hantxe delarik

harexen damen artian.

Batak agur ta bestiak adios

Juanixe negar batian.

–Ana Juanixe, zer pasatu da

Mutriku herri onian?

–Zaldun gaztia, neuk bere ez dakit

zeu nundikua zarian.

–Neuk badakit, ba, Ana Juanixe

zeu nundikua zarian

zeu nundikua zarian eta

noren alaba zarian.

Damatxu baten arma-gurutzak

daruadaz bularran

Ana Juanixe ondo dakizu

...

Ana Juanixe, ez eixu esan

berbarik banidadian

despedidako gabian bere

neure besuan zinian

zeuk niri laztan, neuk zuri laztan

han despedidu ginian.

...

Joia asko be banakartzuzan

zuretzat izan ustian.

Beste damatxuk gozako dituz

zeuk ezin ahal dozunian.

## 80

I. **Kostel:** zaku mota handia.

**Saltzian:** saltzen.

**Ezpabe:** baizik, bestela.

**Eustan:** zidan.

**Zegan:** zenbatean, zer preziotan.

**Nagizula:** nazazula.

**Bazeustan:** bazenidan. Zuzenago legoke  
*bazeust, bazenit.*

**Emoidakezu:** emoidazu, emaidazu. *Ke*  
artizki horretatik *eman diezadakezu* zen-  
tzua ateratzea gehiegi izango da.

**Zein da dauana:** zein da dagoena.

**Eztona:** ez don, ez dun.

**Itxagon daizu:** itxaron ezazu.

**Jataz:** zaizkit.

**Urten daik:** urteik, irten hadi.

**Bentanarian... sospetxerian:** bentana-  
tik... sospetxatik. Atzizki arkaikoa.

**Urten dagian:** atera dadin.

II. **Neutsan:** nion.

**Itxi:** utzi.

III. **Datorke:** etorriko da.

**Jazo:** gertatu.

**Inuen:** zioten, esaten zuten.

**Lei:** leiteke, liteke.

**Arria bela:** erria bela, jaitsi, batu belak.

IV. **Moila:** kaia.

**Harexen damen:** dama haiexen.

**Zarian:** zarean, zaren.

**Daruadaz:** daramatzat.

**Ez eixu:** ez ezazu.

**Banakartzuzan:** banekarzkizun.

**Ezin ahal dozunian:** ezin duzunean.

*Ahal* hori sobra dago.

## ANA JUANIXE (II)

(Jon Aurre sorta. Ez dakar non jaso)

01. Kapitain jauna, arria bela  
txalopa nabegantian  
hainbat arinen sartu gaitez  
Mutriku herri onian.

02. Hogeita hamairu dama lindatxu  
Mutrikun moila gainian  
txalopatxu bat, txalopatxu bi  
Santa Klararen parian.

03. Ni banenguan kostel saltzian  
ezpabe gari saltzian  
hiru damatxu etorri ziran  
bata bestien atzian.

04. Hirugarrenak preguntau eustan  
gariak zegan zirian  
bestientzat dirutan eta  
zuretzat laztan trukian.

05. ...

...

ez nagizula lotsatu arren  
honelan plaza betian.

06. –Ana Juanixe, Ana Juanixe

zein da dauana etxian?  
–Katalinatxu auzokua da  
beroi laban dan artian.

07. Urten daik mutil, urten daik, mutil

halako bentanarian  
ama neuriak urten dagian  
kanpora sospetxerian.

08. Gariak eta zeu ta neu bere

han konponduko ginian.

09. Ama, berorrek ez dauela nahi

neure osasunik etxian  
bihotz-ilunak egiten jataz  
argia datorrenian.

01. **Arria bela:** erria bela, jaitsi, batu belak.02. **Moila:** kaia.03. **Kostel:** zaku mota handi bat.  
**Saltzian:** saltzen.04. **Preguntau eustan:** galdetu zidan.  
**Zegan:** zenbatean, zer preziotan.05. **Nagizula:** nazazula.  
**Arren:** otoi, mesedez.06. **Zein da dauana:** nor da dagoena.07. **Urten daik:** urteik, irten hadi.**Bentanarian... sospetxerian:** bentana-  
tik... sospetxatik. Atzizki arkaikoa.**Urten dagian:** irten, atera dadin.09. **Jataz:** zaizkit.

## ANA JUANITA (I)

(Euskal Baladak - Bigarren liburua, 60. or. - Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell. 1981eko abuztuaren 23an Jesus Antonio Cidek, Koldo Biguriak, Gabrien Frailek eta Ruper Lekuek Dima- Bargundian jaio eta Bizkaiko Arantzazun bizi den 74 urteko Eduarda Bilbao andereari jaso)

Gure anaje, ze barri ohi de  
Mutriku herri onian?

–Aite zeuriaz neu're bizi nez  
ez da barri onik handikan.

–Ezin esanak ete deukaguz  
anaje bion artian?

–Ana Juanitan ezkontzatxuek  
publikatu die kalian.

–Ana Juanita ezin ezkondu  
ni bizi nazen artian  
urre kattia eta medeila  
neuk dodaz idunerian.

Joieri baten sartu ginala  
joiotxuok zegan zirian

–Batzuentzako hamazortzian  
zurretat hamabostian  
hamabostian gure ez bauzu  
zeure gorputzen trukian.

–Eskerrik asko, dama gaztia  
Mutrikun deuket firmia  
hango firmia ikusi artian  
ezin emon nei berbia.

Heldu ginanian Mutriku horretan

Mutriku herri noblian

batak adios, bestiak agur

Ana Juanitak baperez.

–Ana Juanita, neure laztana  
gaur hemen zer pasatu de?

Kanpo jentia datorrenian  
agur eitia usu de.

Agur eitia usu de baia  
neuregandi bajadu de.

Bordegarairen semiak  
ai ze fortuna bagiak!

Urkamendiko oinian dago  
hango laugarren semia.

Bordegarairen zaldie  
lau hanketan zurie

zazpi pausotan pasatuten deu  
zortzi arkuko zubie.

Bordegarairen alabak  
ai ze andra fortunusak!

Hamabi urte dituzaneko  
garrian hiru kopetak.

**Anaje:** anaia.**Zeuriaz:** zeuriarekin.**Bizi nez:** bizi naz.**Deukaguz:** dauzkagu.**Die:** dira.**Dodaz:** ditut.

**Idunerian:** idunetik, samatik, lepotik. Atziz-ki arkaikoa.  
**Zegan:** zenbatean, zer preziotan.  
**Bauzu:** badozu.  
**Nei:** neike, nezake.  
**Baperez:** bat ere ez.

**Usu de:** usu da, ohizko da.  
**Baia:** baina.  
**Bajadu:** bajatu, jaitsi.  
**Kopeta:** buruko ileaz egiten den txorta, tren-tza.

### ANA JUANITA (II)

(*Ana Juanita Errromantzea - Eredu barriak (eta bigarren partea)*, Adolfo Arejita - **Idatz-Mintz, Literatur Atalen Sorta 7**)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Untzi bi agertu zirian<br>Santa Manterion parian<br>nere anajia etorriko da<br>batian edo bestian.            | 05. Bateorrek agur, bestiorrek agur<br>halan despedidu ginian<br>eguna bi'zan seinaladua<br>Santa Luzia gabian.     |
| 02. Nere anajia, ze barri dezu<br>Mutriku herri onian?<br>-Berriak onak, berriak txarrak<br>Ana Juanitan gainian. | 06. Galai gaztia, neiku al dezu<br>gaba honetako koplarik<br>nere senarra daukat entzuten<br>kuartoko bentanilatik. |
| 03. Ana Juanita ezkonduzen da<br>amaren da aitaren bozian<br>amaren da aitan bozian eta<br>bere desborondatian.   | 07. Zure semia besuan daukat<br>senarra aldamenian<br>orain tertzio txarra du eta<br>erdu tertzio onian.            |
| 04. Despedidako gabien bere<br>txorruetara ginian<br>urragorritzko joia bere<br>imini notsan bularrian.           | 08. Orain hil bere ein nozu eta<br>enterra naixu lurrian<br>enterra naixu lurrian bere<br>Birjina Marian aurrian.   |

09. Uragorritzko hiru-lau letra  
iminidezu sepulturian  
harek letrak esango dio  
zegaitik nagon ni lurrian.



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Anajia:</b> anaia.  | 06. <b>Neiku al dezu:</b> nahikoa duzu. <i>Neikua dezu</i> segurrenik, <i>ele</i> hori hor infiltratu delarik. |
| 03. <b>Bozian:</b> pozian, pozean.   | 07. <b>Tertzio txarra du:</b> tenore, ordu txarra dugu. <i>Dogu-dou-du.</i>                                    |
| 04. <b>Gabien bere:</b> gauean ere.<br><b>Jojia:</b> joia, bitxia.<br><b>Imini notsan:</b> ipini nion. | 08. <b>Naixu:</b> naizu, nazazu.   |
| 05. <b>Bateorrek... bestiorrek:</b> bat horrek...<br>beste horrek.<br><b>Bi'zan:</b> behar zen.        | 09. <b>Iminidezu:</b> iminidazu, ipindazu, ipiniezadazu.<br><b>Harek letrak:</b> letra haiek.                  |

### UDABARRIAN

(*Cancionero Popular Vasco*, 1051 or., R. M. Azkue)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Udabarrian zaharra erara<br>Londresko zitudadean<br>maitearentzat oiak erosten<br>denda aberats batean.     | 03. Bestearantzat diruetan da<br>zuretzat bihotz trukean.<br>Eskerrik asko dama galanta<br>ez dot armarik aldean. |
| 02. Dama galant bat topadu neban<br>tabladu baten ganean<br>kortesiaz itandu neutsan<br>oi horrek zegan zirean. | 04. Armak etxean itxi nituen<br>Motriku herri onean<br>Motriku herri onean eta<br>Ana Juanaren etxean.            |

05. Txalupatxu bat, txalupatxu bi  
Santa Klararen parean  
neure anaia hara hantxe dator  
Ana Juanaren legean.



01. **Oiak:** oheak. Azkuek hala dakar, *camas*  
erdaraturik, baina bistan da beste aldae-  
ra batzuk dakartenez, *joiak* behar duela.  
Londresen oheak erosten aritzeak ez  
dauka zentzu handirik.

02. **Itandu neutsan:** galdetu nion.  
**Zegan:** zenbatean, zer preziotan.  
**Oi horrek:** joia horrek, beraz, joia ho-  
riek.

04. **Itxi:** utzi, laga.

## PASKOALATXU

(Andres Lejarraga - Lezama. Jon Aurre sorta)

01. Paskoalatxu polita zara  
garria dozu liraina  
ulia bera modako fina  
ai zeu neuretzat bazina.

03. Beste batentzat hamazortzian  
zeuretzat hamabostian  
hamabostian gure ez badozu  
laztantxu baten trukian.

02. Errezoi hori esan bazeustan  
leku sekretu batian  
gariak eta zeu ta neu bere  
konpondu eingo ginian.



01. **Ulia:** ulea, ilea.

02. **Errezoi:** arrazoi.

**Bazeustan:** bazenidan. Hobeto legoke  
*bazeust, bazenit*. Bi aditz formok nahastea  
ez da, beraz, gaurko kontua bakarrik.

## ORRIAK AIREZ AIRE

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 108 or.)

Neska:

01. Orriak airez aire  
ifartxu dultzea  
landa-mintz ederrean  
doan errekea.

02. Hantxe topadu neban  
Birjina Maria  
orraztuten zebala  
buruko ulea.

03. Etzan ha ulea ez  
ezpada urrea  
ulondo bakotxeko  
zerion perlea.

Ama Birjina:

04. Hurreratu zakidaz  
arima maitea  
benetan maitatzen dot  
nik zure fedea.

05. Eskintza horregaitik zeuk  
neure alabea  
hartu izango dozu  
zeruko koroea.

Neska:

06. Nun dago, Amandrea  
zerorren semea  
zeruti jatsiriko  
gure mesedea?

07. Berak argitu daidan  
neure arimea  
ikusi daidan gero  
zeruko bidea.

Ama Birjina:

08. Hor goiko munatxoan  
oinak ortozean  
geriza emoten deutsan  
ganeko arantzean.

09. Han dago bada neure  
arantz-larrosea  
zuri ta gorria da  
neure amorea.

10. Begiak ditu baltzak  
urrezko ulea  
ahoa txit ederra  
ta zoragarria.

11. Ha maite ez dabenak bere bihotzean zer maitatu dagike damurik bagean?
12. Bere ondoren dabilz zeruko aingeruak ibarrak apainduten lora usaintsuak.
13. Txoria bere pozez soinu alegrean kantadu daroakez guztiak batean.
14. Irribarrez dihardutso landako loreak jantzirik bere ondran soineko barriak.
15. Lurreko abereak bere mesedean jaio ta harrezkero dagoz ardurean.
16. Zuekaitik bakarrik zerutik lurrera jatsi da nire Jesus gizon izatera.

17. Hagaitik, neure alaba kantau daigun kanta berari emoteko betiko alabantza.

## Neska:

18. Agur, Jesus laztana Jainko ta gizona zu beti izango zara gure zoriona.
19. Zeureak gara guztiz gorputz eta ariman izango gara bere bizitza guztian.
20. Izan gaitezazan zugaz aitaren etxean Espiritu dontsuaz Jainkotasunean.



01. **Orriak:** hostoak.  
**Landa-mintz:** landa hegal, zelai bazter.
02. **Zebala:** zuela.  
**Ulea:** ilea.

03. **Ha:** hura.  
**Ezpada:** baizik.
04. **Zakidaz:** zakizkit.

07. **Daidan... daidan:** lehenengoa *diezadan*. Bigarrena *dezadan*. Kointzidentzia hori ekiditen da lehenengoa *daistan* eginenez, eskualde askotan ohi denez.
08. **Munatxoan, muna:** lurraren gorakadaxoa, berezkoa edo eragina, soro bazterretan batez ere.  
**Deutsan:** dion.
11. **Dagike:** dezake.  
**Damurik bagean:** minik gabeen, penarik gabeen.
13. **Txoria bere:** txoria ere.
- Kantadu daroakez:** kantatu ohi dizkio-te. *Eroan* aditzak maiztasun zentzu hori ere bazeukan, gaur galdua du baina.
14. **Dihardutso:** ari zaio.  
**Landa:** zelai, belaze, pentze.
15. **Dagoz ardurean:** daude arduratan, arretaz, kezkaz.
17. **Daigun:** dezagun.
19. **Gara bere:** gara ere.
20. **Zugaz:** zurekin.  
**Dontsu:** dohatsu, santu.

## ORBELAK AIREZ AIREZ

(*Orriak airez aire: Jainko giroko balada kantu bat*, A. Arejita. **Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta** - 9, 26. or.)

01. Orbelak airez airez pipertxo dultzia Landamingo zubitik doian errekia.
02. Hantxe topadu neban Birjina andria ebalorraztuten buruko ulia.
03. Etzala ulia ze ezpazan urria ulondo bakotzeko erinoz perlia.
04. Imini bihar jako ule horri zintia ehun duket kosta dala Madrilen kania.
05. Kosta bedi berrehun de bai betor hobia nor izango ete da horrexen ehulia Maria Madalena aprostuladia.
06. Nor izango ete da horren joskilia Errege Don Felipen alaba lindia.



01. **Pipertxo:** beste aldaeretan *ifartxo*, *ipartxo* ageri da. Argi dago *pipertxo* hau la-bankada bat dela.  
**Landamin:** aurreko *landa-mintz* hemen toki izena da. Biak izan daitezke.
02. **Ebala:** zuela.  
**Ulia:** ilea.
03. **Ze:** partikula hau jantzigarri gisa sartzea ohizkoa da, esanahi kausal zuzenik gabe, kasu honetan *ezpazan* ekin lotura formala badu ere.

- Ezpazan:** baizik, ordea.  
**Erinoz:** ereinotz, zuhaitz mota bat.
04. **Jako:** zaio.  
**Duket:** antxinako diru bat.  
**Kania:** kana, luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa.
05. **Ehulia:** ehulea, ehotzen duena, ehuna egiten duena.
06. **Joskilia:** joslea, jostuna.

## PRANTZIE-KORTEKOA

(Zeanuri-Undurraga. K. Etxenagusia, **Euskal Idazleak bizkaieraz**, 22. or., Manuel Lekuonaren **Idaz-lan guztiak**. 1. Aozko Literatura<sup>o</sup>tik hartua)

01. Etorri nintzanean  
Prantzie-Kortetik  
ama bilatu neban  
suintian tristerik.
02. –Zer egiten dau, ama  
horrelan bakarrik?  
–Nobedade barriek  
entzun dodaz bai nik.
03. –Ze nobedade barri  
entzun dozu, ama?  
–Ezkonetan zarela  
bai, seme laztana.
04. Nondikoa dakazu  
zeure emaztea?  
–Prantzie-kortekoa  
bai, ama neurea.
05. –Ez dot gure prantsesik  
hain gitxi errainik.  
–Esan dodan berbiaz  
urten bihar dot nik.
06. –Esan dozun berbiaz  
urten bihar bozu  
urten bidera eta  
hil ein bihar dozu.

07. –Hain de polite ba ze  
nire emaztea  
ez da posible, ama  
nik hori eitea.
08. –Zuk ezpozu posible  
hartu anaijia  
anaije gaztea ta  
estudiantia.
09. –Juanita, jatsi zaitte  
zaldien gainetik  
sar daitzudan puñal hau  
bihotzen erditik.
10. –Ai! Horren puñalaren  
puntien zorrotza!  
Ikusiz beste barik  
hiltzen deust bihotza.
11. Zazpi zaldi daukadaz  
ixeraz jantzita  
zortzigarrentxoa barriz  
perlaz estalita.
12. Harek emongotzudaz  
ixtiarren bizirik  
–Harek neuretzat baina  
ez itxi bizirik.
13. –Horrez gainera dekot  
urre-kalizia  
urre-kalizia ta  
sobrepelizia.
14. Harek emongotzudaz  
ixtiarren bizirik.  
–Harek neuretzat baina  
ez itxi bizirik.
15. Kanpai bat entzuten dot  
ez dakit nongoa  
igual izango da  
agoniekkoa.
16. –Abadea ekarrizu  
konfesadu naiten  
arimaren okerrak  
arteztu daidazen.
17. –Abadea urrin dago  
eliza urrinago  
oin horretan hasteko  
asti gitxi dago.
01. **Suintian:** sutean, sukaldean.  
**Ezkonetan:** ezkontzen.
02. **Egiten dau, ama:** berorikako trataera.  
**Dodaz:** ditut.
03. **Entzun dozu:** orain trataera normalera aldatzen da.
04. **Dakazu:** dakarzu. *Daukazu* ere izan daiteke zenbait herritan.
05. **Hain gitxi:** are gutxiago.

- Berbiaz urten:** hitzarekin irten. Esamolde honek hitza bete edo hitza aurrera atera esan nahi du.
06. **Bozu:** badozu.
08. **Ezpozu:** ez badozu.  
**Anaija:** anaia.
09. **Daitzudan:** diezazudan.
10. **Puntien:** puntaren.  
**Beste barik:** beste gabe.  
**Ikusiz beste barik:** ikusiz batera, berehala.  
**Deust:** dit.
11. **Daukadaz:** dauzkat.  
**Ixera:** izara, maindire.
12. **Emongotzudaz:** emango dizkizut.  
**Ixtiarren:** uzteagatik.
13. **Dekot:** daukat.  
**Urre-kalizia:** urrezko kaliza.  
**Sobrepelizia:** sobrepeliza, apaizaren meza jantzi bat.
16. **Konfesadu naiten:** konfesa nadin.  
**Arteztu:** zuzendu.  
**Daidazen:** ditzadan.
17. **Urrin:** urrun, urruti.  
**Oin:** orain.

## PRANTZIE-KORTEKOAREN GEHIGARRIAK (I)

(Prantzie-Kortekoa Erromantzea, Idatz-Mintz, Literatur Atalen Sorta 2, 29-31 orrialdeetatik hartuak)

Ereño:

–Frantziara joan nintzan  
ni gazte gazterik  
da hantxe paradu nintzan  
andrea harturik.

–Egun on daukozule  
Bizkaiko semie.  
–Halan ekarri deiela  
Frantziko alabie.

–Horrek neureak dira  
zuk emon bagarik  
andrea, jatsi zaite  
zu mando gainetik.

–Zazpi izera ditut  
odolez beterik  
zortzigarrena ere  
ia estaldurik.

–Agur Bizkaiko seme  
ta emaginarreba  
sube-muskar haundi bat  
tragauko ahal jana!

∞

**Paradu:** paratu, jarri, kokatu.

**Daukozule:** daukazula, eduki dezazula.

**Halan ekarri deiela:** hala ekar dezala (berorrek). *Halan ekarri* hau oso formula hedatua da bizkaieran, batez ere *egun on* en erantzun gisa.

**Bagarik:** gabe.

**Emaginarreba:** amagiharreba, senarraren edo emaztearen ama.

**Subemuskar:** suge-musker, muskerra. Azkuek bere hiztegian Peru Abarkaren pa-

sarte hau dakar: "Muskerra da musu okerra, zelan eskerra esku- okerra". Baina *musker* kolore berdea ere bada, eta hortik *suge-muskerra*, zenbait tokitan oraindik ere esaten denez. Gehienez *muskerra* soilik, suge mota horren kolorea hain zuzen.

**Tragauko ahal jana:** hilko ahal zain, hobe hilko balitzain. *Tragau* edo *tragatu* aditza hil baino gogorragoa da, gizakiei aplikaturik. Esaera da: *Tragau animaliak tragatzen dira, pertsonak hil*. Horrez gainera, tragatzen dena suge-muskerra bada, madarikapen handia da hori norbaiti opatzea.

Arantzazu:

–Ai neure amaginarreba  
muskerrez betia!  
Subeak eingo ahal detzu  
arratserako ohia.

–Hiru anaje dodaz  
Prantzieko herrien  
ai harek balekie  
hemen zer dabilen!  
Zabalduko leukie  
España guztien.

∞

**Subeak eingo ahal detzu:** sugeak egingo ahal dizu, hobe, oxala egingo balizu. Bai dela madarikapen gogorra eta adierazpide bortitzekoa sugeak ohea egitea. Norbaiti heriotza opatzeko formula indartsuagorik nekez asma daiteke.

**Anaje:** anaia.

**Dodaz:** ditut.

**Harek balekie:** haiek balekite. *Harek* leku askotan *berak* edo *beraiek* izan daiteke, azentuak berezten dituelarik.

**Leukie:** lukete.

Dimako Bargundia:

–Kaixio koinetue  
estudiantea  
zuretako hemen dakat  
urre-kalizea.

–Ai neure amaginerraba  
muskerrez bete!  
Subeak egingo ahal dautso  
arratseko ogea!



**Kaixio koinetue:** kaixo koinatu. Emaztearen neba, edo senarraren anaia. Femeninoan *koinata* erabiltzen da.

**Dakat:** dakart. Herri batzutan *daukat* ere izan daiteke.

Galdakao:

–Estudiantea be  
ondino gaztea  
hogetazazpi urte  
kunplidu bagea.

–Zazpi ixeratxu dodaz  
odolez beterik  
zortzigarrentxu honek  
naroa mundutik.

–Zazpi nebatxu doiaz  
Frantzia partian  
hareik balekie  
hemen zer pasetan dan!

–Zortzi oin luze  
hiru oin zabal  
egingostie kaja bat  
...



**Ondino:** oraino, oraindik.

**Ixeratxu:** izaratxo, maindiretxo.

**Neba:** senideen artean mutila neskarentzat. Bizkaieran bakarrik gordetzen den hitza, besteetan, hegoaldean behintzat, *anaia* delarik, berdin mutilarentzat nahiz neskarentzat.

**Dodaz:** ditut.

**Naroa:** narama.

**Eingostie:** egingo didate.

## PRANTZIE-KORTEKOAREN GEHIGARRIAK (II)

(Euskal Baladak - Bigarren Liburua, Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell, 97. orrialdetik aurrera)

Mendata:

–Hartuizu laguntzako  
zeure anaiea  
anaietatik bere  
estudiantea.

–Hemen hil behar dozu  
Frantziako andrea.  
–Zegaitik hil bihot ba  
Bizkaiko semea?

–Egun on dakarrela  
Frantziako andrea.  
–Halan ekarri daijala  
Bizkaiko semea.

–Agur Bizkaiko seme,  
amaginarreba  
suge-muskar handi bat  
sartuko ahal jana!



**Hartuizu:** har ezazu.

**Daijala:** dezala.

**Dakarrela:** bekar, ekar dezala (berorrek).

**Bihot:** behar dot.

Araotz:

Etorri nintzarian  
Frantziako kortetik  
ama bilatu nuan  
etxian bakarrik.

–Hiru anaitxo ditut  
soldadu juanik  
harek hemen baneuko  
ez neuke bildurrik.

–Bakar bakarrik eta  
bai triste tristerik  
silan jazarri eta  
haiziak harturik.

–Utziok ba, utziok  
anaia neuria  
pena emoten xotak  
holan ikustia.



–Lehenago esan bihar ebian  
esan duan berbia  
honezkero hartu xok  
herida golpia.



**Jazarri:** jezarri, eseri.

**Haiziak harturik:** haize txarrak jota, hase-  
rez edo amorruz.

**Harek hemen baneuko:** haiek hemen ba-  
neuzka.

**Emoten xotak:** ematen zidak.

**Bihar ebian:** behar huen.

**Berbia:** hitza.

**Hartu xok:** hartu dik.

Frantziako Gorteko mutilaren balada honek zenbat buru hainbat aldaera dauzkala esan daiteke. Bi gehigarriotan, lehenengo aldaera osoarekiko pasarte ezberdinak bakarrik hautatzen saiatu naiz.

## BIETA SANTA KLARA

(*Santa Klararen kantak*, Manuel de Lekuona. **Idazlan guztiak 1. Aozko Literatura**, 469. or.)

01. Bieta Santa Klara  
euskeraz argia  
zu zera zeruetan  
dontzeila garbia.

02. Amaren entrainetan  
zenduan grazia  
munduan ipinteko  
exenplu haundia.

03. Zure haurtasuneko  
denbora guzia  
izan zan erreguzko  
exenplu bizia.

04. Alkargana baturik  
harri koskortxuak  
kontatu ohi zenduzan  
errosariuak.

05. Hamazazpi urtera  
ailegatu gabe  
Jesusen tesoruen  
egin zinan jabe.

06. Palma eder bategaz  
Erremu goxian  
agertu izan zinan  
Asisko kalia.

07. Hamazazortzi urtetan  
monja sartu zinan  
monja sartuta bere  
Klara izan zinan.

08. Aita San Prantziskua  
padrino harturik  
esposa izan zinan  
aitamen ixilik.

09. Berrrogetamar moja  
ditu janaritu  
ogi bakar bategaz:  
erdia gelditu.

10. Eskuan daruazun  
gauzaren handia  
Kustorio batian  
Jesusa bizia.

11. Zu ikusirikan  
moruak igesi  
Sakramentu Santua  
zizuten ikusi.

12. Uso zuri ederra  
zeruan zer berri?  
–Zeruan berri onak  
orain eta beti.

13. Ontziaren punteko  
bandera gorria  
zu zara, Santa Klara  
Dontzeila garbia.

14. Mojen erregaluak  
intxaurrek ohi dira  
haixek ere guztiak  
bai pinak balira!



01. **Bieta:** beata.

02. **Entrainetan:** erraietan.

04. **Zenduzan:** zenituen.

06. **Goxian:** goizean.

07. **Sartuta bere:** sartuta ere.

09. **Bategaz:** batekin.

10. **Daruazun:** daroazun, daramazun.  
**Kustorio:** ekisaindu, kustodia, Hostia  
Santua erakusteko pieza urrezko edo zi-  
larrezkoa.

14. **Haixek:** haixek.

Manuel Lekuonak Santa Klararen Kanta hauek zahartzat eta balio handiko-  
tzat jotzen ditu.

## ERDERAZ SANTA KLARA

(Ondarru: kantu, otoi, orru.... Ondarroako Kultur Etxearen argitarapenak - 1984 - 63. or.)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Erderaz Santa Klara<br>euskeraz argia<br>zeu zara zeruetan<br>izar bat garbia.  | 07. Hamazortzi urtegaz<br>agur munduari<br>eginda izan zinan<br>zelda maitelari.         |
| 02. Haugaitik marinela<br>dauke guraria<br>gaur emon dakizula<br>zor jatzun gloria. | 08. Jesus zalako zure<br>guztiz maitagarri<br>bihotza emon zeuntsan<br>osorik berari.    |
| 03. Zeure umetasuneko<br>denpora guztia<br>izan zan erreguzko<br>ejenplu bizia.     | 09. Jesusgaitik zenduan<br>bizitza guztian<br>jardun nekiak hartzen<br>zeure gorputzian. |
| 04. Alkargana baturik<br>harri koskortxuak<br>zenbatu ohi zenduzan<br>errosariuak.  | 10. Baru, zilizio ta<br>lurraren gainian<br>lo eginaz uda eta<br>negu gogorrian.         |
| 05. Saritu izan zaitu<br>Birjina Mariak<br>sendatu dituala<br>zure erabagiak.       | 11. Frantziskoren alaben<br>errelejinua<br>jarteko izan zinan<br>lehenengo hautua.       |
| 06. Palma eder bategaz<br>Erramu goizian<br>jarri izan zinan<br>Asisko kalia.       | 12. Ta milaka askoren<br>orain gurasua<br>zarialako zara<br>Santa indartsua.             |

- |  |  |
|--|--|
| 13. Zu ikusita duaz<br>moruak igesi<br>zugaz Sakramentua<br>ebelako ikusi.           | 16. Zeruan amatzat askok<br>zaitue alabetan<br>lurrian gurasotzat<br>ez gitxik ondretan. |
| 14. Berrogeta hamar monja<br>ditu janaritu<br>ogi bakar bategaz<br>ta erdia gelditu. | 17. Elexiak Jesusen<br>laguntzat kontetan<br>bitarteko dogula<br>guk Klara kantetan.     |
| 15. Handiak izan dira<br>zure mirariak<br>horregaitik zaukaguz<br>gure gidaritzat.   | 18. Zaindu izan gaituzu<br>zure mantupian<br>eskerrak, gure Ama<br>ta hurrengo artian.   |
- ∞
- |   |   |
|---|---|
| 02. <b>Dauke:</b> daukate.<br><b>Guraria:</b> nahia, gogoa.<br><b>Jatzun:</b> zaizun. | 11. <b>Errelejinua:</b> erlijioa.<br><b>Hautua:</b> hautatua, aukeratua.                  |
| 04. <b>Zenduzan:</b> zenituen.  | 13. <b>Zugaz:</b> zurekin.<br><b>Ebelako:</b> zutelako.                                   |
| 05. <b>Erabagiak:</b> badirudi <i>ebagiak</i> izan behar<br>duela, ebakiak.           | 15. <b>Zaukaguz:</b> zauzkagu.  |
| 06. <b>Bategaz:</b> batekin.  | 16. <b>Zaitue alabetan:</b> zaituzte alabatzen.<br><b>Ondretan:</b> ondrazten, ohoratzen. |
| 07. <b>Urtegaz:</b> urtekin.  | 17. <b>Eleixiak:</b> elizak.<br><b>Kontetan... kantetan:</b> kontatzen... kan-<br>tatzen. |
| 08. <b>Emon zeuntsan:</b> eman zenion.  |   |

## USO ZURI EDER BAT

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 1059 or.)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Uso zuri eder bat<br>oinetan ortozik<br>aldatzean gora doa<br>hegoak zabalik.         | 05. Zeruko aingeruak<br>organuajoten<br>hamabi apostoluak<br>mezea entzuten.        |
| 02. Aldatzen goieneko<br>zelai eder baten<br>Birjinea topau neban<br>atseden egiten.      | 06. Jesusen jardineko<br>lorearen argia<br>bera ta Santa Klara<br>dontzeila garbia. |
| 03. Kristoren Birjinea,<br>hor zer eiten dozu?<br>-Kristo bilatzen nabil<br>ikusi badozu. | 07. Amaren erraietan<br>zenduan grazia<br>munduan ibilteko<br>ejenplu handia.       |
| 04. Kristo zeruan dago<br>mezea esaten<br>aingeru San Gabriel<br>mezea erasoten.          |   |



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Ortozik:</b> oin hutsik.<br><b>Aldatzean:</b> aldapan. | <b>Topau neban:</b> aurkitu nuen.                                     |
| 02. <b>Goieneko:</b> goreneko, goren aldeko.                  | 04. <b>Erasoten:</b> Meza lagundu. Apaizak esan,<br>bereterrak eraso. |

Ikusten denez, aldaera honetan Ama Birjinaren (Arantzazuko erro-mantzeetan) eta Santa Klararen koplak nahasten dira.

## IA DIRADE HIRUROGEI URTE

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 142 or.)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Ia dirade hirurogei urte<br>sartu nintzala pastore<br>eguno bere ez dot nik izan<br>hotzaz honenbat dolore.        | 07. Zazpi oin luze hiru oin zabal<br>zerraldo bat apaindua<br>hantxe sartuta jartzen gaituez<br>horra munduko pagua.   |
| 02. Mendi hontatik Ilarmendira<br>hirurehun bat hil dire<br>Jaun zerukoak gorde nau, eze<br>hilgo nintzan neu bere.    | 08. Hilkutxatxo bat zugana orduko<br>apalzale Ama horrek<br>zeure senarra harotza da ta<br>egin daiala esaizu.   |
| 03. Goitiko artzain zoriz beteak<br>geldi zakiguz gaur hemen<br>geldi zakiguz, kanta dagigun<br>zer igaro dan Belenen. | 09. Zazpi teila ta hiru latatxu<br>hurrean askoko dituz<br>egin daiala ermitatxo bat<br>deritxona Arantzazu.   |
| 04. Gizabidez gaur gelditu naiz<br>ezin nengoke luzaro<br>abere artean mendi garaietan<br>gau txarra igarota nago.     | 10. Oinatiarrak, Oinatiarrak<br>ea bada gaur dirautsut<br>zuen San Migel Oinatikora<br>birritan eratsi nozu<br>hirugarrenez erasten banozu<br>kontuan edukiko dautzut. |
| 05. Oi hau indriska ta inetazia<br>oi hau gabaren larria!<br>Ordu erdirik luzatu bage<br>hil zan artalde guztia.       |  |
| 06. Geure Ama maite, Andra Maria<br>gure barri zeuk dakizu<br>ordu erdiko bizi izaterik<br>seguru inoiz ez dogu.       |  |



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Eguno bere:</b> egundo ere, sekula ere.<br><b>Honenbat:</b> honenbeste.   | <b>Pagua:</b> ordaina, pagantza.  |
| 02. <b>Eze:</b> ze, ezen, zeren.   | 08. <b>Daiala:</b> dezala.  |
| 03. <b>Zakiguz:</b> zakizkigute.<br><b>Dagibun:</b> dezagun.                     | 09. <b>Latatxu, lata:</b> teila azpian jartzen den ohola.<br><b>Hurrean:</b> nonbait, hor nonbait, hainbaiten.              |
| 04. <b>Ezin nengoke:</b> ez ninteke egon.  | 10. <b>Dirautsut:</b> diotsuet, esaten dizuet.<br><b>Birritan:</b> bi aldiz.<br><b>Eratsi:</b> jaitsi erazi, behera ekarri. |
| 05. <b>Indriskia:</b> euri zaparrada.<br><b>Inetazia:</b> txingorra, kazkabarra. |   |
| 07. <b>Gaituez:</b> gaituzte.  |   |

## BAKARRIK AURKITZEN NAZ

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue, 484 or.)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Bakarrik aurkitzen naz<br>neure anparuan<br>neure konpesinoa<br>egitera noa.     | 04. Joaten naz elizara<br>mezea entzuten<br>tenplura joaten naz<br>galaiak ikusten.    |
| 02. Aita, akusatzen naz<br>neu lehenengoagaz<br>gure Jaungoiko ona<br>amadu ezagaz.  | 05. Agur, aita prailea<br>izio kandealea<br>prestau bei andea.<br>...                  |
| 02. Aita, akusatzen naz<br>neu bigarrenean<br>egin dot juramentu<br>guzurren ganean. | 06. Praile santua dago<br>guztiz harriturik<br>dama ikusten zuela<br>belaunetan hilik. |

07. Ezpan koral ederrak  
ondo lur eginik  
begi zuri ederrak  
guztiz ezaindurik.



- |   |  |
|---|--|
| 02. <b>Amadu ezagaz:</b> ez maitatu izanaz.   | <b>Andea:</b> anda, hilkutxa, zerraldoa. |
| 03. <b>Guzurren:</b> gezurraren.  | <b>Andariak:</b> hilkutxa daramatenak.   |
| 05. <b>Izio kandealea:</b> iziotu, izeki, piztu kandealea.<br><b>Prestau bei:</b> prestatu, prest jar beza. | <b>Andabidea:</b> hilak eramateko bidea. |
|   | 07. <b>Ezaindu:</b> itsustu, itxurgatu.  |

Hilzorian dagoen dama batek egindako konfesioa. Azkuek dio: *No quise tomar nota de toda la confesión, por larga y sosa.* Eskertuko genion, osorik jaso balu.

## AMA BIRJINEAREN BARRI ONAK

(Bermeoko Gabon-kanta. ZER, 1984, Uztaila-Dagonila, 77. zenbakia)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Ave Maria, graziaz betia<br>Jauna da zugaz, Andria<br>andra guztien artian bere<br>zara zeu bedeinkatia.  | 03. Atiak eta zerrajak bere<br>barrutik daukadaz itxirik.<br>-Ez ikaratu, dontzeila ederra<br>hemen ez dago gizonik. |
| 02. Nazaretoko tenpluan dago<br>dontzeila eder bat jarririk<br>ixena bere Maria dauko<br>graziaz adornaturik. | 04. Aingeru San Gabriel dator<br>gizonan forman jantzirik.<br>-Jaungoikoaren ama ixateko<br>badozu borondaterik?     |

05. –Borondatia bai daukat baina ez daukat merezimenturik.  
–Merezimentu daukazulako zaudakaz eskojidurik.
06. –Aingeru ona, zeuk zer dakazu zerutik enbajadia?  
–Humildadia, karidadia Jaunaren borondatia.
07. Sancta Maria, gratia plena Dominus tecum, benedicta tu Birjina Amaren sabel santuan Salbadoria da sortu.
08. Humildadiak edegiten dau zeru altuko atia karidadiak emoten dau osasuna ta bakia.
09. Humildadia ta karidadia zara zeu, Birjina garbia Jaungoikoaren mirabetik Jesusen Ama egin zarana.



01. **Artian bere:** artean ere.  
**Bedeinkatia:** bedeinkatua era femeni-noan.
02. **Zerraja:** zerraila, zerrapo, herskailu.  
**Daukadaz:** dauzkat. Badirudi *daukaz* (dauzka) behar duela.
05. **Zaukadaz:** zauzkat.  
**Eskojidu:** hautu, hautatu.
06. **Dakazu:** dakarzu. *Daukazu* ere izan daiteke toki batzutan.
08. **Edegiten dau:** irekitzen du.

## SAN PEDRO ETA ZERURA DOANA

(Luzia Arteaga, Dimako Oba. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., 54. or. - Jose Ramon Arbe, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta hamarren artean)

01. Justo hil eta zuzen zeruko atera igonean bertatik oles egitera.
02. ... urtenik San Pedrok itaundu eutsan laster –Zer eskatutzen dok?

03. –Zer eskatutzen dodan?  
Barrura sartzea.  
Arren zabaldu begi mesedez atea.
04. –Hau zabalduerako behar joat ikusi zerurik ete doan behian irabazi.
05. Ezkondua izan haz ala mutilzaharra?  
–Ezkondua eta euki joat andra txarra.
06. –Zetarikoa izan dok bada andrea?  
–Alper, zital ta hordi parerik bagea.
07. –Urte askotan egin haz beragaz bizi?  
–Berrogei bat behinepin egin dodaz nahasi.
08. –Holan berrogei urte andra hain txarragaz ez dok gitxi eroan bizitzan beragaz.
09. Hator ordu onean hator gizajoa edozein andra badok purgatorioa.
10. Ba jakiat hirea dala inpernua ta ondo irabazi doala zerua.



01. **Justo:** juxtu, juxtuan. Nor-izena ere izan daiteke noski, baina ez da probablea.  
**Igonean bertatik:** igo eta bertan, igoaz batera, edo baita igotzean bertan, igotzen ari zela. Ez da oso esamolde argia.  
**Oles:** dei, agur egin, batez ere norbaiten atean.
02. Lehen lerroa falta da.  
**Itandu eutsan:** galdetu zion.
03. **Arren:** otoi, mesedez.  
**Begi:** bei, beza.
04. **Zabalduerako:** zabaltzerako, zabaldu aurretik.  
**Joat:** diat.  
**Ete doan:** ote duan, dukan.
06. **Zetarikoa:** zer eratakoa, nolakoa.
07. **Beragaz:** berarekin.  
**Dodaz:** ditut.
08. **Eroan:** eraman.
10. **Jakiat:** zekiat.  
**Doala:** duala, dukala.

## ENOJADURIK

(XVII. mendeko Bizkaiko Amodio-kantu ezezagun bat: ENOJADURIK - Adolfo Arejita - Euskeraren Iker Atalak 5 - Labayru Ikastegia, 16. or. "Jaime Kerexetak idoro dau Elorrioko kontu-liburu baten. ... Ez dago argi 1611, 1622 ala 1633 dan".

Dama eder batereanik  
 ez dakidala zegaiti  
 enojadurik aditu jataz  
 hil eiten nauden begi bi.  
 Hain tristerik eta gustu gitxigaz  
 nigana bihor zitean  
 ze enojadurik egozeana  
 nigaz agiri eudea(n).  
 Ez dakit zer da(n) kausea  
 baia aditu ta bertati enojadu.  
 Ez daukat nik triste honek  
 merezidua guztia  
 merezitzaga iminiagaz  
 hain altu oneretxia  
 amorean lizentzia honetan emonagaiti  
 enojadurik  
 begi ederrok emaiten deuste  
 disfaborerik asko  
 (...) ok zirea ik(...)s  
 (...)n le(...)



**Enojadurik:** enoiaturik, haserraturik.

**Batereanik:** batengandik.

**Aditu jataz:** begiratu zaizkit literalki. Gaur ere *aditu* aditzak zenbait herritan *begiratu* esan nahi du, baina ez intransitiboan, adibide honen garaietan normala zenez.

**Nauden:** naben, nauten.

**Gitxigaz:** gutxirekin, gutxiz.

**Bihor zitean:** bihurtu, itzuli ziren.

**Egozeana:** egozeta, zeudena.

**Nigaz:** nirekin.

**Eudean:** zuten.

**Baia:** baina.

**Merezitzaga:** merezitzeke, merezi gabe.

**Iminiagaz:** iminiagatik, ipini izanagatik.

**Oneretxia:** maitasuna.

**Amorean...emonagaiti:** amoreari ekinagatik, entregatzeagatik.

**Deuste:** didate.

**Disfamore:** muzin, desplante.

## LARROSA KRABEL

(Gorago aipatu artikulu bera, A. Arejitarrena, orrialde berean. Arrasateko Udal Arkibuan Pedro Uribarrenak aurkitua)

Larrosa krabel jazmin lore  
 galant guztiak baturik  
 erramilete eder bat dago  
 herri honetan jaiorik.  
 Hain da ederra, dauko eguzkia  
 konfendidua harturik.

## JAUN ZURIANO

(Mendebaldeko euskal baladen antologia -A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. Euskeraren Iker Atalak 5 - Labayru Ikastegia, 64. or. Baita ale berean: *Jaun Zuriano baladaren eredu berria eta azterketa*, Maria Eugenia Markaida).

01. -Kanzuriano, Kanzuriano  
 lo bazagoz itzarri  
 -Enago ni lo, enago ni lo  
 Moru herriko moru hori.  
 Nok esan deustu nire izena  
 Truku herriko truku hori?

02. Enaz ni moru herrikoa  
 gitxiago truku herrikoa  
 hobetuago izango naz ni  
 zeruetako aingerua.

03. –Jaun zerukoak bialtzen nau ni  
gaur zugana mandatari:  
zure esposa doñe Errose  
bihar dala espose barri  
bihar da espose barri eta  
bihar goizerako heldu bedi.
04. –Hemetik eta ene etxera  
bostehun legua da bide  
bostehun legua da bide eta  
nik harek zelan ebagi?
05. –Horiek ebagitiarren  
zer emongo zeunkio zuk hari?  
–Berrehun kana urre-zintxa  
Ama Graziakuari  
hamalau libra argiziritxu  
Andra Santa Ursulari.
06. –Horra hor goian zazpi zaldi  
euretariko bategaz  
gau eta egun ebagi.
07. –Oles oles, Dios te salve  
nik ostatua nahi neuke  
–Hemen ez dago ostaturik eta  
beihue pobre hori aurrera.
08. –Oles oles, Dios te salve  
nik ostatua nahi neuke  
–Hemen ez dago ostaturik eta  
beihue pobre hori aurrera.
09. –Oles oles, Dios te salve  
nik ostatua nahi neuke  
–Egun okupaue daukogu te  
beihue pobre hori aurrera.
10. –Kanzuriano bizi zanean  
pobreak hemen baeben ostatua  
–Kanzuriano aitetu dau eta  
betor pobre hori aurrera.
11. Silan ezarri erromes hori  
oinak garbitu  
painua hartun da sikatu.
12. –Begiak begi badirudi  
minak guzurra esan ez baledi  
gaurko gure erromes honek  
Kanzuriano dirudi.
13. Ixilik on hadi batxiler hori!  
Antxina hil da enterraute daukon  
Kanzuriano heure hori.
14. –Hortxe kaxan dago ezpatie  
Kanzuriano itxie.
15. Gaurko ezkongai horrek  
ataraten badau ezpatie...  
Juan da ezkongai hori  
ez dau atara ezpatie.
16. –Ia gaurko erromes horrek  
ataraten badeu ezpatie.  
Juan da erromesa ta  
atara dau ezpatie.
17. Pozez beterik doñe Errosek:  
–Zu zara senar neurie.



01. **Kanzuriano:** Jaun Zuriano. Bizkaiko  
behinolako Jaun Zuriaren aipua izan dai-  
teke.  
**Bazagoz:** bazaude.  
**Itzarri:** itzartu, ernatu, esnatu.  
**Deutsu:** dizu.  
**Truku:** turku, turkiar.
02. **Heldu bedi:** irits bedi (berori, zu).
03. **Hemetik:** hemendik.  
**Harek zelan ebagi:** haiek nola ebaki,  
hots, nola laburtu edo egin legoa haiek.
04. **Ebagitiarren:** ebakitzeagatik.  
**Zeunkio:** zenioke.  
**Kana:** luzera neurria, metroa baino zer-  
bait laburrago.  
**Argiziri:** argizari, kandelak egiteko gaia.  
Baita kandela bera ere.
05. **Bategaz:** batekin.
06. **Beihue:** bihoa, joan bedi.
07. **Okupaue:** okupatua.
08. **Baeben:** bazuten.  
**Aitetu:** aitatu, aipatu.
09. **Sila:** kadira, aulkia.  
**Hartun:** hartu.  
**Sikatu:** lehortu, idortu.
10. **Ez baledi:** ez baleza.
11. **On hadi:** egon hadi.  
**Enterraute daukon:** ehortzita daukan  
(hik).
12. **Kaxa:** kutxa.  
**Ezpatie:** ezpata.  
**Itxie:** utzia.

## BIRJINA ARRATEKOA (I)

(Eibar aldizkaria. 1984ko abuztua-iraila. 264. zenbakia, 8. or.)

01. Arrateko zelaiko  
bai floridatea  
handixek gora dago  
zerura bidea.
02. Aldatza igaro ta  
zelai landa baten  
Birjina ta Semia  
atsegin hartutzen.
03. Lirio berdez jantzirik  
dago Arraten altaria  
haintxen kantatzen dabe  
ederki Salbia.
04. Zerura gura neuke  
zerura boladu  
ainguruak balidakez  
heguak prestatu.

05. Heguak balirade argizarizkuak urtuko lituzkela eguzki beruak.
06. Bai eta hausi bere ipartxo senduak bai eta hausi bere ipartxo senduak.
07. –Zerura noa ni ta nork nahi du etorri? Orain etorri jataz hiru mandatari.
08. Atzo etorri jataz hiru mandatari uso zuri eder bat aingeru polit bi.
09. –Uso zuri ederra zeruan ze berri? –Zeruan berri onak orain eta beti.
10. –Zer dakazu bada zeruko gauzarik? –Olibo adartxo bat Birjinak emanik.
11. –Birjinak emanik ta noizko izentaurik? –Erramu egunerako bai seinalaturik.
12. –Erramu urrin da ta igar ez baledi! –Hori igartzen bada beste bat ekarri.
13. Zeruan asko dagoz olibo adarrik olibo adarrik eta lirio lorarik.
14. Lirio lorarik eta santu ta santarik ez dala igartuko zeruko gauzarik.
15. Aita San Pedro dago zeruan giltzari Ai Jaunak egin banindu giltzaren jabe ni!
16. Atiak ereiteko aita neuritari lehenengo aitari ta hurrengo amari.
17. Handik eta aurrera mundu guztiari handik eta aurrera mundu guztiari.
18. Arrateko zelaiko bai floridatea handixek gora dago zerura bidea.

19. Nere Ama Birjina Kontzezinokua arren mobitu zazu neronen gogua.
20. Zeruko jardineker loraren artian egon beharko degu egunen batian.

∞

01. **Floridatea:** loretasuna, loretza.
02. **Aldatza:** malda, aldapa.  
**Landa:** lau, ordoki.
04. **Boladu:** hegatu, hegaldatu.  
**Balidakez:** Bizkai-gipuzkerazko nahastea: *prestatuko balizkit*.
07. **Jataz:** zaizkit.
10. **Dakazu:** dakarzu. *Daukazu* ere izan daiteke zenbait herritan.
11. **Izentaurik:** izendaturik, seinalaturik.  
**Erramu egun:** pizkunde aurreko igandea.
12. **Urrin:** urrun, urruti, asago.
16. **Ereiteko:** irekitzeko.

Ondorengo sortan aipatzen den *Mendebaldeko Euskal Baladen Antologia*'k hamazazpi koplako bertsiok dakar eta zenbait xehetasun ezberdin. **Eibar** aldizkarikoak bertsiok zuzenagoa dirudi.

## BIRJINA ARRATEKOA (II)

(*Mendebaldeko euskal baladen antologia*, A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. **Euskeraren Iker Atalak 5** - Labayru Ikastegia, 85. or. Eibarko aldaera, Iñazio Ormaetxebarriak bildua. "Eibar", 1963)

01. Aldatza igaro ta zelai landa baten han dago Jesukristo mezia esaten.
02. San Pedro ta San Paulo mezia erasoten hamaika mila aingeru koruan kantaten.



03. Aita San Frantziskua  
organuajoten  
hamabi apostoluak  
mezia entzuten.

04. Arraten altarea  
erramuzjantzirik  
lirio zuririk ta  
lirio gorririk.

05. Haintxe kantaten dabe  
Salbea ederki  
neu bere haraxe noa  
ikasi ahal banegi.

06. Gabean salbea ta  
goizean mezia  
Birjina Arrateko  
zeruko loria.



02. **Erasoten:** meza laguntzen, bereterrak,  
monagiloak egiten duena.

03. **San Frantziskua:** artikulua mugatzaile  
eta guzti. Textu zaharraren seinale.

05. **Kantaten dabe:** kantatzen dute.  
**Ahal banegi:** ahal baneza.

06. **Gabean:** gauean.

Piezatxo honetan deskribatzen den meza modua ez dakit oso kato-  
likoa den, baina grazi handia egin dit beti. Jesukristo bera meza esale, San  
Pedro eta San Paulo bereter, San Frantzisko organu jole, eta hamabi  
apostoluak meza entzule. Ez al dugu esan, ba, San Pedro meza erasotzen  
ari zela? Ez da harritzekoa, bosgarren koplari dionez, halako solemnitatea  
*ikasteko* gauza izango ote zen dudak sortzea.

## NESKA SOLDADUA

(*Mendebaldeko euskal baladen antologia*. A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. **Euskeraren Iker**  
**Atalak 5** - Labayru Ikastegia, 135. or.)

01. Gaztiak kantuan ta  
zaharrak eragusian  
hori da pasatzen dana  
bardin mundu guzian.

02. Etxetik urten neban  
Mariatzeko hilian  
hamasei urterekin  
neure txoramenian.

03. Soldadu sartu nintzan  
Agorraren bostian  
kabo ero sarjento  
izateko ustian.

04. Ni lako fortuna  
nok du harrapatu?  
Hamaika hilabeteko  
sarjento nonbratu.

05. Urtebete baino lehen  
nintzan teniente  
rejimentutikan be  
nintzala ausente.

06. Rejimentu bi izan ditut  
hamar urte honetan  
Anjel de Ondasetan  
Buenas Airasetan.

07. Nerau emakumia  
ofizialia  
letrarik eskolarik  
bat ere gabia.

08. Agustin Antonio  
izan da neure izena  
hori aitu dezutenok  
ez da neure izena.

09. Oraintxe da denboria  
izena muratzeko  
Agustina Antonia  
naizela esateko.

10. Batetik lau balazo  
bestetik enfermo  
Jaunaren abixuak  
hoixek ditut klaro.

11. Moja sartzera noa  
komentu batera  
Jesusaren esposa  
betiko izatera.

12. Hamar urtian errege  
serbitu detalako  
dotia gertu daukat  
moja sartutzeko.

13. Adios ama neuria  
probintziania  
ongi lastimatzen naiz  
zu despeditzia.

14. Baina oraindik ere  
bizi naizen artian  
gogoan izango zaitut  
neure bihotzian.



01. **Eragusian:** erasian, eleketan, berrike-  
tan.

02. **Urten neban:** irten, atera nintzen.

03. **Ero:** edo.

04. **Lako:** bezalako.

05. **Be:** ere.



07. **Ofizialia:** *ofizial'* en femeninoa.  
 08. **Aitu:** aditu, entzun.  
 09. **Muratzeko:** mudatzeko, aldatzeko.  
 10. **Enfermo:** gaiso, eri.  
 11. **Jesusaren:** artikulua mugatzaile eta guzti. Nahiko testu zaharra den seinale.

13. **Probintziana:** *probintziano'* ren femeninoa. Probintziana + a = probintziana Eibar inguruan. Bizkaieraren beste inguru batzutan, *probintzianea*, *probintzianie*, *probintziané* edo *probintziani*, bi hauetan azken bokala pixkat luzaturik, eskualdeen arabera.

## GOIZEAN ZALA BAINA

(Gure Kantuak. Udako Euskal Ikastaroa. Derio, 1991. Labayru Ikastegia. 79. or.)

- |  |   |
|--|---|
| <p>01. Goizean zala baina<br/>Santiago eguna<br/>laister etorri jakun<br/>orduak iluna<br/>bai neure laguna.</p>     | <p>04. Etxe zahartxu bat dago<br/>hatxaren erdian<br/>ez da haxerik sartzen<br/>kalma dauanian<br/>ezta euririk bere<br/>aterri darian.</p> |
| <p>02. Errekarik gorako<br/>aldatzen gogorra<br/>sarri behar izan dona<br/>han gora laguna<br/>bai neure laguna.</p> | <p>05. Juateko haraxe<br/>badaukat dotea<br/>astotxu zahar zahartxu bat<br/>imintxaz betea<br/>imintxaz betea.</p>                          |
| <p>03. Aldatza igarota<br/>zelaien erdian<br/>aurrera joateko<br/>negarra begian<br/>negarra begian.</p>             | <p>06. Arrigoan ganean<br/>ez dago zer esan<br/>zazpi-zortzi gitxiago<br/>ditut kamixetan<br/>ditut kamixetan.</p>                          |

07. Ezkontza barrirako  
badaukat trajia  
orain berrogei urte  
aitari lajia  
aitari lajia.

08. Zapatak ere berriz  
aukeran pareta  
lau urtean lustrerik  
ikutu bageak  
ikutu bageak.



- |  |   |
|--|---|
| <p>01. <b>Jakun:</b> zitzaigun.<br/>       02. <b>Errekarik:</b> errekarik.<br/> <b>Aldatzen:</b> aldatzaren, aldaparen, maldaren.<br/> <b>Sarri:</b> sarritan, maiz, anitzetan.<br/> <b>Dona:</b> dun.<br/>       03. <b>Igarota:</b> iraganda.<br/> <b>Zelaien:</b> zelaiaren, ordearen.<br/>       04. <b>Zahartxu:</b> zaharño, zaharxe.<br/> <b>Hatzaren:</b> haitzaren.<br/> <b>Haxerik:</b> haizerik.<br/> <b>Kalma dauanian:</b> bare, jabol dagoe-nean.<br/> <b>Euririk bere:</b> euririk ere.<br/>       05. <b>Imintxa:</b> imintxa, tximitx, intsektu parasi-to bat.</p> | <p>06. <b>Arrigoan ganean:</b> arreoaz, arreoari buruz.<br/> <b>Arreo:</b> arrio, emazte ezkonberriak ezkondu den etxera daraman ondasun multzoa.<br/> <b>Gitxiago:</b> hitz honi ez diot hemen zentzurik hartzen. <i>Gitxienez</i> edo izan behar du.<br/> <b>Kamixetan:</b> alkondaretan.<br/>       07. <b>Trajia:</b> soineko bikoitza, jake-galtzen jokoa.<br/> <b>Aitari lajia:</b> aitari lagia, utzia. Textuak <i>aitaren</i> dio, baina <i>aitari</i> behar du, hots, aitari ere utzi ziotena. Hortik atera noizkoa izango zen traje hori.<br/>       08. <b>Ikutu bageak:</b> ukitu gabeak.</p> |
|--|---|

Bai pieza aldi berean xaloe eta ironikoa! Santiago eguna, hain luzea izan arren, goizetik laster heldu zitzaion iluna. Eta gero neska-laguntza zer xarmantki kontatua: aldatz gogorra, laguna beharrekoa, goian zelaia, aurrera joateko, hots, agur esanda apartatzeko, negarra begian, eta neska-ren etxe zahartxo haitzaren erdian, zaharra, baina bere dohaiak dauzkana. Eta ondoren mutilaren ondarea, pobrea baina aberastasun gisa aurkeztua. Polita benetan.

## MARIA JOSEPA LAKABEKO

(Gure Kantuak. Udako Euskal Ikastaroa. Derio, 1991. Labayru Ikastegia. 123. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Maria Josepa Lakabeko<br>latzeko lorea<br>ondo baltza dana da<br>zeure kolorea.        | 04. Hogeta hiru arraultza<br>tortilea egiteko<br>ez egoan berienda hau<br>edozeinentzako.   |
| 02. Adiskideak egiteko<br>behar ei da gauzia<br>erlauntzetik ostu deutse<br>hari berienda. | 05. Abarkak zapaitetzat<br>alkondara iluna<br>iluntzean erun ei dona<br>etxerako laguna.    |
| 03. Sei libra ziran urdaiak<br>lau libra ogiak<br>beste zazpi txorizo<br>nekez ekarriak.   | 06. Astalarrako neskatilak<br>moja baten gisan<br>santuari erregutzen<br>egoteiraz eleizan. |
- ∞
- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Latzeko:</b> badirudi toki edo mota latzeko<br>lorea esan nahi duela.<br><b>Ondo baltza:</b> oso, arrunt beltza.   | <b>Ostu deutse:</b> ebatsi, lapurtu diote.<br><b>Beriendia:</b> merenda, askaria.   |
| 02. <b>Ei:</b> omen.<br><b>Gauzia:</b> gauza.<br><b>Erlauntze:</b> erlauntza, erlategia. Erlaun-<br>tzian gordetzen ote zituen ondoren dato-<br>zen jaki guztiak? Ala ezta eta ondoren-<br>goak esan nahi ote du? | 04. <b>Tortilea:</b> tortila, omeleta.<br><b>Egoan:</b> zegoen.                     |
|   | 05. <b>Zapaitetzat:</b> zapatatzat.<br><b>Erun ei dona:</b> eroan, eraman omen dun. |
|   | 06. <b>Astalarra:</b> Muxikako auzo baten izena.<br><b>Egoteiraz:</b> egoten dira.  |

## UZABA, NAHI BADOZU

(Aurreko bera, 176. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Uzaba, nahi badozu<br>kridua eurrerantza<br>barria bilatuten<br>hasi beharko da. | 03. Subiteko krideak<br>niri gaur goixean<br>mosu bat emon deusta<br>bihotzen erdian. |
| 02. Karmelo gixajoa<br>ezkondu eiten da<br>honen bizimodua<br>zelan izango da?       | 04. Gabon guztiori ta<br>gabon uzabari<br>otara baino ez bada<br>lotara noa ni.       |
- ∞
- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Uzaba:</b> ugazaba, nagusia.<br><b>Kridua:</b> morroia, mutila.<br><b>Eurrerantza:</b> aurrerantzean, gaurgero.           | 03. <b>Subite:</b> etxe edo auzo baten izena.<br><b>Krideak:</b> neskameak.<br><b>Goixean:</b> goizean.<br><b>Deusta:</b> dit.<br><b>Bihotzen:</b> bihotzaren. |
| 02. <b>Gixajoa:</b> gaizoa, errukarria. Morroiak,<br>Karmelok, bere ezkontza iragartzen dio<br>ugazabari.<br><b>Zelan:</b> nola. | 04. <b>Ota:</b> oiloek lo egiteko makila horizontala.<br>Esaera da: <i>oilok otara, umeak lotara.</i><br><b>Baino:</b> baizik, besterik.                       |

## ESTUDIANTEA NAIZ

(Aurreko bera, 60. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Estudiantea naiz<br>oraindino gaztea<br>hamazortzi urte be<br>kunplidu bagea.        | 05. Ama, gure dau berorrek<br>ni libradutea<br>heriotzea egin dot<br>ez da posiblea.      |
| 02. Hiru pezeta dala<br>kartazko jokoa<br>bertan hilda itxi nauen<br>estudiante majoa.   | 06. Atzo etorri jatan<br>arreba gaztea<br>lastima emoten dautsela<br>ni holan ikustea.    |
| 03. Hau zen kalabozoa<br>ilun eta triste<br>ni hona sartu nintzela<br>diradez hiru urte. | 07. Ai ene Jaungoikoa<br>kanpaiaren hotsa!<br>Igual ixingo da<br>urkamendikoa.            |
| 04. Pozik egin lezake<br>beste harenbeste<br>libratzeko esperantza<br>baldin bagenduke.  | 08. Hau da urkamendiko<br>haxearen hotza!<br>Gure Jaunan aurrerako<br>nik daukedan lotsa! |



01. **Oraindino:** oraindio, oraindik, oraino.  
**Be:** ere.  
**Bagea:** gabea.
02. **Itxi nauen:** utzi nuen.
03. **Hona:** hunat, honera.  
**Diradez:** dira.
04. **Beste harenbeste:** beste hiru urte.
05. **Gure dau:** nahi du.  
**Libradutea:** libratzea, askatzea.
06. **Jatan:** zitzaidan.

**Emoten dautsela ni holan ikustea:**  
ematen diola ni honela ikustea. Textuak  
*emoten daustela honelan ikustea dakar,*  
baina ez da niri —estudianteari—, berari  
baizik, arrebari. Beste aldaera batean nik  
jarri dudana moduan ikusi dut.

07. **Ixingo:** izango.  
**Urkamendi:** urkabe, urkatzeko tra-  
mankulua, baita urkatagia edo urkatzeko  
tokia ere.
08. **Haxearen:** haizearen.  
**Jaunan aurrerako:** Jaunaren aitzine-  
rako.

## TXAKUR FAMATUA DA

(Noeren ontzia. A. Zavala. Auspoa 136. 93-96. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Txakur famatua da<br>ixena du Blanco<br>ez dauka minpekorik<br>artua badauko.        | 07. Orain ez dala juaten<br>ardien atzian<br>kirikiuak topatzen<br>dituela sasian.  |
| 02. Artuakin bakarrik<br>ez dala kontentu<br>auzora juan eta<br>oiluak jan ditu.         | 08. San Prudentxi eguna<br>zelebratu zuan<br>bakailua gendukan<br>beratzen potzuan. |
| 03. Jan-gauzarik onenak<br>eskojitzen ditu<br>arrautzak be beretzat,<br>bilatzen baditu. | 09. Gu akordatu orduko<br>guzia jan zuan<br>gazitasuna zer zan<br>aprobatu zuan.    |
| 04. Bilots bat auzuan da<br>beste bi etxian<br>hirurak jan zituan<br>denpora gutxian.    | 10. Sukaldeko galdarak<br>hutsitu zituan<br>beste ekinaldi bat<br>egin du potzuan.  |
| 05. Ganera ardiari<br>jarraitu atzian<br>gaizki egiten ebanik<br>berak ez zekian.        | 11. Gaba pasatu eta<br>hurrengo goxian<br>gure txakurra zegoen<br>estadu tristian.  |
| 06. Paluaz eman diot<br>odoldu artian<br>juiziuari sartu da<br>neure eritxian.           | 12. Hazurren bat zeukala<br>trabauta hestian<br>ez zala sosegatu<br>libratu artian. |

13. Gaztainak eta saldia jaten dituanian uzkerak botatzen dauz basora bidian.
14. Barrez ito lezake haren esturian pausuko bat edo bi hiru gehienian.
15. Barre asko egin gendun juan dan neguan neskatxiaren ohian bilatu genduan.
16. Neskatxa apalduta ogera zan juan txakurrak ogetikan murmur egin zuan.
17. Neskatxa bildurtuta sukaldera larri ogeko lagunari ez zion igarri.
18. Argia piztu eta juan gura dau arin ohian tenplau lo eguan gure txakur hori.
19. Neskatxa hasarratu egin zan orduan makila hartu eta txakurra hil zuan.
20. Txakur horren bixitza holantxe izan da heriotza be hor nola neskatxak emanda.



01. **Txakur famatua:** testuak *amatua* dakar, baina segurtzat joko nuke *famatua* dela. Alde batetik hauxe da honelako kasuetan ohi den adjetibo naturala eta bestetik raroa da hemen *amatua* aurkitzea, bai kontzeptu gisa, bai hitza bera, ezinezkoa ez da baina.  
**Ixena:** izena.  
**Minpeko:** mihipeko, mihihari. Mihari azpitik eusten dion mintza edo haria. Ahoan trabarik ez daukala esan nahi du. Edozer esateko bildurrik edo lotsarik ez daukanaz esan ohi da: *horrek ez dauka minpekorik*.  
**Artua:** artoa, arto hirinez egindako opila.  
**Badauko:** badauka.
03. **Eskojitzen:** hautatzen, aukeratzen.
- Be:** ere.
04. **Bilots:** bildots, axuri, arkume.
05. **Ganera:** gainera.  
**Ebanik:** zuenik.
06. **Paluaz:** paluarekin, makilarekin. Testuak *paluak* dakar, baina *paluaz* da esakera ohizkoa eta naturala. Sekula ez dut entzun *paluak emongo deusadaz* (emongotsetaz, emongotsadaz eta aldaera guztietan), *palukadak emango dizkiot* esateko. Bestalde *paluak* plurala ez dator bat *diot* aditzarekin.  
**Eritxian:** iritzian, ustean.
07. **Kirikiuak:** kirikioak, kirikinoak, trikuak, sagarroiak. Testuak *kirikiyuak* dakar, baina erre bakarrez behar du. Eta *yota*

- barik *jota* frantsesa, ipintzekotan.
08. **Potzuan:** putzuan, urzuloan.
09. **Aprobatu:** probatu, dastatu.
10. **Galdarak:** pertzak.  
**Hutsitu:** hustu. Urez beterik zeuden galdarak alegia.
11. **Goxian:** goizean.  
**Estadu:** egoera, aldarte.
12. **Trabauta:** trabatua, oztopatua.  
**Hestian:** hestean, hertzean.
13. **Dauz:** ditu.
14. **Barrez:** irriz.  
**Lezake:** liteke. Gipuzkerazko forma gaizki aplikatua, bizkaitarrei maiz gertatzen zaiena.  
**Esturian:** esturan, estuasunean, larritasunean.
- Pausuko bat edo bi:** urrats bakoitzeko uzker bat edo bi.
15. **Neskatxiaren ohian:** neskatxearen, neskatxaren ohean, ohatzean.
16. **Apaldu:** afaldu, afaria jan.  
**Ogera:** ohera, ohatzera.
18. **Argia piztu eta:** argia pizterra sukaldera jaisteak esan nahi du argindarrik ez zegoela. Beraz, kriselua edo esku-argiren bat piztu zuen, oherakoan sukaldean utzi ohi zena.  
**Gura dau arin:** nahi du azkar, fite, agudo.  
**Tenplau:** lasai, bare.  
**Eguan:** zegoen.
20. **Bixitza:** bizitza, bizia.  
**Holantxe:** honelaxe nahiz horrelaxe

A. Zavalak gorago aipatu liburuan dio: "Bilbo'ko *Euzkadi* egunkarian agertu ziran, 1932.X.29'an, Miren Agurne firmatzen duan batek bialduta. (...) Izenburua honela du *Euzkadi*'k: **Bertso zarrak Zaldibartik**. Guk lenengo bertsoaren asiera berezi ta ezarri degu orretarako". Miren Agurne hau, beraz, egilea barik bidaltzailea besterik ez da, bera ere Zaldibartarra segurrenik. Sorta bitxi honek Bizkaiko tradizioko pieza koplatuen jite osoa dauka, narrazioa eramateko tankeran eta formulatan: *ez dala kontentu, orain ez dala juaten, topatzen dituela sasian, hazurren bat zeukala, ez zala sosegatu....* Indikatiboen ordezeko forma konpletibook oso bereak ditu Bizkaizko koplartzak.

## GABON KOPLAK

Multzo luze honek eta bertsolaritzako **Gabonak** sailak ondo garbi erakusten dute jai hauek zein oparo kantatuak izan diren bizkaieraren eremuan. Euskal Herri osoan ere hori halatsu izanik, *Marijeseen* eta Bilboko eliza batzutako *gabon-bertsoen* tradizioa Bizkaiko berezitat jo daitezke.

## MARJESIAK

(Manuel Lekuonak Gernikan batu eta 1933. urteko Anuario de Eusko-Folkloren argitaratuak)

Maria Jose  
Jose Maria  
Maria Jose.

- |   |  |
|---|--|
| 01. Abendu santu honetan<br>Kristoren jaiotzian<br>kontentuaren haundiz<br>guztiok poz gaitian. | 06. Nor hemen mensajerua?<br>San Gabriel aingerua<br>egingo dabena ondo<br>Jaunaren agindua. |
| 02. Adan formadu zanian<br>lehenengo lurrian<br>pekatu egin eban<br>paradisu (e) ternalian.     | 07. Edegi dirade zeruan<br>ate diamantezkuak<br>harixekin batera<br>bentana izarrezkuak.     |
| 03. Linborian egozan deiez<br>bost mila urtian<br>Jauna zerutik lurrera<br>etorri zeitian.      | 08. Gizonik ez dot ezagun<br>lurraren ganian<br>eginik deukat boto<br>ni jaio nintzianian.   |
| 04. Erabagia izan zan<br>Trinidad altuan<br>bihar zala biraldu<br>lurrera aingerua.             | 09. Espiritu Santu Jaunak<br>emonik argia<br>zeure kontzebidua<br>izango da garbia.          |
| 05. Bihar zala biraldu<br>lurrera aingerua<br>erremediatzeko<br>Adanen pekatua.                 | 10. Ez deukat nik errurik<br>banaz ni esklabia<br>Jaunak ordenadu dau<br>ni honela izatia.   |

11. Marabila handi bat  
zerutikan lurrera  
kontzebidua izan da  
zeruko erregina.
12. Ez dator gizonetatik  
ez gizonen obratik  
elejidurik eguan  
eternidadetik.
13. Nabegadua izan zan  
bederatzi hilabetian  
mundu honetako  
itsasuaren gainian.
14. Josepe ditxosua  
ia da denporia  
neugandik jaioteko  
Jesus salbadoria.
15. Eguzkia nola doian  
kristalen artetik  
semia jaio dala  
amaren sabeletik.
16. Kristalian argia  
bezela pasatu  
eginda gero bere  
dontzeila geratu.
17. Eguzki dibinala  
gaubaren gauberdian  
etorri da mundura  
gizonaren jantzian.
18. Trinidate altuko  
bigarren persona  
transformadurik dago  
Belengo estalpian.
19. Hotzaren ikaraz dabil  
jaio dan infantia  
bere amak dirautso:  
ixi, ene semia.
20. Astua ta idia  
daukaz aldamenian  
arnasaz berotzeko  
hoztuten danian.
21. Astuak arrantzia  
idiak arnasia  
halan berotzen eben  
jaio dan infantia.
22. Astua ta idia  
jaten egozanean  
seina euki ebela  
biaren bitartian.
23. Hiru Errege Maguak  
hain bide luzian  
milagrosamentian  
juntatu zirian.
24. Hiru Errege Maguak  
hain bide luzian  
bakotxak eroiela  
beren presentia.

25. Hiru Errege Maguak  
hain bide luzian  
ostatua hartu eben  
hain etse pobrian.
26. Belengo portalera  
heldu zirianian  
hango zaldiaren hotsak  
espantadu zeukian.
27. Haurra adoratzean  
hiru Errege hemen  
ikusirik pobrezan  
harritu ziraden.
28. Erregaluak bere  
ekarri zituen  
urria, intzentsua  
mirra hirugarren.
29. Gasparrek urria ta  
Beltxorrek intzentsua  
Baltasarrek eroian  
mirra preziosua.
30. Herodesek esan eutsen  
erregiari gabian  
hemendik zetozela  
ni bere juan neitian.
31. Herodes koitadua  
burlatu zaitue  
erregiak joan dira  
zeu ikusi gabe.
32. Herodes erregia  
faltso traidoria  
zeren damu eban  
Kristoren jaiotzia?
33. Mendian egozala  
jagoten ganadua  
manifestadu jakon  
zerutik aingerua.
- Jesucristo  
ay qué bonito!  
Buen Niño  
Jesucristo.
34. Corrían los pastores  
dejando el ganado  
que daban grandes voces:  
Jesús sea adorado!
35. Txit egun ditxosua  
degu Eguberri  
zegaitikan Jesus dan  
gugana etorri.
36. Ai ze kontsuelua  
orain geuk daukagun!  
Jainkuaren Semia  
etorri da lagun.
37. Guztiok bihar degu  
disposizinuán jarri  
graziak emoteko  
gaur jaio danari.



38. Erakutsiko deusku  
zer egin bihogun  
beraren alabantz  
kantadu dezagun.
39. Jose eman diote  
Mariari esoso  
biak izan deitezen  
Jesusen guraso.
40. Karguan jarri dira  
Jose ta Maria  
anparatzeko Seme  
estimagarria.
41. Agur dontzeilia  
graziaz betia  
zeure izena dozu  
Birjina Maria.
42. Birjina harritu zan  
agur egin eutsenian  
honelango mensajia  
nok ete leikian.
43. Dontzeila galant hori  
orbanik gabia  
zeure izena dozu  
Birjina Maria.
44. Arkanjel San Gabriel  
anunziadoria  
ez gaizuz espantadu  
hain jente umildia.
45. Denpora desiadua  
etorri zanian  
ia gara heldu  
Kristoren etsian.
46. Josepek dirautso  
Maria Birjinari  
noz deklaratuko daben  
esperantza geure hori.
47. Biak Belenera  
dute kaminatu  
hara heldu ziranian  
ostatuaren itandu.
48. Eskepe etsetxu baten  
dagoz atiak jot  
gizona bentanara  
txito nekez urteten.
49. Gizonak bentanatik  
hau dau erantzuten:  
nor da ordu honetan  
atiak jot?
50. Nor eta nor bizi da  
etsetxu zahar honetan?  
Nor eta zer gura zenduke  
Jaunaren ordu honetan?
51. Hara hor etsetxu zahar bat  
huriaren kabuan  
aberiak eta baino  
ez da sartzen barruan.

52. Pobrezan izandu zan  
Jesusen jaiotza  
batetik elurra ta  
bestetik izotza.
53. Sutxu bat egiten hasi  
pesebre bazterrian  
haiziak eta hotzak  
lehenera eroian.
54. Seina bilosik dago  
lur hotzaren ganian  
Ama beleniko  
negarrez aurrian.
55. Amiak hartu eban  
semia besuetan  
semia ta Jainkua  
zitan adoretan.
56. Bilosik bazagoz bere  
ez zara zeu pobria  
zeruetan josirik dago  
zeuretzat erropia.
57. Bedarrak almueda  
ogetzat pesebria  
aurrian beleniko  
bere ama umildia.
58. Arantzaren arteko  
jaio zanian  
kulpa orijinalaren  
mantxa gabia.
59. Seme Jauna daukela  
urre hardui eder baten  
bere ama beleniko  
aurrian adoraten.
60. Jose eta Maria  
euren Jesusarekin  
duaz Belenera  
kunplietan legiakin.
61. Obligazino bagarik  
kunplietan legia  
guri erakustiarren  
zerurako bidia.
62. Hara gura badozu  
hortixik dago bidia  
zeren justoa dan  
Kristoren legia.
63. Sakramentu Santua  
zelebradu zanian  
izena imini eutsen  
Jesus Salbadoria.
64. Hemen esan badogu  
berbarik deungaro  
Elexama Santiari  
parka eske naiago.
65. Hogeta laugarrena  
degu abenduan  
deseo genduen  
logradu genduan.

Bai Belenen  
eta bart Belenen  
jaio da Jesus Nazaren.

66. Gabeko hamabiak  
jo daben orduan  
gure Salbadoria  
jaio da munduan.

67. Belengo portalian  
estalpe batian  
jaio da Jesus ona  
ganadu artian.

68. Belengo hurian  
Gabon gaberdian  
Birjina Santia dago  
kontsolazino handian.

69. Mundu guztia dago  
gaur pozez beterik  
semia jaio dalako  
mantxa bagarik.

70. Goiko mendietatik  
pastoriak datoz  
esanik aingeruak  
jaio dala Jesus.

71. Pastore santu birtuosuak  
balia zakiguz gaur hemen  
bart arratsian zer pasatu dan  
konta dezagun Belenen.

72. Korraletako ardiak bere  
jantzan ebizan orduan  
gure Jesusa Salbadoria  
jaio dalako munduan.

73. Jesus dibino, gabaren hotza!  
Jausten da inetasie  
erleju bien honelan bada  
hil da ganadu guztie.

74. Hortixik gora ninoiela  
ospitaletxu zahar baten  
aita San Josepe topadu neban  
astotxuaren txalmatzen.

75. Nazareteko tenpluan dago  
dama eder bat jarririk  
izena bere Maria dau te  
dana dao graziaz beterik.



02. **Eban:** zuen.  
**(E)ternalian:** terrenalian behar du.  
03. **Linborian:** linbotik.  
**Egozen:** zeuden.  
**Zeitian:** zedin.

06. **Dabena:** duena.  
07. **Edegi:** zabaldu, ireki.  
**Harixekin:** haixekin.  
**Izarrezkuak:** zilarrezkuak (zilarrezkoak)  
izango da hau.

10. **Esklabia:** *esklabua*'ren femeninoa.

12. **Elejidurik:** hautaturik, aukeraturik.  
**Eguan:** zegoen.

19. **Dirautso:** dinotso, diotsa, esaten dio.  
**Ixi:** isiltasuna agintzeko interjekzioa.

20. **Daukaz:** dauzka.

21. **Halan:** hala.  
**Eben:** zuten.

23. **Milagrosamentian:** mirakuloski, mira-  
garriro.

24. **Eroiela:** zerama(te)la.

25. **Etse:** etxe.

26. **Espantadu zeukian:** Izutu zituen? *Zeu-  
kian* hau ez da oso argi ulertzekoa.

28. **Zituen:** zituzten.

29. **Eroian:** zeraman.

30. **Eutsen:** zien.  
**Neitian:** nadin.

31. **Koitadua:** gaizoa, errukarria.  
**Zaitue:** zaituzte.

33. **Egozala:** zeudela.  
**Jakon:** zitzaion.

38. **Deusku:** digu.  
**Bihogun:** behar dogun.

42. **Eutsenian:** zio(te)nian.  
**Honelango:** honelako.  
**Nok ete leikian:** nork ote zezakeen.

44. **Gaizuz:** gaitzazu.

45. **Etsian:** etxian.

46. **Daben:** duen.

47. **Itandu:** galdetu.

48. **Eskepe:** aterpe, lehorpe.  
**Dagoz:** daude.

51. **Huriaren kabuan:** hiriaren buruan, azke-  
nean.

54. **Seina:** haurra, umea.  
**Beleniko:** belauniko, belaun biko.

55. **Amiak:** amak. Oraindik ere animalietan,  
txorietan batez ere, normala da artikulu  
eta guzti erabiltzea.  
**Adoretan:** adoratzen.

57. **Almueda:** burkoa, bururdia, burukoa.

59. **Daukela:** daukatela.  
**Hardui:** Harri + dui, harrizta.

60. **Kunplietan:** kunplitzen, kunplitzera.

64. **Elexama:** Eliza ama.  
**Parka eske naiago:** barkamena eska-  
tzen naiagoko, nagokio.

65. **Logradu:** lortu, erdietsi, eskuratu.

66. **Daben:** duten.

71. **Zakiguz:** zakizkigu.

72. **Jantzan:** dantzan.  
**Ebizan:** zebiltzan.  
**Jesusa:** artikulu mugatzaile eta guzti, 60.  
koplan ere agertu den bezala. Arkaikoa.

73. **Jausten:** erortzen.  
**Inetasie:** txingorra, kazkabarra, harria.  
**Erleju bien:** ordu bian, pare bat ordutan.

74. **Ninoiela:** nindoala.  
**Topadu neban:** topatu, aurkitu nuen.

Gernikako *Gaubeka inprentako* Bittor Gaubeka Duok 1955. urteko  
abenduan Marijesien liburuska bat argitaratu zuen: **Gabonetarako**  
**kantak, Gernikan eta albo-herrietan kantetan diran lez. Laugarren**  
*edizioa* jartzen du, beraz, urte batzuk lehenago batuak izan behar dute.

Mirjesiei buruz, beste zenbait argibideren artean, hauxe dio aurkezpe-  
nean: "Jardun jainkotiar hau Abenduaren hamaseian hasten da, eta  
goizaldeko lauretarako, Marijeselariak Gernikako Andra Mari elizau-  
rrean elkartzen dira, eta Tabernakuluaren aurrez aurre, denak belauniko,  
Jesus Sakramentuaren lehen agurra intonatzen dute, ahapaldi honekin:

Sakramentu Santu Jauna  
zelebradu zanian  
izena imini deutse  
Jesus Salbadoria.

Berdin, Santa Klara elizaren eta Kaltzada Zaharretxearen kapera  
aurrean, Sakramentuaren agurra era berean egiten dute, eta goizeko  
kantariok euren biderei jarraitzen diote Foru Hiriko kale eta auzoetan  
zehir, geroak Gernikari legatu dizkion gabon-kantak doinu ozenetan  
intonatuz". (Neuk euskaratua, gatzelaniaz bait dator).

Bederatziurrena, beraz. Liburuska honek berak azaltzen duenez,  
lehen lau egunetan lehen hogeita hamabi koplak kantatzen dira, hurren-  
go lau egunetan hurrengo hogeita hamabiak, eta azken egunean, Gabon  
egunean, azken hamaika koplak, hirurogeita bosgarren *hogeita laugarre-  
na* horretatik hasita. Hiru jauzi horietan, musikak aldatu egiten dira eta  
azken bost kopletan neurria ere kopla txikitik handira pasatzen da.

Bittor Gaubekak ematen duen aldaera funtsean Lekuonarena ber-  
bera da, zenbait arkaismo ekidinez: *euren semetxoagaz, gure Salbadoria,  
linboan, horrelan jarraituten badau... euren Jesusarekin, gure Jesusa Salba-  
doria, linborian, erleju bien honelan bada...* eta holakoan ordeztu. Esamolde  
batzuk ere aldatzen ditu, agian erderakadak garbitu nahian edo. Baina  
harrigarriena da, lehen hogeita hamabikoan batez ere, koplen ordena oso  
ezberdina dela. Gaubekaren ordenan, honela lihoake eman dugun Leku-  
onarena: 11, 17, 18, 7, 13, 12, 8, 9, 10, 15, 16, 6, 14, 19, 20, 22, 21, 23. Hemendik  
aurrera berdin jarraitzen du, eta gero 54.tik 65.era berriz aldatzen.

## URDAIBAICO MARIJESIAK

(Jose Antonio Arana Martijak utzitako karpetan, **Urdaibaiko Marijesiak** izeneko sorta)

Maria Jose  
Jose Maria.

- |   |   |
|---|---|
| 01. Denpora santu honetan<br>Kristoren jaiotzian<br>guztiok boz batian<br>alegradu gaitian.   | 07. Gizon ignorante bat<br>bidian topadurik<br>hari itandu eutsen<br>non beogian ostaturik. |
| 02. Eguzki dibinala<br>gabaren gau erdian<br>urten zenduan mundura<br>gizonaren trajean.      | 08. Portale zahar bat dago<br>Belenen akabuan<br>lekuen igaro eta<br>goienengo akabuan.     |
| 03. Jesus, zeure ama<br>graziazko betia<br>izena deu Santia<br>Maria Birjinia.                | 09. Besterik ezin bada<br>guazen hara bada<br>Jaungoikoa dan lekuan<br>ez da ezer falta.    |
| 04. Jose Santua eta<br>zeurorren esposia<br>urten zenduan mundura<br>harturik pobrezia.       | 10. Hara gura badozu<br>hara hemetik bidia<br>zerren jausi otsan<br>guztion fedia.          |
| 05. Esposoa eta esposia<br>harturik debozinoa<br>Belenera joan zirian<br>kunplietan legia.    | 11. Guazen Josepe eta<br>animadu gaitian<br>ordenadurik geunkan<br>honetan ibiltia.         |
| 06. Jeusirik Dontzeilia<br>sabel santia beterik<br>jente kruel gaiztoak<br>ez emon ostaturik. | 12. Heldu zirianian<br>portale zahar batian<br>askatxu zahar baten biak<br>apartadu zirian. |

13. Jaungoikoa'bi alabadu  
zeruen da lurrian  
estatu honetara  
heldu garianian.
14. Denpora deseaduak  
kunplidu zirianian  
jaio zan gure Kristo  
Belengo portalian.
15. Birjiniak hartu eban  
semia magalian  
Josepe Santuari  
eurela eskurian.
16. Zuaz Josepe eta  
ekazu abarria  
sua egin daigun eta  
berotu gaitian.
17. Hotzaren negarrez dago  
jaio dan infantia  
bere amak diaruko  
o musika dultzia.
18. Ez egizu negarrik egin  
ez, ene Semia  
zeu izango zerade  
zeruko erregia.
19. Jatsi da zerutikan  
lurrera mentsajea  
gloria inecelsis Deo  
munduan biz bakia.
20. Zein zan mensajerua  
Gabriel Aingerua  
ondo egin ebana  
Kristoren agindua.
21. Trinitade altuko  
hirugarren persona  
traspasadurik dago  
Belengo portalian.
22. Jesus aska pobrian  
zagodez negarrez  
Belengo pastoriak  
dantzan eta barrez.
23. Jaio guztize eta  
deukezun kontentua  
zergaiti falta jatzun  
Belenen ostatua.
24. Jesus ipini jatzun  
Trinidadeko etxian  
izena Jesukristo  
zeruen da lurrian.
25. Urrun Orientiak  
izarraren argira  
Magoak dira mogidu  
Kristoren ikustera.
26. Aingeru San Gabriele  
abisatzian:  
-Zuazte Belenera  
ikusten infantia.

27. Jauna ikusi dogu  
ostatu zahar batian  
kontentu handiegaz  
gatoz geure bidian.
28. Herodesek urten deutse  
bidera preguntian  
esan deiuela  
nora datozean.
29. Herodes traidorea  
jausi da lurrera  
eskurian hartu eta  
eregi dabe gora.
30. Sosegadu zaitetz  
Herodes tiranua  
ez dator emoten baino  
edeten Erreinua.
31. Herodes erregia  
ai faltso traidoria  
zergaiti eban damu  
Kristoren jaiotzia?
32. Birjine Santisimia  
gure abogadia  
arren emon egizu  
gloriazko bakia.
33. Heldu zirianian  
Jesusen aurrera  
belaunbiko etxun eta  
adoratu eutsien.
34. Ezautu ebenian  
zala Jaungoikoa  
ofrezidu eutsen  
lelengo inzensoa.
35. Adoratu eta  
kontentu handiegaz  
bihurtu zitezian  
zeruko argiegaz.
36. Akabadu eta  
idigi debe argia  
urria eta mirria  
ugeri erabilitia.
37. Hemen esan badot nik  
bai barbarik deungero  
Elexa Ama Santuari  
parka eske naiogoko.



01. **Alegradu:** alegeratu, alaitu.
02. **Urten zenduan:** irten, jalgi, atera zinen.  
**Trajean:** jantzian, soinekoan.
03. **Deu:** du.
05. **Debozinoa:** debozinoa, deboziona, debozioa.  
**Kunplietan:** kunplitzen, kunplitzera.
06. **Jeusirik:** eroririk.  
**Santia:** *santua* ren femeninoa.

07. **Topadurik:** topatu, aurkitu, kausiturik.  
**Itandu eutsen:** galdetu zioten.  
**Non beogian:** honek okerra izan behar du. *Non eoan, inon baegoan*, edo holako zerbait.
08. **Akabuan... akabuan:** segurrenik *akabuan* —azkenean, amaian— eta *kabuan* —puntan, ertzean— izango dira. Aldaera batean *Belenen buruan* ere ikusi dut.
10. **Hara... hara hemetik:** toki hartara... hona hemendik. Bigarren hau interjekzio erakuslea.  
**Jausi otsan:** okerra izan behar du. *Jausi* eta *otsan* (zion) elkargaitzak dira. *Jatsi zan, jatsiko zan* edo horrelako zerbait izan behar du.
11. **Animadu:** animatu, kemendu, poztu.
13. **Jaungoikoa'bi alabadu:** Jaungoikoa *biz* edo *bei* (bedi) izan behar du.
15. **Hartu eban:** hartu zuen.  
**Eurela:** *eukela* (zeukala) izango da, *aurreko santuari* datiboarekin ez dator oso bat baina. *Eutsela* ez bada. Honi datiboa dagokio, *heldzen ziola* esan nahi du eta oraindik ere forma erabilia da.  
**Eskurian:** eskutik. Arkaikoa.
16. **Abarria:** forma okerra. *Abarra* behar du.  
**Daigun:** dezagun.
17. **Hotzaren negarrez:** *hotzaren hotzez negarrez* izan behar du. Egitura honek hitz bera bertuz izan behar du: *hotzaren hotzez, bildurraren bildurrez, negarraren negarrez*.  
**Diaruko:** *dirautso* izan behar du.  
**Diotsa:** esaten dio.
19. **Mentsajea:** mezua, mandatua.
20. **Mensajerua:** mezularia, mandataria.  
**Ebana:** zuena.
21. **Traspasadurik:** badirudi *transformadurik* izan behar duela, beste aldaera batzuk dioten moduan.
22. **Zagodez:** *zagoz*, *zaude*.  
**Barrez:** irriz.
23. **Jaio guztize:** hau zer izan litekeen ez dakit.  
**Jatzun:** *zaizun*.
27. **Handiegaz:** handiz, handiarekin.
28. **Urten deutse:** atera, jalgi zaie.  
**Preguntian:** itaunka, galdezka.  
**Deiuela:** diezaiotela.
29. **Jausi:** erori.  
**Eskurian:** eskutik. Arkaikoa.  
**Eregi:** eraiki, jaiki erazi, jaso.
30. **Edeten:** *edaten* izan daiteke. Beraz: *ez dator erreinua edaten ematera baino*, bai-zik.
32. **Arren:** otoi, mesedez.
33. **Etxun:** etzan.  
**Eutsien:** zioten. *Adoratu eben* —zuten— behar luke.
34. **Ebenian:** zutenean.  
**Ofrezidu eutsen:** eskaini, opatu zioten.
35. **Bihurtu zitezian:** bihurtu, itzuli ziren. Arkaikoa.  
**Argiegaz:** argiarekin.
36. **Idigi debe:** ireki, zabaldu dute. Baina argia ireki? Segurrenik arkia —arkea, kutxa— izango da, non bidezkoa den urrea eta mirra edukitzea.
37. **Berberik:** hitzik.  
**Deungero:** gaiztoki, oker.  
**Naiagoko:** nagokio.

Erabili dudan liburuska oso txikia da, dozena bat orrikoa, eta argi dago oso transkripzio funtzionala eta arina dela, okerrez betea, baita zalantzaz ere, sarritan bait dator (?) ikurra. Badirudi norbaitek Urdaibaiko norbaiti jasoak direla. Taldean ikasteko eta kantatzeko ale multikopiatuetariko bat ere izan daiteke, beste nonbaitetik kopiatua, baina orduan (?) ikur horiek zentzu gutxiago daukate.

Dena den, Gernikako Marijesietatik nahiko ezberdinak direla argi dago, ez bakarrik kopuruz, baita koplaren testuan ere, nahizta izpiritu berekoak izan noski.

Baita argi dago koplak hauek oso zaharrak direla, bertan ageri diren seinaleak ez bait dira gutxi: eskurian, bihurtu zitezian, *zagodez*, zerren, *deungero*... Liburuskak *Urdaibaiko Marijesiak* dio bakarrik, beste inolako xehetasun gabe. Horrek esan nahi du guztiz eskuarteko orriak direla. Urdaibai Mundakatik Gernikara bitarteko itsasadarraren izena da.

## JESUS JAIO BAINO LEHENAGO

Pentsamentu honekin  
guazen Belenera  
jaio dan Erregia  
han adoratzera.  
Atentzio osoaz  
juaten bagera  
orain da gero beti  
Jesusen aldera.

01. Jesus jaio baino  
bere lehenagoti  
berria banatu zan  
profeten agoti  
etorriko zala Jesus  
mundura zeruti  
dontzeila eder baten  
entrainaretati.

02. Maria Birjinia  
sagrarioa harturik  
bederatzi hilabetean  
zenduzan gorderik  
dainurikan bat bere  
egin bagerik  
Belengo portalian  
han dago jaiorik.

03. Abenduko hilaren  
hogeta laugarren  
Jesus jaio zagon  
Belengo hurian  
pesebre gogor eta  
turkoren artian  
misereaz beterik  
portale batian.

04. Belengo portalian  
jaio da semia  
mundu guztien jabea  
eta erregia.  
Alegradu guztiok  
bihotzian  
guazen Belenera  
Jesus adoretan.

05. Pozez bete gatian  
jaiotza honetan  
artzaiak bere datoz  
Jesus adoretan.  
Ai Belen ditxosoa  
zorionekoa  
jaiorik bertan dago  
geure Jaungoikoa.



01. **Entrainaretati:** entrainetatik, erraietatik.  
02. **Zenduzan:** zintuen.  
**Bagerik:** bage, gabe.  
03. **Zagun:** zaigun, zitzaigun.

04. **Guztien:** guztiaren.  
**Alegradu:** alegeratu, alaitu.  
**Adoretan:** adoratzen, adoratzera.  
05. **Ditxosoa:** dohatsua, zorionekoa.



01. Ai ze artxo ederra  
dator guregana  
atozte ekustera  
agudo Belena.  
Gutziz polita dago  
bai gaur gure Jauna  
lau urte mila honetan  
deseatu dana.

02. Jesus dala diote  
gaur etorri dana  
Salbatzailia dala  
esan nahi dutena.  
Zeru eder handia  
dator salbatzera  
baita mundu guztia  
redimitutzera.

03. Ai hau notizi ona  
aingeruarena  
zer eramango degu  
hemendik Belena.  
Nik esnea badaukat  
nik ere arkumea  
guazen bisitatzera  
Jaunaren Semea.

04. Artxo txiki eder bat  
munduan parebagia  
etorri zaigun zerutik  
ematen gau alegria.

05. Berri ederrak zoragarriak  
gozotasunez betiak  
entzun dituguz gaurko gabian  
bai nere jente maitiak.  
Etorri dala zeru guztia  
portale pobre batera  
Adanen seme desterraduak  
pekatutik libratzera.



01. **Artxo:** bildots, axuri, arkume.  
**Lau urte mila honetan:** lau mila urte honetan.

04. **Zaigun:** zitzaigun.  
**Ematen:** ematera.  
**Alegria:** alegera, alaia.

Sorta hauek ere Jose Antonio Arana Martijak utzitako *Urdaibaiko Marijesiak* liburuskatik hartuak ditut. Aurreragoko Marijesiei egindako oharren arabera, hemen ere zenbait oker badela somatzen da. Nabarmen iruditu zaizkidanak berrikutu egin ditut.

## OROMIÑOKO ABENDUA

(*Oromiñon, 1969 Zemendiak 7 - Kristiña azpijartzen duen orri soltea*)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Abendu Santu honetan<br>bihar da denporia<br>orain kantaten dogu<br>Kristoren jaiotzia. | 06. Gabeko hamabiak<br>jo duten orduan<br>gure salbagilea<br>jaio da munduan.       |
| 02. Hogeta laugarrena<br>degu abenduan<br>deseo genduen<br>logratu genduan.                 | 07. Belengo portalian<br>estalpe batian<br>jaio da Jesus umil<br>ganadu artian.     |
| 03. Birritan edo hirutan<br>Josek jo atia<br>gizonak bentanara<br>nekez urtetia.            | 08. Astuak arrantzia<br>idiak arnasia<br>halan berotzen dabe<br>jaio dan infantia.  |
| 04. Gizonak bentanatik<br>diola erantzuten<br>gabera gau erdian<br>nor dan ate josten.      | 09. Astua ta idia<br>daukoz aldamenian<br>arnasaz berotzeko<br>hotzitzen danian.    |
| 05. Izarra bularrian<br>semia sabelian<br>ha bai dontzeila ederra<br>itsasoaren ertzian.    | 10. Bilosik egon arren<br>ez zara pobria<br>zeruan josita dago<br>zuretzat erropia. |

- |   |  |
|---|--|
| 11. Goiko mendietatik<br>pastoriak datoz<br>aingeruak esanik<br>jaio dala Jesus.      | 16. Bihar zala biraldu<br>lurrera aingerua<br>erremediatzeko<br>Adanen pekatua.          |
| 12. Herodes erregia<br>falso traidoria<br>zergaitik damu dozu<br>Kristoren jaiotzia?  | 17. Ha dala jaio jaio<br>ha dala jaiotzia<br>semia jaio ta gero<br>ama da dontzeilia.    |
| 13. Hiru errege mago<br>hain bide luzian<br>mirariz joan ziran<br>Belengo portalera.  | 18. Zorionian Jesus<br>zu jaio zainian<br>bestela zeruetan<br>sartzen ez gainian.        |
| 14. Adanek eta Ebak<br>urriaren lehenenguan<br>pekatu egin eben<br>paraiso terrenuan. | 19. Abendu santu honetan<br>bigarren persona<br>Trinidad Santa Kruz<br>sortu zan gizona. |
| 15. Erabaki izan zan<br>Trinidad altuan<br>behar zala biraldu<br>lurrera aingerua.    | 20. Gu salbatzeko gizon<br>egin zariela<br>gloria gozatzeko<br>zeruetan. Amen!           |
- ∞
- |   |  |
|---|--|
| 02. <b>Urtetia:</b> irtetea, ateratzea. | 14. <b>Eben:</b> zuten.  |
| 04. <b>Gabera:</b> gau aldera, gauean.  | <b>Terrenuan:</b> beste batzutan <i>terrenalian</i><br>agertzen da.          |
| 05. <b>Ha:</b> hura.                    | 17. <b>Dontzeilia:</b> dontzeila, birjintasunik gal-<br>du ez duen emakumea. |
| 08. <b>Halan:</b> hala.                 | 18. <b>Zainian... gainian:</b> zinen... ginen.                               |
| 09. <b>Daukoz:</b> dauzka.              | 20. <b>Zariela:</b> zarela.  |
| <b>Hotzitzen:</b> hozten.               |  |

## UME EDER BATEN BILA

(Bilboko Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako orri solte bat)

Ume eder baten bila  
gabiltzaz zoratzen  
ta izarrak esan deusku  
jaio dala hemen.  
Jaungoikoaren herri  
maite Jerusalem  
esan eiguzu laster  
Jesus nun jaio den.



**Deusku:** digu.  
**Eiguzu:** iezaguzu.

## BELENGO PORTALIAN

(Bilboko Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako orri solte bat)

Belengo portalian  
Jesus jaio jaku  
Mariaren semia  
geugana jatorku.

01. Askatxo baten dago  
abere artean  
amak ipini deutsen  
lastoaren gainean  
hantxe dago begira  
geu joan artean.

02. Zeruan aingeruak  
dagoz abeslari  
mundurako gura dau  
bakea ekarri.

03. Jose eta Maria  
begira berari  
ze zorion handia  
deuskuna ekarri!

04. Poztu gaitezen danok  
Jesus jaioteaz  
Haurtxoagan dogulako  
agindu zan Mesias.

05. Jaunak bialdu deusku  
gure onerako  
mundu honetan danok  
bakez bizitzeko.



**Jaku:** zaigu.  
**Jatorku:** datorkigu.

01. **Deutsen:** dion.

02. **Dagoz:** daude.  
**Gura dau:** nahi du.

03. **Deuskuna:** diguna.

## JESUSEN JAIOTZA BERMEON

(Bermeoko Gabon-Kanta, ZER, 1984, Uztaila, 77. zenbakia, 12. or., besteetatik ezberdinak bakarrik hautaturik)

01. Gabonak diraz eta  
edegi daixu atia  
geuk be ikusi daigun  
jaio dan infantia.

02. Oilarrak egin eban  
Belenian kukurruku  
Kristo jaio zanian  
gabaren gaberdi.



03. Gabaren gaberdian  
sortu da miraria  
Belengo estalpian  
jaio da Eguzkia.

04. Zeu biloxik egon arren  
ez zara zeu pobria  
zeruan josirik dago  
zeuretzako erropia.

05. Nor ete da zer ete da  
erroparen joskilia  
Andra Santa Isabela  
Santa Joskilia.

06. Emoskuzu, emoskuzu  
emongo, nahi badozu  
haxia be hotza dago ta  
lagunak be urritxu.

07. Hemen ez badau ezer  
guazen beste batera  
Jaungoikua dagon lekuan  
ez da ezer falta.

08. Zeuen emoiakaitik  
eskerrik asko jaunak  
ta Gabon zoriontsuak  
bemoskula Jainkuak.



01. **Edegi daixu:** ireki eizu, ezazu.  
**Be:** bere, ere.  
**Daigun:** dezagun.

02. **Eban:** zuen.

04. **Biloxik:** bilutsik, biluzik.  
**Isabela:** Isabel gehi artikulua mugatzai-  
lea. Arkaikoa.

06. **Emoskuzu:** emauguzu.

**Haxia:** haizea.  
**Urritxu:** urritu, gutxitu.

07. **Ez badau:** ez badago.

08. **Emoiakaitik:** emaitzengatik, sarienga-  
tik.  
**Bemoskula:** emon daiskula, eman die-  
zagula. Bi forma nahastu dira hemen.  
*Bemosku* edo *damoskula* izan behar luke.

## ZAMALLOA MARIJESIAK

(*Fiestas populares*, Felix Zamalloa. *Anuario de Eusko-Folklore* - II, 1922, 81. orrialdetik aurrera)

(Ezberdinak bakarrik harturik)

### I

01. Belenen hasi ziren  
ostatuen bile  
esanazjentieri  
erruki zirien.

02. Hara hor goien etxe bat  
hurijen akabuen  
ije dago jeusirik  
zaharraren puruen.

03. Alégrese, alegre  
alegre Josepe  
gaur gure seme honek  
jaijo biher leuke.

04. Josepe abarretan  
joan zan basora  
amari sortu jakon  
semie altzoan.

05. Astoa ta idije  
jaten egozanién  
nor ledukién  
bijen bitartien.

06. Kasparrek intzentsoa  
Beltxiorrek urria  
Baltasarrek eroiala  
mirra preziosia.

07. Espiritu Santuak  
emanik grazia  
haren kontzezinoa  
beti da garbia.

### II

08. Debozinoz jarri dira  
Jose ta Maria  
anparatzeko Seme  
estimagarria.

09. Zorionian gixon  
egin zara hemen  
gloria gozatzeko  
zeruetan. Amen!



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Erruki zirian:</b> ea errukitzen ziren.   | 04. <b>Jakon:</b> zitzaion.   |
| 02. <b>Hurijen akabuen:</b> hiriaren azkenean, amaian.<br><b>Zaharraren puruen:</b> zaharraren zaharrez. | 05. <b>Egozanién:</b> zeudenean.<br><b>Ledukien:</b> nor eduki zezaketen. |
| 03. <b>Biher:</b> behar.   | 06. <b>Eroiála:</b> zeramala.   |
|  | 07. <b>Kontzezinoá:</b> sortzea, sorkuntza.                               |

## III

- |   |  |
|---|--|
| 01. Berri onakin gera jentia etorri aingeruak zerutik degute ekarri.          | 06. Beste diraden guztijak alojatu dire Josepe ta Marije ostatuen bile.      |
| 02. Geuk ere emon bihar degu geuk ere alkarri bijer zebratzeko Pasko Eguarri. | 07. Hamazazpi etxetan egin dute oles alojamenturikan ixengo ete dan galdez.  |
| 03. Pasatu bihar degu egun handijori alabantzak emoten zeruko erregeri.       | 08. Hainbat bitartetan lekurik emon ez Josepe triste dago penaz eta dolorez. |
| 04. Horrek merezi ditu baten lekuen bi berorren etorrera santifikeu bedi.     | 09. Kaletikan kanpora dirade atera erretiratu dire estalpe batera.           |
| 05. Ordenak emon diote hango jentieri Belenen errebista presentatu bedi.      | 10. Gaurko alojamentuz han doaz jartzera astoa ta idijen lastoen artera.     |

- |  |  |
|--|--|
| 11. Ailegatu zigutzen gabaren erdijen Jesus hirugarrena degu famelijen.  | 13. Abilien daukagu haur jaioparrije arnasaz berotzeko astoa ta idije.     |
| 12. Gaua ixenagaitik bazan han argije zerutik etorri de bai ikusgarrije. | 14. Balle triste honetan egon biher beti etorri ezpalitxaku Mesias zeruti. |



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Degute:</b> digute.  | 11. <b>Zigutzen:</b> ziren. Zitzaizkigun? Forma ra-roa.       |
| 02. <b>Bijer:</b> bihar.<br><b>Eguarri:</b> Eguberri, Natibitate. | 12. <b>De:</b> da.  |
| 03. <b>Handijori:</b> handi hori.                                 | 13. <b>Abilien:</b> abeltegian, kortan, ikuiluan.             |
| 04. <b>Santifikeu:</b> santifikatu.                               | 14. <b>Balle:</b> aran.<br><b>Ezpalitxaku:</b> ez balitzaigu. |
| 06. <b>Alojatu:</b> ostatatu, ostaturatu.                         |   |
| 07. <b>Ixengo:</b> izango.  |   |

## IV

Olaetako aldakina. Ezberdinak bakarrik

Iai Maria i Jose  
Jose Maria  
Iai Maria i Jose.

- |  |  |
|--|--|
| 01. Abendu santu honetan Kristoren jaijotzia bertso txo bi kantadu eta alegere bizitzia. | 02. Josepe ta Marija joan ziran egurretan ez eben egurrik topeu gau ilun portixetan. |
|--|--|

03. Txakillon Tronpetero  
 lania iruten dago  
 gonia bihar dabela  
 Gabon jaijetako.

05. Hor goijen etxe baten  
 jo daigun atia  
 idigiko balebe  
 Josepe neuria!

04. Hor goijen etxe zahar bat  
 hurijen kabuan  
 ije jeusirik dago  
 zaharraren puruan.



02. **Egurretan:** egur bila, egurra ekartzera.  
**Eben:** zuten.  
**Topeu:** topatu, aurkitu.  
**Portixetan:** bortitzetan.

04. **Hurijen kabuen:** hiriaren muturrean,  
 puntan.

05. **Daigun:** dezagun.  
**Idigiko balebe:** irekiko balute.

03. **Lania:** artilea.  
**Dabela:** duela.

## GABONAK ETA ERREGENAK

(Gernika. Jon Enbeitak eskuraturiko orri soltea)

01. Zoriontsu da gaurko eguna  
 zoriontsu da benetan  
 zeruko atiak edegi dira  
 pekatariak salbetan.

03. Amak ez dauko oihalik eta  
 bilosik hotz dago Semia  
 abere arnasaz berotzen dabe  
 zeru ta lurren jaubia.

02. Belenen dago Jesus jaiota  
 abere askatxu baten  
 Ama Birjina ta Aita San Jose  
 jaijo barria jaboten.

04. Gauerdi da ta izar eder bat  
 hodoi altuan argi urten dau  
 adorau daigun ba Jesus Umia  
 artzainak legez adorau.

05. Herbestietatik errege magoak  
 Jesusgana datoz hain pozik  
 opari ederra goratzen dabe  
 guztion errege hauturik.



01. **Edegi:** ireki, zabaldu.  
**Salbetan:** salbatzen, salbatzeko.

04. **Hodoi:** hodei, laino.  
**Urten dau:** jalgi, irten, atera da.

02. **Jaboten:** jagoten, zaintzen, begiratzen.

**Daigun:** dezagun.  
**Legez:** bezala.

03. **Dauko:** dauka.  
**Dabe:** dute.  
**Jaubia:** jabea.

05. **Hauturik:** hautaturik, aukeraturik.

## ANTXINAKO KANTAK

(*Altubetar Seberrek papeleratuta.* Jose Antonio Arana Märtijak utzitako sortatik jasotako orri solte batek horixe jartzen zuen).

Atoz, goazen  
 adoradu daigun  
 Belenen jaio dan  
 Jesus ederra.

Ia Maria ta Jose  
 Jose Maria  
 Ia Maria ta Jose.

01. Belengo portalian  
 dagoz arbola bi  
 bata da laranja ta  
 bestea madari.

02. Arbola horren onduan  
 damatxo polit bi  
 bata ule-baltza da  
 bestia ule-gorri.

03. Hor hor goian etxia  
jo eizu atia  
inok erantzun barik  
emazte maitia.

04. Birritan da hiru bider  
Josepek joten dau  
gizonak bentanara  
nekez urteten dau.

05. Gizonak bentanatik  
deusku erantzuten  
gau honen ordu honetan  
nor ete da hemen?

06. Dontzeila eder bat da  
neurekin batian  
Jesus Haurtxoa dakar  
bere sabelian.

07. Dontzeila ta semia  
zela izan leiteke?  
Guzurti handi hori  
aurretik ken zaitte.

08. Josepe gizon ona  
harotza zara zu  
Haurtxo txiki honentzat  
sehaska egizu.



**Daigun:** dezagun.

01. **Dagoz:** daude.  
**Madari:** udare, txermen.

02. **Ule:** ile.

03. **Eizu:** ezazu.  
**Inok:** inork, nehork.  
**Barik:** bagarik, gabe.

04. **Urteten dau:** irteten, jalgitzen, ateratzen da.

05. **Deusku:** digu.

07. **Zela:** nola.

## MARIJESE KOPLA BATZUK

(Sortatxo hau neuk eskuz idatzitako orri batean neukan, ez dakit nondik jaso).

01. Bederatzi gau honetan  
egin dogu ahalegine  
orain bihar genduke  
errialtxu bat edo bine.

02. Bedarra burukotzat  
ogetzat askatxua  
bilos-bilosik dago  
jaio dan umetxua.

03. Izar barri eder bat  
guztien mirarian  
agertu zan zeruan  
Jesus jaio zanian.

04. Begira argi ederra  
izentaten bidia  
nun jaiota dagan  
zeruko erregia.

05. Nazaretik urtenda  
Josepe ta Maria  
juan ziran Belenera  
betetako legia.

06. Alperrik zan Belenen  
ostatua eskatzia  
danak beteta eukazen  
kanpoko jentiak.

07. Ha da gauban iluna  
ha da leku tristia  
ha da negargarrizko  
bien bakartadia!



01. **Errial:** erreal, pezeta laurden balio zuen dirua.

**Bine:** bina.

02. **Bedarra:** belarra.

04. **Izentaten:** izendatzen, erakusten, seinatzen.

05. **Urtenda:** irtenda, jalgirik.  
**Betetako:** betetzeko.

06. **Eukazen:** zeuzkan.

07. **Ha:** hura.

**Gauban:** gauaren.

## EIBARKO GABON KANTAK

(*Eibarko gabon kantak* J. San Martin. *Eibar* aldizkaria, 1986ko abendua, 287. zenbakia)

Gabon astean sartzean, mutiko ta neskatilak kantari:

Gabon Gabonete  
errez errezete  
Jesus jaio da ta  
jo daigun krixkete.



**Daigun:** dezagun.  
**Krikkete:** krisketa, maratila.

Gabon egunean:

Agillando, agillando  
bizkaitarrak Durangon  
aingeruak gara  
zerutik gatoz  
boltsia badogu  
eskian gatoz.



**Agillando:** gaztelaniazko *aguinaldo* 'tik.

Juanito Gisasolari esker dakigula dio San Martinek beste kantu hau:

Hartzak, hartzak, mutil  
pitxer erdi arda  
guazen poliki poliki etxera  
Gabon gaba igarotzera  
aitaren ta amaren onduan  
ikusiko dek ama barrez da  
aita ere bai txit kontentuz.  
Baita nik ere zelango txurruta  
lelengo esanda Jesus  
lelengo esanda Jesus

Bixigu erriaren hazurra ondo  
garbituko dogu  
eragixok mutil, eragixok mutil  
aurreko danbolin horri  
gaztainak erre artian  
gaztainak erre artian  
tirrin tarran tirrin tarran  
plin plaun plust!  
Euki daigun Gabon gaba kontentuz  
pasau daigun Gabon gaba kontentuz.



**Hartzak:** har ezak, hartuik.  
**Barrez:** irriz.  
**Txit:** oso, biziki, arrunt.

**Zelango:** zelako, nolako.  
**Eragixok:** eragiok, eragin iezaio.  
**Euki daigun:** eduki dezagun.

Hainbeste aldaera dauzkan kanta ospetsu hau dudarik gabe *Juan Kruz de la Fuente Bolangero*, Durangoko platero edo zilargin batena da, 1760. urtean jaioa bera. Hona hemen textu orijinala, *Gaboneko kantak* izenburuz:

(Durangoko plateruak, 124. or., Antton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga elkarte)

01. Ardi zain deboto bi  
amodio handijaz  
Jesusengana duaz  
janari guztijaz.  
Batak darua esnia  
bestiak eztija  
haurra konsolatzeko  
bihar dan guztija.

02. Hartuik pitxar bete ardo  
da guazen arin etxera  
Gabon gaba zelebratzeko  
aitaren da amaren onduan.  
Ikusi ok aita barreka  
ama bere txit kontentuz  
baita neuk bere zelango  
traguak lehenengo esanda Jesus  
bisigu errien hazurrak  
ondo txupauko deguz.

03. Eragijok mutil  
eragijok mutil  
sirrin sarran  
sirrin sarran  
aurreko aurreko tanbolinori  
gaztainak egin artian  
gaztainak egin artian  
sipli sapla  
sipli sapla  
plis plast  
plis plast pum  
Gabon gaba zelebratu dezagun.



01. **Ardi zain:** artzain.

**Duaz:** doaz.

**Darua:** daroa, darama.

02. **Hartuik:** hartzak, har ezak.

**Ikusi ok:** ikusi dok, duk. Badirudi *ikusiko dok* izan behar lukeela.

**Deguz:** ditugu.

03. **Tanbolinori:** badirudi *tanbolinorri* behar lukeela, tanbolin horri alegia.

Urte Berria hastean, kalez kale:

Urte Barri eguna  
ez da egun txarra  
kortara jausi jaku  
gure sapai zaharra.



**Kortara:** ikuilura, tegira.

**Jausi jaku:** erori zaigu.

**Sapai:** mandio, lastategi.

Baserriz baserri mutikoak eskean:

Urte barri barri  
txarri belarri  
daukanak ez daukanari  
zaria bete madari.



**Zaria:** zarea, otarrea, saskia.

Errege egunean:

Errege, erregen  
Mari Montaina  
zazpi intxaur ta  
hiru gaztaina.

## GABON GAUEKO AFALORDUAN

(*Ai Mari, Ai Jose!*, J. San Martin. **Hoja del Lunes**, 27 de diciembre de 19... Azken zenbakiak ez dira irakurtzen).

Familiaz batera  
jarri nintzan mahaian  
Gabon zelebrazteko  
alegrerantzian.  
Lelengoko tragan  
hiru txiki ziran  
hotz gogorra egon arren  
bizkor jarri nintzan.



**Familiaz:** familiarekin.

**Alegrerantzian:** alegrantzian, alaitasunean.

## Ondoren, doinu bizkorragoz:

Heldu dok Gabon, mutilak  
 atara arda zaharra  
 jan deigun meza ostean  
 kapoiaren iztarra.  
 Jokin Anton, dantzan egin deigun  
 besapeko gitarra  
 indar gehiagoaz goiazak  
 jai ostean gerrara.



**Deigun:** dezagun.

**Meza ostean:** meza ondoren, ondoan.

**Besapeko:** galtzarbeko.

**Gehiagoaz:** gehiagoz, gehiagorekin.

**Goiazak:** goazek, goaztik.

## ABENDU BERTSOAK

(Villancicos de Navidad en vascuence. Gabonetarako kanta. Libreria Gaubeka Gernika. Bittor Gaubeka Duok jasoak. Urterik ez du jartzen. Marijese antzera kantatzekoak direla dio).

## Gabon aurretikoak:

01. Abendu poza kantetan gatoz  
 Jauna, gaur zure etxera  
 abegi onez urten egizu  
 gure kanta entzutera  
 Jesukristoren etorreria  
 gatoz gu azaldu tera  
 zelan zerutik etorri jakun  
 Jesus Umia lurrera  
 pekatu danak parkatu eta  
 zerura eroatera.

02. Gure lehenengo guraso Adan  
 Jaunak egin ebanian  
 zorioneko ipini eban  
 paradisuen erdian.  
 Bere legia betetu eta  
 bizi zaitian bakian  
 gorputz da arima gero sartzeko  
 zeruetako glorian  
 baina jausi zan harrokerizko  
 pekatu itzalgarrian.

03. Pekatu harek itxi zituan  
 zeruetako atiak  
 seme danentzat galdu zaitian  
 guztien apaingarria.  
 Jesukristoren agindu onak  
 aiztuta gizon guztiak  
 hausi ezinda argaltasunez  
 pekatuaren katiak  
 inpernuetan jausiten ziran  
 gizon errukigarriak.

04. Baina Jaungoiko errukitsuak  
 gizonen maitasunagaz  
 erabagi dau eroatia  
 gizon guztiak beragaz.  
 Lurren erdian agertuten da  
 gizonaren jantziagaz  
 ta erakusteko bere legia  
 guri ejenplu onagaz  
 Belengo kortan jaioten jaku  
 umiltasun handiagaz



01. **Kantetan:** kantatzen.  
**Urten egizu:** jalgi, atera zaitez.  
**Jakun:** zaigun edo zitzaigun.

03. **Galdu zaitian:** galdu zen.  
**Aiztuta:** ahaztuta, ahantzirik.  
**Jausiten:** jausten, erortzen.

02. **Ebanian:** zuenean.  
**Bizi zaitian:** bizi zen. Arkaikoa.  
**Itzalgarrian:** itzalean, izugarrian.

04. **Maitasunagaz:** maitasunarekin.  
**Kortan:** ikuiluan, tegian.  
**Jaku:** zaigu.

## Gabon egunerakoak:

01. Andra Maria Jose dontsuaz  
 jaioterako egunetan  
 ostatu bila bizkor eban  
 Belengo jauregietan  
 borondaterik aurkitu ez da  
 haren bihotz gogorretan  
 txabolatxu bat aurkitzen dabe  
 Belengo inguruetan  
 ta hantxe jaio zan Jesus umia  
 gabeko hamabietan.

02. Zergaz estaldu bere gorputza  
 ez dauko Jesus maitiak  
 aldamenetik berotzen dabe  
 arnasaz asto ta idiak.  
 Askatxu baten ipiniten dau  
 galtzu artian Mariak  
 ta agertzen dira goi aldietan  
 aingeru talde handiak  
 pozez beterik kantetan dabez  
 kanta soinu pozgarriak:

Gabeko hamabiak  
 jo daben orduan  
 gure Salbagilia  
 jaio da munduan.

Gloria zeruan da  
 bakia lurrian  
 borondate oneko  
 gizonen artian.

03. Entzuten dabe artzain zintzoak  
 aingeru kanta ederra  
 danak itxita arin arinka  
 doiaz Jesusen aurrera.  
 Gizon guztien Salbagilia  
 ahuspazu ta adoretara  
 ta eskeintzen dautsez opagei onak  
 euren bihotzaz batera  
 pozez beterik kantetan dabe  
 artzain guztiak batera:

Jesus maitegarria  
 maite zaituguz guk  
 maite dozuzalako  
 gizon guztiak zuk.

04. Hogei gizaldi izango dira  
 Jesus Umiak jaio zala  
 bere graziaz zoriontsuak  
 danok izan zaitezela.  
 Aingeruak lez jaioparria  
 agurtzen etorri gara  
 pozez beterik egin daizuen  
 danok aurten gabon gaba  
 ta etxeoandra, hartuko geunke  
 limosnatxo bat ahal bada.

Gloria zeruan da  
 bakia lurrian  
 borondate oneko  
 gizonen artian.

05. Orain bagoaz hemendik eta  
 agur hurrengorartian  
 eskarrik asko etxeoandra  
 Jesukriston izenian.  
 Zorion asko opa jatzuez  
 aurtengo Gabon gabian  
 urte luziak igaro eta  
 Jaungoikoaren grazian  
 Jesus Umiak hartu zaizela  
 zeru zabal ederrian.

Gloria zeruan da  
 bakia lurrian  
 borondate oneko  
 gizonen artian.

01. **Dontsuaz:** dohatsu, santuarekin.  
**Jaioterako:** jaiotzarako.  
**Ebilan:** zebilen.  
**Haren:** harein, haien.  
**Dabe:** dute.
02. **Zergaz:** zerez, zerekin.  
**Galtzu:** gariaren lastoa.  
**Dabez:** dituzte.

03. **Itxita:** utzita.  
**Arin arinka:** lasterka, korrika.  
**Ahuspazu:** ahospeztu, ahoz behera ja-  
 rri, erreberentzia egin.  
**Adoretara:** adoratzera.  
**Dautsoz:** dizkio.  
**Opagai:** eskaingai, opari.  
**Bihotzaz:** bihotzarekin.  
**Kantetan dabe:** kantatzen dute.  
**Dozuzalako:** dituzulako.

04. **Lez:** legez, bezala.  
**Jaioparria:** jaio barria.  
**Daizuen:** dezazuen.  
**Geunke:** genuke.

05. **Opa jatzuez:** desiratzen zaizkizue.  
**Zaizela:** zaitzatela.

## ANTXINATIK EGOZAN

(Cancionero Popular Vasco, 945 or., R. M. Azkue)

01. Antxinatik egozan esaten  
 Profeta santuak  
 jaioko zala seintxo eder bat  
 zein ez zan munduan.  
 Berez ezin eukiko ebala  
 hain leku zabalik  
 ezta zer jantzi, zer jan ez edan  
 ondo jatorkanik.

03. Seintxoa, Jose eta Maria  
 hirurak bakarrik  
 teilape baztar baten egozan  
 gauzonik bagarik.  
 Seina biloizik zer jantzi ezta  
 hotzez da bisutsez  
 ezin geldirik egon ta aidean  
 darabilz hirurek.

02. Jeremiasek dirautso notarrak (?)  
 zelan Isaiasek  
 Belenen jaioko dala  
 sein Mikeasek.  
 Zakariasen Siongo alabak  
 dehadarrez dagoz  
 pozik zabaldu eizuz begiak  
 sein hau ikusteko.

04. Hau entzun dabenean zelan dan  
 Txomin dendaria  
 harturik zorroz tuta aldean  
 bere artasiak  
 etxera joan eta dirautso  
 beheko Patxikari  
 ebagi behar neukez oihaltxo  
 kana bat edo bi.



05. Txominek josten deutso Seinari  
jazteko osoa  
burutik behatzera zelanbait  
estaldutekoa.  
Baldasar Errotakok emongo  
dau huruna pozik  
baita bere Josepek  
askoz pozagorik.
06. Artzaintxoak datoz saltoka pozik  
... esneagaz  
ahia ... egitearren  
ogi hurunagaz.  
...  
...  
...



01. **Antxinatik:** aspalditik, behialatik.  
**Egozan:** zeuden.  
**Seintxo:** haurtxo.  
**Ebala:** zuela.  
**Jatorkanik:** datorkionik.
02. **Dirautso:** dinotso, diotsa, esaten dio.  
**Notarrak:** hau zer den ez diot antzik ematen.  
**Dagoz:** daude.  
**Eizuz:** itzazu.
03. **Bagarik:** gabe.  
**Bisuts:** euri-haizea, biak batera.
04. **Dabenean:** dutenean.  
**Artasiak:** guraizeak.  
**Ebagi:** ebaki.  
**Neukez:** nituzke.
05. **Deutso:** dio.  
**Behatz:** beheko hatza, oineko hatza.  
**Zelanbait:** nolabait.  
**Huruna:** hirina.
06. **Esneagaz:** esnearekin.

## DAIGUN TA DAIGUN

(Jon Enbeitak eskuratua, Muxikan kantatzen omen dutena)

Daigun ta daigun kantu ta dantzan  
Sein eder honen etorreran  
guztiok gendun Gabonen poza  
ikusiteko Seinen jaiotza  
baso ondoan botile motza  
espentzietan  
Jose harotza.  
Baina noz?  
Gaur Jesusian ondo gagoz.

01. Jeremiasek dino  
halan Isaiasek  
jaioko dala Jesus  
dino Mikeasek.  
Hau entzun ebanean  
Txomin dendarijek  
hartu ta zorrozturik  
bere artasijek  
egiteko Sein honi  
janzteko osoa  
burutik behatzera  
estaldutekoa.

Daigun ta daigun... etab.



**Daigun:** dezagun.  
**Baso:** edalontzi, edontzi.  
**Espentzietan:** ez dakit zer den.  
**Gagoz:** gaude.

01. **Dino:** dio.  
**Ebanean:** zuenean.  
**Dendarijek:** dendariak.  
**Artasijek:** guraizeak.

## AI ZE POLIT PINPINA

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., 24.or. Jose Ramon Arbe, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta beste hamarren artean)

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Ai ze polit Pinpina<br/>ederrago ezina!<br/>Zek zeukoz hor haurtxoa?<br/>Zer dozu askatxuan?<br/>Artzain mutil neskatxa<br/>zeruko aingerua.<br/>Hara Jesus Umia<br/>gure Jaun da Erregia.<br/>Estalgi barik hotzez<br/>gogortuko da askan.</p> | <p>02. Baina ama dago adian<br/>gozotuko dau laztanez<br/>haurtxo den Jaungoikoa<br/>goitik etorrikoa.<br/>Kantau zaiez zeruak<br/>hartu gaitzez munduak.<br/>Ai ze polit Pinpina<br/>ederrago ezina!<br/>Zek zeukoz hor haurtxoa?<br/>Zer dozu askatxuan?</p> |
|--|--|



- |   |   |
|---|---|
| <p>01. <b>Zek:</b> zerk.<br/><b>Zeukoz:</b> zauzka.<br/><b>Estalgi:</b> estalki, estalgarri.<br/><b>Barik:</b> bagarik, gabe.</p> | <p>02. <b>Adian:</b> begira, zaintzen. Ala <i>aldian</i> edo <i>aldean</i>, ondoan?<br/><b>Zaiez:</b> bezaitza, zaitzala.<br/><b>Gaitzez:</b> begaitza, gaitzala.</p> |
|---|---|

## BELERENGO HURIAN

(Cancionero Popular Vasco, 1082 or., R. M. Azkue)

Bart Belenen  
da bai Belenen  
jaio da Jesus Nazaren.

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Belerengo hurian<br/>Gabon gabaren erdian<br/>Birjina Maria zeuan<br/>kontsolazino handian</p>                        | <p>03. Korraletako ardiak bere<br/>dantzan zebilzan orduan<br/>Salbadorea jaio ta geugaz<br/>bizi da munduan.</p>      |
| <p>02. Jesus dibino! Gauaren hotza!<br/>Jausten da linetazia<br/>ordu bi horretan horrela bada<br/>hil da ganadu guztia.</p> | <p>04. Nazaretheko tenpluan dago<br/>dama eder bat jarriarik<br/>izena bere Maria dau ta<br/>ondo graziaz beterik.</p> |



- |   |                                    |
|---|------------------------------------|
| <p>01. <b>Hurian:</b> hirian.<br/><b>Zeuan:</b> zegoen.</p>                                 | <p>03. <b>Geugaz:</b> gurekin.</p> |
| <p>02. <b>Jausten:</b> erortzen.<br/><b>Linetazia:</b> inetazia, kazkabarra, txingorra.</p> | <p>04. <b>Dau:</b> du.</p>         |

## Ondoren Gernikako aldaera hau dakar:

Bai Belenen bai Belenen  
Jesus jaio da Nazaren.

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Belengo hurian<br/>Gabon gabaren erdian<br/>Maria Santisimeka dekola<br/>kontsolazino handian.</p> | <p>02. Nareth-ko tenploan dago<br/>dama eder bat jantzirik<br/>izena bere Maria dauko<br/>graziaz beterik.</p> |
|---|--|



01. **Dekola:** daukala.  
02. **Dauko:** dauka.

### GAUR GABON GABA

(Euskalerraren Yakintza IV, 117 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Gaur Gabon gaba da ta<br>geuk dogu agiri<br>kantadu gure neukez<br>bertsotxo barri bi.  | 03. Haren huts handiagaz<br>gabiltzaz kalean<br>kantadu gura geuke<br>guziok jasean. |
| 02. Zenbat harotz eta hargin<br>Gaztela urrunean<br>etxera etorri bage<br>gelditzen direan! |  |



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Kantadu gura neukez:</b> kantatu nahi<br>nituzke. | 03. <b>Handiagaz:</b> handiarekin.<br><b>Geuke:</b> genuke.<br><b>Jas:</b> patxada, ganora. |
| 02. <b>Bage:</b> gabe.                                   |   |

### URTEIZU JENTEA

(Cancionero Popular Vasco, 1148 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| Urteizu jentea<br>jente umildea<br>guziok adora daigun<br>zeruko erregea. | 01. Umilde jo zituan<br>Josepek ateak<br>ez egutsen erantzun<br>zalako pobrea. |
|---|--|

02. Kodaina bigurtu diraz  
oholezko ateak  
hereje bigurtu diraz  
orain hango jenteak.

03. Zerutik aingeruak  
pastoreak bere  
belauniko jarririk  
adoratzen dabe.



- Daigun:** dezagun.  
01. **Egutsen:** eutsen, zioten.

02. **Kodaina:** sega, belarra ebakitzeko tres-  
na.  
**Bigurtu:** bihurtu, bilakatu.  
03. **Dabe:** dute.

### DAN DAN DAN

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., 27. or. Jose Ramon Arbe, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta beste hamarren artean)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Dan dan da Maria ta<br>Josepe Belenen<br>kras kris kras etxe barik<br>Gabon izan arren.             | 04. -Dan dan dan eske gabiz<br>gau ostatuaren.<br>-Kras kris kras ostaturik<br>ez dago ba hemen.    |
| 02. -Dan dan da nor da hemen<br>jauregi honetan?<br>-Kras kris kras zein da deika<br>gaueko hamarretan? | 05. -Dan dan da behartsu bi<br>iriki egiguzu.<br>-Kras kris kras aberats bi<br>hartuak ditugu.      |
| 03. -Dan dan da nor da hemen<br>etxetxu honetan?<br>-Kras kris kras zein da deika<br>gaueko hamaiketan? | 06. -Dan dan dan jo dezagun<br>estalpe honetan.<br>Kras kris kras sar gaitezen<br>hortxe ilunpetan. |

07. Dan dan dan aintza goian  
ta bakea hemen.  
Kras kris kras Jesukristo  
jaio da Belenen.

08. Dan dan dan hamabiak  
Belengo torrean.  
Kras kris kras aingeruak  
zeruko atean.

09. Kras kris kras jaio zaigu  
Jesustxo Belenen.  
Dan danok sar gaitzala  
berak zerura. Amen!



01. **Barik:** bagarik, gabe.

04. **Gabiz:** gabiltz, gabiltza.

05. **Behartsu:** txiro, pobre.

**Egiguzu:** iezaguzu.

Pieza bitxia eta xarmanta hauxe. Egitura sinplea, baina oso zehatza. Eta sinplea polita bada, bi aldiz polita, politasuna ageriago gelditzen bait da.

## BIAK BELENERA

(Cancionero Popular Vasco, 1083 or., R. M. Azkue)

Jesukristo  
ay qué bonito  
Niño Jesukristo!

01. Biak Belenera  
daude kaminadu  
han heldu zaitezanean  
ostatuaren itandu.

02. Arrano galant bat  
zerutikan lurrera  
sujetadu izan  
zeruko erregea.

03. Ameak hartu eban  
semea besoetan  
semea ta Jaungoikoa  
zituen adoretan.

04. Linboan egozan deiez  
bost mila urtean  
Jauna, jatsi zakiguz  
zeruetarean.



01. **Daude kaminadu:** dute kaminatu, bi-  
dea egin.

**Heldu zaitezanean:** heldu zirenean.  
Arkaikoa.

**Ostatuaren itandu:** ostatuaren itauna  
egin, ostatuaz galdetu. Bizkaieran ar-  
kaikoa. Iparraldean gaur ere normala.

02. **Sujetadu izan zeruko erregea:** esaldi  
iluna. Nik ez dut ulertzen behintzat.

03. **Ameak:** amak. Arkaikoa. Gaur animalien  
ama bakarrik deklinatzen da artikulua eta  
guzti.

**Adoretan:** adoratzen.

04. **Egozan:** zeuden.

**Zakiguz:** zakizkigu.

**Zeruetarean:** zeruetatik. Arkaikoa.

Pieza hau oso zaharra dela argi dago, hainbeste arkaismo gordetzen bait du.

## BIZKAIKO

(Cancionero Popular Vasco, 1086 or., R. M. Azkue)

Bizkaiko tierras tienes  
erderaz ein honi  
hasi dira esaten  
adios mi txiki.

Si quieres venir paje  
por tal habes venido  
noche da Gabon gaba  
pasarás conmigo.

01. Goazen bada, goazen laster  
guziok alkarrekin  
zahar da gazte guztiok nahaste  
benaz zerbitzekin.

02. Haur ederra kontsolatzen  
kanta berri honekin  
goazen bada, goazen laster  
umore onarekin.

Artzai buruzuri bi  
Anton eta Peru  
Belengo portalera  
etorri zaizkigu.  
Sartzen dira barrena  
Manueltxogana  
presente egin diote  
arkumetxo bana.



**Paje:** otsein, zerbitzari.

01. **Benaz zerbitzekin:** benetan zerbituz.

## HASIKO NAZ ALBISTE HAU

(Cancionero Popular Vasco, 1078 or., R. M. Azkue)

Erantzuten alkarreri  
klarinagaz, organuagaz  
musika konzertaduagaz.

01. Hasiko naz albiste hau  
pekatariak esaten  
zergaitik dagoan Jaungoikoa  
gizon eginda Belenen.

02. Pastoretxuak alkarri:  
zer darotsezue Jaunari?  
Kapote zaharren azpian dagoz  
arkume buruzuri bi.



**Klarinagaz:** klarinarekin.

02. **Darotsezue:** daramaiozue.  
**Dagoz:** daude.

Jarraian Ubideako aldaera hau dakar:

Erantzuten alkarreri  
klariganaz, organuagaz  
musika konzertaduagaz.

02. Salomonen tronu horrek  
orain dauko famea  
Birjina Amak besoetan  
gure Salbadorea.

01. Jesus, zeure arbolea  
neguaren erdian  
ekatzaren bildur бага  
oraintxe dago loran.

03. Hasi dira pastoreak  
arakaska propia  
zein lehenago heltzen diran  
Belengo portalean.



01. **Arbolea:** arbola.  
**Ekatxaren:** ekaitzaren, denboralearen.  
**Baga:** gabe.

**Propia:** Azkuek *porfia* gisa interpretatzen du, hots, dema, lehia. Errimak eta joskerak ere *propian* eskatzen dutela dirudi.

03. **Arakaska:** Ez dakit zer izan daitekeen, *haraka* edo *haranzka* ez bada, atzizkia bibiderturik.

## BEDINKA GERTA DEDILA

(Cancionero Popular Vasco, 1080 or., R. M. Azkue)

01. Bedinka gerta deila sekula  
betiko jaio dan sein ederra  
gizon ta Jaungoikoa  
bakean iminteko  
lurra eta zerua.

02. Jaungoiko ta gizon bat  
gizon ta aingerua  
zu nor, zu zein  
zu nor, zu hemen  
zeruko erregea.

03. Jesus gure laztana  
Jesus guretzat dana  
donteila utzirik ama  
zu gaur jaio zara.



01. **Deila:** dadila.  
**Sekula:** beti.

**Sein:** haur, ume.  
**Iminteko:** ipintzeko, jartzeko.

### BELEN BELEN

(Cancionero Popular Vasco, 1081 or., R. M. Azkue)

Belen Belen da Belenen  
jaio da Jesus Nazaren  
Belen Belen da Belenen  
jaio da Jesus Nazaren.

Gabon gabeko hamabietan  
altzoan dantzan zerabilen  
Gabon gabeko hamabietan  
altzoan dantzan zerabilen.

### ANA TA JOKIN

(Cancionero Popular Vasco, 1076 or., R. M. Azkue)

01. Ana ta Jokin, Peru ta Martin  
goazen zortziko dantzara  
gabon gabeen zoro ez dana  
zororik handiena da.

02. Portale zaharra loraz beterik  
gabon gabaren erdian  
marabilea jaiotzen dago  
Jaungoikoaren semea.



02. **Marabilea:** miraria, miresgarria.

### AI HAU GABAREN

(Cancionero Popular Vasco, 1072 or., R. M. Azkue)

01. Ai hau gabaren preziosoa  
Jesus jaio da Belenen  
etxe honetan sartu ote dan  
bila gabiltza beronen.

04. Hor goitik eta beherainokoak  
artzain zaharraren saltoak  
bildots handia lepoan duela  
altxa ezinik orpoak.

02. Erdiok gara olagizonak  
beste erdiok harotzak  
limosnatxo bat egitekotzat  
bigundu bediz bihotzak.

05. Belaunbikoka joan ginaden  
Nazaretikan Belena  
geuk adoratu behar gendula  
Jesus Maisua lehenena.

03. Ama gureak bere behiari  
kaikua bete esne bildurik  
epel epelik, giro girorik  
hartu baleio gustorik.



01. **Bila gabiltza beronen:** beronen bila  
gabiltza.

**Egitekotzat:** egiteko.  
**Bediz:** bitez.

02. **Olagizonak:** burdinginak.  
**Ola:** burdina lantzen den lantegia.

03. **Baleio:** baliezaio.

## BIRJINEAREN GABA (I)

(Cancionero Popular Vasco, 856 or., R. M. Azkue)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Birjinearen gaba da eta<br>dezagun bere kantea<br>nik esango dot kantea baia<br>ondo erantzun, jentea. | 02. Jaioten danak heriotzea dau<br>gauza eskusa bagea<br>ni nerau bere jaio nintzan da<br>zor dot nik heriotzea. |
|--|--|



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Dezagun:</b> <i>desagun</i> izan behar du, hots, <i>esan dezagun</i> , ondorengo <i>esango dot</i> horrek eskatzen duenez. Hurrengo aldaerak ere <i>esaigun</i> dakar, beraz, <i>esan</i> aditzetik behar du. | <b>Kantea:</b> kanta.<br><b>Baia:</b> baina.<br>02. <b>Eskusa:</b> aitzaki, estakuru.<br><b>Bagea:</b> gabea. |
|--|---|

## BIRJINEAREN GABA (II)

(Cancionero Popular Vasco, 856 or., R. M. Azkue)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Birjinearen gaba da gaur da<br>esaigun bere kantea<br>nik kantaiko dot kantea baia<br>ondo erantzun, jentea. | 03. Heriotzari gauza bategaz<br>ohi natxako neu kontentu<br>aberatsari diruakaitik<br>ezin leiola parkatu. |
| 02. Jaioten danak heriotzea da<br>gauza eskusa bagea<br>ni nerau bere jaio nintzan da<br>zor daukat heriotzea.   | 04. Aberats horrek diruak ditu<br>pobreak umildadea<br>umildadeak edegikoitu<br>zeru altuan atepak.        |



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Esaigun:</b> desagun, esan dezagun.   | <b>Leiola:</b> lekiokela.<br><b>Edegikoitu:</b> irekiko ditu. |
| 03. <b>Bategaz:</b> batekin.<br><b>Ohi natxako:</b> ohi natzaio, egon ohi natzaio. |   |

## AGUR JESUS, MARIA, JOSE

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., 25. or. - Jose Ramon Arbe, Juan Mari Beltran eta beste hamarren artean)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Agur Jesus, Maria, Jose<br>Joakin eta Ana<br>badakigu Jesus maitia<br>jaio zan gaba dana.           | 05. Sortaldetik etorriko dire<br>hiru mago errege<br>maitasun nekeak zer diran<br>haixek esango dabe.        |
| 02. Herriko hainbat neska-mutil<br>gatoz zuen atera<br>atseginezko poz eder bat<br>zueri emotera.       | 06. Gasparrek dakar intzentsua<br>Baltasarrek mirria<br>txiruak jazteko Meltzorrek<br>dakar urre gorria.     |
| 03. Egiazko barri ederra<br>jatzuenean ekarri<br>limosnaren bat uste dogu<br>gaur etxe honetatik.       | 07. Eske datoz gose egarriz<br>nagarrez dauzenentzat<br>eske datoz Jesus laztana<br>maite daben haurrentzat. |
| 04. Bildots agiri zorean haurra<br>ez zara zu pobria<br>Aita Urtzik dauka zeruan<br>zeuretzako erropia. | 08. Egiazko barri ederra<br>behar dogu sinistu<br>Jaungoikoaren semia dau<br>zerutik jatsi jaku.             |

09. Belengo estalpean dago  
Jesus hotzez dardarka  
koilarreakin astoa ta  
idiaren erdian.

10. Pobreziarik handienagaz  
aska baten gainian  
euren arnasaz berotzeko  
hotzitzen danian.



01. **Dana:** dala.

03. **Jatzenean:** zaizuenean.

04. **Zarean:** zaren.  
**Urtzi:** zeruko, ortzeko jauna.

05. **Haixek:** haixek.  
**Dabe:** dute.

06. **Txiruak:** txiroak, behartsuak, pobreak.

07. **Dauzenentzat:** dagozenentzat, daudenentzat.

09. **Koilarreakin:** *koilare* edo gastelaniazko *collar*? Ez diot antzik hartzen.

10. **Handienagaz:** handienarekin.  
**Hotzitzen:** hozten.

## GABON DALA ONA

(Frantziska Agirrezabala - Zeanuri. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., Juan Mari Beltran, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta beste hamarren artean)

01. Gabon dala ona  
Gabon dala ona  
Natibitite hobia  
Natibititek ekarrikotso  
Gabon otzara betea.

02. Aratostetxo mangea  
gau biharamun bagea.  
Gau biharamun baieuekek baine  
Gabonek iuekek hobia.

01. **Natibitate:** eguberri, jaiotza.  
**Ekarrikotso:** ekarriko dautso, dio.  
**Otzara:** zare, otarre, saski.

02. **Aratoste:** ihaute, ihauteri.  
**Mangea:** manga, mahuka. Aratostearen

manga edo luzapena adieraz dezake. Ugarritasuna ere bai. *Euria mangan bota:* euria mardul, sendo bota. Dena den, ez dut argi ikusten.

**Baieuekek:** bazeukatek.

## NAHI DUEN EZKERO

(Bilboko Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan aurkitutako orri solte bat)

Nahi duen ezkerro Sein ederrak  
artzaien trajean etorri  
kanta dezagun artzai onak  
tonadila eder hori.

01. Erdu, erdu nere lagunak  
guazen guazen Belenera  
izar eder bat dago han eta  
utzi dezagun nagia.

06. Zeruko errege gaur jaio zaiku  
portale triste batean  
umilik eta hotzak hilik  
lasto hutsaren gainean.

02. Orain bada kanta dezagun  
tonadila eder hori  
festak ere degiozkagun  
Birjinaren Semeari.

Ai ai ai mundua, ai mundu mundua!  
Ongi ongi daukazu  
zeruko lorea  
ongi ongi daukazu  
desanparatua.

03. Dagigun saltu, betor bebil  
zeren zai zaute artzaiak?  
Artzai txiki honek eman dagizgun  
guri ensaltze handiak.

07. Lau artzai pobre etorri dira  
Seinaren alabatzera  
Seinaren alabatzera eta  
amaren honratutzera.

04. Haurraren bada konsolatzeko  
biolinak ditugu ekarri  
haren soinuan kanta dezagun  
tonadila eder hori.

08. Zer nahi dezute artzai onak  
portale pobre honetan?  
Noren bila zabiltzate  
gauaren ordu honetan?

05. Kriadorea agradezitzen  
astoa eta idia  
beren Jabea ezaguturik  
ditxa daukate handia.

09. Aingeruak esan digute  
hor hor goian basoan  
gure Mesias dagoala  
Birjina Amaren besoan.



10. Erregeak heldu dira  
urrea eta mirrarekin  
intzentsua ere badakarte  
adoratzeko berekin.

11. Erregeen erregea da  
ez da zer milagro egin  
basailajea sujetatzea  
koroak utziarekin.

**Sein:** haur, ume.

**Trajean:** jantzian.

**Tonadila:** aire, doinu.

01. **Erdu:** zatozte. Gaur *erdu* zatoz da eta  
zatozte *erdue* edo *erduze*.

02. **Degiozkagun:** dagioguzan, egin diezaz-  
kiogun.

03. **Dagigun:** egin dezagun.

**Zaute:** zaudete.

**Dagizgun:** diezazkigun.

**Ensaltze:** ez dakit zer izan daitekeen.

12. Zortzi egun pasatu eta  
primidak dituzu utzi  
guregatik padezitzea  
laster dezu zuk ikasi.

13. Zure etxera, Jesus maitea  
eraman gaizazula  
Birjina Ama Joseperek  
interzesora degula.

05. **Agradezitzen:** eskertzen, esker ona ema-  
ten.

07. **Seinaren alabatzera:** sein alabatzera.  
Arkaikoa. Iparraldean normala.

11. **Basailajea:** menpekoen multzoa. Baita  
menpetasuna ere.

**Koroak utziarekin:** koroak utzita.

12. **Primidak:** ez dakit zer izan daitekeen.

13. **Interzesora:** bitartekari, erregutzaile.

## JAGI JENTIAK

(Euskalzale, 405. or. *Txistularrek batuak*)

Jagi jentiak, negarrez dago  
Umetxu jaio barria  
kantau bihogu bera isiltzeko  
orain ahal dogun guztia.

01. Jose eta Maria  
doaz gaur Belena  
haintxe kunplietako  
asaben esana.

02. Neguaren erraiko  
gaberdi aldean  
jente guztia lotan  
dagoan uanean.

03. Maria aurkitzen da  
Sein zapi bagarik  
lasto puska batzukaz  
ohia konpondurik.

**Jagi:** jaiki.

**Bihogu:** behar dogu.

01. **Kunplietako:** kunplitzeko, betetzeko.

03. **Batzukaz:** batzuekin.

**Ohia:** ohea.

04. Ez eukirik noñ emon  
bertan ostaturik  
eskepe baten dagoz  
kontentuz beterik.

05. Jaioten da Belenen  
Ieseren semea  
zeru eta lurraren  
Erredentorea.

06. Asto eta idien  
arnasa bagarik  
Hotzak hil bihar zaitu  
Umetxu, bakarrik!



04. **Eskepe:** aterpe, lehorpe.  
**Dagoz:** daude.

06. **Bagarik:** barik, gabe.

## HORRA NUN DOIAN

(Cancionero Popular Vasco, 1123 or., R. M. Azkue)

01. Horra nun doian mendian behera  
Joane esneagaz  
Seinari ahia egitearren  
ogi hurunagaz.

02. Batak huruna besteak bahia  
artzainak esnea  
horra nun doian Seinarentzako  
behar dan guztia.



01. **Esneagaz:** esnearekin.  
**Hurunagaz:** hirinarekin.

02. **Bahia:** bahea.  
**Seinarentzako:** haurarentzat.

### ZERUKO ERREGEA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 123 or., R. M. Azkue)

01. Zeruko erregea  
jaio zan orduan  
munduan  
Herodes erregea  
enbidiaz betea  
bildurtuten hasi zan.

04. Heldu zireanean  
Belengo herriko  
portalera  
Jauna adoratzera  
ahuspaz jausi zirean  
belauniko lurrera.

02. Herodes erregea  
zek bildurtzen zaitu?  
Esaizu!  
Jaio dan infantea  
zeurorrek hil eitea  
lograduko ez dozu.

05. Ofrezietan deutsez  
euren presenteak  
nobleak  
batak dakar urrea  
beste horrek mirrea  
ta intzentsua besteak.

03. Hiru errege datoz  
Orientetikan  
Belenera  
aurretik dakarrela  
izar argi eder bat  
bidea erakustera.

06. Beste bide batetik  
bihurtutan dira  
herrira  
Herodesen asmuak  
eta pentsamentuak  
orain burlatu dira.

07. Herodes burlaturik  
gelditu zanean  
berberean  
agindu eban hilteko  
inozente guztiak  
Belengo hurian.

08. Ai zer negar handiak  
orduan Belenen  
eukezen!  
Amaren bularretik  
erruki bagarik  
daroez umeak hilten.



02. **Zek:** zerk.  
**Esaizu:** esazu, errazu.  
**Lograduko:** lortuko, erdietsiko.

06. **Bihurtuten:** bihurtzen, itzultzen.  
**Burlatu:** trufatu, isekatu.

03. **Dakarrela:** dakartela.

07. **Berberean:** berbertan, berehalaxe.  
**Eban:** zuen.

04. **Ahospaz:** ahospaz, buruz behera.  
**Jausi:** erori.

08. **Eukezen:** zeuzkaten.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
**Daroez umeak hilten:** umeak hiltzera  
daramatzate.

05. **Ofrezietan:** ofrezitzen, eskaintzen, opa-  
tzen.  
**Presenteak:** eskaintzak, opariak.

Ahapaldi hauen neurria eta errima bikoitza arretagarriak dira benetan.

### HIRU ERREGA

(Ondarroako aldaera. Agustin Zubikaraik utzitako sorta batetik)

01. Hiru errege datoz  
hodeien artetik  
erregiak  
aurretik dakarrela  
argi izar ederra  
bidiak erakustera.

02. Herodesek dirautse  
hainbat preguntegaz  
Nora zuaz?  
Belengo ziudadera  
jaio dan infantia  
adoratzera guaz.

03. Adoratzten dozuenian  
hemendik erdue  
nik ere  
zuen errege hori  
dinozuen jaun hori  
adoratu nahi neuke.

04. Juan dira erregiak  
izarren atzetik  
bidian  
artez eruan ditu  
eta ipini ditu  
Belengo portalian.

05. Jesus, Jose ta Maria  
topau zituenian  
Aldospian  
bertantxe jarri ziran  
Jauna adoratzera  
belauniko lurrian.

06. Beste bide batetik  
bihurtuten dira  
erregiak  
Herodesen asmuak  
eta pentsamentuak  
bertan burlatuak dira.

07. Herodes burlaturik  
gelditu zanian  
azkenian  
agindu eban hilteko  
ume txiki guztiak  
Belengo ziudadian.

08. Ai ze negargarria  
orduan Belenen  
ziraden  
amen bularretatik  
errukitu gaberik  
seinak eroiezan hiltzen.

Errepika:

Zeruko Erregia  
jaio zan orduan  
munduan  
Herodes erregia  
inbiriak betia  
bildurtuten hasi zan.

01. **Hodeien:** lainoen.

02. **Dirautse:** dinotse, diotsate, esaten diote.  
**Preguntegaz:** itaunekin, galderarekin.

03. **Erdue:** zatozte.  
**Dinozuen:** diozuen.

04. **Artez:** zuzen.

**Eruan:** eraman.

05. **Topau:** aurkitu, kausitu.

07. **Eban:** zuen.

08. **Eroiezan hiltzen:** zeramatzaten hiltzera.

## JESUS AVE MARIA

(Ez dakit nondik jaso dudana)

01. Jesus Ave Maria  
graziaz betea  
Jauna da zugaz eta  
da zure semea.  
Bedeinkatea zara  
ta bedeinkatua  
gaur zure sabeletik  
jaio dan frutua.

02. Jesus Santa Maria  
Jaungoikoaren ama  
erregutu egizu  
amatxo laztana.  
Pekatoriokaitik  
jaio da Belenen  
geure heriotzako  
ordu hatan amen.

03. Jesus maite laztana  
geure ontasuna  
zatoz ordu onean  
mundutarrengana.

04. Arren emon egizu  
gaur gabon saria  
munduan bakea ta  
ariman grazia  
gero gerta dakigun  
zeruan gloria.

∞

01. **Zugaz:** zurekin.

02. **Egizu:** ezazu.  
**Hatan:** hartan.

## GOAZEN GOAZEN

(Cancionero Popular Vasco, 1103 or., R. M. Azkue)

Goazen goazen Belenera  
zahar eta gazte guztiok eramaten  
Seintxuari gabon sari kapoiok.  
Ardi bi ta lau bildots  
pitxar handi bat esne  
sagar, intxaur ta gaztaina  
altzoa bete bete.



**Kapoi:** oilar irendua, zikiratua.

**Altzoa:** magala.

## JAIO DA

(Cancionero Popular Vasco, 1105 or., R. M. Azkue)

Jaio da jaio Jaungoikoaren semea  
jaio da geure pozgarria  
askatxo pobre batean  
lastoen ganean  
portale triste batean  
Belengo hurian.  
Jaio da Jaungoikoaren semea  
geure pozgarria.

## TOMAS ABADE DAGO

(Cancionero Popular Vasco, 1134 or., R. M. Azkue)

01. Tomas abade dago  
Ermuan portalean  
kartak dituazela  
partikara barruan.

Qué bonito! Ay qué bonito!  
Niño Jesukristo.  
Txirikila maratila  
barri barritsuak dira  
Ay qué bonito! Ay qué bonito!  
Niño Jesukristo.

02. Batean galtzen dau ta  
bestean irabazten  
irabazi ezkerok  
ondotxo dau edaten.



01. **Abade:** apez, apaiz.

**Dituazela:** dituela.

**Partikara:** patrika, sakel, poltsiko.

02. **Txirikila:** haur jolas bat.

**Maratila:** txaramela, klisketa.

## URTE BARRI BARRI

(Cancionero Popular Vasco, 1143 or., R. M. Azkue)

Urte barri barri  
txarri belarri  
dekonak ez dekonari  
nik ez dekot eta niri.

Apalazio zalduna  
 hiru erregen eguna  
 zotzak eta paluak  
 txori bi horren kontuak.  
 Emongo bozu emoizu  
 baldin emongo badozu  
 zuri begira gagozan arte  
 egiten jaku berandu  
 Apalazio Mari Montaña  
 hiru intxaur ta lau gaztaina.

**Dekonak:** daukanak.

**Apalazio:** latineko *apparitio* 'tik. Agerpena, errege egunean ospatzen dena.

**Bozu:** badozu.

**Emoizu:** emazu.

**Gagozan:** gauden.

**Jaku:** zaigu.

## APALAZIO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 282 or., R. M. Azkue)

### Zeanuri

01. Apalazio zalduna  
 hiru erregen eguna  
 hiru erregeak bialdu gaitue  
 limosnatxo baten bila.
02. Zotzak eta paluak  
 Martin Antonen kontuak  
 Martin Antoni eroan dautsoz  
 hiru oilanda katuak.

03. Haren hazurrak batu ezinik  
 hak erabilzan saltuak  
 saltu ta brinko, saltu ta brinko  
 Jose Marian aurrean  
 Gabon gabeko intxaur saltsea  
 guztiz birrindu artean.

### Zornotza

04. Apalazio zaldune  
 hiru erregen egune  
 zotzak eta paluek  
 estudiantien kontuek.  
 Estudiantiek sasirik sasi  
 asko jan ta gitxi ikasi.

∞

01. **Apalazio:** latinezko *apparitio* 'tik aldatua. Agerpena, hiru erregeen egunean ospatzen dena.  
**Gaitue:** gaituzte.

02. **Eroan dautsoz:** eraman dizkio.  
 03. **Hak erabilzan:** hark zerabiltzan.  
**Brinko:** ihuti, aputika.  
**Birrindu:** xehatu, txiki-txiki egin.

## URTE BARRI

(*Cantares populares recogidos por Manuel de Lekuona - Anuario de Eusko-Folklore, 1930, tomo X, 37. orrialdetik aurrerako sorta*)

01. Urte barri  
 dekonak ez dekonari  
 nik ez dekot eta niri  
 ezpabere txarri belarri.  
 Zerutik gatoz  
 zerutik gatoz  
 ekazu limosnea  
 Jaungoikoagaiti.
02. Apalazio zaldune  
 hiru erregen egune  
 hiru erregeak bialdu gaituz  
 limosnatxu bat behogule.  
 Zotzak eta paluek  
 Martin Orozkoarren kontuek.  
 Martin Orozkoarrari eroan dutsez  
 hiru oilanda katuak.  
 Hain hazurrek batu ezinde  
 harek darabizen sailtuek!  
 Sailtu te brinku  
 Jose Marien aurrean  
 Gabon gaubeko intxaur saltsea  
 ondo birrindu artean.



01. **Ezpabere:** ostantzean, bestela.  
**Ekazu:** ekarzu, ekar ezazu.
02. **Gaituz:** gaituzte.  
**Behogule:** behar dogula.

- Dutsez:** dautsoz, dizkio.  
**Hain:** haien.  
**Darabizen:** darabiltzan.

Beste zenbait hitz ikus aurreko aldaeran.

# BERTSOLARITZA

Bizkaiko bertsolaritza zaharrea gauza bat nabarmentzen da bapatean: zortzikoaren nagusitasuna. Ez dago zortziko handiaren eta txikiaren bereizpenik. Zortzikoa beti da zortziko txiki eta izena ere zortzikoa dauka soilik. Baina berezitasunik nabariena erriman dago, lehen bi oinak batera eta hurrengo biak bestera errimatzea lege bait da. Tradizio horrek gure egunetararte iraun du eta hala, Bizkaiko txapelketak hasi zirenean, 1958an, baziren eredu bikoitz horretan errimatzen zutenak, halaxe egin behar zela uste zutelako. Bigarren kontua bertsoen transmisioa da. Kontua ezezik, arazo latza ere bai sarritan. Hau koplartzari ere aplika dakiok. Ahoz aho datorrenak aldaera ezberdinak eta sarritan deformazioak jasatea gauza normaltzat jo behar da. Baina bizkaieraren kasuan gipuzkeraren interferentziak nahasmen handiak eta gehienez traketsak sorrerazten ditu. Bizkaieradunak, gehienez, bere hizkerarekiko konplexu edo gutxi-uste handia dauka. Gipuzkerazko formak sartuz gero, jantziago, gailenago gelditzen dela uste du. Uste horrek ez dauka ohartua izan beharrik. Konplexuak gehienez oharkabeak izaten dira, edo aitortu gabeak behintzat.

Bitarteko transmititzaile horiek, gipuzkeraren ezagutza nahiko murrizta dutelarik, gutxi gora behera jokatzen dute, erdi bizkaiera erdi gipuzkerazko nahaste bitxiak sortuz, itsusiak ez esateagatik. Baita sarritan existitzen ez diren forma hibrido xebreak asmatu ere, aditzean bereziki: *niozan, daiskuten, dizkizudaz, neskizukez, genzakez* eta gisakoak. Baina belarrira ondo ematen dute, ezta? Aurrera orduan. Kantatzeko horixe behar da, belarria gozatu. Gertatzen dena zenbat buru hainbat belarri bider bi daudela eta hor datoz lan zailagoak.

Gaitz hori ez da bitartekoena bakarrik, noski. Bertsogileak ere kontzientzia berdintsuan aurki daitezke. Gero irakurri izan ditut honelako

oharrak: “Bertso sorta honek Gipuzkoa aldetik etorria izan behar du, hainbat hitz gipuzkerazko bait dauka”. Kontuz argumentu honekin. Gipuzkeraz ari denak nekez sartuko du bizkaierazko hitzik, eta gutxiago aditzik. Bizkaitar batek, ordea, ustez bizkaieraz bertsoak jartzen ari dela ere, gipuzkerazko formak errez sartuko ditu, eta sarritan erruz ere bai, joera handi samarra hartua badu. Egia da bizkaitar batek Gipuzkoako bertsopaper bat bere bizkaierara deforma dezakeela, baina deformazio horrek ere bere erretenak dauzka. Eta alderantziz begiraturik, badira hitzak eta aditz formak, gipuzkeradun batek sekula sartuko ez dituenak. Gaur, jakina, baliteke honelako experimentuak egitea, baina bertso zaharrez ari naiz, ez oraingo bertsolaritzaz.

Euskalki barruan ere sortzen da lorrina, azpi-euskalkiak nahastean. Deklinabidean esaterako, azpi-euskalki batek *famea, atea, astoa, begie, lepoan, munduen...* egingo du, beste batek *famia, atia, astua, begija, lepuan, munduan...* beste batek *famie, atie, astue, begije, lepuen, munduen...* beste batek *famí, atí, astú, begixe, lepún, mundún...* eta hala beste hainbat azpi-sistema. Bistan denez, sistemak deklinabidea, aditza, lexikoa eta hizkuntza osoa hartzen du. Orduan, esaterako, *atea, astua, begixe, lepuen* eta hola sorta berean nahastea —are gutxiago bertso edo koplak berean— lardaskeria da. Dena den, hauek euskalki barruko kontuak dira eta muzingarriak izan arren, ez dira euskalki arteko nahasketak bezain itsusiak. Honenbestez, goazen gabon bertsoetara.

## GABON BERTSOAK



## URTE GUZTIETAKO (1794)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 9581)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Urte guztietako<br/>Gabongo legia<br/>da soinu eder baten<br/>kantia imintia.<br/>Etxako ukatuko<br/>sari hau Jesusi<br/>jaio jakun ezkeru<br/>Belenen gugaiti.</p>                  | <p>04. Jesus etorri orduko<br/>lurra dago ixilik<br/>gerrako arma guztiak<br/>albora itxirik.<br/>Bakezko erregia<br/>jaku izentetan<br/>Judiako lehoia<br/>egun barrietan.</p>                  |
| <p>02. Arerio handi bi<br/>daukaguz zer goitu<br/>gura bogu Seintxua<br/>erregetzat hartu.<br/>Gerraginak daukaguz<br/>gorputz ta ariman<br/>Halan pasinoe txar<br/>zelan Frantsesetan.</p> | <p>05. Ejerzituena Jauna<br/>bildots bat eginik<br/>infernuko dragoia<br/>izteko goiturik.<br/>Bere odolak dauka<br/>birtute handia<br/>guztiz desegiteko<br/>gerragin guztia.</p>               |
| <p>03. Arerio honen kontra<br/>nahi bogu irabazi<br/>bitoria handi bat<br/>jarraitu Jesusi.<br/>Arkituko ditugu<br/>armak aska baten<br/>fedeko farolagaz<br/>boguz bilatuten.</p>          | <p>06. Bihotz hazkor ta handi<br/>prestuen jaubiak<br/>entzun nortzuk benetan<br/>dirian nobliak.<br/>Euren buruen jaube<br/>biharko dabe izan<br/>ikusirik Seintxua<br/>zelan kuman datzan.</p> |

07. Gure fediak daukaz  
arma ugariak  
hezi ta bezeetako  
pasino guztiak.  
Halan eukiko dogu  
barruan bakia  
kanpoti euki arren  
hurrian gerria.
08. Nok ikusi ezkeru  
Jesus beheraturik  
nahiko dau erabili  
burua harroturik?  
Daukagu ikastegi  
ederra Belenen  
fedeko heguakaz  
guazan gu lenbaitlen.
09. Baina ez da ahaztutekua  
Frantsesen gerria  
galdua izan ez dedin  
daukagun fedia.  
Behintzat gomutan dauka  
Bilboko Huriak  
lagunduten deutsela  
Bizkaitar guztiak.
10. Bakotxak egiten dau  
hemen ahal dabena  
jakinik dala gerra  
Jaunak nahi dabena.  
Fraile ta abadiak  
besteekaz batera  
jagi dira pozarren  
armak hartutera.
11. Señorío, konsulau  
tu huria alkaturik  
aberatsak izanda  
dagoz pobreturik  
emoten dituela  
ondasun handiak  
gordetearren errege  
fede ta herriak.
12. Jainkuak nahi daiala  
orain bedeinkatu  
bizkaitarren gogua  
eta halan lagundu  
esturasun honetan  
ondo urteteko  
bakia zabaldurik  
Jesus ametako.
01. **Kantia:** kanta.  
**Imintia:** ipintzia, jartzia.  
**Etxako:** ez zaio.  
**Jakun:** zaigun. *Zitzaigun* ere izan daiteke.
02. **Arerio:** etsai, izterbegi.  
**Daukaguz:** dauzkagu.  
**Bogu:** badogu.  
**Seintxua:** umetxoa, haurtxoa.
- Pasinoe:** pasio, grina.
03. **Honen:** honein, hauen.  
**Farolagaz:** farolarekin.  
**Boguz:** badoguz.
04. **Itxirik:** utzita, lagata.  
**Izentetan:** izendatzen, guretzat markatzen.
05. **Ejerzitoen:** armaden.

- Goitu:** garaitu, gaina hartu.  
**Gerragin:** gerlagin, gerra egile.
06. **Jaube:** jabe.  
**Biharko:** beharko.  
**Zelan:** nola.  
**Kuman:** sehaskan.  
**Datzan:** etzanda dagoen.
07. **Daukaz:** dauzka.  
**Bezeetako:** Beza, bezatu: hezi.  
**Gerria:** gerra, gerla.
08. **Heguakaz:** hegoekin, hegalekin.  
**Guazan:** goazen.
09. **Gomutan:** gogoan, oroimenean.  
**Deutsela:** diotela.
10. **Dabena:** duena.  
**Besteekaz:** besteekin.  
**Jagi:** jaiki, altxatu.  
**Pozarren:** poz pozik.
11. **Dagoz:** daude.  
**Gordetearren:** gordetzeagatik, zaintzeagatik.
12. **Daiala:** dezala.  
**Ametako:** amatzeko, maitatzeko.

Paperak izenburutzat dio: *Letras de los villancicos en romanze y basquenze, que se han de cantar en la iglesia parroquial y matriz del señor Santiago, de esta noble villa de Bilbao, en los solemnes maytines del sagrado nacimiento de nuestro Señor Jesu-Christo, este año de 1794. Puestos en música por don Pedro de Estorqui, maestro de capilla en dicha Iglesia, y opositor a magisterios de capilla en Santas Iglesias del término.*

## GIZON TA ANDRA (1814)

(Azkue Bilioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmeak)

### Sarrerria:

Gizon ta andra  
zahar ta gazte  
baita ere  
itsu ta herren  
atozte atozte arin  
gauza handi bi  
miraritzen:  
bakia ta jaiotza  
Jesusena Belenen.

01. Zeruen ta lurraren  
egila onari  
eskerrak ta alabantzak  
emaiten nator ni.  
Baina ene ahalegina  
hutsa dana legez  
zeuen laguntasuna  
eskatzen det aurrez.

### Kantastea:

Goazen goazen  
Belenera  
Seintxo ederra  
adoratzen.  
Ta ze hizkuntza  
zan lehenena  
asmatukogu  
benturez.

### Bestetxo bat:

Jesus guriak  
negar artian  
egiten dituz  
nere ustian  
hizkuntzok:  
ai-tai-ta  
am-am-a  
ti-ti-a  
en-en-nia.

02. Sei urteko gerraren  
ta nekeen erruki  
Jainkoak jatsi deusku  
bakia zerutik.  
Bizkaiak ez dau bihar  
ahaztu mesede hau  
leinargitu ta eskerti  
izan gure badau.

03. Españako erreinuan  
ze gauza handiago  
bakia ta jaiotza  
gau huntan baino?  
Halan kanta dezagun  
ondotxu eda-azkero  
aurkietan gariela  
pozik ta txit ondo.

04. Janariak abondo  
eta ardaoa merke  
alogera sarriro  
ta boltsia bete.  
Bakien eremaitzak  
honeik izangoire  
bereziro biharrak  
lasxaitut ez paire.

05. Jentia, nahi badozu  
gerra gabe bizi  
arkal guztiok amau  
ta ez gatxik inori.  
Baia agintari dongak  
dirauen artian  
seguru ez da bakia  
lurraren gainian.

06. Bakotxak bere hizkuntza  
ahazturik badegu  
bakian gagoz eta  
ikasi bihar dogu.  
Zerren ez badakigu  
euskaraz berbeiten  
nork igerriko gaitu  
bizkaitarrak garien?

07. Gaur legezko gauetan  
nahastatuten dire  
xede grabe artian  
jolas eta barre.  
Lagun gizagexo bik  
buruan sartun-ta  
nahi leuke euskeria  
gaurganik biztu din.

08. Boltsia tximurtzeko  
ta burua unatu  
ez daude nekatuak  
lan txikina hartu.  
Euskerazko egunare  
sekula ez legez  
atera ei deuskue  
askoentzat ingles.

09. Saltzien ez baituez  
bat lotu bagarik  
izan biharko dire  
galduak ta erruki.  
Alfroxa batzuekin  
ta mendirik mendi  
ibili biharko dabe  
opaka egunare.

10. Ez badai erondiak  
zerbait letartatu  
Bizkaien euskeria  
laster galdukogu.  
Beragaz usu onak  
desagertukoire  
ta lurreko biharrak  
nekez egingoie.

11. Bizi España bizi  
baileratuakin  
gudatu daudelako  
gehiagoan ezin.  
Bizi dila Ferrando  
geure errege ona  
ta Jesus bizi bidi  
gau huntan jaioa.



01. **Hutsa dana legez:** hutsa denez, denez gero.  
**Seintxo:** haurtxo, umetxo.  
**Asmatukogu:** asmatuko dogu.  
**Benturez:** agian, beharbada.
02. **Deusku:** digu.  
**Leinargitu:** noblea, aitonsemea.
03. **Eda-azkero:** edan ezkero.  
**Aurkietan:** aurkitzen.  
**Txit:** oso, agitz, arrunt.
04. **Abondo:** ugari, erruz.  
**Alogera:** alokairua, lansaria, jornala.  
**Eremaitzak:** frutuak.  
**Honeik:** hauek.  
**Lasxaitut ez paire:** lasaitutez paire, lasaitzen ez badira.
05. **Arkal:** alkar.  
**Amau:** amatu, maitatu.  
**Gatzik:** gaitzik, kalterik.  
**Baia:** baina.  
**Dongak:** gaiztoak.  
**Dirauen:** dirauten, irauten duten.
06. **Gagoz:** gaude.  
**Zerren:** ze, zeren.  
**Berbeiten:** berba egiten, mintzatzen.
08. **Tximurtu:** zimurtu.  
**Unatu:** ahitu, agortu, neke handia jasan.  
**Ez daude:** ez dute.  
**Txikina:** txikia.  
**Egunare:** egutegia.  
**Ei deuskue:** omen digute.
09. **Saltzien baituez:** saltzen badituzte.  
**Lotu bagarik:** gelditu, geratu gabe.  
**Alfroxa:** zakuto, zorro.  
**Opaka:** opatzen, eskainka.
10. **Ez badai:** ez badeza.  
**Erondiak:** gobernuak.  
**Letartatu:** atondu, aurrakusi, hartaratu.  
**Galdukogu:** galduko dogu.  
**Beragaz:** berarekin.  
**Usu:** ohitura, ekandu.
11. **Baileratuak:** aliatuak, elkartuak.  
**Gudatu daudelako:** jokatu, burrukatu dutelako.  
**Dila:** dadila.

Orriak izenburutzat dio: "*Gauoneco cantac, cantauco dirianac otsandico mesan Jaincoen semien jaiotzeco egunetan. Santiagoco eleiza lenastan, cein dan Bilboco uriyen Vizcaico jabedean. Iminiric otsanquidan Don Pedro Estorqui Maisu otsanquidariagaitic 1814 garren urtian*"

**Otsandiko:** solemnea.  
**Otsankida:** musika.  
**Otsankidari:** musikari.  
**Lenasta:** printzipal, nagusi.  
**Jabede:** jaurerri, señorío.

Hizkuntzari buruz, nahiko bertso bitxiak dira hauek. Erdal hitz kezka gabeekin batera —*alabantzak, benturez, gerra, boltsia, alfroxa, amau ...*— neologismorik xebleenak ageri dira, paperak berak hiztegi-txo bat ez balekar, asmatuko ez nituenak noski: *otsandi, otsankida, leñargitu, lenasta, erondia, balleratuak, letartatu, egunare...* Bestalde, euskararen mailak ez du kultoegia ematen, neologismoetan sartzen direnek ohi duten edo nahi izaten duten bezala. Hemen oso forma herrikoiak erabiltzen dira, laburdura eta guzti: *izangoire, lasaitutez paire, berbeiten...*

Baita bitxia da bertsoen musikatzailearen zehaztasun guztiak ematea, aurreko sortan batez ere, eta bertsoegilearen izenik aipatu ere ez egitea.

## BAKIA BAKIA (1815)

(Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako karpeta batean aurkitutako separatatxoa)

### Sarrerria:

Bakia bakia  
 gerra onduan  
 bihoguz zoriak etxian.  
 Gerria aurrera  
 gura dabenak  
 sartu elenaren hatxian.

01. Artzaintxuak gabonetan  
 aurten zorionian  
 heldu dira  
 Belenera  
 gabon gau ilunian  
 oles nor da  
 sartu dira  
 eskepe pobre baten  
 topaduten  
 Jesus ona  
 etxunik aska baten.

Poza:

Hirutik bat  
jaio jaku  
Belenen  
Jesus ona  
hirurok bat  
diralako  
dogu jaun  
handiena.

02. Seintxu txikar handia

hirutik bigarrena  
bakar bakarrik  
zara hirurok  
gure zori biharrena  
izateko  
gu aurrera  
sendo bigou hirurok bat  
halan dino  
jaio danak  
kenduteko gatx hainbat.

03. Inok hausi gura badau

hirutasun guria  
kendu honi  
aurrerako  
agintzeko arduria.  
Ez parkatu  
hau gura dau  
Jesus jaio barriak  
kenduteko  
aspaldiko  
askoren egarriak.

04. Jesus maite baketsuak

gaituz gura bakian  
honan gara  
sendo izango  
kanpuan ta etxian.  
Gure bildur izango da  
auzueta aurrera  
Jesus onak  
lagundurik  
izanik gu batera.

**Bihoguz:** behar doguz, ditugu.**Gerria:** gerra.**Gura dabenak:** nahi dutenak.**Elenaren:** nor-izena ez bada, minuskulaz bait dator, ez dakit zer izan daitekeen.**Hatxian:** haitzean.01. **Eskepe:** aterpe, lehorpe.**Topaduten:** aurkitzen, bila.**Etxunik:** etzanik.02. **Seintxu:** haurtxo.**Txikar:** txiki.**Biharrena:** beharrezkoena.**Bigou:** behar dogu.**Dino:** dio.**Gatz:** gaitz.03. **Arduria:** ardura, erantzukizuna.04. **Honan:** honela.

## PASTORCITOS A BELEN (1815)

(Gorago aipaturiko separata bera)

Pastorcitos a Belen  
guazan bada lenalen  
a Jesús recién nacido  
lastuetan ikusten.  
Qué prodigio  
miraritsu!  
Nunca visto  
besterik  
Rey triunfante  
jatsi jaku  
a salvarnos  
zerutik.

01. El asombro del mundo

jazo da Belenen  
el Hijo de Dios Padre  
jaio da gaur hemen.  
Vamos a ver todos  
Mesias jaierik  
del Padre las promesas  
ikusten beterik.

Poza:

Señoritos  
Belenera  
vayan Jesus  
ikustera  
las lecciones

hartutera  
a lo rancio  
ikastera  
con peluca  
gau honetan  
de respeto  
bai benetan  
demos gracias  
Maisuari  
porque viene  
zaharra barri.

02. Los cielos hoy se pasman

Jauna ikusirik  
en el portal de Belen  
gabonez jaierik.  
Los ángeles avisan  
mendiko artzainai  
que caminen a prisa  
ikusten diranai.

03. Dichosos pastorcitos

pobre nekatuak  
qué poco os detiene  
art errebañuak.  
Apenas la voz oyen  
aleben harturik  
corren apresurados  
bihotzak pozturik.

04. Postrados en la tierra  
Jaunaren aurrian  
de pasmo y asombro  
datzaz han lurrian.  
Sus donecillos les dan  
Birjina Amari  
el corazón entero  
Jesus maitiari.

05. Nuestro Pastor Divino  
ardi ta artzainak  
los quiere coger todos  
beretzako danak.  
Pastorcito amante  
nora zatoz hona?  
No llevarás de muchos  
hemen esker ona.

06. Los amantes del siglo  
legiak barriak  
los quieren si ogaño  
lanian nagiak.  
Para todo lo bueno  
atzera kakoka  
andan por los caminos  
herren ta saltoka.

07. Sí, Jesús, mi echizo  
admiragarria  
quantos andamos cojos  
daikusgarria  
errando los caminos  
zugana juateko  
los hallamos derechos  
beti galduteko.

08. El juicio se ofusca  
zu holan ikusirik  
siendo Rey de los Reyes  
Belenen jaiorik  
pobre desnudo solo  
handitasun baga  
uno de los prodigios  
handiena dala.

09. Entre los animales  
lastuen ganian  
de frío tiritando  
zaukaguz lurrian.  
O fuego muy divino  
gizon hotzak hilak  
de veras entendieran  
zure marabilak!

10. Al parecer de juicio  
aurten gabonetan  
empelucados se ven  
mahatsaren uretan.  
Hoy a lo baratillo  
antxinako usuan  
los calzones peligran  
edaleen eskuan.

11. Pensemos a lo viejo  
gizon nekatuak  
dejando lo nocivo  
eta pekatuak.  
Si así lo hacemos  
gu herederuak  
para gozar seremos  
betiko zeruak.

12. Adios mi amante  
neure Jesus ona  
adios Virgen Santa  
amatxu laztana.  
Adios José Esposo  
Birjiniarena  
adios dulce dueño  
lora ederrena.

∞

**Lenalen:** lehenbaitlehen.

**Jaku:** zaigu.

03. **Art errebainuak:** art taldeak, artaldeak.  
**Aleben:** *ahal ebena, ahal zutena* izan behar du.

06. **Kakoka:** gakoka, gakoa botatzen, hots, lapurretan, ebasten.

08. **Holan:** honela.

**Baga:** barik, gabe.

09. **Zaukaguz:** zauzkagu.

**Marabilak:** mirariak, miresgarriak.

10. **Usuan:** usadioan, ohituran.

11. **Herederuak:** oinordekoak, primuak, jabeagaiak.

Bertso hauen egileak argi dago gaztelaniaz ere ondo zekiela. Bestalde, bi hizkuntzak oso natural elkar-josita daude. Ez dira esaldi txandatuak, gramatikalki perpausa bera osatzen dutenak baizik, eta askotan zortziko osoa hartzen dutenak. Neurrian ordea, jakinean edo ez-jakinean, euskal araua aplikatzen dio erdarari. Esaterako, hamabigarreneko *adios mi amante* horretatik zazpi silaba ateratzeko, *a-di-os-mi-a-man-te* behar du. Gaztelaniaz ordea bost silaba besterik ez dira, honela ebaki beharko bait litzateke: *a-dios-mia-man-te*.

## OLES NOR DA GAU ERDIAN (1815)

(Aurreko separata bera)

## Sarrerria:

–Oles, nor da gau erdian?  
 –Belenguak artzain bi.  
 –Zer dabizu lo galduten  
 Seintxu jaio danari?  
 –Txiton txiton, isil isil  
 oña oña gabiltzan  
 herren, itsu, zahar guztiak  
 lotxu galdu ez dezan.

01. Angeru ta artzainak  
 guztiak batera  
 heldu dira gabonez  
 Belengo eskepera.  
 Zeru, lurreko errege  
 jaiorik ikusten  
 eta gabon sariak  
 beroni emoten.

## Pozgarria:

Jaio ta  
 zorien  
 testiguak  
 Maria  
 Josepe  
 ta angeruak  
 idia  
 astua  
 ta zeruak  
 eia bai

dituguz  
 artzaintxuak  
 Belenera  
 ikustera  
 guazan orain  
 gor, itsuak  
 ez bazaituz  
 okertuten  
 helduteko  
 katutxuak.

02. Gauza guztien jaube  
 izanik Jaun berau  
 txito mirarizkua  
 dakar etorrerau.  
 Pobre lasto ganian  
 aberen erdian  
 askatxu baten datza  
 neguan erraian.

03. Bere ama maitia  
 Jose santuagaz  
 ezer ezatan dago  
 pena gogorragaz  
 ikusirik semia  
 bilos ta pobrerik  
 amorezko sugarra  
 hotzak kikeldurik.

04. Hementxe hasiten da  
 gizatasunian  
 nekiak igaroten  
 gizonen onian.  
 Baina gizon okerrak  
 erruki bagarik  
 azkenez itxiko dau  
 kruzian josirik.

05. Gurutze honegaz deusku  
 egingo zubia  
 zerura igoteko  
 nahi daben guztia  
 gorderik hemen ondo  
 bere aginduak  
 txarto egin guztien  
 harturik damuak.

06. Zerurako zubia  
 Adanek botarik  
 ordurik lotu ginan  
 biderik bagarik.  
 Jesus dator egiten  
 zur bigaz barria  
 askori kenduteko  
 honen egarria.

07. Jaiotzarik hasi da  
 zubi egiteko  
 zur biak bardinduten  
 laua izateko.  
 Profeta santu jaunak  
 heldu da ordua  
 zeuen suspiruakaz  
 sarri eskatua.

08. Ondo etorri Jesus  
 bihoztu neuria  
 bedeinka mila bidar  
 amatxu zeuria  
 Josepe santuagaz  
 guztiok batera  
 azkenbatu gaitezan  
 zeu alabetara.



**Zer dabizu:** zer darabilzu, zertan zabiltza,  
 zertan ari zara.

**Seintxu:** haurtxo, umetxo.

**Txiton:** ixi, isilik.

**Oña oña:** haur hizkeran *ona ona* ren txikigarrria, dio Azkuek bere hiztegian. *Oñe oñe* ere esaten da eta izan liteke *oin* edo *hona* 'tik ere, edo onomatopeia soila, hitz jakin batekiko zerikusit gabe. *Oña oña* ibiltzea xuabe xuabe, kontuz kontuz ibiltzea litzateke.

01. **Eskepera:** aterpera, estalpera.  
**Okertuten:** desbidatzen, bidetik okertzen.

**Helduteko:** iristeko, ailegatzeko.

02. **Txito:** txit, arrunt, biziki, oso.

**Etorrerau:** etorrera hau.

**Neguan erraian:** neguaren erraian, muin muinean.

03. **Santuagaz:** santuarekin.  
**Ezer ezatan:** ezer ezean, ezer gabe.  
**Bilos:** biluts, biluzik.  
**Kikeldu:** kikildu, uzkurtu, mokortu.
04. **Bagarik:** barik, gabe.  
**Itxiko dau:** lagako, utziko du.  
**Kruzian:** gurutzean.
05. **Honegaz:** honekin.  
**Txarto egin:** gaizki egin, gaitz egin. Txarto egin guztien damuak harturik.

06. **Ordurik:** ordutik.  
**Zur bigaz:** zur birekin.  
**Zur:** zuhaitzen materiala.
07. **Jaiotzarik:** jaiotzatik.  
**Suspiruakaz:** zinkuriekin, hasperenekin.
08. **Alabetara:** alabatzera, goratzera.

Hiru bertso sortako paper honek izenburu hau dakar: *"Gaboneco cantac vizcaitarrentzat, jaiotzaco pazco egunetan poztuteco. 1815 garren urtian oidan leguez"*. Hiru sortak egile berarenak izateko airea daukate.

## ZER DA GAUR JAZO DANA (1818)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmek)

### Sarrerria:

Zer da gaur jazo dana  
 Belengo herrian?  
 Aingeru ta artzainak  
 duaz alkarren lehian.  
 Zeruak edegirik  
 zer da mirari hau?  
 Honelako konturik  
 inok ikusi ez dau.

### Zortzikua:

01. Jesusen jaiotzia  
 kantau gura neuke  
 euskera ederrian  
 baldin ahal banaike.  
 Ez daukaguna legez  
 beste berbetarik  
 ez dogu kantaduko  
 aurten erderarik.

### Pozgarria:

- Mundutar guztiak  
 erdu Belena  
 ikusiko dogu  
 zein dan lehenena.  
 Bizkaia urrin dago  
 baina horregatik  
 ez dira euskaldunak  
 izango atzetik.
02. Abenduko hilaren  
 hogeta bostian  
 aurkitu zan Jesusa  
 Belengo eskapian.  
 Jaiorik gaberdian  
 aska pobre baten  
 abereak juakoz  
 arnasaz berotzen.
03. Inguruan egozan  
 artzainak guztiak  
 arin aringa duaz  
 entzunik barriak.  
 Han Jose ta Maria  
 dakusez zurturik  
 Seintxuaren aurrian  
 belaunikaturik.
04. Aingeru ta artzainak  
 guztiak nahastaurik  
 Seina adoretan dabe  
 bertan ahuspazturik.  
 Zer da jazoten dana?  
 dinue eurekan  
 Mesias jaio jaku  
 gaur bene benetan.
05. Euren artaldiakaz  
 artzainak ahazturik  
 mirari honek daukaz  
 guztiz zoraturik  
 Dinue: jaio bada  
 artzainen artzaina  
 zelan gizon guztiak  
 ez datoz gaur hona?
06. Hiru errege datoz  
 eguzki aldetik  
 izar argi eder bat  
 dabela aurretik.  
 Heldu zirianian  
 artzainei dirautse:  
 nun da hemen jaio dan  
 errege errege?
07. Herodes erregiak  
 jakin gura leuke  
 nun daguan seintxu hau  
 baldin ahal baleike.  
 Nahi leuskio bertatik  
 kendu bizitzia  
 honek kendu ez deion  
 bere agintzia.
08. Zer darabiltzu, Herodes?  
 Zagoz harroturik?  
 Ez dau Jesusek gura  
 lurreko agintzerik.  
 Bere agintaritza  
 ez da mundukua  
 jatorku erakustera  
 lege betikua.



09. Agintzen dau erregek  
hilteko bertatik  
seintxu txikar guztiak  
erruki bagarik.  
Baina aingeru batek  
jatsirik zerutik  
iges eragin deutsa  
laster Nazaretik.



- Jazo:** gertatu.  
**Edegirik:** irekirik, zabaldurik.
01. **Ahal banaike:** ahal banezake.  
**Ez daukaguna legez:** ez daukagunez, ez daukagunez gero.  
**Berbeta:** hizkuntza, mintzaira.  
**Erdu:** *zatoz* nahiz *zatozte*. Gaur *zuek* nor dela, *erdue* edo *erduze* esaten da.  
**Urrin:** urrun, asago.
02. **Jesusa:** Jesus gehi artikulua mugatzailea.  
**Eskapian:** lehorpean, estalpean.  
**Juakoz:** doazkio.
03. **Egozan:** zeuden.  
**Arin aringa:** lasterka, korrika.  
**Dakusez:** ikusten dituzte.  
**Zurturik:** harriturik, txunditurik.  
**Seintxuaren:** haurtxoaren.
04. **Adoretan dabe:** adoratzen dute.  
**Ahuspazturik:** ahoz beherajarririk, erreberentzia eginez.
- Dinue:** diote, esaten dute.  
**Eurekan:** eurengan, euren baitan, berekiko.  
**Jaku:** zaigu.
05. **Artaldiakaz:** artaldiekin.  
**Daukaz:** dauzka.
06. **Dirautse:** dinotse, diotsate, esaten diote.
07. **Gura leuke:** nahi luke.  
**Leuskio:** lioke.  
**Deion:** diezaion.
08. **Zer darabiltzu:** zer darabilzu, zertan zabilzu, zertan ari zara.  
**Zagoz:** zaude.  
**Jatorku:** datorkigu.
09. **Bagarik:** barik, gabe.  
**Eragin:** egin erazi.  
**Deutsa:** dio.

## BIZKAITAR SENDO IZUGARRIAK (1818)

(Aurreko mikrofilme bera)

## Sarrerria:

Bizkaitar sendo  
izugarriak  
prestau eidazuz  
gaur belarriak  
arin nahi bozuz  
entzun barriak  
ez dira helduteko  
hona nagiak.

02. Herbestetar gaiztuak  
nahi eukien galdu  
baina Bizkaiak ez dau  
bururik makurtu.  
Beste herri askotan  
jaretxi arren hau  
ez dau inoz Bizkaian  
kanpokok agintau.

## Zortzikua:

01. Jangoikuen legia  
Bizkaian da sendo  
Adanegandik hona  
garbi eta ondo.  
Gorde izan da beti  
garbiro fedia  
baita geure foruak  
eta berbeitia.

03. Erromatarrak eurak  
datoz harroturik  
zapaltzeko ustiaz  
Bizkaia bertatik.  
Baina duaz igesi  
ondo lotsaturik  
esku bete gizonek  
arpegi emonik.

04. Nun dituzuz indarrak  
Anibal harrua?  
Zek hotzitu izan dau  
zenkarren asmua?  
Martizdi handiakaz  
gudatu bazara  
erdu bildur bagarik  
Bizkaiko lurrera.

## Pozgarria:

Bizkaitar prestu senduak  
gaur bihar geunkez heguak  
heltzeko laster Belenera  
jaio dan Jesus ikustera.  
Abarkak jazteko asti baga  
guazan guztiok arin hara  
han dago Jesus itxaroten  
Jose ta Maria lagunduten.

05. Ezagutu zituan  
Erroma senduak  
Bizkaitarren bihotzak  
bai eta besuak.  
Ez dau gehiago gura  
Bizkaiaz gerrarik  
bakia opa deusku  
arima arimatik.
06. Ez zirian amaitu  
honekaz bakarrik  
gure areriuak  
datoz herbestetik.  
Goduak gura leuke  
behinguan menpetu  
baita moro gaiztuak  
bere azpiratu.
07. Zer da egitekua  
hainbeste jenterik?  
Euskaldunak bakarrik  
zelan eurei jarki?  
Horregaitino bere  
ez dago bildurrik  
Bizkaiko mendietan  
ondo atondurik.
08. Gizon bakotxak dauka  
bere gaztelua  
beragaz daukalako  
bihotz indartsua.  
Ez da egiten inon  
hemen atzerarik  
galdu ez dedin inoz  
Bizkaiko legerik.
09. Jesusari bakarrik  
jako edegiko  
ate zabal zabala  
datorren betiko.  
Bere legia dogu  
guk beti gordeko  
ez jako sarrerarik  
besteri emongo.
10. Gure asabak eben  
sendotasunagaz  
gorde gure fedia  
euren odolagaz.  
Herbestetar guztiei  
iges eraginik  
itxi eben Bizkaia  
burua jasorik.
11. Eurak itxi euskuen  
foru hain ederra  
beti gorde izan da  
urterik urtera.  
Gura dabenak bada  
garbiro hau euki  
Jaungoikuaren legia  
ez dau bihar itxi.
12. Gorde geure legia  
gorde berbeitia  
lehenago galdu bedi  
geure bizitzia.  
Sortu zan egunetik  
lehenengo gizona  
ez da arrotzik sartu  
aginduten hona.

13. Gure diputau jaunak  
hau ezaguturik  
gorde gura litukez  
foruak garbirik.  
Ahalegina egiten  
hau jaretxiteko  
ez dabe atzerarik  
sekula egingo.



- Prestau:** prestatu, prest, gertu jarri.  
**Eidazuz:** ieazkidazu.  
**Arin:** agudo, azkar.  
**Bozuz:** badozuz, badituzu.
01. **Berbeitia:** berbeta, mintzaira, hizkuntza.  
**Bihar geunkez:** behar genituzke.  
**Baga:** bagarik, barik, gabe.
02. **Nahi eukien:** nahi zuketen.  
**Jaretxi:** ardietsi, lortu, eskuratu.  
**Inoz:** inoiz, nehoiz.  
**Agintau:** agintea eduki, agindu.
03. **Ustiaz:** ustearekin.
04. **Zek hotzitu:** zerk hoztu.  
**Martizdi:** Martitz erromatarren gerrako jainkoa izanik, *martizdi* armada izan dai-teke.
05. **Bizkaiaz:** Bizkaiarekin.  
**Opa deusku:** opa digu, desiatzen digu.
06. **Honekaz:** hauekin.
07. **Jarki:** aurre egin, aurpegi eman.  
**Horregaitino:** horregatik.  
**Atondu:** moldatu, konpondu, antolatu.
08. **Beragaz:** berarekin.
09. **Jesusari:** Jesus gehi artikulu mugatzai-lea.  
**Jako edegiko:** zaio irekiko.  
**Datorren:** etor dadin.
10. **Eban:** zuten.  
**Eraginik:** egin erazirik.  
**Itxi eben:** utzi zuten.
11. **Itxi euskuen:** utzi ziguten.  
**Bihar itxi:** behar utzi.
12. **Aginduten:** agintzen, agintzera.
13. **Litukez:** lituzke.

Bi bertso sorta hauen paperak izenburu hau dakar: “*Gaboneco cantac vizcaitarrentzat, jaiotzaco Pazco egunetan poztuteco oidan leguez 1818 garren urtian*”.

Azkenean paperak, gainean eskuz idatzirik, ohar interesgarri hau dakar: “*Imini ditu Vizcaitarrentzat Vicenta Moguel ta Basozabal euscaldun emacume batec*”.

Bi sorta hauek, beraz, ez dira izengabeak, baina sail berekoak diren beste guztiakin batera hobeto daudela pentsaturik, hemen sartzea erabaki dut. Segurrenik, beste sorta batzuk ere Bixenta Mogelenak izango dira, eta noski, honenak ez direnak ere egileren bat edukiko dute, zenbait bazter arakaturaz gero, atera daitekeena.

Ez dago esan beharrik bertso hauek euskara onean eta landuan osaturik daudela. Bestalde, nabaria da bigarren sortak daraman karga politikoa. Badirudi lehen sortan bertso erlijiosoak bezala, bigarrenean beren beregi bertso politikoak jartzera doala.

Baita aipagarria da lehen sortako lehen bertsoak diona ere: *ez daukaguna legez beste berbetarik, ez dogu kantaduko aurten erderarik*. Aurreko urteetako ohitura eten egiten dela esan nahi du horrek, eta gabon ospakizun hauen azpian oso giro politizatua zegoela, hizkuntzaren eta foruen inguruan.

## BIZKAITAR SENDO BIHOTZ HANDIKUAK

(Baskischen Sprache, 1967 - Anthropological Publications Oosterhout - Niederlande)

Sarrerria:

Bizkaitar sendo  
bihotz handikuak  
inoz makurtu ez diran  
leial ta senduak!  
Izan zara bai beti  
garbi ta zintzuak  
ez zaitue menpetu  
fedebagakuak.

01. Urte guztietako  
betiko lelua  
da atera biharra  
Gabon zortzikua.  
Hainbeste kantau dogu  
juan dan urtetan  
ze ez dakit zer esan  
gaberdi honetan.

Pozgarria:

Arin arin Bizkaitarrak  
guazan guztiok Belena  
han jai da geure Jauna  
aingeruen erregia  
baita bere gizonena  
gure kati guztiak  
urratzera datorrena.

02. Oraindino bere nik  
geratu nahi ez dot  
zertxubait asmau baga  
gaur baldin ahal badot.  
Bizkaiak emongo deust  
bai materiala  
izan dalako beti  
sendo ta leiala.

03. Augusto Erromako  
enperadoriak  
nahi zituan menpetu  
Bizkaiko jentiak.  
Baina euren indarrak  
ondo ezaguturik  
iges eragin eutsen  
Bizkaiko lurretik.

04. Alperrik gura eban  
Anibal handiak  
ezer ezetan euki  
Bizkaiko mendiak.  
Beste gaztelu baga  
geure basuetan  
koldarturik lotu zan  
ta ondo benetan.

05. Bere jente arrotza  
nok daike sinistu  
euskaldunak ebela  
hainbeste lotsatu?  
Izanik esku bete  
Bizkaiko jentia  
bildurrez bete eben  
Erroma guztia.

06. Zergaitik deritxazu  
hainbeste nekelan  
gure herri honetan  
ordu hartu zan?  
Gordetearren zintzoro  
Jesusen legia  
gure foru garbiak  
gure euskaria.

07. Erroma izugarri  
fedebagakuak  
nahi euskuzan ekarri  
Jaungoiko faltsuak.  
Ezarri buztarria  
geure idunetan  
sartuteko Bizkaia  
lege barrietan.

08. Gure asaba onak  
hau ezaguturik  
inoz makurtu ez eben  
inori bururik.  
Alkar ondo harturik  
dinue: lehenago  
hil senar ta emazte  
azpiratu baino.

09. Adanengandik hona  
-zinuen- guk dogu  
Jaungoiko bat bakarra  
beti ezagutu.  
Ez dogu bada orain  
besterik hautuko  
beragaitik bizitza  
guk dogu emongo.
10. Esan deuskue sarri  
Igarla santuak  
bete bihar dabela  
promes ta aginduak.  
Guk itxaroten dogu  
Mesias justua  
beti egingo dogu  
bere agindua.
11. Itxaropen honegaz  
gure gurasuak  
igaroten zituen  
gizaldi osuak  
neke gogorren beheian  
baina sendo beti  
bihar bazan bizitza  
emon Jesusgaitik.
12. Cesar Augustok eban  
ondo ezagutu  
Bizkaitarren asmua  
eta eban hautu  
bakia eskintia  
bazar txiki honi  
beragaz izateko  
adiskide beti.
13. Bakia zabaldu zan  
bazter guztietan  
eta jaio zan Jesus  
laster era hatan  
Belengo eskapian  
abereen artian  
Abenduko hilaren  
hogeita bostian.
14. Ze poza Bizkaitarrak  
agertu zanian  
izar argi eder hau  
ilunpe artian.  
Ez ziran azkenengo  
Belena helduten  
Seintxuaren aurrian  
dira ahuspaztuten.
15. Deritxat naguala  
ni orain entzuten  
Bizkaitarrak orduan  
zer eben esaten.  
Jauna -esango eben-  
hara hemen gatz gu  
geure Jaun ta Jaubia  
nahi dogu ezagutu.
16. Hemen gaukazuz bada  
Bizkaitar leialak  
izan arren zu baga  
ezerez ta argalak  
zure laguntasunaz  
goitu dituenak  
jente errutsu hazkor  
ta itzaltsuenak.

17. Izan zaitez zu orain  
gure agintari  
ez dogu obeiduko  
inoz guk besteri.  
Zara zu gure Jauna  
ta jaube bakarra  
ez gara makurtuko  
zu geugaz bazara.
18. Nun dogu Bizkaitarrak  
orduko fedia?  
Nun geure garbitasun  
eta sinistia?  
Orain argaldu dira  
halako bihotzak  
gizonak emeturik  
dirudie motzak.
19. Lotsatu bihar geunke  
gomutaz bakarrik  
ez daguala orain  
halako gizonik.  
Biztu gure fedia  
bihotzak sendotu  
ta gauza guztietan  
Jainkua bilatu.
20. Baina ondo bestera  
da orain jazoten  
jai santu handi honek  
dira igaroten  
taberna zokuetan  
jokuan sarturik  
eta duaz etxera  
ondo mozkorturik.
21. Etxian heldu eta  
han bere ez bakerik  
emazte ta umiak  
igesi etxetik.  
Oraingo Gabonetan  
hau da ikusten dana  
honetara heldu da  
gure itsumena.
22. Bizkaiko ezaugarria  
lehen zan Lauburua  
orain esaten jako  
Gurutze Santua.  
Isurten zan odola  
hau ez galtziarren  
orain salduten dabe  
sarri trago baten.
23. Gure bizimodua  
balebe ikusiko  
Judegu ta Herejiak  
zer leuke esango?  
Dira -esango leuke-  
Jesusen semiak  
ala Jentiltzar geizto  
ta fede bagiak?
24. Karidadia dago  
guztiz hotziturik  
ondamua ugari  
inun ez bakerik.  
Jesusen eskolia  
ondo jaku ahaztu  
biderik nasaiena  
nahi dogu jarraitu.

25. Gure asaba zaharrak  
biztu ahal baleitez  
semetzat ezagutu  
nahiko ez gindukez.  
Lotsaz ez leuke nahiko  
hautu gu umetzat  
ez badoguz jarraitzen  
lehengo euren oinatzak.

26. Ia bada euskaldunak  
esnatu gaitian  
gabizan beti zuzen  
ta sendo fedian.  
Geure bizimodua  
zuzendu bagarik  
ez dogu ikusiko  
inoz gauza onik.

27. Halan egin ezkerok  
Josek ta Mariak  
izanik Jesusentzat  
bitarteko handiak  
jaretxiko deuskuez  
mesede ugariak  
pozez beteko dira  
Bizkaiko herriak.

28. Gure errege onak  
ta emazte zintzuak  
laztanduko ditue  
Bizkaiko auzuak.  
Eurak izango dira  
geure gurasuak  
ta zainduko deuskuez  
osoro Foruak.



**Zara:** zarete.

**Zaitue:** zaituzte.

**Menpetu:** menperatu, menderatu.

**Bagakuak:** gabeak, gabekoak.

01. **Lelua:** behin eta berriz errepikatzen den kontua, hautua.

02. **Oraindino bere:** oraino, oraindik ere.  
**Asmau baga:** asmatu gabe.  
**Deust:** dit.

03. **Eragin eutsen:** egin erazi zioten.

04. **Gura eban:** nahi zuen.  
**Ezer ezetan:** ezer ezean, ezer gabe, hutsuan.

05. **Daik:** dezake.  
**Ebela:** zutela.

06. **Deritxazu:** deritxozu, uste duzu, iruditzen zaizu.

**Gordetearren:** gordetzeagatik, zaintzeagatik.

**Zintzoro:** zintzoki.

07. **Euskuzan:** zizkigun.

**Idun:** sama, lepo.

08. **Dinue:** diote, esaten dute.

09. **Zinuen:** zioten, esaten zuten.

**Hautuko:** hautatuko, aukeratuko.

10. **Deskue:** digute.

**Igarla:** igarle, profeta.

**Bihar dabela:** behar dutela.

11. **Honegaz:** honekin.

**Beheian:** behean, azpian, mendean.

12. **Eskintia:** eskaintzea.

**Beragaz:** berarekin.

13. **Hatan:** hartan.

**Eskapian:** estalpean, lehorpean.

14. **Ahuspazu:** ahoz behera jarri, makurtu.

15. **Deritxat:** deritxot, erizten diot, iruditzen zait.

16. **Gaukazuz:** gauzkazu.

**Goitu:** garaitu, gaina hartu, menperatu.

**Dituenak:** dituztenak.

**Errutsu:** kementsu, gihartsu.

**Hazkor:** animoso, adoretzu.

17. **Obeidu:** obeditu, men egin.

**Geugaz:** geurekin.

18. **Argaldu:** mehetu, ahuldu.

**dirudie:** dirudite.

19. **Gomutaz:** gogorapenez, oroitzapenez.

20. **Jazo:** gertatu.

**Honek:** honeik, hauek.

22. **Jako:** zaio.

**Galtziarren:** galtzearren, galtzeagatik.

23. **Balebe:** balute.

**Judegu:** judu, judutar.

**Leuke:** lukete.

**Bagiak:** gabeak.

24. **Hotziturik:** hozturik.

**Ondamua:** bekaitza, inbidia.

25. **Gindukez:** gintuzkete.

**Badoguz:** baditugu.

**Oinatzak:** oinekin egindako markak, lorratzak, arrastoak.

26. **Esnatu:** itzartu, ernatu, atzarri.

**Gabizan:** gabiltzan, ibil gaitezen.

27. **Jaretxi:** erdietsi, eskuratu, lortu.

**Deuskuez:** dizkigute.

28. **Ditue:** dituzte.

**Osoro:** osoki, guztiz, erabat.

Bertso sortaren izenburuak dio: "*Gaboneco cantia Vizcaitar guztientzat, euskaldun emacume batec ateria 1819.garren urtian Abandoco elexatian*".

Emakume honek dudarik gabe Bixenta Mogel izan behar du. Zortzikoaren lehen bertsoak dionez, urte guztietako leloa edo errepika zen Gabon zortziko atera beharra. Aurreko urteetan hainbeste kantatuak izanik, zer esan ere ez dakiela aitortzen du. Horrek argi adierazten du Bixenta Mogelek urte askotan bete zuela eginkizun hori. Dena den, zer esan ez jakite hori ez zen nonbait guztizkoa izan, sekula baino bertso sorta luzeagoa ondu bait zuen. Berriz ere eduki politikoa nabaria da, baita helburu moralkoia ere, edaleen aurka batez ere.

## ZER DA GAUR DAKUSKUNA (1820)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmak)

## Sarrerria:

Zer da gaur dakuskuna  
bazter guztietan?  
Aingeru ta artzainak  
bakia kantetan  
gaberdi honetan  
soinu ta olgantzia  
kale ta etxetan  
kanta zoragarriak  
auzotegietan  
ta sukaldietan.

## Zortzikua:

01. Mila ta zortzirehun  
hogeigarrenian  
abenduko hilaren  
gau ilun batian  
izar argi eder bat  
zeruan da agertu  
iluntasun guztiak  
dituana argitu.

## Pozgarria:

Gau dantsua gaurkua  
ordu zorionekua  
poztu poztu mundutarrak  
lihortsu laster malkua  
ia daukagu gizon eginik  
zeru lurreko Jaungoikua.

02. Bere argitasunak  
lainuak kendurik  
dago mundu guztia  
pozez zoraturik.  
Aingeru ta gizonak  
dabiltz alkaturik  
zerua eta lurra  
bere bat eginik.

03. Zer gauza miragarri  
jazo dan lurrian  
haserre zirianak  
gaur dagoz bakian.  
Otsua ta ardia  
biak aska baten  
gorrotua kendurik  
alkarregaz jaten.

04. Soinu eder artian  
dantzugun kantia  
gloria zeruetan  
lurrian bakia  
borondate oneko  
gizonen artian  
eztabaida guztiak  
amaitu zirian.

05. Agertu da Mesias  
bake ekarlia  
poztu poztu jentia  
kendu tristuria.  
Alkar harturik ondo  
auzo guztiakaz  
guazan beragana  
bihotz zintzuakaz.

06. Jaio ezkeru Jesus  
ez inor bildurtu  
gure zauri guztiak  
osatuko ditu.  
Bere etorreriak  
poztu bihar gaitu  
gure malko saminak  
daiguzan lihortsu.

07. Baldin geugaz badago  
geure Egilia  
zer deusku jagi arren  
infernua guztia?  
Bere banderapian  
jarri ezkeru gu  
arerio geiztuak  
bildurtuko ez gaitu.

08. Españak kantaiko dau  
beti biktoria  
eukirik bere alde  
Jesus ta Maria.  
Ama guztiz samurra  
bitarteko harturik  
ez dabe Españarrak  
inoren bildurrik.

09. Laino ilunen batzuk  
agertzen badira  
zeruko eguzkia  
aldenduko dira.  
Ezagutu ezkeru  
geure hutseginak  
jaritxiko ditugu  
betiko atseginak.

10. Jangoikuaren legia  
osoro gorderik  
ezin izan ginaike  
inoz gauza txarrik.  
Jesus bere semia  
jatsi da zerutik  
gu ateratien  
katigariotik.

11. Gugaz gura dau bizi  
ta gure artian  
inoz aldendu baga  
sekula guztian.  
Bere handitasuna  
dauka estaldurik  
atzeratu ez dedin  
inor beragandik.

12. Birjina ama maitiak  
bere mantupian  
hartu eban España  
antxina batian.  
Arrisku guztietan  
deusku lagunduko  
esturasunetatik  
gaitu aterako.

13. Geure eskuan dago  
zoriontasuna  
gorputz ta arimako  
bake ta osasuna.  
Gu leialak bagara  
Jesusen legian  
ez gaitu ez itxiko  
etsaien menpian.

14. Ez dau Jesusek gura  
gera amaitzailia  
dator zabalduera  
lurrian bakia.  
Lehoe Judakua  
bildots dago eginik  
ez dau gehiago gura  
odol eriorik.

15. Amaitu bitez bada  
esamesa okerrak  
ta guazan emotera  
Jaunari eskerrak  
bialdu deuskulako  
bake ekarlia  
datorrena edegiten  
zeruko atia.

16. Atseginez beterik  
guazan Belenera  
ongi etorri ederra  
sein honi emotera.  
Han dagoz aingeruak  
guri itxaroten  
ta zeruko izarra  
bidia erakusten.

17. Artzainak heldu dira  
Seintxua ikusten  
ez dakie oraindik  
zer jazoten jaken.  
Hango argitasunak  
hain daukaz zurturik  
euren begiak bere  
daukez lainoturik.

18. Abere ginokuak  
dabe ezagutu  
idia ta astua  
berari makurtu.  
Euren arnasiagaz  
dagoz berotuten  
zer egin bihar dogun  
guri erakusten.

19. Aingeruak itzalez  
deutse begiratzen  
euren hego ederrak  
ditue batuten.  
Hiru errege datoz  
eguzki aldetik  
erregien errege  
ikustiagaitik.

20. Bere aurrian dira  
laster ahuspaztuten  
urre, mirra, intzentsua  
deutsez eskiniten.  
Ez deusku eskatuten  
guri ondasunik  
ez dator urre bila  
mundura zerutik.

21. Eskini deioguzan  
arima garbiak  
hori da nahi dabena  
Sein miragarriak.  
Zerutik eretsi dau  
arimen gosiak  
ezagutu daiguzan  
bere mesediak.

22. Harturik bitarteko  
Jesus ta Maria  
jatsiko da gugana  
iruntz ugaria.  
Grazia sortuko da  
gure arimetan  
gloria gozatzeko  
gero zeruetan.

∞

**Dakuskuna:** ikusten duguna.  
**Olgantzia:** olgantza, jolas, dibertsio.  
**Dontsua:** dohatsua, santua.  
**Lihortu:** lehortu, xukatu.

**Antxina:** aspaldi, behiala, duela denbora luzea.  
**Deusku:** digu.  
**Esturasun:** estura, larrialdi.

02. **Bere bat:** ere bat.

13. **Itxiko:** utziko.

03. **Jazo:** gertatu.  
**Dagoz:** daude.  
**Alkarregaz:** alkarrekin.

14. **Lehoe:** lehoi.  
**Eriorik:** jariorik, isurtzerik.

04. **Dantzugun:** entzuten dugun.

15. **Esamesa:** erran-merran, ele-mele.  
**Deuskulako:** digulako.  
**Edegiten:** irekitzera.

05. **Guztiakaz:** guztiekin.  
**Guazan:** goazen.

16. **Sein:** ume, haur.

06. **Osatuko:** sendatuko.  
**Daiguzan:** ditzagun.

17. **Dakie:** dakite.  
**Jazoten jaken:** gertatzen zaien.  
**Daukaz:** dauzka.  
**Zurturik:** txunditurik, harriturik.  
**Daukez:** dauzkate.

07. **Geugaz:** geurekin.  
**Zer deusku:** zer digu, zer axola digu.  
**Jagi:** jaiki, altxatu.  
**Arerio:** etsai, izterbegi.

18. **Abere ginokuak:** abererainokoak, hots, abereak ere bai.  
**Arnasiagaz:** arnasarekin, hatsarekin.

08. **Dabe:** dute.

19. **Deutse:** diote.  
**Ditue:** dituzte.

09. **Eguzkiak:** eguzkiarekin.  
**Aldendu:** urrundu, desagertu.  
**Jarixi:** eskuratu, erdietsi, lortu.

20. **Ahuspazu:** ahozpepe, ahoz behera jarri, erreberentzian makurtu.  
**Deutsez:** dizkiote.

10. **Osoro:** osoki, erabat.  
**Ginaike:** genezake.  
**Ateratiarren:** ateratzeagatik.  
**Katigario:** gatibutasun, morrontza.

21. **Deioguzan:** diezazkiogun.  
**Eretsi:** eraitsi, jaitsi erazi.  
**Daiguzan:** ditzagun.

11. **Gugaz gura dau:** gurekin nahi du.

12. **Eban:** zuen.

22. **Iruntz:** ihintz.

Paperak izenburutzat dio: "Gabon gaber dico meza ots andicuan cantauco dan cantia 1820 garren urtian Santiagoco Elexan Bilboco Urijan".

Bertso sorta honek ere Bixenta Mogelen tankera dauka, aurreko bere sorta jakinekin alderaturik, bai lexikoz, bai estiloz eta bai edukiz ere.

## BIZKAIAN EZ DA BIHAR (1824)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmak)

### Sarrerria:

Zeruan gloria  
lurrian bakia  
angeru ta gizonen  
gaurko berbetia.  
Jaio jakun ezkeru  
bildostxu maitia  
ahaztu bihar genduke  
lehengo haserria.

01. Bizkaian ez da bihar  
herbeste legerik  
geure foru maitiak  
nahi doguz bakarrik.  
Aldendu bitez bada  
gaiztuen asmuak  
eta gorde osoro  
Bizkaiko foruak.

02. Eurak gordetakotzat  
Diputazinua  
Gernikan batzarrian  
daukagu hautua.  
Inok gura badesku  
forua lurpetu  
guztiok bihar geunke  
esan: Gu gara gu!

03. Bizkaiko banderia  
zan lehen lauburu  
gaur esaten jakona  
Kurutze Santua.  
Guk haren izenian  
genduan goitua  
Erromatar arrotza  
bai eta maurua.

04. Asko zoritxarrian  
badira emetu  
Bizkaiak oraindino  
gizonak baditu.  
Preminia baletor  
agertuko gara  
asmo zital guztiei  
arpegi emotera.

05. Bakia da guretzat  
doherik onena  
baina balego inor  
gura ez dabena  
laster ikusiko dau  
buruan egurra  
ta gordeko dogu guk  
geure olla (?) lurra.

06. Antxinako asabak  
guda gogorretan  
gose eta egarriz  
beti basuetan  
zenbat neke zituen  
igaro ta goitu!  
Baina ez dira oraindik  
etsaiak amaitu.

07. Ondamu deuskuenak  
badira munduan  
indartu ez gaitez  
Bizkaiko foruan.  
Horregaitik bihar da  
ondo alkar hartu  
esamesa guztiak  
betiko amaitu.

08. Alper eta hordiak  
gugandik aldendu  
ta euskaldun garbiak  
guztiz anaetu.  
Berbeta gozatsuan  
dotrina ederra  
berakatz ta porruak  
bota herbestera.

09. Zeinek ekarri deusku  
Bizkaiko lurrera  
orain entzuten dogun  
hizketa zantarra?  
Esanmodu zantarrak  
aho zikinetan  
ez ziran lehen entzuten  
gure herrietan.

10. Jesus eta Maria  
geure ezpanetan  
bihar gendukez euki  
ordu guztietan  
izan daitez lagun  
esturasunetan  
deituten badeutsegu  
sarri ta benetan.

11. Guri irakastera  
zeruko bidia  
etorri zan lurrera  
Jainkuen semia.  
Jarraitu bihar dogu  
bere eskolia  
jaretxiko badogu  
atsegin betia.



12. Borondate onagaz  
alkarri parkatu  
kristinauen izena  
ez daigun ukatu.  
Hau aginduten desku  
Jesus humildiak  
edegiko bajakuz  
zeruko atiak.

13. Jaungoikuen legia  
da guztiz biguna  
bere jarraitzailea  
ez gorrotoduna.  
Ez dau Jesusek gura  
bihotz prestuezik  
kendu otso geiztuak  
bere artaldetik.

14. Otso malmutzak dabiz  
kale bazterretan  
alper eta nagiak  
ardantegietan.  
Nekazale gaisuak  
beti nekietan  
gitxi jan ta gitxi lo  
euren egunetan.

15. Lumaz ondo jantzirik  
beti gautxoriak  
eruatzen deusiez  
arto ta gariak.  
Horregaitino bere  
ez nahi ezagutu  
bihar dirala honeik  
gugandik aldendu.

16. Hatxurra ta laijia  
balebiz bizi  
ezagutuko geunke  
laster ta argiro  
zenbat kalte deuskuen  
egin lumadunak  
eruanaz etxera  
gure ondasunak.

17. Alperrik biharrian  
gara urratuko  
auzi ta barailetan  
gaitue galduko.  
Eurak edango dabe  
gure izerdia  
eta galduko dogu  
azkenik auzia.

18. Berbatxu labanekin  
sarturik sarian  
laster izango gara  
gu euren mendian  
ez badituguz gura  
edegi begiak  
bada eurak dabiltzaz  
zoli ta argiak.

19. Ez emon bada inoz  
eurei entzuterik  
gabiltzan beti zuzen  
eta alkaturik.  
Eztabaida guztiak  
aldendu ezker  
biziko gara beti  
bakez ta gozaro.

20. Atseginez beterik  
igaro bizitza  
ta datorren denporan  
gero heriotza  
lagun izango doguz  
Jesus ta Maria  
ta emongo deskue  
betiko gloria.

**Berbetia:** berbeta, mintzaira, hizkuntza.  
**Jakun:** zaigun.

01. **Doguz:** ditugu.

**Aldendu:** urrundu, desagertu.  
**Osoro:** osoki, guztiz, arras.

02. **Gordetakotzat:** gordetzeko.  
**Hautua:** hautatua, aukeratua.  
**Badesku:** badigu.  
**Bihar geunke:** behar genuke.

03. **Jakona:** zaiona:  
**goitu:** garaitu, gaina hartu, menperatu.  
**Maurua:** mairua.

04. **Premia:** premia, beharra.

05. **Gura ez dabena:** nahi ez duena.  
**Olla lurra:** ez dakit zer izan daitekeen.  
*Oilo-oila* tik ez diot zentzurik hatzema-  
ten.

07. **Ondamu:** bekaitz, inbidia.  
**Deuskuenak:** digutenak.  
**Esamesa:** erran-merran, ele-mele.

08. **Hordi:** mozkor.  
**Anaetu:** anaiatu, anaitu.  
**Berakatz:** baratzuri.

10. **Bihar gendukez:** behar genituzke.  
**Esturasun:** estura, larrialdi.  
**Badeutsegu:** badiegu.

11. **Jainkuen:** Jainkoaren.  
**Jaretxi:** lortu, erdietsi, eskuratu.

12. **Onagaz:** onakin.  
**Kristinauen:** giristinoen, kristauen.  
**Daigun:** dezagun.  
**Desku:** deusku, digu.  
**Edegi:** ireki, zabaldu.  
**Bajakuz:** bazaizkigu.

14. **Malmutz:** maltzur, amarruti.  
**Dabiz:** dabiltza.  
**Nekezale:** nekazari, baserritar.

15. **Eruaten dausiez:** eramaten dizkiete.  
**Horregaitino bere:** horregatik ere, hala  
eta guzti ere.  
**Honeik:** hauek.

16. **Laija:** laia, bi hortz luzeko lanabes bat.  
**Balebiz:** balebiltza.  
**Bizi:** biziki, bizkorki.

17. **Biharrian:** beharrean, lanean.  
**Behar egin:** lan egin.  
**Baraila:** zalaparta, iskanbila.  
**Gaitue:** gaituzte.

18. **Berbatxu:** hizño, hiztxo.  
**Zoli:** bizkorra, zuhurra, argia.

19. **Inoz:** inoz.  
**Gozaro:** gozoki.

20. **Ta datorren denporan gero heriotza:**  
ta gero heriotza datorren denporan, dato-  
rrean.

Paperaren izenburuak dio: "Gaboneco osaste edo cantac Vizcaytarrentzat 1824 garren urtean".

Bertso sorta honek ere Bixenta Mogelen airea dauka. Hitzak, esakerak, eduki politikoa eta moralkoia, gorago beretzat identifikatu ditugunen haritik doazela dirudi.

## AGUR EUSKALDUNAK (1826)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmek)

### Sarrerria:

Agur euskaldunak  
nora zuatzie? Belenera  
gauza handietara  
barriak ikustera  
bidagea bertati  
belutu bageti  
zuzen zuzen hemeti.

### Zortzikua:

01. Agur dontzeilia  
eder ta garbia  
jaiorik seme bat  
Jesus deritxona.  
Geure Egile handie  
zein dan Jaungoikue  
Gabriel aingeruz  
zerutik biraldu.

### Pozgarrie:

Agur dontzeile garbia  
agur dontzeile ta ama  
agur dontzeile ederra  
agur Jesus Seintxua  
agur Seintxu laztana.  
agur txan-txa-txue  
agur kutxi-txue  
Gabriel agurretik  
etorrierakue.

02. Agur Josepe dongsue  
Mari eta Jesus batean  
jaiotza mirariaz  
Belengo eskepean.  
Batzar handi batekin  
aurrian daukela  
hango gozamenaz  
guztiak euskera.

03. Agur Jose eta Mari  
Jesus Seintxuagaz  
aingeru eta artzainak  
han euskeratuaz.  
Osastearen osaztez  
bibolin albokiaz  
txilibitu eta txirolaz  
neurriko osankidiaz.

04. Agur dinue guztiak  
agur agur agur  
ez dago izen hoberik  
mundu, zeruan gaur.  
Gaur eta inoz inoz  
dalako Jainkuarena  
lehenengotik berak emona  
zerutik ekarri duena.

05. Agur langorik ez da  
eguno erderati  
ez daukelako erderiak  
gauza horlako bereti.  
Jente-hilaren esana  
lehen, orain eta beti  
a Dios a Dios esatean  
Jaingoiko bageti.

06. Agur Jesusen bihotza  
Jose eta Mariagaz  
laguntasunean  
batzar jaiotzekoagaz.  
Luziperren mingainati  
heldu zan okerreria  
hagaiti bihar dogu  
arduraz euskera.

07. Agur bagarik dabilen  
itsapearen urlia  
agiri dau dabilela  
erderara beraria.  
Harroturik handiusteaz  
ponpaturik, putziturik  
arpegi ilun motz  
oker gaiztoturik.

08. Agur ezin esan leie  
Luziperretarrok  
zegaitik sulezean  
erdera dira guztiok.  
Eta zerutarrena  
dan legeaz euskera  
oh hitz jakintsu, ezitsu  
sotil, zintzo, garbiena.

09. Erderiagaiti orain  
bihar dogu arduria  
Bizkaien ibiltzeko  
gutun jagoren ibiltea.  
Urteen lehenengotik  
urte guztirako  
politu, zeez, agindue  
itsapean betetako.

10. Agurra da betiko  
juan eta etorteko  
badaukazu zer juan  
Bizkaiti urteiteko.  
Edo marrati kanpora  
joaleita hartu biharkozu  
ardura ahaztu bagarik  
oker ibili gura ezpozu.

11. Agur adeskidiari  
baita edozeineri  
herri, huri, guztietati  
bihar dogu egin hori.  
Eta berziazkutu zuzen  
joaleita edo biala  
ibili bagarik gazki  
zemai saria dozula.
12. Agur eta gurtu  
edo adorau Jeinkoari  
bihotz oso garbiaz  
arimaz jaio danari.  
Geure zorionerako  
etorri da mundura  
kentzeko Adanen hogena  
eta idikiteko zerua.
13. Agur benetan behozu  
lehengo urtekoetari  
begiratuaz zintzo  
erakusten lehengoari.  
Eta orain urte bikoari  
Bizkaian betiko  
erakurri eta iduki  
ez inoz ahaztuteko.
14. Hantxe daukazu orain  
bihar dozun guztia  
eta ez izen aurreran  
alper oker nagia.  
Han daukazu kondaira  
euskaldunentzako  
munduan eta zeruan  
Bizkaitar izateko.
15. Hantxe daukazu orain  
euskaldun maiteari  
jagoteko beti garbi  
izaite dontsuari.  
Bakotxa bere izerdiaz  
gizona izateko  
eta grina txarretik  
alde eragiteko.
16. Geure gurasoak  
euskeriaz iribazi  
zituan Amerikak zoli  
orain erderiaz irazi  
halan galdu alde guztiti  
gizonen hogenak gaiti  
Oh neure Jesusaren agur gozoa  
lehen legez euskera dontsua.
01. **Zein dan:** erlatibo.  
02. **Dontsue:** dohatsua, santua.  
**Eskepean:** aterpean, lehorpean.  
**Daukela:** daukatela.
03. **Seintxuagaz:** seintxuearekin, haurtxoarekin.  
**Osaste:** kanta.  
**Osankida:** musika.  
04. **Dinue:** diote, esaten dute.  
**Inoz:** inoiz, nehoiz.  
05. **Langorik:** lakorik, bezalakorik.  
**Eguno:** egundo, inoiz, sekula.



06. **Mariagaz:** Mariarekin.  
**Okerreria:** txarkeria, gaiztakeria.
07. **Itsape:** pertsona.  
**Urlia:** halako.  
**Urlia eta berendia:** halako eta beste-lako. *Urlia, berendia* eta *sandia*: zehaztu gabeko izenak aipatzeko modua: hau, hori eta hura, honelako, horrelako eta halako.  
**Beraria:** berariaz, bereziki.  
**Putzitu:** puztu.
08. **Leie:** lezakete.  
**Suleze:** ifernu.  
**Dan legez:** denez, denez gero.
09. **Jagoren:** ez dakit zer izan daitekeen.  
**Itsapean:** pertsonan, pertsonalki.  
**Betetako:** betetzeko.
10. **Urteiteko:** irteteko, jalgitzeko.  
**Joaleita:** pasaporte.  
**Biharkozu:** beharko dozu.  
**Ezpozu:** ez badozu.
11. **Birziazkutu:** berretsi, berronetsi, refren-datu.  
**Biala:** pasaporte.
12. **Hogen:** pekatu.  
**Idikiteko:** irekitzeko.
13. **Behozu:** behar dozu.
14. **Aurreran:** aurrerantzean, engoiti, hemendik aintzina.
15. **Jagon:** zaindu, gorde.  
**Eragiteko:** egin eratzeko.
16. **Zoli:** bizkor, argi.  
**Iraizi:** iraitzi, jaurti, egotzi, bota.

Paperak izenburutzat dio: “*Gaboneco osaste edo berba neurtuac Vizcaytarrentzat. 1826. garren urtian*”.

Nahiko bertso sorta barregarria da hau, ez dakartzan neologismo xeblebrengatik bakarrik, euskara modu orokorragatik baizik. Hitzak eta joskera irrara moldatzen dira, haizeak ematen dion moduan.

Azkenean, argigarrizat, hiztegitxo bat ematen du, ohar honekin: “Eztakiena euzkera garbi, emen ditu lenengo dago euzkera garbiye, eta aurreti bestea”. Esaldi hau ulertzeko ere, gramatika aparkatu egin behar da. Bitxia baita lehenengo bata eta aurretik bestea egotea ere. Lehenengoaren aurretik egoteko, azkar ibili beharko da.

Bertsoen gai nagusia den *Agur* hitzaz berriz, hiztegitxoan dio: “Agur: Dios te salve baxen gueyago zazpi bider, etc.” *Baxen*: baizen, baino. Norbere burua horrela baloratzen dakiena munduan lasai ibil daiteke. Hala ere, grazirik gehien etc. horrek egiten dit. Zer izkututzen ote da bertan?

## IZAR GUZTIEN ARGI (1828)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo, Bonaparteren mikrofilmeak)

### Sarrerria:

- Izar guztien argi  
adoragarria  
amatauko dozuna  
gure egarria.  
Erdu hainbat lasterren  
lurrera  
arima argal gaisuak  
sendotutera.
01. Augusto Erromako  
enperadoriak  
ozta zabaldu ditu  
munduan bakiak.  
Jaioten da Mesias  
lehenaz agindua  
dontzeila garbiaren  
erraien frutua.
02. Augusto izan bazan  
bake ekarlia  
dator zeruetatik  
errege hobia.  
Berak edegiko dau  
zeruko atia  
arimai emoteko  
betiko bakia.
03. Augustok ez ekian  
zeruko barririk  
ta zeruak darabil  
igarri bagarik.  
Prestetako Jesusi  
bere etorreria  
ta arima gaisuei  
atsegin betia.
04. Augustok bete eban  
mundua odolez  
bere gudagizonak  
gosez ta negarrez.  
Gudari hobaguak  
jatorkuz lurrera  
ondasun guztiakaz  
bakia emotera.
05. Lege antxinakuan  
ikara zan lurra  
alde guztietatik  
eguan bildurra.  
Trumoe, su ta keiaz  
dabil aingerua  
itzalez estaldurik  
izten dau mundua.

06. Orain aingeru berak  
dakarren soinua  
da guri emotia  
lege baketsua.  
Tronpeta hotsen erdian  
dakaz biolinak  
kanta pozgarri eta  
gutziz atseginak.
07. Erdu ordu onian  
sarri eskatua  
izan zarian Jesus  
on ta baketsua.  
Azpiratu egizu  
drago gazkina  
harturik zeure amatzat  
zeruko erregina.
08. Zatoz lihortutera  
Adanen malkuak  
eta desegitera  
bere pekatuak  
eginiko kaltiak  
hain zori gaiztuan  
zarratu zituanak  
atiak zeruan.
09. Erdu, Jesus, haustera  
ate morroiluak  
sartu ditezan zeugaz  
lehen herbestetuak.  
Bildots eta lehoiak  
bere aska baten  
dakuskuzan bakian  
alkarregaz jaten.
10. Suge zahar asmoduna  
ta antxinakua  
ume baten zemaiaz  
dago baztertua.  
Arnasa edenduaz  
baginduzan galdu  
sein honek izten deusku  
gaur zegaz osatu.
11. Eba zaharraren orde  
gaur ama hobia  
jatorku edetera  
zeruko atia.  
Gura dabenak bada  
jaritxi gloria  
hartu bitartekotzat  
Birjina Maria.
12. Ama errukiorra  
zure hegapan  
euki gagizuz arren  
hemen herbestian.  
Jainkuaren legia  
gorderik lurrian  
zugaz egon gaitian  
betiraun guztian.



- Amatau:** iraungi, itzali.  
**Erdu:** zatoz, etor zaitez.
01. **Lehenaz:** lehendik, alde zurretik.  
02. **Edegi:** ireki, zabaldu.  
03. **Ekian:** zekien.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
**Prestetako:** prestatzeko, prest, gertu ipintzeko.  
04. **Eban:** zuen.  
**Hobaguak:** hobeak.  
**Jatorkuz:** datozkigu.  
**Guztiakaz:** guztiekin.  
05. **Eguan:** zegoen.  
**Izten:** uzten, lagatzen.  
06. **Dakaz:** dakartza.  
07. **Egizu:** ezazu.  
**Gazkina:** gaizkina, gaizkilea.
08. **Lihortutera:** lehortzera, xukatzeraz.  
**Zarratu:** itxi, hertsia.
09. **Zeugaz:** zeurekin.  
**Bere:** ere.  
**Dakuskuzan:** ikus ditzagun.  
**Alkarregaz:** alkarrekin.
10. **Zemaiaz:** mehatxarekin.  
**Edendu:** pozondu.  
**Eden:** pozoin.  
**Baginduzan:** bagintuen.  
**Izten deusku:** uzten digu.  
**Zegaz osatu:** zerez, zerekin sendatu.
11. **Jatorku:** datorkigu.  
**Edetera:** edegitzera, irekitzera.  
**Jaritxi:** erdietsi, eskuratu, lortu.
12. **Gagizuz:** gaitzazu.  
**Arren:** otoi, mesedez.

## ERDU ERDU ERDU (1828)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Bonaparteren mikrofilmek)

### Sarrerria:

Erdu, erdu, erdu  
Jesus lurrera  
gu libretara  
gatxetatik  
ta bertatik.  
Ez bazaukaguz,  
galdu galdu galdu  
bihar dogu  
alde guztietatik.

01. Nik ez dakit zer esan  
gaurko egunian  
deritxat ez naguala  
Bizkaiko lurrian.  
Alperrak ta nagiak  
lapurrak ugari  
lotsagabekeriak  
arpegiz arpegi.

02. Jainkuaren bildurrik  
ez dogu ikusten  
juez ta agintariei  
lotsarik ez hartzen.  
Dirudi gagozala  
mauruen artian  
neure bihotza daukat  
nahibaga betian.
03. Lotsa naz gaur hartuten  
eskuan lumia  
iminteko ohituran  
gabongo kantia.  
Ez da Bizkaian inoz  
entzun halakorik  
onak eta zintzuak  
dagoz samindurik.
04. Hazi txarrak eriten  
dabilen jentia  
ez da duin Bizkaian  
bizi izatia.  
Beti leial ta garbi  
bihar dogu izan  
lehenagoko asaben  
ohitura ta gisan.
05. Nekerik nahi ez hartu  
jan ta edan ondo  
ezin bizi ginaindez  
honetan luzaro.  
Lurrak ez dau emongo  
neke baga ezer  
negar egingo dogu  
gogotik bai laster.
06. Bizkaian oraindino  
badira hazkorrak  
aldenduteko hemetik  
prestuez doilorrak.  
Alkar hartu ezkerro  
bizkaitar garbiak  
laster garbitu leitez  
bide ta herriak.
07. Justiziako Jaunak  
burutzat harturik  
urten daigun guztiok  
nagitu bagarik.  
Herbestetu betiko  
lapur ta gaiztuak  
bizi gaitian gero  
bakian auzuak.
08. Lajia ta hatxurra  
harturik eskuan  
bilatu ondasunak  
lurraren barruan.  
Hazkoriaz harotzak  
mailuaz harginak  
ondo bizi izateko  
egin ahaleginak.
09. Aberatsak zabaldu  
dirua lanetan  
nekezaliak daian  
irabazi honetan.  
Alkarri lagundurik  
handi ta txikiak  
geuk dontsutu ginaiz  
betiko herriak.

10. Gorde bere zintzoro  
Jesusen legia  
ikasi gogo onez  
bere dotrinia.  
Txito da erreza ta  
gutzizko biguna  
plagiarena barriz  
astun ta iluna.

11. Badeutsazu inori  
izan gorrotorik  
parkatu berihala  
bihotz bihotzetik.  
Bizkaitarren bihotzak  
prestuak izanik  
ezin gorde ginaike  
gurari txatarrik.

12. Guztiok bihar gara  
egon bat eginik  
errege geure jaunak  
baleu preminarik.  
Bizkaitik bota bota  
lapur galgarriak  
bizi gaitian bakez  
bihargin zoliak.



**Erdu:** zatoz, etor zaitez.  
**Libretara:** libratzera.  
**Gatzetatik:** gaitzetatik.  
**Ta bertatik:** lurretik alegia.  
**Bazaukaguz:** bazauzkagu.

01. **Deritxat:** erizten diot, uste dut.  
02. **Gagozala:** gaudela.  
**Mauru:** mairu.  
**Nahibaga:** nahigabe, atsekabe, samin.  
03. **Lumia:** luma, idazluma.  
04. **Eriten:** ereiten.  
**Duin:** merezi duena.  
05. **Ginaindez:** gintezke.  
**Baga:** barik, gabe.  
06. **Hazkorrak:** adoretzuak, gogotsuak, gi-  
hartsuak.  
**Leitez:** litezke.

07. **Urten daigun:** irten, jalgi gaitezen.  
08. **Lajia:** laia, bi hortz luzeko lanabesa.  
**Hazkoriaz:** haizkoraz.  
09. **Nekezaliak:** nekazariak, baserritarrak.  
**Daian:** dezan.  
**Dontsutu:** bedeinkatu, santu egin.  
**Ginaiz:** genitzake.  
10. **Bere:** ere.  
**Zintzoro:** zintzoki.  
**Txito:** txit, oso, arrunt, biziki.  
**Plagiarena:** plagarena, gaiztakeriarena,  
etsaiena.  
11. **Badeutsazu:** badiozu.  
**Ginaike:** genezake.  
**Gurari:** nahikari, desira.  
**Txatarrik:** zatarrrik, gaiztorik.  
12. **Baleu:** balu.  
**Zoliak:** zuhurrak, argiak, bizkorrak.

## OH GAU EDERRA (1831)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 63915)

## Sarrerria:

Oh gau ederra  
Oh gau dontsua  
gure nahibagen  
amaia.  
Aldendu bitez  
laino ilunak  
agertu bedi  
miragarria.

02. Ama dontzeila garbi  
zeruak hautua  
bere senar Josepe  
gizon dontsua.  
Belenen heldu eta  
ordu gitxi barru  
geure salbagilia  
jaiorik dakusku.

## Zortzikua:

01. Egun zorioneko  
mirariz betian  
ze poza zabaldu dan  
gaur mundu guztian.  
Negarrez ta zizpuruz  
gengozan unian  
zerua agertu da  
ilargi betian.

03. Dabiden jatorritik  
datorren seintxuak  
garbitu bihar ditu  
gure pekatuak.  
Bere odola nahi dau  
gugaitik isuri  
bere grazia ez deutsa  
ukatzen inori.

04. Sugiaren burua  
hausi dau Mariak  
ikara egin dau gaur  
inpernu guztiak.  
Zeruko erregina  
ostarku ederrak  
beteko ditu pozez  
munduko bazterrak.

## Pozgarria:

Guazan guazan  
Belenera  
zeruko bidia ikastera.  
Han dago geure  
egilia  
errege guztien  
erregia.

05. Bakia kantetan da  
zeru ederretan  
guk bere kantau daigun  
herbeste honetan.  
Aingeruen soinuaz  
geuria baturik  
Sein hau adorau daigun  
bihotz bihotzetik.

06. Zerutarrak lurrera  
badatoz aldraka  
eta artzain guztiak  
ardiak largata.  
Baduaz Belenera  
guazan gu bere  
hantxen ikusten Jesus  
Ama ta Josepe.

07. Euren arpegi ederrak  
ikustiagaitik  
ez bada gomutetan  
bideko nekerik  
zer ez genduke bihar  
egin guk lurrian  
eurakaz egoteko  
beti iraunian?

08. Jaunaren aginduak  
errez ta bigunak  
plagiarenak barriz  
guztizko astunak.  
Sari amaibagiak  
dagoz eskinirik  
Jesusen lege ederra  
gordetiagaitik.

09. Heriotzaren bere  
ez dauka bildurrik  
Jesus maite dabenak  
arima guztitik.  
Azkeneko arnaseen  
larritasunetan  
lagunduko deutse bai  
Jaun honek benetan.

10. Zeruan sartutia  
bada atsegina  
bizi garan artian  
egin ahalegina  
daikgun han ikusi  
guztiok baturik  
bere gloria handia  
estalki bagarik.



**Dontsua:** santua, bertutetsua.  
**Nahibage:** atsekabe, samin.

01. **Zizpuruz:** hasperenez, zinkuriz.  
**Gengozan:** geunden.  
**Guazan:** goazen.
02. **Hautua:** hautatua, aukeratua.  
**Dakusku:** ikusten dugu.
03. **Seintxuak:** haurtxoak.

**Deutsa:** dio.  
**Ostarku:** ortzadar, Erromako zubia.

05. **Kantetan:** kantatzen.  
**Daigun:** dezagun.
06. **Aldra:** talde, saldo, samalda.  
**Largata:** lagata, utzita.
07. **Gomutetan:** gomutatzen, gogoratzen,  
oroitzen.

**Eurakaz:** eurekin.

08. **Plagiarenak:** plagarenak, gaiztakeriare-  
nak, etsaienak.  
**Dagoz:** daude.  
**Gordetiagaitik:** zaindu, gordetzeagatik

09. **Bere:** ere.  
**Deutse:** die.

10. **Daikgun:** ahal daigun, dezakegun, ahal  
dezagun.

### BIZKAIKO HATXURLARI TA NEKEZALE (1831) guztientzat denpora igarogarria

(Aurreko separata berean)

01. Zaharrak eta gaztiak  
atso nekatuak  
subil onduan daukez  
harturik lekuak.  
Gaur gabon gabon dogu  
dirautse alkarri  
gesi baten ez gara  
izango egarri.

02. Ze poz ze atsegina  
gaur gure etxian  
ia apalduteko  
ingura gaitian.  
Bihar asko eginda  
mutilak logura  
hurreratu gaitian  
geure isilura.

03. Artua ta esnia  
orio azia  
besigu erria ta  
morkua betia.  
Subil handi bategaz  
sua alegria  
ez da ez gaur haserre  
gureko jentia.

04. Bihar emongo deuskuz  
amaxe guriak  
geli saltsa ederra  
gaztaina erriak.  
Zezin urdaiagazko  
lapiko betia  
sagardaoz daukagu  
gainezka upia.

05. Aurten bai gabon onak  
itxaroten doguz  
zerren koltzak ondotxu  
beterik daukaguz.  
Artua, gaztainia  
intxaurra ugari  
ondamurik ez dogu  
izango inori.

06. Halan esaten eben  
bizkaitar lehenguak  
baina amaitu dira  
orduko kontuak.  
Ez daukagu etxian  
labore modurik  
ta ganaduak bere  
gosez erdi hilik.

07. Geure eskuan dago  
ondo izatia  
tabernara dirurik  
ez eruatia.  
Zenbat diru kanpora  
dabe eruatzen  
garialako sarri  
tabernan sartuten!

08. Errentak pagetako  
gabiltz estu estu  
urte batz bestia  
ezin da estaldu.  
Tabernaria dogu  
guztiz adiskide  
ura salduten deusku  
ardauaren orde.

09. Horregaitino bere  
itxi ezin dogu  
noz kontuan, gizona,  
jausiko gara gu  
Maritxu tabernako  
andra pinportiak  
eruan ez deiguzan  
pezeta maitiak?

10. Urtian baino urtian  
sisak handiago  
gure diru guztiak  
Erriojarako.  
Baita bere darue  
Montañesak asko  
Bizkaian ganadurik  
hazten ez dalako.

11. Bihar leuke honetan  
Bizkaiko buruak  
hau galerazoteko  
egin aginduak.  
Mendi tantai guztiak  
ganaduz beterik  
ez dedila ekarri  
bat bere kanpotik.

12. Baserri guztietan  
behi buztarrikuak  
ta mendi urrinetan  
basa idiskuak  
iminiko balira  
urte gitxi barru  
gehituko litzateke  
nahikua ganadu.

13. Baina zori gaiztuan  
oraingo urtetan  
hazkoria hasi da  
basuak trisketan.  
Mahastiak bihar dira  
bazter guztietan  
ganadu jatekorik  
ez dago etxeetan.

14. Olak biharko dira  
euki zarraturik  
bada ez da egongo  
Bizkaian egurrik.  
Burdinarik ez bada  
ez dator dirurik  
ta geldituko gara  
ondo mutildurik.

15. Alkondaratxu zahar bi  
aldian harturik  
urten biharko dogu  
kanpora Bizkaitik  
ogia irabazten  
ahal dogun lekura  
Gailegu Montañesak  
dabiltzan modura.

16. Ai bizkaitar maitiak  
higitu gaitian  
halako nahibagiak  
heldu ez ditian.  
Hatxurra ta lajia  
ugartu bagarik  
atera ondasunak  
lurraren barrutik.

17. Basuak ondo jantzi  
gaztaina ta haretxez  
kortak berotuteko  
iraz ta orbelez.  
Atera gero satsa  
solara ugari  
koltzia zemendian  
ondo bete dedin.

18. Tabernara osteria  
betiko amaitu  
zezina ta urdaia  
etxian gizen du.  
Amak egin daiala  
gorua ugari  
aitak eta semiak  
hatxurren gogoti.

19. Huritarrak badabilz  
hartu-emonetan  
hatxurlari garbiak  
ez sartu horretan.  
Zeuen etxe aldeko  
lanak egin ondo  
halan biziko zara  
gaur baino hobeto.

20. Jaiegun santuetan  
ez egin biharrik  
atsereteko ditu  
Jaunak iminirik.  
Gox eta arratsalde  
juan elexara  
arimako ondasunak  
han bilatutera.



21. Bakia auzuakaz  
 etxian bakia  
 hau da bai aingeruen  
 gisan bizitzia.  
 Oparik Jainkuari  
 munduko nekiak  
 gero izango doguz  
 atsegin betiak.



01. **Subil:** mukur, enbor, anpor.  
**Daukez:** dauzkate.  
**Dirautse:** dinotse, diotsate, esaten diote.  
**Gesi baten:** laster samar, puntuan, gero-  
 txoago.
02. **Apalduteko:** afaltzeko.  
**Bihar:** behar, lan.  
**Isilu:** sukalde mahaia.
03. **Morkua:** pitxar zaskarra, ontzia, mur-  
 koa.  
**Bategaz:** batekin.  
**Gureko:** gure etxeko.
04. **Deuskuz:** dizkigu.  
**Amaxe:** amama, amatxi, amona.  
**Geli:** behikia, okela.  
**Upia:** upa, kupel.
05. **Doguz:** ditugu.  
**Zerren:** ze, zeren.  
**Koltza:** ganbara edo sabai antzekoa ba-  
 serrietan.  
**Daukaguz:** dauzkagu.  
**Ondamu:** bekaitz, inbidi.
06. **Eben:** zuten.
08. **Pagetako:** pagatzeko, ordaintzeko.  
**Bataz:** batekin.  
**Deusku:** digu.
09. **Horregaitino bere:** horregatik ere, hala  
 eta guzti ere.

- Itxi:** utzi.  
**Noz:** noiz.  
**Pinportiak:** pinportak, presumituak.  
**Eruan:** eraman.  
**Deiguzan:** diezazkigun.
10. **Sisak:** zerbaitetik osten, ebasten diren  
 zatiak.  
**Darue:** daramate.
11. **Galerazo:** galazi, debekatu.  
**Mendi tantai:** mendi landu gabeak, be-  
 rez dauden moduan.
12. **Urrin:** urrun, urrutiko.
13. **Trisketan:** triskatzen, zehatzen, arras  
 puskatzén.
14. **Olak:** burdin lantegiak.  
**Zarraturik:** itxita, hertsirik.  
**Mutildurik:** muskildurik, murrizturik,  
 ezer gabe.
15. **Aldian:** aldean, soinean.
16. **Higitu:** azkar mugitu.  
**Lajia:** laia, bi hortz luzeko lanabesa.  
**Ugartu:** uhartu, erdoitu, erdoildu.
17. **Haretzez:** haritzez.  
**Kortak:** ikuiluak, tegiak.  
**Satsa:** simaurra, ongarria.  
**Zemendian:** azaroan.
18. **Osteria:** osteria, joanetorria, itzulia, bi-  
 daia.

- Hatxurren:** haitzurketan, haitzur lanean. 21. **Auzuakaz:** auzoekin.  
**Oparik:** opaturik, eskainirik.  
 20. **Biharrik:** beharrik, lanik. **Doguz:** ditugu.  
**Atsereteko:** atsedeen egiteko.  
**Gox:** goiz.

Hau eta aurreko bertso sorten izenburuak dio: "Gaboneco cantac  
 Jesusen jaiotziaren ganian 1831 garren urterako"

## ZERUA DAGO ARGÍ (1832)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 63916)

Sarrerria:

Zerua dago argi  
 ez dago lainorik  
 soinu pozgarriak  
 alde guztietatik  
 ez dogu guk bere  
 bihar nahibagarik.

Pozgarria:

Poztu poztu  
 zahar ta gaztiak  
 Jesusek opa deuskuz  
 guri bakiak  
 zabal zabalik dagoz  
 zeruko atiak.

Zortzikua

01. Jaio jakun ezker  
 bake ekarlaia  
 zer guk esan ginaike  
 ezpada bakia?  
 Bakia auzuakaz  
 etxian bakia  
 hau izan bihar dogu  
 gaur gure kantia.

02. Jesusen jaiotzia  
 badogu kantetan  
 ez da esamesarik  
 bihar herrietan.  
 Poza ta atsegina  
 bazter guztietan  
 guztiok alkarturik  
 bera adoretan.

03. Gure asaba zaharrei sarri agindua gaur dakusku lurrian ondo humildua. Bete dira azkenik gure gurariak orain prestau daiguzan guk bere opariak.
04. Urre, mirra, intzentsorik ez dau eskatuten arima onak bakarrik ditu bilatuten. Ona ez danak bere ondu gura badau bere bihotza beti prest aurkituko dau.
05. Adanek bagenduzan betiko gu lotu ta bere pekatuak gizona ezaindu Dabiden sorreratik datorren seintxuak gu itxi bihar gaitu gaur lokabetuak.
06. Jesus gure Jaun maite adogarria ez arren gaur ukatu gure eskaria. Bitarteko harturik zeure ama maitia zuzenduko dau berak gure eskabidia.
07. Guztiok bat eginik deiogun eskatu guda edo gerratik gaizala aldendu. Ta zabaldu dedila erreinu honetan zeruko iruntz ederra bazter guztietan.
08. Gordeko bagendukez bere aginduak izango ginaindekez lurrian dontsuak. Jainkuaren legia guztiz da biguna osoro betetako egin ahal doguna.
09. Berak itxi baditu zeruak gugaitik eta jatsi lurrera haragiz jantzirik bere gainera harturik gure pekatuak ez dogu izan bihar esker gaiztokuak.
10. Kendu alde batera lehengo gorrotuak eta beti maitetu lagun ta auzuak. Jaunaren agindua da parkatutia eta ez gorrotorik inori izatia.

11. Estua da bidia zerura igoteko zer egin bihar geunke hara juateko? Autortu pekatuak arimak garbitu bizimodu barri bat aurrera jarraitu.
12. Halan izango dogu heriotza ona eta haren ondoren zeruko ondasuna. Hau nik opa deitsuet bizkaitar maitiak egin daiguzan bada harako bidiak.



- Nahibagarik:** nahigaberik, atsekaberik, saminik.
01. **Jakun:** zaigun.  
**Ginaike:** genezake.  
**Auzuakaz:** auzoekin.  
**Opa deuskuz:** eskaintzen dizkigu. *Desio dizkigu* ere badaiteke.  
**Dagoz:** daude.
02. **Kantetan:** kantatzen.  
**Esamesarik:** erran-merranik, ele-mele-rik.  
**Adoretan:** adoratzen.
03. **Dakusku:** ikusten dugu.  
**Gurari:** nahikari, desira, gogo.  
**Prestau:** prestatu, prest, gertu jarri.  
**Daiguzan:** ditzagun.
05. **Bagenduzan:** bagintuen.  
**Ezaindu:** itsustu, deformatu.  
**Seintxu:** haurtxo.  
**Itxi:** utzi.  
**Lokabetuak:** deslotuak, askatuak.
07. **Deiogun:** diezaiogun.  
**Iruntz:** ihintz.
08. **Bagendukez:** bagenituzke.  
**Izango ginaindekez:** izango ginateke.  
**Dontsuak:** bertutetsuak, santuak, do-hatsuak.  
**Osoro:** osoki, erabat, guztiz.  
**Betetako:** betetzeko.
11. **Bihar geunke:** behar genuke.
12. **Opa deitsuet:** nahi, desio dizuet.  
**Daiguzan:** ditzagun.

Bertso sortak izenburutzat dio: "Gaboneco cantia Jesusen jaiotzaren ganian 1832 garren urteraco".

## NOR NOR? HIRUTIK BAT (1803)

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Zenbaki gabea, nik jaso nuenean behintzat)

## Sarrera:

Nor, nor?  
 Hirutik bat.  
 Zein, zein  
 jaio da bart?  
 Birjina baten  
 semia.  
 Mundua mundu dala  
 inoz ikusi ez ahal da  
 itsuak bai  
 gorrak ez, ez  
 dontzeila izanik  
 eitia...  
 Bai, bai  
 halantxe da  
 ziur, ziur  
 hau izan da  
 guztiontzako  
 zoria.

01. Mundu guzti guztia  
 Jaunaren gosiaz  
 eguan sikaturik  
 negarrak botiaz.  
 Negar tanta goriak  
 Jaun hau bigundurik  
 gosia kendu deusku  
 usterik bagarik.

## Pozgarria:

Hau da Gabon  
 hau da gau on  
 hau bai dala gosia  
 gure bila  
 esker mila  
 bart jaio da grazia  
 bai gizonak  
 barri onak  
 poztuteko gogua  
 merke dakar  
 guretzako  
 janari osua.

02. Gosiau kenduteko  
 janari bizia  
 Belenen heldu jaku  
 ontzi bat betia.  
 Ontzi honi deritxo  
 bai Andra Maria  
 guri kentzera dator  
 gose ta egarria.

03. Ondo etorri gatoz  
 guztiok emoten  
 zatozalako guri  
 nekiak kenduten.  
 Bizi zaitetz, Maria  
 bizi zeure Seme  
 bizi bedi Josephe  
 baita zeuen Jaube.

04. Pekatuen urolak  
 gizona galdurik  
 gatx handi gelditu zan  
 guztiz zabaldurik.  
 Hagaitik hemen gaukaz  
 azpian harturik  
 gudan iminte ezpadau  
 Jaun onak eskurik.

05. Aita eta Semia  
 eskuak harturik  
 dantza bat egin daigun  
 Belenen sarturik.  
 Ez dira ez faltako  
 atso, neskatilak  
 eurak izan ez arren  
 ointxuak bardinak.

01. **Gosiaz:** gosearekin.  
**Eguan:** zegoen.  
**Sikaturik:** lehorturik, idorturik.  
**Deusku:** digu.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
 02. **Gosiau:** gose hau.  
**Jaku:** zaigu.  
**Jaube:** jabe.

06. Bardintasunen bila  
 bagabiz luzatu  
 inok barre eginda  
 dantza ez amaitu.  
 Ez daigun hemen hasi  
 dantzia luzia  
 ekarriko deuskuna  
 gabagaz gosia.

07. Bilboko Huri noble  
 Bizkaiaren burua  
 askori hausiteko  
 goizerik barua.  
 Zure moduztasunak  
 bihotzak pozturik  
 zugana bihar dogu  
 besuak zabalik.

08. Gure gose ta egarri  
 oraintxe kenduten  
 dator seintxu eder bat  
 egun zabalduen.  
 Pekatu gau iluna  
 ondo zapaldua  
 itxiko dau beronek  
 lortzeko zerua.

04. **Urolak:** uholak, uholdeak.  
**Gatx:** gaitz.  
**Gaukaz:** gauzka.  
**Iminte ezpadau:** iminten, ipintzen ez  
 badu.  
 05. **Daigun:** dezagun.  
 06. **Bagabiz:** bagabiltza.  
**Gabagaz:** gauarekin batera.

07. **Goizerik:** goizetik.

**Moduztasunak:** moduak, aberastasunak.

08. **Egun zabalduten:** eguna zabaltzera, argitzera.

## OH TXIT, OH POLIT (1803)

(Aurreko separata bera)

Sarrera:

Oh txit,  
oh polit  
oh galant  
oh zu etxizagarria!  
Zu nor?  
Zu Jesus!  
Jesus zu zara  
zeru-lurren pozgarria  
bizi dedila zure izena  
da euskel onragarria  
bai antxinatik  
guk izan dogu  
zu ta honen egarria.

Pozgarria:

Pozaren pozak  
dauko Bizkaia  
gaur egunian  
muturik  
dakuselako  
libratzailia  
Belen Hurian  
jaiorik.  
Eta bai eta  
euskeldun batek  
maisuz guztiak  
goiturik  
euskerarako  
bai honentzako  
ez da lurrian  
besterik.

01. Erakusla handi bat  
txikarretati  
Belenera heldu da  
zeruetati.  
Euskera baki  
puntuan egin deuste  
eutsi eta tati.

02. Vamos nobles vizcainos  
eskolarantza  
sin que dexemos todo  
bai atzerantza.  
Vámonos todos  
Bilbao ta alde-herriok  
de todos modos.

03. Antxinakok euskera  
esan ohi eban  
ardoa merke urtian  
bai saldu neban.  
Fraka ta amila  
aurten hau jazotia  
zer marabila.

04. La seca de este año  
bai kikildurik  
las gentes han dexado  
gosiak hilik.  
Cúralo todo  
orain etorri jaku  
solo en un tomo.

05. Urtetako hiletatik  
bat urtarrila  
etxe bat deritxona  
bai Artabilla  
Bizkaian dago  
asko dituz lagunak  
hainbat dongago.

06. Señores de Castilla  
gau onez aurren  
quién ver! Con qué gusto  
artoa jaten.  
Y cómo! Si hubiera  
baneuka baneukoke  
dicen por fuera.

07. Askok aurtengo urtian  
ardura бага  
gura leuke izatia  
euskeldun harra.  
Eta zegaitik?  
Dongago daoalako  
bai Gaztelatik.

08. Un hombre sin sagundo  
aurtengo urtian  
la Europa ha movido  
gitxien ustian.  
Con su baskuence  
zeinek honi ukutu  
está el lance.

09. Euskerian arerio  
gizon handiak  
orain agertu bihozuz  
zeuen bidiak.  
Zer esan bozu  
hemen nago begira  
ukatu ez bozu.

10. Viva y siempre viva  
Euskel Herria  
y viva el Mesías  
Maisu zoria.  
Y tambien viva  
euskeria apaindu arte  
nuestro Don ... viva.

11. Agur, neure jentiak  
nahi dozun arte  
agur egiten dogu  
gaur bihar arte.  
Guzti guztiok  
Maisu honi jarraitu  
daigun bidiok.



- Honragarria:** ohoragarria.  
**Antxinatik:** aspalditik, duela denbora lu-  
zetik.  
**Dauko:** dauka.  
**Dakuselako:** ikusten duelako.  
**Goiturik:** goia, gaina harturik, menpera-  
turik.
01. **Erakusla:** erakusle, irakasle.  
**Txikarretati:** txikitatik, txikarra, txikia  
dela.  
**Baki:** badaki.  
**Deuste:** didate.
02. **Alde-herriok:** albo-herriok, inguruetak  
herriok.
03. **Eban... neban:** zuen... nuen.  
**Amila:** soingainekoa, jantzi mota bat.
04. **La seca:** lehortea, idortea esan nahi du.  
**Kikildurik:** uzkuriturik, oiloturik.  
**Jaku:** zaigu.

05. **Txarrago:** okerrago.
07. **Baga:** barik, gabe.  
**Gura leuke:** nahi luke.  
**Harra:** zomorro, koko.  
**Daozalako:** dagozelako, daudelako.
08. **Ukutu:** ikutu, ukitu, hunkitu.
09. **Arerio:** etsai, izterbegi.  
**Bihozuz:** behar dozuz, dituzu.  
**Zer esan bozu:** badozu, badaukazu.  
**Ez bozu:** ez badozu.
10. **Maisu zoria:** Maisu heldua, patxadazkoa.
11. **Daigun:** dezagun.  
**Bidiok:** bide hauek. Esaldi hau ez dago  
argi. Maisuaren bideak jarraitzea esan  
nahi badu, *daioguzan* -diezazkiogun-  
behar zuen gutxienez, esaldia eratuta  
dagoen moduan.

Bertso sorta hau eta aurrekoa separata berean datoz, gaztelaniazko beste Gabon-kanta batzuren ondoren eta izenburu luze hau dakar: *Villancicos que se han de cantar en la solemne Misa del sagrado nacimiento de nuestro Señor, y Redentor Jesu-Christo, en el real e Imperial convento de nuestro Padre San Francisco, de esta noble Villa de Bilbao. Año de 1803. Puestos en música por el P. Fr. Antonio de Zabala, Vicario de dicho Convento.*

Berriz ere musikagilearen izena ematen da, baina bertsoegilearenik ez. Bigarren sorta honetan euskara-erdarak nahasten dira, nahizta bistan den Gaztelari bekaitz handirik ez diola. Nor ote da izendatzen ez den beste Don... hori?

## BIDETAR LOHI BAT

(Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 9582)

Bidetar lohi bat egarriz hilik  
dator errerik Belenera  
iturriren bat ete daguan  
herritxu hatan jakitera  
amatetako bere egarria  
garbituteko erropia.

Oles  
nor da?  
Bai da  
zer gura?

Esan egizu ete daguan  
herri honetan iturririk  
bada egarriak itorik nauka  
lohiagaz nago errerik.  
Huri honetan etxe zahar baten  
bart agertu da iturri bat  
noren ur gozo edaten bozu  
ez dozu eukiko egarririk.  
Ur hau izanik garbitasuna  
kenduko deusuz orbanak.

- Guazan, guazan, erdu guztiok  
osasuneko Iturrira  
ase gaitazan zeruko urez  
izan ez daigun egarririk.  
Garbitu daigun geure bihotza  
korront ugari zeruan.  
Guazan, guazan, guazan guztiok  
ez bedi inor alper izan.
01. Iturri bat eguan  
atsegin lekuan  
etzan besterik bihar  
munduan orduan.  
Urtenik lau lekutik  
ibai zabaletan  
lurra bustiten eban  
edozein lekutan.
02. Suge guzurti batek  
asmu deungiagaz  
galdu zituzan urak  
beneno minagaz.  
Lohiturik iturriak  
hausirik kainua  
errerik geratu zan  
egarriz mundua.
03. Jaungoiko zerukuen  
ontasun handiak  
emon dituz lurrian  
iturri barriak.  
Iturri honen ura  
izanik gozua  
gozoz aseko deusku  
guztien gogua.
04. Kainua izango da  
Birjina Maria  
zabal, sendo, ederra  
mirariz garbia.  
Pozik harturik ura  
zeruko mendian  
ugari emongo deusku  
Belengo Hurian.
05. Sarturik iturria  
ibaien erditik  
garbi etorriko da  
ur lohien artetik.  
Kainuak emon arren  
Jesus ur santua  
beti geratuko da  
guztiz zarratua.
06. Kainuak emongo dau  
ugari ezta  
esniak kenduko dau  
gure egarrira.  
Egarri zarianok  
erdue iturrira  
lohiturik zagozanok  
ur guztiz garbira.
07. Kainua izan arren  
kostu handikua  
ur hau emoten jaku  
duharik nahikua.  
Bost lekutan daukazu  
agirian ura  
guztiok hartuteko  
bakotxak nun gura.

08. Lehenago izan bada  
herri hau lihorra  
ugari dauko orain  
ur osasunkorra.  
Betoze geixo dirianak  
ur hau edatera  
osasun betikua  
bertan hartutera.

∞

- Ete: ote.  
Hatan: hartan.  
Amatetako: amatatzeko, itzaltzeko, iraun-  
gitzeko.  
Egizu: ezazu.  
Noren: erlatiboa hemen.  
Bozu: badozu.  
Deutsuz: dizkizu.  
Guazan: goazen.  
Daigun: dezagun.
03. **Deusku:** digu.  
05. **Zarratua:** itxia, hertsia.  
06. **Zarianok:** zaretanok.  
**Zagozanok:** zaudetanok.  
07. **Jaku:** zaigu.  
**Duharik:** dohan, dohainik.  
**Nun gura:** non nahi.  
08. **Lihorra:** lehorra, idorra.  
**Geixo:** gaiso, eri.
01. **Eguan:** Zegoen.  
**Urtenik:** irtenik, jalgirik.  
**Eban:** zuen.
02. **Deungiagaz:** deungearekin.  
**Deunge:** gaizto, zital.  
**Beneno:** pozoin.

Gaztelaniazko lau gabon-kantaren ondoren, bosgarrentzat bertso sorta hau dakarren paperak izenburutzat dio: *"Villancicos que se han de cantar en la solemne Misa del sagrado nacimiento de nuestro Señor, y Redentor Jesu-Christo, en el real e imperial Convento de nuestro Padre San Francisco. Puestos en música por el P. Fr. Antonio de Zabala, Vicario de Coro de dicho Convento"*.

Zenbatgarren urtea den ez du jartzen.

## ZERUKO EJERZITUAK (1801)

(1801.eko Gernikako Gabon-kanta bat, Adolfo Arejita. Euskeraren Iker Atalak 6 - Labayru Ikastegia, 9. or.)

## Introducción

01. Zeruko ejerzituak  
batzarra eginik  
Belenera datoze  
guztiak hegazik.  
Klarin eta dultzainak  
dakardez aldean  
martxa barri bategaz  
musika ederrean.

## Marcha

02. Hemen gatoz Jaun maitea  
dirautso San Migelek  
zeru altu eta munduan  
agindu ezilei bestek.  
Entzunik hau Luziferrek  
(...) handi baten  
bunba zeruti infernura  
ikusen eben jausten.

03. Horra zeru ederrak  
bakian paraturik  
dantzan dabiltz angeruak  
arkal banatu biharrik.  
Esetsi bada guztiok  
bakotxak bere lanari  
alabetako Jangoikoa  
kantu eta musikari.

## Estrivillo

04. Ea ea goazan goazan  
zahar eta gazte guztiak  
Belenera eroaten  
gabonkari ugariak:  
Ardi bi ta lau bildots  
pitxar handi bat esne  
sagar da intxaur gaztainakaz  
altzoa bete bete.

## Coplas

05. San Gabriel mensajeru  
zeruti jatsirik  
hegaz dabil munduan  
kontentuz beterik.  
Poztu zaitez gizonak  
dehadar egiten dau  
Adanen pekatuak  
gaur dirade borrau.

06. Abenduen hogeta  
laugarren gabeen  
firmadu da bakea  
portale batean  
konpontzaile izanik  
Jose ta Maria  
testigu idiagaz  
Bizkaiko Nausia.

07. Lehenengo kondizinoa  
Jesusek dirausku  
bake eta amistadea  
beti izango dogu.  
Bigarren: ez da inoz  
kuramentu egingo  
ezta maldizinerik  
inori botako.

08. Hirugarrenak dino  
gorde bihar dala  
domeka eta jaiak  
inoz falta baga.  
Laugarrenean kontu  
onradutiagaz  
guraso eta nausiak  
ondo amauagaz.

09. Bostgarrenian bardin  
ez inor hilteko  
deseo txarretati  
alderatuteko.  
Seigarrenean kontu  
Adanen semeak  
kojidu ez zagizan  
Ebaren kateak.

10. Zazpigarrena, ezer  
inori ez ostu  
zergatik biharkozun  
atzera bihortu.  
Zortzigarrenak barriz  
aginduten deusku:  
projimuari onria  
ez da bihar kendu.

11. Gehien amaduko da  
geure Jangoikoa  
baita norbera legez  
bere projimua.  
Hona hemen kondizino  
guztiz suabiak  
imini dituzanak  
zeruan jabiak.

12. Ez dau berak esaten  
mundukoak bezela  
Zeilango probintziak  
bihar dituzala.  
Gizonik ez dau gura  
galdu Egiptuan  
ezta bere ontzirik  
Mediterranean.

13. Indietako flotak  
dituz betatuak  
beretzako dirade  
sagar ustelduak.  
Pobrezia dana legez  
bere handitasuna  
ezetako ez dau bihar  
inoen ondasuna.

14. Gauzatxu bat bakarrik  
eskatuten deusku:  
arima garbi onak  
beretzat nahi ditu.  
... (direre)ntzia  
... tera  
... gietati  
...tara.

## Burlescos

15. Garizima hurrengo azkenengo astian konfirmauko da bakia bariku arratsaldian. Bizitza emotiarren gizonen onian Jesus eskegiko da arbola batian.
16. Herriko andrak dituez euren maina onetan kostrunbre guztiz onak erregaluetan. Baina ez hartuteko inoz petardorik egia garbi batzuk esango dodaz nik.
17. Artxo eta ternera kapoe lodituak onak dira oilanda artoz asetuak. Txakolina eta arraina hartu, badakarde endemas dirianian erretornu bage.
18. Sagar eta gaztainak arrautza gitxigaz atzera emon, badatoz esku urriagaz. Fruta gauzia bada dala ordu onian merkiago da plazan saltzian danian.
19. Arbi eta porruak puntak agiririk zestiletan kukuka datoz armaturik. Zapitxu bat ganian bistoso iminita hurira sartzian dira guztiz harrotuta.
20. Maularik gehien dago pitxar esnietan etorten dirialako tripia betetan. Urliak emon eutsan honelako bateri egosi ta zopakaz jateko berari.
21. Jan ezkerro dirautso: -Esniaz ganeti aldian daroazuz libra t'erdi ogi. Uste zuk izan dozu mesede ein dozula zoaz esne ta guzti pobetxu on daizula.
22. Fiesta egunetan enbarazugarri sinpleza bat dakarde alkahuetagarri. Beragaz eguerdian dira geratuten meriendiagaz be ez dira ahaztuten.

23. Herrikoak badatoz altzo betiagaz da zerbait logretako pentsamentuagaz. Duda barik dakarde gehienez ustia sabela betetu ta gehiago kentzia.
24. Eurena egin artian dagoze suabe berbatxu bigunakaz ondo esaten dabe. Baina egin ezkerro bakotxak beria espaldia bolbidu: a ze maletia!
25. Ez dot hemen berbeiten jente onak gaiti ezpada aprobetxadu dirianak gaiti. Ez gara haserratuko dirautsuet artez gauzia ekarten bozu da ezer hartu ez.
26. Horra neure jenteak ze desengainua! Duda bagarik dago galdurik mundua. Jakindu egon zaitez dirautsut benetan maula handiak dagoz erregaluetan.
- ∞
01. **Ejerzituak:** armadak.  
**Hegazik:** hegaz, hegan, airean.  
**Dakardez:** dakarzte, dakartzate.  
**Bategaz:** batekin.
02. **Dirautso:** dinotso, diotsa, esaten dio.  
**Ezilei:** ezin lei, ezin liteke.  
**Bunba:** erortzearen onomatopeia.  
**Eben:** zuten.  
**Jausten:** erortzen.
03. **Arkal:** elkar.  
**Banatu biharrik:** apurtu, txikitu beharrik.  
**Esetsi:** eraso, ekin.  
**Alabetako:** alabatzeke.
04. **Gabonkari:** gabon sari, gabon opari.  
**Altzoa:** magala.
05. **Mensajeru:** mezulari, mandatari.  
**Borrau:** borratu, ezabatu.
06. **Firmadu:** sinatu.  
**Idiagaz:** idiarekin.
07. **Kondizinoa:** kondizionea, kondizioa, baldintza.  
**Dirausku:** dinosku, diosku, esaten digu.
08. **Dino:** dio.  
**Domeka:** igande.  
**Falta baga:** hutsik gabe.  
**Onradutiagaz:** ondratzeaz, ohoratzeaz.  
**Amauagaz:** amatzeaz, maitatzeaz.
09. **Alderatuteko:** urruntzeko, apartatzeko.  
**Kojidu:** harrapatu, hatzeman.  
**Zagizan:** zaitzan.
10. **Biharkozun:** beharko dozun.  
**Bihortu:** bihurtu, itzuli, bueltatu.  
**Deusku:** digu.  
**Onria:** ondra, ohorea, dedua.



11. **Amaduko:** maitatuko.  
**Legez:** moduan, bezala.  
**Imini:** ipini, jarri.  
**Dituzanak:** dituenak.  
**Zeruan:** zeruaren.
12. **Dituzala:** dituela.
13. **Betatuak:** beteak.  
**Dana legez:** denez, denez gero.  
**Ezetako:** deusetako, ezertarako.
15. **Konfirmauko:** konfirmatuko, berretsiko.  
**Bariku:** ostiral.  
**Emotiarren:** emateagatik.  
**Eskegiko:** esekiko, dilindatuko, zintzilik jarriko.
16. **Dituez:** dituzte.  
**Petardorik:** ziririk, timorik.  
**Dodaz:** ditut.
17. **Artxo:** bildots, arkume, axuri.  
**Ternera:** txahal, txahalki.  
**Badakarde:** badakarte.  
**Endemas:** gainera, batez ere.  
**Erretornu bage:** ordainik gabe, ezer ordeztan eman gabe.
18. **Gitxigaz:** gutxirekin.  
**Gauzia:** gauza, jeneroa.  
**Saltzian:** saltzen.
19. **Zestiletan:** zaretxoetan, otarre, saskitxoetan.  
**Kukuka:** behin agertuz, behin ezkutatzuz.  
**Kuku egin:** arinki, unetxo batez agertu, berriz ezkutatzeko.
- Sartzian:** sartzen.
20. **Maula:** iruzurra, engainua.  
**Betetan:** betetzera.  
**Urliak:** halakok. Zehaztu gabeko norbait izendatzeko era.  
**Eutsan:** zion.  
**Zopakaz:** zopekin.
21. **Aldian:** aldean, soinean.  
**Daroazuz:** daramatzazu.  
**On daizula:** on egin diezazula.
22. **Enbarazugarri:** trabagarri, oztopogarri.  
**Beragaz:** berarekin.  
**Be:** ere.
23. **Betiegaz:** beteaz, betearekin.  
**Logretako:** logratzeko, lortzeko, erdies-teko.  
**Dakarde:** dakarte.
24. **Dagoze:** daude.  
**Berbatxu:** hizño, hitz arin.  
**Dabe:** dute.  
**Espaldia:** bizkarra.  
**Bolbidu:** bihurtu, itzuli.  
**Maletia:** fardela, alproja.
25. **Berbeiten:** mintzatzen, hitz egiten.  
**Ezpada:** baizik, bai ordea.  
**Artez:** zuzen.  
**Bozu:** badozu.
26. **Jakindu:** jakitun, jakile.

A. Arejitak esku-izkribua eta transkripzio zehatza ematen du, baita testu gaurkotua eta gaztelaniazko itzulpena ere. Haserako "introducción" eta tarteetako "marcha", "estrivillo", "coplas" eta "burlescos" hitzak esku-izkribuak berak dakartzanak dira. Artikuluan bertso sorta honi buruzko argibide eta azalpen ugari dator.

## HELDU DIRA JENTIAK (1804)

(Durangaldeko Andre Mari eta Gabon-kanta zahar batzuk zortzikoan, Xabier Altzibar. Euskeraren Iker Atalak 6 - Labayru Ikastegia, 46. or.)

01. Heldu dira jentia  
justu Patriarkak  
atzezin bage itxaron  
zitu en egunak.  
Bete dira Igarlen  
sarriko esanak  
helduko zala Jauna  
salbetan gizonak.
03. Agertu da Belenen  
egun gaberdian  
eskiniriko Jauna  
aingeru artian.  
Gizon eginik dator  
amatat harturik  
Birjina Andra Maria  
Pepegaz loturik.

## Errepika

Olgau gaitian guztiok  
egun olgurazko honetan  
daiogun solas sein honi  
atzezin jazarririk.  
Eragiok tanbolin horri  
da trago bat ezarri.  
Ai! Oraintxe nak ni egarri  
zuen osasunagaiti.

02. Bost mila ta gehiago  
urte osuetan  
zizpuruka asabak  
ikusit genduzan  
bialdu eien zeruak  
irinzgozuetan  
eskinirik eutsena  
etorriko bazan.

04. Aingeruen eginez  
barri hau da agertu  
Belengo artzainetara,  
halan da sinistu.  
Arin arinka duaz  
barri hau entzunik  
jaio dana ikustera  
atzezin bagarik.
05. Esaiguzue artzainak  
nor dozue ikusi  
Belengo portalian  
aingeruakandi?  
-Jaiakera eder bat  
olguraz beterik  
ipini gaituana  
guztiz zoraturik.

06. Jaio dan Sein eder hau  
bedeinkatutera  
guazan, daigun guztiok  
portale hatara.  
Maria ta Josepe  
dagoz ahuspazturik  
artzainai sein hau nor dan  
agertu ezinik.

07. Ea bada jendiak  
gogo argiturik  
arima ta gorputzak  
ondo ipinirik  
gertu gaitian laster  
emoiten Jaun honi  
barri honen eginez  
laztantxu barri bi.



01. **Atze gin:** atsegin. Hemen atsedan, atsen egin, hats egin. Errepikako *atseginen*: hats egiten, atsedan egiten. *Txizeginen*: hats egiten, atsedan egiten, ogi egiten... bezala. *Ginen* edo *ginan* atzizki hau bizkaieraren inguru zabaletan oso ezaguna da oraindik, galduz badoa ere.  
**Atsen:** gelditzeko agindua, atsedan egiteko. *Atsegin*, beraz, izena eta aditza izan daiteke. Sorta honetako *atsegin* hitza azepzio honetatik ulertu behar dela uste dut eta ez *atsegin* = gozo, gustagarri, gozamen... esanahitik. Artzainak *atseginen jazartzen* dira, atsen egiten dute, Haur jaio berriaz gozatzeko.  
**Sarriko:** sarritako, maiz, askotan esanak.  
**Salbetan:** salbatzera.  
**Olgau:** olgatu, jolastu, dibertitu.  
**Olgura:** olgantza, jolas, dibertsio.  
**Daiogun:** egin diezaiogun.  
**Solas:** azasku, dibertsio. *Hitz* edo *hautua* ere izan daiteke.  
**Jazarririk:** eserita.  
**Nak:** naiagok, nagok.

02. **Zizpuruka:** hasperenka, zinkurika.  
**Genduzan:** genituen.  
**Eien:** zezan. Baita *ziezaien* ere.  
**Irinz:** ihintz.  
**Eskinirik eutsena:** eskainia ziena.  
03. **Pepgaz:** Peperekin. Jose edo Josepe izena *Pepe* gisa ematea errespeto gutxikoa irudituko zaio zenbaiti.  
04. **Arin arinka:** lasterka, korrika.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
05. **Jaiakera:** jaiokera, jaiotza.  
06. **Sein:** haur, ume.  
**Guazan:** goazen.  
**Daigun:** dagigun, egin dezagun, jo dezagun portale hartara.  
**Dagoz:** daude.  
**Ahuspaztu:** ahoz behera jarri, makurtu.  
07. **Gertu:** gertatu, gertu jarri, prest jarri.

## JESUSEN JAIOTZEA

(**Doinu Zaharren Inguruan.** 50. or. Dimako Oban jaio eta Mañarian bizi den Luzia Arteagari jasoa. Agurtzane Zubikarai, Juan Mari Beltran, Antton Mari Aldekoa-Otalora... Hamaika partaideren arteko lana. Udako Euskal Unibertsitatea)

01. Berri onakin gera  
jentia etorri  
aingeruak zerutik  
diegu ekarri.  
Hain da zoragarria  
enbajada hori  
geuk bere emon behar  
deutseguz alkarri.

04. Gugaz errukiturik  
Jaun benerabilia  
andra bat kriatu dabe  
hain soberania.  
Maria pekatuaren  
mantxarrik gabia  
zugandik jaio behar dau  
gure Salbadoria.

02. Adan eta Ebaren  
hutseginakaitik  
desterratuta gagoz  
gu paradisutik.  
Balle triste honetan  
egon behar beti  
etortzen ez bazaigu  
Mesias zerutik.

05. Gero tratatu zuen  
askoren artian  
berhala errebistara  
presentau zaitian.  
...  
...  
...  
...

03. Profetak eman zuten  
aditzen lehenago  
Mesias prometidua  
etortzeko dago.  
Aingeruak aitortu zuten  
zer nola dan klaro  
dontzeila batengandik  
bihar zala jaio.

06. Errebista eginda  
gaba etorri da  
hain da ikusgarria  
hango jende pila.  
Beste diran guztiak  
alojatu dira  
Jose eta Maria  
ostatuaren bila.

07. Hamazazpi etxetan  
egin dute oles  
gaurko alojamentua  
izango dan galdez.  
Hainbeste habitantetan  
lekurik eman ez  
Jose bai triste dago  
penaz da dolorez.
08. Atera zituezan  
kalian kanpora  
erretiratu ziren  
estalpe batera.  
Gaurko alojamentua  
han doaz hartzera  
astoen ta idien  
lastoen artera.
09. Estrabila honetan  
Jose ta Maria  
hemen pasatu zuten  
euren afaria.  
Ailegau zirenian  
gabaren erdian  
Jesus hirugarrena  
zuten famelian.
10. Askatxu batian da  
lastoa berogarri  
horrelan da mundura  
infante eder hori.  
Beruaren egilea  
izanik berori  
aberien artian  
pobre bat dirudi.
11. Gaba izanagatik  
bada hemen argia  
zerutik etorri da  
hain ikusgarria.  
Biluts bilutsik dago  
haur jaio berria  
arnasaz berotzeko  
astoa ta idia.
12. Aingeruen esana  
artzaiak mendian  
ongiroz hartu zuten  
gure memorian.  
Salto ta brinko datoz  
gabaren erdian  
ardiak itxirikan  
euren artegian.
13. Ailegau ziranian  
infante horrengana  
han ekarri zioten  
arkumatxo bana.  
Ondo ezaguturik  
gau hau ona zana  
haur honek baduala  
dantza nok emana.
14. Zerutarrak hasi ziren  
musikia joten  
aingeruzko pila bat  
gloriaz kantatzen.  
Artzaiak belauniko  
Jesus adoratzen  
Jose eta Maria  
begira zoratzen.

15. Horrela jaio zaigu  
Haur hori Belenen  
hori ere sinisten du  
ikusi baino lehen.  
Adoratu dezagun  
bihotzetik hemen  
gero bizi gaitezkan  
alkarrekin. Amen.
01. **Diegu ekarri:** digu, dizkigu ekarri.  
**Enbajada:** albiste, mezu, berri.  
**Deutseguz:** dizkiogu.
02. **Hutseginakaitik:** hutseginengatik, oke-  
rrengatik.  
**Gagoz:** gaude.  
**Balle:** aran.
03. **Eman zuten aditzen:** aditzera eman  
zuten, adierazi zuten.  
**Prometidua:** agindua, promestua.  
**Dontzeila:** birjintasuna galdu gabeko  
emakumea.
04. **Gugaz:** gutaz, gurekin.
- Kriatu dabe:** hazi dute. *Kreatu* edo *sorre-  
razi* ere izan daiteke.  
**Soberania:** *soberanoa* ren femeninoa.  
**Mantxarik:** orbanik, makularik, zikinik.
05. **Zaitian:** zedin.
06. **Alojatu:** aloiatu, ostatu, ostaturatu.
07. **Oles:** dei, eupada.
08. **Zituezan:** zituzten.
09. **Estrabila:** ikuilu, abeltegi.  
**Ailegau:** ailegatu, iritsi, heldu.
12. **Ongiroz:** onberatasunez, bihotz onez.

# BERTSO POLITIKOAK

## BERTSO BIZKAITARRAK

(*Bertso Bizkaitarrak*, Joseba Lakarra. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XVIII - 2 - 1984*, 96. orrialdetik aurrera).

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Altibezea zeugaiti,<br/>zenbat kalte munduari!<br/>Besa berak nola jakan<br/>lehen da gero etorri.<br/>Itaun bekio ezpabere<br/>egun Gipuzkoari,<br/>esango dau, zerren baki.</p>                       | <p>05. Inposible da bestela<br/>hain laster mosketera,<br/>noizbait Moretek dinoan legez<br/>egon zara atzera.<br/>Zek ekarri zaitu orain<br/>dekretoa egitera,<br/>bai Bizkaia hiltera?</p>     |
| <p>02. Zeruti gaitean hasi,<br/>Luzbelegan zan ekusi,<br/>azartu zan esatera<br/>"izango naz goiti".<br/>Barriz Gipuzkoari<br/>enzun deusagu sarri<br/>gareala beheiti.</p>                                    | <p>06. Gauza hau neure iritxian<br/>fundaetan da inbidian<br/>zerren garean ezagunak<br/>gu erreinu guztian<br/>prebilegiaduak gara<br/>Gaztela zahar da barrian,<br/>ez Gipuzkoako herrian.</p> |
| <p>03. Aitak nola Ikarori<br/>Aranburu honei<br/>konseju ei eusten emon<br/>"ez igon altuegi".<br/>Obedezidu ezagaiti<br/>halango gurasoari,<br/>hagaiti dira jausi.</p>                                       | <p>07. Valladiliko salea<br/>Gipuzkoar(ra)i berea<br/>txintxurrak sarri gorde deuste<br/>honrrea eta bizitzea<br/>ezagutzen ezpadaue<br/>halango mesedea<br/>haxe bai banidatea.</p>             |
| <p>04. Kontu honetan pensatzen nago<br/>dala kulpante Marruko<br/><i>caue de pala</i> etorri jat<br/>bersoan azartuteko.<br/>Nola baki Marrukok jaiten<br/>soinua txito dultzero,<br/>zenduzan etxizaduko.</p> | <p>08. Idiakaizko semea<br/>Insaustiko jaubea,<br/>zeure pausoak eztituez<br/>estimadu sobrea.<br/>Insaurrak dakusela<br/>tratamentu deungea<br/>emon ohi dau frutea.</p>                        |

09. Horra gure pagua  
gal didila mairua  
Kain nolan kendutera  
dator guri burua  
izango ezta neure ustean  
hain golpe segurua  
ezpada amenazua.
10. Uste al dozu Bizkaian  
hain jente biguna dala  
nola zeuen alardeen  
bildurak dagoezala?  
*Con todo* mosugorak dira  
gizonak hemen bere  
ezpadozu bere uste.
11. Sikiera Don Lope,  
zuek ezpadakizu bere,  
disparaetan dakiana da  
arkabuz eta moskete.  
Besteok ezer ezta kigula  
Gipuzkoan ei dinoe,  
zuentzat hori bere hobe.
12. Jaunaren probidentzia,  
nola bada handia,  
kabu faltaz ezta itxiko  
Bizkaiko herria.  
Hartuteko kapaz gara  
gu honen industria  
gehi(a)go ez Probintzia.
13. Ez eban nahi zeruak  
gura eukean pobluak  
zuekaz kanpainara urten  
da probadu eskuak.  
Gure buruan hausiteko  
ekarri ei zenduz goruak,  
halan dino foruak.
14. Goruak zuek hobeto  
beste armarik baino  
goruak beti izango dira  
balaak ta gezi baino.  
Herkules baino hobe dogu  
geure parteti Bulkanoko  
goruetan ha badago.
15. Honetarako mea  
da gauza inportantea,  
hagaz baizin ezin lei  
goruako arma.  
Estimaduaz ez admiradu  
geure halango prentea,  
bedeinka herri geurea!
16. Zuen koronel Isasi  
ei da soldadu handi,  
*con todo* ezta oraindiko  
Bilbaon oinik ifini.  
Hobe dau egoitea  
bere herri aldeti  
egun, bihar didin bizi.

17. Bentaja romanoai  
deroesu Isasi  
guztiak bildur jatezanak  
bildur jakuzan guri.  
Gauza handi bat logratzea  
intentatzen dauena  
konta dila azainea.
18. Tolosa aldeko mendia,  
zeure hagin orria,  
entzutea dot izan zala  
giza eraila handia.  
Romanoak logradu eban  
intentoaren erdia  
beretutea Probintzia.
19. Bizkaiari eskerra  
igaro ezan aurrera,  
okasinoe guztietan  
izan da zuen brokela.  
Aurrerontzean beharko dozu  
Bizkaiaren defentsa  
ezpa Juan Errochela.
20. "Poloniako errege"  
gizon honei dereste  
nola suzedidu jakez  
Turkoagaz hainbeste.  
Bere moduan Bizkaia  
bigunago ezta bapere,  
ezpa ekusiko dabe.
21. Betor hara Arratabe  
ei da txito baliente.  
Guztiak ez arren batzuk  
bira hagaz *hombre a hombre*.  
Mila gizon gitxi badira  
pigmeoak bagina bere  
Bilbaon. Halan ei dinoe.
22. Apasto badau babea  
Arabak mortandadea  
zuen alde egin dai  
dozun anae maitea  
beretuteko usteagaz.  
Arma ta dibisela  
arbola-ese pare.
23. Orduña aldeko hatxa  
bego iregi baga,  
zuok ere bazaozke hor  
gure mearik baga.  
Arabak ekarriko dau  
Gipuzkoa onestera,  
lagun ezteio gerrara.
24. Ze dasadan bestela  
harako Beltran: "Kortera  
-zuk esan ei zenduen-  
Bizkaigaz pleitea"  
podoreak hartu eta  
juaterren kortera.  
Ze ebilgura herrena!

25. Franzesak Ondarribia  
beti ohi dauka kutizia.  
Al Ahaztu jatzu, Gipuzkoa  
Domingo de Egia.  
Goruntzean bialdu jatzun  
soldaduzko elia,  
kabu Etxaburu handia.
26. Orduan ere Araba  
Moretek dinoan nola  
etorteko ezan izan  
franzesaren bistara.  
Joango gara norabuena  
zuentzat garitara  
baia ez armadara.
27. Orain badozu mea  
Oropesari mesedea.  
Emon deusu sinistea  
-Andikanoren berbea-  
franzesari ze zatozan  
iditera atea.  
Oi ze marabilea!
28. O ze estratajamea  
eroateko mea!  
Gaizki permitidu izan da  
ez batzuk desterretea  
eta Orana lantza banagaz  
laurak bialdutea.  
Ezan gaiztoa lauea!
29. Bizkaiagaz Motriku,  
nok eukean sinistu  
franzes ontzia eukeala  
belaetarik bilostu!  
Markinako erregearen  
lehen diite behartu  
ze ez hango tratuaeren gu.
30. Kalebarrengo jaubea,  
baita estudiantea,  
nun daukazu Durangoren  
goarnizi(n)o eskargea,  
Padre Pedro Geronimoren  
barrako txokolatea?  
Oi ze jentilonbrea!
31. Zezeilgo erurra  
ezan heldu Ermura.  
Eguno inok entzun eztau  
honelango freskura.  
Guztiz hoba leuke Heibarrek  
burdina zein da erurra,  
baita kapa ehuna negura.
32. Al fin plazentinoa  
Lekeitioko astoa,  
zegaiti deusazu egin  
hain pasaje geiztoa?  
Ez eroan hak gainean  
Balan profeta falsua  
ezpa lebaz freskoa.

33. Ez da ona Bergara  
zu hobeia ezara  
geure herriko gizonai  
ideteko oihala.  
Hagaiti deritxu zuri  
"zeinatu ta aigara"  
ezpa itxi bai azala.
34. Akabadu yat musea,  
ze dasadan sobrea,  
goruntzekoa itxiteko  
ia da denporea:  
anae ta auzoari  
galdutea lustrea  
ezta gure honrea.
35. San Ignazio geurea  
egizu arren bakea  
dozun ezkerro han da hemen  
zeure senipartea.  
Ez begiratu egiteaz  
gizonak hutsegitea  
bada ezagutzea.
36. Badakigu garbatu  
bitartekotzat zeu hartu,  
ze ezta Gipuzkoa  
guganik konsegidu.  
Haek nola gu bere gara  
zugana interesadu,  
hagaiti patroï nonbradu.
37. Ezin daizu ukatu  
nolan askok adbertidu  
zaituzan egin behar jakala  
Bizkaiari erregu.  
Santua bere ezta kidizu  
horregaz baliadu,  
baia zu obstinadu.
38. Paralitikoaren kejea  
gizonik ez edutea,  
nor baliu daukazula  
zeuen terkedadea.  
Urte askotan zeuek dozu  
osasanaren faltea,  
Jaunak dizula eбилtea.
01. **Altibezea:** altibezia, urgulua, harrokeria.  
**Besa:** esan beza.  
**Jakan:** zaion.  
**Itaun:** itaundu, galdetu.  
**Ezpa bere:** bestela.  
**Egun:** gaur.  
**Zerren baki:** zeren badaki, bai bait daki.
02. **Ekusi:** ikusi.  
**Azartu:** ausartu.  
**Goiti:** goiko, nagusi.  
**Deusagu:** diogu.  
**Sarri:** maiz, askotan.  
**Beheti:** beheko, azpiko, gutxiago.
03. **Ei:** omen.  
**Eusten:** eutsen, zion.  
**Obedezidu:** obeditu.  
**Halango:** halako.
04. **Marruko:** nor-izena. Ezizena edo goitizena ere izan daiteke. Dantza kopla batean gaur ere kantatzen da *marruko* marrokiar esanahian.  
**Cabe de pala:** gaztelaniazko esakera, *oso aisa, errez baino errezago* esan nahi duena.  
**Jat:** zait.

- Baki:** badaki.  
**Jaiten:** jotzen.  
**Txito:** txit, oso, biziki.  
**Dultzero:** dultzeki, gozoki.  
**Zenduzan:** zintuen.
05. **Dinoan legez:** dion bezala.  
**Egon zara atzera:** egon zara uzkur, lotsati, bildurti.
06. **Fundaetan:** fundatzen, oinarritzen.  
**Zerren garean:** zeren garen, bait gara.
07. **Valladiliko:** Valladolid-ko.  
**Txintxurak:** zintzurak, etzarriak.  
**Deuste:** deutse, die.  
**Ezpadaue:** ez badabe, ez badute.  
**Haxe:** huraxe.
08. **Eztituez:** ez dituzte.  
**Estimadu sobrea:** estimatu larregi, gehiegi.  
**Insaurrak:** intxaurrak, eltzaurrak.  
**Dakusela:** ikusten duela.  
**Deungea:** gaiztoa.  
**Emon ohi dau:** eman ohi du, ematen du.
09. **Pagua:** ordaina. Oraindik bada esaera oso ezagun hau: *ondo eginaren pagua, ate ostean palua*.  
**Didila:** dadila.  
**Ezpada amenazua:** baizik mehatxua.
10. **Alardeen:** erakutsien, fanfarrieren.  
**Dagoezala:** daudela.  
**Mosugorak:** muturgorak, burua altu daramatanak.  
**Ezpadozu bere uste:** uste ez baduzu ere.
11. **Disparaetan:** disparatzen.  
**Ei dinoe:** omen diote.
12. **Kabu:** gradu militar bat.  
**Itxiko:** utziko, lagako.  
**Hartuteko:** hartzeko.  
**Gehiago ez:** baina ez. Erdarakada omen da, *mas no*.
13. **Eban:** zuen.  
**Gura eukean:** gura, nahi zukeen.
- Pobluak:** jendeak.  
**Zuekaz:** zuekin.  
**Da probadu:** eta probatu.  
**Hausiteko:** hausteko.  
**Ei zenduz:** omen zenituen.  
**Gorua:** iruteko tresna.  
**Halan dino:** hala dio.
14. **Ha:** hura.
15. **Mea:** minerala.  
**Hagaz baizin:** harekin baizen, baizik.  
**Ezin lei:** ezin liteke.
16. **Egun:** gaur.  
**Didin:** dadin.
17. **Deroesu:** daroiezu, daramaiezu.  
**Jatezanak:** jakezanak, zitzaizkionak.  
**Jakuzan:** zitzaizkigun.  
**Dila:** dezala.
18. **Hagin orria:** hagin hostoa.  
**Hagina:** gure mendietako zuhaitz bat.  
**Giza eraila:** giza eraile, giza hiltzaile.  
 Gerran, etsaien esku ez erortzeagatik, hagin hostoaren pozoina hartuta hiltzea nahiago zutenak esan nahi du.  
**Eban:** zuen.
19. **Bizkaiari eskerra:** Bizkaiari eskerrak, esker.  
**Igaro ezan:** igaro, iragan, pasatu ez zen.  
**Brokela:** babesa, defentsa.  
**Ezpa:** bestela.  
**Errochela:** Errochelera. Larroxelara?
20. **Dereste:** deritzote, deitzen diote.  
**Jakez:** zaizkie.  
**Turkoagaz:** turkoarekin.  
**Dabe:** dute.
21. **Bira hagaz:** badira harekin.  
**Halan ei dinoe:** hala omen diote.
22. **Apasto:** ugari.  
**Babea:** baba, alea.
23. **Hatxa:** haitza.  
**Iregi bage:** ireki bage, gabe.  
**Bazaozke:** bazauzke, egongo zara.

- Onestera:** maitatzera, maitasunera.
24. **Ze dasadan:** zeren diodan, esan dezadan.  
**Bizkaiagaz pleitea:** Bizkaiarekin auzitara.  
**Podoreak:** botereak.  
**Juaterren:** joatearren, joateagatik.  
**Ebilgura:** ibilkura, ibilera.
25. **Kutizia:** gutizia, harrapatu nahia.  
**Jatzu:** zaizu.  
**Jatzun:** zaizun. *Zitzaizun* ere izan daiteke.  
**Elia:** multzo edo sail handia.
26. **Dinoan nola:** dion bezala.  
**Ezan:** ez zen.  
**Baia:** baina.
27. **Deusu:** dizu.  
**Ze zatozan:** zeren zetozen, bait zetozen.  
**Iditera:** irekitzera.
28. **Eroateko:** eramateko.  
**Orana:** Oran-era.  
**Banagaz:** banarekin.
29. **Nok eukean sinistu:** nork sinetsiko zuen.  
**Belaetarik bilostu:** beletarik, beletatik biluztu, bela gabe utzi.  
**Markinako erregearen...:** lehenago behartuko dira Markinako erregeaz, ezen ez gu hango tratuaz, gu hango tratuaz baino. Inoiz ere ez, beraz, Markinan ez bait zegoen erregerik.
30. **Eskargea:** eskerga, izugarri handia.
31. **Zezeilgo:** otsaileko.  
**Erurra:** elurra.  
**Ezan:** ez zen.  
**Eguno:** egundaino, inoiz.  
**Honelango:** honelako.  
**Burdina zein da erurra:** burdina elurra bezala, elur hainbat burdina.
32. **Plazentinoa:** Plazentziakoa, Plaentxiarra.  
**Deusazu:** diozu.
- Hak:** hark.  
**Ezpa lebaz:** baizik legatz.
33. **Ideteko:** kentzeko.  
**Deritxu:** deritzu, deritzazu, deitzen dizute.  
**Zeinatu ta aigara:** Aitaren egin eta igaro, iragan. *Bergara, zeinatu eta igara*, dio esaera ironikoak, aitaren egin eta aurrera. Alegia, Bergaran kontuz, zeinatzeko edo aitaren egiteko aina denbora bakarrik egin bertan.  
**Ezpa itxi bai azala:** bestela azala utzi, azala kenduko dizute.
34. **Yat:** zait.  
**Ze dasadan sobrea:** zeren gehiegi diot, gehiegi esaten ari naiz.  
**Goruntzekoa itxiteko:** gainerakoa, gainontzekoa uzteko.
35. **Senipartea:** senitartea, ahaideria. Senidetatsuna edo ahaidegoa ere izan daiteke.  
**Bada ezagutzea:** baizik ohartzea, aitor-tzea.
36. **Badakigu garbatu:** damutu badakigu, damutzen bazaigu.
37. **Ezin daizu:** ezin duzu.  
**Zaituzan:** zaituen.  
**Jakala:** zaiola.  
**Eztakidizu:** ez dakizuke.  
**Horregaz baliadu:** horrekin, horretaz baliatu.  
**Baia:** baina.  
**Obstinadu:** setatu, tematu, burugogortu.
38. **Kejea:** kexua.  
**Edutea:** edukitzea.  
**Daukazula:** eduki dezazula.  
**Dizula ebiltea:** eman diezazula ibiltzea, ibilpidea.



Bertso hauek, euren hizkuntz zailtasunez gainera, hainbat izur daukate, garaiko estilo ironikoa ezagutu ezik, ulertzen zail dena. Horrez gainera, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako aipuek kontextu politikoaren ezagutza handia eskatzen dute. Argitasun gehiago nahi duenak Joseba Lakarraren aipatu artikulu luzea ikus beza.

## GERTU ESPAÑATARRAK

(Euskalerraren Yakintza IV, 141. or., R. M. Azkue)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Gertu Españatarrak ez lo egin, gertu gure erreinu maite hau ez daiten hondatu. | 04. Esango dautsuedaz egia garbiak edegi dagiezan itsuai begiak.          |
| 02. Gizonik galduenak dituguz gaur buru España nahi dabenak betiko zapaldu.        | 05. Ez uste direala gaurko jaun barriak jauregi zabaletan jaio ta haziak. |
| 03. Adi, Españatarrak adi belarriak entzun nortzuk diraden gure agintariak.        | 06. Gehienak orain arte arlote jantziak izan dituez lagun ugari zorriak.  |



01. **Gertu:** prest, erne.  
**Daiten:** dadin.

02. **Dabenak:** dutenak.

04. **Dautsuedaz:** dizkizuet.  
**Edegi:** ireki, zabaldu.

**Dagiezan:** ditzaten. *Diezazkieten* ere izan daiteke.

06. **Dituez:** dituzte.

Azkuek dio bertso hauek azken karlista gerran asko kantatu zirela. Sorta honek berez luzeagoa izan behar zuela dirudi. Lehen lau koplak gaia prestatzen eta arreta jar erazten eginik, gero esan beharreko egia garbi horiek bi kolpetan ebazten dira, eta hori ez da batere normala. Koplariak hori baino gehiago esateko gogoia eta gaitasuna erakusten du.

Bestalde, Azkuek sei koplatan banatzen du sorta eta hala uzten dut, baina zortziko txikien itxura gehiago daukate, errima bera ere ondo datorrelarik.

## BIZKAITAR LINARGIAK

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

Sarrerria:

Ezin dogu estaldu  
poza bularrian  
Bagilaren hamasei  
garren egunian.  
Ordu zoragarria  
Bizkaiko lurrian  
dakuskuna Fernando  
begien aurrian.

Zortzikua:

01. Bizkaitar linargiak  
jauna ikusirik  
pozaren pozez dagoz  
erdi zoraturik.  
Adurra dariue  
gaur ezpanetatik  
bedeinkatuten dabe  
bihotz bihotzetik.

## Pozgarria:

- Ongi etorri  
geure jauna  
bizitza luze  
ta osasuna  
opa deutsuez  
Bizkaitarrak  
zeruraino jasorik  
euren dihadarrak.
02. Bere emazte maite  
Josefa Amalia  
ikustia Bizkaian  
da atsegin betia.  
Izanik hain handia  
da bere honestia  
jakituna ta dohe  
guztien jaubia.
03. Nekia igarota  
ohi da atsegina  
hau berau jazoten da  
gaur egin egin.  
Lihortu bitez bada  
leialen malkuak  
poztu bene benetan  
herri Bizkaikuak.
04. Kataluñan jagirik  
malmutz ta gaiztuak  
laster agertu ziran  
zituen asmuak.  
Guzurrezko jantziaz  
ondo apaindurik  
berbatxu labanakaz  
engainau gurarik.

05. Jainkuaren legia  
harturik minian  
plagiaren asmua  
euken bihotzian.  
Gura eben Fernando  
eretsi tronotik  
eta itxi España  
betiko galdurik.
06. Baina jaun honek deutsez  
bidiak zarratu  
ez ditezan ostera  
inolaz azartu.  
Eraile prestuezen  
aurrian jarririk  
itxi dituz guztiak  
zurtu ta harriturik.
07. Amaitu ziraneko  
hango zereginak  
heldu ziran Bizkaiko  
biralkai jakinak.  
Erregututen deutse  
datorrela hona  
eta bertatik euken  
bere bai emona.
08. Bizkaitarren bihotzak  
dagoz harroturik  
euren jaun ta jaubia  
eurakaz eukirik.  
Nok sinistu eukian  
igazko urtian  
zein poz izango ginan  
gaurko egunian?

09. Esker mila deutseguz  
Fernando Jaunari  
bere duni dan Andra  
gure laztanari.  
Maitetuko dituguz  
bizitza guztian  
azkeneko arnasa  
amaitu artian.
10. Beti Bizkaia leial  
bere jaunarentzat  
eta izugarria  
arrotz geiztuentzat.  
Bizkaiko bularretan  
gaztelu senduak  
aurkituko dituez  
zure areriuak.
11. Bizkaitarren bihotzak  
zuriak izanik  
ezin emon ginaizu  
ondasun hobarik.  
Jauna, zure aurrian  
guztiak jarririk  
ez daukagu zer egin  
beste eskintzarik.
12. Isuri bihar balitz  
odola zugaitik  
ez genduke egingo  
inok atzerarik.  
Zaharrak eta gaztiak  
guztiak dagoz prest  
preminarik baletor  
inoz zoritxarrez.
13. Fernando ta Maria  
Josefa Amalia  
gure bihotzetako  
Señora maitia.  
Zeruari deusagu  
bai erregutuko  
gorde zaiguezala  
urte askotako.



- Bagila:** ekaina.  
**Dakuskuna:** ikusten duguna.
01. **Linargiak:** nobleak, aitonsemeak.  
**Dagoz:** daude.  
**Adurra:** lerdea.  
**Dariue:** darie.  
**Opa deutsuez:** desio, nahi dizkizute.  
**Dihadarrak:** deihadarrak, oihuak, zantz-  
tzoak.
02. **Da bere honestia:** eta baita, eta ere  
honestia. *Honestoa* ren femeninoa.  
**Dohe:** dohai, gaitasun.
03. **Jazoten:** gertatzen.  
**Egin egin:** berbera, pare parekoa.  
**Egin eginean zatoz:** juxtu juxtuan, une  
unean zatoz.  
**Lihortu:** lehortu, xukatu.

04. **Jagirik:** jaikirik, altxaturik.  
**Malmutz:** maltzur, amarruti.  
**Berbatxu:** hizño, hiztxo.  
**Labanakaz:** labainekin, irristakorrekin, hots, gozo baina engainagarriekin.  
**Gurarik:** nahiz, nahirik.
05. **Minian:** mihian.  
**Plagiaren:** plagaren, gaiztakeriaren.  
**Eben:** zuten.  
**Eretsi:** jaitsi erazi, kendu.  
**Itxi:** laga, utzi.
06. **Deutsez:** dizkie.  
**Zarratu:** itxi, hertsia.  
**Ostera:** berriz, berriro.  
**Azartu:** ausartu, atrebitu.  
**Eraile:** hiltzaile, erhale.  
**Prestuez:** doilor, zital.  
**Zurtu:** durditu, harritu.
07. **Biralkai:** diputatu.

- Deutse:** die.  
**Euken:** zeukaten.  
**Bai emona:** baietza, baiezkua.
08. **Eurakaz:** eurekin, berekin.  
**Sinistu eukian:** sinistuko zukeen, uste-ko zuen.
09. **Deutseguz:** dizkiegu.  
**Duni:** duin.
10. **Dituez:** dituzte.
11. **Ginaizu:** geinkizu. Geniezakezu.  
**Hobarik:** hoberik.
12. **Premina:** premia, beharrizana.
13. **Deutsagu:** diogu.  
**Gorde zaiguzala:** gorde zaitzagula.  
 Baita izan daiteke *gorde zaitzala guri*, guretzat.

Paperak izenburutzat dio: *Vizcai guztiz linargui eta leyalac Don Fernando 7. eta Maria Josefa Amalia bere jaun eta jaubiei baguillaren eta 16, 1828 garren urtian.*

## JAUNGOIKUA TA HERRIA

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue biblioteca - Euskaltzaindia - Bilbo)

### Errepika:

Ea bada mutilak  
 jagi gogorturik  
 fusilak, baionetak  
 hartu berbertarik.

Jaungoikua ta Maria  
 doguz gure aldetik  
 Europa kontra izanik  
 ez dogu beldurrik.

01. Hogeta hamabost urte  
 diraz iraguak  
 agintzen deuskuela  
 liberal gaiztuak.  
 Astruzia handiagaz  
 madarikatuak  
 engainau zituezan  
 español zintzuak.
02. Judasek saldu eban  
 zeruko maisua  
 Maroto jeneralak  
 Karlos gizaisua.  
 Bilaukeria honegaz  
 jaso zan tronua  
 España guztientzat  
 zorigaiztokua.
03. Isabelen gerizan  
 baltz infernukuak  
 bete dituez ondo  
 euren poltsikuak.  
 Kendu deuskuez guri  
 geldika foruak  
 askok hartu ditue  
 gradu ta enpliuak.
04. Inoz aspertu ezinik  
 dauken egarria  
 mutildu dabe ederto  
 España herria.  
 Geratu erreinu hau  
 oh ze lotsaria!  
 alkarren jelsiaz  
 galduta guztia.
05. Eskerrik baltzanagaz  
 oh ze jente fina!  
 azkenez bota dabe  
 euren erregina.  
 Agintari izatia  
 dirua, atsegina  
 izan da liberalak  
 beti zuen grina.
06. Agintari jarri da  
 jente itsusia  
 Serrano ta Topete  
 Prim da familia.  
 Honelan bete dabe  
 dauken baneria  
 orbaindurik galanto  
 euren kontzentzia.
07. Ardien narruagaz  
 jantziriko otsuak  
 izan dira ta dira  
 liberal paltsuak.  
 Otso honen artian  
 ez dira mankuak  
 ardi triskantzarako  
 gaurko ministruak.
08. Eleiza santiari  
 deutsen gorrotuak  
 hartu eragin deutsez  
 diabruzko asmuak.  
 Herbestetu ditue  
 Jesusen soldauak  
 eta bota lutarras  
 mojen konbentuak.

09. Liberalen artian daukaz diabruak arimak galduteko lagun azartuak. Entzun dituz Madrilgo diputau-lekuak dardar eragiteko hizkuntza moduak.
10. Ukatu da Jesusen Jaungoikotasuna ta bardin Mariaren Dontzeilatasuna. Handia da benetan Jaunen ontasuna igaroteko isilik irain hain astuna.
11. Baltzen gaiztotasunak ez dauko neurririk ezin dabez ikusten fededun gizonik. Pekatu handienez aspertu bagarik aldendu gura dabe fedia gugandik.
12. Mespreez dituez honen erreguak Espāñan ez sartzeko Jaungoiko paltsuak. Eregi daiezala –dinue– tenpluak Heretiko, Judegu Jentil da Turkuak.
13. Oraindino badago Espāñan lotsarik ezin igaro leikez gauza honek geldirik. Euskaldunen artian ote da mutilik ala dagoz gizonak oilo bihurturik?
14. Hamar mila aingerugaz ez horrelangorik! Euskaldunen bihotza ez dago oiloturik. Jaki gaitez beraz danok bat eginik liberal harruari jarkiten gogotik.
15. Bai, bai irazartu da lo zegon legoia Espāñan entzuten da orain bere orroia. Alperrik jarri kontra Tirio ta Troia Karlosek jantziko dau errege koroia.
16. Karlos Zazpigarrena geure jaun maitia zure preminan dago euskaldun jentia. Zapaldurik betiko liberal kastia zugaz eukiko dogu bihar dan gutzia.



- Jagi:** jaiki, altxatu.  
**Doguz:** ditugu.
01. **Iraguak:** igaroak, iraganak.  
**Deuskuela:** digutela.  
**Astruzia:** aztikeri, sorginkeri.  
**Handiagaz:** handiz, handiarekin.  
**Zituezan:** zituzten.
02. **Eban:** zuen.  
**Honegaz:** honekin.
03. **Dituez:** dituzte.  
**Deuskuez:** dizkigute.  
**Geldika:** astiro astiro, poliki poliki.  
**Ditue:** dituzte.  
**Enpliuak:** enpleguak, postuak.
04. **Aspertu:** ase, asetu.  
**Dauken:** daukaten.  
**Mutildu:** murriztu, muskildu, lumatu.  
**Ederto:** ederki.  
**Lotsaria:** lotsatzeko motiboa, lotsakizuna.
05. **Baltzanagaz:** beltzenarekin.  
**Dabe:** dute.
06. **Dauken:** daukaten.  
**Galanto:** galanki, ederki.  
**Baneria:** manera, modua.
07. **Honen:** honein, hauen.  
**Triskantzarako:** hondamen, suntsipen, txikiziorako.
08. **Santiari:** *santua*'ren femeninoa.  
**Deutsen:** dioten.  
**Eragin:** erazi.  
**Deutsez:** dizkie.
- Lutarras:** lur-tarras? Horrela bada, lurrean tarras edo tatarrez, herrestan, arrastaka.
09. **Daukaz:** dauzka.  
**Azartuak:** ausartak, kementsuak.  
**Dardar eragiteko:** dardar egin erazteko.
10. **Jaunaen:** Jaunaren.
11. **Ezin dabez ikusten:** badirudi *ezin dabez ikusi* izan behar duela, eta hobeto *ezin dabe ikusi*, ondorengo mugagabearen arabera.  
**Bagarik:** бага, barik, gabe.  
**Aldendu:** urrundtu, desagertu.
12. **Eregi:** eraiki.  
**Daiezala:** ditzatela.  
**Dinue:** diote.  
**Judegu:** judu, judutar.
13. **Leikez:** litezke.  
**Honek:** honeik, hauek.  
**Dagoz:** daude.
14. **Honelangorik:** honelakorik.  
**Jaki:** jaiki, jaiki, altxatu.  
**Jarkiten:** jarkitzera, aurre egin, aurpegi ematera.
15. **Irazartu:** itzartu, atzarri, ernatu, esnatu.
16. **Preminan:** premian, beharrean.  
**Kastia:** kasta, enda, etorki.  
**Zugaz:** zurekin.

Paperak izenburutzat dio: "1874. Neurtiztarien gudua. Saraco bestan. Lehen garhait-saria, makilla, eraman duen cantua BISCALTARRAC egina".

**ESPAÑAKO HENBREN KINTIARI**  
 (“Verso berriac Españolco hembren quintiari jarriac”)

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

- |  |   |
|--|---|
| <p>01. Bertso berri batzuek nahi nunkez notatu Españeko neskatxak direla juntatu. Eurek emonguzela laster kunplimentu erregina baldin bada eurekin kontentu.</p> | <p>04. Ordiezkorik ez da ametitzen kintan eurek komendante ta igual kapitan. Ziudade danetan jarriko da listan kantinerua franku euko dabe bistan.</p>  |
| <p>02. Listak zabalduko dira datorren hilian kintako neskatilak nunguak dirian ze ofizio eta zelan bizi dian moda berriak dira geure Españian.</p>               | <p>05. Erreginari ein duze presentazinua euren kontura ixteko orain nazinua mudau daitela laster gobernazinua jan baino ez dabelako eiten razinua.</p>  |
| <p>03. Henbren ejerzitua ifini ezkeron naziorik gure kontra ez degu espero. Geuk ein biherko degu kozinan be gero orduen euko degu etxaldia bero.</p>            | <p>06. Juntatu daitenian ejerzitu dana juen biher ei dabe erreginagana. Gerrara baino lehenago lehenbiziko lana Madriden nora juen botako du plana.</p> |

- |  |   |
|--|---|
| <p>07. Doña Napolitana neskatxa ederra nonbratu ei dabe ministro de guerra. Harek gobernaukoituz ez bada alperra badago gobiernu on baten bihera.</p>          | <p>11. Arrantxoko denporan sarjento ta alferez atakeko denporan igual baperez. Regimentoko buru Doña Mariteres hala gerra irebazten ez deukazu errez.</p>         |
| <p>08. Koartelak dijez orain kolokatzen hasi dira neskatxak behinguan armatzen zirku guztietatik Madridera batzen gero handik hasikoira kanpora zabaltzen.</p> | <p>12. Hamar erregimentu danak henbra hutsak bizkaitar ta arabar hurrengo kiputzak. Aragon eta Mancha eta andaluzak hogeta hamar batailoe daoz granaderutzat.</p> |
| <p>09. Españolco neskatxen ejerzitu abila Turkiara dijez kontrario bila. Alper jarriko dira bakotxentzat mila harek diran artian ondo dao Madrila.</p>         | <p>13. Artileria eta bai kabaileria han izengo da henbrazko barrabankeria. Ikusiko genduke henbrazko gerria nok aditzen harei emon bakotxak beria.</p>            |
| <p>10. Batzuek oinez eta bestiak zaldian bada henbria franku oinguen aldian. Korrirako denporan balegoz Alban bista ona leukie kamino berrian.</p>             | <p>14. Hamalau bertso berri henbren gerrienak mundu honetan diran miserablienak. Ezin jarri lezakez euskaraz dienak papelian oten dira ifinten dienak.</p>        |



01. **Nunkez:** nituzke.  
**Emonguzela:** emongo deutsela, eman-  
go diotela.
02. **Zelan:** nola.
03. **Ejerzitua:** armada.  
**Biherko:** beharko.  
**Be:** ere.  
**Euko:** eukiko, ukanen.
04. **Ordiezkorik:** ordezkorik.  
**Franku:** frango, ugari.  
**Dabe:** dute.
05. **Ein duze:** egin deutse, diote.  
**Ixteko:** uzteko.  
**Mudau:** mudatu, aldatu.  
**Daitela:** dadila.  
**Razinua:** errazioa, jan neurria.
06. **Daitenian:** dadinean.  
**Juen biher ei dabe:** joan behar omen  
dute.
07. **Nonbratu:** izendatu.  
**Gobernaukoituz:** gobernatuko ditu.  
**Biherra:** beharra, premia.
08. **Dijuez:** doaz.  
**Zirku:** bide, zador.
09. **Alper:** alperrik.  
**Bakotzentzat:** bakoitzarentzat.  
**Harek:** hareik, haiek.  
**Dao:** dago.
10. **Oinguen:** oraingoan.  
**Balegoz:** baleude.  
**Leukie:** lukete.
11. **Baperez:** bat bere ez, bat ere ez.
12. **Daoz:** dagoz, daude.  
**Granaderutzat:** granadariak, *granadak*  
izeneko lehergaiak jaurtitzeko eginkizu-  
na daukaten soldaduak.
13. **Barrabankeria:** deabrukeria, demonio-  
keria.  
**Gerria:** gerra, gerla.  
**Nok aditzen emon:** nork aditzera eman,  
nork uler erazi.  
**Harei:** haiei.
14. **Gerrienak:** gerrarenak.  
**Lezakez:** leikez, litezke.  
**Dienak:** direnak, diren denak.  
**Oten:** egoten.  
**Ifinten:** ipintzen, jartzen.

## GOROGI

(Cancionero Popular Vasco, 671. or. R. M. Azkue)

01. Gorogi paltsuaren  
lehenengo papera  
Espainiako soldaduak  
baltzeko Nortera.  
Bai eta frantsesa bere  
Madrilgo kortera  
baina ez ditudaz hitzak  
konpondu harela.
02. Balentziako suan  
ginaden atzera  
artzaia denpora hartan  
lo izan artera.  
Hogeta bi jeneral  
joiazan galtzera  
zergatik etorri ez zara  
harek libratzera?
03. Bostehun boluntario  
lehengo egunean  
Lekeition sartu diraz  
buenamentean.  
Mina de bebia, Longa de mi amor  
Antsotegi, Campillos  
de mi corazón.



01. **Ditudaz:** ditut.  
**Bere:** ere.  
**Joiazan:** zihoazen.  
**Harek:** haiek.
02. **Lo izan artera:** esaldi iluna. Baliteke  
*artean* izatea, hots, lo egon artean, bitar-  
tean.
03. **Bebia:** ez dakit zer izan daitekeen.

## CANCIONES DE LOS URBANOS

(Karliten lenengo gerrateko bertsoak. A. Zavala. Auspoaren sail nagusia-4. 189-190. or.)

01. En el nombre del Padre  
banoa hasiera  
a cantar unos versos  
erdiak euskeraz.  
Siempre con esperanzas  
hemen bizi gera  
cuándo viene esa gente  
Bilbao atakatzera.
02. Tenemos la noticia  
batozela nafarrak  
tambien los chapel chiquis  
eta bizkaitarrak.  
Cuando vean esa gente  
kainoi ta bonbakaz  
los urbanos se ponen  
tripetako minakaz.
02. **Batozela:** badatozela, heldu direla.  
**Bonbakaz:** bonbekin.  
**Urbanos:** urbanoak, hirikoak. Urbano edo hiriko hauek liberalek antolatutako soldadu mota bat zirela dio A. Zavalak, armaz horniturik, herriak eta hiriak zaintzeko prest zeudenak. Eta ondoren bertso hauek 1835. urteko ekainaren aurrekoak direla ateratzen du, bertso hauetan ez bait da aipatzen data horretan gertatu zen lehen eraso.  
**Minakaz:** minekin.
03. Poniendo los cañones  
Begoña partean  
pondrán el parlamento  
entregau gaitean.  
Si no, de lo contrario  
gogortzen badira  
los urbanos afligidos  
arkituko dira.
04. Las paredes tienen secas  
karrerikan gabe  
qué sirven las trincheras  
ez badagoz fuerte?  
Porque al primer cañonazo  
horren kastilua  
por más fuerte que sea  
behera badijua.
04. **Kare:** kisu, latsun.  
**Ez badagoz:** ez badaude.  
**Horren kastilua:** horrein, horien gaztelua.

## BIBA TROPA ESPAINOLAK

(Frantzeseko bertsoak (I). A. Zavala. Auspoa 212. 123.127. or. Bertsoak eta doinua Azkueren esku-idatzietatik hartuak dituela dio, zeinak halaber Bizkaiko Ereñon bildu omen zituen)

01. Biba tropa espainolak  
biba Bitoria  
handikan agertu jaku  
guretzat argia.  
Hain ekarren espainolak  
balore handia  
zatitu ta erretzeko  
frantzesaz guztia.
02. Lau mila prisioneru  
hamar mila hilak  
lehenengo entrada  
Longaren mutilak.  
Geureak bazirean  
batzun-batzuk hilak  
harek zerura ziran  
zirako finak.
03. Kotxe ta karromato  
litera ta burdi  
Bitorian gelditu da  
ondasuna lodi.  
Gainera artilleria  
bertan dabe itxi  
frantzesen erregeentzat  
ez da lotsa gitxi.
04. Mina ta Pastorea  
Longa hirugarren  
Mugartegi jarri da  
Bizkaian laugarren.  
Haren ejerzituak  
ikusitako ezker  
ezin leike fuertzarik  
frantzesak gehiago.
- Errepika:
- Napoleonen anaia  
errege botila  
traguak edateko  
haura zan mutila.  
Ondoren dituela  
Longa ta Mina  
basoan galdu ei dau  
bere espadina.



01. **Jaku:** zaigu.  
**Ekarren:** zekarten.  
**Haura:** hura.  
**Ei dau:** omen du.  
**Espadina:** ezpata mota bat.

02. **Entradea:** sarrera.

• **Batzun-batzuk:** textuak *batzuk-batzuk* dakar, baina *batzun-batzuk* behar du, *batzuren-batzuk* laburtua. Ereñotarrak hala kantatuko zuen.

**Harek:** hareik, haiek.

03. **Burdi:** gurdi.  
**Ondasuna lodi:** ugari, ondasun asko.  
**Dabe itxi:** dute utzi.  
**Gitxi:** guti.

04. **Ezin leike fuertzarik:** ez dezake bortzarik, indarrik egin.

### KONSTITUZINOEKO DAMIARI ZORTZIKUA

(“Marquina, Xemein ta Echevarric, irurac bat, agur deutse eguiten constitucinoeco damiari”)

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Baita *Baskischen Sprache*, 1967. 69. or. Antropological Publications Oosterhout -Niederlande).

01. Nozbait bihar genduzan  
bihotzak askatu  
lehengo iluntasunak  
pozagaz argitu.  
Katigario gogor  
hiru urtekua  
ez da seinale baga  
halan ixtekua.

02. Neure adiskide on  
alkarri eutsiak  
igaro badituguz  
garratz ta gaziak  
alkarregaz igaro  
daiguzan gozuak  
hasi bada iminten  
mahai ta basuak.

03. Ez izanik Markinan  
boluntariorik  
Xemein ta Etxebarrin  
lege barrikorik  
horregaitik guztiok  
gaur umore onik  
gagoz ez dogulako  
txanbelan usainik.

04. Hemen ikusten dogu  
hara hirurok bat  
halan alkartuterik  
nun ete ta zenbat?  
Hirurogetaz lagun  
merindadekuak  
abade eta fraile  
justiziakuak.

05. Banderola gorria  
darua Paiazok  
ez dakuse hurretik  
lehengo mutil baltzok.  
Ez da zetan gehiago  
munduan eskatu  
baldin berau alferrez  
agertu bajaku.

06. Lelengo Te Deuna  
ostian mezia  
soinu egokiagaz  
izan da guztia.  
San Martingo ermita  
ondo entzunian  
maiatzaren hogeta  
zazpigarrenian.

07. Egun alegria zan  
San Martin muruan  
mila ta zortzirehun  
ogeta hiruan.  
Kukuak berak bere  
aurtengo soinuan  
zerbait biharko zana  
esan gura eban.

08. Txupin ta eskopeta  
ondo garbituak  
guztiak dira hemen  
ondo horniduak.  
Euren trumoe latzak  
gaituz gaur poztuten  
Bizkaitarren garaitzak  
deuskuz gogoratzen.

09. Bolandera argi ta  
gora beherakuak  
izarren irudira  
polbora asmuak  
Markinan egin dira  
ez da hau txantxia  
guztiok dakigula  
fabrika etxia.

10. Bibolin, gitarra ta  
flauta gozatsuak  
egozan zertxubaita  
erdi garratuak.  
Aspaldian ez dogu  
izan umorerik  
ta halan egon dira  
luzaro geldirik.



11. Damaren irudian  
konstituzinua  
ekarri izan dogu  
zori gaiztokua.  
Aituten emoteko  
gure pozkeria  
betiko amaitzeko  
gurari bizia.
12. Guztia da garbia  
olgantza honetan  
gauza txarrik ez dala  
ezetan nahastetan.  
Halan beti bihar da  
serbilen artian  
nahi dogulako izan  
Jaunaren legian.
13. Jana eta edana  
guztia ugari  
baina zenbat ahal eban  
bakotxak igarri.  
Ez da albo alboka  
inortxu ikusi  
zelan olgau bihar dan  
hara nun ikasi.
14. Paiazo gizaixua  
ez asko edanaz  
ezpada neure ustez  
berde asko janaz  
zertxubait galdu jakun  
eubarte orduko  
baina atsedean eban  
botarik mandako.

15. Horregaik Paiazok  
gure damiari  
bota eutsan bersua  
txito harrigarri.  
Ah zital galdukua!  
Heuk dona agiri  
zelakua al hazan  
erdi sorgin hori.
16. Lehen iraguak nekez  
orain kantetia  
orduak garratz zana  
orain olgetia.  
Sarri egin genduan  
barua nahi ta ez  
jan ezin genduala  
sabeleko minez.
17. Baita ibili gara  
behin barriz igesi  
armarik ez geunkanok  
mendi eta sasi.  
Batian batera ta  
bestian bestera  
noz bait gazapotuta  
zelan ohi zan era.
18. Etorten ziranian  
pezeta bikuak  
baita bolante eta  
boluntariuak  
gure kamisatuak  
jantzirik soinian  
gu hotzak igaroten  
mendien gainian.

19. Aurten lino hazia  
bihar da ugari  
bota erruki baga  
giaurik lurrari  
baita gorua bere  
eragin azarri  
ezpada bihar dogu  
laster barregarri.
20. Okela samurra ta  
ardaua ugari  
ez ohi ziran lapurrak  
gabian egarri.  
Asmauala guztia  
pezeta bagarik  
oilo eta kapoiak  
hartzea dugarik.
21. Txapalangarra bere  
mutiltxu samurra  
astuak mutiltzeko  
ez txito makurra.  
Behin heldu bazan bere  
dogu ezaguna  
triskiladoria zan  
bere aita jauna.
22. Iriarte, Soroa  
biak ze mutilak!  
Esanik dirianok  
ginala serbilak.  
Odonel hirugarren  
gizontxu biguna  
ondo txupau euskuen  
mamin eta huna.
23. Castañon komandante  
Neronen lagunak  
erakutsi euskuzan  
larriak egunak.  
Preso eruan euskun  
geure markes jauna  
baita bikariua  
doktore entzuna.
24. Torrijos jeneralak  
bere seinalia  
preso eruatia  
neure alkatia.  
Artzainak salatziak  
ixildurik bera  
agertu izan euskun  
zelan euskun gura.
25. Kartutxo kartutxera  
erropa barriak  
hemen hartzen zituen  
mutiltxu zuriak.  
Zenbat honako gauza  
ixil ta agiri?  
Baltzak etozanian  
emon igesari.
26. Hamaika bidar entzun  
genduan tragala  
zalako gure herria  
-zinuen- serbila.  
Zenbat bider zemaia  
erre ta hiltia?  
Edo bai euren bando  
armak hartutia.

27. Baina alper alperrik  
zemaia guztiak  
bardin euren pezeta  
sarri eskiniak.  
Gurasuen legia  
ez dau batek saldu  
lehenago zahar ta gazte  
bizitzia galdu.
28. Nun ete dira orain  
komandante jaunak  
guztiok egiteko  
pozik esku-munak?  
Damuz ezin ginaindez  
euren bila hasi  
beti dabilzalako  
serbilen igesi.
29. Sabelak estututa  
ezpanak sikurik  
dabilz lironak orain  
buruz beheraturik.  
Poltsak urritu eta  
ez adiskiderik  
inok hartu nahi ezta  
ezetan lotsarik.
30. Txapalangarrak dauka  
orain fortuna  
astakuak mutiltzen  
zihatx jakitia.  
Pastoriak ardiak  
ez ditu faltako  
baltzak badira bere  
udagueneko.
31. Damatxu apaindua  
beste kortejuak  
probetxu on eginik  
lehengo urtekuak  
baru egin daiela  
Pazkua ostian  
azkeneko kostia  
laster jo artian.
32. Zuk bere bihar dozu  
atsegin saria  
izan zarialako  
eurak iminia.  
Zer emongo ahal jatzun  
bazkari ostian  
erabagiten dogu  
guztien artian.
33. Ondo begiratuta  
hara sententzia  
aho batezkua da  
hau harrigarria!  
Tatarraz erabili  
azkenian erre  
guztiok egiteko  
algara ta barre.
34. Honen ostian dogu  
gaur limonadia  
begira izan ez dadin  
belaun-ikaria.  
Hotzak eragin leio  
asko sentitzaka  
atsuak eukiteko  
barrez ixiltzaka.

35. Hotz askoren ondoren  
ardao garbia  
brinduak botateko  
txito egokia.  
Bakotxak hartuten dau  
eskura basua  
aho batez esateko  
hurrengo bersua.
36. Bizi bedi Fernando  
baita Amalia  
ainenak eruan dau  
liberal damia.  
Bizi bedi Egia  
Fernando Zabala  
Diputazino barri  
prestu eta ahala.
37. Orduan dirianok  
eskuak emonik  
agur egin genduan  
geldi ta zutunik.  
Adiskide leialak  
orain bihar arte  
beti biharko dogu  
lagun eta maite.
01. **Genduzan:** genituen.  
**Pozagaz:** pozez, pozarekin.  
**Katigario:** gatibutza, morrontza.  
**Baga:** bagarik, barik, gabe.  
**Istekua:** uztekoa.
02. **Daiguzan:** ditzagun.
03. **Gagoz:** gaude.  
**Txanbelan:** subirano baten ganbarazai-  
na. Gaitzizen bat dirudi, karlistek libera-  
lei edo inguru hartako norbaitzuri eza-  
rria.
04. **Hirurogetaz:** hirurogeitik gora.
05. **Paiazok:** arteko norbaiten goitizena.  
**Baltzok:** beltz hauek.  
**Beltzak:** karlistek liberalak izendatzeko  
modua.  
**Dakuse:** ikusten dute.  
**Alferez:** armadako gradu bat.  
**Bajaku:** bazaigu.
06. **Ostian:** ostean, ondoren, atzetik.
07. **San Martin muruan:** San Martin  
Muruan? Martin Murua Gernikako an-  
tzinako misiolari bat izan zen, baina ez  
santu egina. Bestalde, textuan *muruan*  
hori minuskulaz dator. Muruan edo mu-  
rruan agian?  
**Eban:** zuen.
08. **Txupin:** danbada, txupinazoa.  
**Deuskuz:** dizkigu.
09. **Bolandera:** txapligu, etxafero, suziri.  
**Gora beherakuak:** gora eta behera egi-  
tekoak, suziriak.
10. **Gozatsuak:** gozamina ematen dutenak,  
gozo eta samur sartzen direnak.  
**Egozan:** zeuden.  
**Zertxubaita:** zerbaitxo, pixka bat.
11. **Aituten emoteko:** adierazteko, uler eraz-  
teko.

- Gurari:** nahi, desira.
12. **Olgantza:** jolas, olgeta, dibertsio.  
**Ezetan:** ezertan.  
**Serbilak:** karlistei eransten zitzaien goitzen bat dirudi.
13. **Albo alboka:** aldo maldoka, kolokan, zutik egon ezinez.  
**Olgau:** olgatu, jolastu, dibertitu.
14. **Ezpada:** baizik, ordea.  
**Jakun:** zitzaigun.  
**Eubarte:** eguarte, eguerdiarte, eguerdi aurrea.  
**Mandako:** mando txikia. Hemen goitika, oka.  
**Mandako bota:** botaka, goitika egin.
15. **Eutsan:** zion.  
**Txito:** txit, arrunt, guztiz, biziki.  
**Galdukua:** galdua, galdutakoa.  
**Dona:** don, dun.
16. **Iraguak:** igaroak, iraganak, paseak.  
**Kantetia:** kantatzea.  
**Olgetia:** olgeta, olgatzea, jolasa.
17. **Behin barriz:** behin eta berriz.  
**Geunkanok:** geneukanok.  
**Gazapotuta:** gazapo edo untxi bihurtuta, gordean, izkutuan.  
**Zelan ohi zan era:** era edo ohitura zen bezala. Baita izan liteke *nola ohi zen era* edo aukera, segun zer komenentzi edo modu zegoen.
18. **Kamisatxuak:** alkandoratxoak.
19. **Lino:** liho, izen bereko landarearen zuntzez egindako ehuna.  
**Giaurik:** landurik, prestaturik.  
**Gorua:** haria egiteko tresna.  
**Azarri:** patxadaz, egoki.  
**Ezpada:** bestela.
20. **Asmauala guztia:** asmatzen zuten guztia.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
**Dugarik:** dohan, dohainik.
21. **Txapalangarra:** inguruko norbaiten goitizena dirudi.  
**Mutiltzeko:** hegaztiak lumatu. Astoak moztu.  
**Triskiladoria:** mozlea, motzailea, moztaila.
22. **Dirianok:** denok.  
**Txupau:** txupatu, xurgatu.  
**Euskuen:** ziguten.  
**Huna:** muina, hezuraren barnekoa.
23. **Neron:** Erromako enperadore krudela.  
**Euskuzan:** zizkigun.  
**Eruan euskun:** eraman zigun.
24. **Zelan euskun gura:** nola maite gintuen.
25. **Honako:** honelako.  
**Etozanian:** zetozenean.
26. **Tragala:** gaztelaniazko *trágala* edo *irents ezak*, *aguanta ezak* ez bada.  
**Zinuen:** zioten, esaten zuten.  
**Zemaiak:** mehatxuak.  
**Bando:** alde.
28. **Esku-munak:** eskuan ematen diren mun edo musuak, errespeto edo erreberentzi gisa.  
**Damuz:** zoritxarrez, lastimaz.  
**Ginaindez:** gintezke.
29. **Sikurik:** lehorrik, idorrik.  
**Laironak:** liberalen beste goitzen bat dirudi.
30. **Zihatz:** zehatz.  
**Udagueneko:** udazkenerako. Artzainak ardirik ez duela faltako, beltzak badira ere, liberalak edo *baltzak* mendian ihesi ibiliko direlako.
31. **Daiela:** dezala.  
**Kostia:** kosta, azken bazterra.
32. **Jatzun:** zaizun.  
**Bazkari ostian:** bazkal ostean, bazkal ondoan.
33. **Tatarraz:** herrestan, arrastaka.

34. **Leio:** leikio, liezaioke.  
**Sentitzaka:** sentitu gabe.  
**Barrez:** irriz.
35. **Brinduak:** topak, brindisak.
36. **Ainenak:** deabruak, parte txarrekoak.  
**Prestu eta ahala:** jator, guren eta ahaltsua.
37. **Zutunik:** zutik, tente.

Bertso sorta honen izena hamaikagarren bertsoak ematen du: *Damiaren irudian konstituzinua*. Horrek esan nahi du konstituzio liburua-  
ren azalean edo atarian dama baten irudia aurkezten zela, konstituzioa  
erakargarriago egin nahirik. Hurrengo bertso sortan deskribatzen da  
zehatzago dama horren itxura. Beraz, konstituzioko dama hau Cadizen  
aldarrikatu zen konstituzioa da, foruak mozten zituena.

## KONSTITUZINOEKO DAMIAREN ASMUAUAK ZORTZIKUAN

(Baskichen Sprache, 1967. 71. or. Antropological Publications Oosterhout - Niederlande.  
Baita Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

01. Alperrik dau sagarrak  
kolore gorria  
usteldurik badauka  
barruko hazia.  
Laster agertuko da  
bere malizia  
adi bada euskalduna  
ta argi begia.
02. Engainuak ez ohi dau  
plazu hain luzerik  
askozaz gitxiago  
inoz azken onik.  
Halan jazoten jaku  
gure egunetan  
esango dodan legez  
zortziko honetan

03. Politika izena  
daben damatxua  
Cadiztik agertu zan  
txito apaindua.  
Berba labanak eta  
barrez arpegia  
barrua euki arren  
ez txito garbia.
04. Liburu bat eskuan  
urrez estaldua  
liberaltxu zaldunen  
dau erregalua.  
Libertade barri bat  
bardintasunagaz  
nor gozatuko ez da  
liburu honegaz?
05. Frantzia igartu zan  
arbola ederrak  
eragin bai eutsezan  
askori negarrak.  
Hara bada bizturik  
España barruan  
liberalen bitartez  
liburu dontsuan.
06. Errege bera bere  
guztien mendian  
erakutsiten jaku  
gaur bere legian.  
Guztiok agintari  
guztiok nagusi  
baina halan ete dan  
begira, ikusi.
07. Eskintzari ederra  
español maitiak  
egin deuskuz ugari  
damatxu gaztiak.  
Baina liberalentzat  
dituz ondasunak  
libertade, agintza  
nagusitasunak.
08. Eurak dira bakarrik  
Españan juezak  
alperrik bai ikusi  
jentien nahi ezak.  
Tragau biharko dala  
euren agindua  
dogu lairon harruen  
lelo ta soinua.
09. Abade gitxi eta  
euren gisakuak  
arrozturik betiko  
lehenge legekuak.  
Dotrinatxu eurenak  
nahi ez dituenak  
izan arren Volterren  
ta nahi Rusorenak.
10. Agur beti betiko  
monja ta frailiak  
malkuak bota arren  
jente ta pobriak.  
Misinoe barriak  
bere legietan  
ifini izan ditu  
herri handietan.

11. Kinta ta miliziak  
lantzian ta sarri  
ez deusku euskaldunoi  
lan txarra ezarri.  
Agur gure foruak  
agur noblezia  
koldarturik balego  
hemengo jentia.
12. Petxu eskabidiak  
egunero legez  
inoren izerdiaz  
aspertu ezinez.  
Pantete ta registro  
zenbat beste asmo  
ez eutsan Barrabasi  
goguak emongo.
13. Horra libertadia  
diruak kendurik  
ez genduan izango  
lapurren bildurrik.  
Damatxu apainduak  
eukan bai tranpia  
ez da gitxi jakina  
enemigadia.
14. Baina damatxu harro  
ta bere laironak  
Napoleontar malmutz  
ondo ezagunak  
lehenago leher egingo  
dozue guztiok  
guri ezarri baino  
zuen buztarriok.
15. Euskaldun garbi sendo  
prestu ta nobliak  
gorde gura dituez  
asaben legiak.  
Mutilak horretako  
armetara dira  
zaharrak bere nahi leuke  
gaztiak balira.
16. Jangoikuak nahi eta  
agintari onak  
euskaldunak ditue  
txitoko entzunak.  
Egia zaharra dogu  
guztien burua  
Quesada hurrengua  
guztiz jakintsua.
17. Don Fernando Zabala  
brigadier jaunak  
irabazirik daukaz  
gure esker onak.  
Gorostidi laguna  
txitoko firmia  
Francho guztiz sendua  
baita Barrutia.
18. Katalan ta Naparrak  
baita Arabarrak  
dituguz zorionez  
beti geuretarrak.  
Beste probintzietan  
gure bando asko  
egunik egunera  
dozuz ikusiko.

19. Alperrik Gipuzkuan  
pezeta bikuak  
Bilbon barriz bolante  
boluntariuak.  
Kamisa hutsian duaz  
igesi gaisuak  
urten arren etxetik  
txitoko majuak.
20. Armak lepotik bota  
ortozik igesi  
ez zenduzan lehenguan  
Mungian ikusi?  
Mutil urten barriak  
badituez goitzen  
zer da ikustekua  
badira ohituten?
21. Ai liberal tristiak!  
Egin dau zuenak  
laster dozuz ikusi  
betiko azkenak.  
Laironak lutuz dagoz  
damia geisorik  
ez dago osatzeko  
inon medikurik.
22. Prestau egizu laster  
bere enterrua  
egin bere daiala  
gaur testamentua.  
Zuzen zuzen juatzu  
zuei herentzia  
guzur enbusterien  
poltsa ugaria.
23. Baina beragaz nahaste  
lurpetu bihozu  
ta hau benetan dana  
sinistu egizu.  
Guk egingo deutsuguz  
onra alegriak  
ijui eta txalo  
pozezko barriak.
24. Agur bada betiko  
liberal harruak  
agur lairon ta dama  
agoniak. *agoniak*  
Cadiztik urten eta  
bihurtu bertara  
zuen hazur ustelok  
han hobitutera.



01. **Adi:** zuhur, erne.
02. **Plazu:** epe.  
**Jazoten jaku:** gertatzen zaigu.  
**Legez:** bezala.
03. **Daben:** duen.  
**Txito:** txit, oso, arrunt, guztiz.  
**Berba labanak:** hitz labainak, limurko-  
rrak, engainagarriak.  
**Barrez:** irriz.
04. **Bardintasunagaz:** berdintasunarekin.  
**Honegaz:** honekin.
05. **Eutsezan:** zizkien.  
**Dontsuan:** santuan, bedeinkatuan.
06. **Mendian:** menpean, azpian.  
**Jaku:** zaigu.
07. **Deuskuz:** dizkigu.  
**Agintza:** aginte.

08. **Juezak:** jujeak, epaileak.  
**Tragau:** irentsi.  
**Lairon, laironak:** liberalen goitizena.  
**Deusku:** digu.  
**Lelo:** errepikatzen den doinua edo esa-  
na.
09. **Volter:** Voltaire.  
**Ruso:** Rousseau.
11. **Lantzian:** lantzean, noiz behinka, noizik  
behin.
12. **Petxu:** petxa, zerga.  
**Aspertu:** ase, asetu.  
**Pantete:** ez dakit zer den, *patente ez*  
bada.  
**Eutsan:** zion.
13. **Eukan:** zeukan.  
**Enemigadia:** *Enemigadua* ren femeni-  
noa. Etsaia, arerioa.
14. **Malmutz:** maltzur, azpikari.
15. **Dituez:** dituzte.  
**Nahi leuke:** nahi leukie, lukete.
16. **Ditue:** dituzte.  
**Txitoko entzunak:** oso, arrunt ospe-  
tsuak, famatuak.
17. **Daukaz:** dauzka.  
**Txitoko firmia:** txit, arras, biziki irmoa,  
tinkoa.
18. **Egunik egunera:** egunetik egunera,  
egunez egun.  
**Gure bando:** gure alde, aldeko.  
**Dozuz:** dituzu.
20. **Lepotik:** bizkarretik.  
**Ortozik:** oinutsik.  
**Zenduzan:** zenituen.  
**Badituez goitzen:** badituzte garaitzen,  
menperatzen.  
**Ohituten:** ohitzen. Esan nahi du ezen  
mutil irten berriek, hasi berriek, hala  
menperatzen badituzte, zer ikusiko ote  
den, ohitzen edo benetan ikasten dute-  
nean.
21. **Dozuz:** dituzue.  
**Dagoz:** daude.  
**Osatzeko:** sendatzeko.
22. **Prestau:** prestatu, atondu, prest jarri.  
**Enterrua:** lurperatzea, ehorzketa.  
**Bere daiala:** ere, baita dezala.  
**Juatzu:** doakizu, doakizue.  
**Guzur enbusterien:** gezur eta amarruke-  
rien.
23. **Beragaz nahaste:** berarekin nahastean,  
batera.  
**Bihozu:** behar dozu.  
**Egizu:** ezazu.  
**Deutsuguz:** dizkizugu.  
**Ijui:** irrintzi, zantzo.  
**Barriak:** barreak, irriak.
24. **Bihurtu:** itzuli.  
**Hobitutera:** hobiratzer, hilobiratzer,  
ehorztera.

## AMA DONTZEILIARI ZORTZIKUA

(Baskischen Sprache, 1967. 73. or. Antropological Publications Oosterhout - Niederlande.  
Baita Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Oraindik bizi zala<br>munduan Maria<br>zeruen erregina<br>egiaz garbia<br>Españan hartu eban<br>bere jartokia<br>Jesusen Ama zanak<br>oh, zer miraria!               | 04. Agindu izan deutsu<br>bere anparua<br>zaitualako -dino-<br>herri maitatua.<br>Oh Israel ederra<br>benetan garbia!<br>zuretzat izan dozu<br>bai tenplu bizia.         |
| 02. Pilar baten ganian<br>herri jakinian<br>edertasunen ama<br>agertu zanian<br>ainguruak begira<br>dakustaz zurturik<br>zeruak eurak bere<br>guztiz harriturik.         | 05. Españolen bihotzak<br>pozez zoraturik<br>dontzeila ta amari<br>dagoz eskinirik.<br>Bere anparupian<br>ez dauke bildurrik<br>guztiak dira sendo<br>inor ez koldarrik. |
| 03. España dohatsua<br>zeren jaube zara?<br>Begira nahi dabena<br>edozein aldera<br>ez entzun ta ez ikusi<br>inoz da oraindik<br>ez dau gura aldendu<br>Mariak zugandik. | 06. Españolen izenik<br>ez jake emoten<br>bandera okerretan<br>diranei sartuten.<br>Honek iges eginik<br>amaren mendetik<br>kendu bitez betiko<br>begien aurretik.       |

- |  |   |
|--|---|
| 07. Luziferrek bai deusku<br>guri enbidia<br>ikusirik patrona<br>Españan Maria.<br>Bere diszipuluak<br>dauke egarria<br>ezin dabe iruntsi<br>gure poz bizia.       | 11. Alperrik liberalak<br>Luzifer nagusi<br>laster dira txanbelan<br>barriro ikusi.<br>Norako ete diran<br>itaunen alkarri<br>dabiltz aspalditxuan<br>jaken lez igarri. |
| 08. Luziferrek nahi eban<br>España beretu<br>patroa ta nagusi<br>betiko gelditu.<br>Horretarako bada<br>bere eskiniak<br>egin deuskuez sarri<br>liberal barriak.   | 12. Luziferrek bai dituz<br>lekuak zabalak<br>bilatu ez daiezan<br>Español serbilak.<br>Bildur naz ete diran<br>beragaz sartuko<br>zulo izugarrian<br>sekula betiko.    |
| 09. Uste eben guztiak<br>tontuak bilatu<br>azpian hartu eta<br>betiko sakatu.<br>Eleixa eta kanpo<br>guztian agindu<br>ez eben horregaitik<br>hain gitxi eskatu.   | 13. Españolen bihotzak<br>izanik nobliak<br>ez deutsez inoz opa<br>halako kaltiak.<br>Arieriuei bere<br>dakie parkatzen<br>eurak gaitik Amari<br>ondo erregutzen.       |
| 10. Harrotasunak ez dau<br>inun neurrik<br>ezta agindu nahiak<br>ezetan mugarik.<br>Hagaitik liberalak<br>guztia gurarik<br>dakuskuz gaur igesi<br>España itxirik. | 14. Horregatik bihar dau<br>Españak garbitu<br>hatarako juezak<br>erreinuak ditu.<br>Euren eskuan dago<br>zuzen justizia<br>guk bata bestiari<br>parkatu guztia.        |

15. Juez jaunak dakie  
traidore paltsuak  
eraso dituela  
askoren malkuak.  
Ahaleginez dabela  
errege zematu  
Eleixako fedia  
gugandik aldendu.
16. Euren jakituriak  
ez dau ez estali  
zelan liberaltxuak  
jakuzan ibili.  
Gauzarik santuenei  
burla egitia  
izan dala askoren  
oraingo modia.
17. Garizuma santuan  
dantza zoruetan  
ez dira Pazkuetan  
heldu konpesetan.  
Gisa honetan dua  
enparau guztia  
gehiago esateko  
bihar da astia.
18. Lagun zakiguz beti  
Birjina Maria  
esker emoten dozu  
España guztia.  
Zuganik hartu dogu  
orain biktoria  
gura deusugu emon  
ahal dogun gloria.
19. Baina oraindik bere  
gatortzuz gu eske  
katigu dagolako  
Fernando errege.  
Gure bihotzak dabe  
txito bera maite  
beragaz bada arren  
errukitu zaite.
20. Lehen bere han egon zan  
kautibo Frantzian  
baina zure mesedez  
ondo etorri zan.  
Ezpata ta koroia  
egun garratzetan  
itxi izan eutsuzan  
zure eskuetan.
21. Halan gorde zeuntsazan  
etorri artian  
Atotxako Eleixa  
ondo entzunian.  
Bihurreran eskini  
eutsun erreinua  
zaukazalako beti  
amatzat hartua.
22. Alperrik liberalak  
guzurrak ugari  
bere kontra ditue  
Españan ezarri.  
Gure amodiua  
hotzitu gurarik  
ibili jakuzana  
ez dago dudarik.

23. Josefa Amalia  
bere esposia  
erregina garbi ta  
birtuten loria.  
Nahibagez geisoturik  
katigarian  
dago gau ta egunaz  
malko eriuian.
24. Españak ikusirik  
gaur eskandaluak  
emoten dituenak  
liberal galduak  
bihotzumilduagaz  
deutsu eskatuten  
inok egia dana  
ez dau ukatuten.
25. Gure amodiua  
hain dauke bizia  
senar eta emazte  
euren egarria.  
Gugaz bizi guria  
Amaren mendian  
zauritzen dituana  
bien bihotzian.
26. Eskubide guztien  
jaubia izanik  
egizu bada, Ama  
negarrez entzunik  
alkartu gaitezala  
errege jaunagaz  
ta bizi zure nahian  
bihotz garbiakaz.
- ∞
01. **Eban:** zuen.  
**Jartokia:** aulkia, eserlekua.
02. **Pilar:** pilare, harroin, zutabe.  
**Dakustaz:** ikusten ditut.  
**Zurturik:** harriturik, txunditurik.  
**Dabenak:** dutenak.  
**Aldendu:** urrundu, desagertu.
04. **Deutsu:** dizu.  
**Anparua:** babesu, magalpea.  
**Dino:** dio, esaten du.
05. **Dagoz:** daude.  
**Dauke:** daukate.
06. **Jake:** zaie.  
**Honek:** honeik, hauek.  
**Mendetik:** menpetik, azpitik.
07. **Deusku:** digu.  
**Enbidia:** ondamura, bekaitza.  
**Patrona:** ugazabandre, zaindari.
08. **Patroe:** ugazaba, nagusi, zaindari.  
**Eskiniak:** eskaintzak.  
**Deuskuez:** dizkigute.  
**Sarri:** sarritan, maiz.
09. **Eben:** zuten.  
**Sakatu:** bultzatu, sorkatu.
10. **Ezetan:** ezertan, deusetan.  
**Gurarik:** nahirik.  
**Dakuskuz:** ikusten ditugu.  
**Itxirik:** utzirik.
11. **Txanbelan:** subirano baten ganbarazai-  
na. Hemen liberalen goituzen bat dirudi.  
**Ete:** ote.  
**Itaunen:** itaun egiten, itaunka, galdezka.  
**Jaken lez:** zaienez, zaien bezala.
12. **Daiezan:** ditzaten.  
**Beragaz:** berarekin.
13. **Deutsez:** dizkiete.

- Areriuerei bere:** etsaiei ere, izterbegiei ere.  
**Dakie:** dakite.
14. **Hatarako:** hartarako.  
**Juezak:** jujeak, epaileak.
15. **Eraso:** atera, eragin, isur erazi.  
**Dabela:** dutela.  
**Zematu:** mehatxu egin, mehatxatu.
16. **Zelan:** nola.  
**Jakuzan:** zaizkigun.
17. **Konpesetan:** konfesatzen, konfesatze-ra.  
**Enparau:** gainerako, gainontzeko, beste guztia.
18. **Zakiguz:** zakizkigu.  
**Esker emoten dozu:** eskerrak ematen daukazu.  
**Deutsugu:** dizugu.
19. **Gatortzuz:** gatozkizu.  
**Katigu:** atxilo, menpeko.  
**Txito:** txit, arras, guztiz.  
**Beragaz:** berarekin.
20. **Lehen bere:** lehen ere.  
**Itxi:** laga, utzi.  
**Eutsuzan:** zizkizun.
21. **Halan:** hala.  
**Zeuntsazan:** zenizkion.  
**Ondo entzunian:** entzute, fama handikoan, ospetsuan.  
**Bihurreran:** itzuleran, berriz etortzean.  
**Eutsun:** zizun.  
**Zaukazalako:** zauzkalako.
22. **Ditue:** dituzte.  
**Hotzitu gurarik:** hoztu nahirik.  
**Jakuzana:** zaizkiguna, zaizkigula.
23. **Nahibagez:** nahigabez, atsekabez, saminez.  
**Katigariuan:** gatibutzan, atxilotua.  
**Eriuan:** erioan, jarioan, malkoak erioten, isurtzen.
24. **Dituenak:** dituztenak.  
**Deutsu:** dizu.  
**Dana:** dela.
25. **Dauke:** daukate.  
**Gugaz:** gurekin.  
**Guria:** gura, nahia.  
**Mendian:** menpean, azpian.  
**Zauritzen dituana:** amaren mendean gurekin bizi nahia da zauritzen dituena bien bihotzean.
26. **Garbiakaz:** garbiekin.

Xabier Altzibarrek, bere *Bizkaierazko Idazle Klasikoak* liburuan, Konstituzioko damiaren eta Ama dontzeiliaren bertsook Jose Antonio Mogelenak ez ote diren defenditzen du. Hori oso litekeena izanik ere, oraingoz izengabeetan uztea erabaki dut.

## RODAS ETA AZNAR (1896)

(*Rodas eta Aznar. Ondarruako bertso berriak. 1896. Agustin Zubikaraik utzitako karpeta bateko bertsopaper solte bat*)

01. Mila zortzirehun laroitamar da seigarreneko urtian dibertsio bat paratu nahi det gazte guztien artian. Botaziuak euki ditugu Ondarruako partian nahi dutenikan ez dute egin arrantzalien artian.
02. Hamaika bada ate ondora botuen bila etorri oponiuak guri kenduta bueltatziarren Aznarri. Horrelakorik egiterikan ez zan tokatzen Rodasi finak zein diran herri honetan aurten ditugu ikusi.
03. Gizon bateri botuengatik agindu batel berria kafian bertan hartu zioten bela berrien neurria. Suskriziuan batzen hasi ta gelditu dira erdira Pio horrekin pasatu dute izugarrizko feria.
04. Domeka horretan diru eskeintzen hoiek hor ziraden hasi Matias horrek zertan zebiltzan laister zituan ikusi. Albora juañ zan hitz egin nahita horri ez zioten utzi herritik horla bialtzerikan horrek ez zuan merezi.
05. Egun horretan begien bistan askok ikusitakua gizon bateri nola eskeintzen hasi ziraden dirua. Aurrerakorik zabaldu zuten kalietara bandua ordenarikan ez zala izango eskeintzerikan dirua.
06. Zuek bertsuak paratutzeko Aznar zala Bizkainua seguru asko badakigu guk dala hori Kastillanua. Orain lau urte Rodas daukagu mesede egindakua marinelari tokatutzen zan jaun horrentzako botua.



07. Hainbeste urtian egondu gera moila batzuen eskian esan bezela logratu eta hor ari dira lanian. Rodas jaunaren erregalua hor dakagu hondarrian gizon batzuek hori saltzeko dabilta beste aldian
08. Txaketa beltza alkondara plantxa zigarro puro ta guzi gizon eder bat baporengana juaten zuten ikusi. Rodas jaunarena zala aditu ta hasi omen zan igesi Kafe batera sartu omen zan bolandera eta guzi.
09. Foral batzuek amorratutzen Otxana ziraden hasi faltso batzuek parte emanda hau ere degu ikusi. Kulparik gabe ez genduela juezak zuen ikasi berak hartu ta eramatia hoiek bai dute merezi.
10. Zer izaten dan badakigu guk diputadu egitia adituekin entera zaite kontra zeraten jentia. Handiagua dana badakit Bizkaiko senadoria gizonarentzat ondrik onena mantxarrik gabe jartzia.
11. Bilbo aldian irabazi du tranparik gabe legian ez gera asko ikaratuko kantatzen zuen aurrian. Maketo asko jarriagaitik Aznarrek bere guardian Martinez Rodas paratu dute senadoretzat kortian.
12. Gizon batzuek ibiltzen dira bide askotxo pasatzen beste batzuek egoten dira burutik ondo pentsatzen. Bilbo horretan erreza ez zan senadoretza logratzen Rodas nagusi jarriko zanik ez zuten hoiek pentsatzen.
13. Gizon handia egiteko ere diruak beti balio Rodas horrekin horregatikan izaten ginan gu fio. Lehen daduzkan graduak ere orain gora zainzka io nahi ezagatik Aznarri ere berak aginduko dio.
14. Hamalau bertso jarri ditugu oso onradamentian gauza txarrikan esan gaberik tokatutzen dan legian. Aznar horrekin konpondu zaite zuek nahi dezun legian gu Rodasekin egongo gera beti bezela firmian.



02. **Oponiua:** opinioa, eritzi politikoa.  
**Buelatziarren:** bihurtzeagatik, itzultzeagatik.
03. **Batel:** ontzi, txalupa.  
**Kafian:** kafetegian. Pio eta beherago agertzen diren Matias eta Otxana orduko Ondarrutar batzuk.
04. **Domeka:** igande.  
**Horla:** horrela.
05. **Aurrerakorik:** aurreragotik, lehenago.
07. **Moila:** kaia.  
**Logratu:** lortu, eskuratu.  
**Hondarrian:** hondarrean, hondartzan, harean.
08. **Bapore:** motoredun untzia.  
**Bolandera:** txapligu, etxafero, suziri.
09. **Juezak:** jujeak, epaileak.
10. **Mantxarrik:** orbainik, zikinik, lohirik.  
**Adituak:** dakitenak, jakitunak.  
**Enteratu:** zerbaiten berri jakin, jabetu.
11. **Paratu:** ipini, ezarri.
13. **Fio izan:** fidatu.
14. **Onradamentian:** onratuki, zintzoki.  
**Firmian:** tinko, irmo.

Bertso hauek, bertso gisa, ez dira noski zehatzegiak, baina hauteskunde batzuen giroa ederki adierazten dute. Bestalde Ondarroan, bertso-tarako euskalkitzat, gipuzkera hartzeko joera aspaldikoa dela argi uzten dute.

## KIRIKIÑO HILTZEAN

(Doinu zaharren inguruan, 63. or. U. E. U. Luzia Arteaga. Amaia Agirre, Juan Mari Beltran... hamaika partaideren arteko lana)

01. Bihotz handiko gudalburuak zintzo baino zintzo lanian alde danetan beti kementsu jarraitu ondorenian. Gazteri sendoz inguraturik dago alderdi onian Ahalguztidunak besarkaturik jarri dau atsedenan.
02. Hor dau hainbeste maite genduen Kirikiñoren gorpua aitarene seme zintzorik bazan zintzoenatarikua. Euskera eta uzurtza aldeko langile nagia bakua San Frantziskoren jantzi latzagaz deun baten irudikua.

03. Hil zarela ta zotinka gagoz  
zure adiskide guztiak  
hil zarela? Lo zagoz ba ta!  
Lo dagoz zure begiak.  
Hilda gero be bizi antzian  
zeukaz Jaungoiko handiak  
zintzoa izaten ikasi daien  
zugandik Euskal Herriak.

04. Deunen bizitza egin zuen ta  
heriotza be deunena  
zure bakezko lo gozo hau da  
ezaugarrik onena.  
Aita goikoak neke saritzat  
emotsun sari gorena  
zure gomuta beti izango da  
gugan iraungo dabena.



01. **Zintzo baino zintzo:** esakera honek  
*zintzo baino zintzoago* izan behar du, edo  
bestela, probableena denez, *zintzo be zin-*  
*tzo* (guztiz zintzo, zintzo baino zintzoago)  
izango da, hau bait da esakera naturala  
eta neurrian ondo datorrena. *Zintzo baino*  
*zintzoago* ere esakera naturala da, baina  
luzeegia neurritz, eta *zintzo baino zintzo*  
gisa laburturik, oker esana eta hala ere ez  
da neurrian sartzen.  
**Ahalguztidunak:** textuak *Ahalguzti De-*  
*unak* dakar, baina bistan da bestea behar  
duela.

02. **Dau:** dago.  
**Gorpua:** hilotza.  
**Uzkurtza:** erlijioa.  
**Nagi bakua:** nagitasun, alperkeri gabea.  
**San Frantziskoren jantzi latzagaz:** San  
Frantziskoren soineko latzarekin. Hilo-  
tza Frantziskotar jaztea ohitura zen.  
**Deun:** santu, saildu.

05. Nahigabeturik gagozan arren  
zu barik gelditutiaz  
poztutzen gara zeugana laster  
helduko garean ustiaz.  
Artian zintzo jarri ezkerro  
geure biharko guztiak  
egun baten argi egingo deusku  
betiko zorun eguzkiak.

03. **Zotinka:** asperenka, arnasgoraka.  
**Gagoz:** gaude.  
**Lo zagoz ba ta!:** lo zaude ordea, lo zaude  
barren!  
**Dagoz:** daude.  
**Gero be:** gero ere.  
**Bizi antzian:** bizirik bezala, bizien itxu-  
ran.  
**Zeukaz:** zaukaz, zauzka.  
**Daien:** dezan.

04. **Emotsun:** emon deutsun, eman dizun.  
**Gomuta:** oroitzapena, gogorapena.  
**Dabena:** duena.

05. **Gagozan:** gauden.  
**Barik:** gabe.  
**Gelditutiaz:** gelditzeaz, geratzearekin.  
**Garean ustiaz:** garen ustearrekin.  
**Artian:** artean, bitartean.  
**Deusku:** digu.  
**Zorun:** textuak *zerun* dakar, baina *zorun*  
behar du, *zorion*.

Bosgarren bertsoak nahiko aldrebestua dirudi, neurritz eta zenbait  
esakeraz. *Geure biharko guztiak*, adibidez, zer izan daitekeen antzemate-  
rik ez dago. Bertso hau honela berregingo nuke:

Nahigabeturik gaukazan arren  
zu barik gelditutiaz  
poztutzen gaitu zeugana laster  
helduko garen ustiak.

Artian zintzo jarri ezkerro  
geure bitarte guztiak  
egun batean argi egingo  
deusku zorun eguzkiak.

## ARANA GOIRIREN HERIOTZA

(Aurreko bera, 66 or.)

01. Adinik guztiz ederrenian  
hogeta hamazortzigarren  
urtian hil zan Sukarrietan  
Euskadi askatutiarren.  
Nor dala baina holan hil zana?  
Aita Sabin Euskotarren  
irakaslia, etsai guztiak  
jarten zirala pozarren.

02. Hamaika urte gaur dira bete  
guztiok gomutau gaizan  
Euskadirentzat ez dala behintzat  
egun baltzagorik izan  
beren semerik argitsuena  
eta zintzoa benetan  
heriotzako kodainiak jo  
ebala Sukarrietan.

03. Haren gorpua hilotziturik  
ebela lurreratuten  
itxirik bere ama Euskadi  
negar saminez urtuten.  
Baita Euskotar jeltzale zurtzat  
giniela geratuten  
gomuta horrek geruau gehiau  
ginuzala nahigabetzen.

04. Bera zan eusko abertzaletan  
irakaslari zuzena  
ta Euskadiren gatzak hain ondo  
ezagutu zituena.  
Baita berberau ezaututeko  
zeru biderik onena  
berak iratzi eban hain ondo  
alderdi euskotarrena.

05. Alperrekua izan ete da hain gogoz egin ebana? Ez ete dau ba zorigaitzotik atara aberri laztana aldatuteko, berjaristeko bizikera berberana? Ama betiko izango ete da guretzat pasatu dana?
06. Adiskidiak asko eukoza eta galdu zitun berez diruak urtu, galdu osasuna bizia emon Jel alde. Danak alperrik ein ete dauz ba etsaiak uste daben lez? Ez, alperrik ez, on egin danak Jaunan sariak ohi dabez.
07. Aberriaren berbizkundia izaten hasi ta orduan Jaunak esautsan Sabini: erdu jartzera neure onduan. Egia da ta eusko zintzuok tamal handia genduan hain gazte zala egin biharra beti betiko eruan.
08. Baina nork daki nahitaezkua bazan bere heriotzia heriotzatik haratuteko gure aberri maitia? Aberri alde opa eutsan lez beren izate guztia egun hartantxe beteko jakon izentauriko epaia.
09. Gizonen alde Korkostegian Jesus kurutzian hil zan Euskadin alde haren antzera Sabin be Sukarrietan. Aberri alde opa eutsona bere ludiko bizitzan azilaren hogeta bostian Jaunari ordaindu eutsan.
10. Atsekabiak gure ahalmenak ipini dauskuz lotuta ama Euskadi daukaguleko motzen azpian galduta. Seme ustelak barriz lo dagoz ezagueria galduta ta orain zeinek itzartuko dauz irakaslia hil da-ta?
11. Baina hiloge buruan dauku gotzon bat geure pozgarri gardentasunez hain adoretu aberriaren zaindari. Itsukun guztiz handiaz dino heldurik ikurrinari Sabin hil dala baina Jel alde jarraituteko berari.
12. Ikusten doguz euskotar oste handiak bertan batzaurik ta kurutzadun Jel ikurrinak gotzonagandik harturik. Hain adoretu doaz aurrera negar guztiak itxirik itsukunak bultz eginda zuzen maitetasunez beterik.

13. Baita badaukuz Jel ikurrinak jasorik mendi gainean belaunikotu direla danak kurutze deunen aurrian. Oto eginda lau haizetara zutik jarri dabenian didar ein dabe Gora Euskadi osperik haundienian.
14. Didar honeri erantzun deutse hatx, erreka, arro ta ibai mendi, erreka, iturritxuak ta beste gehiagok be bai. Gora Jaungoiko ta Lagi Zaharrak didar egin dabe alai aberriaren berbizkundia lehenbaitlehen dabelako nahi.
15. Eusko gaztedi zintzua berriz Euskadi askatuteagatik gau eta egun lanian dabiz hori edozeinek daki. Arana Goirik itxartu zitun eusko semiak lotatik aberriaren berbizkundia dator bere heriotzatik.
- ∞
01. **Hogeta hamazortzigarren urtian:** adin horrekin hil zen Sabino Arana 1903. urtean.  
**Holan:** horrela, honela.  
**Pozarren:** poz pozik, biziki pozik.
02. **Gomutau gaizan:** gomutatu, oroitu, gogoratu gaitzen.  
**Beren:** beraren, bere.  
**Kodainiak:** kodainak, segak.  
**Ebala:** zuela.
03. **Gorpua:** gorputz hila, hilotza.  
**Hilotzitu:** hilotzu.  
**Ebela:** zutela.  
**Itxirik:** utzirik.  
**Zurtzat:** zurtz gisa, umezurtz.  
**Giniela:** ginela.  
**Gomuta:** gogorapen, oroitzapen.  
**Geruau gehiau:** gero eta gehiago.  
**Ginuzala:** gintuela.
04. **Gatzak:** gaitzak, makurrak.  
**Ezaututeko:** ezagutzeko.  
**Iratzi eban:** idatzi zuen.
05. **Berjaristeko:** berriz jaristeko, lortzeko, erdiesteko.  
**Bizikera berberana:** berberaren, berbere biziera, bizimoldea.
06. **Eukoza:** zeuzkan.  
**Jel alde:** Jelen alde, Jaungoikoa eta Lagi zaharraren alde.  
**Ein ete dauz:** egin ote ditu.  
**Uste daben lez:** uste duten bezala.  
**Jaunan sariak ohi dabez:** Jaunaren sariak ukan ohi dituzte.
07. **Berbizkundia:** berpiztea, pizkundera.  
**Esautsan:** esan zion.  
**Erdu:** zatoz, etor zaitez.  
**Jartzera:** esertzera, jezartzera.  
**Eruan:** eraman.

08. **Haratuteko:** harago eramateko, apartatzeko.  
**Opa eutsan lez:** opatu zionez, eskaini zionez gero.  
**Beren:** beraren, bere.  
**Jakon:** zitzaion.  
**Izentauriko:** izendaturiko, erabakitako.
09. **Korkostegian:** Koskotegian, Burezurtegian, Kalbarioan.  
**Euskadin alde:** Euskadiren alde.  
**Be:** ere.  
**Opa eutsona:** eskaini ziona.  
**Ludi:** lur, mundu.  
**Azilaren:** azaroaren.  
**Eutsan:** zion.
10. **Dauskuz:** dizkigu.  
**Motzen:** belarrimotzen. Kanpotarrak izendatzeko irain-hitza.  
**Dagoz:** daude.  
**Ezagueria:** ezaguera, ezagumena, zentzuna.  
**Itzartuko dauz:** ernatuko, esnatuko ditu.
11. **Hiloge:** hilohe, hilkutxa, zerraldo.  
**Dauku:** daukagu.  
**Gotzon:** aingeru.  
**Itsukun:** itsumen edo itsutasun? Bero-tasun? Hurrengo bertsoan ere agertzen den hitz honi ez diot antzik hartzen.  
**Handiaz:** handiz, handiarekin.
12. **Doguz:** ditugu.  
**Oste:** talde, multzo, jendetza.  
**Batzaurik:** baturik.  
**Itxirik:** utzirik.
13. **Badaukuz:** badauzkagu.  
**Didar ein dabe:** deihadar, oihi egin dute.
14. **Deutse:** diote.  
**Hatx:** haitz.  
**Erreka:** hitz hau bi aldiz hain jarraian ez da normala.  
**Be bai:** ere bai.
15. **Dabiz:** dabilta.  
**Itxartu:** atzartu, ernatu, esnatu.

Bertso sorta hau zenbait gauzatan orraztu egin dut, zentzu gabeko pasarteak ageri bait ziren. Esaterako, bosgarrenaren azkena: *ama betiko izango ete da ba guk pasau izaten zerana*. Seigarrenaren azkena: *on egin dala Jaunak sariak ohi dabez*. Zazpigarrenaren hirugarren puntuan: *tamal errua genduan*. Zortzigarrenaren bigarrenaren: *akaturteko gure aberri maitia*. Beheratxoago: *bete bai jakun*. Etab. Horiek ez daukate zentzurik. Argi dago pasarte asko deformaturik daudela. Bertso hauen estiloa Luzia Arteagaren oroimenean ez zen nonbait naturalegi kokatzen. Dena dela, estilo herritarrean ere, eta hain sorta luzean, honelako akatsak eta gehiako ere normalak izan ohi dira.

Bertso hauek 1914. urtekoak dira, bigarren bertsoan dionetik: *hamaika urte gaur dira bete*. Sabino Arana 1903an hil zen. Garaiko neologismoak eta esakera bortxatu samarrak barkatuz gero, sorta indartsua eta ondo eramana da noski.

## KINTOTIK SEPTIMORARTE

(Ondarroako Kepa Arrizabalagak eskuz idatzitako papera. Bere aitak eta bestek lagunartean kantatzen omen zituzten eta berak behin papereratu, bestela galduko zirela pentsaturik)

01. Bazterrak nastutzen  
hor dabilzate  
Kintotik hasita  
Septimorarte.  
Buru gogorrekuak  
zertan zabilzate  
herrira ekartzen  
hainbeste kalte?
- Izer egingo ezta  
bazterrak nastu  
Karlosen partiduak  
gauza onik eztu.
02. Auan harturikan  
relijuiua  
gaizki egiteko  
intentziua.  
Hori da erakutsi  
daben leziua  
beste gauzarik ez da  
traiziua.
- Engainatu dituzte  
fraile ta apaizak  
horra zertako diran  
Karlosen gauzak.
03. Apaizen kalian  
dute kuartela  
ezin konsegitu  
inun bestela.  
Andaluzaren gisa  
mingaina azkarrak  
garaituko dituzte  
hoien indarrak.
- Pezeta bat egunero  
eta erropak  
merke bilatzen ditu  
Karlosek tropak.
04. Ez da basta guri  
kantak jartzia  
eta Doña Blancak  
barrez leitzia.  
Errespeto pixka bat  
hoba da hartzia  
autan ibili gabe  
gezur ta saltsia.
- Guzurretan jarritzen  
guri bertsuak  
karlistak beti izan  
dira faltsuak.

05. Kantak jarri eta  
firmarikan ez  
ia gizon txarrak  
diran edo ez.  
Guk hori jartzen degu  
legez eta bidez  
ez zuek bezelaxe  
ipini ta iges.

Orain arte bertsuak  
dituk ikusi  
paperetan jarriak  
firma eta guzi.

06. Ez dakit noraino  
diraden sartu  
burubide onak  
ohi dituzte hartu.  
Euren aita Karloskin  
honenbeste lantu  
errege baino hoba da  
jarri Aita Santu.

Koroi Española  
Don Karlosentzat  
handiegia da  
iruditzen zat.



01. **Kintotik hasi eta Septimorarte:** Karlos  
Bosgarrenetik Zazpigarrenerarte.  
**Izer:** ezer, deus.

02. **Auan:** ahoan.  
**Daben:** duten.

03. **Konsegitu:** lortu, erdietsi.  
**Azkarrak... indarrak:** eskuizkribuak  
*azkarra... indarra* dakar, baina pluralean  
behar dutela dirudi.  
**Garaitu:** gaingitu, menperatu.  
**Karlosek:** paperak *Karlosen* dakar.

04. **Basta:** aski, nahikoa.  
**Parrez leitzia:** irriz irakurtzea.  
**Hoba:** hobe.  
**Autan:** ahotan, mihian.

05. **Firma:** izenpe, sinadura.

06. **Burubide:** asmo, egiteko.  
**Lantu:** auhen, erosta, deitore.  
**Zat:** paperak *zait* jartzen du.

Bertso hauek, nabari denez, egitura berezia daukate. Baita doinua ere, Kepa Arrizabalagak kantatu zidana, bere aitari ikasia. Neurri guztiz zehatza eta uniforme ematen ez duten arren, zortzikoaren lehen bi puntuak sei-bost silabakoak eta hurrengo biak zazpi-seikoak direla esan daiteke. Eta errepika diruditenak, baina beti letra ezberdina daramatenak, zazpi-bostekoak.

Sorta honetan bertso izengabeak edo sinatu gabeak hain gogor gaitzesten badira ere, berauen egilearen izenik ez dut aurkitu, bertso-paper orijinala sinaturik egongo zen baina. Paperak iradokitzen duenez, bertso-paper truke handia izango zen garai hartan. Noiz? Mende honen hasera inguruan honelako bertso-paperak ugari izan ziren Ondarroan eta hau ere garai beretsukoa izango da.

## ZORTZI DIRA LEHENGUAK

(Bertso berriak, arrantzale batek jarriak. Rodasen aldekoak. Agustin Zubikaraik utzitako karpeta bateko bertso-paper solte bat)

01. Zortzi dira lehenguak  
diputaduenak  
ta orainguan hamabi  
senadorienak.  
Papelak orain hartu  
dirua duenak  
aguru ikasteko  
gustua duenak.

02. Lehenbizi diputadu  
eiten ginan hasi  
horla uzterik horrek  
ez zuen merezi.  
Osasunagatikan  
eskatu Jesusi  
urte askuan hori  
dedin ondo bizi.

03. Oinetik degu Rodas  
aberats handia  
gurasuetatikan  
horrela jarria.  
Ez dute sinistatzen  
hau dala egia  
Bizkaiko senadore  
gure alderdia.

04. Orain pazientzia  
bihezute hartu  
nahiz barrengo kezka  
asko ernegatu.  
Aznar zertako degu  
hemen diputadu?  
Rodas senadoretzat  
digute nonbratu.

05. Aznar etortzekotan  
zeguan jarria  
ongi maneatua  
nunbait janaria.  
Beti esperantzetan  
hau da komeria  
ongi tenplatua da  
hoien bazkaria.
06. Neronek aditua  
esaten hoieri  
berrogei bana duro  
eman baietz guri.  
Gainera bazkaria  
eingo dute jarri  
Aznar tartian dala  
han jente danari.
07. Neskatilak baziran  
hor preparatuak  
aingeruak jartzeko  
Aznar partekuak.  
Orain gelditu dira  
oso aldrebestuak  
gala ordez hobe dute  
jartzia lutuak.
08. Aingeruak jartzeko  
zuten esperantza  
romeriak eginaz  
musika ta dantza.  
Ezagutua nago  
horien balantza  
gazte ordez daukate  
neskazaharren antza.
09. Lehenguak kontra eginik  
guk herrikuari  
moilak bihar zirala  
gogor ginan jarri.  
Deseo ziran eta  
horra orain ekarri  
Rodasen erregalu  
zoragarri hori.
10. Orduan baziraden  
esaten zutenak  
zertarako ditugu  
herriko gizonak?  
Iraulika ta arria  
errio zutenak  
hoiek dira herrian  
guretzat gauz onak.
11. Maiatzaren hileko  
hogeita bostian  
Rodas senadoretzat  
jarri da kortian.  
Enrerorikan gabe  
bien bitartian  
haren partidukuak  
alegrau gaitian.
12. Horra hamabi bertso  
zortziko puntuan  
nik esplikatu ditut  
ahal dedan moduan.  
Rodas senadoretzat  
hemen nahi genduan  
Aznar jarriko'ezute  
zuek hurrenguan.

80

01. **Aguru:** agudo, arin, bizkor.
02. **Horla:** horrela.
04. **Bihezute:** behar dezute, duzue.  
**Ernegatu:** amorratu, haserretu.
05. **Maneatu:** prestatu, atondu, janariak ondu.
07. **Gala:** luxuzko jantzia, normala baino askoz ikusgarriagoa.
09. **Moila:** kaia.
10. **Iraulika ta arria errio zutenak:** Esaldi hau ez dut hatzematen. *Iraulika* badirudi *hidraulika* dela. Orri hauetan erratak ere asko izaten direnez, arria ez ote da argia? *Errio* itsasadarra da, Ondarroan badutena. Baina kontzeptuak hauek direla emantik ere, esaldiari ez diot antzik hartzen.
11. **Kortian:** gortean.  
**Enrero:** nahaste, nahaspila.

## HAUTESKUNDE EDO ELEZINOIETAKUAK

(Agustin Zubikaraik utzitako karpeta bateko bertsopaper solte bat)

01. Bertso batzuek aurtengo urtian  
asmua hartu det jartzeko  
karlista hoi buru gogorrek  
errespetuan jartzeko.  
Beste asmorik ez dute izan  
danak azpiratutzeko  
beste guztiak zapaldu eta  
eurak agintzen jartzeko.
02. Ikusirikan Iperkalian  
eurena zan bentajia  
beste konturik atera gabe  
hemen zan bai komeria.  
Atso guztiak ujuka eta  
ajaka ziran kalera  
erromeria polita izan da  
Ondarruako herrian.
03. Beste andra batek Iperkalian  
paratu zuan bandera  
pentsatuagaz eurena zala  
triumfo edo biktoria.  
Bapor bat berriz moila aldi  
txistuka zuten jarria  
hobe izango eban haren jabiak  
biztu ez baleutso labia.
04. Gizontxu batek taberna baten  
salto eginaz goraka  
esaten eban: biba geu nausi  
halantxe komeni zan da.  
Beste aldetik entzun ebanian  
azpiratuak zirala  
penaz beterik ohian sartuta  
gaixoturikan egon da.

05. Gizon batzuek eskopetakin kazan balitzaz bezela baserrietan botuen bila ibiliak izan dira. Egun batian inok hil eta ekarri zuten erbia eurak hilteko astirik ez ta beste bati errosia.
06. Hilabete bat falta zutela botaziuak oraindik gizon horiek hasiak ziran armak eurakin harturik. Gizon horiek eginagaitik makinatxo bat ahalegin probetxu ona atera dute mendietako bueltakin.
07. Mutil txiki batzuek egiteko hau izan da azuia oso bentaja handiarekin garbitu botaziua. Oker urtenda gelditu zaie eurak euren desia sonbrerodunak izanagaitik txapelak nausiagua.
08. Propietario jaun handi hoiek egin dute ahalegina errenteruak derriorrian mudatutzen euegana. Uste al zuten etxe jaberik eurak baino ez eguala? Orain artian bizkorrak ziran oraintxe makaldu dira.
09. Karlista hoiek pentsatzen zuten urtengo ebela maiorian liberalakin bat egin eta presentatuaz nahastian. Onra hobia izango zuen egon baziran bakian horregaitikan nahi izan ez arren egon bihar dute azpian.
10. Zeinek entzun dau gaur egunian enpliau batzuk herrian aiuntamentu jaunaren kontra agente dabiz kalian. Abuso franko gizon horiek egin dute orain artian merezi dabe kendu ditzala enpleotikan airian.
11. Kofradia ere zan herri hontan kostan ez dan modukua gizon batzuek ziran merio izan zan enreatua. Inuzentia engainatuta eurak ezkutatu ziran honetxenbeste esan ezkerro badakizu nortzuk diran.
12. Bada hamabi bertso honekin akabatzen nijua oraindik gehio jarriko neuke paperak balu lekua. Errezoirikan ez da faltatu ateratzeko bertsuak orain bildurrik gabe esaten det Gora Euskadi Askatuta!



02. **Bentajia:** abantaila, aldea.
03. **Bapor:** bapore, motoredun untzia.  
**Moila:** kaia.  
**Eban:** zuen.  
**Baleutso:** balio.
05. **Kazan:** ehizan, ihizian.  
**Balitzaz:** balira.  
**Inok:** inork, bestek, beste batek edo batzuek.
07. **Aziua:** ekintza maltzurra, gaiztakeria.  
**Euken:** zeukaten.
08. **Errenteruak:** maizterrak.
- Derriorrian:** derrigorrean, beharturik, nahitaez.
10. **Enpliau:** enplegatua, enplegudun langilea.  
**Aiuntamentu:** udaletxe, herriko etxe.  
**Dabiz:** dabilta.  
**Dabe:** dute.  
**Airian:** airean, berehala eta indarrez.
11. **Ziran merio:** zirela bide.  
**Enreatua:** nahastua, albrebestua.
12. **Nijua:** noa.  
**Gehio:** gehiago.

## BOTUAK BILA JAUNTXOAK DATOZ

(Botazinoetako bertsoak, Adolfo Arejita. Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta 12. 16. or.)

01. Botuak bila jauntxoak datoz sakela diruz beterik txarri bat legez geutaiko batek saltzen dauenez gogorik. Baina erosle horrein etxean ez dago zidar-urrerik euren arimak ez daukelako asto baten preziorik.
02. Esku batian boltsa betia eta bestian zigorra eta bestian zigorra botuakaitik eskintzen daude agoan dauken txokorra. Arda gorria izango ei da atrapau arte mozkorra eta zuontzat, andratxuontzat seda hutsezko atorra.

03. Urdai gozoa katilupian  
ipinten jake saguai  
gero ur berroz narru osoa  
kentzen deutsie gaixoai.  
Baina oingoan baserrietan  
bada urdaia zeinbat nahi  
kontra egiten dautsazulako  
gure kortako txarriai.

04. Kapela asko ikusten dira  
etxe ondoko landetan  
esku garbiak daukezan eran  
eingo ei dabe laietan.  
Baina holako gizon koipeak  
hasten badira lanetan  
erregaluak itxikoituez  
soloko artoartetan.



01. **Legez:** bezala.  
**Geutaiko:** geutariko, gutako, gure arteko.  
**Dauenez:** duen ala ez.  
**Horrein:** horien.  
**Daukelako:** daukatelako.  
02. **Daude:** dute.  
**Dauken:** daukaten.  
**Txokorra:** zigarro purua.  
**Ei:** omen.  
**Atrapau:** hatzeman, harrapatu.

03. **Jake:** zaie.  
**Deutsie:** diete.  
**Oingoan:** oraingoan.  
**Dautsazulako:** diozulako.  
**Korta:** ikuilu, tegi.  
04. **Landetan:** motetan, zelaietan, balardietan.  
**Daukezan:** daukaten.  
**Dabe:** dute.  
**Itxikoituez:** utziko dituzte.  
**Erregaluak:** opariak, hots, kaka multzoak artoarteetan.

Bertso hauek Dimako Bargundiako Patxi Bilbaok kantatuak dira. Jasotzailea Karmen Bernaola, Mikel Zarate Iker Mintegiko lankidea. Nik ere zenbait ipuin jaso nizkion Patxi honek - bere kontakerak harritu ninduen- bertso hauei buruz dio hauteskunde batzutan Markinako Jose Luis Lekanda Ayala diputautzara aurkeztu zela, karlisten aldetik edo, eta galtzea gertatu, oso aberatsa izan arren. Eurei jazotako deskalabrua ezin irentsirik, amari negarrez joan omen zitzaion, eta amak, semearen deseperazioa ikusirik, esan omen zion:

– Jose Luistxu, ez negarrik egin. Neuk ekarriko dizut zuri bizikletea.

Eta pozik geratu omen zen. Gero bertsoak atera ziren. Bertsio honetan lau ahapaldi besterik ez dira, baina segur dozenaren bat izango

zirela, ohitura zenez. Eta lau hauetatik, sorta zorrotza izango zela atera daiteke.

## GURE HERRIEN DAGO GIZON BAT

(Jon Enbeita bertsolariak Ereñoko Jorge Elordietari jasoak)

01. Gure herrien dago gizon bat  
ministrue esateutsena  
txindi asko ta aziendatan  
oso aberatsa dana.  
Azino askon jaubie ei da  
adin argidun gizona  
entzute handie deko bedorrek  
dalako gizon zuzena.

04. Tituluren bat bihar leuke ta  
Alfontso datorrenien  
Errepublikak nahi ez badeu be  
emongo deutsegu hurrien.  
Konde ez bada markes egingo  
egunez edo gaubien  
ze gizon zinduek merezi deu te  
erie datorrenien.

02. Jakituriek erantzi deutsoz  
buruko ule guztiek  
errespetaua dala dirudi  
bere soineko janzkiek.  
Mosuak bere biribilek dauz  
gainera bizar zuriek  
ta ikusmen ona dirudienak  
dekoz bai bere begiek.

05. Ondo merezi leukena da ba  
markesaren titulue  
diputadutzet izengo litze  
gizon berebizikue.  
Ministrotzat bat egokie da  
dalako gizon fijue  
aziendakaz be aitue dan lez  
izan lei bai bertakue.

03. Bakezalie dala dinue  
gure herrien berori  
herritarrentzat mesedegine  
txarrik ezer bez inori.  
Kokot ederra deko bedorrek  
perretxiko bat dirudi  
Gil Roblesegaz buztertuteko  
gizon egokie da hori.

06. Perituek be ikeratzen dauz  
berorren jakituriek  
horren parera ez diraz heltzen  
lege-gizonik erdiek.  
Hara ta hona igaro dituz  
munduko herri nausiek  
holango asko ez dauz eukiko  
Españako aberriek.



07. Ameriketan egin ei eban  
bere aberrie ukatu  
lehen Españarra izen zan legez  
Yankia eginda kitu.  
Hango subdito, hemengo baltza  
inok ezin leike aditu  
Españerriek holako asko  
sarriten eukiten ditu.
08. Espāñan daozen agrarioak  
zedaz alkarri lotute  
horren onduen jartzen badirez  
danak dagoz lotsatute.  
Zintarik gabe lur zabalenak  
neurtu egingo lituzke  
mujo-harriak nun behar diran  
laster jakingo ei leuke.
09. Lizarraga zan karlisten buru  
Gipuzkuan izan zana  
Santa Kruz eta bere lagunei  
kalte asko egin eutsena.  
...  
...  
...  
...
10. Santa Kruz jauna hil egiela  
Lizarragak agindu eban  
arerioei parkatu eta  
karlistak hilten zituan.  
Masoien lagun izango zana  
hemen aitu lei behinguan  
handik honako karlistak ere  
jarri leiz bere onduan.
11. Alfontso Karlos bidian ei da  
zaldi zurien ganian  
laguntasuna ez deu faltako  
hona etortzen danian.  
Lizarragaren antzeko asko  
badagoz gure herrian  
... hona etorri baino  
hoba deu egon Austrian.



01. **Esateutsena:** esaten diotena.  
**Txindi:** txintxin, diru.  
**Aziendak:** etxe abereak, behi, ardi, txerri etab. Baita ondasunak ere.  
**Azino:** akzio, kapital zatia.  
**Askon:** askoren.  
**Jaubie:** jabea.  
**Ei:** omen.  
**Entzute:** ospe, fama.
- Deko:** dauka.  
**Bedorrek:** berorrek. Begirunezko tra-  
taera.
02. **Deutsoz:** dizkio.  
**Ule:** ile.  
**Errespetaua:** errespetatua, errespeto-  
duna.  
**Mosuak:** muturrak.  
**Dauz:** ditu.

- Dekoz:** dauzka.
03. **Dinue:** diote, esaten dute.  
**Mesedegine:** mesedegilea, on egilea.  
**Bez:** be ez, ere ez.  
**Kokot:** lepo edo samaren atzekaldea, garondo azpia.  
**Roblesegaz:** Roblesekin.  
**Buztertuteko:** uztartzeko.
04. **Deutsegu:** diogu.  
**Hurrien:** hurrean, hain baten, nonbait, agian.  
**Gaubien:** gauean.  
**Ze:** zeren.  
**Zinduek:** zintzoak, sanoak.  
**Merezi deu te:** merezi du ta, merezi bait du.  
**Erie:** era, aukera, egokiera.
05. **Litze:** litzateke.  
**Berebizikue:** aproposa, berarizkoa, aparta.  
**Fijue:** finkoa, segurra.  
**Aziendakaz:** aziendekin.  
**Aitue:** aditua, dakiena, expertua.  
**Dan lez:** denez, denez gero.  
**Bertakue:** Ministeriokoa esan nahi du, *azienda* ren zentzu bikoitzarekin jokatuz.
06. **Nausiek:** nagusiak, printzipalak.  
**Holango:** honelako.
07. **Izen zan legez:** izan zen bezala.  
**Kitu:** kito.  
**Baltza:** liberalei deitzeko era arbuiozkoa.  
**Leike:** liteke.  
**Aditu:** ulertu, konprenitu.  
**Sarriten:** sarritan, maiz.
08. **Daozen:** dagozen, dauden.  
**Agrarioak:** lur lantzari dagozkionak, lan-  
gileak nahiz adituak.  
**Zedaz:** zetaz, zirikoz.
09. **Eutsena:** ziena.
10. **Egiela:** zezatela.  
**Arerioei:** etsaiei, izterbegiei.  
**Aitu:** ulertu, konprenitu.  
**Lei:** liteke.  
**Behinguan:** behingoan, berahala, bapa-  
tean.  
**Leiz:** litezke.
11. **Zurien:** zuriaren.  
**Hoba deu:** hobe du.

Bertso sorta zorrotza eta bitxia da hau. Baditu esaera txokanteak: *jakituriak erantzi dizkio buruko ile guztiak*, burusoila dela esateko. *Kokot ederra dauka berorrek, perretxikoa dirudi, zetaz alkarri lotuta, zaldi zuria-  
ren gainean...* Dauzkan akats teniko batzuk -segurrenik bitartekoenak, ez egilearenak- orraztuz gero, kantatzean gozatzeko bertsoak dira.

## GURE IRAKASLE SABINEN GOMUTAZ

(Berriatuko Jose Luis Basterretxea "Altzalei" bertsolariaren etxean daukaten paper kopiatu bat)

- |  |   |
|--|---|
| <p>01. Gure didarrak ez entzuteko nun zara, Aita Sabino?<br/>Zuri negarrez urtutzen gagoz alde zenduan ezkino.<br/>Etsaiakaitik zu hil bazinan gure bihotzak zer dino?<br/>Zu hilda bere etsai gogorrek bizi dirala oindino.</p> | <p>04. Goiko Jaun ona, Sabin maitien lan danak artuxuz haintzat berak igaro zitun nekiak daukadazalako gaitzat.<br/>Mingostasunak izaten zitun gozotasunen ordaintzat orain zeruan aulki eder bat emoiozu bere lantzat.</p> |
| <p>02. Oker lekutik, Sabin maitia zuk ein ginduzun zuzendu orain euskeraz Euzkadin eiten nok eingo deusku gebendu?<br/>Geure aberri maite maitetik ez dogu gura aldendu Gora Euzkadi didar eingogu nahita bizitzia kendu.</p>    | <p>05. Goiko Jaun ona, gu zer ginian kendu zeuskunian Sabin?<br/>Negar ulua baino besterik ez zan geratu Euzkadin.<br/>Ama Euskerak negar eiteban ta bere semiok bardin esaten eben: umezurtza lez geratu gara oragin.</p>  |
| <p>03. Etsai gogorrez inguratua zu zinan ludi honetan Euzkadigaitik ibili zinan gudarik gogorrenetan.<br/>Geure aberri guztiz laztana maite zenduan benetan hargaitik zintzo jarraitu zendun bere legiak gordetan.</p>           | <p>06. Beti izan da gozua edo eztitsua gure lurra eta euzkoak azaltzen daben egia barriz zigurra.<br/>Zu zinan, Sabin, buru argiko gizon leial eta zuhurra hargatik azkar sartu zenduan erdaldunetan bildurra.</p>          |

- |   |   |
|---|---|
| <p>07. Abertzaliak zer ziran bere geuk ez genkian antzina Sabin maitiak argitu arte ilunik geunkan adina.<br/>Zer izango zan gaur arte, Sabin zu bizi izan bazina euskaldunentzat poztasuna ta erdaldunentzat samina.</p> | <p>11. Osagarri hain gozatsuakaz osatzen ari zinian ta itxarturik amari adi jarri Euzkadi danian.<br/>Arrotz lainoen euri galkorrek jarraitu eutsun ganian ipar haxetan zer egin zendun irribarre eutsuenian.</p> |
| <p>08. Baina hil zinan igaro ondoren ludiko egun laburrak askori zotin eragin eutsan zure betiko agurrak.<br/>Hobiratuten ginoiazala Sabino zure hazurrak begietatik jausten jakuzan malko ugari samurrak.</p>            | <p>12. Euskal Herriren maitetasunak zinopa ein zinduzana ta Euzkadiren alde eginik hartuten zenduan dana.<br/>Azilan hoge eta bostian betiko Sabin Arana agur eginda itxi zenduan geure aberri laztana.</p>       |
| <p>09. Irakurririk hainbat edesti ta ikasirik askoak jakinik zer zen egin eutsena amari seme gaiztoak didar ein zendun: iratxartuta jarri zaiteze euzkoak ama onari ekarriteko osagarri berezkoak.</p>                    | <p>13. Ikusi zendun samintasunez alde batetik bestera Euzkadi danan ia galdurik askatasun ta hizkera.<br/>Ta bihurturik guztien jaube zan ama ona Euskera zintzo ai zinan zer eskubide zenduan irakastera.</p>    |
| <p>10. Osatu eta goratu zedin zeunkan gurari sutsua askatasunan alde jarririk euzko abenda ahalsua argitu euskun euzkotar askok geunkan sinismen itsua ta zer da azkenez jazo jatzuna zeu izanik hain zintzua?</p>        | <p>14. Ludiko gauza danari agur eginda juan zinian erakutsi on asko emonda Euzkadin zorionian.<br/>Beti zintzua zinialako zeure bizitza danian opa dautsugu gerta zaitiala betiko atsedenan.</p>                  |

15. Zu izan zinan, Sabin maitia  
euzkotar seme azkarra  
zu izan zinan abertzalien  
maixu jakintsu bakarra.  
Orain, Sabin, zuk zeureganduta  
zeruetako batzarra  
maiteko dozu Jaungoiko ona  
eta lehengo Lagi Zaharra.



01. **Didarrak:** deihadarrak, oihuak.  
**Gagoz:** gaude.  
**Ezkino:** ezkerro.  
**Etsaiakaitik:** etsaiengatik.  
**Dino:** dio.  
**Bere:** ere.  
**Oindino:** oraindio, oraino, oraindik.
02. **Deusku:** digu.  
**Gebendu:** debekatu, galazo.  
**Ez dogu gura:** ez dugu nahi.  
**Aldendu:** urrundu, desagertu.  
**Eingogu:** egingo dugu.  
**Nahita:** nahizta, nahiz eta.
03. **Ludi:** lur, mundu.  
**Legiak gordetan:** legeak gordetzen, jagoten, zaintzen.
04. **Hartuxuz:** hartu egizuz, har itzazu.  
**Daukadazalako:** dauzkadalako.  
**Mingostasunak:** garraztasunak, mikaztasunak.  
**Emoiozu:** emaiozu.  
**Bere lantzat:** bere lanen alde. Ala *lantzat*, hots, beretzat lain edo merezitzat? Esakera iluna, batera nahiz bestera-izan.
05. **Zeuskunian:** zenigunean.  
**Ulua:** garraisia, marruma.  
**Eiteban:** egiten eban, zuen.  
**Eben:** zuten.  
**Lez:** bezala.  
**Oragin:** orain. Textuak *orain* jartzen du,

- baina neurrian silaba bat faltako litzateke. Nik uste orijinala *oragin* izango dela. Ez da oso zuzena, baina kultismo hau garai haietan eta batez ere honelako bertsuetan oso erabilia izan da.
06. **Euzkoak:** Euzkadiarrak. Euskaldunak esateko neologismoa.  
**Daben:** duten.  
**Zigurra:** ziurra, segurra, hutsik gabea.  
**Zuhurra:** zolia, argia, ernea.
07. **Genkian:** genekien.  
**Geunkan:** geneukan.  
**Adina:** adimena, burua.
08. **Igaro:** iragan, jasan.  
**Eragin eutsan:** eginarazi zion.  
**Hobiratuten ginoiazala:** hilobiratzera, ehorztera gindoazela.  
**Jausten jakuzan:** erortzen zitzaizkigun.
09. **Edesti:** historia.  
**Eutsena:** ziotena.  
**Iratxartuta:** itzarturik, atzarturik, esnaturik.  
**Ekarriteko:** ekartzeko.  
**Osagarri:** sendagarri, sendakin.
10. **Osatu:** sendatu.  
**Gurari:** nahikari, gogo.  
**Abenda:** enda, arraza.  
**Euskun:** zigun.  
**Jazo jatzuna:** gertatu zaizuna edo zitzaizuna.

11. **Gozatsuakaz:** gozatsuekin.  
**Gozatsu:** gozotasun handikoa, emankorra.  
**Itzarturik:** itzarturik, ernaturik, atzarturik, esnatu-rik.  
**Eutsun:** zizun.  
**Haxetan:** haizetan.  
**Irribarre eutsuenian:** irripar egin zizutenean. Bertsoaren bigarren erdi hau iluna da. Textuak *jorritu, galgorrak, irribarri* jartzen du.
12. **Zinopa:** martiri.  
**Zinduzana:** zintuena.  
**Azilan:** azaroaren.  
**Itxi:** utzi.
13. **Danan:** danean, denean.  
**Jaube:** jabe.  
**Ai zinan:** ari zinen.
14. **Opa dautsugu:** desiratzen dizugu.  
**Zaitiala:** zaitezela.
15. **Lagi:** lege.

## SASIAK SORTZEN DIREZ

(**Doinu Zaharren Inguruan.** 58. or. Dimako Oban jaio eta Mañarian bizi den Luzia Arteagari jasoa. Olatz Narbaiza, Miren Barrutia, Joxe Ramon Arbe... Hamaika partaideren arteko lana. Udako Euskal Unibertsitatea)

01. Sasiak sortzen direz  
solo ederretan  
nekazari alperrak  
bai dabiltz eurretan.  
Eta gauza onari  
itxi ez ernetan  
hori jazotzen jaku  
Euskadi honetan.
02. Karlista ta liberal  
lehenago alkar hiltzen  
odol errekartian  
zirean ibiltzen.  
...  
...  
...  
...
03. Espainia baino Euskadi  
mila urteraino  
zaharra izenda umetzat  
daukie oindino.  
Nik ez dot ikusi ba  
orain arteraino  
alaba zaharragorik  
beren ama baino.
04. Liberal ta karlistak  
finek zireanak  
eusko abertzaletan  
ziraden gehienak.  
Ta guk anai artera  
etortzen direnak  
pozez ta alaitasunez  
hartzen doguz denak.

05. Gizonak ez dau behar  
hitz onik ukatu  
gezurre esan baino lehen  
isilik geratu.  
Ekandu txarrak itxi  
ta onai oratu  
gure dabenak egiz  
Euskadi goratu.

06. Euskotar izan gaitezen  
bihotz gogorrakin  
hitzez abertzaleak  
ta hizkeraz be bardin  
izan zan legez gure  
irakasle Sabin  
nahi badogu zoriona  
jaritxi Euskadin.



01. **Sasiak:** larrak.  
**Solo:** soro.  
**Itxi ez ernetan:** utzi ez ernetzen.  
**Jazotzen jaku:** gertatzen zaigu.  
02. **Errekartian:** erreka, ibai artean.  
**Zaharra:** zaharrao, zaharrago.  
03. **Izenda:** izanik.  
**Daukie:** daukate.  
**Oindino:** oraindik, oraino.  
**Beren:** beraren, bere.

04. **Finek:** finak, zintzoak.  
**Doguz:** ditugu.  
05. **Ekandu:** ohitura, aztura.  
**Itxi:** utzi.  
**Oratu:** heldu, atxiki.  
**Gure dabenak:** gura, nahi duenak.  
06. **Be:** bere, ere.  
**Legez:** bezala.  
**Jaritxi:** eskuratu, erdietsi, lortu.

## BERTSO ERLIJIOZKOAK

Bertso eta kanta erlijiozkoak ugari dira. Sail honek labor samarra badirudi ere, liburu osoan bilduma erlijiozkoa proportziorik handienekoa da askogatik. Kontuan izan Gabonak saileko gehienek eta koplartzako konposizio askok eta askok motibo erlijiosoak darabilte.

## KRISTINAU ONAK

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue. 885. or.)

- |  |   |
|--|---|
| 01. Kristinau onak behar leuke<br>jaian jaian pentsadu<br>aste guztian zeinbat bider<br>ein ete daben pekatu.      | 04. Kristo gure jaunak urteten deutso<br>dana piedadez beterik.<br>-Arima ona, zeuk zer dakazu<br>zeure munduko gauzarik? |
| 02. Kristinau on bat hilten danean<br>egiten dabe bi parte<br>gorputza eroan elizara ta<br>lurraz estalduten dabe. | 05. -Umildadea, karidadea<br>Jauna, ez dakat besterik<br>-Horrexek biak dakazan horrek<br>ez dau besteren beharrik.       |
| 03. Arima ona badoia eta<br>nora dan inok ez daki<br>paradisuko atean dago<br>isilik eta tristerik.                | 06. Aingerutxoak, hartu egizu<br>arima on hau eskutik<br>eroan eizu paradisura<br>beste guztien aurretik.                 |

∞

- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Jaian jaian:</b> jaiero, jai guztietan.<br><b>Ete daben:</b> ote duen.  | 05. <b>Dakat:</b> dakart.<br><b>Horrexek:</b> horiexek.<br><b>Dakazan:</b> dakartzan. |
| 02. <b>Eroan:</b> eraman.  |   |
| 04. <b>Kristinau:</b> giristino, kristau.<br><b>Urteten deutso:</b> irteten, jalgitzen zaio.<br><b>Piedadez:</b> errukiz, urrikalmenez.<br><b>Dakazu:</b> dakarzu. | 06. <b>Egizu:</b> ezazue.<br><b>Eizu:</b> ezazue.                                     |

### AGUR DOLOREZKO AMA

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue. 836. or.)

01. Agur dolorezko  
Ama larritua  
erregina laztan  
errukiz urtua.

03. Zeure zazpi ezpata  
arma zorroztuak  
belan apurtzeko  
deabru galduak.

02. Zeure sabeleko  
seme dan frutuak  
hartu izan deuskuz  
geure pekatuak.

Errepika:

Hartu gaizuz, Ama  
seme nekatuok.



02. **Deuskuz:** dizkigu.

03. **Belan:** bela, berehala.  
**Gaizuz:** gaitzazu.

### ENTZUN EGIZUZ

(Cancionero Popular Vasco, R. M. Azkue. 862. Or.)

01. Entzun egizuz, pekataria  
arima baten negarrak  
zeure burua salbatzerako  
guztiz dirala beharrak.

02. Dolore minez zauden arima  
zer dozun esan eidazu  
zeure negarrez neure bihotza  
erdiratuten deustazu.



01. **Egizuz:** itzazu.  
**Beharrak:** beharrezkoak.  
**Zauden:** zagozan.

02. **Eidazu:** iezadazu.  
**Erdiratu:** erdibitu, pitzatu, hautsi.  
**Deustazu:** didazu.

### HARTU GAIZUZ AMA

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka. Euskaltzaindia - Bilbo)

Hartu gaizuz, Ama  
seme nekatuak.

01. Agur dolorezko  
Ama larritua  
erregina laztan  
errukiz urtua.

03. Zeure bihotzeko  
kanibet sutsuak  
sartu izan deustuz  
geure pekatuak.

02. Oh Rachel ederra  
nekez asetua  
gu semeok gagoz  
negarrez urtuak.

04. Oh Ama biguna!  
Oh errukitsua!  
Arren izan gaitzez  
zeruan sartuak.



**Gaizuz:** gaitzazu.

02. **Gagoz:** gaude.

03. **Kanibet:** ganibet, haizto, labana.  
**Deustuz:** dizkizu.

04. **Arren:** otoi, mesedez.  
**Gaitzez:** gaitezen, gaitezela.

### JESUS ESKATZEN DEUTSUT

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka. Euskaltzaindia. Bilbo).

Jesus eskatzen deutsut  
neuk parkazinoia  
lotsaz beterik nator  
guztiz damutua.

01. Bigundu kristinaua  
bihotz gogor hori  
damuz begiratuaz  
arren arimari.  
Noz arte bihar dozu  
egon pekatuan  
ikusirik zauzala  
ia infernuan?

03. Neure bihotz guztiko  
Jesus txit maitia  
badakit ni naizala  
borregu zuria.  
Egite dongagaz ta  
ibili txarrakaz  
ultzez josi dotzudaz  
oinak eskuakaz.

02. Deiezka daukazu  
zeure Jaun maitia  
bere besoetara laster  
arin jua zaitian.  
Alferrik bizi izan naz  
pentsatu bagian  
nun bihar dodan izan  
hilten nazanian.



**Deutsut:** dizut.  
**Parkazinoia:** barkamena.

**Pentsatu bagian:** pentsatu bagerik, bari-rik, gabe.

01. **Kristinaua:** giristinoa, kristaaua.  
**Arren:** otoi, mesedez.  
**Noz:** noiz.  
**Zauzala:** zagozala, zaudela.

03. **Borregu zuria:** zure borrheroa, zigortzai-  
lea.  
**Dongagaz:** dongarekin, gaiztoarekin.  
**Txarrakaz:** txarrekin.  
**Ultzez:** iltzez.  
**Dotzudaz:** dizkizut.

02. **Arin:** azkar, lasterka.  
**Zaitian:** zaitezen.

### ARANTZAZUKO JAUNGOIKOZKO ERROMERIAN

(Biboko Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako karpeta batean aurkituriko orri musikatu bat)

Erromeria santu honegaz  
Maria daigun goratu  
eta halantxe egingo dogu  
Aita Santua gaur poztu.

01. San Frantziskoren hirugarrengo  
Ordenakoak dan danak  
Arantzazura goazan ahal bada  
itxirik enparau lanak.  
Atsegin hartu egin dagian  
hantxe zain daukagun Amak  
grazian bete nahi dauzalako  
gaur hara heltzen diranak

04. Oh gure Ama, zure nahia zan  
arantza horretan jartea  
ta birtutezko lorategira  
leku hau bihurtutea.  
Nondik urten zan Mejikorako  
parebagako lorea  
Frai Zumarraga, zabaldu teko  
Indiatarrari fedea?

02. Bera da zeru-lur bientzako  
zorionean sortua  
ekatx artean gabilzanentzat  
salbazinoko portua.  
Bera da gure Ama, bizi-tza  
gozotasuna osua  
bera aingeruen zoragarria  
poztuteko duin zerua.

05. Gau baten zelan pozik egon zan  
umilik zure aurrean  
San Inazio dontsua bere  
erregu bero artean.  
Zuk ez gaituzu gu bere poztan  
nahibagietan lurrean?  
Nogana doaz itsas-gizonak  
estutasunak hartzean?

03. Izarraitz eta Aizkorri baino  
sendoagoa bera da  
olatu harro infernutarrak  
geratu ahal daikezana.  
Luzifer bere harrokerian  
oinpera sartu ebana  
bera bakarrik sortueratik  
dalako orbanik baga.

06. Hortixek zagoz Euskal Herriko  
seme guztiai begira  
euren kontrako arerioak  
gaur, Ama, gitxi ez dira.  
Zugana gatoz, Ama maitea  
mantu urdin horren azpira  
txitak doiazan legetxe bardin  
amaren hego azpira.

07. Agur zeruen edertasuna  
larrosa zuri gorria  
lorarik onen ederrenakaz  
Jaunak berberak jantzia.  
Arantza baga arantza artean  
ikusgarriri jagia  
zaindu egizu zaindu bai hortik  
Oh Ama, Euskal Herria!



- Honegaz:** honekin.  
**Daigun:** dezagun.
01. **Itxirik:** utzirik.  
**Enparau:** gainerako, gainontzeko.  
**Dagian:** dezan.  
**Dauzalako:** dituelako.
02. **Ekatz:** ekaitz, denborale.  
**Duin:** lain, gai.
03. **Daiketzana:** ditzakeena.  
**Ebana:** zuena.  
**Baga:** barik, gabe.
04. **Bihurtu:** bilakatu, gauza bat beste egin.
05. **Zelan:** nola.  
**Dontsua:** dohatsua, santua.  
**Gu here:** gu ere.  
**Nahibage:** nahigabe, atsekabe, samin.  
**Nogana:** norengana.
06. **Zagoz:** zaude.  
**Arerioak:** etsaiak, izterbegiak.  
**Doiazan:** doazen.  
**Legetxe:** bezalaxe.
07. **Ederrenakaz:** ederrenekin.  
**Jagia:** jaikia, goratua.  
**Egizu:** ezazu.

## LAUKO LABURRAK SOINU ZALENTZAKO

(Bilkoko Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan aurkituriko paper solte bat).

01. Zelakua dan gure  
munduko bizitza  
halantxe izango da  
gero heriotza.
02. Asko bizi ohi dira  
munduan erorik  
zeruak itxaroten  
nekatu bagarik.

03. Zenbat dagoz erreten  
ifernu barruan  
uste ebenak egon  
betiko zeruan?
04. Zuri beste hainbeste  
jazoten bajatzu  
belu ezagututa  
zer egingo dozu?
05. Zeure burutazinoe  
lagunen esanak  
ai zein zorigaiztuan  
galdu zenduzenak!
06. Munduko ezti gozo  
poztu zenduzenak  
ez ditue izango  
azken atseginak.
07. Arimiagaz ahaztu  
bizi atseginez  
zelan dozu ustia  
amaitzeko onez?
08. Jaunaren berbiari  
burla edo gortu.  
Beti sinisten dozu  
biguna bilatu?
09. Jaun onak aginduak  
imini zituan  
gordetako, sartuko  
baginan zeruan.
10. Bere berba handiak  
ez dau huts emongo  
oraingo isiltasuna  
dau bai agertuko.
11. Harako azkeneko  
egun hasarrian  
agertuko da ondo  
guztien aurrian.
12. Ez da ez han izango  
burla ta barrerik  
ez munduko aldeko  
lagun pozgarririk.
13. Asko badira bere  
bide nasaikuak  
bardin hartuko ditu  
epai betikuak.
14. Askoren gatx eginak  
poztuten bazaitu  
guztientzat lekua  
izentaurik dozu.
15. Zer dira bere aurrian  
munduko gizonak  
guztiak izan arren  
ez badira onak?
16. Oh Jaun haundi ta jaube  
beti betikua  
egizu izan nadila  
zure aldekoa.



17. Ondo bizi nadila  
bai ondo hilteko  
betiko zeruetan  
zugaz egoteko.

Orriak bertsoen ondoren dio: "Egunoroco lan-on ta erregubak meza santuba ondo entzuteko, konfesino eta komuninoya biar da leguez eguiteko prestaera eta zucen-bidiac, etc, emoten ditu arguitara Vizcaico nequezalien adisquide batec. Biardan baiemonagaz. Bilbon: Jose Basozabal-en Sillutegian 1.820 garren urtean"



- |  |  |
|--|--|
| 01. <b>Zelakua:</b> nolakua.<br><b>Halantxe:</b> halaxe.                           | 07. <b>Arimiagaz:</b> arimarekin.  |
| 02. <b>Bagarik:</b> barik, gabe.   | 08. <b>Berbiari:</b> hitzari.<br><b>Bilatu:</b> aurkitu. Beti biguna aurkitzea uste al duzu? |
| 03. <b>Dagoz:</b> daude.<br><b>Erreten:</b> erretzen.<br><b>Ebenak:</b> zutenak.   | 09. <b>Gordetako:</b> gordetzeko.  |
| 04. <b>Jazoten bajatzu:</b> gertatzen bazaizu.<br><b>Belu:</b> berant, berandu.    | 12. <b>Barrerik:</b> irririk.  |
| 05. <b>Burutazinoe:</b> burutapen, pentsakizun.<br><b>Zenduzenak:</b> zintuztenak. | 14. <b>Gatz:</b> gaitz.<br><b>Izentaurik:</b> izendaturik.                                   |
| 06. <b>Ditue:</b> dituzte.   | 16. <b>Jaube:</b> jabe.  |
|  | 17. <b>Zugaz:</b> zurekin.   |

## SAN INAZIO LOIOLAKORI GOZUAK

(Baskischen Sprache, 1967, 77. or. Anthropological publications Oosterhout - Nederlande)

Sarrera:

Deiez dago Ondarrua  
auaz eta gogotik  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.

- |  |  |
|--|--|
| 01. Loiolatik zuk dozu<br>aitaren jatorria<br>amaren hidalgia<br>Ondarruan daukazu.<br>Halan Kiputz ta Bizkaiak<br>zaukez erdibiturik<br>San Inazio zerutik<br>iguzu zeure eskua.      | 03. Agertu nahi badozu<br>dozun esku handia<br>zure asaben herria<br>dohez bete bihar dozu.<br>Hau gagoz eskatuten<br>berbia zoliturik<br>San Inazio zerutik<br>iguzu zeure eskua.       |
| 02. Likuako jauregia<br>dago zahartuta hemen<br>ta zein ezaguna lehen<br>orain baina jausia.<br>Ai imini ahal bagengi<br>Loiola bat eginik<br>San Inazio zerutik<br>iguzu zeure eskua. | 04. Ez handi ez txikinik<br>arkitu da munduan<br>euren bihar-orduan<br>lagundu ez dozunik.<br>Itxiko ete dozu bada<br>zeure herria bakarrik?<br>San Inazio zerutik<br>iguzu zeure eskua. |

05. Geure bihar estuak  
gakaz gu gaur zugana  
bakizu ondo dana  
biletia santuak.  
Guk esketan doguna  
emoiguzu bertatik  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
06. Asko da lehen munduan  
zuk egin zenduana  
gatoz bada zugana  
zagozala zeruan.  
Ez zinan horra juan  
egoteko alperrik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
07. Lehen ta gero bat zara  
ongina zu bai beti  
ez uka arren guri  
amarena bazara  
inok bere ez dauka  
guk beste eskubiderik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
08. Lihorrez ta itsasoz  
zenbat on egin dozu?  
Zerbait itxi badozu  
izan da gure alperrez.  
Gura dozun guztia  
daukazu zuk eginik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
09. Ikusiko ez genduan  
Frantsesen Esetsian  
garau bat geure herrian  
euki bagendu orduan  
zu legez Panplonan  
koldartzen ez danik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
10. Herri dana errerik  
lehen legez zure etxia  
jausi бага Ornia  
suak bota bagarik.  
Ez da ez mirari hau  
eukiteko ahazturik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
11. Zenbiltzala itxasuan  
jagi jatzun trujua  
zeruraino olatua  
ta zu bisuts barruan.  
Baina etxatzun ikusi  
ikararen apurrik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
12. Zu hartu etzenduzan  
ontzia hondaturik  
ta jentia itorik  
behinguan geratu zan.  
Baina zugaz juazanak  
izan ez eben kalterik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.

13. Behin baino sarriago  
arkituten gara gu  
itxasuan larri-estu.  
Nok lagundu ez dago.  
Ai gomutau bagina  
zugaz ordu hatatik!  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
14. Ez genkian guk ez lehen  
ziniana geuria  
zure amaren etxia  
geunkala bertan hemen.  
Ez gara ez biziko  
aurreruntzian ahazturik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.
15. Izanik zu beti  
hain anima zalia  
Ondarruako jentia  
kendu ez eizu gogoti.  
Egon gaitian gero  
zeruan alkaturik.  
San Inazio zerutik  
iguzu zeure eskua.



- Auaz:** ozenki, oihuz.  
**Iguzu:** egiguzu, emauguzu.
01. **Hidalgia:** aintosemego, kaparetasun.  
**Zaukez:** zauzkate.
02. **Jausia:** eroria.  
**Begengi:** begeneza.
03. **Dohez:** dohaiz, gauza onez.  
**Gagoz:** gaude.  
**Berbia:** hitza.  
**Zolitu:** bizkortu, argitu.
04. **Itxiko:** utziko, lagako.
05. **Bihar:** beharrizan, premia.  
**Gakaz:** gakartza.  
**Biletia:** bilatzea.  
**Esketan:** eskatzen.
06. **Zagozala:** zaudela.
07. **Ongina:** ongilea, on egiten duena.  
**Guk beste:** guk bezanbat, guk aina.
08. **Lihorrez:** lehorrez.
09. **Esetsian:** erasoan, oldarrean.  
**Garau bat:** ale, bihi. Hots, ez genuen ikusiko garau bat ere, inor ere.  
**Legez:** bezala.
10. **Baga, bagarik:** barik, gabe.
11. **Jagi jatzun:** jaiki, altxatu zitzaizun.  
**Trujua:** truxua, euri edo ur kopuru oso handia.  
**Bisuts:** haize eta eurizko zirimol bortitza.  
**Etxatzun:** ez zitzaizun.
12. **Etzenduzan:** ez zintuen.  
**Behinguan:** berehalaxe, atoan.  
**Zugaz:** zurekin.  
**Juazanak:** zihoazenak.  
**Eben:** zuten.
13. **Gomutau:** oroitu, gogoratu.  
**Hatatik:** hartatik.

14. **Ziniana:** zinena, zinela.  
**Geunkala:** geneukala.  
**Aurreruntzian:** hontaz aurrera, hemendik aintzina.
15. **Eizu:** ezazu.

Bertso hauek nahiko kutsu zaharra daukate, baita halako xarma bat ere. Egitura ere nahiko bitxia daukate, 1-4, 2-2 eta 6-7 puntuak errimatuz, azken biok ahapaldi aldakorra errepikarekin lotzen dutelarik. *Bertsuak* orde z *gozuak* hitza ere ohargarri da.

## AMA BIRJINA BEGOÑAKUARI ("Gernikako erromesen kantia")

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Paperak sinadura gisa T. de O. jartzen du. Egilearen izen-deituren inizialak segurrenik).

Gernika aldetik  
 Begoñara  
 gatoz zu, Ama  
 onretara.

01. Euskaldun kristinauak  
 guazan Begoñara  
 geure zain dago bada  
 guztioren ama.  
 Ez da ez damutuko  
 hara datorrena  
 goratu eta poztuten  
 amarik onena.

02. Begoñako Birjina  
 mirariz betia  
 noragino heldu ez da  
 zure entzutia?  
 Larregi ez da bada  
 gaur zuk ikustia  
 erromesez beterik  
 eleixa guztia.

03. Ez dago baserririk  
 ez itsas hegali  
 zure entzute ona  
 hartu ez dabenik.  
 Horregaitik guztiok  
 poz handiz beterik  
 gaukazuz hemen, Ama  
 oinetan etzunik.

04. Zu esleidu zenduzan  
 geure Jaungoikuak  
 amaia euki leian  
 arin pekatuak.  
 Ez dau zer ikusirik  
 zugaz infernuak  
 gorde zenduzalako  
 Aita zerukuak.

05. Zarian ezkerro bada  
 ahaltsu eta handia  
 euki egizu, Ama  
 gugaz errukia  
 zuk ondo bai dakutsu  
 geure miseria  
 ukatu ez daikizun  
 miserikordia.

06. Itxaropen honegaz  
 danok sendaturik  
 parka-eske gaukazuz  
 guztiz damuturik.  
 Grazia bada, Ama  
 guretzat zerutik  
 ez daigun guk ikusi  
 inoiz infernurik.

07. Agur honen bestegaz  
 Maria, guztiok  
 hemendik eta handik  
 zugana etorriok.  
 Ez gara gu ahaztuko  
 Begoñan egona  
 Jaunak gorde zaizala  
 geure Ama ona!



**Onretara:** ondraztera, ohoraztera, onestera.

01. **Kristinauak:** kristauak, giristinoak.  
 02. **Noragino:** noraino.  
**Larregi:** gehiegi.  
**Eleixa:** eliza.  
 03. **Hegali:** bazterrik, ertzik.  
**Dabenik:** duenik.

**Gaukazuz:** gaukazuz.  
**Etzunik:** etzanik, ahospezturik.

04. **Esleidu:** esleitu, izendatu, zerbaiterako erabaki.  
**Zenduzan:** zintuen.  
**Leian:** zezan.  
**Zugaz:** zurekin.  
**Zenduzalako:** zintuelako.

05. **Egizu:** ezazu.  
**Gugaz:** gurekin.  
**Dakutsu:** ikusten duzu.  
**Daikizun:** dakizun. Forma ilun samarra. Badirudi *daiguzun* edo *daiskuzun* esan nahi dela, hots, *ukatu ez diezaguzun*.
06. **Honegaz:** honekin.  
**Daigun:** dezagun.
07. **Honenbestegaz:** honenbestekin.

## ANA BIRJINA ORDUÑAKOAREN

aingeru soinuak.

(Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. Baita *Euskal Parlanzu edo Piastac Marquiñan*, Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo - 4583"

01. Aingeru ederrendako  
 al da hemen zerurik?  
 Masustapian dabilizan  
 artzainakaz nahasturik  
 hor dagoz agur agurka  
 belaunak makurturik  
 urrezko hegoak zabal  
 zeruan lez kantaurik.
02. Haitzetan dardaturik  
 soinu gozo pin pina  
 kantu lirainez goitutzen  
 dihardue ahalegina.  
 Gizon guztien poza ta  
 zoragarri Birjina  
 Jainko beraren Ama ta  
 zeruko Erregina.
03. Kantu hoiek liri liri  
 han dijuan haizetan  
 irristaka mendi tontor  
 ibar da zelaietan  
 hor hemen atsedendurik  
 pitxilora gainetan  
 soinu berriak sorturik  
 txorien mokoetan.
04. Hoiek aitzeko goizago  
 euzkia da jaikitzen  
 Gorbearen lepo mardul  
 danak dira zutitzen.  
 Iturri gorriko gainak  
 gora zuzen ziritzen  
 ta euren errekatxuak  
 pilpil zilipurditzen.

05. Bitartean aingeruak  
 agitz esaten due:  
 "Gizon onak, gizon onak  
 ondo adi zazue.  
 Zuen artian Birjina  
 zenbat bider dozue?  
 Mila ta gehiago urtez  
 herritar daukazue.
06. Antxina antxina agertu zan  
 Euskal Herri aldian  
 harrizko pilare polit  
 eder baten gainian  
 hil baino lehen Diegori  
 Ibaibero ertzian  
 maiteko zuala beti  
 España adiraztian.
07. Hona barriro Lurdesen  
 Euskal Herri onduan  
 pekatariak deika  
 zelan pozik dagan.  
 Ai gizonak, ai gizonak!  
 Har zazue goguan  
 zeuek gaitik Birjin Amak  
 zenbat egiten duan.
08. Zeuen asabetan berak  
 sutu eban fedea  
 Jesusen sinistia ta  
 Jainkozko amoreta.  
 Itsasoz eta ligorrez  
 gura dau azaltzea  
 edozein lekutan beti  
 zeuen ama maitea.
09. Masusta arbola gainian  
 ikusirik Maria  
 artzain txabola onduan  
 zeruko edergarria.  
 Nor geldi harritu baga  
 bere bihotz guztia  
 ezagunik zenbat maite  
 daben Euskal Herria?
10. Arantzazun da Begoñan  
 Itziar da Arraten  
 Aizkibel da Arzenigan  
 Ibañeta, Garesen  
 zenbat mesedez jendiak  
 berak dituz betetzen  
 bere mantupera beti  
 gogoz hurbil ditezen?
11. Zoazte bai mantupera  
 Birjina Amarengana  
 arinduko deu poz pozik  
 zeuen neke ta lana.  
 Zeron arimak garbitzen  
 egin zuek ahal dana  
 berak eruan artian  
 zerura Jesusgana.
12. Han zeuek, hantxe geu bere  
 aingeru ta gizonak  
 azkan-gabiak daukaguz  
 Jaungoikoak emonak  
 bihotza betetzen daben  
 betiko zorionak  
 ezin aserik egundo  
 Jaunagaz han egonak".



01. **Ederrendako:** ederrentzat.  
**Artzainakaz:** artzainekin.  
**Dagoz:** daude.  
**Hegoak:** hegalak.  
**Lez:** legez, bezala.  
**Kantaurik:** kantaturik.
02. **Dijuan:** doan.  
**Pitxilora:** bitxilore.
04. **Aitzeko:** entzuteko.  
**Lepo:** bizkar.
05. **Agitz:** sendoki, gihartsu.  
**Due:** dute.
06. **Pilare:** zutoin, zutabe.  
**Adiraztian:** España beti maiteko zuela adieraztean.
07. **Zelan:** nola.
08. **Eban:** zuen.  
**Ligorrez:** lehorrez.  
**Gura dau:** nahi du.
09. **Geldi:** gelditu.  
**Baga:** barik, gabe.  
**Daben:** duen.
11. **Deu:** du.  
**Zeron:** zeuen.  
**Eruan:** eraman.
12. **Azkan:** azken.  
**Daukaguz:** dauzkagu.  
**Daben:** duten. Azken gabeak dauzkagu bihotza betetzen duten betiko zorionak, Jaungoikoak emanak.

## INDIETAKO APOSTOLUA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 103. or. R. M.Azkue)

01. Indietako apostolua  
aita Jabier gurea  
pelegrinuen jantzian dator  
bidezkarren trantzean.
- Ez aurrera joan, gelditu hemen  
gure huria goratzen  
behar zaituguz betiko  
Aita Jabier Frantzisko.
02. Lekeitioko huri noblea  
oh zeure zoriz betea  
Napolestikan ekarri dabe  
Naparroako semea.
- Ez aurrera joan, gelditu hemen  
gure eskariak entzuten  
behar zaituguz betiko  
Aita Jabier Frantzisko.



01. **Pelegrinuen:** erromesen.  
**Bidezkarren:** bidez bide dabilzanen.  
**Huria:** hiria.
02. **Dabe:** dute.

## AITA SAN ANTONIO

(Bertso berriak, San Antoniori atariak. Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

01. Aita San Antonio  
milagroz betia  
harriturik jarri da  
hemengo jentia.  
Abadinoko herriko  
ein dabe juntia  
Santu gloriosuok  
behera bajetia.
02. Abadinoko herriko  
herrematantiak  
mesede izen dabe  
santua ekartiak.  
Sikaturik egozan  
artuak guztiak  
estututzen zituzan  
hamarren batziak.
03. San Antonio Abat  
bigarren Padua  
santu gloriosookaz  
beuku anparua.  
Arima garbijegaz  
eskatzen badua  
orduan lograukusku  
geure sokorrua.
04. Oraingua izen da  
milagro handije  
hain laster mudatzia  
lehengo eguraldije.  
Artietan izen da  
denpora argije  
ekarri ordukoxe  
ieban eurije.

05. Hasarraturik geunian  
Jaungoiko handije  
ezpatia ganian  
heldu jakun ije.  
Arren eukizu, Jauna  
gugaz errukije  
pekatari gaisuok  
badegu premije.

06. Ije beterik dago  
guretzat neurrije  
ifini ezpajako  
enpeinu handije.  
San Antonio eta  
Birjina Marije  
honek aplakau dabe  
hasarre gurtzije.

07. Mila ta zortzirehun da  
berrogeta hamazazpi  
nekazale gehienok  
parau gera azpi.  
Jornalak eskasak da  
ogije garesti  
por fuerzakua da  
bizitia gazki.

08. Zelan emongo deusku  
Jaungoikuak gauzona  
ez bada akordatzen  
beragaz gizona?  
Zeugaz ahazturik gagoz  
hainbeste persona  
larrei parkatzen kusu  
gure Jesus ona.

09. Jaungoikuak gure dau  
bera ametia  
berak gordeko badau  
munduko jentia.  
Nahiz dala jaieguna  
eta domekia  
egun santu honetan  
bera ondretia.

10. Moises haren denporan  
gizakume bati  
bizije kendu eutsen  
egur batzigaiti.  
Jaungoikuak esanda  
Moisesi zeruti  
harrike hil daijien  
kentzeko herriti.

11. Lehen hainbat kastigu ta  
orain danak parkatu  
ha baino lan gehiagogaz  
egin du pekatu.  
Santuok ez balebe  
Jaungokuari eskatu  
ezin gentekez inoz  
gu Zeruen sartu.

12. Biba San Antonio  
Padua ta Abat  
askok pentsatzen dabe  
bijek direla bat.  
Santuok bijok dira  
onak enpeinutzat  
Santu distingeduek  
Jaungoikoarentzat.

13. Mana izena eukan  
erremediuz  
osatuten zituzan  
euren milagruaz.  
Arkantzua bazeukan  
Jesus dibinuaz  
oin ere nausi dire  
euren enpeinuaz.

14. Erdu neure jentiak  
San Antoninora  
hara nahi ez dabena  
ez juen inora.  
Lagun daiogun danok  
bere parajera  
premina guztietan  
han ongo da bera.

15. Agustuko hilaren  
hamairugarrena  
Santu hau Urkiolatik  
bajatu dabena.  
Hogeita bederatzien  
eruen dabena  
Abadinon egon da  
ordurik eta hona.

16. Biba Abadiano  
santu honen herrije  
bere kostuz eieben  
kamino berrije.  
Lastimez da birieiu  
lurre ta harrije  
haren kostuz egilei  
dana urregorrije.

17. Santu honi bihotzetik  
eskatu ezkeru  
faltatuko deuskunik  
nik ez dot espero.  
Aurretitez ein arren  
siku eta bero  
eguraldi ederrak  
egin deuskuz gero.

18. Obra onak egiten  
ez izen nagijek  
ondo santifikadu  
domeka eta jaijek.  
Arkantzau nahi badoguz  
betiko gloriyek  
hau desiatutzen du  
Juan dendarijek.

∞

01. **Milagro:** mirakuluz.  
**Ein dabe:** egin dute.  
**Juntia:** junta, batzarra, bilkura.  
**Bajetia:** bajatzea, jaistea.

02. **Herrematantiak:** badirudi *herremanda-*  
*diak* edo *hermandadeak* —aro, elkarte—  
izan behar duela.  
**Sikaturik:** lehorturik, idorturik.  
**Egozan:** zeuden.

**Zituzan:** zituen.  
**Hamarren batziak:** hamarrenak ba-  
tzeak, biltzeak.  
**Hamarren:** hamarretik bat emateko zer-  
ga erlijiosoa.

03. **Beuku:** badaukagu.  
**Garbijekaz:** garbiekin.  
**Eskatzen badua:** eskatzera badoa.  
**Lograukusku:** logratuko, lortuko, esku-  
ratuko digu.

04. **Eguraldije:** eguraldia.  
**Artietan:** artean, ordurarte.  
**Eieban:** egin eban, zuen.
05. **Geunian:** eguenian, zegoenean.  
**Jakun:** zitzaigun.  
**Ije:** ia, kasik.  
**Gugaz:** gurekin.  
**Premije:** premia, premia, beharra.
06. **Ezpajako:** ez bazaio.  
**Enpeinu:** bitartekotasun, influentzia.  
**Honek aplakau dabe:** hauek aplakatu, baretu, ematu dute.
07. **Nekazale:** nekazari.  
**Parau:** paratu, jarri gara.  
**Porfuerzakua:** nahitaezkoa, ezinbestekoa.  
**Bizitia:** bizitzea.
08. **Zelan:** nola.  
**Deusku:** digu.  
**Akordatzen:** oroitzen, gogoratzen.  
**Beragaz:** berarekin.  
**Gagoz:** gaude.  
**Larrei:** larregi, gehiegi.  
**Parkatzen kusu:** parkatzen deuskuzu, diguzu.
09. **Gure dau:** nahi du.  
**Ametia:** amatzea, maitatzea.  
**Domekia:** igandea.  
**Ondretia:** ondratzea, ohoratzea.
10. **Bizije:** bizia.
- Eutsen:** zioten.  
**Batzigaiti:** batzea, biltzeagatik.  
**Daijen:** dezaten.
11. **Ha:** hura.  
**Egin du:** egin dogu. Dogu-dou-du.  
**Balebe:** balute.  
**Gentekez:** gintezke.
12. **Distingeduek:** apartak, gutxi bezalakoak.
13. **Eukan:** zeukan.  
**Osatuten:** osatzen, sendatzen.  
**Arkantzua:** lortzeko, erdiesteko ahalmena, irismena.
14. **Erdu:** zatozte.  
**Juen:** joan.  
**Daiogun:** diezaiogun.  
**Ongo da:** egongo da.
15. **Eruen:** eraman.  
**Ordurik:** ordutik.
16. **Eieben:** egin eben, zuten.  
**Birieu:** bire, bide hau.
17. **Deuskunik:** digunik.  
**Aurretijez:** aurretiaz, alde aurretik, alde aitzin.  
**Siku:** lehor, idor.  
**Deuskuz:** dizkigu.
18. **Nagijek:** nagiak, motelak.  
**Santifikadu:** donetu, santu egin.  
**Arkantzau:** alkantzatu, lortu, erdietsi.  
**Badoguz:** baditugu.

## AGUR BALENTIN BERRIOTXOA

(Gozuak Berriotxo Balentin zorionekuari. Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

Agur Balentin Berriotxo  
 Elorrioko loria  
 zure pekuan hartu egizu  
 Euskal Herriko jentia.

01. Dakust argitsu ta zoragarri  
 izar bat zeru ederrian  
 bere argiaz gu gaukazala  
 gozatsu hemen lurrian.  
 Berriotxo da izar eder hau  
 adi aingeruen artian  
 palma ederraz bere eskuan  
 gloriaz bete betian.
02. Jargoi eregi ta eder horretik  
 zagoz bai guri begira  
 Jaungoikuaren eta antxinako  
 Lauburu zalen herrira.  
 Zeruko dohe dontsotasunak  
 isuri Euskal Herrira  
 esku zabalaz bota ugari  
 Elorrioko hurira.
03. Larrosa gorri usain gozatsuz  
 karidadiaz sutua  
 bihotz zailenak bigunduteko  
 asko zana ta nahikua  
 zeunkazun zugan, zinduzalako  
 maitetu lagun urkua  
 baina barruko gar gorienaz  
 gainezka Jaun zerukua.
04. Su gar honegaz, adore handiaz  
 zinan jua Tonkin aldera  
 bildurrik baga zure ariman  
 Apostoluen antzera  
 hango aldeko jentil danari  
 fedia irakastera  
 eta Jesusek erosiriko  
 arimak zerututera.
05. Handiak ziran euki zinduzan  
 nekiak Tonkin aldian  
 barriz oinaza ta atsakabiak  
 ezin zenbatu ahalian.  
 Mendirik mendi, basorik baso  
 gosiaz hiltan bidian  
 ipintiarren arimatxu bat  
 Jesukristoren fedian.
06. Deunga bat legezu zinduezan  
 ipini kaiolapian  
 ukatu daizun zeure fedian  
 neke ta oinaza artian.  
 Baina zengozan katez loturik  
 uren bitsen gan-ganian  
 ta emon zenduan odol gutzia  
 pozez ta atsegin betian.

07. Mundua mundu dirauan arte  
eta eguzkia jiretan  
izar artian dabilen hainbat  
zeru urdin zabal goietan  
gizon guztiak santututeko  
negarrezko ibar honetan  
irakatsirik nahikua dauke  
zure egikera danetan.

08. Dantzuzuz orain, gure Balentin  
zagozan jargoi altutik  
ama txit maite dontzeil garbiak  
isuri daizan zerutik  
dohe ta grazi ugarienak  
ta eruan gaizan eskutik  
zure ondora ta beragana  
bizi garian ermutik.



**Pekuan:** pekoan, karguan, ardurapean,  
zainpean.  
**Egizu:** ezazu.

05. **Barriz:** ostera, ordea.  
**Oinaza:** nahigabe, samin, min zorrotz.  
**Ipintiarren:** ipintzeagatik.

01. **Dakust:** ikusten dut.  
**Gaukazala:** gauzkala.  
**Adi:** begira, ernai.  
**Ederraz:** ederrarekin.

06. **Deunga:** gaizto.  
**Legez:** moduan, bezala.  
**Zinduezan:** zintuzten.  
**Daizun:** dezazun.  
**Zengozan:** zeunden.

02. **Jargoi:** jargi, jarleku, tronu.  
**Eregi:** altu, gora.  
**Zagoz:** zaude.  
**Dohe:** dohai.  
**Dontsotasun:** santutasun.  
**Hurira:** hirira.

**Bitsen:** bitsaren, aparraren.  
**Gan-ganian:** gain-gainean.

03. **Zeunkazun:** zeneukan.  
**Zinduzalako:** zenituelako.

07. **Jiretan:** jiratzen, biratzen, itzulka.  
**Dauke:** daukate.  
**Egikera:** egintza, egite.

04. **Honegaz:** honekin.  
**Baga:** barik, gabe.  
**Zerututera:** zeruratzera.

08. **Dantzuzuz:** entzuten dituzu.  
**Zagozan:** zauden.  
**Daizan:** ditzan.  
**Eruan gaizan:** eraman gaitzan.  
**Ermutik:** eremutik, mortutik.

## SAN MIGEL DOGU

(Cancionero Popular Vasco, 902. or. R.M. Azkue)

San Migel dogu geure patroia  
jarraitu ondo berari  
zapalduteko zintzo burua  
infernuko dragoiari  
mundu honetan egin ez daigun  
sekula gatzik inori.

Izanik aldi hatan  
zeruko jentea  
alde bat guztiz ona  
deungea bestea  
esetsi gogor batek  
birrindurik Luzifer  
geratu zan kapitan  
zeruko San Migel.

Bernagoitiko aldaera:

San Migel aingerua  
zeru altuetan  
dago gure arimak  
errezi bieran.



**Patroia:** zaindaria, begiralea.  
**Daigun:** dezagun.  
**Gatzik:** gaitzik.  
**Hatan:** hartan.

**Deungea:** gaiztoa.  
**Esetsi:** eraso, oldarraldi.  
**Birrindu:** xehatu, haustu, txikitu.  
**Errezibietan:** errezibitzen.



## URIBARRIKO LIRIO EDER

(Durangaldeko Andre Mari eta gabon-kanta zahar batzuk zortzikoan, Xabier Altzibar. **Euskeraren Iker Atalak 6** - Labayru Ikastegia, 35. or.)

Ze u bihar dan legez alabetako  
nok izango dau gaur mina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina?

01. Manso Lopezen debozinoak  
ezin aurkitu eikian  
prenda hobarik Durangorentzat  
bere ondasunen artean.  
Bere izena ahaztu ze zidin  
eregi eban Imajina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
02. Kunplidu ez eban bere gustua  
bera bizi zan artean  
baina agindu eban egin zidila  
azkango borondatean  
Elexa eder bat han ifinteko  
zeruetako erregina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
03. Andra Maria Arandoñoko  
(zein zan bere lehengusina)  
erakutsi zan enkargu honetan  
ondo dobotea eta fina.  
Bere lurrean ifinten ebala  
Serafinen Serafina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
04. Zeruko ondasun parebagean  
izan zedintzat komuna  
huri noble hau nahi izan eban  
egin Jaubea eta Jauna.  
Zeuk bakarrikan pagadu zeinke  
zeure honelako ongina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
05. Joia eder hau beretu azkero  
Durangoko herri nobleak  
bera adoretan ifinten ditu  
bere kuidadu guztiak.  
Ezin hobeto enpleadu leite  
nola zeugan ge(u)re ahalegina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
06. Ondo pagetan dozu andrea  
deutsuen debozinoa  
mesede baga itxi bagarik  
inoren petizinoa.  
Hagaiti zara elexa honetan  
gure Patrona egina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.

07. Hainbat mirari ikusten dogu  
geure begien aurrean  
zeinda uste dogun, Ama maitea  
zaukaguzala lurrean.  
Baia bakigu geuk zariana  
zeruetako erregina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.
08. Nor izango da egongo dana  
nobena hau akabadurik  
bere pena eta miseriaren  
konsueloa bagarik,  
izanik bere debotoentzat  
hain ongi egila fina  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.



- Legez:** moduan, bezala.  
**Alabetako:** alabatzeko.  
**Nok:** nork.  
**Asunzinoeko:** asuntzionario, asuntzionario.
01. **Debozinoak:** debozionarioak, debozioak.  
**Eikian:** zezakeen.  
**Ze zidin:** ez zidin, ez zedin. Forma zaharra.  
**Eregi eban:** eraiki zuen.
02. **Kunplidu:** kunplitu, bete.  
**Azkango:** azkenengo.  
**Ifinteko:** ipintzeko.
03. **Debotea:** *debotoa*'ren femeninoa.
04. **Zedintzat:** zedin.  
**Komuna:** parteko, kide.  
**Pagadu:** pagatu, ordaindu.  
**Zeinke:** zenezake.  
**Ongina:** ongilea, on egiten duena.
05. **Joia:** bitxia.  
**Beretu azkero:** beregandu, bere eginez gero.  
**Adoretan:** adoratzeko.  
**Kuidadu:** kontu, ardura.  
**Enpleadu:** enplegatu, erabili.  
**Leite:** liteke.
06. **Pagetan:** pagatzen, ordaintzen.  
**Deutsuen:** dizuten.  
**Baga:** barik, gabe.  
**Itxi:** utzi.  
**Petizinoa:** eskea, eskaera.  
**Elexa:** eliza.
07. **Zeinda:** ezen, hala nola.  
**Zaukaguzala:** zauzkagula.  
**Baia:** baina.  
**Bakigu:** badakigu.  
**Zariana:** zarena, zarella.
08. **Nobena:** bederatziurrena.  
**Egila:** egile.

Bertso hauen egitura gozoa eta sarkorra da. Lehen bi puntuak alde batera eta hirugarrena errepikari lotzen zaiola, mugimendu ziklikoaren sentipen intimoa sortzen du. Baita solemnitatea ere.

## AGUR ZERUETAKO

(Berriatuko Jose Luis Basterretxea "Altzalei" bertsolariaren etxean daukaten paper zahar bat)

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Agur zeruetako<br/>Erregin ederra<br/>amarik maitiena<br/>guretzat zu zara.<br/>Amodio garbia<br/>errukia bera<br/>zugaz gu oroitzean<br/>oso pozten gara.</p>                      | <p>04. Gertatzen jakunian<br/>mundua istia<br/>zukanatuizu gure<br/>arima tristia.<br/>Gehien nahi doguna zuk<br/>guri iristia<br/>zeruan beti beti<br/>Jesus ikustia.</p>                 |
| <p>02. Zure aho gozotik<br/>urteten dan hitza<br/>da zerutik guretzat<br/>datorren bizitza.<br/>Izanik gloriako<br/>atearen giltza<br/>zure esperantzaz gu<br/>munduan gabiltza.</p>       | <p>05. Oh bihotz biguneko<br/>Ama ta Birjina<br/>egin egizu gure<br/>alde ahalegina<br/>izateko Jesusen<br/>aginduen dina<br/>eta zeruetan zu<br/>gure atsegina.</p>                       |
| <p>03. Pekatuaren bidez<br/>Jaunaren hasarrez<br/>zoritxarra besterik<br/>munduan ezer ez.<br/>Herbestetuak gagoz<br/>zuri dihadarrez<br/>suspiruz, sentimentuz<br/>penaz da negarrez.</p> | <p>06. Baina zugandik alde<br/>bihotzak ezin dau<br/>zugana beti dua<br/>zugaz bizi nahi dau.<br/>Birjin bardin bagia<br/>bedeinkatu gaizuz<br/>agur, Ama neuria<br/>agur, agur, agur!</p> |



- |   |   |
|---|---|
| <p>01. <b>Zugaz gu oroitzean:</b> zutaz, zurekin gu<br/>gogoratzean. Paperak <i>zutaz oroitzean</i><br/>jartzen du, eta eskuz zuzendurik <i>zugaz</i><br/><i>gu</i>.</p>          | <p>04. <b>Jakunian:</b> zaigunean.<br/><b>Istia:</b> uztea.<br/><b>Zukanatuizu:</b> zugana ezazu.<br/><b>Tristia:</b> gaizoa, errukaria.<br/><b>Iristia:</b> lortzea, erdieste, eskuratzea.</p> |
| <p>02. <b>Urteten dan:</b> ateratzen, jalgiten den.</p>   | <p>05. <b>Egin egizu:</b> egizu, egin ezazu.<br/><b>Dina:</b> duin, din, merezle.</p>   |
| <p>03. <b>Herbestetuak:</b> atzerriratuak, desterra-<br/>tuak.<br/><b>Gagoz:</b> gaude.<br/><b>Dihadarrez:</b> deihadarka, oihuka.<br/><b>Suspiruz:</b> zizpuruz, hasperenez.</p> | <p>06. <b>Alde ezin dau:</b> ezin du alde egin, ihes<br/>egin.<br/><b>Zugaz:</b> zurekin.<br/><b>Bagia:</b> gabea.<br/><b>Gaizuz:</b> gaitzazu.</p>   |

## ONDARRUATIK ITZIARRERA

(Ondarruko bertso ta Abestiak. Jose Mari Etxaburu, 62. or.)

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. Ondarruatik Itziarrera<br/>sinismen bizi bategaz<br/>Amaganako amodiak<br/>izioturik garoiaz.</p>                  | <p>04. Maria han daukagu<br/>itxaroten guri<br/>bixita bat gaur egin<br/>daiogun berari.</p>      |
| <p>02. Itxas gizonak Debaruntz doiaz<br/>batel ederren gainean<br/>lihorrekuak oinez aldraka<br/>Ama laztanan bidean.</p> | <p>05. Gure mendietako<br/>zelai tontorretan<br/>bere bizilekuak<br/>dira begiztetan.</p>         |
| <p>03. Guazen Itziarrera<br/>guazen arin guazen<br/>juan gabe gelditu<br/>inor ez gaitezen.</p>                           | <p>06. Begoñan, Arantzazun<br/>Oron ta Antiguan<br/>baina gaur gara bildu<br/>Itziarko goian.</p> |

07. Hain bere badaukagu  
etxean Maria  
guazen Itziarrera  
zahar eta gaztiak.

08. Begira zelan haintxe  
dagoen begira  
gau eta egun zoli  
itxaso zelaira.

09. Truxu ekaitz dongara  
olatu artian  
euskaldun marinela  
galdu ez daitian.

10. Haugaitik guk daukagu  
jarrita ustia  
bera dala guretzat  
anparo guztia.

11. Agur bai Itziarko  
agur, gure Ama  
agur itxas gizonen  
pozezko izarra.

12. Legor zaliok agur  
dirautsu, Andria  
Agur bai Itziarko  
Oh Ama gurial!

13. Lurrian gura dogu  
zeure seme izan  
zeruan gero beti  
ikusitzaiguzan.

14. Agur geure bihotzak  
zuri eskinirik  
bialdu gaizuz, Ama  
gaur bedeinkaturik.



01. **Bategaz:** batekin.  
**Iziotu:** izeki, irazeki, piztu.  
**Garoiak:** garamatza.

02. **Lihorrekuak:** lehorrekoak.  
**Aldraka:** saldoka, multzoka, taldeka.

03. **Arin:** azkar, fite, agudo.

04. **Bixita:** bisita.  
**Daiogun:** diezaiogun.

05. **Begiztetan:** begiztatzen, begiz jotzen,  
ikusten.

06. **Oro:** Aretxabaletako auzoa.

07. **Hain bere:** han ere.

08. **Haintxe:** hantxe.  
**Zoli:** erne, argi.

09. **Truxu:** zaparrada handia, eurijasa.

**Donga:** deunge, gaizto, zital.

**Olatu:** uhin.

**Daitian:** daitezana. Textuak *daitezana*  
dakar, baina bertsogintzan oso normala  
den eta egileak segurrenik jarriko zuen  
*daitian* forma behar du.

10. **Anparo:** babes, estalpe.

12. **Legor zaliok:** lehorzaleok, lehorrekook.  
**Dirautsu:** diotsugu, erraiten dizugu.

13. **Gura:** nahi.

**Zaiguzan:** zaitzagun.

14. **Gaizuz:** gaitzazu.

## EZKONGAIAREN GAINIAN

(Bertso berriak ezkongaiaren gainian jarriak. Ezkondu bearreko bertsoak. A. Zavala. Auspoa  
187, 107 orrialdetik aurrera)

01. Orain kantu berri bat  
bihar det ipini  
neure eretxirako  
txit dana konbeni.  
Ezkongaiak ezkontzaz  
zer modutan hasi  
kantuz ahal banezake  
zerbait erakutsi.

02. Zer modutan egin  
ezkontzeko lanak  
ongi erabaki zitun  
Kristo gure Jaunak.  
Halan agintzen digu  
Eliza Ama Santak  
alperrik damuko du  
deskuidatzen danak.

03. Ez degu gutxi bidar  
pulpitutik entzun  
ezkontza zer modutan  
egin bihar degun.  
Espiritu Santua  
arren eidazu lagun  
gauza hau esplikatzeke  
konbeni dan modun.

04. Ezkontza egiteko  
ona ta garbia  
preziso bihar degu  
Jaunaren grazia.  
Egin hau logratzeko  
ahalegin guztia  
bitarteko harturik  
Birjina Maria.

05. Ongi errezibitzeko  
sakramentu hori  
Jaungoikuaz konforme  
bihar degu jarri.  
Asmuak onak enda  
animia garbi  
Jaungoikuak berak  
agintzen du hori.

06. Ezkongeiak kontuan  
nahi zaituet ipini  
aberiak bezela  
ez zaitezten ibili.  
Jakin baino lehenago  
gurasuen berri  
ezkontzetzeko hitzak  
ez emon alkarri.

07. Enkargatzen ditut  
nik asko guraso  
umiari horretan  
egiteko kaso.  
Ezkontza gaiztuak  
dirala akaso  
munduan izaten da  
nahigaberik asko.
08. Oztaz ikasi dute  
mosua garbitzen  
euran buruz dabilza  
ezkontzak egiten.  
Ez det ikusten baina  
hala den aditzen  
oraingo gazte asko  
zer moduz dabilten.
09. Kuidadua izan  
aitak eta amak  
errespetoz hazitzen  
seme ta alabak.  
Jaunaren bildurrian  
ongi bizi danak  
nekez egingo ditu  
horrelango lanak.
10. Animako artzaia  
kura parrokoa  
bere eskuan dauka  
gure Jaungoikuak.  
Esplikatu garbiro  
nork beren kontuak  
aditu eta egin  
haren konsejuak.
11. Inor aurkitzen bada  
bai honetan dudan  
parroko jaunagana  
bihar degu jua.  
Hark erakutsiko du  
kosta bage duhan  
kristauak ezkontzeko  
zer egin behar duan.
12. Gaztia, badaukazu  
ezkontzeko grina  
emandako hitzetan  
izan zaitez fina.  
Ahalbait konpritutzero  
egin ahalegina  
gero izan ez dedin  
sekulako mina.
13. Munduan badirade  
asko ezkutari  
dakienak neskatzai  
hitz egiten poliki.  
Txoralda gaixuak  
sinistu hoieri  
zeinbat engainatzen dan  
Jaungoikuak daki.
14. Orain ikusten dira  
asko begietan  
da partikularmentie  
erromerietan  
gau eta gaberdi  
bide erdietan  
bekatu egiteko  
peligro handietan.

15. Mutil erdi mozkorrak  
aguak beruak  
haien kontuak aditzen  
neskatxa eruak.  
Nolakuak ohi diran  
orduko tratuak  
neuri esan dirade  
eskarmentatuak.
16. Zaharrak ere badira  
horretan maisuak  
Satanasen eskolan  
estudiatuak.  
Gazteari emaiten  
ejenplo gaiztuak  
gero pagatzen dute  
inozente gaixuak.
17. Jesukristok dio  
Ebanjeluan  
bekatu eragiten  
duenak munduan  
errota-harri bat  
loturik lepuan  
hobe leukiala hondatu  
betiko itxasuan.
18. Batekin hitzak enda  
bestekin kontuak  
ez du hori agintzen  
gure Jaungoikuak.  
Barruldi saldu eta  
kanpoko mosuak  
hoiek izan ohi dira  
Judasen tratuak.
19. Pobria jantzirikan  
aberatsen klasen  
eroaren gisa dabil  
beren burua saltzen.  
Gainetikan jentia  
dau gaizki esaten  
horren lujua ez da  
errez konbertitzen.
20. Pobre ta aberatsak  
guztiak munduan  
erabili klase hori  
daukien moduan.  
Bizimodu santu bat  
egin munduan  
gero sartu nahi bazu  
betiko zeruan.
21. Amodio garbia  
kariñua fina  
ojala hil artian  
izango bagina.  
Bitarteko harturik  
zeruko Erregina  
alkar ondo estimatzen  
egin ahalegina.

01. **Eretxi:** iritzi, uste.  
**Konbeni:** komeni.
02. **Halan:** hala.  
**Damuko du:** damu izango du.
03. **Gutxi bidar:** gutxitan, gutitan.  
**Eidazu:** egidazu, egin iezaazu.  
**Modun:** moduan.
05. **Jaungoikuaz:** Jaungoikoarekin.  
**Enda:** eta. Arkaikoa.
06. **Zaituet:** zaituztet.
07. **Dirala akaso:** badirudi *dirala kaso* behar lukeela, nahizta pota izan.  
**Nahigabe:** atsekabe, min, oinaze.
08. **Oztaz:** nekez, juxtu, ikasiz batera.  
**Mosua:** muturra, aurpegia.  
**Euran:** euren, beren.
09. **Kuidadua:** kontua, arreta, ardura.  
**Horrelango:** horrelako.
11. **Bage:** gabe.  
**Duhan:** dohan, dohainik.
12. **Ahalbait konpritutzeroa:** ahalik gehien edo ondoen kunplutzera, betetzera.
13. **Ezcutari:** ezkutu zalea, azpikaria, maltzurra, amarrutsua.  
**Dakienak:** dakitenak.  
**Txoralda:** mamala, inozo, txolin.
14. **Peligro:** peril, arrisku.
15. **Aguak:** ahoak.  
**Dirade:** didate.
17. **Leukiala:** lukeela.
18. **Barruldi:** barrutik, barnetik.  
**Mosuak:** musuak, laztanak.
19. **Klasen:** klasean, mailan.  
**Beren:** beraren, bere. A. Zavalak zuzendu eta *bere* jartzen du, baina *beren* bizkaieraz oso naturala da, *beraren* en laburdura gisa.  
**Dau:** du, dauka. Dago-ren laburdura ere izan daiteke.
20. **Daukien:** daukaten. Textuak *dadukien* jartzen du, baina neurriak eta herri hizkerak *daukien* eskatzen du.  
**Bazu:** baduzu.
21. **Kariñua:** xera, laztan, maitasun.  
**Ojala:** oxala, hobe.

Prediku gisako bertso sorta hau bizkaierazko eta gipuzkerazko nahastea da. Bizkaieraren zantzu garbiak dauzka: eretxi, halan, enda, zaituet, emon, mosua (aurpegi esanahian), euran (beraien), beren (beraren, bere), horrelango, bage, konpritu, leukiala, barruldi, daukien... Bertsoen egileari Deba Garaikoa, Arrasate aldekoa edo, izan daitekeen usaina hartzen diot.

# GERTAERAK ETA UMOREZKOAK

## TXOMIN ETA ERROSE

(Luzia Arteaga Bilbao, Dimako Obakoa. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., Antton Mari Aldekoa- Otalora, Juan Mari Beltran eta hamarren artean)

01. -Txomin, astelehenian  
ostuta baztarrak  
nora dozuz eroan  
zuk gure sagarrak?  
-Zer dinozu, Errose?  
Nik zure sagarrak?  
-Bai, Txomin, saldu dozuz  
gorri ta ederrak.
02. -Urkiolan egon naz  
egun ta erdian  
beste bat ibiliko zan  
zure sagastian.  
-Zeuk eroan zenduzan  
haraxe burdian  
eta saldu zenduzan  
hogerleko bian.
03. -Nik hori? Ze barraban!  
Holako asmorik!  
-Hantxe saldu zenduzan  
ez esan guzurrik  
Harizpetar Tomasek  
gozotuta pozik.  
Guzurra dariozu  
Txomin, edonundik.
04. -Tomasek saldu nau ni  
Errose, benetan  
sagarrak erosi ta  
zer eukan zer esan?  
Ipini bazituzan  
sabai zabaletan  
gozo jango genduzan  
guk jatorduetan.
05. -Baina Jauna daukagu  
leku guztietan  
berak jakin bagarik  
ezin lapurretan.  
Autortu dozu, Txomin  
gauza zer jazo zan  
betor dirua, bakez  
gelditu gaitazan.
06. -Hona hemen, Errose  
hogerleko biak  
zure asmoak beti  
dira galgarriak.  
Honek dira edesti  
gogoan jarriak  
orain jarraituteko  
ekandu garbiak.



01. **Dozuz:** dituzu.  
 02. **Eroan zenduzan:** eraman zenituen.  
**Hogerleko:** bost pezetakoa, duroa.  
 03. **Ze barraban:** zer demonio.  
**Dariozu:** darizu, isurtzen zaizu.  
**Edonundik:** nondiknahi, nonahitik.  
 04. **Eukan:** zeukan.  
**Bazituzan:** bazituen. Hemen *balitu* da-  
 gokio.

- Sabai:** mandio, lastategi.  
**Genduzan:** genituen.  
 05. **Bagarik:** barik, gabe.  
**Jazo:** gertatu.  
 06. **Honek:** honeik, hauek.  
**Gogoan jarriak:** hemen segurrenik *go-  
 goangarriak* izango da, hots, gogoratze-  
 ko, oroi- tzeke modukoak.  
**Ekandu:** ohitura, usadio.

## DIMAKO IDIARI

(Dimako Bargundiako Patxi Bilbao. **Doinu Zaharren Inguruan**, U.E.U., 17. or. Antton Mari Aldekoa- Otalora, Juan Mari Beltran eta hamarren artean)

01. Laguntasun bat eskatzen dautset  
 Aita San Antoniori  
 bere izenean jarri ahal baleiz  
 bertso pare bat edo bi.  
 Berak eginda ikusten doguz  
 makinatxo bat mirari  
 horretarako bat gura neunke  
 papel honetan ezarri.
02. Bizkaiko bazter-bazter bateko  
 Dima deritxon herrian  
 idi eder bat zelan dagoan  
 nago esan beharrian.  
 Hasi buruan eta atzera  
 hiru metro dau luzian  
 hamairu arrak gogor gogorrak  
 biribilean garrian.
03. Apatxetatik goiko palara  
 dituz bederatzi arra  
 aurreko beso bien erdian  
 barriz metro bat zabala.  
 Lurrean ere erdi tarraska  
 darabil bere bularra  
 burua eta adar txikia  
 kolorez pinto nabarra.
04. Honen luzia ta honen zabala  
 ta honen gorputzen ederra  
 itsasontzi bat dirudiela  
 atzetik eta aurrera.  
 Aste Santuen idi eder hau  
 eroan deurie Bilbora  
 bertan hilteko uste osoaz  
 baina bizirik lotu da.

05. Tamalez dagoz berau hilteko  
 hain den ganadu ederra  
 San Isidroak pasatuteko  
 daroadie Madrileru.  
 Ganadu eder ederragorik  
 han agertuko ete da?  
 Guztiz famadu ein dan idia  
 orain doaz han saltzera.
06. Nor dan be esan beharra dauku  
 berau loditu dauena  
 apeli dua Arriortua  
 Pedro dau bere izena.  
 Etxe bi daukaz errentadunak  
 berea hirugarrena  
 horrez gainera esku artean  
 bastante ondo daoena.
07. Beti izan da famili hori  
 ganadu eder zalea  
 antxinetatik eta gehiago  
 haren etxean hagea.  
 Ointxe urte bi hazi eutsien  
 auzoko batek hobea  
 orduko faltak bardinduteko  
 oingoak yeukek sobrea.
08. Agur gozo bat opa dautsegun  
 Pedro Arriortuari  
 ta honez ganera emazteagaz  
 seme ta familiari.  
 Guzti guztiok opa dautsegun  
 hementxe danok agiri  
 holangoxeak loditu daizen  
 datorren urterako bi.



01. **Dautset:** diot.  
**Baleiz:** balitez.  
**Doguz:** ditugu.  
**Gura neunke:** nahi nuke.
02. **Deritxon:** deritzan, izena duena.  
**Zelan:** nola.  
**Arra:** zehé. Luzera neurria, ahurra zaba-  
 lik erpurutik hatz txikira dagoena.
03. **Apatx:** animalien hatzazala.  
**Tarraska:** tatarrez, arrastaka, herrestan.
04. **Eroan deurie:** eraman dute.  
**Lotu:** gelditu, geratu.
05. **Dagoz:** daude.  
**Daroadie:** daroe, daramate.  
**Famadu:** famatu, ospetsu.
06. **Be:** ere.  
**Dauku:** daukagu.  
**Apeli dua:** deitura.
- Daukaz:** dauzka.  
**Esku artean:** esku arteko diruan. Diru  
 bat da ondasunetan edo bankuan dagoe-  
 na, eta bestea esku artekoa, egunero gas-  
 tatzekoa.  
**Daoena:** dagoena.
07. **Hagea:** kasta, etxe edo famili bati jatorriz  
 datorkion izaera ona edo txarra.  
**Ointxe:** oraintxe.  
**Eutsien:** zien.  
**Oingoak:** oraingoak.  
**Yeukek:** zeukatek.  
**Sobrea:** soberakina, sobratzen dena.
08. **Opa dautsegun:** hemen aginduzko esa-  
 nahia dauka, beraz, subjuntiboa beharko  
 luke: *opa daiogun*, desiatu diezaiozun.  
 Bestela, azken enea sobra dago.  
**Daizen:** ditzan.

## BARTOLOK

(Juanita Unzueta. Aramaio. **Jon Aurre** sorta)

Bartolok egin ei dau  
lastozko zubixe  
handixik pasetako  
bera ta nobixe.  
Pasetan hasi die  
jausi da zubixe  
Bartolo fine da ta  
eingo dau barrixe.

Juanitak eta bere lagunak asmatua:

Lorentzok egin ei dau  
zubixe barrixe  
handixik pasetako  
Matea ta bixek.

Mateak egin ei dau  
jabonadurie  
Lorentzon frakak eta  
beraren gonie.

Errekara juen eta  
jo dau lexibie  
urek eruen dotso  
bere kamisie.



**Ei dau:** omen du.

**Zubixe, nobixe:** zubia, nobia, andregai.

**Pasetako:** pasatzeko.

**Pasetan hasi die:** pasatzen hasi dira.

**Fine:** fina, langilea, lanean asko saiatzen dena.

**Bixek:** biak.

**Juen:** joan.

**Lexibie:** lixiba, arropi, xaboiu ondoren, ematen zaien lixibaldia. Oro har, arropa garbitze osoa.

**Eruen dotso:** eraman dio.

**Kamisie:** atorra.

## PELOTIAREN GAINKO

(Pelota partiduetako kanta berriak. Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 1852. urteko bertsozintza)

01. Pelotiaren gainko  
berso bat edo bi  
atera nahi nituzke  
neronek bai ongi.  
Eskaturik lehenengo  
Birjina Amari  
berorren laguntasuna  
egin bada neri.

04. Baina Jazintotxua  
zeuan enpeinaurik  
Durangon behar zala  
hasi lehenengotik.  
Ez zala ba ostian  
salduten ardorik  
ezta herrian ere  
gelditu sisarik.

02. Durangoarrak ziran  
kontra Markinarren  
hori plazatan bleka  
jokatutziarren.  
Launa mila errial  
aposta zituen  
hirutikan bi zeinek  
irabazten zuten.

05. Entzunik Markinarrak  
Jazintotxuari  
utzi zioten laster  
diferentziari.  
Markinarrak beti on  
esan det nik sarri  
ez nion nik utziko  
elezioari.

03. Hiru pelota toki  
eskojitu ziran  
Durango, Markina ta  
halan Elgoibarren.  
Lehenengo nun jokatu  
inork ez zekian  
eta hori bihar zan  
bota suertian.

06. Lehenengo partidua  
joka zan Durangon  
sekula larriago  
ez naiz inun egon.  
Jokua irabazi ta  
burlaz ezin egon  
gauza hau usatzen da  
bakarrik Durangon.



07. Partidu aurretikan  
abertitu bage  
idi zahar bat sokatik  
han atera dabe.  
Ez zuen aterako  
galdu izan balebe  
Durangoarrak beti  
juizio bage.
08. Bigarren partidua  
joka zan Markinan  
eta Durangoarrak  
ez ziran gauza han.  
Durangoko aldian  
gutxi luzitu zan  
inor insultatzia  
han pentsatu etzan.
09. Horra pelotariak  
igual jokuak  
erabagi bihar du  
oin Elgoibarkuak.  
Ez du han balioko  
tranpako jokuak  
ez bada blekari  
beso onekuak.
10. Zuek eman dozue  
motibua franko  
zezen eta kohete  
harrokeri asko.  
Inon usatzen ez dan  
burla ta parriak  
egin izan dizkigu  
Durangon jentia.
11. Dianak Elgoibarren  
ziraden juntatu  
eta gizon sastar bat  
ez zaitan gustatu.  
Beraren izenikan  
ez nuen aditu  
baina Txapero zala  
nuen entenditu.
12. Gizon hau bazebilen  
batetik bestera  
laguna Zengotita  
albuana zebala.  
Markinalde honetan  
dirurik ez zala  
dihadar egiten zuten  
astuak bezela.
13. Hasi ziran jokatzin  
lau pelotariak  
laster ziran bentajan  
Markinako biak.  
Ikaratu ginduzan  
errementariak  
hori da jokatzia  
dino mundu guztiak.
14. Itzala ez zait gustatu  
Elgoibarko plazan  
zerren tanto bat gaitik  
txaloka hasi zan.  
Bizimodu gaitikan  
ez det nik zer esan  
zerren gizon bezela  
portatu izan zan.

15. Probintzia guztia  
Markinarren alde  
Debar bigaz bestiak  
ez ziran haserre.  
Kaso txit gutxi ohi da  
distingio bage  
Debar bi hoiek ere  
hargaitik ein dabe.
16. Debako apaiz jaun bat  
kiputzen artian  
ongi galdu eragin du  
bai kosta aldian.  
Pilua zuen lagun  
onentzat ustian  
zer moduz bihar zuen  
egin trabesian.
17. Trabesatu izan zan  
dirua ugari  
ta horra partidua  
Markinarrak garbi.  
Biba, biba mutilak  
Benito Subarri  
halako blekaririk  
ez da hona etorri.
18. Ea Durangoarrak  
zerate aspertu  
ala oraindik ere  
nahi dezu probatu?  
Nere uste guztian  
askoz hobe dezu  
etxera juan eta  
idia korritu.
19. Baina oraindik ere  
nahi bada kantatu  
zapuaren soinua  
guk entzun nahi dogu.  
Hemen dozu Benito  
Markina aldian  
bota desapixua  
zeuen eretxian.
20. Beniton kontra inork  
nahi badu bai jarri  
mano-mano jokatzin  
pronto dago beti.  
Pelota librieikin  
etxiaz kanpoti  
edozein denboratan  
parte eman honi.
21. Marragero gaztia  
zuten botileru  
haren erakutsiak  
asko balio du.  
Irabaziko zala  
honek sarri esan du  
opininuen kontra  
profeta irten du.
22. Adios Durangoarrak  
hurrengo artian  
jo egizu "tronpia"  
umore onian.  
Errege edo Prinzipe  
zeuen Bizimodu  
Benito enperadore  
jarri behar degu.

23. Hau jazoko zanikan  
gutzik zuen uste  
bandera Markinarrak  
usteltzeko dauke.  
Orain artian nausi  
gizaldi guztian  
Jaunaren faboreaz  
nahi aurrerantzian.

24. Hogeita lau bersotan  
horra aditzen eman  
Durangoarrak zeintzuk  
izan litezkezan.  
Oraindik gehiago  
nahi nukian esan  
baina nahi izan arren  
ez det astirikan.



02. **Ble:** ple, pilota joku modu bat.  
**Blekari:** pilota modu horretan jokatzeko duena.  
**Jokatutziarren:** jokatzegatik.  
**Aposta:** jokatu.
03. **Eskojitu:** hautatu, aukeratu.  
**Enpeinaurik:** hartan saiaturik, tematurik, setaturik.  
**Ostian:** ostean, ostantzean, bestela.  
**Sisarik:** diru kopuru bati kentzen edo osten zaion zatia.
05. **Elezioari:** hautuari, hautapen edo aukezeari.
07. **Abertitu:** abisatu, oher erazi.  
**Dabe:** dute.  
**Balebe:** balute.  
**Bage:** gabe.
09. **Oin:** orain.
10. **Kohete:** txapligu, etxafero, suziri.  
**Parriak:** barreak, irriak.
11. **Dianak:** direnak, denak.  
**Sastar:** zirtzil, ganorabako.  
**Zaitan:** zitzaidan.
12. **Zebala:** zuela.  
**Dihadar:** deihadar, oihu, zantzoz.

13. **Bentaja:** abantaila, alde.  
**Ginduzan:** gintuen.  
**Errementariak:** suarotzak.
15. **Bigaz bestiak:** bitaz, bi ez besteak, bi ezik beste denak.  
**Kaso gutxi...:** Distintzio gabe edo zerbaitetan nabarmendu ezik, inori ez zaiola kasurik egiten esan nahi du.
16. **Eragin:** erazi.  
**Trabes:** partiduetan jokatzeko edo trabesten den dirua.
18. **Aspertu:** asetu, nahikoa egin.
19. **Zapuaren soinua:** Durangori *Zapoerri* deritzo.  
**Desapixua:** desafioa.  
**Eretxian:** iritzian.
20. **Pronto:** prest, gertu.
21. **Marragero:** koltxoigile edo koltxoi saltzaile.  
**Botileru:** laguntzaile, aholku emale.
22. **Tronpia:** Durangoren beste goitizen bat *Tronperri* da.
23. **Jazoko:** gertatuko.  
**Dauke:** daukate.

## UNAS CANCIONES NUEVAS

(Mallabian, Pello Elgetzuk Gereako Felix Longarteri jasotako sorta, eta aspalditik neukan paper bat, nondik eskuratu nuen gogoan ez daukadana. Bien artean osatu dut sorta)

01. Unas canciones nuevas  
nahi nukez kantatu  
con la esposa mía  
zer zaidan pasatu.  
Con un cortejo nuevo  
neri eskapatu  
aquella habra creído  
ez dala pekatu.
02. Dejando a su hija  
desanparaturik  
con el pasiego ha ido  
plagiak harturik.  
Ai qué mula tan falsa  
iduki nuan nik  
en las tres provincias  
etxauk holakorik.
03. Ama Elgoibartarra  
ella de Orozko  
neri eskapatu dit  
con otro morrosko.  
Zazpi urte pasa dira  
que yo le conozco  
y por dónde anda ella  
nik ez dakit asko.
04. Que ya dije por ella  
ospital batian  
que no me visitara  
sendatu artian.  
Que ya tenía otro  
bien bitartian  
me dicen que anda ella  
Montaña partian.
05. Teníamos una hija  
nor ete du aita?  
Como si fuera mía  
nik izan det maita.  
En Muniketa, señores  
lehenbizikoetan  
como marido y mujer  
egon ziran bertan.
06. La mujer vendería  
gizonaren prakak  
sin que el marido sepa  
andriaren tranpak.  
La mujer bebedora  
ez dok emendatzen  
tiene todos los vicios  
daukezanak saltzen.

07. Con una sestillita  
besuan harturik  
para imitar en casa  
erdi zoraturik  
pero aquella no tiene  
buruko faltarik.

08. Como era anciana  
nobia gaztia  
le calentó a su mujer  
atzeko partia.  
Los dos dicen que beben  
goizetik gauera  
tres azumbres de vino  
edanda ogera.

09. Yo era culpante beste  
asko ibilita  
tú y Felix el marido  
amorraturuz aita.  
Vive Jesús andria  
Juana eta Juakin  
nahikua esan dizut ba  
nahi badezu jakin.



02. **Plagia:** plaga, bolada edo aldikada gaiz-  
toa, gaiztakeria.  
**Etzak:** ez jagok, ez zegok.

04. **Montaña:** Santander.

06. **Emendatzen:** asetzen, nahikotzen.  
**Daukezanak:** dauzkanak.

07. **Imitar:** imintzioak, plantak egin. Beraz,  
hemen zoro-buru egin.

Bertso hauek asko kantatu izan dira Bizkai aldean, nahizta bertsoio zatikatuak izan beti. Hori normala da, baina sorta honek bertso paper baten itxura osoa dauka, eta baliteke paper hori oraindik nonbait osorik egotea.

## MARITXU MENDAROKO

(*Maritxu Mendaroko* koarentzat. Ezkondu bearreko bertsoak. A. Zavala. Auspoa 187. 105-106 or.)

01. Maritxu Mendaroko  
neskatila fina  
burutikan ez balitz  
pixka bat arina.  
Ai Maritxu, Maritxu  
hain apaina!  
Zeinek txoratu zaitu  
zu horren adina?

02. Maritxu Mendaroko  
hilean birritan  
Bilbaora joaten da  
kolore gorritan.  
Ai Maritxu, Maritxu  
ez sarritan  
deskuidatu ibiltzen  
beste herrietan.

03. Neskatalak ez badau  
ona juizioa  
inork ez dau eukiko  
horren desioa.  
Ai Maritxu, Maritxu  
hau lezioa!  
Bakarrik izango dezu  
desprezioa.

04. Maritxu Mendarokok  
gura luke hartu  
gizon on bat balego  
harentzako gertu.  
Ai Maritxu, Maritxu  
horra ugartu!  
Uste zenduen baino  
lehen neskazahartu.

05. Maritxu Mendaroko  
domeketan plazan  
neskazahartuta ere  
bapo dabil dantzan.  
Ai Maritxu, Maritxu  
beti olgantzan!  
Zure edertasuna  
kakatara juan zan.



01. **Zu horren adina:** zu horren beste, zu neurri horretan. Textuak *zu orrela adiña* dakar, baina *orren adiña* behar duela dirudi. Zenbait belarriri esamolde hori ez badagokio ere, bertsolariak *adina beste* ren sinonimotzat erabil zezakeen, bizkaieraz *honen beste*, *horren beste* eta *haren beste* edo *hain beste* —banan ala baturik idatzi gutxiena da— normalak bait dira.
02. **Birritan:** bitan, bi aldiz.  
**Sarritan:** maiz, usu.
03. **Ez badau:** ez badu. Textuak *badauka* dakar, baina neurriak *badau* eskatzen du.

**Eukiko:** textuak *edukiko* dakar, baina neurriari eta herri hizkerari *eukiko* dago.

04. **Gura:** nahi.  
**Gertu:** prest, zerbaiteko gogoz.  
**Ugartu:** uhartu, herdoildu.  
**Baino:** textuak *baiñan* dakar. Baliteke bertsolariak lokalismo hori erabiltzea, *baino* ren sinonimotzat, baina bizkaieraz probableago da *baino* jartzea.  
**Lehen:** lehenago.
05. **Domeketan:** igandeetan.  
**Olgantzan:** dibertsioan, jolasean.

Bertso dotoreak benetan. A. Zavalak dionez, *Madalen Busturingo* doinu kanta daitezke. Doinu horrek bosgarren lerroa lau edo bost silabako eta zortzigarrena bost edo seiko moduan kantatzeko aukera ematen du.

## EZ DAUKAT UMORERIK

(Bizkaiko baserriko nekazalientzat olgarria: Peru eta Juaneren artian berbakuntzia 1832. urtea. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo. 63917)

## Peru:

01. Ez daukat umorerik aurtengo urtian pozagaz kantetako suaren aurrian. Koltzan artorik ez ta okelia auzuan koipe asko ez dago gure lapikuan.
02. Ibili biharko dau bai gure atsuak huritikekateko tremes ta artuak. Baina dirua nun da? Hor dago ultzia saldu biharko dogu daukagun guztia.
03. Galiziatik dator sardina gazia gure lauko apurren eroangarria. Urak ez deusku hilgo haren egarria zegaz erosiko da txakolin barria?
04. Ondo hotza daukat nik kutxa kisketia ez asko beruago ziskuko poltsia. Idi makar bi dagoz gure okoiluan saldu biharko ditut aurtengo neguan.
05. Beti jagot albuana Maria guria negarraren soinuana joten hiletia. Ardaa ta pipia itxi daidazala lehenago itxiko dot daukadan azala.
06. Ugazaba jaunari neuk esango deusat igazko errentia itxi parkatutzat. Aurten jausi jatana abuztu ostian pagauko deusadala diru ederrian.

Juane:

07. Ai Peru, Peru zara  
zu beti alperra  
sarri izango dozu  
alkondara zaharra.  
Belauna agirian  
prakien zulotik  
adurra ta mokuak  
okotzingurutik.
08. Ziztrina dariatzu  
ukonduetatik  
txapelaren atala  
belarri ondolik.  
Alkondara barririk  
ez jatzu ikusten  
gorurik zure etxian  
ez dabe egiten.
09. Nik etxian daukadaz  
zezin ta urdaia  
artorik ez badago  
jango dot ogia.  
Neure troxak daukadaz  
gariz beteturik  
urte barru honetan  
ez daukat goserik.
10. Etxian hasi beti  
bigae marduak  
gero euki daiezan  
beterik erruak.  
Esnetxu gozuagaz  
ai ze edaria  
esan leiteke dala  
zerutik jatsia.

11. Etxian hazitako  
zekortxu ederrak  
egin ohi daruadaz  
soloko biharrak.  
Ez deutset Montañesei  
dirurik emoten  
merkaturik merkatu  
ez naz ni ibilten.
12. Zuk bere bazenduke  
egingo biharra  
eta ondo nekatu  
gerriko hazurra  
ez heldu inoz bere  
ardantokietan  
dirua bazeunkake  
esturasunetan.

Peru:

13. Ai Juane, errez da  
kontuok esaten  
baina nik ez dot errez  
dinozuna egiten.  
Zelan euki ginaike  
hainbeste ganadu  
biri zer jaten emon  
bere ez badaukagu?
14. Udabarrian hartu  
negurako saldu  
bitartian bidetan  
eteten ditugu.  
Irabazten doguna  
lehenaz dago janik  
ez dogu guk urtengo  
bizitza honetatik.

Juane:

15. Euki ezkerro, Peru  
daukazun bazterra  
zuk bere hartu zinaike  
labore ederra.  
Nabua ta bedarra  
ganaduentzako  
esnia ta okelia  
jatorduetako.
16. Itxi ibiltiari  
beti karriuan  
biharra egin zoli  
etxeko soluan.  
Ez dau lurra emoten  
berez ondasunik  
hatxur ta laijiagaz  
aztertu bagarik.
17. Pipa motxa hautsian  
txapela okerturik  
zeure zopita zaharrak  
arrastau ezinik.  
Beti zabilz bidetan  
gelditu bagarik  
holan izango ez dozu  
arto ez garirik.
18. Aldatu bihar dozu  
bizimodu hori  
benetan gura bozu  
ondasunak euki.  
Seme-alabei bere  
biharra erakutsi  
ta dotrina onian  
familia hazi.
19. Ez daiela ikasi  
lapurkeriarik  
ezta bere esaten  
inoz berba txarrik.  
Gazte gaztetxutatik  
beti elexara  
zeuen abadiaren  
berbak entzutera.
20. Zuzen gabiltzan beti  
Jaunaren bidian  
ta ez esa-mesarik  
auzuen artian.  
Halan egin ezkerro  
herbeste honetan  
gloria izango dogu  
gero zeruetan.
21. Agur Peru neuria  
hurrengo artian  
alkar daigula ikusi  
datorren urtian.  
Ganbaria beterik  
upia gainezka  
txahaltxu jaiio barriak  
atentan saltoka.
22. Jesusen izenian  
eruan nekiak  
geroko irabazteko  
atsegin betiak.  
Itxi gaurtik aurrera  
taberna zuluak  
eta ondo atondu  
baso ta soluak.



01. **Pozagaz kantetako:** pozez kantatzeko.  
**Koltza:** ganbara antzeko gunea baserrietan.  
**Okelia:** okela, jateko haragia.
02. **Tremes:** garia eta zekalea nahasiz egindako ogia.  
**Ultzia:** untzea, iltzea.  
**Hor dago untzea, ultzea:** hor dago gakoa, koska.
03. **Lauko:** lauко dirua, lauzurikoa.  
**Eroangarria:** eramatekoa.  
**Deusku:** digu.  
**Zegaz:** zerekin.
04. **Kisketia:** kisketa, krisketa.  
**Zisku:** kutxatxoa. Josteko kutxatila.  
**Okoiluan:** ikuiluan, tegian, kortan.
05. **Jagot:** dagokit.  
**Joten hiletia:** hileta jotzen, gauza txarrak eta kexuak kontatzen.  
**Itxi daidazala:** utzi ditzadala.
06. **Ugazaba:** nagusia.  
**Deutsat:** diot.  
**Jausi jatana:** erori zaidana.  
**Ostian:** ostean, ondoren.  
**Pagauko deutsalada:** ordainduko diodala.
07. **Prakien:** prakaren, galtzaren.  
**Adurra:** lerdea.
08. **Ziztrina:** filda, dindirria.  
**Dariatzu:** darizu.  
**Jatzu:** zaizu.  
**Gorua:** iruteko edo haria egiteko tresna.
09. **Daukadaz:** dauzkat.  
**Troxak:** toxak, ale edo bihiak gordetzeko kaxak.
10. **Bigae:** bigai, bigantxa.  
**Marduak:** beteak, potoloak.  
**Daiezan:** ditzaten.  
**Erruak:** erroak, animalien ditiak.
11. **Egin ohi daruadaz:** egin ohi ditut.  
*Eroan* en azeptio bat maiztasuna da. Beraz, hemen bi aldiz markatzen da maiztasuna, *ohi* ere horixe bait da.  
**Deutset:** diet.
12. **Biharra bazeunkake:** lana bazenuke, edukiko zenuke.
13. **Dinozuna:** diozuna, esaten duzuna.  
**Ginaike:** genezake.  
**Bere:** ere.
14. **Lehenaz:** lehendik, alde z aurretik.
15. **Bazterra:** etxaldea, baserria.  
**Zinaike:** zenezake.
16. **Itxi:** utzi.  
**Karriuan:** garraioan, lorrean.  
**Biharra egin:** lan egin.  
**Zoli:** bizkor, argi, zuhur.  
**Laijiagaz:** laiarekin.  
**Bagarik:** barik, gabe.
17. **Zopita:** abarken ipinkiak, adabuak, txatalak.
18. **Biharra erakutsi:** lana, lanean erakutsi.
19. **Daiela:** dezatela.  
**Berba:** hitz, ele.  
**Elexa:** eliza.  
**Abadiaren:** apezaren, apaizaren.
20. **Esamesarik:** ele-melerik, erran-merranik.
21. **Daigula:** dezagula.  
**Upia:** upa, kupel.  
**Atentan:** hau segurrenik *atetan* izango da, hots, atarian, etxe aurrean.
22. **Eruan:** eraman.  
**Itxi:** utzi, laga.  
**Atondu:** konpondu, antolatu.

## SAN ANTONIO SANTU HANDIA

(1985. Apirilaren 20ko EGIN egunkarian, JAIEGIN saileko *Herri eta Irri* orrian neuk emanak. Baita *San Antonio Santu handia*, Adolfo Arejita. **Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta, 9** -18. or. Bi sortekin batasun osatua eginik ematen dut)

01. San Antonio santu handia  
Urkiolako mendian  
zeugana nator bihotz bihotzez  
gauza baten eskarian.  
Ilunetako gauzak nahi neukez  
ipintea agirian  
neskatxa batek zer darabilen  
Zeberiko herrian.
02. Dino berari kendu deutsalada  
onrea eta konduta  
bera bestela egongo zala  
aspalditik ezkonduta.  
Hori entzunda negarrez nago  
beragaz errukituta  
senargei barik lotu beharra  
halako neska polita.
03. Zeure onrea galdu badozu  
zeuk egin dozu pekatu  
nik neuk ez daukat zurerik eta  
kendu deitsunari eskatu.  
Ene Dominga bihotzekoa  
ez zaitez holan estutu  
zugaz ezkondu gura ez dabena  
derrigorrean ez deitu.
04. Zenbat alditan deituten zeunstan  
egunez eta gaubean  
behatz-harria bazina legez  
beti zengozan aurrean.  
Erromerira neure atzean  
baso eta iturrian  
aldi horretan zedozen bila  
ibili ete zinean?
05. Beste batzutan deituten zeustan  
irak ebaten basora  
zeuk izentauta ipinten zendun  
alkarregana jokera.  
Ni makal samar nengoala ta  
joaten zinan aurrera  
haretx inosi haundi batzuek  
dagozanetik hurrera.
06. Herri guztian zabaldu dozu  
ez zagozala nitzako  
kalabazakaz itxi nozula  
ni moraza nazalako.  
Kalabazarik ez dot agiri  
ta kortan ganadu asko  
mesede handia egingo zendun  
txarri bat lodituteko.

07. Ene Dominga, ahaztu al jatzu zelan ginaden egoten etxe aurreko intxaur azpian berba gozoak esaten? Harek intxaurrek baldin baleki gizonak lez berba egiten gauzak argiro esango leukez minagaz isildu zaiten.
08. Nigaitik zabilz txarto esaten ume gaiztoen antzean baina egi bat esan behar dot tamalagaz bihotzean. Urdai zati bat dirudizula zabilz katuen atzean nor atrebitu zure lakoa emaztetzako hartzean?
09. Arpegi ona ipinten dozu garbia zarelakoan Bilbo aldean ikasitako malezi asko kolkotan. Grina txarreko egikerakaz guzurra merke pikuan baina bakea gura izaten dau bakotzak bere lekuan.
10. Nire aurretik zenbiltzanagaz zabilza orain barrian zerorrentzako beste mutilik apenas dagon herrian. Hogeita hiru urte daukazuz sasoirik ederrenean pentsa horregaz hutsa badozu nogaz egingo zarean.
11. Mutil horregaz izaten zendun zer esan asko pikuan edozein mutil herri honetan lortuko zendulakoan.  
...  
...  
zeure txistua iruntsi dozu madaria dalakoan.
12. Hamabi bertso barri honeikaz lan hau gura dot amaitu egi hutsakaz jarriak dira inok ezin leiz ukatu. Agur Dominga bihotzekoa txarto badinot parkatu zeure burua jagoizu eta nire ardurarik ez hartu.

Nire lekukoak honela amaitzen ditu azken bi puntuak:

Bertsoak jarri dodazelako bazara zu deskontentu non bizi nazen badakizu ta nahi dozun lekura deitu.



01. **Neukez:** nituzke.
02. **Dino:** dio, esaten du.  
**Deutsala:** *deutsadala* laburturik, diodala.  
**Onrea:** ohorea, izen ona.  
**Beragaz:** berarekin.  
**Barik:** bagarik, gabe.  
**Lotu:** gelditu, geratu.
03. **Deutsunari:** dizunari.  
**Holan:** honela.  
**Zugaz:** zurekin.  
**Gura ez dabena:** nahi ez duena.
04. **Zeunstan:** zenidan.  
**Behatz-harria:** behaztopoa, oztopo egin erazten duen harria edo zerbait.  
**Legez:** bezala.  
**Zengozan:** zeunden.  
**Zedozen:** zer edo zeren, zerbaiten.  
**Ete zinean:** ote zinen.
05. **Irak ebaten:** irak ebakitzera.  
**Ira:** iratze, garoa.  
**Izentauta:** izendaturik, seinalaturik.  
**Haretx:** haritz.  
**Inosi:** inausi, adarrak moztu.  
**Dagozanetik:** daudenetik.  
**Hurrera:** hurbilera.
06. **Zagozala:** zaudela.  
**Nitzako:** niretzat.  
**Kalabazakaz:** kalabazekin.  
**Kalabazak eman:** neskak mutilari edo mutilak neskari ezetz esan.  
**Itxi:** utzi.  
**Moraza:** maraza, zimela, indargea.  
**Kortan:** ikuiluan, tegian.
07. **Jatzu:** zaizu.  
**Zelan:** nola.  
**Berba:** hitz, ele.  
**Harek intxaurrek:** intxaur hark.  
**Lez:** bezala.  
**Leukez:** lituzke.  
**Minagaz:** mihiarekin, mingainarekin.  
*Minarekin* ere izan daiteke, baina lehenengoak bidezkoago dirudi, hots, *mihi hori isilik eduki dezazun*.  
**Zaiten:** zaitzen.
08. **Txarto:** gaizki.  
**Zure lakoa:** zu lakoa, zu bezalakoa.  
**Hartzean:** hartzen.
09. **Egikerakaz:** egikerekin, egiteekin.  
**Pikuan:** mokoan, hots, mihian, hizketan.
10. **Zenbiltzanagaz:** zenbiltzanarekin.  
**Barrian:** barriro, berriz.  
**Daukazuz:** daukazazu.  
**Honegaz:** honekin.  
**Hutsa badozu:** porrota badozu, alegia, huts egiten baduzu.  
**Nogaz:** norekin.  
**Zarean:** zaren.
11. **Madari:** udare, txermen.
12. **Honeikaz:** hauekin.  
**Hutsakaz:** hutsekin.  
**Leiz:** litzake.  
**Badinot:** badiot, esaten badut.  
**Jagoizu:** jagon, zaindu ezazu.  
**Dodazelako:** ditudalako.

Bere generoan oso bertso sorta gogokoa dudan hau EGINen eman nuenean, nire lekukoak ez zuen bere izenik agertu nahi, ezta emakumearenik ere, oraindik bizi zela-ta. Hargatik *Jazinta* jarri nuen. A. Arejitaren

bertsioan egizko izena ageri denez, bera utziko dugu. Laurogeita bostean *Dominga* emakume adintsua bazen, eta hemen hogeita hiru urte zeuzkaneko gorabeherak kantatzen badira, bertso hauek 1920-30 bitartekoak izango dira.

## UDIARRAGAN DINGILIZ DAGO

(*Ermitas de Bizkaia, Tomo II. 221. or. Gurutzi Arregi Azpeitia. Diputación Foral de Bizkaia. Instituto Labayru - Bilbao - 1987*)

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Udiarragan dingiliz dago<br/>tupin haundia harizpean<br/>Andra Mariako meza ondoren<br/>jarririk bere inguruan<br/>tira guztiok,<br/>zahar ta gaztiok<br/>jan daigun alkarren lehian.</p> | <p>04. Katar gosia etorri ei zan<br/>oilo erre bat hartzera<br/>arrano batek bie heldu ta<br/>igon ebazan torrera<br/>erakarririk<br/>oso osorik<br/>sukalkinaren eskura.</p>        |
| <p>02. Oilo, erbiak, eper, bildotsak<br/>hoge erraldeko txahala<br/>basurde bat da odolostiak<br/>txakolinagaz janala<br/>ekin edaten<br/>inardu jaten<br/>ase artian sabela.</p>                | <p>05. Gaurko egunez gure asabei<br/>esan ei eutsen Mariak:<br/>hemen naz zuen bitartekoa<br/>arinduteko nekiak.<br/>zoritxarretan<br/>neke-esturetan<br/>neugana heldu guztiak.</p> |
| <p>03. Sukalkina behin meza entzuten<br/>zain atartetik egoan<br/>ixil-ostuka erdaldun batek<br/>bildots errea eroian.<br/>Kanpaien minak<br/>iges eginak<br/>beso hausita itxi eban.</p>        | <p>06. Agur Maria, Jaungoikoaren<br/>eta gizonen Ama ona<br/>otoi egizu bai gure alde<br/>lortu daikegun zoruna<br/>goralduteko<br/>beti betiko<br/>Jesus gure Jaun laztana.</p>     |

80

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. <b>Udiarraga:</b> Bizkaiko Ugaoko leku bat.<br/><b>Dingiliz:</b> dilindan, zintzilik, dingilizka.<br/><b>Tupin:</b> dupina, galdara, pertz.<br/><b>Daigun:</b> dezagun.</p>  | <p><b>Eroian:</b> zeraman.<br/><b>Minak:</b> mihiak.<br/><b>Itxi eban:</b> utzi zuen.</p>                     |
| <p>02. <b>Erralde:</b> bost kiloko pisu neurria.<br/><b>Odolostiak:</b> odolestek, odolkiak.<br/><b>Txakolinagaz:</b> txakolinarekin.<br/><b>Inardu:</b> ihardun, jardun.</p>   | <p>04. <b>Ei:</b> omen.<br/><b>Igon:</b> igo, jaso, altxatu.<br/><b>Ebazan:</b> zituen.</p>                   |
| <p>03. <b>Sukalkina:</b> sukaldaria.<br/><b>Atarte:</b> atari, ateta.<br/><b>Egoan:</b> zegoen.<br/><b>Ixil-ostuka:</b> Isil ostenka, izkutuka, gordeka. <i>Ostu</i> —lapurtu edo ebatsiz gainera—<i>ostendu izkutatu</i> izan daiteke.</p> | <p>05. <b>Eutsen:</b> zien.<br/>06. <b>Daikegun:</b> ahal dezagun, dezakegun.<br/><b>Zoruna:</b> zoriona.</p> |

Bertso hauen motiboari buruz, Gurutzi Arregik xehetasun ugari ematen du aipatu liburuan. Oso antxinatik, irailaren lehen igandean, Kofradi Jaia egiten omen da. Horretarako, bezperan Udiarragako zelaian batzen ziren eta han zekor handi bat hil. Hurrengo egunean, zekor osoa kabitzeko moduko tupin handian, okela jana eta jaia izaten zen, meza ondoren. Gero tupin hori ermitan bertan gordeko zuten hurrengo urterarte.

## ARIN ELEXARA

(Jose Miguel de Barandiaran - *Obras Completas. Eusko-Folklore II*, 172. orrialdetik aurrera. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca).

Arin elexara  
eroan eztaigun  
Birjinea plazara.



01. Plazarrak egin euren kostaz elezea entradaz behar dala eurentzat mezea.
02. Plazatarren defentsore plumea abile papelak baltzitude jo daure Madrile.
03. Haintxe topau daure Andra Erregine  
...  
...
04. Arpelik izingo dire zuen ahaleginek abarka-mantadunek beti dagoz firme.



- Arin:** azkar, agudo.  
**Elexara:** Elizara.  
**Eroan eztaigun:** eraman ez dezagun. Zentzua eraman ez dakigun edo eraman ez diezaguten da.
01. **Euren kostaz:** euren kostuz, eurek ordaindurik.  
**Entradaz:** aukeran, eroso.
02. **Plumea:** luma, idazluma.  
**Baltzitude:** beztuta.  
**Jo daure:** jo dute.
03. **Topau daure:** topatu, aurkitu dute.  
**Andra erregine:** Isabel II nonbait, Barandiaranek dionez.

04. **Arpelik:** alperrik.  
**Izingo:** izango.
05. **Batze auren:** batzean euren, batzen zuten.  
**Txakur de katu:** txakur eta katu. *Txakur*'en esanahi bikoitzez jokatuz: animalia eta dirua edo txakur handiak eta txikiak.  
**Ezin daure:** ezin dute.
06. **Eurekaz:** eurekin.  
**Daure:** dute, daukate.

Zeanuriko eliza plazatik urrun samar egonik, plazatarrek sarritan ahalegindu izan dira parrokia beheko San Isidro ermitara ekartzen. Baserritarrek berriz asmo horren zeharo kontrakoak ziren eta gisako bertsoak kantatu ohi zituzten. Eliz kontu honek hamaika haserre sorrerazi omen du Zeanurin.

### ZEANURIKO ELIZA ERRETZEA

(Jose Miguel de Barandiaran - *Obras Completas. Eusko-Folklore - II*, 173. orrialdetik aurrera. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca).

01. Bertso berri batzuek nahi nunkez kantatu motibo handi batek nola obligatu. Behar bezela ezin ondo esplikatu txarto esaten badet beharko parkatu.
02. Elixaren ganean nahi nunke berba egin ez dakit zer gertatu behar dan berakin. Horrela ikustea ez da ba atsegin errazoa non dagoan nahi nunke nik jakin.
03. Eleixa ikustea abandonaturik neure bihotza dago tristezaz beterik. Santu guztiak bere despreziaturik Elixori daukagu pastore bagarik.
04. Hiru mile hoguerleko koruko organuek hainbeste ta gehiago beste enpaduek. Fazil largau dituzte horko enkarguek noz entzungo ete doguz barrero soinuek?

05. Atxine ibili zirean  
dirue batzean  
konpondu behar zala  
uda maiatzean.  
Bueltak eman dituzte  
bien bitartean  
elixa hori daukogu  
estadu txarrean.
06. Arketitoxa joan zan  
gauza pentsaute  
konpontzeko elixa  
berak esan du-te.  
Jaun horren errazoaia  
geratu zen ahaztute  
orain gehienak dagoz  
arkalegaz nahastute.
07. Gero pentsatu dute  
eitia barria  
baldin konforme balitz  
Zeanuriko herria.  
Berrogeita hamar metro  
luzia naurria  
haraxe bajetako  
Birjina Maria.
08. Hor dabildez gizonak  
atzero ta aurrera  
eleixa barrireko  
ematen indarra.  
Zahar hori badatorrela  
lastertxo lurrera  
ezin altzau laiela  
inondik inora.
09. Atxakie franku  
badago hoiien artean  
plazan on gure daure  
guztiak nahastean.  
Foltsan dirue balauke  
bien bitartean  
pozik ongo litzakez  
barrie ein artean.
10. Ez dute kapiduko  
neure eretxian  
asmu asko dabilde  
denpora gitxian.  
Gizonak engainatzen  
erdi ixilean  
traizioan duena  
beti bildurrean.
11. Batuteko dirua  
agertu bagarik  
asmu bila dabilatzaz  
bape bildur barik.  
Ezin bizi ginala  
gizon hori barik  
bere faltak gabiltza  
disimulaturik.
12. Lelengo egunean  
gogor ein bagendu  
orain ezkindu uko  
honenbeste damu.  
Eleixan ez da egon  
horrenbeste dainu  
gizonak iminteko  
eleixen enpeinu.

13. Hirurogeita sei urtean  
gizon batzuk gaitik  
hasarre handiek ziran  
motibo horregaitik.  
Kabidu behar zutela  
guztien gainetik  
santuak atera ezin  
egoazan lekutik.
14. Era horretan zirian  
Matxino-Jeboak  
bape hobeak ez dira  
horrazkerokoak.  
Orain ezautu deguz  
gure kontrarioak  
beti izan ei dira  
errezelokoak.
15. Eba despatxatu ta  
Don T... atera  
batentzat mesedea  
bientzat kaltea.  
Azpitikan satorra  
fin ibiliten da  
kanpotik dabizenak  
zoliagoak dira.
16. Munduen asko deguz  
geure amigoak  
beste batzuek berriz  
txit kontrarioak.  
Fazil ematen ditue  
horreik kanbioak  
Don J...eri bere  
eman premiua.
17. Ez du ezer jakiten  
hemen aldeetan  
zer pasatuten jakun  
gure herrietan.  
Eleixara joaten gara  
beti domeketan  
meza nausie barriz  
bedratzi t'erdietan.
18. Orazinoko etseak  
atxinako legean  
plazatikan aparte  
egiten zirean.  
Orain egin gura dabez  
plaza bazterrean  
konpromisoa franku  
dagoen aldean.
19. Eleixa barri hori  
askok du espero  
hamaika mila asko  
prestatu azkerok.  
Neronen deseoa  
esango det klaro  
eleixa zahar horrekin  
neu konforme nago.
20. Beti gorde gura det  
bere dezenzie  
Birjina Ama dalako  
bitarteko haundie.  
Orain artean elixa  
izan da beria  
haintxe dago gustura  
Birjina Maria.



01. **Nunkez:** nituzke.  
**Txarto:** gaizki, oker.
02. **Berba:** ele, hitz.
03. **Elixori:** eliza hori.  
**Pastore bagarik:** artzain gabe.
04. **Hogerleko:** bost pezetakoa, duroa.  
**Enpaduek:** enparaduak, gainerakoak, gainontzekoak.  
**Fazil:** aisa, errez.  
**Largau:** utzi, abandonatu.  
**Doguz:** ditugu.
05. **Atxine:** antxina, behinola, aspaldi.  
**Batzean:** batzen, biltzen.  
**Estadu:** egoera.
06. **Arketittoa:** arkitektoa.  
**Te:** ta, eta.  
**Dagoz:** daude.  
**Arkalegaz:** elkarrekin.
07. **Bajetako:** bajatzeko, jaisteko.  
**Naurria:** neurria.
08. **Dabildez:** dabilta.  
**Altzau:** altxatu, jaso.  
**Laiela:** litekeela.
09. **Atxakie:** aitzakia.  
**Franku:** frango, ugari.  
**On gure daure:** egon nahi dute.  
**Balauke:** baleukate.  
**Litzakez:** lirateke.
10. **Kabidu:** norberea egin, norbere asmoa aurrera atera.  
**Eretxian:** iritzian.  
**Asmu:** asmo, plan.  
**Dabilde:** darabilte.  
**Duena:** doana. *Dagoena* ere izan daiteke.
11. **Batuteko:** batzeko, biltzeko.  
**Barik:** gabe.
12. **Ezkindu uko:** ez gindun eukiko, ez genuen edukiko.  
**Dainu:** kalte, oker.  
**Gizonak iminteko eleixen enpeinu:** Gizonak eliz kontuetan hainbeste enpeinatze edo arduratzeko.
13. **Egoazan:** zeuden.
14. **Matxino-Jeboak:** *Matxinoak* plazatarren edo hurikoen ezizena. *Jeboak* baserritarren ezizena.  
**Horrazkerokoak:** horrez gerokoak, gerortzikoak.  
**Deguz:** ditugu.  
**Ei:** omen.
15. **Fin:** langilea, asko saiatzten dena.  
**Dabizenak:** dabilzanak.  
**Zoli:** argi, zuhur, bizkor.
16. **Amigoak:** lagunak.  
**Txit:** oso, arras, biziki.  
**Horreik:** horiek.  
**Bere:** ere.
17. **Ez du:** ez dogu.  
**Hemen aldeetan:** hemengo aldeetan, alde hauetan.  
**Pasatuten jakun:** pasatzen zaigun.  
**Domeketan:** igandeetan.  
**Bedratzi t'erdietan:** meza nagusiarentzat ordu raroa.
18. **Orazino:** orazione, otoitz.  
**Etseak:** etxeak.  
**Atxinako:** antzinako, lehengo lege zaharreen.
19. **Hamaika mila asko:** esaldi bihurri samarra. *Milako asko* edo *diru asko* esan nahi du.  
**Klaro:** argi.
20. **Dezenzie:** dezentzia, duintasuna.

1919. urtean Zeanuriko Andra Mariaren parroki eliza suak hartu zuen. Ondoren berriz ere eztabaida latzak sortu ziren, berria plazan egin ala zaharra berritu. Azkenean eliza erre bere lekuan berritu zuten eta oraindik han jarraitzen du, azken urteetan, zenbait lur mugimenduz, berriz arazoak sortu badira ere. Oraingoan ez dirudi antxinako haserrerik piztuko denik.

## ARDUAREN IPUIAK

(Ibaizabal, 59, 2. urtea, 1903 - Zezeila, 3. or.)

01. Arduaren ipuiak  
asko ta luziak  
ezin esan nezakez  
nik orain guziak.  
Horregatikan ere  
bere txit zaleak  
hara hemen nolabait  
onak albisteak.
02. Zeinbat gizasemekin  
du burla egiten  
mahatsaren urbeltz urak  
igaz eta aurtan.  
Edan ardura gabe  
-dio-merke nago  
zuen sabel barruan  
ongi naiz egongo.
03. Hasi eta nahiago  
merkeaz pozturik  
denbora gutxi barru  
ongi beroturik.  
Ez da handik aurrera  
senide pobrerik  
gaztaina eta arto  
ez gari urrik.
04. Trago baten ondoren  
lastertxo bestea  
fortuna askorentzat  
jarrita egotea.  
Jaikitzen diranean  
dirade kontuak  
nola aurkitzen diran  
belaun ta buruak.

05. Bide guztiak dira berentzat estuak mutilen parregarri dijoaz gajuak. Begi gorrituekin ekusi ezinik nonbait gelditu arte lupatzen etzunik.
06. Batzuek hasten dira orduan kantatzen non da baleudez legez ohe bigun baten. Besteak hatzaparrak guziz zabaldurik lupatza izten dabe ongi markaturik.
07. Jira eta biraka han jaiki ezinik ez da erraz aurkitzen urde hain zikinik. Horra zertara duan gizonak burua maitetu dualako larregi ardua.
08. Gabak asko emanda gehien gehienez dirade etxeraten ez ordu onean. Batzuek berehala ohera sarturik diote ez dutela gaitzezko katurik.
09. Beste batzuek berriz diote pozarren ez diradela inoiz lurrera erorten. Baina beren buruak ongi lainotuak hala gaxoak daudez ongi mozkortuak.
10. Pipia aterata ezin ondo sutu edo bai berehala laster amatatu. Hau da seinale ona gizonen artean tabernatik etxera dijoazenean.
11. Hor ta hemen gelditu pausu bakoitzean mormorietan jardun bakar bakarrean. Egia esateko dute bai laguna hartan hasi ezker txito ezaguna.
12. Erderazko hizketa dute txit maitea lotsaria bezela euskera egitea. Hitz bero bakoitzean lurrera txistua ez da ez mozkorraren seinale gaiztoa.

13. Ardoz bete ezker ez da ez txatxarrik ez bera bildurtzeko zenzo eta zorrik. Ez badu ere emango tabernan pagurik larga du saltzailea guzia pozturik.
14. Zaharrak ahaztuten dira beren urteakaz itxu eta herrenak eri guziakaz. Ixilak berriketan atsoak kantatzen ez det nekatu gura gehiago kontatzen.

∞

01. **Nezakez:** nitzake, neikez.  
**Txit:** oso, arrunt, biziki.
04. **Fortuna:** zortea, suertea.  
**Jarrita:** jezarrita, eserita.
05. **Dijoaz:** doaz.  
**Gajuak:** gaizoak, gizajoak.  
**Lupatza:** basatza, lokatza, lohia.  
**Etzunik:** etzanik.
06. **Baleudez legez:** baleude bezala.  
**Izten dabe:** uzten dute.
07. **Urde:** zerri.  
**Duan:** duen, daukan.  
**Larregi:** gehiegi.
08. **Katurik:** mozkorrik. *Katua, hatxurra, anporra, kakota...* hainbat ezizen dauka mozkorrak.
09. **Pozarren:** poz pozik.
10. **Pipia:** pipa, pipontzia, tabakoa erretzekoa.  
**Amatatu:** iraungi, itzungi, itzali.
11. **Mormorietan:** marmarrean, berriketan, erasian.  
**Txito:** txit, oso, arrunt.
12. **Lotsaria:** lotsakizuna, ahalkea.  
**Hitz bero:** madarikazio, birao.  
**Txistua:** tua, listua.
13. **Txatxar:** txiki eskasa, koskorra, ziztrina.  
**Zenzo:** ez dakit zer izan daitekeen. *Zentso-zentsu* 'tik ez dirudi zentzurik daukanik, *zerga* esan nahi ez badu.  
**Pagurik:** ordainik, irabazirik.  
**Larga du:** laga, utzi du.
14. **Urteakaz:** urteekin.  
**Eri:** eritasun, gaiso.

Bertso hauek, ikusten denez, gipuzkerara joera handikoak dira, baina argi dago egilea bizkaieratik datorrela: *nezakez, etzunik, baleudez legez, izten dabe, larregi, amatatu, urteakaz* eta abar nekez nahastuko dira berea gipuzkera duenarengan.

## BERRIATUKO FILARMONIKIE

(Joseba Arregi "Altzu" Berriatuar bertsolariak Aulestiko Olalderi jasoak)

- |  |  |
|--|--|
| <p>01. Elgoibarretik Ondarruara<br/>igaro nintzan lehenguan<br/>Berriatuko hautu polit bat<br/>bide batez jakin nuan.<br/>Bertso berriak ataratzea<br/>orain jarri jat buruan<br/>guzur bagarik egia garbiz<br/>dana jazo dan moduan.</p>          | <p>04. Eleiza dan lez garan kristinau<br/>guzti guztien batzarra<br/>haugaitik dago bere agindua<br/>zintzoki bete beharra.<br/>Baina gazteak zoro ta mizke<br/>beti dantzarako garra<br/>hortik sortu zan hainbeste nahaste<br/>saltsa, guda edo gerra.</p> |
| <p>02. San Antolingo eleiz onduan<br/>jaiegun arratsaldetan<br/>Berriatuko gazte jentea<br/>han ibiltzen zan olgetan.<br/>Batzuk jotzeben filarmonika<br/>beste batzuk bizkor dantzan<br/>arratsaldea pozez beterik<br/>horrela igarotzen zan.</p> | <p>05. Handik behinguan egiten dabe<br/>filarmonikie ostu<br/>nork ostu eban jakin ezinda<br/>zebiltzan larri ta estu.<br/>Juzgu dongiak izeko-osaba<br/>lehengusinen da lehengusu<br/>Nikolas eta Pedro zirala<br/>besterik ezin sinestu.</p>               |
| <p>03. San Jose eguna beti martian<br/>hemeretzigarrenian<br/>da garizuman gainera beti<br/>neure gomuta danian.<br/>Eleizak dino ez ibiltzeko<br/>olgetan, dantzan, lanian<br/>baina gazteak zeinek gelditu<br/>soinua hasten zanian.</p>         | <p>06. Ondino ere nahi eben eurak<br/>zigurrago jakitie<br/>horretarako gomuta jaken<br/>astruengana juatie.<br/>Hak esan eutsen jakina dan lez<br/>eurek nahiben lez guztie<br/>"eta apurturik agertuko da<br/>ostu dautzuen gauzie".</p>                   |

- |   |  |
|---|--|
| <p>07. Gogortu ziran konsulta hori<br/>emondakuan astruak<br/>zigur zirala Nikolas eta<br/>Pedro soinua ostuak.<br/>Juzgu dongiau laster jakiben<br/>Berriatuko auzuak<br/>hau jakitian larri ta estu<br/>mutil honein gurasuak.</p>              | <p>11. "Neuk ostu neban etxian daukat<br/>kuma barruan gorderik<br/>horretan ez dau bestek parterik<br/>neu naz errudun bakarrik.<br/>Uste dot bera egongo dala<br/>hartu neban lez osorik"<br/>esan da egin, ekarri eban<br/>ezer apurtu bagarik.</p> |
| <p>08. Josepa Antoni ta Mariari<br/>etorri jaken gomutie<br/>Arimari ta San Antolini<br/>meza bi ataratie<br/>jakitearren nok ostu eban<br/>zigur filarmonikie<br/>ez ebelako gura lapurtzat<br/>erru bakorik eitie.</p>                          | <p>12. Horra nun diran atso sorginak<br/>horra nun diran astruak<br/>horrein insulta edo konsulta<br/>guztiak okerrekuak.<br/>Alperrak dira horrein bihotzak<br/>buru, hanka ta eskuak<br/>bizimodua galtzen dabizan<br/>igarla guzurrezkuak.</p>      |
| <p>09. Handik behinguan nun jazoten dan<br/>mirari harrigarrie<br/>agertzen dala inok usterik<br/>ez eukan pekarie.<br/>Damutasunez autortutzen dau<br/>eindako gaiztakerie<br/>ikaturik geratutzen da<br/>Berriatuko herrie.</p>                 | <p>13. Gauza guztie igarritzeko<br/>jakituria balauke<br/>urtengo daben loteriako<br/>txartel bat hartu behar leuke<br/>inok ezelan ez dakiela<br/>jartzeko aberastute<br/>ibili barik gosiak hiltzen<br/>eskekuak lez arlote.</p>                     |
| <p>10. Zer moduz edo zelan ostu dok<br/>berari itandu eutsien<br/>mutil koskorak garbi dirautse<br/>aingeru baten antzian.<br/>"Ura edaten atetik sartu<br/>inor ez zan lez etxien<br/>ausartu nintzan gora joanda<br/>filarmonika hartzien".</p> | <p>14. Goguan hartu zer esan dodan<br/>oraingo bertso barrian<br/>alperrik jarri ez zagiezan<br/>horrelanguen aurrian.<br/>Zeruko Jauna jakiturizat<br/>hartu bihotzen erdian<br/>kristau zintzuak izan gaitzen<br/>batez be Euskal Herrian.</p>       |

15. Berriatuko atzera-aurrerak  
guzurrak eta nahastiak  
dardar gainera jarri errurik  
ez euken mutil gaztiak.  
Baina azkenik apurtzen ditu  
sorgin da saltsa guztiak  
zorioneko Arimari ta  
San Antolinen meziak.



01. **Igaro:** iragan, pasatu.  
**Hautu:** solas, hizpide, berriketa.  
**Bagarik:** barik, gabe.  
**Jazo:** gertatu.
02. **Olgetan:** jolasean, jostatzen.  
**Jotzeben:** jotzen eben, zuten.
03. **Martian:** martiaren, martxoaren.  
**Gomuta:** oroitzapen, gogorapen, akordu.  
**Dino:** dio, esaten du.
04. **Dan lez:** denez, denez gero.  
**Mizke:** gozozale, edozer jaten ez duena, beti zerbaiten bila sosegatzen ez dena.
05. **Behinguan:** berehala, oso laster.  
**Ostu:** ebatsi, lapurtu.  
**Eban:** zuen.  
**Juzgu:** eritzi, uste, pentsamen.  
**Dongiak:** dongeak, gaiztoak.  
**Izeco:** izeba.
06. **Ondino:** oraindik, oraino.  
**Zigurrago:** ziurrago, segurrago.  
**Gomuta jaken:** gogoratu, oroitu zitzaien.  
**Astru:** azti, etorkizuna igartzen duena.  
**Eutsen:** zien.  
**Nahiben lez:** nahi eben lez, nahi zuten bezala.  
**Dautzuen:** dizuten.
07. **Dongiau:** donge hau, gaizto hau.  
**Jakiben:** jakin eben, zuten.  
**Honein:** hauen.
08. **Jaken:** zitzaien.  
**Jakitearren:** jakiteagatik.  
**Ebelako:** zutelako.  
**Bakorik:** gabekorik.
09. **Eukan:** zeukan.  
**Autortutzen:** aitortzen, konfesatzen.
10. **Itandu:** galdetu.  
**Eutsien:** zioten.  
**Dirautse:** dinotse, esaten die.  
**Antzien:** antzean, antzera.  
**Ura edaten:** ura edatera.  
**Ez zan lez:** ez zenez, ez zenez gero.  
**Hartzien:** hartzen.
11. **Kuma:** sehaska.  
**Neban lez:** nuen moduan, bezala.
12. **Horrein:** horien.  
**Dabizan:** dabilizan.  
**Igarla:** igarle, asmatzaile.
13. **Balauke:** baleukate.  
**Urtengo daben:** irtengo, aterako den.  
**Leuke:** lukete.  
**Ezelan:** inola, neholatan.  
**Barik:** bagarik, gabe.  
**Eskekuak:** eskaleak.
14. **Zagiezan:** zaitzaten.  
**Horrelanguen:** horrelakoen.
15. **Euken:** zeukaten.

Bertso sorta hau dotorea da benetan. Gaia aurkeztean, garatzean eta amaitzean, narrazioa argi eta bizi darama, tarteka elkarriketak sartuz. Bestalde bizkaiera huts eta naturalean doa dena. Baditu ikutu kulto samarrak eta ahalegin moralkoak ere, baina oro har, oso hizkera herritarra darabil.

### ERMUKO MUTIL GAZTE BATEK ("Berso berriak, Ermuko mutil gazte batek jarriak, 1908 garren urtian")

(Berriatuko Jose Luis Basterretxea "Altzalei" bertsolariaren etxean daukaten bertsopaper bat. Azpian jartzen du: Guernica. Imp. de A. Egurrola)

01. Berso berriak jartzera nua  
ejemplo eder batian  
gazte jendia dibertitzeko  
ez da inoren kaltian.  
Mingaina dabil oso legala  
bihotza tranpaz betia  
nere nobia izan dalako  
badaukat nahiko kaltia.
02. Penagarrizko gauzak dirate  
mundu hontako kasuak  
inok ez ditu disimulatzen  
projimuaren pausuak.  
Gertatu diran komeri hoiak  
dauzkat goguan jasuak  
gure herriko neskatxa bati  
jarri biharzat bersuak.
03. Lasubidetik neskatxa hori  
agertu dala medio  
hizketan hasi eta nunahitik  
enbusteria dario.  
Salbaziorik Jangoikoak horri  
baldin ematen badio  
fintasunian ibilitziak  
ez du orain asko balio.
04. Hizketan ere poliki daki  
inor engainatu arte  
ezagutuzten ez da erreza  
neri kosta zait bastante.  
Alperrik galtzen bazeguala  
neska hori bezin ederrik  
sorgin guztiak dantzan jartzeko  
ez du inoren beharrik.

05. Mundu honetan ez dira falta  
hi bezalako trastiak  
plaza batera atera leikez  
holako neska gaztiak.  
Euren artetik atera ziran  
ezkontza tratu guztiak  
hoietatikan libre nago ta  
Jangoikoari graziak.
06. Pentsatzen ez dan gauza asko da  
mundu honetan gertatzen  
hemen edo hor disgustorikan  
behin ere ez da faltatzen.  
Gutziz benetan hasi nitzan ni  
neskatxa eder bat gustatzen  
gauzak honela suzeditzerik  
ez nuan asko pentsatzen.
07. Ezkontza hori galduagatik  
lehen hainbatian banago  
Braulia horrek karino gutxi  
neretzat zeukan lehenago.  
Bere obreri begiratuta  
itxura horrela dago  
neskatxa bera muratu zaigu  
ezkondu baino lehenago.
08. Nola dagan deseatatzen  
senar baten beharrian  
inozentia izan banitza  
ez neguan leku txarrian.  
Horren gustua ezin eginda  
hor ibili naiz gau ta egun  
orain graziak eman beharrik  
kopeta jartzen dit ilun.
09. Beratzi ezkongei lehen izan ditu  
ni nintzan hamargarrena  
itxura horretan ez da izango  
hori maleta zuzena.  
Esosatuta pasaukogula  
bizimodu bat bikaina  
hori esaten hasi zanian  
moztu banion mingaina!
10. Uju ta aja beti hor dabil  
mutil guztiak atzian  
neska hoberik daguanikan  
ez du pentsatzen herrian.  
Neskatxa horren edadia da  
hogeita la edo bost urte  
malizia ta tranpa badauka  
sorgin guztiakin beste.
11. Nik gertatua agertutzen det  
papel hau eskribituta  
Braulia, onra goguan izan  
gauza honek adituta.  
Meritu asko irabazten da  
finezari segituta  
urte askuan bizi izan zaitte  
senar formal bat hartuta.
12. Orain aitu det badabilela  
beste galaian batekin  
hori mudatzen erreza da ta  
kontuz mutilak horrekin.  
Despedidia ematen dinat  
horra hamabi bersokin  
neskatxa hori bizi dedila  
aita eta amarekin.

02. **Dirate:** dirade, dira.  
**Bihartzat:** behar dizkiot.
03. **Lasubide:** toki izena izan liteke —Lasunbide, Lasuenbide...—, baina ingurukoek ez didate konfirmatu. **Lazubide** edo tranpabide ere izan liteke.  
**Enbusteria:** zurikeria, labainkeria, engainua.
04. **Inor:** besteak, beste norbait.  
**Bastante:** aski, nahikoa.
05. **Trastiak:** aleak, elementuak, trepetxuak.  
**Leikez:** litezke.
06. **Ero:** edo.  
**Suzeditzerik:** gertatzerik.
07. **Lehen hainbatian:** lehengo neurrian, lehen bestean, lehen bezanbatean.
- Karino:** xera, laztan, maitasun.  
**Obreri:** obrei, egiteei, ekintzei.  
**Muratu:** mudatu, aldatu, ganbiatu.
08. **Inozentia:** inozoa, zozoa, kokoloa, malezi gabea.  
**Kopeta:** bekokia.
09. **Beratzi:** bederatzi.  
**Maleta:** fardel, karga.  
**Pasaukogula:** pasatuko dugula.  
**Mingaina:** mihia.
10. **Hogeita la:** hogeita lau.  
**Beste:** bezanbat, aina.
11. **Onra:** ohorea, duintasuna.  
**Finezta:** fintasun, prestutasun.
12. **Galaian:** galairen.

Bertso hauen paperak oker nabariak eta ugari dauzka transkribapenean. Zuzendu egin ditut, begi bistakoak bait dira. Hamaikagarren bertsoaren lehen erdia dena interpretatu dut, dagoen bezala ez bait dauka zentzurik: *Nic aldua aguertsen det papel au escrituta, Braulia oara goguac isan gausa oneo adituta*. Beste guztiak nahiko akats argiak dira.

Bestalde, bertsozintza Ermuarra izan arren, gipuzkera hartzen du eredutzat, bizkaitar askoren hobe-usteari jarrai, baina tarteka bizkaiera nabarmentzen zaio: *bihartzat, leikez, pasaukogula, beste, honek* (honeik, hauek), *beratzi*... Baita inguru horretako lokalismo garbia ere: *la edo bost*. Erriman ere Bizkaiko bertsozintzaren tradizioa bistan du, batzutan —lau, zortzi eta hamargarrenean— bi puntu batera eta bi bestera errimatzen bait ditu. Potoari ere ez dio garrantzi handirik ematen, zazpigarrenean ageri denez.

**KALIFORNIAKO MENDIAN**  
 (“Bertso berriak, Californiako mendian  
 ardizain batek jarriak. 1911”)

(Ameriketako bertsoak. A. Zavala. Auspoa 176, 79-84 or.)

- |  |   |
|--|---|
| <p>01. Bertso berri batzuek<br/>nahi nitukez jarri<br/>pastore tristiaren<br/>eskermentugarri.<br/>Mendi altu honetan<br/>guztiz nago larri<br/>geure pasadizua<br/>esan gabe garbi.</p> | <p>04. Hogei urte oin dira<br/>ni jaio nitzala<br/>gaztia izen arren<br/>eginda nau zaharra.<br/>Gorputzian badaukat<br/>ulia ta bizarra<br/>berbetan aztutia<br/>izango da txarra.</p>   |
| <p>02. Neu naz pastoria ta<br/>neuk dakit onduen<br/>geure pasadizua<br/>nola dan munduen.<br/>Ia bada, jendiak<br/>aditu kantuen<br/>hemen kanteko dot nik<br/>ahal dodan moduen.</p>   | <p>05. Gure bizimodua<br/>bere modukua<br/>ezin konparau leike<br/>motxila pilua.<br/>Koltxila zahar pare bat<br/>olana orrutua<br/>haixe izaten degu<br/>gure lo-lekua.</p>              |
| <p>03. Bakarta handiagaz<br/>neguko hotzetan<br/>egon biharko degu<br/>mendi mortuetan.<br/>Personian sonbria<br/>hilian birritan<br/>ikusiko bagendu<br/>gagoz gu pentsetan.</p>        | <p>06. Goizian goiz jagita<br/>agudo hanka biak<br/>balio izan bihar da<br/>zaintzeko ardiak.<br/>Kunplitu gura bada<br/>bai geure legiak<br/>gaberako eiten jakuz<br/>orpuan babiak.</p> |

- |   |  |
|---|--|
| <p>07. Gosia tripan eta<br/>bai hanka-jokua<br/>ezin pijatu leike<br/>geugaz kameilua.<br/>Tentera juateko<br/>geure kontentua<br/>zetan ete daguan<br/>indar lapikua.</p>            | <p>10. Otsua eta gukarra<br/>alkate basahuntza<br/>eta alboko arbolan<br/>zantzoka gabontza.<br/>Pastore gizajuak<br/>lurrian lo hotza<br/>esan lei nahi duela<br/>eman heriotza.</p>  |
| <p>08. Edurra eta euria<br/>afrontu guztiak<br/>pasatu bihar ditu<br/>gure espaldiak.<br/>Kapa bat erosteko<br/>gagoz aspaldian<br/>herrira joateko<br/>gagoz urrunian.</p>           | <p>11. Indarra ta arroza<br/>zentenua ogi<br/>horixe izaten da<br/>bai gure janari.<br/>Bastimentu eskasa<br/>guztiz da bai hori<br/>pozu geldiko ura<br/>ganera edari.</p>  |
| <p>09. Uda partia bada<br/>arbola tartian<br/>koltxila bat botata<br/>lo lurren ganean.<br/>Izarrak teiletutzat<br/>edurre darian<br/>pastoriak egon bihar du<br/>holango lanian.</p> | <p>12. Mila bederatziehun eta<br/>hamaikagarren urtian<br/>Kristo jatxi zanetik<br/>hona bitartian<br/>irilian hogeta bederatzian<br/>dauz jarrita San Migelen egunian<br/>ondo egongo dira ipinita<br/>inprentau dan egunian.</p> |



- |  |  |
|--|--|
| <p>01. <b>Nitukez:</b> nituzke. Bizkaiera-gipuzkeren nahastea.<br/><b>Pasadizua:</b> gertaera, gorabehera, joane-torria.</p> | <p><b>Personian:</b> pertsonaren, lagunaren.<br/><b>Sonbria:</b> geriza, itzala.<br/><b>Birritan:</b> bitan, bi aldiz.<br/><b>Gagoz gu pentsetan:</b> gaude gu pentsatzen. Alegia, hilean bi aldiz ere ez zeuka-tela pertsona bat ikusterik.</p> |
| <p>02. <b>Onduen:</b> ondoen, ongien.<br/><b>Kanteko:</b> kantatuko.</p>   |  |
| <p>03. <b>Bakarta:</b> bakartate, bakartasun.<br/><b>Handiagaz:</b> handiz, handiarekin.</p>                                 | <p>04. <b>Oin:</b> orain.<br/><b>Izen:</b> izan.<br/><b>Nau:</b> nago. Textuak <i>neu</i> dakar, baina</p>   |



*nau* behar du. Dena dela, *neu* ere izan liteke *nago* ren laburdura.

**Ulia:** ilea.

**Berbetan:** hizketan, mintzatzen.

**Aztutia:** ahaztea, ahanztea.

05. **Konparau leike:** konpara liteke.

**Motxaila:** moztaille, gehiengan jitoak edo buhameak.

**Pilua:** mordo, saldoa, andana, aldra.

**Koltxila:** koltxoi edo lastaira txikia eta gogorra, kurtxoia.

**Orrutua:** urrutua, urratua, tarrat egina.

**Haixe:** huraxe.

06. **Jagi:** jaiki.

**Agudo:** azkar, fite, arin.

**Gura bada:** nahi bada.

**Eiten jakuz:** egiten zaizkigu.

**Babiak:** babak, oin azpian, ibiliak edo oinetako estuak eraginda, sortzen diren handituak, baba antzeko beltzuneak.

07. **Hanka-jokua:** abiada handia, ihesa, arrapalada.

**Pijjatu:** fidatu. A. Zavalak papereko *pisatu* zuzendu eta *konparau* jartzen du, baina *pijatu* behar du. Bertsolariak ez zuen jakingo *pijatu* (jota frantsesa) nola idatzi eta *pisatu* jarriko zuen. Alegia, zeukaten gosearekin, gamelua ez zitekeela haiekin fidatu, hura ere jango bait zuten.

**Geugaz:** gurekin.

**Tentera:** dendara, kanpadendara. Ameriketako egonek hala esaten dute, ingeleseko *tent* hitzetik.

**Zetan ete daguan:** zertan oten den, nola ote dagoen.

**Indar:** indiar, indaba, babarrun.

**Lapikua:** eltzea.

08. **Afrontu:** normala baino haize gogorragoa. Haizebegia bera.

**Espaldiak:** bizkarrak.

**Urrunian:** urrun, urruti.

09. **Lurren ganian:** lurraren gainean.

**Eduurre:** elurra.

**Holango:** honelako, horrelako.

10. **Gukarra:** jaguarra, oso pizti arriskutsua.

**Zantzoka:** oihuka, garraisika.

**Gabontza:** gauhontza, hontza.

**Gizajuak:** gaizoak, gizagaizoak, errukarriak.

**Esan lei:** erran liteke.

**Eman heriotza:** heriotza irudikatu, heriotzaren antza hartu.

11. **Zentenua:** zekalea, landare belarkara bat.

**Bastimentu:** hornimen, hornidura, jan-horni.

**Pozu:** putzu, osin.

12. **Jatxi:** jaitsi, jetxi.

**Hona:** honera, hunat.

**Irilian:** irailaren.

**Dauz:** dagoz, daude.

**Inprentau:** inprentatu, inprimatu.

Zortzigarren bertsoaren lehen zatia honela dakar testuak:

Goizian goiz jagita  
ancuac agudoac  
balio izate biar  
dabe zaintzeko...

Horrek ez dauka zentzurik eta neure modura berregin dut. Hamaigarrena ere oso aldrebes dago. Azkena zortziko handian egitea pentsatu zuela dirudi, baina hala ere ganora gabe, eta hori nahiko raroa da, aurreko bertsoetan neurtzen badakiela erakutsi bait du. Honela berregingo nuke:

Mila ta bederatzirehun eta  
hamaikagarren urtian  
Kristo zerutik jatxi zanetik  
eta hona bitartian  
irailan hogeta beratzian  
San Migelen egunian  
jarrita dagoz publiketako  
inprentatzen diranian.

*Kristo zerutik jatxi zanetik (eta) hona bitartian* —Bizkaitik at *hone-raino bitartian*— oso formula hedatua da. *Beratz* ere oso laburdura ohikoa da. *Dagoz publiketako*: daude publikatzeko.

Horiek eta beste zenbait akats txiki orrazturik, benetan bertso sorta polita gelditzen da. Badira oso esakera adierazkorrak: *personian sonbria*, *berbetan aztutia*, *ezin pijjatu leike geugaz kameilua*, *izarrak teiletutzat*, *pozu geldiko ura*, eta oro har kontakizun guztia.

## IZAGIRREKO IDI NOBLIAK

(Bertso berriak Izagirre'ko idi nobliak jarriak. Euskal jokoak bertsoan (II). A. Zavala. Auspoa 183, 113. orrialdetik aurrera)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Arratsaldeko hirurak<br/>jo eben orduan<br/>sartu ziran idiak<br/>Zorrontzako plazan.<br/>Noble heldu zirian<br/>plaza horretara<br/>jente asko egoan<br/>eurari begira.</p> | <p>04. Aurrera bajoiezan<br/>gana surretara<br/>atzian akuluek<br/>zan guztietara.<br/>Ordubete bakarra<br/>izan da zuentzat<br/>aprobetxau zarie<br/>ondo ordu hatan.</p>           |
| <p>02. Lanien hasirikan<br/>eskoien aldera<br/>bigarrenko hausian<br/>untzeko sarria.<br/>Oh ze mingostasuna<br/>bihotz barruena<br/>zelan izango ete dan<br/>euren tratu eina!</p> | <p>05. Oh ze sentimentua<br/>neure ustian<br/>Nabarra sokorrukan<br/>plazan ikustian!<br/>Ezin defendidurik<br/>nengoan lekuan<br/>entregauta egoan<br/>Pauloren eskuan.</p>         |
| <p>03. Laster hartu zirian<br/>medio barriak<br/>itxi harriari ta<br/>akuluka biak.<br/>Jarri alde banatan<br/>akulari biak<br/>oh ze kolpe kruelak<br/>lepoan idiak!</p>           | <p>06. Nabarra, urten dozu<br/>plazetan nagosi<br/>horregaiti zuretzat<br/>krueldade hori.<br/>Sokaz kargau zaitue<br/>alderdi batetik<br/>bestetik akulue<br/>gorputz guztitik.</p> |

- |   |  |
|---|--|
| <p>07. Oh ze sentimentua<br/>lehengo etsekoentzat<br/>ikustian idiak<br/>tratamentu hatan!<br/>Gainera ikustian<br/>Zorrontzako plazan<br/>inozente dirua<br/>jausi zala bertan.</p>            | <p>11. Txomin Desiertuko<br/>motibo hartuta<br/>ezin prestau izan da<br/>idi horren kontra.<br/>Laster etorriko da<br/>bakar bat hartuta<br/>ez dakit ze buelta<br/>izango dan bera.</p>     |
| <p>08. Jakin izan balabe<br/>ordu haren barri<br/>ez eutsezan emongo<br/>idiak inori.<br/>Oin arte ez da izan<br/>euren deseoa<br/>proba engainuzkorik<br/>inun ikustia.</p>                    | <p>12. Proba zarratu dabe<br/>Gerniken eiteko<br/>herridien lepoak<br/>osatu orduko.<br/>Banango idiekaz<br/>herridien kontra<br/>harri nagosi eta<br/>akulari bana.</p>                     |
| <p>09. Urten, ahal bada, izu zuk<br/>Nabarra, plazati<br/>gero agertuko zu<br/>einiko tratu hori.<br/>Noble urten dozue<br/>plaza guztietan<br/>horregaiti bihotzak<br/>dekoguz mingostuta.</p> | <p>13. Sartu dire goizian<br/>banango idiok<br/>egin ditue harek<br/>ahal dituen markok.<br/>Gure izen dabe hartu<br/>harri hori sarran<br/>indar gitxi dauke ta<br/>beti hausietan.</p>     |
| <p>10. Min asko ibili da<br/>berbaz zuen kontra<br/>pareja bat zuentzat<br/>ezin bilatuta.<br/>Zaoz lekoan gero<br/>Zorrontzan galduta<br/>idi banakoak<br/>jarri dire kontra.</p>              | <p>14. Atsaldian plantau dira<br/>bertoko herridiak<br/>lepo minberatuak<br/>zituezan biak.<br/>Kontuz ibili zaitue<br/>horren gorputzetan<br/>zergaitik oraindino<br/>minbera daukezan.</p> |

15. Suabe hartu ditu  
Alonsok idiak  
halan bere tapau ditu  
goizekoen markak.  
Euki ez baleitue  
lepo mailetuak  
ordu erdiko biharrik  
ez zan horrentzat.
16. Herridiok urten dabe  
plazetan nagosi  
lau proba egin eta  
danak irebazi.  
Proba gehiau ein orduko  
gurot hil ditezen  
gehiago engainurik  
jausi ez daitien.
17. Penoso urte bientzat  
idiak hiltia  
zergaiti beti izan dan  
euren amantia.  
Plaza biten gobernatu  
urte biak ondo  
berdigu gogorraurik  
izen da horrentzako.
18. Barriro jausi barik  
ez, euren aldietan  
hoba da urte bitan  
horrek hil daitezana.  
Bizkaien jaio ziran  
Bizkaien hazita  
orain gelditu dira  
danak benziduta.
19. Hiru urte osoak  
Izagirren egin  
azkeneko egunak  
Marzelinorekin.  
Nobliak izan dira  
jaiotzatik hona  
azkenian mailetuakin  
horrek hil biharra.
20. Agur, zuri-nabarrak  
Alonsorekin  
horrek gelditu dire  
Bizkai danen goiti.  
Probentzie aldi  
danak bildurturik  
biba zu, Alonso  
gorri-nabarrakin.
01. **Eben:** zuten.  
**Zorrontza:** Zornotza, Amorebieta-Etxano.  
**Egoan:** zegoen.  
**Eurari:** eurei, berei.
02. **Eskoiaren:** eskoiaren, eskuinaren.  
**Hausia:** tirakada batean harriari eragiten zaion aurreraldia.  
**Untze:** plaza, probalekuan alde batetik bestera dagoena.
- Sarria:** sarrea, sarra, harriaren abia-kolpea. Oro har arrastea bera.  
**Mingostasuna:** mikaztasuna, garratzasuna.  
**Zelan:** nola.  
**Ete:** ote.  
**Euren tratu eina:** eurek, berek egin dako tratua.
03. **Itxi harriari:** utzi, laga, jarein harriari.



- Akulari:** akuilua daramana.  
**Lepoan:** bizkarrean.
04. **Bajoiezan:** baldin bazihoazen.  
**Gana:** akuiluaren kina edo eztena.  
**Surretara:** sudurretara.  
**Zan:** zain.  
**Aprobetxau zarie:** profitatu zarete.  
**Hatan:** hartan.
05. **Nabarra:** idiaren izena.  
**Sokorrukan:** orroeka, marruka, urrumaka, sokorrua edo laguntza eskatzen bezala.  
**Entregauta:** utzia, emana.
06. **Urten dozu:** irten, atera zara.  
**Kargau zaitue:** zamatu zaituzte.
07. **Lehengo etsekoak:** lehenago idien jabe izanak. Abereak etxetik etxera saldu izango zituzten.  
**Jausi:** erori.
08. **Balabe:** balute.  
**Eutsezan:** zizkioten.  
**Oin:** orain.
09. **Urten, ahal bada, izu zuk:** Urteizu ahal bada zuk, irten, jalgi zaitez ahal bada.  
**Agertuko zu:** agertuko dozu.  
**Einiko:** eginiko, egindako.  
**Urten dozue:** irten, atera zarete.  
**Dekoguz:** dauzkagu.
10. **Min:** mihi, mingain.  
**Berbaz:** berbetan, hizketan, eleketan.  
**Pareja:** pare, bikote.  
**Zaoz lekoan gero:** *zaozelakoan, zaudetelakoan gero* izan daiteke, honela ez bait da ezer.  
**Idi banakoak:** idi banakakoak, uztarri bakarrekokoak.
11. **Desiertuko:** Erandioko.  
**Horren:** horrein, horien.
12. **Proba:** dema, jokoa.  
**Zarratu dabe:** itxi, burutu, erabaki dute.  
**Herridiak:** idi gorriak, pirenaiakoak.  
**Harri nagosi:** harri haundi.
13. **Banango:** banakako, uztarri bakarrekoko.  
**Ditue harek:** dituzte hareik, haiek.  
**Markok:** marka hauek.  
**Gure izen dabe hartu:** nahi izan dute hartu.  
**Sarran:** arrastan, tatarrez.  
**Gitxi dauke:** guti daukate.  
**Hausietan:** tiratu eta gelditu, eramanaldi laburretan.
14. **Atsaldian:** arratsaldean.  
**Plantau:** plantatu, jarri, aurkeztu.  
**Zituezan:** zituzten.  
**Horren:** horrein, horien.  
**Oraindino:** oraindio, oraindik, oraino.  
**Daukezan:** dauzkaten.
15. **Halan bere:** hala ere.  
**Tapau:** ondu, hautsi, estali.  
**Ez baleitue:** ez balituzte.  
**Lepo mailetuak:** bizkar kolpatuak, kolpeka mankatuak.  
**Biharrik:** beharrik, lanik.  
**Horrentzat:** horreintzat, horientzat.
16. **Urten dabe:** irten, atera dira.  
**Gehiau ein orduko:** gehiago egin aurretik, gehiago egin baino.  
**Gurot:** gura dot, nahi dut.  
**Daitien:** dadin.
17. **Urte bientzat:** bi urte eginda, bi urtez proban ibilita.  
**Biten:** bitan.  
**Berdigu:** berdugo, borrero, zigortzaile.  
**Gogorraurik:** gogorragorik.  
**Izen da horrentzako:** izan da horientzat.
18. **Jausi barik:** erori gabe.  
**Hoba:** hobe.  
**Benziduta:** bentzuturik, menperaturik.
19. **Hona:** hunat, honera.  
**Mailetuak:** mailatuak, kolpeen ondoriozko zauriak.
20. **Danen:** denaren, guztiaren.  
**Goiti:** gainetik, garaile.  
**Probentzie:** probintzia, Gipuzkoa.

Tamalgarrria da hain bertso sentiberak eta herrikoiak izan litezkeenak, teknikaz, batez ere errimaz, hain makalak izatea. Argi dago ahapaldi bakoitza bi puntu batera eta bi bestera errimatzen direla, Bizkaiko tradizio zaharraren arabera, baina hala ere ez da egokitzen. Orraztu bat emanik -handi samarra noski-, sorta adierazkorra atera liteke.

### OTXANDIOKO MAKAILAUA

(Jon Enbeita bertsolariak Ereñoko Jorge Elordietari jasoak)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Bertso berriak jartzera nua<br/>gusto duenak aditu<br/>geure buruak agertu gabe<br/>ezin genzakez gelditu.<br/>Zeren daukagu geure artian<br/>makinatxo bat meritu<br/>zeren geraden kuadrila haundi bat<br/>lastimaz gera gitxitu<br/>nola geraden dibertiduak<br/>askok ezagutzen gaitu.</p> | <p>03. Gauza bat degu jarritakua<br/>lehenengo artikuluan<br/>alkarregana batun gaberik<br/>inora ezin geinkez juan.<br/>Romeri danak ikusi bihar<br/>nahi udan da nahi neguan<br/>retiro txarra jakina dago<br/>diru gutxi boltsiluan<br/>baina kantua ez da faltako<br/>gu sartzen geran lekuan.</p> |
| <p>02. Zelan mendian alkarregana<br/>batutzen diran ardiak<br/>eta gu gera zazpi laguntxu<br/>alkar estimagarriak.<br/>Ezaguturik daukaguz ondo<br/>Bilboko taberneriak<br/>eta sarritan bisitatzia<br/>agintzen digu legiak<br/>lastimaz degu falta txiki bat<br/>ez geradela hordiak.</p>           | <p>04. Oraintxe dira ia bi urte<br/>Otxandiora juanikan<br/>geure herria bisitatzera<br/>geu hangiak izanikan.<br/>Diru guztiak kendu zizkuten<br/>merienda bat einikan<br/>bost duro t'erdi pagatu bihar<br/>makailao zahar bat janikan<br/>eskerrak Bilbon ez daguala<br/>holako tabernarikan.</p>   |

- |  |   |
|--|---|
| <p>05. Makailaua jan bagenduan be<br/>zan ondo pagatutzeko<br/>gero bertsuak jarri genduzan<br/>guztiak ordaindutzeko.<br/>Zeinek erosi be ez zan falta ta<br/>geu berriz pozik saltzeko<br/>tabernerari bialdutsaguzan<br/>bihotza alegratzeko<br/>lehenengo leidu zizkala eta<br/>makailaua erretzeko.</p> | <p>08. Zapatuetako erretirua<br/>goizeko ordu bietan<br/>domekakua dirurik bada<br/>igual hiru t'erdietan.<br/>Dirua gutxi tabernan eta<br/>eskuak boltsiluetan<br/>serenuari haserre eginaz<br/>kalerik kale kantetan<br/>hotz haundirikan ez da izaten<br/>gure tripa bazterretan.</p>                      |
| <p>06. Guztiok gera ofeziokuak<br/>harotzak eta harginak<br/>igeltseruak ere bagera<br/>guztiok buru-arinak.<br/>Tabernetara joaten zaleak<br/>jeniuak ere berdinak<br/>ikusirikan daukaguz ondo<br/>inguruetako eskinak<br/>sarri juaten ez bagerade<br/>eragiten digu ezinak.</p>                          | <p>09. Gabon jaietan etxera juanda<br/>lehendabiziko berbia<br/>ama etorten zaigu atera:<br/>-Hemen da nere semia.<br/>Bilbo aldeko irabaziak<br/>aspaldikoak hemen dia<br/>ekarriko dau honek dirua<br/>nik baukot esperantzia.<br/>-Ez dezu euki espero txarra<br/>ene amatxo maitia.</p>                   |
| <p>07. Zazpirok gera erdi zoruak<br/>danok oraindik soltero<br/>eta gainera ezkonduzerik<br/>batek be ez degu espero.<br/>Sarri dakiguz geuk erabiltzen<br/>hankak hotz burua bero<br/>tabernetara juaten ere<br/>errimiak gara entero<br/>bijili asko ez da faltako<br/>gugaz ezkondu ezkerro.</p>          | <p>10. Amari atzera kontestau bihar<br/>neuk baukot asko penarik<br/>-Bilbo aldetik aspaldi hontan<br/>ez dago irabazirik.<br/>Patronak daudez karuak eta<br/>erdietan bihar barik<br/>trena pagauta etxat sobratu<br/>txakur txiki bat besterik<br/>hoba zenduan ein ez bazendu<br/>nere moduko semerik.</p> |



01. **Genzakez:** gintezke.  
**Dibertiduak:** jostariak, dibertsio zaleak.
02. **Zelan:** nola.  
**Daukaguz:** dauzkagu.  
**Hordiak:** mozkorrak.
03. **Batun:** batu, bildu.  
**Geinkez:** gintezke.  
**Boltsiluan:** poltsikoan, sakelean, patrikan.
04. **Zizkuten:** zizkiguten.
05. **Be:** ere.  
**Genduzan:** genituen.  
**Bialdutsaguzan:** bialdu geuntsazan, genizkion.
06. **Eskinak:** bazterrak, zokoak.  
**Eragiten:** egin erazten.
07. **Soltero:** gai, ezkongee.  
**Errimiak:** errimeak, trebeak, zerbaiteira joera handikoak.
- Entero:** oso, guztiz, arras.  
**Bijili:** haragi uzte. Ezkontzakoa esan nahi du.  
**Gugaz:** gurekin.
08. **Zapatu:** larunbat.  
**Domeka:** igande.  
**Serenua:** gaueko udaltzaina.  
**Kantetan:** kantatzen.
09. **Berbia:** berba, elea, hitza.  
**Dia:** dira.  
**Baukot:** badaukat.
10. **Atzera:** bueltan, berriz.  
**Kontestau:** erantzun.  
**Patrona:** ugazabandre, nagusiandre.  
**Karuak:** karioak, garestiak.  
**Bihar barik:** lan gabe.  
**Pagauta:** ordaindurik.  
**Etxat:** ez zait.  
**Hoba:** hobe.

## LUMOKO EULALI

(Berriatuko Jose Luis Basterretxea "Altzalei" bertsolariaren etxean daukaten bertso-paper bat)

01. Eulali, zertan zabiz inor engainetan ez diranak kontatzen bazter guztietan? Zeuk errua euki ta zeu zabiz berbetan? Zer dan neuk esango det bertso berrietan.
02. Zeuk biraldu zenduan errekaduakin esaten nahi zendula ezkondu nerekin. Baietz eraso arte ekin eta ekin Ai nik baneu orduan zu nor zeran jakin!

03. Zeuk errekadu einda ni zugaz batzeko biok bizimoduan alkarraz jartzeko ta oin modu horretan atzeratutzeko zer motibo izan da ezkontza galtzeko?
04. Norbera ibili barik burua jasoten auzoetan dakite poliki esaten. Ondo dakigu zuri zer jatzun gustatzen inori lanak erain zeu on deskantsatzen.
05. Bilbon kriada onda etorri Lumora puska bat deskantsatzen osaban ondora. Hor zabiltz erregina bazinan modura zure besteko bat barriz topau lei nun gura.
06. Lumoko herrian dauzan mutil aberatsak nahi bazendu lortuko zendukez zeuretzat. Halan kontatzen dezu hegaletan behintzat kontuz hartu ez zaizan norbaitek zorotzat.
07. Painelo gorria ta erropia beltza moda ekarri dezu Bilbotik honantza. Harro pasatzen dezu Lumoko aldatza baina beste batentzat mutil aberatsa.
08. Ez dago zu langorik Lumoko partian zeu zara ederrena guztien artian. Zuretzat senargeirik hemen parajian ez dago Madrilera mobidu ezian.
09. Uste dezu zerala ia erregina ta bai zerala markes gazte baten dina. Gorputzez txit ederra azalez urdina udebarriko lora edo kabelina.
10. Diputedu gazte bat lobratu artian zugaz ez dau gauzonik bien bitartian. Senarra dozunian Madrilgo kortian zeuk hara urtetako automobilian.

11. Markesen batatz laister  
ezkontzen bazera  
ta pasiatzen juan  
beraz Parisera  
geu be despeditzeko  
prest egongo gera  
emanik biderako  
ehun bat bolandera.

12. Hamabi bertsorekin  
horra despedida  
Eulalitxo, zurekin  
komediak dira.  
Juaten zermanian  
Lumotik Madrilerera  
enamorauko jatzuz  
painelo gorrira.



01. **Zetan zabiz:** zertan zabilta, zertan ari zara.  
**Engainetan:** engainatzen, iruzur egiten.  
**Berbetan:** eleka, hizketan.

02. **Errekadu:** mandatu, mezu.  
**Esaten:** esatera, esanez.  
**Eraso:** esan erazi, esan nahi ez dena atera.

03. **Zugaz:** zurekin.  
**Alkarraz:** alkarrekin.  
**Oin:** orain.

04. **Barik:** bagarik, gabe.  
**Jatzun:** zaizun.  
**Erain:** eragin, egin erazi.  
**On:** egon.  
**Deskantsatzen:** atsedenean, atsedean hartzen.

05. **Krieda:** neskame.  
**Onda:** egonda.  
**Osaban:** osabaren.  
**Besteko bat:** ainako bat, zure neurrikoa.  
**Topau lei:** kausi, aurki liteke.  
**Nun gura:** nonnahi, edonon.

06. **Dauzan:** dagozen, dauden.  
**Zendukez:** zenituzke.  
**Hegaletan:** bazterretan, han-hemen.  
**Zaizen:** zaitzan.

08. **Langorik:** lakorik, bezalakorik.  
**Hemen parajian:** paraje, inguru honetan.  
**Mobidu:** mugitu, abiatu.

09. **Dina:** din, duin, markesa merezi duena.  
**Txit:** biziki, oso, arrunt.  
**Udebarri:** udaberri, bedats.

10. **Lobratu:** logratu, lortu, eskuratu.  
**Kortian:** gortean.  
**Urtetako:** irteteko, jalgitzeko, ateratzeko.

11. **Bataz:** batekin.  
**Beraz:** berarekin.  
**Geu be:** geu ere.  
**Bolandera:** txapligu, etxafero, suziri.

12. **Enamorauko jatzuz:** enamoratu, maiteminduko zaizkizu.

## GAZTE SOLTERO NAGO

(Bertso berriak soltero daenak espabilatzeko jarriak. Ezkondu bearreko bertsoak. A. Zavala. Auspoa 187, 121. orrialdetik aurrera)

01. Gazte soltero nago  
hala nahi det izan  
ez ezkondu ta jarri  
bela familian.  
Gauza falta danian  
beti armonian  
hau subertatutzen da  
leku gehienian.

02. Hasten diradenian  
ezkontza tratatzen  
aberatsak dirala  
dute kontatzen.  
Ez da orduan ezeren  
faltarik izaten  
dendara juan eta  
soinekuak hartzen.

03. Soinekuaz gainera  
erosi peinetak  
zertarako diradez  
horlako puinetak?  
Raskamoinuak eta  
abaniko beltzak  
ez din asko balio  
zuen interesak.

04. Diruak kastatu ta  
panparroikerian  
zerbait luzitziarren  
euren gorputzian  
ezer bihar ez balitz  
bezela etxian  
soinekua arrastaka  
hor zabiltz kailian.

05. Neronek izen banu  
ezkontzeko grina  
andragei bat banaban  
Josepa Juakina.  
Zu Josepa Juakina  
ni naiz Jose Juakin  
izenez ondo gatoz  
biok alkarrekin.

06. Zure kuartuan ongi  
luzitu nahi bozu  
estampa eder batzuek  
be bihar dituzu.  
Gainera sila finak  
jarriko dituzu  
ixpilu bat ere bai  
ongi nahi badezu.

07. Badakik diriana  
zaharrak baino hobiak  
kama barkuak eta  
komoda berriak  
alfonbre ederrak eta  
mesa de notxiak  
gustora eukiteko  
norberen begiak.

08. Oraindik falta dira  
gainera tretxuak  
kurtine ederrak eta  
serbiletatxuak  
mahaia tokadoriakin  
eta floreduak  
gauza asko bihar du  
bizitza osuak.

09. Sukaldian bihar da  
orain zeinbat gauza  
eltze ta kazuela  
jikerara ta taza  
kutxara ta tenedor  
kutxilo ta gasa  
almaiz, txokolatera  
trebera ta taza.

10. Fratel eta katilu  
zartagi ta kazo  
paleta ta tenesa  
enburu ta baso  
arrai parrila eta  
beste gauza asko  
falta dirala uste dot  
bolinero ta auspo.

11. Sekule ezin kunplitu  
lezake etxia  
horregatik hobe da  
libre egotia.  
Beti animoso da  
soltero gaztia  
horrek libre izaten du  
noranahi juatia.

12. Ezkondu ta asko dagoz  
ondo damaturik  
etxe ta familia  
ezin atondurik  
errenta ta inguruak  
pagatu ezinik  
horla bizi dirianak  
ezin ein gauz onik.

13. Umiak bilosik ta  
norbera gosian  
ez dago animo handirik  
haren bihotzian.  
Konfientzaik ez inun  
da ezer ez etxian  
miseriak pasatzeko  
ezkondu zinian.



01. **Bela:** berehala.  
**Gauza falta danian beti armonian:** zer izan liteke faltatzean armonia dakarren gauza hori, normalean ezak armoniaren alderantzizkoa eragiten bait du? Neska-mutilen arteko zera esan nahiko du, ezkon aurreko elkar-grina debekatu hori.  
**Subertatzen:** gertatzen.
03. **Peinetak:** buruko orraziak.  
**Puineta:** gaztelaniazko *puñeta*, birao kutsuko hitza.  
**Raskamoinua:** emakumeen moinoa edo adatsa apaintzeko orratza.  
**Abaniko:** haizekin, haizemaile.
04. **Kastatu:** gastatu, xahutu.  
**Kailian:** kalean.
05. **Izen:** izan.  
**Banaban:** banuen.
06. **Bozu:** badozu.  
**Be:** ere.  
**Sila:** kadira, aulki.
07. **Kama barkuak:** barku formako oheak.  
**Komoda:** arropak edo zenbait tresna gordetzeko armairua.  
**Mesa de notxiak:** mesanotxeak, gaumahaia.  
**Norberen:** norberaren, norbere.
08. **Tretxuak:** trepetxuak, haltzariak.  
**Kurtine:** gortina.

- Tokadore:** apain-mahaia, ispilu eta abarrez hornitua.  
**Floreduak:** lorontziak.
09. **Jikera:** kikara.  
**Taza:** katilu.  
**Kutxara:** goilare.  
**Almaiz:** almeriz, mortairu, metalezko ontzia, barruan aleak eta abar xehatzeko.  
**Txokolatera:** txokolatontzi.  
**Trebera:** eltzea su gainean jartzeko hiru hankako tresna.  
**Taza:** ontzi hau bertso berean, eta pota eginez, bi aldiz kontatzea raroa da. Beste hitz bat izan behar du.
10. **Fratel:** plater.  
**Kazo:** burduntzali.  
**Tenesa:** orrikak, kurrikak.  
**Enburu:** inbutu.  
**Baso:** edalontzi.  
**Bolinero:** ehogailua.
12. **Dagoz:** daude.  
**Atondu:** moldatu, konpondu, eraman. Textuak *atendurik* dakar, baina *atondurik* behar du.
13. **Bilosik:** bilutsik, biluzik.  
**Konfientzaik:** konfidantzarik.

Bertso sorta xelebrea, soineko eta etxekeo tresnen kontaduri zehatza eta graziosoa egiten duena. Hizkeraz bizkaieraren lorratz nabariak dauzka.

## LANGOSTATAN

(Ondarru: kantu, otoi, orru..., 50. or. Ondarroako Kultur Etxearen argitarapenak - 1984)

Itxaso ta legorrez  
egunez ta gauez  
beti gabilz poz pozez.  
Osasunez  
maitasunez  
alaitasunez  
gure herria goratzen.

01. Pittu zaharran semiak  
Ean dabiz hiru  
langostatan onena  
gaztenak urten du.

03. Gaubian berandu ta  
goizian goizetik  
Joakin Pittua doia  
bestien atzetik.

02. Jentia esan arren  
hau edo bestia  
Joakinek harrapatu  
beti langostia.

04. Txalupatik urtenda  
handik *Maitene*'ra  
hurrengo estazioia  
*Soziedade*'ra.



**Gabilz:** gabilza.

03. **Gaubian:** gauean.

01. **Ea:** Bizkaiko itsas herri bat.  
**Dabiz:** dabilza.  
**Urten du:** irten, atera da.  
**Langostia:** otarraina.

04. **Estazioia:** estazionea, estazioa, gelto-  
kia.

## HAMAR MARINEL ITO DIRADE

(Agustin Zubikaraik utzitako karpeta batetik jasotako orri solte bi).

01. Hamar marinela ito dirade  
Kantabriako uretan  
negar garraxiz beteta dago  
Ondarru bere etxetan.  
Hemeretzitik hamar itoak  
bederatzi salbatuak  
goiko Jaun ona zer dira baina  
zure desio ezkutuak?

04. Hamar gizon batera ito eta  
hainbesteik ez bizirik hartu  
salbatu ziran bederatzik be  
larri ziraden azaldu.  
Promesa eta ofrezimentu  
erruki eta errezu  
holakoetan gertatzen dan lez  
danak ziraden han keixu.

02. Mutriku hortan bazan dei larri  
eta gizonen ezbihar  
olatueta trabes zanian  
Nuestra Señora de Itziar.  
Herri guztia begira zeuan  
argi gabeko iluntzian  
potin handia tira-biratan  
igarri zeuen trantzian.

05. Bada negarra Ondarru hontan  
tristura eta lutua  
alargun eta umezurtzetan  
inkesa eta ulua.  
Kanpotik bialdu arren  
errukarrien dirua  
diruz sekula ez da onduko  
behar genduken tratua.

03. Isidoro zan patroia abila  
lagunentzako noblia  
itxasoetan asko ibilia ta  
gizon onaren ondria.  
Parte faltsurik euki ez arren  
izan dau azken tristia  
ahalegin sendo eginagaitik  
betiko galdu lemia.

06. Anai bezala jokatu da  
Mutriku guri laguntzen  
alkar arteko aixa txikiak  
ez dira orain kontatzen.  
Jarraitu daigun danon artean  
geure zereinak ondutzen  
itxasoaren tentazioak  
sekula ez dira ta ahaztutzen.





02. **Ezbihar:** ezbehar, oker, hondamen.  
**Trabes:** noraezean, behar zuenaz bestera.  
**Zeuan:** zegoen.  
**Potin:** untzi mota bat.  
**Zeuen:** zuen.
03. **Ondria:** ondra, ohorea.  
**Sendo:** gogorki, indartsu.  
**Lemia:** lema, untziazen norabidea gidatzeko ohol laua.
04. **Bederatzik be:** bederatziaik ere.  
**Lez:** bezala.  
**Keixu:** kexati, gauza txarren edo tristen kontari.  
**Inkesa:** auhen, zinkuri, intziri.
06. **Aixa:** haserre, liskar.  
**Daigun:** dezagun.  
**Zereinak:** zereginak, egitekoak.

Paperak sarrera gisa dio: *1902'an, Abendua'ren 29'an, N. Sra Iciar txalopandia galdu zan Mutrikuko sarreran.* Bertsoen ondoren ito zirenen eta bizirik hartuak izan zirenen zerrendak dakartza. Itoak hamar eta salbatuak bederatzia. Eta honela amaitzen da orria: *Mutrikuko ayuntamentuak Ondarrura bialdu eban kartan diño: ... 'contribuyendo a la magnitud del siniestro la gran oscuridad que inutilizaba todos los esfuerzos.*

## GURE SEBERO

(Agustin Zubikaraik utzitako karpetatik jasotako orri soltea)

01. Trintxatik gora dator  
gure Sebero  
ikusiaz batera  
hotz ez dana bero.  
Zenbat edan ete dau  
iluntze ezkeror?  
Andria, zetan zagoz  
beraren espero?
02. Kontu kontatzen daki  
sagardandegixan  
eta txurruta egin  
lagun onen fixan.  
Gero lo konkor hemen  
eskatzeko maixan  
hor konpon etxequak  
miserikordixan.

03. Andria, zetan zagoz  
beraren espero?  
Umiak lotaratu  
ta eurekin zeu gero.  
Itxasuan ei daki  
ibiltzen primero  
lihorrian kakaztu  
eta gero zero.
04. Ohiean sartu zaitez  
eta zaindu ondo  
birtutiak gordeta  
prest euki ukondo.  
Sermioia botateko  
hemen naz egongo  
nik behintzat parkazioik  
ez dausat emongo.
05. Eskilaretan gora  
badator Sebero  
andria, zetan zagoz  
beraren espero?  
Komedia hau dogu  
ia egunero  
negarra egin bihar  
gabero gabero.



01. **Iluntze ezkeror:** iluntzetik gora, ilunabarretik hasita.  
**Zetan zagoz:** zertan zaude, zertan ari zara.
02. **Sagardandegixan:** sagardotegian.  
**Fixan:** fian, fidantzan.
- Eskatzeko:** sukaldeko, suteko.  
**Maixan:** mahaian.
03. **Primero:** aurrenen, lehenen.  
**Lihorrian:** lehorrean, lurrean.
04. **Parkazioik:** barkamenik.

## ANTON TXIKIXANIAN

(Agustin Zubikaraik utzitako karpetatik jasotako orri soltea)

01. Anton Txikixanian  
laster da montxorra  
gaixuman sartuarren  
pagauko dau zorra.  
Oraindik ahaztu barik  
lehenako mozkorra  
Txominek ezin kendu  
begiko txinorra.

02. Aste baten batela  
bestian txanela  
txalopaik ez danian  
pael nahi toleta.  
Biharrik ez da falta  
hau da gure beta  
noiznahi montxorra ere  
naparrez beteta.

03. Tabernan ase  
t'ohiean txis  
bihar be eukiko  
moko t'atxis.  
Ai, ai andrea  
gaizki gabiz  
ni ez banabil  
zu ez zabiz.  
Komeixetan lez  
eskatu bis  
behin hil ezkerro  
rekiem pazis.



01. **Txikixanian:** txikiarenean, txikiaren etxean.  
**Montxorra:** monjorra, etxearen edo lan garrantzitsu baten amaia ospatzeko egin ohi den jatordua.  
**Gaixuman:** garizuman.  
**Pagauko dau:** pagatuko, ordainduko du.  
**Barik:** bagarik, gabe.  
**Lehenako:** lehenagoko, aurreragoko.  
**Txinorra:** txindorra, betxindorra, begian sortzen den garau edo bikorra.

02. **Pael:** txalupa barruan trabes jartzen den oholezko zorua.  
**Tolet:** arraunari eusteko, batelaren karelean dagoen zutikako ziri zilindrikoa.  
**Biharrik:** lanik.  
03. **Moko:** muki.  
**Atxis:** usin edo domistikunaren hotsa.  
**Gabiz:** gabiltza.  
**Komeixetan lez:** komedietan bezala.  
**Bis:** berriz, bigarrenez.

## ONDARROAKO ARRAINARI (1890)

(Agustin Zubikaraik utzitako karpeta batetik jasotako bertso papera. Azkenean eskuz idatzita ipintzen du: "Eibar. Inprenta de Or. (Bertso papera Blas Iturriza'ren liburua)").

01. Mila zortzirehun laro-  
geita hamarrian  
apirilan hogeia zan  
igande egunian.  
Esplikatuko ditut  
euskera garbian  
zer gertatu zaizkigun  
Ondarroako herrian.

02. Baserrin txalopia  
Isidoro atzian  
itxasora juan ziran  
igande goizian.  
Arrain hori topa zuen  
mila bi t'erdian  
arponada ematera  
preparatu ziran.

03. Arrain ikaragarri bat  
dute harrapatu  
jende asko egin du  
horrek ikaratu.  
Horren pasadizua  
nahi det publikatu  
bertsuak hargatikan  
ditut ateratu.

04. Arrain hori askok  
ikusi du aurten  
baina hargana inor  
ez zan atrebitzen.  
Arrain txiki guztiak  
hasia da jaten  
ez digu horrek utziko  
ezer irabazten.

05. Hego bat zeukan bistan  
gorputza ezkutuan  
begiratu guztiok  
hara nun dijuan.  
Hargana dijuana  
jartzen da arriskuan  
preparatu gaberik  
ez zaitezte juan.

06. Arrimatu baino lehen  
arrainarengana  
mutil bakotxak hartu  
bakotxak ahal dana.  
Derrigor hasten bada  
batu alkargana  
bestela galduko da  
deskuidatzen dana.

07. Ia mutil maitiak unamok libratu arpoi ta aparejuak ondo preparatu. Liborio, petxura ondo apuntatu bestela arrain horrek danok jango gaitu.

08. Gure armamentua preparau artian arrain hori iges einda zeuan apartian. Harrapauta jo gendun tripa barrenian behin ere ez zan gelditu hondora artian.

09. Hondua jo zuenian haren arrabia ez zedukaten unama berria. Batian hala eta bestian erria ezin sosegaturik ha zan komeria.

10. Gora etorri zanian kostauan trinkatu nahi izanagaitik ezin sosegatu. Amarra bat eman bestia faltatu nahi zuen baina handik ezin zan libratu.

11. Beste txalupetatik zuten begiraten txalupa horrekin zer ete dan gertatzen. Baina halako gauzarik ez zuten pentsatzen bestela laster ziran gugana anparatzen.

12. Goiko partera zuten bigarren tirua nola portatua dan esatera nua. Indar gogorrarekin kolpe segurua ederki azertatu zioten burua.

13. Bi milan jo zuten da hirurak bitarte arrain hori zebilan gogor eta fuerte. Lagunak ere kantsauta bazeuden bastante gogorra izan arren sosegatu dute.

14. Berrogeta bi oineko txalopa bakarrak hargana arrimatzeke ez ziraden txarrak. Alkarri lagundutzen gazte eta zaharrak ez ziran errez bentzitu arrainan indarrak.

15. Seirehun arrua pasa dan animalia txalopa batentzako ikaragarria. Sinistu nahi duenak horren ibilia historia honetan daukate jarria.

16. Hamaika ta erdietan etxera hasirik eguna pasa dute ezin ekarririk. Bi treneru txalupak atoian harturik barrara ekarri dute oraindik bizirik.

17. Bilbora eraman dute gure enkargukuak laster jaube egin dira Klub Nautikokuak. Eta errekonozitu dute medikuak arrain hori galdu du buruko tiruak.

18. Esaten zuten: Hau arrain itzal eta baltza behar du izan horrek lantzia zorrotza. Garunak apurturik jo dio bihotza orduan izandu da horren heriotza.

19. Arrain horrekin izan diran nagusiak esplikatu dituzte hango irabaziak. Hainbeste danik sinisten ez duten guztiak hogeit bat mila errial badira pasiak.

20. Hogeigarren bertsuan ditut despeditu arrainan pasadizuak horra esplikatu. Eibarren behar ditut hoiek inprentatu gaztiak ikasteko papel hoiek hartu.

80

02. **Baserrin txalopia:** Baserriren txalupa. **Topa zuen:** topatu, aurkitu zuten. **Mila:** itsas luzera neurria, 1852 metro. **Arponada eman:** arpondu, arpoia sartu.

03. **Pasadizua:** gorabehera, gertaera.

05. **Hego:** hegal. Hemen hegatsa. **Dijuan:** doan.

07. **Unamok:** unama hauek. Soka lodi eta indartsuak.

**Aparejuak:** aparailuak, tresnak. **Petxura:** paparrera, bularrera.

08. **Zeuan:** zegoen.

**Tripa barrenian:** triparen behe aldean. Bizkaierarik gehienez *barrena* beheko aldea da: arropa barrena, solo barrena,

- mendi barrena. *Barren-goienak*: barrena eta goiena, beheko eta goiko alde.
09. **Arrabia**: amorrua, haserre handia.  
**Hala**: izan liteke adberbio erakuslea, hots, era hartan, baina baita *ala!* edo *ale!* interjekzioa ere, hots, eman, heldul, hurrengo *erria*'ren kontraposizioz.  
**Erria**: jarein, laga, utzi joaten.  
**Ha**: hura.
10. **Kostauan**: alboan, saihetsean.  
**Trinkatu**: gogor lotu, estekatu.  
**Amarra**: lokarri, soka, esteka.
11. **Anparatzen**: laguntzera.
12. **Azertatu**: parean jo, bertan jo.
13. **Kantsauta**: nekaturik.
- Bastante**: aski, nahiko.
14. **Bentzitu**: menderatu.
15. **Arrua**: arroa, pisu neurria, hamabi kilo eta erdi.
16. **Treineru**: untzi mota bat.  
**Atoian**: tiraka, arrastaka.
17. **Errekonozitu**: aztertu, ikertu.
18. **Itzal**: eskergea, oso handi, izugarri.  
**Lantzia**: lantza.  
**Garunak**: burmuinak.
19. **Errial**: erreal, pezeta laurden.  
**Pasiak**: pasatuak, iraganak, hots, hoge mila errealetik gora.
20. **Inprentatu**: inprimatu.

## ALABAREN HERIOTZA

(*Mendebaleko euskal baladen antologia*, A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. **Euskeraren Iker Atalak 5** - Labayru Ikastegia, 108. or.)

01. Birjina Karmengue  
Jaungoikoaren Ama  
pekatari guztien  
ausilio dana  
konfiantza osuaz  
nator ni zugana  
hemen amaituko da  
hasiogun lana.
02. Señora bat bizi zan  
bere familiagaz  
bihotz gogorreko ama  
nire eretxian.  
Eukan señora horrek  
alabatxu bat be  
Jaungoikuak emonda  
fortunarik gabe.

03. Alabiek bokaziua  
eukan mojatza  
amak nahiago zuen  
berriz ezkontzeko.  
Nobiue topaute  
zeukan alabientzat  
Don Isidro Fernandez  
zala aberatsa.
04. Leku onekue zala  
eukela kondukta  
-Nahiozu hau edo beste?  
Sokiegaz lotuta  
beheko bodegan hil zuen  
kutxilue sartuta.
05. Sokorruka didarrez  
alaba tristie  
egiteko mesede  
bizirik istie.  
Bihotz gogorreko ama  
lehoian kastie  
beren eskuetan hilteko  
alaba tristie.
06. Aite bator etxera  
biaje batetik  
alabiaren preguntia  
ein zuen bertatik.  
Ia nora juen zan  
alabia etxetik  
amak ez zekiela  
nun zan haren barri.
07. Bazkaltzen hasi ziren  
aitarekin ama  
amari mudau jakon  
senblantie dana.  
Beren senarrak dirautso:  
-Zer dozu Fernanda?  
-Etxat ezer pasetan  
neronen senarra.
08. Jagi mahaitikan eta  
juen zan bodegara  
bestidu eder bategaz  
alaba ederra.  
Lau kandela biztute  
aurrien dabela  
aite suspentsatu zan  
ikusirik hala.
09. Ama doie kalera  
hasten da didarrez  
aitak hil ziola-ta  
faltsian negarrez.  
Amaren informia  
guztia aldrabes  
aite kulpe bagia  
han zeuen bildurrez.
10. Aite kulpe bagerik  
sartu eben preso  
griloz ondo kargeute  
hainkak eta beso.  
Orduaren begira  
noiz ordure kaso  
falso testimonio  
urkamendirako.

11. Ez eukela Fernandok  
horregaz kulperik  
inuzentzian bizia  
kentzeko berari.  
Inuzentzian bizia  
kentzeko berari  
eta urketuteko  
andria bertatik.

12. Desgrazia bat pasau da  
Billaroko herrian  
ez da pasau holakorik  
Espainia guztian.



01. **Ausilio:** laguntza, salbamen.  
**Osua:** osoarekin.  
**Hasiogun:** hasi dogun.

02. **Señora:** andere.  
**Familiagaz:** familiarekin.  
**Eretxian:** iritzian.  
**Eukan:** zeukan.  
**Bat be:** bat ere.

03. **Alabiek:** alabeak, alabak.  
**Nobiue:** nobioa, senargaia.  
**Topaute:** topaturik, kausiturik, aurkiturik.

04. **Sokiegaz:** sokarekin.  
**Bodegan:** sotoan, etxazpian.  
**Kutxilue:** ganibeta, labana.

05. **Didarrez:** deihadarrez, oihuz, dei oze-  
nez.  
**Istie:** uztea.  
**Kastie:** kasta, enda, izaera.

06. **Aite:** aita.  
**Bator:** badator.  
**Biaje:** bidaia.  
**Preguntia:** itauna, galdea, galdera.  
**Juen:** joan.

07. **Mudau jakon:** mudatu, aldatu zitzaion.  
**Senblantie:** aurpegia, begitartea.  
**Dirautso:** dinotso, diotsa, esaten dio.  
**Etxat ezer pasetan:** ez zait deus pasatzen, gertatzen.

08. **Jagi:** jaiki.  
**Bestidu:** soineko, jantzi.  
**Bategaz:** batekin.  
**Aurrien:** aurrean, aitzinean.  
**Dabela:** duela.  
**Suspentsatu:** suspentsuan, airean, no-raezean gelditu.

09. **Doie:** doa.  
**Faltsian:** faltsukerian, gezurrean.  
**Kulpe bagia:** kulpa, erru gabea.  
**Zeuen:** zegoen.

10. **Bagerik:** gabe.  
**Eben:** zuten.  
**Grilo:** lotzeko kate sendoa.  
**Kargeute:** kargaturik, zamaturik.  
**Noiz ordure kaso:** esaldi iluna. *Noiz ordua helduko zain* edo horrelako zerbait dirudi.

**Falso testimonio:** gezurrezko lekukotza, testigantza.

11. **Horregaz:** horrekin.  
**Urketuteko:** urkatzeko.  
**Bertatik:** berehala, derrepente. Baita izan liteke adberbio erakusle soila, hots, gizona bertatik, zegoen urkabetik, andrea urka zezaten oihuka.

12. **Billaro:** Areatza. Bizkaiko Arratia arane-ko herri bat.

Historia benetan lazgarri hau oso argi doa hamaikagarren bertsoraino, non nahasten den, hamabigarrena ere erdizka utzirik. Argi dago hemen zatiren batzuk falta direla, hain azken dramatiko horrek garapen gehiagorako bidea ematen bait du. Pasarte batzuk osaturik eta neurrian eta erriman ukitu bat emanik, sorta dramatiko urragarria geratuko litza-teke.

## LAPUR FAMATUA

(*Mendebaldeko euskal baladen antologia*, A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra. *Euskeraren Iker Atalak 5* - Labayru Ikastegia, 113. or.)

01. Bertso berrian batzuk  
behar ditut jarri  
neure lagun guztien  
eskrementugarri:  
Trantze estu honetan  
guztiz nago larri  
neure pasadizua  
esan barik garbi.

02. Bengantza honetantxe  
gau triste batian  
puinala ta trabukoa  
harturik aldian  
ondo loturik ninoiela  
esanik atian  
derrepente sartu nitzan  
beraren etxian.

03. Apaltzera zegozan  
senar-emaztiak  
ezkon berriak eta  
ziraden gaztiak.  
Ez osten kuidaturik  
emoten hiltiak  
suberte onari begira  
han egozan tristiak.

04. Neronen ezkongea  
lehenango hil zan hori  
begirazko egoan  
begira neroni.  
Bost puinalada lelengo  
eman nion berari  
ez Jesus eta ez amen  
juan zan munduti.

05. Senar tristia egoan  
andriari begira  
baina honek be bazeukan  
gania erida.  
Berari tiratu nion  
petxuaren erdira  
horra zer pasatu zan  
esanda egia.
06. Senar eta emazte  
sukaldian biak  
han gelditzen ziraden  
derrepente hilak.  
Ez izan balirade  
sanoak eta finak  
horra zer subertie  
gaizki dabilenak.
07. Neuri hitza emonda  
besterekin ezkondu  
horrek emoten dost neuri  
bihotzien damu.  
Hauxe zan motibua  
baldin izan badu  
horregaitik bihar dogu  
orain biok galdu.
08. Azino hau eginda  
urten nuan etsetik  
justizie altoka  
banuan atzetik.  
Ni gelditu ta berriz  
tiratu gogoti  
lau soldadu tiro baten  
han ziraden jausi.
09. Gaua pasatu eta  
hurrengo egunsentian  
gizon bat topa nuan  
kaminoaren erdian.  
Apuntatzen ninoela  
neure trabukoakin  
bajeu bihar izan neuan  
zaldiaren ganetik.
10. Itxi egin deitzela  
diru ta zaldie  
egin gura ez baeban  
munduko aldie.
11. Zaldi gania noa  
mutil armatua  
abidatu han nitzan  
lapur famatua.  
Atzetikan banuan  
nork harrapatua  
baina bilatzen nuan  
non ezkutatua.
12. Partida bat zebilen  
gau eta egun  
enemigua franku  
banuan ingerun.  
Halan da be deskantsurik  
ez neukan inun  
gainera bi soldadu  
neronek hil nitun.
13. Urtebete osoa  
beti lapur eginik  
batzutan kaminoan  
bestietan mendin.

14. Lerida pasatu eta  
hurrengo herrian  
ze obra egin nuan  
nik Katalunian.  
Bost lagun bizi ziran  
euren familian  
bostak hil nituzan  
gauaren erdian.
15. Pekatu zala ere  
nik ez nuan uste  
bihotzari jartzen naz  
parkazino eske.
16. Aitek biraldu eusten  
neuri notizie  
ez einkiela berak  
asunto guztie.  
Jausirik egoela  
neure sententzie  
harrapatu ezkeru  
kentzeko bizie.
17. Abisu hau hartuta  
hurrengo egunian  
kontrarioa franku  
baneukan aurrian.  
Zaldia be ibili  
zidaten hil biharrian  
zortzi soldaduk tiratuten  
zidaden aurrian.
18. Bi balazo nituzan  
esku ta buruan  
odola ba zidaden  
itur bi moduan.  
Halan da be trabukoa  
disparatu nuan  
gainera bi soldadu  
eridu nituan.
19. Bi bakarra zidaden  
neuri oratu han  
balentia izen arren  
umildadu nituan.
20. Amarratu ninduen  
zaldiaren gania  
ondo lotsa nitzala  
egunaren erdian.
21. Joan bihar izan neban  
han guztiaren erdian.
22. Ailegatu nintzarian  
neronen herrira  
betorren jentie franku  
neroni begira.
23. Ai neure orduko  
lotsa ta larria  
zergaitik egin dodan  
hainbat pikardia.  
Ezkontza bat motibo  
izen da guztia  
hamairu personari  
kentzeko bizia.

24. Jaungoikoaren ofentsa  
guztiz dot damu  
zergaitik egin dodan  
hainbeste pekatu.

25. Pekatarien ama  
Birjina Maria  
Jaungoikoaren aurrerako  
bitarteko handia.  
Emon egidazu  
zeure grazia  
ondo konfesatzeko  
bihar dodan guztia.

26. Hamaika ordu santuak  
bete dire urki  
orduente hilteko  
guztiz nago larri.  
Ai nok euki leikien  
arimie garbi  
kontua emateko  
gure Jangoikoari.

27. Adios mundutarrak  
neure aita eta ama  
senidekaz batera  
adiskide danak.  
Akabatu dirade  
neure munduko lanak  
lagun egin daistela  
gure Jaungoiko Jaunak.



01. **Eskrementugarri:** eskarmentagarri.  
**Pasadizua:** gorabehera, gertaera.  
**Barik:** bagarik, gabe.

02. **Bengantza:** mendeku.  
**Puinala:** sastakaia.  
**Trabukoa:** zizpa edo eskopeta mota bat.  
**Ninoiela:** nindoala.

03. **Zegozan:** zeuden.  
**Ez osten:** ez eustan, zidan.  
**Kuidadurik:** ardurarik, kezkarik.  
**Egozan:** zeuden.

04. **Lehenango:** lehenik, lehenengo.  
**Egoan:** zegoen.

05. **Ganian:** gainean.  
**Erida:** zauria.  
**Petxuaren:** paparraren, bularraren.

07. **Dost:** dit.  
**Damu:** min, pena.

08. **Etsetik:** etxetik.  
**Altoka:** alto edo geldi oihuka.  
**Jausi:** erori.

09. **Topa nuan:** topatu, kausi, aurkitu nuen.  
**Apuntatzen ninoela:** apuntatzera nindoala.  
**Bajeu:** bajatu, jaitsi.  
**Neuan:** nuen.

10. **Itxi:** utzi.  
**Deitzela:** ditzala. Hemen *diezazkidala*.  
**Gura ez baeban:** nahi ez bazuen.

11. **Abidatu:** abiatu.

12. **Enemigua:** etsaia, arerioa, izterbegia.  
**Franku:** frango, ugari.  
**Ingerun:** inguruan.  
**Deskantsurik:** atsedunik.

14. **Nituzan:** nituen.

15. **Parkazino:** barkamen.

16. **Eusten:** zidan.  
**Ez einkiela:** ez zekiela. Aitak notizia bidali zion, berak -aitak- asunto guztia ez zekiela edo jakin gabe, hots, hilketak batzuren berri jakinik, baina ez ondorengo guztiena.  
**Asunto:** afera, auzi.  
**Jausirik:** erorita, emanda.  
**Egoela:** zegoela.

17. **Tiratuten:** tiratzen.  
**Aurrian:** aurrean, aitzinean.

18. **Zidaden:** *zeridan* izan behar duela dirudi.  
**Itur bi:** iturri bi.  
**Eridu:** zauritu.

19. **Oratu:** heldu, atxeki.  
**Umildadu:** umildu, apaldu.

20. **Amarratu ninduen:** lotu, estekatu ninduten.  
**Lotsa:** ahalke.

22. **Betorren:** baetorren, bazetorren.

24. **Ofentsa:** laidoa, iraina.

25. **Egidazu:** iezadazu.

26. **Urki:** aurki, hainbaten, nonbait, segurasko. Baita izan liteke *laster, berehala*, nahizta azepzio hau bizkaieraz ez den normalena.

**Leikien:** lezakeen.  
**Arimie:** arimea, arima.

27. **Senidekaz:** senideekin.  
**Daistela:** diezadala.

Aipatu liburuan Dimako eta Morgako aldaerak datoz, beste eskuizkribu bateko aldaerarekin batera. Hemen Morgakoa hautatu dut, pasarte batzuk Dimako aldaeratik ordeztuak. Bi puntuko koplak gisa emanda datozenak lau puntuko bertsotan jarri ditut, bistan bait dago zortziko txikien egitura. Hala ere batzuk erdizka gelditzen dira.

## LAPUR FAMATUA (I)

(Bertso berri ta kanta zar (I). Karmel aldizkariaren ardurapean. 7-10 or.)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Orain kanta berri bat<br>nahi nuke nik jarri<br>munduko kriaturen<br>eskarmentagarri.<br>Trantze estu honetan<br>guztiz nago larri<br>nere pasadixuak<br>esan gabe garbi. | 04. Ai hau nere suerte<br>ikaragarria!<br>Jaunak bere eskutik<br>nendukan utzia.<br>Neskatxa bat motibo<br>izan da guztia<br>hamairu personari<br>kentzeko bizia.               |
| 02. Ia, nere kristauak<br>aditu kontuan<br>nere deskalabrua<br>ze-nolan munduan.<br>Hamairu heriotza<br>urtebet barruan<br>neskatxa bat motibo<br>nola egin ditudan.          | 05. Neri hitzak emanda<br>bestia ezkondu<br>horrexek ematen dit<br>bihotzian damu.<br>Hutsa zan sikiera<br>motibu izan balu<br>beragatik behar degu<br>orain biok galdu.        |
| 03. Hoge eta bost urte<br>dauzkat nik oraindik<br>oraindano izan naiz<br>beti neskasari.<br>Eninduen alperrik<br>gurasuak hazi<br>ez diet azkenian<br>eman pena gutxi.        | 06. Bengantza horretikan<br>gau triste batian<br>puinal eta trabuko<br>harturik aidian<br>ondo loturik nenguan<br>etsaien kation<br>derrepente sartu nintzan<br>beraren etxian. |

- |   |   |
|---|---|
| 07. Afaltzen ai ziraden<br>senar-emaztiak<br>ezkonbarriak eta<br>ziraden gaztiak.<br>Ez ziaten ematen<br>penarik hiltziak<br>suerte onaren begira<br>han zeuden tristiak.       | 11. Tiratu ta tiratu<br>nik berriz gogoti<br>lau gizon tiro batez<br>han ziren erori.<br>Horra sei heriotza<br>gau batian egin<br>animak nola ziran<br>nahi nuke nik jakin. |
| 08. Bost puinalara lehenen<br>eman nik berari<br>ez Jesus ta ez amen<br>juan zan munduti.<br>Senar tristia zeguan<br>andriari begira<br>baina ezin kendu zun<br>zedukan herida. | 12. Kristauaren bihotza<br>ikaragarria<br>gizonari ematen<br>halako larria.<br>Utzi zezala bertan<br>diru ta zaldia<br>egin nahi ez bazuan<br>munduko aldia.                |
| 09. Berari tira nion<br>petxuaren erdira<br>horra zer pasatu zan<br>esan det egia.<br>Senar eta emazte<br>sukaldian biak<br>han gelditu ziraden<br>derrepente hilak.            | 13. Zaldiaren gainian<br>gizon armatua<br>abiatu nintzarian<br>lapur famatua.<br>Atzetikan banuan<br>nork harrapatua<br>baina bilatzen nuan<br>nun ezkutatua.               |
| 10. Ez izan baziraden<br>sano eta finak<br>horra zer suertia<br>gaizki dabilenak!<br>Azio hau eginda<br>irten nun etxetik<br>justizia altoka<br>han nuan atzetik.               | 14. Partira han zebilen<br>gau eta egunian<br>enemigua franko<br>banun inguruan.<br>Ia deskansurikan<br>ez nedukan inun<br>hala ere zazpi soldau<br>neronek hil nitun.      |



15. Urtebete osuan  
beti lapur egin  
batzuetan kaminoz  
bestietan mendin.  
Hainbeste heriotza  
gainera nik egin  
ez dakit zer gertatu  
bihar dan nerekin.

16. Aitak biraldu ziran  
neri notizia  
zekiena bezela  
asuntu guzia.  
Erabakia zala  
nere sententzia  
harrapatu ezker  
kentzeko bizia.

17. Abiso hau hartuta  
hurrengo egunian  
partirak harrapatu  
ninduen mendian.  
Zaldia hil zidaten  
hala biharrian  
zortzi soldaduk tira  
zidaten batian.

18. Bi balazo nituen  
beso ta buruan  
odola bazajuan  
iturri moduan.  
Hala ere trabukua  
disparatu nuan  
bi soldadu gainera  
eritu nituan.

19. Lehenengo neuri helduak  
bi bakarrik ziran  
baleroso izan arren  
umildatu nitzan.  
Bagagiak har ninduen  
loturik zaldian  
zortzi soldadu ziran  
nere guardian.

20. Lotsa asko nintzala  
egunen erdian  
juan bihar izan nuan  
guztien erdian.  
Ailegatu nintzarian  
neronen herrira  
bazan jendia franko  
neroni begira.

21. Ia nere orduko  
lotsa ta larria  
zergatik egin neban  
asko pikardia.  
Bela sartu ninduen  
kapilla batian  
Santo Kristo bat para  
zidaten aurrian.

22. Esamina egiteko  
nere apartian  
ia zenbat oker neban  
animen kaltian.  
Pekatoriok, Ama  
Birjina Maria  
Jaungoikuen aurrian  
bitarte haundia.

23. Jaungoikuen ofentsak  
ditut guztiz damu  
arren miserikordia  
nizaz izan zazu.  
Luzifer lagunakin  
hazia zeruan  
pekatuagatikan  
dago infernuan.

24. Ni gehiago eginda  
bizi naiz munduan  
ez dakit neretzat ere  
zer sententzi dagan.  
Hamaika ordu santuak  
ia dira aurki  
hil bihar det eta guztiz  
nagotzu ni larri.

25. Kontua emateko  
gure Jesus onari  
adios, mundutarrak  
ta nere aita-amari.  
Senidiakin batian  
adiskide danak  
akabatzen dirade  
mundu hontako lanak.

26. Hogeita bost urtekin  
uzten ditut danak  
arren lagun daidela  
gure Jesus onak.  
Horra baten okerrak  
zenbat kalte ekarri  
mundu guzia nizaz  
eskarmenta bedi.



01. **Pasadixuak:** gorabeherak, hara-honak, gertatuak.

02. **Urtebet barruan:** urte baten, urtebete-  
ren barnean.

03. **Neskasari:** nekezale, nekazari.  
**Eninduen:** ez ninduten.

04. **Nendukan:** nindeukan.

05. **Bestia ezkondu:** *bestiaz* edo *bestekin*  
*ezkondu* behar luke.  
**Damu:** min, nahigabe.

06. **Etsaien:** textuak *etsien* dakar, baina *etsai-*  
*en* behar duela dirudi.

07. **Gaztiak:** textuak *guztiak* dakar, baina  
*gaztiak* behar du.

14. **Partira:** partida, saldoa, soldadu taldea.

19. **Bagagiak:** ez dakit zer den.

21. **Neban:** nuen.  
**Bela:** berehala.  
**Ninduen:** ninduten.  
**Para:** paratu, jarri, ezarri.

24. **Nagotzu:** nagokizu.

26. **Lagun daidela:** lagun diezadatela, lagun  
nazatela.

Bertsio honek, aurrekoaren zenbait osagarri falta baditu ere, hark ez dauzkan beste asko dauzka. Oro har, argi dago osoagoa eta koherenteagoa dela eta forma aldetik zehatzagoa, bai neurritz eta bai errimaz.

Hemen bizkaieraren zantzuak badaude, baina askoz gutxiago. Ahapaldi asko bi puntu batera eta bi bestera errimaturik daude. Hori Bizkaiko tradizioa da.

Dena den, baliteke zenbait ahapaldi nahasirik egotea. Esaterako, zortzigarrenaren bigarren erdia bederatzigarrenaren lehenengoarekin, honen bigarrena hamargarrenaren lehenengoarekin eta honen bigarrena hamaikagarrenaren lehenengoarekin hobeto datozela dirudi eta horrela izango da segurrenik. Zortzigarren ahapaldiaren lehen erdia beste bertso baten bigarren zatitzat dator aurreko bertsoan, laugarren ahapaldian.

Bi euskalkien muga inguruko piezaren bat ote da? Ala aurreragoko piezaren baten moldakera ezberdinak? Lapur hori euskalduna al zen ala beste nondibait etorritako historia kontatzen da? Norbaitek jakingo du agian zer erantzun eta entzungarria litzateke, bertso sorta hau, daukan jatorria daukala, ikaragarria bait da.

## JOSE DE LARRINAGA

(Gure Kantuak. Udako euskal ikastaroa. Derio, 1991. 100. or. Labayru Ikastegia)

01. Bertso barri batzuek  
 behar ditut jarri  
 neure lagun guztien  
 eskarmentagarri.  
 Trantze estu honetan  
 guztiz nago larri  
 neure pasadizua  
 esan gabe garbi.

02. Hau, ene kristinauak,  
 aditu kontuen  
 neure deskalabrua  
 nola dan munduen.  
 Hamairu heriotza  
 urtebete barruen  
 neskaxa bat motibo  
 nola egin nituen.

03. Neuri hitza emanda  
 beste batekin ezkondu  
 horrexek emoten dit  
 bihotzean damu.  
 Hutsa zan sikiera  
 motibo izan balu  
 orain beragaitino  
 biok bihar galdu.

07. Senarra triste egoan  
 emazteari begira  
 baina ez zieten kendu  
 zeukaten herida.  
 Berari tirau nion  
 petxoaren erdira  
 horra zer pasatu zan  
 esan det egia.

04. Bengantza bat harekin  
 gau triste batean  
 puinal eta trabuko  
 harturik aldean.  
 Ondo loturik negoan  
 etsaien atean  
 derrepente sartu nintzan  
 beraren etxean.

08. Akzinoa eginda  
 urten naben etxetik  
 justizia altoka  
 banuen atzetik.  
 Tiratu ta tiratu  
 nik berriz gogotik  
 lau gizon tiro bataz  
 han ziraden jausi.

05. Afaiten han ziraden  
 senar-emazteak  
 ezkonberriak eta  
 ziraden gazteak.  
 Ez zioten emoten  
 penarik hilteak  
 suerte onari begira  
 egozan tristeak.

09. Bi balazo nituan  
 beso ta buruan  
 odola bazihoan  
 iturri moduan.  
 Trabukoa disparatu  
 halabeharrear  
 gainera bi soldadu  
 heridu nituan.

06. Lau puinalada lehenengo  
 eman nion berari  
 ez Jesus eta ez Amen  
 joan zan mundutik.  
 ...  
 ...  
 ...  
 ...

10. Zaldiaren gainean  
 gizon armatua  
 abiatu nintzanean  
 lapur famatua.  
 Utzi ziola bertan  
 diru ta zaldia  
 bestela egingo diola  
 munduko aldia.

11. Urtebete osoan  
beti lapurrekin  
batzutan kaminoz ta  
besteetan mendiz.

...  
...  
...  
...

12. Kristauaren bihotza  
ikaragarria  
Jaunak bere eskutik  
ninduan utzia.  
Hamairu pertsonari  
kentzeko bizia  
neskatxa bat motibo  
izan da guztia.



01. **Pasadizua:** gertaera, joanetorria, gora-behera.

02. **Kristinauak:** girstinoak, kristauak.

03. **Bihotzean damu:** bihotzean min, pena.  
**Sikiera:** bederen, gutxienez.  
**Beragaitino:** beragatik.

04. **Bengantza:** mendeku.  
**Trabuko:** su-arma mota bat.  
**Aldean:** soinean, bere gain.

05. **Afaiten:** afaritan, afaltzen.  
**Egozan:** zeuden.  
**Tristeak:** gaizoak, errukarriak, gizajoak.

07. **Egoan:** zegoen.  
**Herida:** zauria.  
**Petxoaren:** bularraren, paparraren.

08. **Akzinoa:** akzioa, egintza gaiztoa, makurkeria.  
**Urten naben:** irten, atera, jalgi nintzen.  
**Alto:** geldi. Geldiarazteko agindu hitza.  
**Bataz:** batez, batekin.  
**Jausi:** erori.

09. **Heridu:** eritu, zauritu.

10. **Munduko aldia egin:** munduko denbora bukarazi, bizia kendu.

Bertso sorta hau aurreko bien aldaera laburrago bat da. Bai hau eta bai lehengo argi dago nahiko bertso bihurriak direla. Ahapaldiak erdizka edo bata-bestearekin gurutzatuak daude eta hizkeraz ere bizkaiera eta gipuzkera nahasten dira.

## BERTSO BERRIAK ASTO BATERI JARRIAK

(Noeren ontzia. A. Zavala. Auspoa 136. 87-91 or.)

01. Bertsuak ipinten nua  
asto zahar batentzat  
komeniko dirala  
iruritutzen zat.  
Zer esana nahikua  
ipini du behintzat  
kontu parregarriak  
leiduten dunentzat.

02. Asto eme bat Lejonan  
egon da saltzeko  
merkataria nahikua  
izen da hartzeko.  
Nok kobratu asko ta  
gutxi pagatzeko  
horregaitik bertsuak  
nago ni jartzeko.

03. Kobratzeko dauana  
aurkitzen da larri  
dirurikan etxera  
ezin du ekarri.  
Orain kulpak ipinten  
dabiltzez alkarri  
nor astuo diraden  
ezin leike igarri.

04. Lehenengo Erriojanu bat  
zan astu horren jabe  
beste laurok sozio  
gero ein dirade.  
Bat formal antzekua  
eurokin badebe  
bainan bestiok mozkor  
galantak dirade.

05. Erriojanu horrek astua  
egin zuan saldu  
merkataria nor zan  
ez dot nahi azaldu.  
Etxera ekarri bai baina  
auguro bialdu  
etxetik arin kentziaz  
ez du asko galdu.

06. Hirugarrenez Donatok  
egin du tratua  
hoge ta hamar pezeta  
pagadu astua.  
Etxera eman baino lehen  
dago damutua  
berak saldu artian  
larri egondakua.

07. Irabazi bageko lanak  
ez dute balio  
danok tratamenturako  
ez gerade jaio.  
Engainatu artian  
serio serio  
harek berriz Antoniori  
enkajatu dio.
08. Azunbre erdi bat ardau  
gehio pagatuta  
Antonio gelditu da  
konprometituta.  
Ha bere laster zeuan  
ondo damututa  
irabazteko ustian  
astua salduta.
09. Hartu orduko danok  
aspertu dirade  
laste bota du etxetik  
Antoniok bere.  
Inok ez du nahi traturik  
irabazi gabe  
danon artian Apala  
kargatua debe.
10. Bostgarrengez Apalak  
egin du erosi  
pagatzeko kontuan  
bera da nagusi.  
Antoniok bere zerbait  
badu irabazi  
kafia kopiarekin  
puru eta guzi.
11. Orain astuen jabia  
zu zera, Apala  
ondo kuidatzen badezu  
ez zera makala.  
Entzun det umia bere  
eiteko dauala  
harek irabaziko du  
zuk gastatuala.
12. Alkarren antzekuak  
guztiok dirade  
tabernarako biriak  
ikisita daure.  
Gastu guztiak kontuan  
jartzen badirade  
astuak ez du balio  
ardotako bere.
13. Euren korredoria  
da Sarria zaharra  
hori bere eraten  
apenas da txarra.  
Apala esandako  
berbakua bada  
astuak umia eitian  
zelako mozkorra!
14. Federiko dago barriz  
papelak saltzeko  
hark bere esperantzia  
zeozer hartzeko.  
Asko sobratuko balitz  
errepartzeko  
zerbait berko da astua  
gobernaturtzeko.

15. Federiko asto gainian  
egingo da jarri  
papelak errepartziten  
erosten dunari.  
Ezagutu nahi duenak  
gure asto hori  
Andre Mari egunian  
Ondizera etorri.
16. Gehiago bertsorikan  
ez nua esaten  
honekin despedida  
nua ni ematen.  
Gusto duenak jakin  
etorri erosten  
hamasei bertso barri  
txakur handi baten.



01. **Ipinten:** ipintzera, jartzera.  
**Iruritutzen zat:** iruditzen zait.  
**Leiduten dunentzat:** irakurtzen duena-  
rentzat.
02. **Lejona:** Leioa.  
**Merkataria:** eroatera edo tratura dato-  
rrena.  
**Izen:** izan.
03. **Dauana:** dagoena.  
**Astuo:** astoago.
04. **Badebe:** badute.
05. **Auguro:** agudo, azkar, fite, arin.
06. **Pagadu:** pagatu, ordaindu.
07. **Bageko:** gabeko.  
**Enkajatu:** sartu, erantsi.
08. **Azunbre:** bi litroko neurria.  
**Ha bere:** hura ere.  
**Zeuan:** zegoen.
11. **Astuen:** astoaren.  
**Kuidatzen:** zaintzen, jagoten.  
**Dauala:** dagoela.
12. **Biriak:** bideak.  
**Ikisita daure:** ikasita daude.
13. **Eraten:** edaten.  
**Berbakua:** hitzekoa.  
**Zelako:** nolako.
14. **Barriz:** berriz, osterera, ordea.  
**Papelak saltzeko:** bertso-paperak sal-  
tzeko alegia.  
**Hark bere:** hark ere.  
**Berko:** beharko.
15. **Ondiz:** Leioako auzo bat.
16. **Txakur handi:** pezeta baten hamarrena.

Historia bitxia eta xelebrea benetan, asto bat zela bide. Bertso hauek orraztu txiki batekin, -neurrian eta hizkeraren koherentzian batez ere-, sorta dotorea egingo lukete. Bertso jartzaileak Leioa aldera bizitzera etorritako giputzen bat —muga samarrekoa— edo denboraldi batean alderantziz egindako bizkaitarren bat izan behar du.

## **BESTE BATZUK**

Hemen bide batez aurkitzen joan naizenak sartu ditut, alboan uzteak pena ematen bait zidan. Badakit bilduma hau ez dela lokantak, okasioetako formulak eta gisakoak biltzeko tokia, edo nire asmoa ez zen behintzat. Atal honek, beraz, ikutzen dituen generoetan, ez dauka inolako bilduma pretentsiorik.

## GAISORIK HAGO

(Cancionero Popular Vasco, 308 or., R. M. Azkue)

Gaisorik hago, etika hori  
agiri dona antzean  
izerdi on bat hartu beharkon  
geure kortako saspean  
geure kortako saspean  
zazpi txarrien artean  
amilu moltzo bat eperdian da  
ni ilentiaz atzean  
orduantxe bai ikusikogu  
zein arinago garean.



**Etika:** *etiko*'ren femeninoa. Tisikoa, bularre-  
tikoa.

**Dona:** don, dun.

**Antzean:** itxuran, aurpegikieran. *Hatsean*,  
*kiratsean* ere izan liteke.

**Beharkon:** beharko don, dun.

**Kortako:** ikuiluko, tegiko.

**Saspean:** simaurpean, ongarripean.

**Amilu:** liho mota zakar bat. Iztupa, amukoa.

**Ikusikogu:** ikusiko dogu, dugu.

## OTXANDIOKO ERREMENTARIAK

(Cancionero Popular Vasco, 199 or., R. M. Azkue)

Otxandioko errementariak  
frakatxo zaharrak eta begi gorriak.  
Alperrik egingo jok  
ehun erreal gariak  
ardaoa edango jok  
errementariak.



**Frakak:** prakak, galtzak.  
**Errementari:** suarotz, sugin.  
**Jok:** dik.  
**Erreal:** pezeta laurden.

## ANTONEK DAUKO

(Cancionero Popular Vasco, 146 or., R. M. Azkue)

Antonek dauko besigua  
 zezina legez gazitua.  
 Gabon gabeen harek beharko jok  
 ahukadan ahukadan tragua.  
 Ai oi, Alejo  
 zahatoa beterik baleuko!  
 Maria Belantx  
 eradale barria.



**Dauko:** dauka.  
**Besigua:** bixigua.  
**Zezina:** gatza emandako okela, haragia.  
**Legez:** bezala.

**Jok:** dik.  
**Ahukadan ahukadan:** ahokada bakoitzean.  
**Eradale:** edaten emaile, edan erazle.

## DANTZADU DAIGUN SONBRILU

(Cancionero Popular Vasco, 302 or., R. M. Azkue)

### Berriz

01. Dantzadu daigun sonbrailu  
 bagila jaku azaldu  
 bagila datorrenean  
 zaharrok hilgoituk  
 gazteak hurrengo urtean  
 zaharrok hilgoituk  
 artean  
 olgadu gaitean.

02. Dantzadu daigun sonbrailu  
 Maria jaku ezkondu  
 harexen eztegurako  
 txarri buztana  
 laban labana  
 gatzetan gordeta dogu  
 txarri buztana  
 laban labana  
 guztiok gaur jango dogu.

### Bergara

03. Dantzau daigun sonbrailu  
 Maria zaigu ezkondu  
 haretxen eztegurako  
 txarri buztana daukagu.

### Elgoibar

04. Dantzan darabilgun sonbrailu  
 bagila zaigu azaldu  
 zaharrok hilgoituk  
 biziko gaituk gazteak.  
 Begiratu ekiok sutako egurrari  
 dantzan dabilen neskatila horrek  
 ardatza dirudi.



01. **Dantzadu daigun:** dantza dezagun.  
**Sonbrailu:** kapela, gaztelaniazko *sombrero* 'tik.  
**Bagila:** ekaina.  
**Jaku:** zaigu.  
**Olgadu gaitean:** josta, diberti gaitezen.

02. **Eztegu:** eztaiak, ezkontza.  
**Labana:** guria, irristakorra, limurkorra.  
 04. **Ekiok:** egiok, iezaio.

## DAMUKORTAN

(Cancionero Popular Vasco, 749 or., R. M. Azkue)

Damukortan etxetzea  
 Imintolan gisatzea  
 Larruskaingo basatia  
 Garramiolan aldapea  
 Agoritan alkatea  
 parerik gabea  
 Olazarko printzipea  
 Olabarriko joilea  
 Amaillobietako lukenagea  
 Egurrolako torrea  
 aurrean daukat errotea  
 atso askoren botikea  
 han ei da Maripena  
 dontzeila estimadea  
 haren atzeko putzak darabil  
 Gabiolako errotea...

Aulesti edo Murelagako baserrien izendapenak jarraitzen du eta honela amaitzen:

Latsurikako dukea  
 duke errenta bagea  
 baketa narru, dukattxu bi  
 zentzuna kokotzaz atzetik.



**Etxetze:** etxe multzoa, mordoia.

**Gisatze:** gisats edo isats multzoa. Basoko zuhaizka bat.

**Joilea:** jolea, jotzen dakiena edo zalea.

**Lukenagea:** sastrea.

**Ei:** omen.

**Estimadea:** *estimadua* ren femeninoa.

**Baketa:** zaldiak eta menperatzeko zigorgailua.

**Dukattxu:** dukat txikia. Lehengo txanpon bat.

## TXIRIN TXANKETAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 373 or., R. M. Azkue)

01. Txirin txanketan Bilbora noa  
txirin txanketan zer egiten?  
Txoria txoritxo txilibitaria.
02. Txirin txanketan makailautxoak  
txirin txanketan ekarten.  
Txoritxo txilibitaria.
03. Aurten ezkondu gura dabenak  
erein beharko jok garia.  
Txoria, txoritxo txilibitaria.



03. **Gura dabenak:** nahi duenak.  
**Beharko jok:** beharko dik.

## OILASKOTXUA HARILETAN

(Cancionero Popular Vasco, 719 or., R. M. Azkue)

Oilaskotxua hariletan  
 oiloak hurun eralten  
 sagutxu txikia josten  
 arratoetxua labratzen  
 astoa tanbolin josten  
 haren guztien artean bere  
 zorria barrez itotzen.





**Hariletan:** harilak, harilkoak, hari opilak egiten.  
**Hurun:** hirin.

**Eralten:** eralgiten, eralkitzen.  
**Labratzen:** lurra edo harria lantzen.  
**Barrez:** irriz.

## NEURE ASTOTXU MALTZINA

(Cancionero Popular Vasco, 716 or., R. M. Azkue)

Neure astotxu maltzina  
joan zinean antxina.  
Pelizek dauko zurekin  
kuadratu ezina  
ikusi eta muzina  
ez gazte izan bazina.



**Maltzina:** gaztelaniazko *malsin*. Berritsu, gaizki esalea.  
**Antxina:** aspaldi, duela denbora anitz.  
**Kuadratu:** egokitu, bat egin.

## JOAN NINTZAN MERKATURA

(Euskalerrriaren Yakintza, 327 or., R. M. Azkue)

01. Joan nintzan merkatura  
erosi neban txakurtxoa  
txakurtxoak au au au  
katutxoak miau miau miau  
txoritxoak txorrotxiotxi  
ai ze gaba neukan nik!

02. Joan nintzan merkatura  
erosi neban kitarratxoa  
kitarratxoak grin grin grin  
tanbolintxoak rau rau rau  
txilibitotxoak txiru liri li  
ai ze gaba neukan nik!



01. **Neban:** nuen.  
02. **Txilibitotxoak:** txistutxoak.

## BEHIN JOAN NINTZAN

(Cancionero Popular Vasco, 617 or., R. M. Azkue)

01. Behin joan nintzan azokara  
erosi neban txakur bat  
txakurrak txau txau txau  
nik txi txi berari  
ekarri neban etxera.

03. Behin joan nintzan azokara  
erosi neban txori bat  
txoriak txio txio  
nik barriz negar lodi  
iges ein ostan basora.

02. Behin joan nintzan azokara  
erosi neban txistu bat  
txistuak fli fli fli  
txakurrak txau txau txau  
eroan notsan amari.



01. **Neban:** nuen.

03. **Barriz:** berriz, ordea.

02. **Eroan notsan:** eraman nion.

**Ein ostan:** egin zidan.

### BELA BELA JAUNA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 298 or., R. M. Azkue)

Bela bela, jauna  
non dago aita jauna?  
Soloetan jauna.  
Soloetan zer eiten?  
Artoak ereiten.  
Artoa zetako?  
Oiloarentzako.  
Oiloa zetako?

Arrautza egiteko.  
Arrautza zetako?  
Abadearentzako.  
Abadea zetako?  
Mezea emoteko.  
Mezea zetako?  
Purgatorioko arimentzako.

Zeanurin: *"Aingerutxo biren erdian zerura joateko"*



**Bela bela:** esanahi zehatzik gabea, bizkaieraz *bela* esaten den belea ez bada.

**Zetako:** zertarako?

### HIRU ERREGE MAGOAK

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 329. or.)

Hiru errege magoak  
hain bide luzean  
zeruan musikea  
munduan tronpetea  
andra Kosepa tronpeta joten  
Kriston erreberentzia  
jarri belauniko  
adora Jesukristo  
gure zelaian nor dabil?  
Azaburuak loratzen  
aitatxu, amatxu  
hurra, hurra pitxitxu!

### KANDELERA, KANDELERIO

(Euskalerrriaren Yakintza IV, R. M. Azkue, 332. or.)

01. Kandelario lario  
hatxari ura dario  
makatzari madari  
eutsi, Peru, hankeari.

03. Kandelario lario  
hatxari ura dario  
sagartxoari mustio  
akerrak dantzan idiak dantzan  
astoa tanbolintero.

02. Kandelarioz eguzki  
negua dago aurreti  
kandelarioz edurra  
joan da neguaren bildurra.

04. Kandelario lario  
hatxari ura dario  
erroteari huruna  
hauxe da guk behoguna.

05. Kandelario lario  
hatxari ura dario  
olibeari orio  
sagarrari bustino  
sagar gainean makatz  
makatz gainean madari  
nun da Peru kantari?



01. **Hatzari:** haitzari.  
**Makatz:** basa madaria, madari txertatu gabea.  
**Madari:** udare, txermen.
04. **Huruna:** hirina.  
**Behoguna:** behar doguna.  
**Bustino:** mustio, mostoa.
03. **Mustio:** mostoa.

## KARATULA SORKI

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 333 or., R. M. Azkue)

Ez karatula  
bai karatula  
txarri arrandula.

01. Karatula sorki  
ken hakit horti  
nik okelea janda  
katuari zapi.
02. Karatula begi gorri  
marinerua  
ahuntzak jan dauksala  
bere burua.



- Karatula:** aurpegi moztorra.  
**Arrandula:** ez dirudi esanahi zehatzik daukanik.
01. **Sorki:** kapete, buruan ilez edo zapiz egin-dako koro gisakoa. Sorki hau sukaldeko
- trapua ere izan daiteke, mahaia garbitze-ko eta erabiltzen dena.  
**Zapi:** katuari *hoa* edo *ken hortik* esateko erabiltzen den hitza.
02. **Dautsala:** diola.

## KEIA KEIA MENDIRA

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 335 or., R. M. Azkue)

01. Keia keia mendira  
oilotxo tokira  
neskatxo dotrinara  
amandrea elizara  
aitajauna tabernara.
02. Euria dator menditi  
Nafarroaren gaineti  
amak opila labati  
aitak ardua tabernati  
hartu kapela zahartxo bat eta  
banoa herri honetati.



01. **Keia:** kea.  
**Tokira:** oilategira.
- Amandre:** amama, amatxi, amona.  
**Aitajauna:** aitita, aitatxi, aitona.

## HORRA NUN DAGOAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 357 or., R. M. Azkue)

01. Horra nun dagoan botea  
ardao klaret onez betea  
guztiok haren zaleak gaituk  
guztiok haren zaleak.
03. Horra nun dagoan sagua  
ebagi ebana sokea  
estu ebana botea... etab.
02. Horra nun dagoan sokea  
estu ebana botea  
ardao klaret onez betea  
guztiok haren zaleak gaituk  
guztiok haren zaleak.
04. Horra nun dagoan katua  
uxatu ebana sagua  
ebagi ebana sokea... etab.
05. Horra nun dagoan txakurra  
hantxitu ebana katua  
uxatu ebana sagua... etab.

06. Horra nun dagoan palua  
jo ta hausi ebana txakurra  
hantxitu ebana katua... etab.

07. Horra nun dagoan sua  
erre ebana palua  
jo ta hausi ebana txakurra... etab.

08. Horra nun dagoan ura  
itzungi ebana sua  
erre ebana palua... etab.

09. Horra nun dagoan idia  
edan ebana ura  
itzungi ebana sua  
erre ebana palua  
jo ta hausi ebana txakurra  
hantxitu ebana katua  
uxatu ebana sagua  
ebagi ebana sokea  
estu ebana botea  
ardao klaret onez betea  
guztiok haren zaleak gaituk  
guztiok haren zaleak.



01. **Botea:** zahatoa.

02. **Estu ebana:** estutu, lotu zuena.

03. **Ebagi:** ebaki, moztu.

05. **Hantxitu:** hatzeman, harrapatu.

08. **Itzungi:** itzali, amatatu.

### TXINTXIN TXIRRIKITIN

(Mari Elozegi eta Mari Angeles Olaldekoa. Larrabetzu. Jon Aurre sorta)

01. Txintxin txirrikitin txorie  
txoritxo txilibitarie  
erain neuen garie  
oso arlo handie  
uste neuen ehun anega  
imina bat zan guztie.  
imina bat zan guztie.

02. Txintxin txirrikitin txorie  
txoritxo txilibitarie  
atsoaren zaurie  
sendatzera etorrie  
oge sabaien da gero  
txindor papar-gorrie  
txiolaritxo zolie.



01. **Txilibitarie:** txilibitu edo txistu jolea.  
**Anega:** aleen neurria, berrogeita hamar  
kilo.  
**Imina:** aleen neurria, anega laurdena.

02. **Txindor:** txantxangorri.  
**Oge sabai:** ohe zapai, ohearen gainal-  
dea.  
**Zolie:** argia, bizia, bizkorra.

### TXINGILIN TXINGILIN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 369 or., R. M. Azkue)

Txingilin txingilin maina  
Bihar Santa Maina  
etzi Domun Santu  
umeak zuloan sartu  
ama negarrez  
aita dolorez  
abareak kantetan  
errealen pozez.



**Santa Maina:** Santa Marina.  
**Domun Santu:** Domuru Santuru, Santu  
guztien eguna.

**Abareak kantetan:** abadeak, apaizak kanta-  
tzen.  
**Erreal:** pezeta laurdena balio duen txanpo-  
na.

## ASPALDION EZ DA

(Mari Elozegi eta Mari Angeles Olaldekoa. Larrabetzu. Jon Aurre sorta)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Aspaldion ez da gure etxian<br>ogirik ikusi<br>baina gaur txitxi ta parra<br>ixango da ugari. | 02. Gaur bai jana ta edana labirulera<br>jango ete dogu dana labirula<br>gaur jana ta edana labirulera<br>jango ete dogu dana. |
|---|--|

## NI MENDIXARA

(Cancionero Popular Vasco, 335 or., R. M. Azkue)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Ni Mendixara San Pedroetan<br>banoa zezenetara<br>harek bai neskatzak<br>ederrak, galantak<br>Lekeitiarren aldean<br>Mendixan Elizaldean. | 02. Igaztik hona urtebete da<br>denporionen luzea!<br>Harik honako gau-egunetan<br>mudatu leike gaztea. |
|---|---|

### Errepika

Da Sa Dxuan, da San Dxuan  
beti zaukadaz goguan.



01. **Harek:** haiek.  
02. **Denporionen:** denbora honen.  
**Harik:** handik, ordutik.  
**Zaukadaz:** zauzkat.

## SAN PEDRO ZERUETAKO

(Cancionero Popular Vasco, 346 or., R. M. Azkue)

- |  |  |
|--|--|
| 01. San Pedro zeruetako<br>giltzaren jaubea<br>zurea txalopea<br>neurea sarea.   | 04. Antonek badaki<br>txairo ta galanki<br>emoten bostekoa<br>hori dok, Anton, txokoa!<br>Anton Tanbolin<br>Peru Atabal<br>egin hemen brinkoa<br>ez dok hori lehenengoa. |
| 02. Jaigi zaitetz, gizonak<br>sareetarako<br>astean launa marai<br>zuei emoteko. |  |
| 03. Gora gora doa<br>San Pedrotxoa<br>ha baino gorago doa<br>gure Jaungoikoa.    |  |



- |  |   |
|--|---|
| 01. <b>Txalopea:</b> txalupa, batela.  | 03. <b>Ha:</b> hura.  |
| 02. <b>Jaigi:</b> jaiki.<br><b>Zaitetz:</b> zaitetzte. <i>Zuek</i> subjektuaren forma arkaikoa.<br><b>Marai:</b> antzinako txanpon bat, gaztelaniazko <i>marabedia</i> . | 04. <b>Txairo:</b> dotore, txukun, airosoa.<br><b>Brinkoa:</b> jautzia, ihutia. |

## DRINGILIN DRON

(Cancionero Popular Vasco, 165 or., R. M. Azkue)

- |   |   |
|---|---|
| 01. Mazkelo bete aza egosi<br>hori, zuri ta gorriak<br>brehala irunsi notsazan<br>azkenengoko orriak. | 02. Hiru hortzeko tresnatxo batez<br>morokil-ore bailitzan<br>ezti-lapiko handisko bati<br>barrua huts huts ein notsan. |
|---|---|

Errepika:

Dringilin dron  
gaur Gabon  
sabela betea daukat eta  
besteak hor konpon.



- |   |  |
|---|--|
| 01. <b>Mazkelo:</b> galdara, pertz.<br><b>Irunsi notsazan:</b> irentsi nizkion. | 02. <b>Handisko:</b> handitxo, handixe.<br><b>Ein notsan:</b> egin nion. |
|---|--|

## OI BART

(Cancionero Popular Vasco 196 or., R. M. Azkue)

01. Oi bart, oi bart!  
Usapal bi ta eper bat  
janaritzat  
hiru atsorekin hamabost agurek  
ai zer aparria genuen bart.

- |   |  |
|---|--|
| 02. Oi bart, oi bart!<br>Bederatzi zezen haundi<br>zortzi idi ta zazpi behi<br>sei ahari ta bost antzar<br>lau oilo, hiru uso<br>usapal bi ta eper bat<br>janaritzat<br>hiru atsorekin hamabost agurek<br>ai zar aparria genuen bart. | 03. Oi bart, oi bart!<br>Hamabi zama ardo zuri<br>hamaika zama ardo beltz<br>hamar anega ogi berri<br>bederatzi zezen haundi<br>zortzi idi ta zazpi behi<br>sei ahari ta bost antzar<br>lau oilo, hiru uso<br>usapal bi ta eper bat<br>janaritzat<br>hiru atsorekin hamabost agurek<br>ai zer aparria genuen bart. |
|---|--|



01. **Usapal:** uso mota bat, lirainagoa eta Euskal Herrian urria.  
03. **Zama:** karga.  
**Anega:** aleen neurria, berrogeita hamar kilo.

## ARRATOIA HARILETAN

(Euskalerrriaren Yakintza IV 284 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| 01. Arratoia hariletan<br>sagua tanbolin joten<br>astoa eta mandoa dantzan<br>zorria barrez itoten. | 02. Txantxilon eta txantxilon<br>marabedian bost gizon<br>ehun dukaten andrea<br>hauxe da eroste merkea. |
|---|--|



- |   |   |
|---|---|
| 01. <b>Hariletan:</b> harilak, harilkoak, hari opilak<br>egiten.<br><b>Barrez:</b> irriz. | 02. <b>Marabedi:</b> marai, lehengo txanpon es-<br>painiar bat.<br><b>Dukaten:</b> dukatean, dukatetan. Lehen-<br>go txanpon bat, balio handikoa. |
|---|---|

Bigarren ahapaldian ohargarri da gizonaren eta andreaken prezioen aldea. Oso balio gutxi daukan marabedi batean bost gizon eta hain balio handiko ehun dukat behar, andrea ordaintzeko, eta hala ere eroste merkea. Marabedia eta dukata balio aldakorreko txanponak izan dira. Marabediari txakur handi baten balioa eta dukatari hamar pezetarena jorik, batetik ehunerako aldea dago. Marabedian bost gizon sartzen direla eta andreak ehun dukat balio duela jorik, proportzioa batetik berrogeita hamar milara doa. Beraz, emakume batek berrogeita hamar mila gizon balio du. Edo emakumea gaur baino estimatuago zegoen, edo gizonak gaur aina balio zuen.

### ATXIE MOTXIE

(Juanita Unzueta - Aramaio. **Jon Aurre** sorta)

Atxie motxie pillori pan  
neure semie errotan  
errota txikine klin klan  
Behin joan nintzan basora  
topau neban astotxo bat  
tireka tireka atera neutsan buztana  
sartu neutsan eztena  
botikario, kalendario.



**Atxie motxie:** esanahi zehatzik gabea, atze eta motz hitzetatik garatua.  
**Pillori pan:** esanahi zehatzik gabea.

**Txikine:** txikia.  
**Topau neban:** topatu, aurkitu nuen.  
**Neutsan:** nion.

### ATXIA MOTXIA

(Cancionero Popular Vasco, 287 or., R. M. Azkue)

#### Lekeitio

- |   |   |
|---|---|
| 01. Atxia motxia perolipan<br>nire semea errotan<br>errotara ninoiala<br>topa neban asto bat<br>kendu neutsan buztan bat<br>ipini neutsan beste bat<br>errota txikinak klin klan. | 02. Atxia motxia perolipan<br>nire semea errekan<br>errekara ninoiala<br>topa neban erbi bat<br>kendu neutsan begi bat<br>ipini neutsan beste bat<br>erreka txikinak plist plast. |
|---|---|

#### Ermua

03. Atxia motxia besteren kotxia  
zirrin zarran txurrunplet  
olea bite konkolo  
gauza on zalea neu nago  
atzera begira dagonentzat  
ezer bere ez dago  
zidarra kanpan  
zidarra kanpan gari bat.



01. **Ninoiala:** nindoala.

03. **Txurrunplet:** zurruta, edari alkoholdu-  
nak edatea.

**Olea bite:** oleatu bedi, oliatu, olio z igur-  
tzi.

**Konkolo:** esanahi zehatzik gabea.

**Kanpan:** kanpae, kanpai.

## DINDAN NOR HIL DE

Din dan nor hil de  
 Peru zapaterue  
 zer egin deu pekatu  
 auzoko txakurre urketu  
 zizailupien beratu  
 handik etxera joan eta  
 arrutze bigaz koipetsu  
 hori ez dona pekatu.

(Gure etxean esaten genuena)



**Zizailu:** jarleku luzea eta bizkarduna.  
**Beratu:** uretan luzaro edukita bigundu.

**Bigaz:** birekin.  
**Koipetsu egin:** urdai, lukainka eta holako erregaiekin jan bat egitea.

## BAT BI HIRU LAU

(Euskalerrriaren Yakintza IV 294 or., R. M. Azkue)

01. Bat bi hiru lau  
 hamar hamalau  
 aitag saldu nau  
 amak erosi nau  
 Bilboko alkate zaharrak  
 preso sartu nau.

02. Bat bi hiru lau  
 saguzarrak jango ahal hau!  
 Sagua ta Pilipe  
 jaunak, nundik zatozte?  
 Kaleak gora kaleak behera  
 biribiltxoak alkate  
 boltsan urre gorria  
 amilostxoak baleki  
 atarako leuskio begia.



02. **Jango ahal hau:** hobe, oxala jango bahindu.  
**Atarako leuskio:** aterako lioke.

## BASERRITARRA

(Cancionero Popular Vasco, 672 or., R. M. Azkue)

01. Baserritarra zegoanean  
 dirua kontatzen zirzirzir  
 eskribau jauna aldamenean  
 barreaz itotzen kirkirkir.  
 Zun eta zun, zun eta zun  
 Isabela, Manuela  
 Margarita, Katalina zun!  
 Peru, largaidazu  
 Mari, oratuidazu.

02. Etxekoandrea ari zanean  
 sardinak erretzen txirtxirtxir  
 katar saloa zoko batean  
 muturra mihizkatzen pzipipzi!  
 Zun eta zun... etab.



01. **Barreaz:** barrez, irriz.  
**Largaidazu:** lagaidazu, utz nazazu.  
**Oratuidazu:** helduidazu, atxiki nazazu.

02. **Saloa:** jatuna, tripazaia, sabelkoia.  
**Mihizkatzen:** milikatzen.



## LEHEN ZAZPI KANA

(Cantares populares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga. Anuario de Eusko-Folklore, 1930, Tomo X 14. or.)

Lehen zazpi kana tela  
nahiko baziran  
orain behar da doblea  
merinakedun dama gaztea  
hurrengo arte adio  
merinakerik ez daukenak  
orain ez dau balio.



**Merinake:** gonak aldaka parean harrotzeko, emakumeek jazten zuten metalezko egitura. Hortik ehun edo tela gehiago behar izatea, piezatxo honek dionez.

## TXAPEL IGERREK

(Aurreko sorta bera, 20. or.)

Txapel Igerrek hil dau txarrie  
arroa bi t'erdia pixitu i dau guztiek  
handi be Monterolari emon behar erdie  
hau dok demoninokerie.



**Arroa:** hamabi kilo t'erdiko pisu neurria.  
**Pixitu i dau:** pisatu ei dau, omen du.

## TAN PARRAN PATAN

(Aurreko sorta bera, 23. or.)

Tan parran patan  
akerra jantzan  
astoa bilulin joten  
azagarie sueri puzke  
erbie hurun eralten.



**Bilulin:** bibolin.  
**Azagarie:** azeria.  
**Hurun:** hirin.

**Eralten:** eralkitzen.

## JOAN NINTZAN MADRILERA

(Cancionero Popular Vasco, 699 or., R. M. Azkue)

01. Joan nintzan Madrilera  
bai etorri bere, bai etorri bere  
hango neskatxuak  
enabe ni maite, enabe ni maite.
02. Hango neskatxuak  
maite nabenean, maite nabenean  
praile sartuko naz ni  
komendu batean, komendu batean.

03. Kerizak heldu dira  
 bai Kanalekoak, bai Kanalekoak  
 trapu punta-luzeak  
 bai Angelukoak, bai Angelukoak  
 garagar-herrikoak  
 Natxitu aldekoak, Natxitu aldekoak  
 abarka-manta zale  
 bai Izpasterkoak, bai Izpasterkoak.
04. Guztizko panparroiak  
 Lekeitio aldekoak, Lekeitio aldekoak  
 neska gona-gorriak  
 Amoroto aldekoak, Amoroto aldekoak  
 uraldeko berdetxak  
 Gizaburukoak, Gizaburukoak  
 dantzari bailesteak  
 Ailustiakoak, Ailustiakoak.
05. Guztiz gerri-mardoak  
 bai Nabarrizkoak, bai Nabarrizkoak  
 eskribau herrikoak  
 Gernikaldekoak, Gernikaldekoak  
 eskuara-buruak  
 Arrietakoak, Arrietakoak  
 artobero zaleak  
 Emerandokoak, Emerandokoak.



01. **Enabe:** ez nabe, ez naute.

02. **Nabenean:** nautenean.

03. **Kerizak:** gereziak.

04. **Uralde:** urondo, ibaialde.

**Berdetxa:** berdexka, berdail, berde antzekoa.

**Bailesteak:** bailestak, baleztak, hots, baleztak bezalakoak.

05. **Mardo:** gizen, potolo, betea.

**Eskuara:** eskuare, hamar-hamabi hortzeko lanabesa.

Gernikatik Lea Ibarrera bitarteko herriak izendatzen diren honetan, harritzekoa da hortik oso urrun eta beste eskualde batekoak diren Arrieta (Sollube azpiko herri bat) eta Emerando (Meñakako auzo bat) agertzea. Horrek beharbada esan nahi du zerrenda luzeago baten zati bat galdu egin dela.

## IGAZ SOLOAN

Igaz soloan luze egonda  
 neukazan libra bi ogi  
 aurten beharra eginda bere  
 jentea dago ziogi.  
 Igazko urteaz, aurtengo hori  
 etxat bardina etorri.

(Piezatxo hau ez dakit nondik jaso dudana)



**Soloan:** soroan.

**Neukazan:** neuzkan.

**Beharra eginda bere:** lan eginda ere.

**Ziogi:** urri, zuhur.

**Etxat:** ez jat, ez zait.

## LAU AEROPLANO

(Bermeo-6, 126. orritik aurrera. 1986-87. Uetena Taldeak)

Egije da egije da  
neuk ikusikoa da ta  
egije da egije da  
porque lo he visto yo.

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. Lau aeroplano pasata<br/>bat itxasora jeusi<br/>Ekarri, Sebastianek ekarri<br/>Sebastianek ekarri, Sebastianek<br/>Artzan enkalleta itxi.</p>                | <p>04. Agostuen hamabijen<br/>Patxi Bermiora etorri.<br/>Ekarri katxalotia ekarri<br/>katxalotia ekarri<br/>katxalotia puf!<br/>Artzan enkalleta itxi.</p>                  |
| <p>02. Lau terrestre mariñero<br/>Jose <i>Loidi</i> patroie<br/>ekarri aeroplanua ekarri<br/>aeroplanua ekarri, aeroplanua<br/>Artzan enkalleta itxi.</p>           | <p>05. El aviador de <i>Kakapur</i><br/>tambien quería volar.<br/>Etzo itxi, diktadoriak etzo itxi<br/>diktadoriak etzo itxi<br/>diktadoriak<br/>barrabaskeijen gaitik.</p> |
| <p>03. Bermioko portuan<br/>goizeko ordu bijetan<br/>ez da entzuten besterik<br/>ez da entzuten besterik<br/>ez da entzuten besterik<br/>Txo! Atrakaizu batela.</p> |   |



- |  |   |
|--|---|
| <p>01. <b>Jeusi:</b> jausi, erori.<br/><b>Enkalleta:</b> enkailatuta, hondartua, hon-<br/>doa jota.<br/><b>Itxi:</b> utzi, laga.</p> | <p>04. <b>Patxi:</b> Francisco Franco diktadorea.<br/>05. <b>Etzo itxi:</b> ez deutso itxi, ez dio utzi.<br/><b>Barrabaskeijen:</b> barrabaskerien, de-<br/>abrukerien.</p> |
|--|---|

03. **Atrakaizu:** atreka ezazu, kairatu.

## AI ENE

(Aurreko bera)

Ai ene! Oi ene!  
Hagiñeko miñe  
medikuañe  
Ai ene!  
Oi ene!  
Hagiñeko miñe  
medikuañe.



**Miñe:** mina.  
**Medikuañe:** medikuarengana, medikura.

## ARRE KATXUTXA

(Aurreko bera)

Arre katxutxa  
txapela frente  
haren ganian  
hiru komediate.  
Haren ganian  
bela zuria  
haren ganian  
arrotxa gorringo.  
Urta, Jose babil  
Jose babil, Jose babil.



**Bela:** Izan liteke untzi-bela, edo baita *belea* edo *erroia* deritzon hegaztia ere. Bermeon lehenengoa bidezkoago da, baina txapel beltzak, bele zuriak eta arraultza gorringoak ere ez dute komedia gaizki dekoratzen.

**Arrotxa:** arraultza.

**Babil:** badabil.

## EISENHOWER

(Aurreko bera)

Esinjauer Lameran dau kaka eitzen  
tio Patxiko Alfan dau tximiñoitxen  
Jose Komentu palomari jaten emoten  
da Sabino Barriketa ikurriña eskeitxen.  
Lara lara lara lara.



**Lamera:** alameda, zumardia.

**Dau:** dago.

**Esinjauer:** Eisenhower, bermeotar baten ezizena. Hemen ageri diren beste izenak ere Bermeoko pertsonaia ezagunak.

**Tximiñoitxen:** tximinoi edo txipiroi lanean.

**Palomari:** usoei.

**Eskeitxen:** eskegitzen, esekitzen, dilindatzen.

## PETRATXU

(Aurreko bera)

Petratxu Arraingorri  
kantxontxillo gorri  
botuen batxien dabil  
gaurik gau erdi  
ifami txar txarra  
juen zan Mundekara  
aise sartun jako  
kamisetik gora.



**Botuen batxien:** botuak batzen.

**Ifami:** fama.

**Juen:** joan.

**Aise:** haizea. Edo agian *haixe, haxe, huraxe*, hots, bere fama txarra.

**Sartun jako:** sartu zaio.

## AI ALFARA

(Aurreko bera)

Por el camino del Alfa, la encontré  
a una chica muy guapa, la besé  
me dijo sinvergüenza, me callé  
y un poquito más arriba, ai!  
más sinvergüenza es usted.  
Ai Alfara, ai Alfara  
gora ta behera, behera ta gora  
txoferra txise daijola  
Errosatxu, Errosatxu  
hagiñik ez da txurrua  
nondik jangozu?

**Txise daijola:** txiza, piza dariola.

**Txurrua:** txurroa, hirinezko orea, tutu gisa luze eta mehe frijiturik jatekoa.

**Jangozu:** jango dozu.

## ANDRA ZANTARRAK

(Aurreko bera)

Traola traola traola, soijie  
itxasorako ordue.

01. Itxasotik gatozenian  
arrain barik etxera  
andra zantarrak bialtxen gaitxuz  
afari barik ogera.

02. Ogean popia emon  
hau da betiko kontua  
Holako andrakaz ezkontxen dana  
ez da makala tontua.

**Traola:** itsasoan aparailuak —bela, soka etab.— batzeko zurezko laukia.  
**Soijie:** Aparailuei uretatik untzirantz tira-tzean, karela ez gastatzeko jartzen zaion babes lizarrezkoa edo banbuzkoa. Orain plastikozkoa ere bai. Ondarroan *sokie* eta Lekeition *jujia* esaten dute.

01. **Barik:** bagarik, gabe.  
**Zantar:** zital, gaizto.  
**Bialtxen gaitxuz:** bidaltzen gaitu.

02. **Popia:** popa, atzea, ipurdia.  
**Andrakaz:** andrekin.

## ERREGELAK

(Durango Merinaldeko Dantzari Dantza - Antton Mari Aldekoa-Otalora. **Gerediaga 3.** aroa, 3. zenbakia. Durango)

01. Abarketak urratuta  
zapatarik ez  
Bermion gelditu naz  
oinetako minez.

08. Baina horigaitik, hil  
Betor ardaa  
edan dezaigun eta gero  
gogoz dezaigun alegres.

02. Hauxe dok egije  
zortziko barrije  
hiru txiki pagaturik  
librako ogije.

09. Erropatxu zaharrak eta  
eztarría garbi  
zorra dogu franku baina  
harturenak gutxi.

03. Ardautxuak parau gaitu jantzari  
bai eta koplari  
ez gaituk mutiltxuok egarri  
ta zertaz egoki.

10. Bart gure auzuan  
ziraden hasarrez  
bai batzuetan geu ere  
baita orain ere  
gogoz dezaigun alegres  
alegrentian  
egongo gariaren artian  
leku batian  
bihar artian  
gogoz dezaigun alegres  
alegrentian.

04. Neronen afezinua  
beti dok tabernarako  
bestela gure finak  
eskian beharko.

05. Ezin faltadu  
kondezintxuak ere  
onak ditugu.

06. Goizean joaten gara tabernara eta  
arratsean berandu etxera  
gero juaten gara.

11. Hau da ta San Sebastian  
orain dantzau gaitian  
ia ba joaten badok  
erdian aurrera.

07. Atzo eta gaur  
harainegun ere bai  
hiruretan izan da  
gure herrian jai.

12. Dantzan dabilen horrek  
ditu oinak arinak  
ez baldin baditu  
oinak arinak  
etxok horrek luzitzen baina  
ederki jok dantzatzen.
13. Arduaren bentajak hain dira handiak  
zuretzat nere bihotza  
ardaurik edan barik  
dago gaur haixe hotza.
14. Atzo goizian joan nintzan  
tabernara eta atera neban  
txupin erdi bat.  
Orain konfesa dezadan  
dan legez egia  
hareixek berak kendu zidan  
neri egarria.
15. Ardaua eta kartak  
ditudaz nik adiskidiak.
16. Ez daukat nik beste maiterik  
ez emakumetan afezinorik, ez alerik  
ardautxuak nauko enamoraturik.  
Oi hau pena  
ardaurik eza!  
Neure bijotzeko penagarria.  
Ongi ta ongi  
gerta dedila  
orain arte edan deun  
guzti guztia.  
Ez dala bere hobetuago  
aurrentzatian  
edaten deun guzti guztia.



01. **Parau:** paratu, jarri.
04. **Afezinua:** afizioa, zaletasuna.
05. **Faltadu:** falta, faltatu.  
**Kondezinotxuak:** kondiziotxuak, baldintzatxuak.
07. **Harainegun:** herenegun.
09. **Franku:** frango, ugari.  
**Harturenak:** hartzekoak, zorraren alde-rantzizkoak.  
**Alegrementian:** alegeraki, alaiki.
10. **Gariaren:** garian, garean, garen.
12. **Etxok:** ez jok, ez dik.  
**Jok:** dik.
13. **Barik:** bagarik, gabe.  
**Haixe:** haize.
14. **Neban:** nuen.
15. **Ditudaz:** ditut.
16. **Nauko:** nauka.  
**Edan deun:** edan degun.  
**Aurrentzatian:** hau errakuntzaren bat izango da. Aurrerantzean, hontaz aitzina.

Ikusten denez, aditzean gipuzkerazko formak nahasten dira. Horrez gainera esamolde xeblebre samarrak daude —*gogoz dezaigun alegres, gariaren artian*, errakuntzak ez badira—. Honelako textuetan gramatika ere astintzea normala da, kantariak eta entzuleak ez bait daude hitzen adi, dantzarietara eta haien mugimenduetara begira baizik.

## UAUATXOA LO LO LO

(Antología de Poesía Popular Vasca, 13. or. Juan Gorostiaga)

01. Uauatxoa lo lo lo  
zeuk orain eta nik gero  
zeuk gura dozun egunen baten  
biok egingo dogu lo.
02. Apa luze bat, seintxu txikarra  
apa luze bat egizu  
txatxa ederrez bete beterik  
laster helduko natxazu.



02. **Apa:** laztana, musua, haurtxo hizkeran.  
**Txatxa:** sagar, madari eta holako frutak haurtxo hizkeran.
- Helduko natxazu:** etorriko, iritsiko natxazu.

## UAUATXOA LO TA LO

(Cancionero Popular Vasco, 253 or., R. M. Azkue)

- |   |   |
|---|---|
| <p>01. Uauatxoa lo ta lo<br/>nik orain eta zuk gero<br/>biok batera lo egiteko<br/>eguna lar bero dago.</p> | <p>02. Neure maite polit hau<br/>hazita baneuko<br/>aitari tabernatik<br/>ardaua ekarteko<br/>amari esantxoak<br/>zehatz egiteko.</p> |
|---|---|



01. **Lar:** larregi, gehiegi.  
**Lar bero:** beroegi.
02. **Esantxoak:** esan txikiak, agindutxoak.

## NERE MAITEA, MAITE POLITA

(Cancionero Popular Vasco, 246 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. Nere maitea, maite polita<br/>ez egin lorik basoan<br/>azeritxoak jan ez zagizan<br/>oiloa zarelakoan.</p> | <p>03. Buztana mardo mardo<br/>lepoa beilegi<br/>haren arrautzatxoak<br/>harila dirudi.</p>            |
| <p>02. Oiloa galdu jako<br/>auzoko Manuri<br/>seinaleak baditu<br/>agertu baledi.</p>                             | <p>04. Binbilin bolon bolua<br/>urak daroa zorroa<br/>garia bada betorge eta<br/>artoa bada bixoa.</p> |



- |  |  |
|--|--|
| <p>01. <b>Ez zagizan:</b> ez zaitzan.</p> <p>02. <b>Jako:</b> zaio.</p> <p>03. <b>Mardo:</b> potolo, lodi, betea.<br/><b>Lepoa:</b> bizkarra.<br/><b>Beilegi:</b> hori, laru.<br/><b>Harila:</b> harilkoa, hari opila.</p> | <p>04. <b>Daroa:</b> darama.<br/><b>Betorge:</b> Azkuek <i>betorge (y)eta</i> transkribatzen du. Y grekoa kantuan bokaletik bokalera sartzeko ohitura dela emanik, <i>betorge</i> horrek <i>betor</i> soila izan behar du, neurrirako luzatua, <i>betorke</i> izateak ez bait du zentzurik. <i>Betor gehi</i> eta ez bada, hots, <i>betor gehiago</i>.<br/><b>Bixoa:</b> bihoa, joan bedi.</p> |
|--|--|

## LO LO LO

(Cancionero Popular Vasco, 237 or., R. M. Azkue)

- |   |  |
|---|--|
| <p>01. -Lo lo lo. Aingerua,<br/>zeruan ze barri?<br/>-Zeruan barri onak<br/>orain eta beti.</p>                 | <p>03. -Eguerdi hain luzean<br/>zer dozu egiten?<br/>-Aingeru barrientzat<br/>hegoak eihoten.</p>          |
| <p>02. -Goiz ta gau zelan bizi<br/>da han goiko herria?<br/>-Han ez da goiz ez gaurik<br/>beti da eguerdia.</p> | <p>04. -Aingeru barri horrek<br/>nun sartu ohi jatzuz?<br/>-Lurreko sehasketan<br/>begiz jotzen doguz.</p> |



- |   |  |
|---|--|
| <p>02. <b>Zelan:</b> nola.</p> <p>03. <b>Eihoten:</b> ehoten, ehuna egiten.</p> | <p>04. <b>Horrek:</b> horiek.<br/><b>Jatzuz:</b> zaizkizu.<br/><b>Doguz:</b> ditugu.</p> |
|---|--|

Azken hiru koplak Azkuek asmatuak dira. Lehen koplako hasera hain poetikoaren jarraian, herriak zer kantatzen zuen jasotzen hainbat

alperreko ahalegin egin ondoren, haurtxoaren amaren eta haren ain-geruaren arteko elkarrizketa berak garatzea pentsatu omen zuen.

## AZTANEN PORTALEAN

(Cancionero Popular Vasco, 226 or., R. M. Azkue)

01. Aztanen portalean  
arbola eder bi  
bata da laranja  
bestea madari.

02. Larrosatxoak bost orri daukaz  
kabelineak hamabi  
gure umea gura dabenak  
eskau bekio amari.

03. Txikitxua naizela  
nago neu astuna  
ez al nazu botako  
karkaban barruna.



01 **Aztan:** nor-izena izan daiteke. Beste alda-  
era batzutan *laztanen* (laztanaren) ageri  
da. Hau litekeenago da.

**Madari:** udare, txermen.

02. **Orri:** hosto.

**Daukaz:** dauzka.

**Eskau bekio:** eskatu begio, biezaio.

03. **Karkaba:** hobi, zulo. Komuna ere izan  
daiteke.

**Barruna:** barrura, barnera.

## ATZO GOIZEAN

(Cancionero Popular Vasco, 221 or., R. M. Azkue)

01. Atzo goizean goiz jagi nintzan  
birigarroa goizago  
birigarroan kanta soinuan  
lo eiten dogu gozaro.

02. Eperrak kantatzen dau  
goizean bostetan  
ez egon neskatilak  
mutilen pentzutan.



01. **Jagi:** jaiki.

**Gozaro:** gozoki.

02. **Pentzutan:** mendean, gorabeheran.

Ondoren Zeanuriko aldaera dakar:

01. Txikirritxu, nongoa zara?  
-Jauna, ni Markinakoa.  
Lauzuri baino nahiago neuke  
bazina neure herrikoa.

02. Urruela, Urruela  
epetxak antzarra jan duela  
epetxak antzarra jan badau  
tripa zitala bete dau.



01. **Lauzuri:** lauzuriko, antxinako txanpon bat, lau zuri balio zuena.



## SEHASKAKOAK ETA BESTE BATZUK

(*Cantares populares recogidos en Zeanuri por Eulogio de Gorostiaga. Anuario de Eusko Folklore, 1930, Tomo X, 24. orrialdetik aurrera hautatuak*)

01. Obabatxoa lo ta lo  
zuk orain eta nik gero.
02. Obabatxoa lo lorine  
hauxe da nire pospoline.
03. Neure pospoline ta gaita  
neure seme laztan maitea.
04. Sein honen aite prailea da ta  
ama beata santea  
begi ederrokaz ama dirudi  
hanka okerrokaz prailea.
05. Obabatxoa lo balde  
ardiok itxi baleide  
ardiok dire hiru mile  
banabilde bile bile.
06. Obabatxoa lo ta lo  
zuk orain eta nik gero  
zeuk gura dozun orduen baten  
biok egingo dogu lo ta lo.
07. *Umea lehen pausotxoak ematen  
hastean:*
08. *Sugandilak harrapatzeko:*  
Subalandarea mar-mar-mar  
aite zopak jaten  
ama ardao eraten.
09. *Denporaleak jotzean:*  
Santa Barbara, Santa Kruz  
Jaune, balio zakiguz  
inoxenten ogie  
Jaune, miserikordie.
10. *Marigorringo bat aurkitzean:*  
Marigorri, gona gorri  
biher eguzki, etzi euri.
11. *Sagarra jotzean:*  
Kolan kolan  
zapatak holan  
artoa itxite  
ogie jan.

Txiri, txiri, oñe oñe  
aite legez, ama legez  
Pelipe erregea legez.

12. Bat eta bi hiru te lau  
bost eta bi zazpi te lau  
Sasiolako konbentopetik  
hamalau frailek urten dau.  
-Fraile manga tximurre  
antxine neutsun bildurre.  
-Andrea, zer dozu bularretan?  
-Zezenak hartu neu adarretan.  
-Zetan zegozan orduetan?  
-Zeruko ixerrak kontetan.  
-Zeinbat ziren ixerrak?  
-Bat eta bi hiru te lau  
bost eta sei zazpi te lau.
13. Kandelario lario  
hatxari ura dario  
erroteari hurune  
hauxe da guk behogune.

∞

02. **Lorine:** *Lo*'tik ateratako hitz laztankorra.  
**Pospoline:** pospolina, galeperra. Adjeti-  
bo gisa, polita, xarmanta.
04. **Sein:** haur, ume.  
**Ederrokaz...okerrokaz:** ederrokin, oke-  
rrokin. Eder hauekin.
05. **Ardiok:** ardi hauek, arkakusoak.  
**Banabilde:** banabil.  
**Bile:** bila, xerka.
07. **Legez:** moduan, bezala.
08. **Eraten:** edaten.
09. **Zakiguz:** zakizkigu.
11. **Kolan kolan:** sagar jotzearen onomato-  
peikoa.  
**Holan:** honela.  
**Itxite:** utzita.
12. **Urten dau:** irten da, jalgi da.  
**Manga:** mahuka.  
**Tximurre:** zimurra.  
**Antxine:** aspaldi, duela denbora anitz.  
**Neutsun:** nizon.  
**Zegozan:** zeunden.  
**Ixerrak kontetan:** izarrak kontatzen.
13. **Hatxari:** haitzari.  
**Hurune:** hirina.  
**Behogune:** behar doguna.

## LOTXO BAT ETA LOTXO BI

(Juanita Unzueta - Aramaio. Jon Aurre sorta)

01. Lotxo bat eta lotxo bi  
aitak eperrak ekarri  
beste guztiei bana ta bine  
gure umetxuei hamabi.

02. Gure umie logure egisan  
ez egin lorik basoan  
azeritxoak hartuko zaitu  
bildotxa zeralakoan.



01. **Umetxuei:** umetxoari, haurtxoari.

02. **Umie:** umea, haurra.

**Logure egisan:** ez dakit zer izan daitekeen. Loguregi zan? Edo logure ei zan?



Txeru kartzelan dago  
da umie kanpuen  
Txeruk nahiago leuke  
balego albuen.  
Lo lo lo...  
zuk orain eta nik gero.

## ANDRES MANDRES

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 280 or., R. M. Azkue)

Andres Mandres  
kolko bete tremes  
harek janda gosez  
soloak gora  
sola behera  
negarrez.



**Tremes:** ogi zakar samarra, zahia, zekalea edo holako zerbait nahasturik egina.

**Harek:** haiek.

**Soloak:** soroak.

## SEINERU GAIZTO

(Cancionero Popular Vasco, 1040 or., R. M. Azkue)

Seineru gaizto denemanesok  
beti itsasorako deia?  
Lau sagar gordin ta ogi puska bat  
egun guztiko jakia.  
Hamarretako ekarrikona  
heutzako ardao zuria.



**Seineru:** arrantzale kofradian, itsasoratzeko  
eguraldi ona ala txarra dagoen abisatzen  
duena.

**Denemanesok:** demoniook.  
**Ekarrikona:** ekarriko don, dun.  
**Heutzako:** heuretzat.

## BIRA BIRA MONTE

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 300 or., R. M. Azkue)

Bira bira monte  
zozo balkate  
Ibarrangelun alkate  
Bilbon errejidore  
gure auzoko Petratxu bere  
atzera bira leiteke.

## SAN JOAN

(Gure etxean kantatzen genuena)

San Joan, San Joan  
nik ez daukat besterik gogoan  
arrautza bi kolkoan  
beste bi altzoan  
artoak eta gariak gorde gorde  
lapurrak eta sorginak erre erre!



Altzoan: magalean.

## SAN JUAN

San Juan, San Juan goizean  
atsoa gindaren gainean  
agurea azpian negarrez  
hil ez daitean bildurrez.



Ez daitean: ez dadin.

## SAN JUAN BAGILEAN (I)

(Cancionero Popular Vasco, 1035 or., R. M. Azkue)

- |  |   |
|--|---|
| 01. San Juan bagilean<br>denpora ederrean<br>hamalau atso tronpeta joten<br>motrailu baten ganean.     | 03. Maiatzean lirio ederra<br>baia orain bagilean<br>hirukotxa ederrago da<br>Paskua-maiatzean.       |
| Udan udan udan<br>San Juanetan<br>dantzan eingo dogu<br>ifar airetan.<br>Ujuju<br>San Juanera goaz gu. | 04. Gure ortuan ginda lorea<br>San Juanetako heldua<br>San Juanak baino lehenago<br>gure usoak batua. |
| 02. Lirio lora ederra<br>jaio da bagilean<br>lora ederrez beterik dago<br>Paskua-maiatzean.            |   |



01. **Bagil:** ekain.  
**Motrailu:** mortairu, zurez edo metalez egindako ontzia, aleak xehatzeko etab.
03. **Baia:** baina.
04. **Ortuan:** baratzean.

## SAN JUAN BAGILEAN (II)

(Cancionero Popular Vasco, 1037 or., R. M. Azkue)

01. San Juan bagilean  
denpora ederrean  
edozein bedarrek usaina dauko  
Doniane goizean.
02. Ia da Doniane  
edo jentea triste dago  
San Juan bera bere  
loak hartuta dago
03. Atzo San Juan San Juan zan  
da gaur da San Juan Bautista  
Jesukristoren lehengusua da  
San Juan Ebanjelista.



01. **Bedar:** belar.  
**Dauko:** dauka.
02. **Bera bere:** bera ere.

## ITSU GAISOA

(Cancionero Popular Vasco, 987 or., R. M. Azkue)

Itsu gaisoa, zer eiten dozu  
pagu ondoan bakarrik?  
Tantian tiarian lairu  
pagu ondoan bakarrik.

## UPIN UPIN

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 378 or., R. M. Azkue)

Upin upin perrezil  
ahuntzen babak egosi  
gora ta behera nabilen artean  
txoritxu batek iruntsi.

## SAGUZARRA

(Zeanuriko kopia zaharrak, A. Arejita. Eusko Ikaskuntza - Sociedad de estudios vascos  
- Hizkuntza eta Literatura 2, 229. or. Ondorengoak ere sorta berekoak)

- |  |  |
|--|--|
| 01. Saguzarra<br>eutsi hagin zaharra<br>ekazu hagin barria<br>saguzar barregarria. | 02. Errotari<br>molinero<br>zahie janda<br>putze bero. |
|--|--|

03. Ababatxoa lo ta lo  
ze karajo ta ze koino  
ababatxoa lo doa  
arraino demoninoa.
04. Aita aita da ta  
Susulen berbe  
ama ama da ta  
Masuste berbe.
05. Txalopin txalo  
katutxoa mesmeruen  
ganean dago  
badago bego  
zapatatxo barrien  
begire dago.
06. Ababatxoa txingorrigau  
ez egin lorik basoan  
azagariak jan ez zagizen  
bildotsa zaralakoan.
07. Ababatxoa lo ta lo  
nik orain eta zuk gero  
zeuk gura dozun orduen baten  
biok egingo dogu lo ta lo.
08. Arakanatan  
akerra dantzan  
astoa biolin jotan  
azagarie sueri puzke  
erbie hurun eralten.
09. Eurie dakar menditik  
Naparroaren ganetik  
amak ogie labatik  
aitek ardaoa zahagitik  
edan mutilok gogotik.
10. Din dan  
nor hil da  
Peru zapatarie  
Zer egin dau pekatu?  
Auzoko txakurre urkatu  
hori baino egin ez badau  
beharko jakola parkatu.
11. Txilin txilin mañe  
bihar Santa Mañe  
etzi Domu Santu  
zeinek zuloan sartu.
12. Ama negarrez  
aita dolorez  
abadea kantetan  
eleizako atetan  
errealen pozez.



01. **Eutsi:** tori, har ezazu.  
**Ekazu:** ekarzu, ekar ezazu.
03. **Arraino:** arraio, barraban.
04. **Berbe:** beste aldaera batzutan berde  
ageri da.
05. **Mesmeru:** mizpira.
06. **Azagariak:** azeriak.  
**Ez zagizan:** ez zaitzan.
10. **Jakola:** zaiola.
11. **Domu Santu:** Domuru Santuru, Omnia  
Saindu, Santu guztien eguna.
12. **Kantetan:** kantatzen.

## DOMURU SANTURU

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 305 or., R. M. Azkue)

Domuru Santuru Santuru  
txarri handi bat hil dogu  
buztana ez bestea jan dogu  
bera lapikoan daukagu.



**Domuru Santuru:** Omnium Sanctorum, Santu guztien eguna.

## DRON DRON KELEDRON

(Euskalerrriaren Yakintza IV, 306 or., R. M. Azkue)

Dron dron keledron  
marabedian bost gizon  
ehun dukaten andrea  
hauxe dok denpora merkea.



**Marabedi:** marai, mari, antxinako diru mota bat.

**Dukat:** antxinako diru mota bat, balio handikoa.

## DONDON KANDEL

(Cancionero Popular Vasco, 624 or., R. M. Azkue)

Dondon kandel  
miko miko muskatel  
txiribiri gaina  
norezikan baina  
pera paruala  
txiribon txiribon.

## LOREN ARTEAN EDERRENA

(Cancionero Popular Vasco, 886 or., R. M. Azkue)

Loren artean ederrena  
Lirio maiatzekoa  
halan bere ta ederragoa  
San Juan Bagilekoa.  
Da San Juan, da San Juan  
beti zaukadaz gogoan.



**Halan bere:** hala ere.

**Bagilekoa:** ekainekoa.

**Zaukadaz:** zauzkat.

## ARRELA MARRELA

(Maria Astobiza - Orozko. Jon Aurre sorta)

Arrela marrela  
zerzelin  
kondilo-kandulo  
zelemedin  
bino ba-bil  
zalanadrin  
anatxo abe  
txokatapin.

## AINEKETIE

(Juanita Unzueta - Aramaio. Jon Aurre sorta)

Aineketie mozolinue  
danganilue lepuen  
ez dok hartuko  
bai dok hartuko  
gure umie lepuen.



**Ainekete:** arineketa, lasterketa, korrika.  
**Mozolinue:** beste aldaera batzutako *motxolina*, panpin antzeko irudi bat. *Mozolo* hitzetik segurrenik.

**Danganilue:** beste aldaera batzutako *domingiloa*, dantzarako erabiltzen den trapu-lastozko irudia.

### MUTIKOTIEI

(Juanita Unzueta - Aramaio. Jon Aurre sorta)

Antonio, Jeronimo  
Paskual, Bixente  
antxinako nobixie  
aurrian presente.



**Nobixie:** nobia, andregaia.

### OTXO POR OTXO

(Juanita Unzueta - Aramaio. Jon Aurre sorta)

Otxo por otxo  
Martina Potxotxo  
Santanako zubipeien  
bost txorikumatxo  
aite ta ama siete  
ta habixiaz otxo.



**Zubipeien:** zubipean.  
**Habixiaz:** habiarekin, kabiarekin.

### URRA PAN

(Juanita Unzueta - Aramaio. Jon Aurre sorta)

Urta pan pan Xixili  
jo lapikue ta itxuli  
urra pan pan Manuela  
antzarrak umie jan dauela  
antzarrak umie jan badau  
tripa zikin hori bete dau.



**Lapikue:** lapikoa, eltzea.  
**Itxuli:** itzuli, irauli.  
**Umie:** umea, haurra.

### IZENEKIKOAK

(Gure herrian, Etخانon, esaten genituenak)

-Bat, bi, hiru, lau  
Txominek andrie falta dau.

-Txomin, Txomin, txorijek hankan min.

-Nikolas, tripie bete okelaz.

-Esturoarra tirri tarra  
jan bedarra, bota uzkerria.

-Jose, janda beti gose  
edanda egarri  
Jose beti baragarri.



**Esturo:** gure etxetik hur zegoen Gorozikako auzo bat. Beste edozein auzo edo herri izeni aplikatzen zitzaion.

## AITE ETERNOA

(Ajangizko Biaskoa baserriko Gregoria Egia Bollar, 77 urtekoari, neuk jasoa).

Aite eternoa, lotara noa  
lagun zakidez, hiru aingeru  
bat buruen, bi oinetan.  
San Juan, nun dozu semie?  
Hortik gora doa, amandrie  
burua kargadurik  
gorputza llagadurik.  
Hau hiru bider esan ezker  
ez dago inpernure jausterik.



**Zakidez:** zaizkit.

**Amandrie:** *ama* hitzaren ordeko errespetoduna.

**Llagadurik:** zauriak eginik.

**Bider:** aldiz.

**Jausterik:** erortzerik.

## HIZTEGIA

Zerrenda honetan agertzen diren berba orokorretan ez ditut noski bakoitzaren azeptzio guztiak ematen, bizkaieran ezberdin direnak baizik. Horrela, esaterako, *lotu* aditzaren azeptzio ezagunak ez ditut izendatzen, Bizkaiko zenbait eskualdetako esanahi berezia baizik: *gelditu*, *geratu*.



## A

**Abade:** apez, apaiz.

**Abazuza:** txingor, kazkabar, harri, inetazi.

**Adi:** begira, beha, so.

**Aditu:** begiratu, behatu, so egon. / Ulertu, konprenitu.

**Adur:** ahotik erioten den ttua, listua. Inguru batzutan *adurra* gozoa, kutuna da, haurrena adibidez. Handienari edo higuina ematen duenari *lerdena* deritzo.

**Agiraka:** haserre edo errita eginez, akarka, larderiaz.

**Ahal:** desira edo itzaropena adierazten duen partikula. *Sendatuko ahal naiz:* hobe sendatuko banintz.

**Ahuspaz:** ahozpez, ahoz behera.

**Aiko:** hona, horra, hara. *Aiko hemen, aiko hor, aiko han:* hona hemen, horra hor, hara han.

**Aitita:** aitajaun, aitatxi, aitaxe, aitona.

**Aitaxe:** aitita.

**Aldats:** aldapa, malda. *Aldasgora, aldasbehera:* gorako malda, beherako malda.

**Aldendu:** urrundu, desagertu.

**Aldra:** talde, mordo, saldo.

**Altzo:** magal

**Amama:** amandre, amaxe, amatxi, amona.

**Amatatu:** iraungi, itzungi, itzali.

**Amaxe:** amama, amona, amatxi, amandre.

**Anae, anaje:** anai, anaia.

**Anda:** hilkutxa, zerraldo. / Gaisoak erama-

teko ohetxo. *Andan eraman:* zerbait bi edo gehiagoren artean bizkarrera jaso gabe eraman.

**Andari:** anda edo hilkutxa eramalea.

**Anega:** pisu neurria, berrogeita hamar kilo.

**Antxina:** aspaldi, duela anitz denbora.

**Apalazio:** Erregenetako, Errege egun inguruko kantuetan agertzen den hitza. Latinezko *apparitio*'tik, agerpena esan nahi duena.

**Apatx:** animalien hatzazala.

**Aratoste:** haragi uzte, ihauteri.

**Ardi:** kukuso, arkakuso.

**Arerio:** izterbegi, etsai.

**Arineketan:** lasterka, antxintxika, korrika.

**Arran:** arren, joare, zintzarri.

**Arren:** otoi, mesedez.

**Artasi:** guraize.

**Artez:** zuzen.

**Artxo:** bildots, arkume.

**Aspertu:** ase, asetu, nahikotu.

**Atarte, etarte:** atari, batez ere baserri batzuk ataurrean daukaten gune estali gabea.

**Atoian:** tiraka, beste zerbaiti loturik, rulota eraman ohi denez.

**Atondu:** konpondu, moldatu, eratu.

**Atxaki:** aitzaki.

**Aurretiaz:** aurrez, aldez aurretik, aintzinetik.

## B

**Baga:** bage, barik, gabe.  
**Bagakoa:** bagekoa, gabekoa.  
**Baia:** baina.  
**Baino ez:** baizik ez, besterik ez.  
**Bakoa:** bagekoa, gabekoa.  
**Baltz:** beltz.  
**Baltzio:** dantza lotua. *Vals'*etik.  
**Banakak:** bakanak, gutxi-gutxiak.  
**Banan, banango:** banaka, banakako.  
**Bape:** bat be, bat ere.  
**Bapere:** bat bere, bat ere.  
**Baratz:** mantso, bare, astiro.  
**Barberu:** sendagile, praktikante antzekoa.  
**Barraban:** barrabas, bihurri, gaizto.  
**Barre:** irri, parra.  
**Barren:** gauza baten beheko aldea. *Barrena:* gutxienez.  
**Be, bere:** ere.  
**Bedar:** belar.  
**Behar:** lan.  
**Behatz, bihetz:** zango edo hankako hatza. Eskukoa *hatza* edo *hatzamarra*.  
**Behingoan:** berehala, atoan.  
**Beilegi, belegi:** hori, laru.  
**Belu:** berandu, berant.  
**Berba:** hitz, ele.  
**Berebiziko:** Berarizko, aparta, zerbaiterako oso egokia.  
**Beste, besteko:** aina, ainako, bezanbat, bezanbateko.  
**Bez:** be ez, ere ez.  
**Birrindu:** xehetu, zehatu, txiki-txiki egin. *Ogi birrina:* ogi papurra.  
**Birritan:** bitan, bi bider, bi aldiz.

## D

**Deunge:** gaizto, zantar.  
**Dingiliz:** dingilizka, dilindan, zintzilik.

**Domun Santu:** domu santu, domuru santuru, omia saildu, santu guztien eguna.

**Dontsu:** dohatsu, santu.

**Dukat, duket:** antzinako txanpon bat, balio aldakorra, baina beti ere handia zeukana.

## E

**Ebagi:** ebaki.  
**Edegi, edei:** ireki, zabaldu.  
**Eden, edendu:** pozoin, pozondu.  
**Ederto:** ederki.  
**Eguno, egundo:** egundaino, inoiz, sekula.  
**Eho, eiho:** ehuna egin. / Aleak hirindu.  
**Ehule:** chungile, ehuna egiten edo ehotez dutena.  
**Ehun:** edozein motatako hari edo zuntzak elkar gurutzatuz egiten den materiala, oiha.  
**Ei:** omen.  
**Ekandu:** ohitura, aztura. / Ohitu.  
**Elaztun, eroztun:** eraztun.  
**Eli:** saldo, talde, samalda, multzo handia.  
**Enparadu:** gainerako, gainontzeko, beste guztiak.  
**Entzuna:** ospetsua, famatua.  
**Entzute:** ospe, fama.  
**Era:** aukera, egokiera. *Erara:* aukeran, modu egokian, alde.  
**Erabagi:** erabaki.  
**Eraitsi, eratsi:** jaitsi erazi, lurreratu, behera ekarri.  
**Eraso:** esan erazi, norbaitek ezkutuan daukana atera. / *Meza eraso:* bereter lana egin mezan, mezan apaizari lagundu.  
**Erdu:** zatoz, etor zaitez.  
**Ernegu, ernegatu:** haserre, haserretu, amorratu, amorratu.  
**Erralde:** pisu neurria, bost kilokoa.  
**Erramu:** erromeru. / Aste santuan sartzen den igandea.  
**Errime:** iaioa, zerbaiterako jite edo joera handia daukana.

**Erroi:** bele.

**Esamesa:** elemele, erran-merran.

**Esetsi:** eraso, ekin.

**Eskape, eskepe:** aterpe, lehorpe.

**Eskatz, eskaratz:** sukalde, sute.

**Eskegi:** eseki, dilindatu, zintzilikatu.

**Eskerga, eskarge:** izugarri handia.

**Ete:** ote.

**Ettagun:** etxejaun, etxejabe.

**Ettaguntza:** norbera den etxaldea.

**Etxe-kalte:** etxearentzat edo etxekoentzat txarra den pertsona, etxe hondatzailea.

**Etzun, etxun:** etzan

**Eutsi:** tori, har ezazu.

**Eutsiz:** har itzazu.

**Ezain, ezaindu:** itxurga, itxurgatu, deformatu, deformatu.

**Ezpa:** baizik, bestela.

**Ezpabe, ezpabere:** baizik, bestela.

**Ezpadaze:** baizik.

**Ezpan:** ezpain.

**Eztegu:** eztei.

## F

**Frakak, prakak:** galtzak.

## G

**Galazo, galerazo:** debekatu.

**Gan, ganean, ganera:** gain, ganean, gainera.

**Garau, garaun:** ale, bihi. / Burmuin.

**Garbai:** damu.

**Garbatu:** damutu.

**Gatx:** gaitz, kalte. / Gaitz, zail.

**Geli:** behikia, okela.

**Geriza, gerizpe, kerizpe:** itzal, itzalpe.

**Gitxi:** gutxi, gutti.

**Goien:** zerbaiten goiko aldea. Mendiaren

*barren-goienak:* mendiaren beheko eta goiko aldeak.

**Goitu:** goia hartu, garaitu, menperatu.

**Gomuta:** gogorapen, oroitzapen.

**Gomutatu:** gogoratu, oroitu.

**Gorpu:** gorputz hila, hilotza.

**Gura:** nahi.

## H

**Ha, hak:** hura, hark.

**Habia:** kabi.

**Hage:** etxe batean jatorriz edo herentzia datorren izaera. Esaterako, umeek gurasoen bizioaren bat, edo zorte txarren bat dakartenean, esan ohi da: *etxe horrek hagea dauka*.

**Halan, halango:** hala, halako.

**Hats:** kirats. *Usaina ona dok, hatsa dok txarra*.

**Hautu:** hautatu, aukeratu. / Solas, berrikeria, ele gaia.

**Hegaz:** hegan, airean.

**Hileta:** kexu solasa, beti txarra kontaktzen ari denarena.

**Hileta jo:** alde okerrak edo penazkoak kontaktatu.

**Hogerleko:** hogei errealeko, bost pezetako. Duroa.

**Holan, holango:** honela, honelako.

**Hordi:** mozkor, mozkorti.

**Hun:** muin, zerbaiten barneko gaia, hezurrena adibidez.

**Huri:** hiri.

**Hurrik emon:** antzik eman, zerbaitera inguratu.

## I

**Idun:** sama, lepo.

**Ijui:** irrintzi, zantzo.

**Iko:** piku, biku.

**Imina:** ale neurria, anega laurden.

**Imini, ifini:** ipini, ezarri, jarri.  
**Inausi, inosi, inusi:** zuhaitzari adarrak moztu.  
**Inetazi:** txingor, kazkabar, abazuza, harri.  
**Inude, inunde, unide:** beste baten haurra hazten edo bularra ematen dion emakumea.  
**Ira, iratze:** garo.  
**Irago:** igaro, iragan.  
**Iraitzi, iraizi:** jaurti, egotzi, indarrez bota.  
**Iraungi, itzungi:** itzali, amatatu.  
**Irontz:** ihintz.  
**Iretargi, itargi, idergi:** ilargi.  
**Irritu:** larritu, artega jarri. / Ernegatu, armindu, haserretu.  
**Itaun, itaundu:** galde, galdera, galdetu.  
**Itxi:** utzi, laga.  
**Itzal, itzel:** oso handia, oso ona.  
**Itzartu:** ernatu, esnatu.  
**Itzuli:** irauli.  
**Izara:** maindire, mihise.  
**Izako:** izeba.  
**Izilu, zizeilu:** eserleku luzea, mahaitzat ere moldatzekoa.  
**Izio, iziotu, ixotu:** piztu, izeki.

## J

**Jagi:** jaiki.  
**Jagon, jaban:** zaindu, begiratu.  
**Jantza:** dantza. Bizkaierarik gehienez ez da dantza esaten, *yantza, jantza* edo *jjantza* baizik.  
**Jaretxi, jaritxi:** erdietsi, lortu, eskuratu.  
**Jarki:** aurre egin, kontra egin.  
**Jausi:** erori.  
**Jazo:** gertatu.  
**Jezarri, jazarri:** eseri.  
**Juzgu, juzku:** eritzi, uste.

## K

**Kadera:** hanka, zango.  
**Kana:** luzera neurria, metroa baino zerbait gutxiago.  
**Kanpo-eder:** etxean ohi duen baino itxura hobe kanporatzen saiatzen dena, kanpoan ondo portatzen edo atsegina izaten saiatzen dena.  
**Karabi, karobi:** karea edo kisua egiteko hobia edo zuloa.  
**Karu:** kario, garesti.  
**Katigatu, katiatu:** lotu, estekatu, gatibu egin.  
**Kerexa, kerixa:** gerezi.  
**Koiu, koxu, kohidu:** harrapatu, hatzeman.  
**Kokot:** lepo edo samaren atzekaldea, garondo azpia.  
**Koltza:** ganbara antzeko gunea baserrietan.  
**Kopeta:** buruko ilez egiten den txorta luzea.  
**Korta:** ikuilu, tegi.  
**Koxo:** herren.  
**Kristinau:** giristino, kristau.  
**Kurtze:** gurutze.

## L

**Laban:** irristakor, lerrakor, labain.  
**Lain:** aina, beste.  
**Landa:** zelai, pentze, belaze.  
**Lango:** lako, bezalako.  
**Lantzean:** noizean, tarteka. *Lantzean bat:* noizean bat.  
**Lantzean-lantzean:** noizik noizera, noizean behin.  
**Lapiko:** eltze.  
**Laprast egin:** laban, irrist egin, lerratu.  
**Lar, larregi:** gehiegi.  
**Lata:** teila azpian sartzen den ohola.  
**Legez:** lez, bezala.  
**Leisiba, lixiba:** lisiba, garbi-ikuzirako likido alkalinoa.  
**Lisiba jo:** likido horretan edukitako arropa harri gainean jo. Oro har, garbiketa osoa.

**Lelo:** behin eta berriz errepikatzen den zerbait.

**Lepo:** bizkaierarik gehienez bizkarra. Gorputzaren eta buruaren artekoari sama deritzo.

**Linetazi:** txingor, kazkabar, harri.

**Loka:** koloka, ondo lotuta ez dagoena. / *Oilo loka:* oilo kolka.

**Lokatu:** kolkatu.

**Lorrin:** euriak ereiteko lurrean jartzen duen azaro likina, lehortu arte itxoian beharrekoa. / Lardaska, gauza taxu gabe eta nahasian egina.

**Lotu:** gelditu, geratu.

**Lupetz:** basa, lokatz, lohi.

## M

**Madari:** udare, txermen.

**Mailuki, mailubi:** marrubi.

**Makatz:** madari txertatu gabea. / Zerbait basa, landu gabea, berez datorren modukoa.

**Malmutz:** maltzur, azpikari.

**Mankatu:** kolpearen ondorioz zauritu.

**Marai, mari:** lehengo espainiar txanpon bat, *marabedia*.

**Mardo:** mardula eta sendoa, betea.

**Marro:** zerbaiten barruko hutsunea, haritzarena adibidez, barrutik huts dagoena.

**Marro egin:** zapuztu, engainatu.

**Merkatari:** erosle.

**Miesa:** mihise, lihoz edo kalamuz eginiko ehuna.

**Min:** mihi, mingain.

**Mizke:** edozer jaten ez duena, beti zerbait berriaren bila dabilena.

**Mosu:** mutur. Oro har, aurpegia. / Laztan, musu.

**Muna:** soro eta landa ertzeko lur zatia, belarrez estalia. Aldasbeheran dauden soroei egiten zaien jasounetxoa.

**Mustur:** mutur.

**Mutildu, muskildu:** moztu, bipildu, luma-tu, dena kendu.

## N

**Neba:** senideen artean neskaentzat mutila, arrebaren alderantzizkoa.

**Nabar:** kolore bat baino gehiago daukana.

**Nekezale, nekazale:** nekazari, baserritar.

## O

**Obatu, ebatu, oratu:** heldu, atxeki.

**Odoleste, odoloste:** odolki, odol egosia eta zenbait osagarri estean sarturik egiten dena.

**Oinaztu:** tximista, justuri, iortziri.

**Okan, okaran:** aran.

**Okela:** jaten den haragia. *Haragia:* gorputz bizian dagoena.

**Ola:** burdinola, burdina lantzeko lantegia.

**Oles:** agurra, batez ere atera heltzean egiten dena.

**Olgadu:** jolastu, jostatu, dibertitu.

**Olgetan:** jolasean, jostetan. / Txantxetan, benetaren alderantzizkoa.

**Ondamu:** bekaitz, inbidia.

**Ondino, oindino:** oraino, oraindik.

**Oneretxi:** maite izan. Maitasuna.

**Opa, opatu:** nahi izan, desiratu. / Eskaini.

**Orio:** olio.

**Orri:** hosto.

**Ortozik:** oin hutsik.

**Ortu:** baratz.

**Ortuari:** barazki.

**Osatu:** sendatu, gaisotasuna kendu.

**Oste:** atzean, zerbaitz handik dagoen gunea. / Ondorioa, atzea. *Mozkorrak oste txarra uzten du.* / Ondo, ondoren. *Jan ostean:* jan ondoan, ondoren.

**Ostean, ostantzean:** bestela, bertzenaz.

**Ostera:** berriz, berriro. / Joanetorria, itzulia.

**Ostu:** ebatsi, lapurtu.

**Otsain, otsein:** zerbitzari, morroi nahiz nekame.

## P

**Paratu, parau:** jarri, kokatu. *Parau hor:* jarri hor.

**Pasadizo:** gorabehera, gertakaria, pasatzen edo gertatzen den zerbait.

**Pentzutan, pentzudan, pentzuan, pentzura:** gorabehera, mendean, arabera. *Inoren pentzura egon beharra tristea dok:* besteren gorabehera egon beharra tristea duk.

**Postura:** apustu, joko, trabes.

**Pozarren:** poz pozik, arrunt pozik.

**Premina:** premia, beharizan.

**Proba:** dema, abereekin egin ohi den harri arrastea. *Gizon-proba:* gizonetzkoek egiten dutena.

**Probalari:** kirol horretan diharduena.

## S

**Sabai:** mandio, lastategi.

**Sama:** lepo, idun.

**Sats:** simaur, abereen azpi hartzitua, ongarritzat erabiltzen dena. *Satsa lez:* ugari, erruz. *Dirua satsa lez eduki:* satsa bezala, diru asko eduki.

**Sein:** haur. Seintxo: haurtxo.

**Siku:** lehor, idor.

**Solo:** soro, lantzen den lur zatia, belardia ez dena.

**Sorotsi:** begiratu, zelatatu, zaindu.

**Sunde:** kutsu, keru, usain.

**Sur:** sudur.

**Sute, suete:** sukalde.

## T

**Tarras, tatarrez:** herrestan, arrastaka.

**Tertzio:** tenore, ordu, sasoi.

**Topatu:** aurkitu, kausitu.

**Txairo:** dotore, txukun, airoso.

**Txapligu:** suziri, etxafero.

**Txarto:** gaizki.

**Txatal:** zati txikia, batez ere ehun, paper eta holakoena.

**Txikar, txiker, txikin:** txiki, tipi.

**Txindor:** txantxangorri, papargorri. / Txinor, betxindor, begian irteten den bekatxoa.

**Txito:** txit, oso, arrunt, biziki.

**Txurruplin, txurrunplet, txunpletin:** zurruta, batez ere edari alkoholikoena.

## U

**Udaguen, udagoien:** udazken, larrazken.

**Ugazaba, uzaba:** nagusi, patro.

**Ule:** ile.

**Untze, ultze:** iltze.

**Upa:** upel, kupel.

**Urin:** ur, jus, zuku.

**Uriola:** uhol, uholde.

**Urliak:** izenik zehaztu gabe aipatzeko era. *Urliak esan du:* halakok esan du. *Urliak hau, sandiak hori, berendiak hura.* Espainolezko *fulano, mengano y zutano* bezala.

**Urrin:** urrun, urruti.

**Urten:** irten, jalgi, atera.

**Usegi, usiki:** ausiki, kosk, horzka egin.

## Z

**Zaldar:** azal azpiko zelulak zoltzean sortzen den bikorra.

**Zan:** zain.

**Zapa:** ile, hari eta gisakoen multzo handia eta eragabea. / Behiei eta idiei, uztarri he-deek minik ez egiteko, bekokian jartzen zaien babeskia.

**Ze:** zeren, zerren.

**Zegan:** zer preziotan. *Zegan daukazuz intxaurrak:* zer preziotan daukazu intxaurrak.

**Zemai:** mehatxu.

**Zindo:** zuhaitz eta frutuetan ustelik edo harririk gabea. / Pertsonetan zintzoa, amarririk gabea.

**Zoli:** erne, argi.

**Zuhur:** argi, bizkor, oharkabea ezer pasatzen ez zaiona.

**Zurtu:** txunditu, harritu. Zur eta lur: erabat txunditurik.

**Zutundu:** zutitu, tentetu.

**Zutunik:** zutik, tente.

## ASTEAREN EGUNAK

**Astelehen**

**Martitzen:** astearte

**Eguazten:** asteazken

**Eguen:** ostegun

**Bariku, egu(b)akoitz:** ostiral

**Zapatu:** larunbat

**Domeka:** igande

## URTEAREN HILAK

**Urtarril**

**Zezeil:** otsail

**Marti, epail:** martxo

**Jorrail:** apiril

**Maiatz, lorail**

**Bagil:** ekain

**Garagarril:** uztail

**Dagenil:** abuztu

**Irail**

**Urri, urril**

**Zemendi, azil:** azaro

**Abendu, gabonil, lotazil**

Hauetatik, *martia* gaur ere erabilera osoan dago, *zezeil, epail, bagil* eta *zemendi* zenbait adinekoren ahoan entzun daiteke, eta besteak idatzietan aurkitzen dira.

## ADITZ FORMA OHIZKOENAK

## IZAN

**Naz, haz, da, gara, zara, zare-zarie, dira.**

**Naiak:** natzaik.

**Naiatzu-e, natxatzu-e:** natzaizu, natzaizue.

**Naiako, naiake:** natzaio, natzaie.

**Jat, jak, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake:** zait, zaik, zaio, zaigu, zaigu, zaizue, zaie.

**Jataz, jakak, jakoz, jakuz, jatzuz, jatzuez, jakez:** zaizkit, zaizkik, zaizkio, zaizkigu, zaizkizu, zaizkizue, zaizkie.

**Nintzan, hintzan, zan, ginan-gintzan-gintzazan, zinan-zintzan-zintzazan, ziran.**

**Nintzaan, nintzakon, nintzatzun, nintzatzuen, nintzaken:** nintzaian, nintzaion, nintzain, nintzaizuen, nintzaizen.

**Nintzake-nintzateke.**

**Nintzakik, nintzakio, nintzakizu, nintzakizue, nintzakie:** nintzaiake, nintzaioke, nintzaizuke, nintzaizueke, nintzaieke.

**Litzake-litzateke. Litzakit, litzakik, litzakio, litzakigu, litzakizu, litzakizue, litzakie:** litzaidake, litzaiake, litzaioke, litzaiguke, litzaizuke, litzaizueke, litzaiake. Litzakez-litzatekez.

**Litzakidaz, litzakizak, litzakioz, litzakiguz, litzakizuz, litzakizuez, litzakiez:** litzazkide, litzazkiake, litzazkiok, litzazkiguke, litzazkizuke, litzazkieke.

**Naiten, haiten, daiten, gaitezen, zaitezen, daitezen:** nadin, hadin, dadin...

**Zakidaz, zakiguz:** zakizkit, zakizkigu.

## EDUN

**Dot, dok, dau, dogu, dozu, dozue, dabe-daue-daude-deure-dabie-deurie:** dut, duk...

**Dodaz-ditut, dozak-dituk, dauz-ditu, doguz-ditugu, dozuz-dituzu, dozuez-dituzue:** bietara herrien arabera.

**Dabez-daez-daudez-deurez-dabiez-deuriez:** dituzte.

**Dautsat, dautzut:** diot, dizut.

**Dautsadaz, dautzudaz:** dizkiot, dizkizut.

**Daust-deust-dost-dust, dautsa-deutso, dauku:** dit, dio, digu.

**Daustaz, dautsoz, daukuz:** dizkit, dizkio, dizkigu.

**Dauste, dautse-dautsie, daukue:** didate, diote, digute.

**Daustez, dautsez-dautsiez, daukuez:** dizkidate, dizkiote, dizkigute.

**Neban-neuen, eban-zeban-zeuen, eben-zeben-euren:** nuen, zuen, zuten.

**Nebazan, ebazan, ebezan:** nituen, zituen, zituzten.

**Neutsan-neutson, neutzun:** nion, nizun.

**Neutsazan, neutzuzan:** nizkion, nizkizun.

**Eustan, eutsan-eutson, eutzun:** zidan, zion, zizun.

**Eustazan, eutsazan, eutzuzan:** zizkidan, zizkion, zizkizun.

**Neukez, heunkez, geunkez, zeunkez, zeunkiez, leukez, leukiez:** nituzke, hituzke, genituzke, zenituzke, zenituzkete, lituzke, lituzkete.

**Neuskik, neuskio, neuskizu, neuskizue, neuskie:** nizek, nioke, nizuke, nizueke, nieke.

**Leuskit, leuskik, leuskio, leuskigu, leuskizu, leuskizue, leuskie:** lidake, liake, lioke, liguke, lizuke, lizueke, lieke.

**Da(g)idan, da(g)ian, da(g)igun, da(g)izun, da(g)ien:** dezadan, dezan, dezagun, dezazun, dezazuen, dezaten.

**Daidazan, daizan, daiguzan:** ditzadan, ditzan, ditzagun.

**Daiala, daiela:** dezala, dezatela.

**Daizala, daiezala:** ditzala, ditzatela.

**E(g)idazu, e(g)iozu, e(g)guzu:**iezadazu, iezaiozu, iezaguzu.

## EKARRI

**Dakardaz, daka(r)z, dakarguz, dakaruz, dakarrez-dakardez:** dakartzat, dakartza, dakartzagu, dakartzazu, dakartzate.

**Nenkarzan, ekarzan, genkarzan, zenkarzan:** nekartzan, zekartzan, genekartzan, zenekartzan.

**Ekazu:** ekarzu.

**Beka(r)z, daka(r)zala:** bekartza, dakartzala.

## EROAN

**Daroat, daroak, daroa, daroagu, daroazu, daroazue, daroe-daroie:** daramat, daramak, darama...

**Daroadaz, daroazak, daroaz, daroaguz, daroazuz, daroazuez, daroaz-daroiez:** daramatzat, daramatzak, daramatza...

**Neroan, eroian-eroian, eroen-eroien:** neraman, zeraman, zeramaten.

**Neroazan, eroazan, eroezan:** neramatzan, zeramatzan, zeramatzaten.

**Eroaizu, eroaidazu, eroaiozu:** eramazu, eramaidazu, eramaiozu.

## EDUKI

**Dauka-dauko-deko, dauke-deke-dekoie-dekie:** daukate.

**Daukadaz, daukazak, daukaz, daukaguz, daukazuz, daukazuez, daukez:** daukatzat, daukatzak, daukaza, daukaguz, daukazuz, daukazuez, daukate.

**Neukazan, heunkazan, eukazan, geunkazan, zeunkazan, eukezan:** neuzkan, heuzkan, zeuzkan, geneuzkan, zeneuzkan, zeuzkaten.

## JAKIN

**Dakie:** dakite.

**Dakidaz, dakizak, dakiz, dakiguz, dakizuz, dakizuez, dakiez:** dakizkit, dakizkik, dakizki, dakizkigu...

**Ekien:** zekien, zekiten.

**Nenkizan, henkizan, ekizan, genkizan, zenkizan, zenkiezan, ekiezan:** nenkizkien, henkizkien, zekizkien, genkizkien, zenkizkien, zenkizkiten, zekizkiten.

**Banekiz, balekiz, begenkiz, bazenkiz, balekiez:** banekizki, balekizki, bagenekizki, bazenekizki, balekizkite.

## ESAN

**Dinot, dinok, dino, dinogu, dinozu, dinoe-dinue:** diot, diok, dio, diogu, diozu, diote.

**Dinodaz, dinozak, dinoz...:** esaten ditut, esaten ditut, esaten ditu...

**Dinost, dinotso, dinosku, dinotzu, dinotse:** esaten dit, esaten dio, digu, dizu, die.

**Ninoen, inoen, inuen:** nioen, zioen, zioten.

**Dinostaz, dinoskuz, dinotzuz:** esaten dizkit, dizkigu, dizkizu.

**Ninoezan, inoezan, inuezan:** esaten nituen, zituen, zituzten.

**Dirautsat, dirautsut, dirautsuet, dirautset:** esaten diot, dizut, dizuet, diet.

**Dirautsadaz, dirautsudaz...:** esaten dizkiot, dizkizut...

Bistan da bi aditz hauek, *esan* en esanahaia eduki arren, ez datozela aditz horretatik. *Esan* ek bazuen bere joko propioa. Liburu honetan hiru forma hauek agertzen dira: *besa*, *desadan*, *desagun*: esan beza, esan dezadan, esan dezagun.

## ERETXI-ERITXI

**Deritxat, deritxak, deritxo, derisku, deritxu, deritxue, deritxe:** deritzait, deritzaik, deritzaio, deritzaigu, deritzaizu, deritzaizue, deritzaie: deitzen naiz, deitzen haiz..., hots, halako izena eduki.

**Deritxot, deritxok, deritxo, deritxogu, deritxozu, deritxozue, deritxe:** deritzaiot, deritzaio..., hots, irizten diot, diok... iruditzain zait, zaik...

**Neritxon, eritxon:** neritzaion, zeritzaion, hots, irizten nion, zion, iruditzen zitzaidan, zitzaion.

## EGON

**Nago, hago, dago, gagoz, zagoz, zagoze, dagoz.**

**Nengoen, hengoan, egoen, gengoan, zengoan, zengozen, egozan:** nengoen, hengoan, zegoen, geunden, zeunden, zeundeten, zeuden.

**Gengokez, zengokez, zengokeze, legokez:** geundeke, zeundeke, zeundekete, leudeke.

**Bagengoz, bazengoz, balegoz:** bageunde, bazeunde, baleude.

**Nagoko-naiagoko, nagotzu:** nagokio, nagokizu.

**Dagot-iagot, dagoko-iagoko, dagoku-iagoku, dagotzu-iagotzu, dagoke-iagoke:** dagokit, dagokio, dakokigu, dagokizu, dagoke-iagoke.

**Begoz:** beude.

## IBILI

**Nabil, habil, dabil, gabiz, zabiz, zabize, dabiz:** gabilta, zabilta, zabilzate, dabilta.

**Nenbilen, henbilen, ebilen, genbizan, zenbizan, ebizan:** zebilen, genbiltzan, zenbiltzan, zebiltzan.

**Bagenbiz, bazenbiz, bazenbize, balebiz:** bagenbiltza, bazenbiltza, bazenbiltzate, balebiltza.

**Dabilt-iabilt, dabilko-iabilko, dabilku-iabilku, dabilzu-iabiltzu, dabilke-iabilke:** dabilkit, dabilkio, dabilkigu, dabilkizu, dabilkizue, dabilkie.

**Nenbilkon, nenbizun-nenbiltzun, nenbilken:** nenbilkion, nenbilkizun, nenbilkien.

**Ebildan, ebilkon, ebilgun, ebiltzun, ebilken:** zebilkidan, zebilkion, zebilkigun, zebilkizun, zebilkien.

**Bebiz:** bebiltza, ibil bitez.

## JOAN

**Noa, hoa, doa, goaz, zoaz, zoaze, doaz.**

**Noako, noatzu, noatzue, noake-noakie:** noakio, noakizu, noakizue, noakie.

**Ioat, ioako, ioaku, ioatzu, ioatzue, ioake:** doakit, doakio, doakigu...

**Beihoa:** bihoa, joan bitez.

## ETORRI

**Nator, hator, dator, gatoz, zatoz, zatoze, datoz.**

**Natorko, natortzu, natorke:** natorkio, natorkizu, natorkie.

**Iatort, iatorko, iatorku, iatortzu, iatorke:** datorkit, datorkio, datorkigu, datorkizu, datorkie.

**Gatorkoz, gatortzuz, gatorkez:** gatozkio, gatozkizu, gatozkie.

**Zatordaz, zatorkoz, zatorkuz, zatorkez:** zatozkit, zatozkio, zatozkigu, zatozkie.  
**Iatordaz, iatorkoz, iatorkuz...:** datozkit, datozkio, datozkigu...  
**Nentorkon, nentortzun:** nentorkion, nentorkizun.  
**Etordan, etorkon, etortzun:** zetorkidan, zetorkion, zetorkizun.  
**Gentozkon, gentortzun, gentozken:** gentozkion, gentozkizu, gentozkien.  
**Zentordazan, zentorkozan, zentorkuzan, zentorkezan:** zentozkidan, zentozkion, zentozki-  
gun, zentozkien.  
**Etordazan, etorkozan, etorkuzan, etortzuzan:** zetozkidan, zetozkion, zetozkigun, zetozki-  
zun.

## JARDUN-IHARDUN

**Dihardut, diharduk, dihardu, dihardugu, diharduzu, diharduzue, dihardue.**  
**Niharduen, hiharduen, ziharduen** (hark, eurek), **ginarduen, zinarduen** (zuk-zuek).

## IKUSI

**Dakust, dakus, dakuse:** ikusten dut, du, dute.  
**Nekusan, zenkusan:** ikusten nuen, ikusten zenuen.

## IRAKIN

**Diraki, zirakian:** irakiten du, irakiten zuen.

## ERAGO-ERAGON

Aditz honen jokoa guztiz galtzear dago. Nik neuk bakarria entzun dut Arratia aldean: *daragoio*. *Dihardu, ari da* esan nahi du. Bada esanahi berean beste aditz joko bat, oso ezaguna gaur ere Lea-Artibai inguruan:

**Deutsot, deusok, deutso, deusogu, deusozu, deusozue, deutse:** ari naiz, ari haiz...  
**Neutson, heuntson, eutson, geuntson, zeuntson, zeuntsoen, eutsen:** ari nintzen, ari hintzen, ari zen...

Aditz honek datiboa eskatzen duela badirudi ere, ez da horrela. Beraz, *lanean deutsot, dantzan deutse, zertan deusozu...* eta ez: *lanari deutsot, dantzari deutse* etab.

## ERDU, EUTSI

Bi aditz forma hauek oso erabiliak dira gaur ere, eta forma horietan fosildurik daude.

**Erdu:** etor zaitez, etor zaitetze. Gaur zuek subjektu denean, *erdue* edo *erduze* entzuten da.  
**Eutsi:** tori, har ezazu.  
**Eutsiz:** har itzazu.

## ZENBAIT ATZIZKI

**ETAN-ATEN:** pentsetan, kantetan, topetan, sometan... edo pentsaten, kantaten, topaten, somaten...: pentsatzen, kantatzen, topatzen, somatzen.

**TZEAN-TZIEN:** hartzean-hartzien, saltzean-saltzien, sartzean-sartzien...: hartzen, saltzen, sartzen.

**KETAN:** urketan, sinesketan, zabalketan, igarketan...: urtzen, sinesten, zabaltzen, igarketan.

**TAKO-TEKO:** pentsetako-pentsateko, kantetako-kantateko, parkatako-parkateko...: pentsatzeke, kantatzeke, parkatzeke.

**TZEAKO-TZIEKO:** hartzeako-hartzieko, saltzeako-saltzieko: hartzeko, saltzeko.

**TEA-TIE:** olgetea-olgetie, betetea-betetie, koloketea-koloketie...: olgatzea, betetzea, kolokateza.

**TUTEA-TUTIE:** apurtutea-tie, ostutea-tie, lagundutea-tie...: apurtzea, ostea-ostutzea, laguntzea.

**TUTEKO:** onduteko, hartuteko, biztuteko...: ontzeko, hartzeko, bizteko.

**TEARREN-TZEARREN:** jotzearren, egitearren, ikustearren...: jotzeagatik, egiteagatik, ikusteagatik.

**ADU-AU:** kantadu-kantau, paradu-parau, olgadu-olgau...: kantatu, paratu, olgatu.

**IDU:** mogidu, hornidu, sentidu, errendidu...: mogitu, hornitu, sentitu, errenditu.

**TZITU-TSITU:** silababakar batzuk adiztean: baltzitu, hatsitu, hotzitu, hutsitu, putzitu...: beztu, hastu-kirastu, hoztu, hustu, puztu.

**GINEN-GINAN:** kakaginen-ginan, ikazginen-ginan, hariginen-ginan, ogiginen-ginan: kaka egiten, ikatza egiten, haria egiten, ogia egiten.

**AZO-ERAZO:** atarazo, janazo, biztuazo, galazo...: atara erazi, jan erazi, biztu erazi, gal erazi.

**TAN:** iratan, egurretan, perretxikotan, behitan...: ira, egur, perretxiko, behi... bila ibili, haien garraioan ari.

**REAN:** idunerean, bentanarean: idunetik, bentanatik. Atzizki arkaikoa.

**GAZ:** nigaz, zugaz, gugaz, amagaz, hagaz, horregaz...: nirekin, zurekin, gurekin, amarekin, harekin, horrekin.

**KAZ:** Aurrekoaren plurala: zuekaz, eurekaz, txoriekaz, diruekaz...: zuekin, eurekin, txoriekin, diruekin.

**TX = ITZ:** bakotx, bikotx, gatx, hatx, ekatx, haretx...: bakoitz, bikoitz, gatx, haitz, ekaitz, hareitz-haritz.

**ZINO-SINO:** salbazino, okasino, parkazino, sesino...: salbazione-zio, okasione-sio, barkazione-zio, sesione-sio. N hori bizkaieraren eskualde askotan busti egiten da: salbaziñoa, salbaziñua, salbaziñue, salbaziñú...

**ZIÑOI-SIÑOI:** forma hau erabiltzen den leku guztietan bustitzen da N-a: leziñoia-leziñoie-leziñoi: leziñea-leziña.

**RO:** osoro, gozaro, dultzero, zintzoro, barriro...: osoki, gozoki, dultzeki, zintzoki, berriro.

**DO-TO:** ondo, txarto, ederto, hobeto, gaiztoto, zuzento...: ongi, txarki-gaizki, ederki, hobeki, gaiztoki, zuzenki.

**OK:** plural hurbila: danok, guztiok, gizakiok, begiok, ederrok: gu denak, gu guztiak, gu gizakiak, begi hauek, eder hauek. Aurreko hurbiltasuna ere izan daiteke. *Nok emon dautzuz begi ederrok:* norik eman dizkizu begi eder horiek.

**MUGATZAILEA:** A berezkoz amaitzen diren hitzak bizkaiera guztian batuaz ezberdin osatzen dira mugatzaile singularrean, subjektua, konplementua, datiboa, genitiboa, genitibotik harako atzizkietan, eta AZ-GAZ atzizkian eta ergatiboan. Har dezagun, adibidez, *berba* hitza. Subjektua: *noren berbea izan da?* Konplementua: *Berbea jan dozu.* Datiboa: *berbeari eutsi.* Genitiboa: *berbearen balioa.* Genitibotik harako atzizkiak: *berbearentzat, berbearekin...* AZ-GAZ atzizkia: *berbeaz* edo *berbeagaz.* Ergatibo singularra: *berbeak.* Jokaera honek, jakina, azpi-euskalkien aldaera guztiak hartzen ditu, eskualdeen arabera: *berbia-berbie- berbé-berbí, berbiak-berbiek-berbék-berbík,* etab.

Hori ez da gertatzen zenbait atzizkitan, non, nongo, nondik, nora... adierazten dutenetan. Hauetan batuan bezala dihardu. Beraz, *berban* (ez berbean), *berbako, berbatik, berbara...* Hauekin osaturiko atzizki bikoitzetan ere berdin noski: *berbarako, berbatiko,* etab.

Besteetan ere, plural mugatuan, ergatibo pluralean eta mugagabe guztian, batuan bezala deklinatzen da. Azalpen honek ez dauka guztizkoa izateko asmorik. Horretarako deklinabide eta atzizki zerrenda osoa zehaztu beharko genuke. Hemen handi-handika bururatu zaidana jarri dut. Eta garrantzitsuena duda gabe.

**ERAKUSLEAK:** aditzarekin batera, beharbada izenorde erakusleak dira bizkaieraz kanpokoei arraroen egiten zaizkienak.

**Hau-honek-honeik:** hau-honek-hauek.

**Hori-horrek-horreik:** hori-horrek-horiek.

**Ha-hak-harek-hareik:** hura-hark-harek-haiek.

Teorikoki eta zenbait idazkitan bereizketa honi eusten bazaio ere, berbakeran ez da ia inon errespetatzen, hizlari kulturen baten ahoan izan ezik, ergatiboa eta plurala nahasten direlarik. Horrela, berdin entzungo da: *ume honek zoratu behar nau,* nahiz *ume honek zoratu behar nabe-naute,* edo *sagar horrek kolore ederra dauka,* nahiz *emoizazuz sagar horrek-emaizkidazu sagar horiek.* Leku askotan azentuak bereizten du noiz den bata eta noiz bestea. Eta bestela kontextuak.

Horrez gainera, bizkaierarik gehienean erakuslea atzean nahiz aurrean nahiz bietan batera jartzeko ohitura—edo agian bizioa—dago. Honela: *gizon hori ondo ezagutzen dut,* nahiz *hori gizon hori ondo ezagutzen dut,* nahiz *hori gizona ondo ezagutzen dut.* Edo: *ume honek buru argia dakar,* nahiz *honek ume honek buru argia dakar,* nahiz *honek umeak buru argia dakar.* Edo: *diru horregaz ez dozu ezer egingo,* nahiz *horregaz diru horregaz ez dozu ezer egingo,* nahiz *horregaz diruaz ez dozu ezer egingo.* Erakusle hauek hizkeran etengabe biraka dabiltzanak izanik, ez da harrizkoa belarri ez-ohitua deskolokatzea, baita mintzea ere.

Azkenik, esan dezadan atal honetan emandako argitasunok bizkaierazko oihanaren argi-ikutu bat besterik ez direla. Ez du inola ere esan nahi forma horiek bizkaiera osoakoak direnik, hango edo hemengoak baizik. Baina baita ere bego argi ez direla lokalismo xeheak, denak ere esparru handi samarra hartzen dutenak baizik.



**PIEZEN  
AURKIBIDE  
ALFABETIKOA**

## A

Abadearen lapikotxua .....	171
Abadiñoko Karmentxu .....	63
Abarketak urratuta .....	164
Abel Muniategi sorta .....	96
Abendu bertsoak .....	316
Abereen izenak .....	213
Agate Deuna 1969 .....	149
Agostuaren (I) .....	226
Agostuaren (II) .....	228
Agostuen lelengua .....	82
Agur agur agur .....	72
Agur Balentin Berriotxo .....	509
Agur dolarezko ama .....	490
Agur euskaldunak (1826) .....	386
Agur Jesus Maria Jose .....	333
Agur zeruetako .....	514
Agura zaharra .....	219
Ai Alfara .....	631
Ai Anjela .....	168
Ai ene .....	629
Ai hau gabaren .....	331
Ai Mari Migel .....	165
Ai neure baltzerana .....	184
Ai Peru Peru .....	198
Ai ze polit pinpina .....	322
Ai ze gizon zuhurra .....	187
Aiko Juaniko .....	64
Aineketie .....	651
Aita San Antonio .....	505

Aita San Migel .....	64
Aite eternoa .....	654
Aitita dala .....	169
Aizazu txiki .....	176
Alabaren heriotza .....	582
Aldaztorrean .....	225
Altuan San Bernabe .....	73
Ama .....	203
Ama Birjina Begoñakuari .....	500
Ama Birjina eguna da ta .....	234
Ama Birjinearen barri onak .....	263
Ama Dontzeiliari zortzikua .....	458
Ama ezkondu (I) .....	228
Ama ezkondu (II) .....	229
Amaren alabarik .....	65
Ana birjina Orduñakoaren .....	502
Ana Juanita (I) .....	243
Ana Juanita (II) .....	244
Ana Juanixe (I) .....	238
Ana Juanixe (II) .....	241
Ana ta Jokin .....	330
Andra zantarrak .....	632
Andres Mandres .....	643
Antonek dauko .....	604
Antonio de Ribera .....	166
Antonio goiko kalekok .....	183
Anton Txikixanian .....	578
Antxinako kankak .....	309
Antxinatik egozan .....	319
Apalazio .....	344
Aramaioko kantea .....	30
Arana Goiriren heriotza .....	467
Arantzazu .....	237
Arantzazuko Jaungoikozko erromerian .....	493
Arantzazure joan behar det .....	236
Ardaotxo baltza .....	175
Arduaren ipuiak .....	549
Arin elexara .....	543

Arrasateko erreketeta .....	31
Arratoia hariletan .....	619
Arre katxutxa .....	629
Arrela marrela .....	651
Asier gehigarria .....	150
Asier saila .....	98
Aspaldion ez da .....	616
Asto bat daukat .....	180
Atsein handia da amore eutea .....	37
Atsoa zer dinoe .....	177
Atxia motxia .....	621
Atxie motxie .....	620
Atzo Bilbon .....	66
Atzo etorri jataz .....	224
Atzo goizean .....	639
Aztanen portalean .....	638

**B**

Bakarrik aurkitzen naz .....	262
Bakia bakia (1815) .....	359
Bart hamarretan .....	162
Bartolok .....	526
Baserritarra .....	623
Bat bi hiru lau .....	622
Bedinka gerta dedila .....	329
Behi arrandune .....	74
Behin joan nintzan .....	609
Bela bela jauna .....	610
Belen Belen .....	330
Belengo portalian .....	302
Belerego hurian .....	322
Berriatuko filarmonikie .....	552
Berrizko itsuari .....	124
Bertso berriak asto bateri jarriak .....	597
Bertso Bizkaitarrak .....	425
Biak Belenera .....	326

Biba tropa espainolak .....	326
Bidetar lohi bat .....	409
Bieta Santa Klara .....	256
Bira Bira Monte .....	644
Birjina Arratekoa (I) .....	269
Birjina Arratekoa (II) .....	271
Birjinearen gaba (I) .....	332
Birjinearen gaba (II) .....	332
Bizkaian ez da bihar (1824) .....	382
Bizkaiko .....	327
Bizkaiko tierras .....	165
Bizkaiko hatxurlari ta nekezale (1831) .....	397
Bizkaitar linargiak .....	433
Bizkaitar sendo bihotz handikuak .....	372
Bizkaitar sendo izugarriak (1818) .....	369
Botuak bila jauntxoak datoz .....	477

**C**

Canciones de los urbanos .....	444
--------------------------------	-----

**D**

Daigun ta daigun .....	321
Damukortan .....	606
Dan dan dan .....	325
Dantzadu daigun sonbrailu .....	605
Dantzari dantza .....	83
Dimako idiari .....	524
Din dan nor hil de .....	622
Domuru Santuru .....	649
Dondon kandel .....	650
Dringilin dron .....	618
Dron dron Keledron .....	649

**E**

Eder ederra .....	72
Edurra teilatuan .....	67
Eguen zuri .....	128
Eguen zuri koplak .....	133
Eguen zuri gordetan .....	127
Eguen zuriko eguna .....	130
Egun on Jainkoak .....	222
Eguna zala .....	230
Egune zala egune zala (I) .....	231
Egune zala egune zala (II) .....	232
Egune zala egune zala (III) .....	233
Ehuntegietan daukat .....	223
Eibarko Gabon kantak .....	311
Eisenhower .....	630
Emon emon .....	198
Ene astotxu mantxine .....	181
Ene begiakaz bihozeen artean .....	36
Enojadurik .....	266
Entzun egizuz .....	490
Erderaz Santa Klara .....	258
Erdu erdu erdu (1828) .....	392
Ermuko mutil gazte batek .....	555
Eroztunean .....	132
Erregelak .....	633
Erromerua .....	140
Esan dot lehen bere ta .....	73
Españako henbren kintiari .....	440
Estudiantea naiz .....	278
Eulogio Gorostiagaren bilduma .....	54
Ez daukat umorerik .....	535
Ez poztu neskatila .....	212
Ezkondurintzanean .....	215
Ezkongaiaren gainian .....	517

## F

Familia dot erdi bilosik .....	172
Frantziako bezperak .....	193
Fuenterrabia .....	170

## G

Gabon dala ona .....	334
Gabon gaueko afalorduan .....	315
Gabonak eta Erregenak .....	308
Gaixorik hago .....	603
Gaminde gehigarria .....	154
Gaur gabon gaba .....	324
Gautxu baten .....	209
Gazte soltero nago .....	571
Gazteak badakizu .....	68
Gertu Españatarrak .....	432
Gizaburuaga .....	132
Gizon ta andra (1814) .....	356
Gizonak ez dau behar .....	180
Goazen goazen .....	342
Goizean Parisen .....	161
Goizean zala baina .....	219
Goizeti jagi zara I .....	219
Goizeti jagi zara II .....	220
Gora gora .....	68
Gorogi .....	443
Gure herrien dago gizon bat .....	479
Gure irakasle Sabinen gomutaz .....	482
Gure Sebero .....	576

## H

Hamar marinel ito dirade .....	575
Hartu gaizuz ama .....	491

Hasiak egina dirudi .....	62
Hasiko naz albiste hau .....	328
Hauteskunde edo elezinoietakuak .....	475
Heldu dira jentiak (1804) .....	417
Hiru errege .....	339
Hiru errege magoak .....	611
Hiru lau txokolateak .....	70
Horrako goiko otia .....	143
Horra hor goiko .....	160
Horra nun dagoan .....	613
Horra nun doian .....	337

## I

Ia dirade hirurogei urte .....	261
Igaz soloan .....	627
Iunabarrian saiatu nintzan .....	211
Indietako apostolua .....	504
Iñaki Gaminde saila .....	115
Iretargiak argi eiten dau .....	204
Itsue gaisoa .....	647
Itsue eta eskribaua .....	167
Iurretako Santa Agedak .....	146
Izagirreko idi nobliak .....	562
Izar ederrak (I) .....	205
Izar ederrak (II) .....	206
Izar ederrak (III) .....	207
Izar guztien argi (1828) .....	390
Izenekikoak .....	653

## J

Jagijentia .....	336
Jaio da .....	342
Jaun Diaoz Arokoa .....	34
Jaun Zuriano .....	267

Jaungoikua ta herria .....	436
Jesus Ave Maria .....	341
Jesus eskatzen deusut .....	492
Jesus jaio baino lehenago .....	297
Jesusen Jaiotza Bermeon .....	303
Jesusen jaiotzea .....	419
Joan nintzan Madrilera .....	625
Joan nintzan merkatura .....	609
Jon Aurre sorta .....	89
Jose de Larrinaga .....	594
Jose Mondragok deko .....	194
Jose Mondragonek .....	195

**K**

Kaliforniako mendian .....	558
Kalzakorta saila .....	103
Kandelera, kandelario .....	611
Karatula sorki .....	612
Katigatu ninduzun librea ninzana .....	37
Keia Keia Mendira .....	613
Kepa Arrizabalaga sorta .....	77
Kintotik septimorarte .....	471
Kirikiño hiltzean .....	465
Konstituzinoeko damiaren asmuak zortzikuan .....	453
Konstituzinoeko damiari zortzikua .....	446
Kristinau onak .....	489
Kukua eta amilotsa .....	160

**L**

Landa ederretan .....	73
Langostatan .....	574
Lapur famatua .....	585
Lapur famatua (I) .....	590
Larrosa krabel .....	267

Lastozkoa bentanie .....	119
Lau areoplano .....	628
Lauko laburrak soinu zalentzako .....	494
Laztanen portalean .....	159
Lehen zazpi kana .....	624
Leisibatxu zuria .....	221
Lelo .....	29
Leon-Maurizia-Fasio .....	79
Lo, lo lo .....	637
Loren artean ederrena .....	650
Lotxo bat eta lotxo bi .....	642
Londresen dot neure senarra .....	189
Lumoko Eulali .....	568

**M**

Maitia nahi badozu .....	122
Manuel Lekuonaren bilduma .....	50
Maria Eugenia saila .....	101
Maria Josepa Lakabeko .....	276
Marijese koplak batzuk .....	310
Marijesiak .....	285
Mari kortederreko .....	162
Mari Peliz .....	177
Mari Trapuzar .....	75
Maritxu Mendaroko .....	533
Martin Joanes .....	38
Matxalen Busturiko .....	216
Mendi goietan .....	178
Milia Lasturko .....	33
Mutikotiei .....	652
Mutil .....	70

## N

Nahi duen ezkerro .....	335
Nere maitea, maite polita .....	636
Nere maite polita .....	189
Neska soldadua .....	272
Neskatila gazte batek .....	74
Neure alaba Manuelatxu .....	185
Neure astotxu maltzina .....	608
Ni Mendixara .....	616
Nik badaukat alkondarea .....	173
Nor nor? Hirutik bat (1803) .....	404
Nora izan zara Mari .....	217
Nundik hator astoa? .....	173

## O

Oh gau ederra (1831) .....	395
Oh txit, oh polit (1803) .....	406
Oi bart .....	618
Oies .....	159
Oilaskotxua hariletan .....	607
Oinetako lur hau .....	35
Olaso .....	32
Oles nor da gau erdian (1815) .....	364
Olgadu nahi dabenak .....	75
Ondarroako arrainari (1890) .....	579
Ondarruatik Itziarrera .....	515
Orbelak airez airez .....	249
Oromiñoko abendua .....	300
Orriak airez aire .....	247
Otsainaren kantua .....	208
Otxandioko errementariak .....	603
Otxandioko makailaua .....	566
Otxo por otxo .....	652

## P

Paskualatxu .....	246
Pastorcitos a Belen (1815) .....	361
Pelotiaren gaineko .....	527
Perretxikotan .....	191
Perretxikotan nenbilenean .....	192
Perutxoren kanta .....	35
Petratxu .....	631
Prantzie-kortekoa .....	250
Prantzie-kortekoaren gehigarriak (I) .....	252
Prantzie-kortekoaren gehigarriak (II) .....	255

## R

Rodas eta Aznar (1896) .....	463
------------------------------	-----

## S

Saguzaharra .....	647
Salinasko kontea .....	32
Saltulari Kaminok .....	197
San Antonio Santu handia .....	539
San Inazio Loiolakori gozuak .....	497
San Joan .....	644
San Juan .....	645
San Juan bagilean .....	174
San Juan bagilean (I) .....	645
San Juan bagilean (II) .....	646
San Kasiano .....	129
San Migel dogu .....	511
San Nikolas .....	136
San Nikolas Koronado .....	137
San Nikolas Koronero .....	138
San Martin .....	201
San Pedro eta zerura doana .....	264

San Pedro zeruetako .....	617
Sandailia .....	30
Santa Ageda .....	138
Santa Ageda abestiak .....	147
Santa Ageda koplak Iurretan .....	144
Santa Agedak .....	141
Santa Luzietan .....	71
Santulari zetan doa .....	179
Sarri askotan ibiltzen dala .....	169
Sasiak sortzen direz .....	485
Sehazkakoak eta beste batzuk .....	640
Seineru gaizto .....	643
Solora ninoala .....	188

**T**

Tan parran patan .....	625
Tomas abade dago .....	343
Txomin eta Erróse .....	523
Txakur famatua da .....	279
Txantonek ei dekola .....	196
Txapel igerrek .....	624
Txingilin txingilin .....	615
Txintxin txirrikitin .....	614
Txioka dago mirua .....	131
Txirin txanketan .....	607
Txomin ze ordu de? .....	200

**U**

Uda barriko .....	163
Udabarria datorrenean .....	163
Udabarrian .....	245
Udiarragan dingiliz dago .....	542
Uauatxoa lo lo lo .....	635
Uauatxoa lo ta lo .....	636

Ume eder baten bila .....	302
Una canciones nuevas .....	531
Upin upin .....	647
Urdaibaiko Marijesiak .....	293
Uribarriko lirio eder .....	512
Urkiolarajoan .....	167
Urta pan .....	653
Urrexolako gudua .....	32
Urte barri .....	345
Urte barri barri .....	343
Urte guztietako (1794) .....	353
Urteizu jentea .....	324
Usoak .....	186
Uso zuri eder bat .....	260
Uzaba, nahi badozu .....	277

**Z**

Zamalloa marijesiak .....	305
Zeanuriko eliza erretzea .....	545
Zeanuriko koplak zaharrak .....	41
Zer da gaur dakuskuna (1820) .....	378
Zer da gaur jazo dana (1818) .....	366
Zerua dago argi (1832) .....	401
Zeruko ejertzituak (1801) .....	412
Zeruko erregea .....	338
Zetan zoaz ferira .....	218
Zortzi dira lehenguak .....	473
Zungulu bedarrarenak .....	190
Zure begi ederrok .....	36



Erabili ditudan iturri nagusien aipua egitean, hona garrantzitsuenak zeintzuk izan diren:

- Euskalerrriaren Yakintza* IV. R. M. Azkue.
- Cancionero popular vasco*. R. M. Azkue.
- Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore, 1921, 1922, 1930 eta 1933*.
- Idazlan guztiak. 1. Aozko Literatura*. Lekuona'tar Manuel.
- Eusko Ikaskuntza. Sociedad de estudios vascos*. Cuadernos de sección. Hizkuntza eta Literatura 2.
- Auspoa Bilduma*. A. Zavala.
- Dantzari dantza*. Gerediaga 3. aroa, 3. zenbakia. Gerediaga Elkartea, Durango. Iraila, 1983.
- Coplas de romería y cuestación en Bizkaia*. Asier Astigarraga Zelaia. Labayru Ikastegia. Bilbao. Actes del colloqui sobre cançó tradicional. Reus, setembre 1990. Biblioteca Abat Oliba, publicacions de L'Abadia de Montserrat.
- Ahozko literatura: genero txikiak*. Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, José Ignacio López de Luzuriaga. Gauontza sorta, Labayru Ikastegia.
- Euskeraren Iker Atalak*. Labayru Ikastegia. Zenbaki asko dira eta ateratzen jarraitzen dute.
- Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta*. Labayru Ikastegia. Zenbaki asko dira eta ateratzen jarraitzen dute.
- Doinu Zaharren Inguruan*, U.E.U. Agurtzane Zubikarai, Marta Fuidio, Maria Pilar Calvera, Olatz Narbaiza, Miren Barrutia, Amaia Gorosabel, Amaia Agirre, Pili Castro, Juan Mari Beltran, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Joxe Ramon Arbe.
- Euskal Baladak - Bigarren liburua*. Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell.
- Literatura oral vasca*. Manuel de Lekuona. Kardaberaz bilduma, 22 - B.
- Aratosteak Durangaldean*. Gerediaga Elkartea. Durango.
- Bonaparteren mikrofilmeak*. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka. Bilbo.
- Baskischen Sprache, 1967*. Anthropological publications Oosterhout. Niederlande.
- Textos arcaicos vascos*. Koldo Mitxelena.
- José Miguel de Barandiaran - Obras completas. Eusko-Folklore - II*. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca.
- Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XI eta XVIII.

Hauen artean ere, batzuk besteak baino emankorragoak izan dira noski. Hona behinenak: Azkueren *Cancionero Vasco* eta *Euskalerrriaren Yakintza IV*, *Bonaparteren mikrofilmeak*, *Auspoa bilduma*, Gerediaga

Elkartearen *Dantzari dantza* eta *Aratosteak Durangaldean, Doinu zaharren inguruan, Eusko-Folkloreko urtekariak, Euskal baladak - Bigarren liburua*, eta *Labayru Ikastegiaren argitalpenak*, batez ere *Idatz-Mintz* eta *Euskeraren Iker Atalak*. Hauetan izen garrantzitsu asko aurkitu dut: Adolfo Arejita, Asier Astigarraga, Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Jabier Kalzakorta, I. Etxebarria, J. Ibarra, Xabier Alzibar... Bizkaieraren ahozko altxorra jasozten eta aztertzen duen, eta zorionez luzaro jarraitzeko antza daukan lantalderik garrantzitsuenak Labayru Ikastegiaren inguruan dihardu.

Hona orain erabili dudan beste zenbait iturri:

- Gure kantuak*. Udako Euskal Ikastaroa. Derio, 1991. Labayru Ikastegia.
- Berriatuko Jose Luis Basterretxea "Altzalei" bertsolariaren etxeko *bertso-paperak*.
- Alboka eta trikitrixa*. Leon - Maurizia - Fasio. Xoxoa diskak, Autapen SA.
- Milla Euskal Olerki Eder*. A. Santiago Onaindia.
- Ondarru: kantu, otoi, orru...* Ondarroako kultur etxearen argitarapenak. 1984.
- Treiñeru estropadak. Ondarroa'ko Talaitik. 1865-1970*. Agustin Zubikarai.
- Zer*. Aldizkaria. 1984, 77. zenbakia.
- Eibar* aldizkaria.
- Durangoko Plateruak*. Antton Mari Aldekoa-Otalora. Gerediaga Elkartea. Durango.
- Villancicos de Navidad en vascuence. Gabonetarako kantak*. Bittor Gaubeka Duo. Librería Gaubeka. Gernika.
- Euskalzale*. Aldizkaria.
- Ermitas de Bizkaia, Tomo II*. Gurutzi Arregi Azpeitia. Diputación Foral de Bizkaia. Instituto Labayru. Bilbao, 1987.
- Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaino*. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa.
- Ibaizabal* aldizkariak. Bata Bilbokoa, mendearen hasera ingurukoa, eta bestea Durangokoa, oraintsukoa.
- Bermeo-6. 1986-87*. UETENA Taldeak. Urtekaria.
- Antología de poesía popular vasca*. Juan Gorostiaga. Biblioteca vascongada de los amigos del país.
- Ondarruko bertso ta abestiak*. Jose Mari Etxaburu.
- Bertso berri ta kanta zar (I)*. Karmel aldizkariaren ardurapean.
- Euskal Kantak*. Euskaltzaindiak 1960. urtean argitaratua.

Badira gero handik-hemendik eskuratu ditudan separata eta paper solteak, banaka izendatzerik merezi ez dutenak. Paperok batzutan orbel galduak bezala etorri zaizkit eta gehienez jarraian izendatuko ditudan sorta edo karpetetan. Iturri hauek oso garrantzizkoak izan dira, askotan textu berriak aportatu bait dituzte. Hona izen oparoenak:

*Arana Martija Jose Antonio*, euskaltzaina. Gernika.

*Aurre Jon*, irakaslea. Zornotza.

*Enbeita Jon*, bertsolaria. Muxika.

*Zubikarai Agustin*, idazlea. Ondarroa.

Badira gero beste batzuk, beherago aipatzen ditudanak, banaka ekarri laburragoak izan arren, denen artean oso sare garrantzitsua osatu dutenak.

Esan dezadan azkenik paper eta separata solte asko Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Bibliotekan aurkitu dudala, Jose Antonio Arana Martijak eta batez ere Begoña Olabarriak lagundurik.

Hona orain autore eta kolaboratzaile guztien zerrenda alfabetikoa. Izen batzuk bi zerrendetan agertzeak bietan dagokiela esan nahi du, bai autore eta bai kolaboratzaile gisa erabili ditudalako.

## AUTOREAK

### Aldekoa-Otalora, Antton Mari:

- Durangoko Merinaldeko Dantzari Dantza*. Dantzari Dantza. Gerediaga. 3. aroa. 3. zenbakia. Gerediaga Elkartea.
- Doinu zaharren inguruan*. U.E.U. Hamaika partaideren artean.
- Eguen zuri*. Aratosteak Durangaldean. Gerediaga Elkartea. Durango.
- Durangoko Plateruak. Gerediaga Elkartea. Altube Seber: *-Antxinako kantak*. Orri solte bat, *Altubetar Seberrek papeleratua* diona.

### Alzibar, Xabier:

- Durangaldeko Andre Mari eta Gabon-kanta zahar batzuk zortzikoan*. Euskeraren iker atalak 6, 46. or.

**Amuriza, Xabier:**

–*San Antonio santu handia*. Egin, 1985-4-20, Jaiegin saileko Herri eta Irri.

**Angoitia, Garbiñe:**

–*Abadearen lapikotxua*. Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta 12, 17. or.

**Arbe, Jose Ramon:**

–*Doinu zaharren inguruan*. U.E.U. Hamaika partaideren artean.

**Astigarraga Zelaia, Asier:**

–*Coplas de romería y cuestión en Bizkaia*.

**Arejita, Adolfo:**

–*Zeanuriko koplak zaharrak*. Eusko Ikaskuntza - Sociedad de estudios vascos. Cuadernos de sección - Hizkuntza eta Literatura 2, 222. or.

–*Iretargiak argi eiten dau*. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 5, 10. or.

–*Mendebaldeko euskal baladen antologia*. (A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra). Euskeraren iker atalak 5.

–*Arantzazure: Erromantze zahar ezezagun bat*. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 3/4, 29. or.

–*Ana Juanita Erromantzea - Eredu barriak (eta bigarren parte)*. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 7.

–*Orriak airez aire: Jainko giroko balada kantu bat*. Idatz-Mintz - Literatur atalen sorta 9, 26. or.

–*XVII. mendeko Bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: ENOJADURIK*. Euskeraren iker atalak 5, 16. or.

–*1801.eko Gernikako Gabon kanta bat*. Euskeraren iker atalak 6, 9. or.

–*Botazinoetako bertsoak*. Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta 12, 16. or.

–*San Antonio santu handia*. Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta 9, 18. or.

**Arregi Azpeitia, Gurutzi:**

–*Ermitas de Vizcaya. Tomo II*.

**Barandiaran, Jose Miguel:**

–*Obras completas, Eusko-Folklore II*.

**Karmel aldizkariaren ardurapean:**

–Bertso berri ta kanta zar (I).

**Azkue, R. Maria:**

–*Euskalerraren Yakintza*.

–*Cancionero Vasco*.

**Beltran, Juan Mari:**

–*Doinu zaharren inguruan*. U.E.U. Hamaika partaideren artean.

**Billelabeitia, Miren:**

–*Poesía Bascongada - Dialecto Vizcaíno*. Jose Antonio Uriarte.

**Biguri, Koldo:**

–*Euskal Baladak - Bigarren Liburua*. (Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell)

**Bonaparte, Luis Luziano:**

–*Bonaparteren mikrofilmak*. Azkue biblioteka. Euskaltzaindia. Bilbo.

**Egillor, Bego:**

–*Abadearen lapikotxua*. Idatz-Mintz, Literatur atalen sorta 12, 17. or.

**Etxaburu, Jose Mari:**

–*Ondarruko bertso ta abestiak*.

**Etxebarria, Igone:**

–*Arantzazu y Arrate en el cancionero tradicional vasco*. Actes del Colloqui sobre cançó tradicional. Reus, setembre 1990.

–*Mendebaldeko euskal baladen antologia*. (A. Arejita, Ibone Etxebarria, J. Ibarra). Euskeraren iker atalak 5.

**Etxenagusia, Karmelo:**

–*Euskal idazleak bizkaieraz*.

**Etxezarraga, Jesus A.:**

–*Laztanen portalean*. Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta 1, 7. or.

**Fasio:**

–*Leon-Maurizia-Fasio. Alboka eta trikitixa*. Xoxoa diskak. Autapen, SA.

**Gaminde, Iñaki:**

–*Umeentzako ehun kanta Bizkaiko*. Euskeraren Iker Atalak 6, 57. or.

–*Urduliz ingeru, berbak eta bizimodu*.

**Gaubeka, Bittor:**

–*Gabonetako kantak, Gernikan eta albo-herrietan kantetan diran lez*. Librería Gaubeka Gernika.

**Gorostiaga, Eulogio:**

–*Cantares recogidos en Zeanuri por Eulogio Gorostiaga*. Anuario de Eusko-Folklore, 1930, Tomo X, 7. or.

**Gorostiaga, Juan:**

–*Antología de Poesía Popular Vasca*.

**Ibarra, Jaione:**

–*Mendebaldeko euskal baladen antologia*. (A. Arejita, I. Etxebarria, J. Ibarra). Euskeraren iker atalak 5.

**Kalzakorta, Jabier:**

–*Sehaska kantak. Ahozko Literatura: genero txikiak*. Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, José Ignacio López de Luzuriaga.

**Kortazar, Jon:**

–*Poesía Bascongada - Dialecto Vizcaíno*. Jose Antonio Uriarte.

**Lakarra, Joseba:**

–*Euskal Baladak - Bigarren Liburua*. (Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell)

–*Bertso Bizkaitarrak*. Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo XVIII - 2 - 1984, 96. or.

**Lekuona, Manuel:**

–*Cantares recogidos por Manuel de Lekuona*. Anuario de Eusko-Folklore, 1930. Tomo X, 37. or.

–*Cantares coreográficos - Fandango, danza de pandereta o trikiti*. Idazlan guztiak 1. Aozko Literatura. 37. or.

–*Idazlan guztiak 1. Aozko Literatura*.

–*Literatura oral vasca*.

–*Santa Klararen kantak*. Idazlan guztiak 1. Aozko literatura, 469. or.

**Leon:**

–*Leon-Maurizia-Fasio. Alboka eta trikitixa*. Xoxoa diskak. Autapen, SA.

**Markaida, M. Eugenia:**

–*Umeen hizkuntza eta lexikoa. Ahozko Literatura: genero txikiak*. Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, Jose Ignacio López de Luzuriaga.

–*Jaun Zuriano baladaren eredu berria eta azterketa*. Euskeraren iker atalak 5.

**Kalzakorta, Jabier:**

–*Sehaska kantak. Ahozko Literatura: genero txikiak*. Maria Eugenia Markaida, Iñaki Gaminde, Sabin Barruetabeña, Jabier Kalzakorta, Jaione Ibarra, Jose Ignacio López de Luzuriaga.

**Mardaraz, Kristina:**

–*Oromiñoko abendua*. 1969, zemendiak 7.

**Maurizia:**

–*Leon-Maurizia-Fasio. Alboka eta trikitixa*. Xoxoa diskak. Autapen, SA.

**Mitxelena, Luis:**

–*Textos arcaicos vascos*.

**Onaindia, Aita Santi:**

–*Mila euskal olerki eder*.

**Sagarna, Izaskun:**

–*Abadearen lapikotxua*. Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta 12, 17. or.

**San Martín, Juan:**

–*Eibarko Gabon kantak*. Eibar aldizkaria, 1986ko abendua, 287. zenbakia.

–*Ai Mari, ai Jose*. Hoja del Lunes, 27 de diciembre de 19... (Azken zenbakiak ez dira irakurtzen).

**Sarasola, Ibon:**

–*Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, XI.

**Txistularre:**

Izenordea, Euskalzale, 405. or.

**Urgell, Blanka:**

–*Euskal Baladak - Bigarren Liburua.* (Joseba Lakarra, Koldo Biguri, Blanka Urgell)

**Uriarte, Jose Antonio:**

–*Poesía Bascongada - Dialecto Vizcaíno.* Jon Kortazar, Miren Billelabeitiak prestaturiko edizioa.

**Zamalloa, Felix:**

–*Fiestas populares.* Anuario de Eusko-Folklore II, 1922, 81. or.

**Zavala, Antonio:**

–Noeren ontzia. Auspoa 136.

–Karliten lenengo gerrateko bertsoak. Auspoaren sail nagusia-4, 137-141.

–Frantsesteko bertsoak (I). Auspoa 212.

–Ezkondu beharreko bertsoak. Auspoa 187.

–Ameriketako bertsoak. Auspoa 176.

–Euskal jokoak bertsoan (II). Auspoa 183.

**Zubikarai, Agustin:**

–*Ondarru: kantu, otoi, orru....* Ondarroako Kultur Etxearen argitarapenak, Agustin Zubikarairaren zuzendaritzapean.

–*Treñneru estropadak. Ondarroako Talai'tik. 1865-1970.*

**KOLABORATZAILEAK**

*Aldekoa-Otalora, Antton Mari.* Idazlea. Iurreta.

*Arana Martija, Jose Antonio.* Euskaltzaina. Gernika.

*Arregi, Joseba.* Bertsolaria. Berriatua.

*Arrizabalaga, Kepa.* Panderojolea. Gatika.

*Arrizabalaga, Kepa.* Itsasgizona. Ondarroa.

*Aurre, Jon.* Irakaslea, Zornotza.

*Barcelo, Fermin.* Irakaslea. Berrizko Andikoa.

*Basterretxea, Jose Luis.* Bertsolaria. Berriatua.

*Egia Bollar, Gregoria.* Baserritarra. Ajangiz.

*Elgetzu, Pello.* Irakaslea. Mallabia.

*Enbeita, Jon.* Bertsolaria. Muxika.

*Legarreta, Asier.* Bertsozalea. Mungia

*Lopategi, Jon.* Bertsolaria. Muxika.

*Muniategi, Abel.* Abokatua. Ereño.

*Sardui, Deunoro.* Bertsolaria. Muxika.

*Uribe, Julen.* Argazkilaria. Berriz

*Zubikarai, Agustin.* Idazlea. Ondarroa.

Hauen artean neure burua ere sartu beharko dut, zenbait gauzatan bera izan bait dut iturri.